ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 1997. URTEA

# ARARTEKOAREN TXOSTENA
# EUSKO LEGEBILTZARRARI
# 1997. URTEA

ARARTEKO
Itzulpena: Josu Zabaleta eta itzultzaile talde bat
Fotokonposaketa: Josu Zabaleta eta Aintzane Atela
Fotolitoak: VideoCys
Inprimaketa: Graficas Santamaria S.A.
Paper erreziklatua
ISBN: 84 - 89776 - 05 - 9
L.G.: VI 150 - 98

ARARTEKO

# EUSKO LEGEBILTZARRARI

# TXOSTENA

# 1997

# AURKIBIDEA

**I. ATALA. AURKEZPENA**............................................................ 21

**II. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK**............ 25

2.1.OFIZIOZKO JARDUERAK ............................................. 28

2.1.1. Aurreko urteetan aurkeztutako ezohiko txostenetan ematen diren aholkuak betetzen diren ala ez kontrolatzeko jarduerak……………… 29

2.1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan babesik gabe dauden haur eta gazteentzako zerbitzuei buruzko ezohiko txostena ..................................... 63

2.1.3. Adingabeko arau hausleentzako harrera zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan ............... 66

2.1.4. Oinarrizko gizarte zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan............................................................ 67

2.2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATU ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK SENDOTZEN DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK .................................................................... 69

2.2.1. Talde, elkarte eta agente sozial ezberdinekin izandako elkarlanerako harremanak ....................... 69

2.2.2. 1997-1998rako ikerketa beka baterako deialdia ....... 76

2.2.3. Giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskoletan erabili beharreko materiala lantzeko beka............... 78

2.2.4. Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen jardunaldia “arrazagatik baztertua ez izateko eskubidea”ri buruz ................................................ 80

2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK .................................. 81

2.3.1. Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XII. Jardunaldiak .................................................... 81
2.3.1.1. Herriaren defendatzaileen eskuhartzea auzien ohiko konponbidean ................. 81
2.3.1.2. Atzerritartasuna eskubideen munduan: oztopoak, hutsuneak eta erronkak ........ 100
2.3.1.3. Bazterkuntza Estatu sozial batean .......... 109
2.3.1.4. Ingurugiroa: hondakinak eta zabortegiak .......................................... 112
2.3.1.5. Herriaren Defendatzaileen XII. Jardunaldietako Ondorioak .................. 112

2.3.2. Herriaren Defendatzaile, mandatari eta giza eskubideen aldeko batzorde publikoetako Presidenteen Iberoamerikako Federazioaren Bigarren Kongresua ............................................... 115

2.3.3. Europako Batasuneko Ombudsman-en eta Lurralde Eskaeretarako Batzordeen Biltzarra eta Europako Arartekoarekin kooperazioa.................... 117

2.3.4. Giza eskubideak babesteko eta sustatzeko erakunde nazionalen IV. Tailerra ............................ 118

2.3.5. “Hiritarrengandik gertuen dauden eskubideen babesa: Ombudsman-ak lurralde eta herrietan” gaiari buruzko Europako Kontseiluko Tokiko eta Lurraldeko Agintarien Kongresuak antolatutako Kongresua ..... 120

**III. ATALA. ARARTEKOAREN JARDUERA ESANGURATSUENEN HAUTAKETA ARLOKA SAILKATUTA** ...................... 121

3.1. ARARTEKOAREN JARDUERA ESANGURATSUENEN HAUTAKETA ARLOKA SAILKATUTA........................... 123

3.2. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA ...................................................................... 124

3.2.1. Sarrera ..................................................................... 124

3.2.2. Aukeratutako kexak ................................................. 125
Merkataritza ........................................................... 125
- Kaleko salmenta ibiltariaren jarduera arautzeko beharraz (371/97) .................................................. 125

3.3. KULTURA ETA ELEBITASUNA........................................... 126

3.3.1. Sarrera..................................................................... 126

3.3.2. Aukeratutako kexak ................................................ 128
A)Kultura............................................................... 128
- Dirulaguntzak (303/97) ........................................ 128
- Gizarte komunikabideetan sartzeko
eskubidea (129/97).............................................. 130
B) Elebitasuna...................................................... 132
- Administrazioarekiko eskubideak (1405/97)...... 132
- Sarreren arabera zergetarako berdin izateko
printzipioa (556/97) ............................................ 133
- Justizia administrazioa (332/97)........................ 135

3.4. HEZKUNTZA .................................................................. 135

3.4.1. Sarrera .................................................................. 135

3.4.2. Aukeratutako kexak ............................................... 137
A) Ikasleen eskubide eta betebeharrak ................. 137
Zigor errejimena.................................................. 137
- Ikasleen eskubide eta betebeharrak. Ikastetxe
hitzartuak (993/97) ............................................. 137
Ikastetxea aukeratzeko eskubidea......................... 138
- Ikastetxe publiko batek bere gelak zentro
pribatu bati uztea (1131/97)................................ 138
Ikasleen onarpena................................................ 139
- Elbarritasunak dituzten haurrak bi urteko
haurren geletan sartzea (1395/97) ...................... 139
B) Bekak eta beste laguntza batzuk ..................... 141
- Elbarritasunak dituzten ikasleen eskola
garraioa (233/97)............................................. 141
- Unibertsitate bekak. Familia errentaren kalkulua
(1344/96)............................................................ 142
C) Ikastetxe hitzartuak ........................................ 143
- Ikastetxe hitzartu baten funtzionamendu
kuotak (701/96) ................................................. 143
D) Unibertsitate hezkuntza................................... 144
- Unibertsitate hezkuntza. Ebaluazioa (1591/96) .... 144

3.5. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN
ANTOLAKETA............................................................... 145

3.5.1. Sarrera ................................................................. 145

3.5.2. Aukeratutako kexak ... 148
3.5.2.1. Funtzio publikoa ... 148
A) Funtzio publiko orokorra ... 148
Sarbidea ... 148
- Lehiaketa bidez lanpostuak betetzeaz (207/97).... 148
- Lehendik egindako lana balioztatzeaz.
Azterketa eskubideak ordaintzeaz. (1582/96) ... 150
Karrera ... 151
- Lehenengo destinoaren zain dauden
funtzionarioen behin-betiko lanpostu izendatzeaz
(1451/97) ... 151
Eskubideak: prestakuntza ikastaroak ... 156
- Hizkuntza gaitasunari buruzko ikastaroak
(1559/97) ... 156
B) Irakaskuntzaren funtzio publikoa ... 157
Lansariak ... 157
- Pedagogia Aholkularitzako Taldeetako eta
Hezkuntza Baliabideetarako Zentro
Espezializatuetako irakasleen lansariaz (555/96) .... 157
Behin-behineko funtzionarioak ... 159
- Irakasleen ordezkapenak: lehenagoko
zerbitzuak kontuan hartzeaz oker egindako
deialdietan (560/97) ... 159
C) Osasun arloko funtzio publikoa ... 161
Sarbidea ... 161
- Barne promozioko txandaz iristeaz. Aurreko
esperientzia profesionala balioztatzeaz
(1500/96) ... 161
Karrera ... 162
- Lanlekua funtzioaren arabera aldatzeaz
(1062/97) ... 162
Behin-behineko funtzionarioak ... 163
- Ordezkapenak funtzio publikoan-Osakidetzan
(614/97) ... 163
3.5.2.2. Administrazioaren antolaketa ... 164
A) Administrazio prozedura ... 164
- Garaje baterako baimena emateko aldez aurretik
diru ezarpen bat egitea eskatzeaz (446/96) ... 164
- Uko egiteaz istripu bati buruzko txostena
emateari (533/96) ... 165
- Errugabetasun ustea urratzeaz zigor espediente
batean (1519/96) ... 167
- Ediktu jakinarazpena premiatasun prozedura
batean (1576/96) ... 167

B) Administrazio erantzukizuna ............................ 171
- Ondasun erantzukizuna trafiko istripu batean (904/96) ............................................................ 171
- Autonomia organismo baten ondasun erantzukizunaz (1195/96) ............................................ 172
C) Administrazio Kontratazioa eta Ondasuna ......... 174
- Baserri bideen jabetasunaz: ikerketa (600/96)....... 174
- Lan kontratua: legez kanpoko adjudikazioa (691/96) ............................................................ 175
- Ideia lehiaketa batean parte hartzaileen kopurua mugatzeaz (296/97)............................................ 176
- Kontratu batean izendatuak dagokiona ez betetzeaz (1350/97) ............................................ 178

3.6. HAZIENDA.................................................................... 179

3.6.1. Sarrera ............................................................ 179

3.6.2. Aukeratutako kexak ............................................ 182
A) Foru zergak.................................................... 182
PFEZ ................................................................. 182
- Muga aldeko langileen trataera PFEZn (538/94) ............................................................ 182
- Ohiko bizilekuagatik kenketa PFEZn (1414/96) .......................................................... 184
- Zerga aukera aldaketa PFEZn (547/97)............... 185
Zerga bereziak..................................................... 186
- Elbarritasunagatik salbuespena ZGBZBn (1554/96)............................................................ 186
Zerga prozedurak ............................................... 188
- Likidazio espedientearen iraungitzea (1282/96) .......................................................... 188
B) Udal zergak..................................................... 190
Jakinarazpenak .................................................. 190
- OHZren likidazio baten arauzko jakinarazpen falta (1193/96) ................................................. 190
- OHZrako zerga oinarriaren igoeraren jakinarazpena (1215/96) ....................................... 192
- Premiatasun errekargua TMIZn (898/96)........... 195
Salbuespenak ..................................................... 196
- Elbarritasunagatik salbuespena ukatu TMIZn (1264/97) ................................................ 196
Ordaindu beharrik eza.......................................... 197
- Atoi arinek TMIZ ordaindu behar duten ala ez (19/97)................................................................ 197

Zerga oinarria ........................................................ 198
- EOIZrako zerga oinarria (926/95)...................... 198
C) Udal tasak............................................................ 199
Subjektu pasiboak ................................................ 199
- Suhiltzaileek parte hartzeagatiko tasa
(1196/96) .............................................................. 199

3.7. HERRIZAINGOA ................................................................. 200

3.7.1. Sarrera.................................................................. 200

3.7.2. Aukeratutako kexak................................................ 202
A) Bidezaingoa....................................................... 202
- Zigor espedienteen salaketa eta biderapena
(1072/95)............................................................. 202
- TAO egoiliar txartela eskuratzea (97/96)........... 204
- Zigorraren jakinarazpen eza (261/96)............... 210
- Gaizki aparkartzeagatik jarritako
zigorra (311/96)................................................... 211
- Zigor espedienteetan egindako ediktuzko
jakinarazpenak (782/96) ...................................... 216
- Debekatuta zegoen lekuan aparkatzeagatik
jarritako zigorra (845/96).................................... 219
- Zigor espedienteetan egindako ediktuzko
jakinarazpenak (893/96) ...................................... 220
- Trafiko isuna (137/97)........................................... 224
- TAO egoiliar txartela ukatzea (990/97)............. 226
B) Ordena publikoa ............................................... 229
- Salaketa bat egiteko izandako arazoak
(530/96) ............................................................... 229
- Polizia kidegoek nortasuna emateko duten
obligazioa (1073/97) ............................................. 230

3.8. JUSTIZIA.............................................................................. 232

3.8.1. Sarrera ................................................................... 232

3.8.2. Aukeratutako kexak................................................ 238
A) Justizia administrazioaren funtzionamendua..... 238
- Lan istripu baten ondoriozko epaiketa
penalaren atzerapena (258/97) ........................... 238
- Zigor prozeduran agertu ez den salatzaileari
informazio falta (1410/96) .................................. 239
- Irregulartasuna gogoz kontrako barneratze
psikiatriko batean (1290/96) ................................ 240
B) Abokatuen eta prokuradoreen bazkundeak ...... 242

- Abokatu bazkunde baten ebazpeneko argudio falta eta errekurtsoen berri ez ematea (433/96) .. 242

3.9. INGURUGIROA.................................................................. 243

3.9.1. Sarrera.................................................................. 243

3.9.2. Aukeratutako kexak eta ofiziozko espedienteak..... 246
A) Hiri jarduera sailkatuak.................................... 246
- Begoñako gasolindegia (651/94)............................ 246
- Taberna-jatetxe batek eragindako zaratak (187/96).............................................................. 248
- Diskoteka batek larrialdietarako irteerarik ez izatea (811/96) ............................................ 248
- Emandako udal baimenari ez zegokion jarduera baten funtzionamenduak eragindako gorabeherak (100/97) ......................................... 250
- Lantegi baten ezkutuko jarduera (579/97).......... 251
B) Ingurugiro mailako beste kalte batzuk .............. 253
- Hondakin edukiontziak ikastetxe batetik hurbil (8/97O) ...................................................... 253
- Hegazti hazkuntzako etxalde batek eragindako zaratak (1371/97)................................................ 254

3.10. HERRI LANAK ETA ZERBITZUAK.............................. 255

3.10.1. Sarrera ................................................................ 255

3.10.2. Aukeratutako kexak ............................................ 256
A) Herri Lanak........................................................ 256
- Zorupeko bidearen mantenua (855/96)............. 256
B) Desjabetzeak ..................................................... 257
- Bitartekotza kaleen zabaltze-lanetan (368/97).... 257
C) Zerbitzu Publikoak ............................................ 258
- Inhibizioa espaloien mantenuan (172/97) .......... 258
- Ur-hornidura sarearekin lotzea (781/96)........... 260
D) Garraioak........................................................... 261
- Familia ugariak eta Bilboko Metroa (704/96) ..... 261

3.11. OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA........................ 262

3.11.1. Sarrera.................................................................. 262

3.11.2. Aukeratutako kexak ............................................. 263
A) Osasuna............................................................. 263
Artatze eskasa ...................................................... 263
- Gaixoen artatze txarra osasun-etxeetan (1211/97 eta 1398/97).......................................... 263

Osasun prestazioak .............................................. 265
- Osasun mentala (273/97) .................................. 265
- Gastuen itzultzea (851/96) ................................ 266
- Gastuen itzultzea (1546/96)............................... 267
B) Gizarte Ongizatea............................................. 268
Adin txikikoak...................................................... 268
- Laguntzen bateragarritasuna: ezinduen garraioa (1333/97) .............................................. 268

3.12. LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA................................. 268

3.12.1. Sarrera.................................................................. 268

3.12.2. Aukeratutako kexak ............................................. 270
A)Lana .................................................................. 270
- Amatzakoak eta amatasun-bajaren parekatzea (1218/96) ........................................ 270

3.13. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA ................................... 273

3.13.1. Sarrera ................................................................ 273

3.13.2. Aukeratutako kexak ............................................ 276
A) Hirigintza.......................................................... 276
- Baimenak baliogabetzea (450/96)..................... 276
- Administrazioaren egoitzetan sartzeko oztoporik ez (622/96)........................................... 276
- Autoa kentzeko agindua (841/96)..................... 277
- Ordezko etxebizitzarako eskubidea (1012/96)............................................................. 278
- Gas hornikuntzarako baimena ukatzea (1358/96)............................................................. 279
B) Etxebizitza........................................................ 280
- Gutxieneko errenta (80/97) .................................. 280
- Etxebizitza eskuratzea eta soldadutza (636/96)............................................................... 283

3.14. BESTE ZENBAIT ZUZEMEN............................................... 284

3.14.1. Sarrera ................................................................. 284

3.14.2. Aukeratutako kexak ............................................. 285

- Trebiñoko enklabea (11/97)............................... 285
- Etxebizitzen erosketan zergak ordaindu beharraz informatzeko obligazioa (156/97) ......... 287
- Irakasleen homologazioa dela eta, zenbait arazo (980/97) ............................................ 288

**IV. ATALA. ESTATISTIKA**......................:.............................. 291

4.1. OHARPEN OROKORRAK ............................................ 293

4.2. ESTATISTIKA ALORREZ ALOR .................................. 296

4.3. ERAGINDAKO ADMINISTRAZIOEN ARABERAKO ESTATISTIKA ............................................................... 299

4.4. LURRALDEEN ARABERAKO ESTATISTIKA .................. 308

4.5. PROZEDURARI BURUZKO ESTATISTIKA ..................... 311

4.6. ESTATISTIKA SOZIOLOGIKOA ...................................... 319

4.7. HIRITARRENTZAKO INFORMAZIO ZERBITZUA........... 320

4.7.1. Gasteizko hiritarrentzako informazio zerbitzua....... 322

4.7.2. Donostiako hiritarrentzako informazio zerbitzua ... 323

4.7.3. Bilboko hiritarrentzako informazio zerbitzua.......... 325

4.8. OFIZIOZKO KEXAK ........................................................ 326

4.9. ARARTEKOAREN JARDUERARI BURUZKO BALORAZIOA 327

**DIAGRAMAK**................................................................................ 331

**V. ATALA. ADMINISTRAZIOAREN SAIL BATZUEK ARGIBIDEAK EPE BARRUAN EZ EMATEARI EUSTEA**....................................................................... 379

5.1. ARARTEKOAK ESKATURIKO INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU IDATZIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIOKO SAILAK ............................................................................ 384

A) Eusko Jaurlaritza........................................................... 384

B) Foru Aldundiak ............................................................. 390

C) Udalak........................................................................... 394

D) Beste organismo publiko batzuk ................................. 403

5.2. ARARTEKOAK ESKATURIKO INFORMAZIOA ESKURATZEKO, ERREKERIMENDU IDATZIA BI BIDER BAINO GEHIAGOTAN ESKATU ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK.............................................. 404

A) Eusko Jaurlaritza ..... 404
B) Foru Aldundiak ..... 407
C) Udalak ..... 408
D) Beste organismo publiko batzuk ..... 415

5.3. ARARTEKOAREN EBAZPENARI ZER DERITZOTEN JAKITEARREN, ERREKERIMENDU IDAZKIA BIDALI BEHAR IZAN ZAIEN ADMINISTRAZIO SAILAK ..... 416
A) Eusko Jaurlaritza ..... 416
B) Foru Aldundiak ..... 418
C) Udalak ..... 419
D) Beste organismo publiko batzuk ..... 424

**VI. ATALA. ARARTEKOAK EGINDAKO GOMENDIOAK ZENBATERAINO BETE DIREN** ..... 425

6.1. ONARTU DIREN GOMENDIOAK ..... 428

6.2. AINTZAT HARTU EZ DIREN GOMENDIOAK ..... 446

6.3. ERANTZUNAREN ZAIN DAUDEN GOMENDIOAK ..... 460

**VII. ATALA. GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK** ..... 469

7.1. ATZERRITARRAK UDAL ERROLDAN SARTZEAZ ..... 471

7.2. HEDATZEN ARI DIREN OSTALARITZA JARDUERA BERRIAK: GAUEKO BOKATERIEN FUNTZIONAMENDUAK DAKARTZAN ARAZOAK ..... 478

7.3. DENBORALDIKO LANGILEENTZAKO ETA HORIEN FAMILIENTZAKO BIZILEKUEN BALDINTZAK ..... 482

7.4. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUEN IZENAK EZ ZEHAZTEAREN ONDORIOZ SORTZEN DIREN ARAZOAK ..... 488

7.5. LANPOSTUEN ZERRENDAK ALDATUKO BALIRA BABESTEKO ETA/EDO KONTROLATZEKO AUKERAK ..... 491

7.6. ZENBAIT OHAR PFEZ-REN ERREFORMARI BURUZ .... 497

7.7. HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIKO ADMINISTRAZIOKO EMAKIDADUN ETA KONTRATISTEN ONDARE ERANTZUKIZUNA............ 505

7.8. IKASLEEN ZIGOR ERREJIMENA ...................................... 513

**VIII. ATALA. KONKLUSIOAK**.......................................................... 519

**GAIEN AURKIBIDEA**......................................................................... 525

# I. ATALA
# **AURKEZPENA**

Aurten Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren onarpenaren 50 urteak betetzen dira, eta beraz, garrantzi berezia du aurtengo txosten hau Eusko Legebiltzarraren aurrean aurkezteak. Bakea justiziaren emaitza da. Printzipio hori sakon-sakonean onartuta zutenez, munduko nazioak duela berrogeita hamar urte -gerrak eragindako basakeriak ikusirik mundua harrituta zegoenean- elkarbizi-tza eraikitzeko gutxieneko oinarri komunak ipintzen hasi ziren. Beraz, Aldarrikapen horrek giza eskubideen funtsezko muina jasotzen du. Eskubide horiek errespetatzea, zaintzea, sustatzea eta babestea justizia eraikitzea da. Eta beraz, baita bakea eraikitzea ere.

Arartekoaren eginkizun nagusia pertsonen oinarrizko eskubideak defendatzea da, beti ere pertsonek administrazioarekin dituzten harremanetan. Arartekoa da Konstituzioaren lehen tituluan jasotzen diren eskubideen defentsarako Legebiltzarrak duen goi-mandataria. Arartekoaren jarduera guztien helburu bakarra -txosten honetan agertzen den bezala- giza eskubideak defendatzea, legearekin bat eginik eskubide horiek bermatzea eta ordena demokratikoaren printzipio nagusiak betetzea da, Autonomi Estatutuaren 9. artikuluan jasotzen diren bezala.

Hiritarrak babesteko eta administrazioak kontrolatzeko urtean zehar egin dugun lanak, hain zuzen ere, xede hori lortzea du helburu; hau da, giza eskubideak euren alde erreal, konkretu eta egunerokotik babestea. Hiritarrek administrazioekin dituzten harremanetan izandako arazo txiki edo handiak konpontzen ditugunean giza eskubideak defendatzen ari gara, eta aldi berean, kultura berri bat bultzatzen ari gara: gatazkak bitartekaritza metodoen bidez konpontzeko kultura, alegia. Eskubideren bat urratzen duen erabaki okerra atzera botatzea lortzen dugun bakoitzean justizia eraikitzen ari gara eta beraz, bakea eraikitzen. Gainera, horretarako erabiltzen ditugun prozedurak limurtzaileak eta kontziliagarriak dira, eta ez liskar edo auzi bidezkoak. Beraz, prozedura bera bakearen kultura eraikitzen laguntzen ari da. Horrekin, beste bizikidetza mota bat indartzen ari gara, elkarrenganako begirunean, elkarrizketan, arrazonamenduan eta elkartrukaketan oinarritua, alegia. Beraz, txosten honetan aipamen berezia eskainiko diet iaz giza eskubideen defentsaren arloan lortutako emaitza konkretuei.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, garbi dago urtero-urtero instituzio honen sendotze eta indartze maila aztertzen jarraitzea komeni dela, bestela ezinezkoa izango baita hiritarrek haren zerbitzuak benetan erabiltzea eta euren eskubideen babes erreala aurkitzea.

Txosten honetan instituzioaren jarduera islatzen duten adierazle garrantzitsuak eskaintzen dira, esate baterako: erreklamazioen kopurua eta motak, ofiziozko jarduerak, txosten monografikoak, gainbegiraketa bisitak, bekak, argitalpenak eta jardunaldietan nahiz kongresuetan izandako partehartzeak.

Beste zenbait adierazlek administrazioek jarduera horren aurrean hartutako jarrera islatzen dute. Administrazioek instituzio hau errespetatu eta aintzat hartzen badute berau indartzen eta erabilgarriago izaten lagunduko digute. Beraz, txostenean administrazioen lankidetza maila, gomendioen onespena eta aldaketa normatibo edo interpretaziozkoak islatzen dituzten datuak ere elementu garrantzitsuak dira ondoko hau baloratzeko orduan: legeak hiritarren, Arartekoaren eta administrazioaren artean aurreikusten duen harremanaren funtzionamendua. Azkenik, hiritarrek arreta zuzeneko bulegoak zenbat eta nola erabili duten adierazten duten datuek eta jarduera bakoitzaren ondoren bidaltzen dizkiogun galderei emandako erantzunek zera eskaintzen dute: erabiltzaileek instituzioaren inguruan duten pertzepzioa, eta baita berau hobetzeko iradokizunak ere.

Aurreko urteetan bezalaxe, txosten honen bidez eskaintzen dut balantzearen parekoa den lana, legebiltzarrak zehatz-mehatz jakin dezan zer egin duen bere goi-mandatariak. Baina hori bakarrik ez; Legebiltzarrari eskatzen diot berak bete dezan «jarduera garantista» gisa har daitekeen ibilbide hori, Arartekoaren iradokizun eta gomendio orokorrak aztertuz, batik bat Legebiltzarraren eginki-zun arautzailea ezinbesteko duten gomendioak. Eta eskatzen diot, baita ere, ad-ministrazioek onartu ez dituzten gomendioak aztertu eta balora ditzan, agian bultzatzeko eta kontrolatzeko funtzioari dagokion ekimenak sor daitezkeelako.

Arartekoa tresna erreal eta eraginkorra izatea nahi dut, gizartearen eskaerak Botere Legegilera iristeko balioko duen tresna, alegia. Instituzio honetan lan egiten dugun pertsona guztiok egunero entzuten ditugu besteen erreklamazioak, eta entzuteaz gain haiek bideratu, zubigintzan aritu, erriberak hurbildu, hobekuntzak lortu eta beste hainbat gauza egiten ditugu. Guretzat kontaktu hori alde batetik min iturri etengabea da, bertara iristen baitira jendearen minak, aseezintasunak eta etsipenak. Baina, bestetik, arazoak konpontzea poztasun iturri ere bada. Biak elkarbanatu nahi ditut zuekin, mina eta poza. Liburu honek itxura lehorra badu ere, egin ezazue bat, mesedez, instituzio honen taupadekin, instituzio izanik ere, bihotza baitauka.

ARARTEKOA
Xabier Markiegi Gandina

# II. ATALA
# ARARTEKOAREN JARDUERA NAGUSIAK

Atal honetan, Arartekoaren erakundeak, hiritarrek aurkezturiko erreklamazio espedienteak tramitatzeaz gain burutu dituen jarduketak islatu nahi dira. Jarduketa horiek oso garrantzitsuak dira, erakunde honen helburu den hiritarren eskubideak bermatzea lortu nahi baldin bada.

Atala hiru zati nagusitan egituratzen da: lehenbizikoan 1997. urtean zehar burututako edo hasitako ezohiko txostenak aipatzen dira, eta baita ofiziozko jarduketak, aurreko urteetan aurkezturiko ezohiko txostenen jarraipena burutzera bideratuak.

Txostenean aipatzen diren areatan sar daitezkeen ofiziozko jarduketak III. atalean aipatuko dira.

Atalaren lehen zati honetan, beraz, 1996. urtean zehar burutu eta Eusko Legebiltzarreko Lehendakariari 1997ko urrian eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoan babesik gabe dauden haurren eta nerabeen atentzioari buruzko ezohiko txostena aipatu behar da.

Aldi berean, arau urratzeren bat burutu duten adingabekoen atentziorako zerbitzuei buruzko txostena ere azaltzen da. Txosten hori ia erabat amaitu da 1997ko urte honetan, eta 1998ko urtearen hasieran entregatuko da.

Gizarteko alor desberdinak lantzen dituzten ezohiko txostenak aztertu ondoren honako ondorioa atera da: beharrezko dela oinarrizko gizarte zerbitzuak aztertzea, eta, beraz, 1997ko azken hiruhilabetekoan zerbitzu horiei buruzko txostena diseinatu da, 1998. urtean aurkeztuko dena.

Araban aritzen diren sasoikako langileen arazoaren jarraipenaren berri ere ematen da.

Atal honetako bigarren zati batean, giza eskubideen babesaren aldeko kultura indartzera bideraturiko ekintzak biltzen dira. Apartatu honetan, Arartekoaren erakundeak euskal gizarteko sektore aktiboenekin, taldeekin, elkarteekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, izandako harremanen berri ematen da, erakundea gizarte zibiletik gero eta hurbilago dagoela erakutsiz, haren arazoak eta nahiak hobeto ezagutu eta bideratu ahal izateko.

Islatzen dira, baita ere, aurreko urteetan indarrean jarritako jarduketekin jarraitzeko ekimenak, giza eskubideei buruzko ikerketak burutzeko beka deialdiak, besteak beste. Urte honetan, giza eskubideen errespetua finkatzera bideraturiko beste bi jarduera gehitu dira.

Alde batetik, giza eskubideen hezkuntzaren gaia landuz eskoletan erabil daitezkeen materialak prestatzeko beka baterako deialdia egin da.

Horrez gain, Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroen barruan, «Arraza dela-eta diskriminaturik ez izateko eskubidea» izenburuko jardunaldi bat burutu zen, Arrazismoaren eta Xenofobiaren aurkako Urte Europarra ospatzen dela-eta.

Bigarren atal honekin amaitzeko, Arartekoaren erakundeak, bere lan bera burutzen duten beste erakundeekin izandako erlazio eta/edo elkarlan jarduerak deskribatzen dira, bai estatu mailakoekin eta baita Europa eta mundu mailakoekin ere.

Apartatu honen xedea, mota honetako erakunde guztiek, garrantzi eta esanahi berezia duten gai jakin batzuen aurrean hartutako erabakiak azpimarratzea da, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Arartekoak topagune horietan izandako zenbait partehartze transkribatzea, interesgarria izan baitaiteke partehartze horiek txosten honetan sartzea.

## 2.1. **OFIZIOZKO JARDUERAK**

Arartekoaren erakundea sortzen eta arautzen duen 3/85 Legearen 17. artikuluak esaten du, Arartekoak *«ofiziozko jarduketa burutu ahal izango du, bere baliabideen bitartez egoera irregularren baten berri izaten duenean»*

Ofiziozko jarduketek gero eta garrantzi handiagoa hartuz joan dira. Horiek dira erakundeak ematen duen erantzuna, administrazioaren jarduketa batek zenbait eskubide zapaltzen dituela edo jarduketa hori arauz kanpokoa dela-eta haren aurrean zerbait egin behar dela ikusten duenean.

Arartekoaren jardueraren zati nagusia hiritarrek aurkezturiko erreklamazioei erantzutea bada ere, ofiziozko jarduketek ere oso garrantzi handia dute, jarduera publikoaren alor jakinetan modu planifikatuan eta globalizatzailean partehartzeko aukera ematen baitute, norbanakoek edo erakundeek aurkezturiko erreklamazioak erantzuten direnean egin ezin ez den gauza.

Hori dela-eta, erakundeak helburu bezala hartu du urtero, gutxienez, gure gizartean egoera kaskarrena bizi duten taldeen egoerari buruzko ikerketa sakon bat burutzea. Ikerketa hori txosten monografikoan islatzen da, eta txostena Eusko Legebiltzarrean aurkezten da.

Euskal Autonomia Erkidegoko atxiloketa guneen egoera, bai udaltzainenak eta baita Ertzaintzarenak, egoitza psikiatrikoetan dauden gaixoen egoera, eta Hirugarren Adinekoentzako egoitzak izan ziren aurreko urteetan buruturiko txostenetan landu ziren gaiak.

1996an Eusko Legebiltzarrean 1995an buruturiko txosten monografikoak aurkeztu ziren, Euskal Autonomia Erkidegoko Egoitzetan bizi ez diren Hirugarren Adineko pertsonen laguntzari eta kartzelei buruzkoak.

1997an, Eusko Legebiltzarraren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta babesik ez duten adingabekoei buruzko txostena aurkeztu da, eta arau urratzeren bat burutu duten adingabekoen egoerari buruzko txostena burutu da.

1997. urtean zehar ofiziozko 78 jarduketa zehatz hasi dira. Txosten monografikoetan azaltzen da jardueraren baten jarraipena egiten duten ofiziozko jarduketa zehatzak ez dira atal honetan lantzen, hirugarren atalean baizik. Horrela, ofiziozko jarduketa bakoitza, dagokion arean lantzen da, gai berari buruzko erreklamazioa espedienteekin batera.

Hala ere, atal honek bilduko ditu 1997an aurrera eramandako jarduketak, orain arte buruturiko txosten monografikoen jarraipena eginez.

### 2.1.1. AURREKO URTEETAN AURKEZTUTAKO EZOHIKO TXOSTENETAN EMATEN DIREN AHOLKUAK BETETZEN DIREN ALA EZ KONTROLATZEKO JARDUERAK

#### A) Euskadiko espetxeen egoerari buruz egindako txosten bereziaren ondorioz hasitako ekimenen jarraipena

Erakunde honek Euskadiko espetxeen egoerari buruz egindako txosten berezia Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zitzaion 1996ko martxoan; txosten horretan Euskal Autonomia Erkidegoko hiru espetxeetako egoeraren deskribapena egiten da, eta preso dauden pertsonen egoera hobetzeko zenbait gomendio ematen dira, halaber.

Iazko ohiko txostenean, Arartekoak bi administrazioen aurrean emandako urratsen eta txosten bereziak alor jakin batzuetan eragindako polemikaren berri eman zen (ikusi 96ko Txostena, 33-49. orr.).

Espetxeetako egoerari buruzko txostena Legebiltzarrari igorri zitzaiola bi urte badira dagoeneko, eta komenigarria da txosten hori eguneratzeko zenbait gai berriro aztertzea orain. Komeni da, orobat, txostenean aipatzen den egoera hobetzearren erakunde honek aurrera eramandako lanen balantze txiki bat egitea.

Zertan aldatu da egoera?

Lehenik eta behin, esan beharra dago gaur egun ez dugula espetxeetako egoera behar bezala aztertzeko adina datu -ez zen horrelakorik gertatzen orain bi urte; izan ere, txosten hura egitean aukera izan genuen espetxeetara bisitak egiteko, elkarrizketak eta *in situ* bilerak egiteko, eta orotara 21 egun igaro genituen espetxeetan-. Gaur egun hiru espetxeen errealitateari buruz ditugun berriak ez dira zuzen-zuzenean bilduak, ondoko hiru bideetatik jaso ditugunak baizik:

- bere garaian txostena egiten lagundu ziguten talde eta profesionalekiko harremana (espetxe zuzendariak, profesional taldeak, laguntza elkarteak...);
- presoek edo beren senitartekoek erakunde honi aurkezturiko kexak;
- gaur egun indarrean diren elkarlanerako hitzarmenei buruz Autonomia Erkidego honetako administrazioek (bereziki Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Osasun sailak) eskainitako informazioa;
- xiringak trukatzeko programa eratu zuen batzordean eta Basauriko espetxean aurrera eramaten ari den programa horren jarraipena egiten duen batzordean erakunde honek duen parte hartzea;

- eskubideak bermatzeko betekizuna duten erakundeek egindako txostenak, esaterako Defensor del Pueblo erakundearenak;
- hainbat elkartek igorritako agiriak, eskariak, plataformak;
- gaur egun preso dauden edo orain gutxi arte preso egon diren pertsonekin izandako elkarrizketak…

Bide horietatik jasotako informazioaren arabera, eta bide aski mugatuak direla jabetzen garen arren, hauek dira aldaketa eta hobekuntza aipagarrienak hiru espetxeei dagokienean:

- asko murriztu da hiru espetxeetako presoen kopurua. Hiruretan izan da handia murrizketa, baina bereziki azpimarratzekoa da Langraiz Okakoa; azken hilabeteetan orain dela bi urteko preso kopuruaren erdia dago espetxe horretan.
- igo egin da ekoizpen edo formazio ekintzetan parte har dezakeen pertsonen kopurua (espetxeetan preso gutxiago dagoelako, eta ez hainbeste ekintzak ugaritu izanari esker);
- presoen osasun egoera hobetzeko neurriak hartu dira edo hartzen ari dira: sendagile berezituen laguntza; eusteko programak, metadonarena esaterako; presoek erietxeetako zerbitzuak erabili ahal izateko egokitzapenak...;
- instalazioak hobetzeko lanak egin dira;
- zerbitzu jakin batzuk informatizatu dira;
- hiru espetxeetako batean xiringak trukatzeko programa martxan jarri da, era esperimentalean eta beste zerbitzu batzuen osagarri; programa horrek arazo horrekin zerikusia duten erakunde guztien laguntza jaso du;
- Lege Kode eta Espetxe Araudi berrietan agertzen diren berrikuntza batzuk aurrera eraman dira...

Bistan denez, eman dira urratsak, handiak batzuk, txikiagoak besteak, txosten berezian erakunde honek aztertu eta egin zituen gomendioen inguruan.

Urteko azken hiru hilabeteetan 1997. urteko jarduerari buruzko txosten bana igorri digute hiru espetxeetako zuzendariek, zeinek bere gobernu delegatuordearen bidez, eta txosten horri esker espetxe bakoitzaren informazio eguneratua dugu esku artean. Ondoren azalduko duguna, beraz, txosten horien edukia da, espetxe bakoitzaren datuen eta balorazioen arabera aurrera zertan egin den, zein arazo dagoen artean konpontzeko edo oraindik amaitu gabe dauden proiektuak zeintzuk diren.

## I. ESPETXEETAKO ZUZENDARIEK EGINIKO TXOSTENEN LABURPENA

### 1) Langraiz Okako espetxea (Araba)

Espetxe zuzendariak egindako txostenean hiru irizpide nagusi aipatzen dira espetxe horren urteko ekimenaren oinarri:

a) tratamendurako baliabide berrien erabilera;
b) espetxe administrazioaren aldetik inbertsioak egiteko ahalegina;
c) espetxeko preso kopurua murriztea.

Lorpen nagusiak hauek izan dira:

A) Tratamenduari dagokionez:

- Espetxean sartu orduko hirugarren gradua eman zitzaien presoen kopurua igo egin da (1995: %28/1996: %46/1997: %51, urtearen lehen erdian).
- Espetxe irekiko sailean dauden presoentzako kartzelaz kanpoko jarduerak ugaltzea.
- GKEekiko eta beste erakunde batzuekiko elkarlanean jardun du. Eta kasu batzuetan areagotu egin da gainera harremana (adibidez: eguneko zentro bat ireki da Bilbon).
- Lanbide ekintzak (ikastaroak eta tailerrak): orotara dagoen eskaria baino ekintza gehiago eskaintzen dira.
- Hezkuntza eta kultura: orain arteko ikastaroak eskaini dira; atzerritarrentzako gaztelerazko eskolak hasi dira; zentroaren aldizkaria sortu da.
- Tratamendurako baliabide berriak erabili dira: bigarren graduan dauden presoei egunez irteerak egiteko eskubidea eman zaie; irteerak antolatu dira; egunero zentrora joatera behartu ordez, beste kontrol neurri batzuk asmatu dira; gestioak egitera irteteko baimenak eman dira.
- Tratamendu taldearen eta presoen arteko harreman zuzenagoa eta informazio truke eraginkorragoa bideratu da, preso kopurua murriztu izanari esker.

B) Osasunaren alorrean:

- Osakidetzako sendagile berezituek espetxean bete behar dituzten kontsulta orduak eta maiztasuna finkatu dira.
- Metadonaren programa aurrera eramaten ari da (55 preso ari dira programa hori betetzen).
- Osasunaren gestioa informatizatu da.
- Sendagile-erizain taldeak parte hartu du Osakidetzak ezaguerak eguneratzeko antolaturiko programetan.

C) Langileen formazioari dagokionez, aipagarria da hainbat gairi buruzko eta hainbat erakundek antolaturiko ikastaroetan parte hartu dutela.

D) Azpiegiturei dagokienez:

- instalazio batzuk eraberritu eta hobetu dira, adibidez bisiten sarrerako kontrola;

- 4 moduloko dutxak berritu dira;
- gune komunetan axuleiuak jarri dira;
- zenbait galeria oso-osorik margotu eta konpondu dira;
- sukaldearen parte bat eraberritu da (presoen jantzigelak eta komunak).

Oraindik konpontzeko dauden arazoetatik edo osatzeko dauden proiektuetatik hauek aipatu ditu espetxeko zuzendaritzak:

- Odontologiarako ekipo berria, enpasteak egin ahal izateko.
- Botika zerbitzua antolatzea.
- Sukaldea erabat eraberritzea (proiektua prestatzen).
- Espetxeko gizarte zerbitzuen kokagune berria.
- Funtzionarioen lan baldintzak hobetzea.
- Ekoizpen tailer gehiago zabaltzea.
- Gasteizko Udalarekiko elkarlana bideratzeko hitzarmena.

Zentroko zuzendaritzak bere txostenean dioenez, azpiegituren alorrean da bereziki beharrezkoa lanak egitea, eta aldi berean, alor horretako berrikuntza eta hobekuntzak dira aurrera eramaten zailenak, aurrekontuaren mugak direla eta.

**2) Basauriko espetxea (Bizkaia)**

Zentro honetako zuzendariak xedapen berriak (Kode Penal eta Espetxe Araudi berriak) eta preso kopuruaren murrizketa aipatzen ditu urteko jardueraren oinarri.

Hauek dira Basauriko espetxean aurrera eraman diren lan aipagarrienak, alorrez alor:

A) Osasunaren alorrean

- Drogazaletasunaren kontrako programak:

  - Zentroan eratu den Drogazaletasunari Aurre egiteko Taldeen (DAT) jarduera koordinatua.
  - Metadonaren (hilean 30 bat erabiltzaile) eta desintoxikazio programen normaltasuna.
  - Ohitura kentzera bideraturiko programak: urtean zehar 50 preso bidali dira kanpoko drogazaleen laguntzarako zentroetara.
  - Xiringak trukatzeko programa:
    - uztailean martxan jarri zenez gero, normaltasunez ari da aurrera eramaten programa hau;

  - 25 bat erabiltzailek parte hartzen du;
  - erabiltzaile ezezagunekin harremanetan jartzeko, arriskuak murrizteko eta beste bide alternatibo batzuk bilatzeko aukera ematen du.

- Laguntza psikiatrikoa: kontsultak egin dira astero eta emaitza onak lortu dira prebentzioari dagokionez (adibidez, suizidioen preberitzioan).
- Odontologia: anbulatorioa eta asterokoa.
- Larrialdi sanitarioetarako tresneria egokia lortu da.

B) Hezkuntzaren alorra:

- Bi gaik izan dute batez ere garrantzia:
  - atzerritar asko sartu dira 1997. urtean (horren ondorioz frantseseko eskolak emateko beharra sortu da, besteak beste);
  - preso kopurua murriztu den arren, gero eta preso gehiago ari dira hezkuntza ekintzetan parte hartzen (267 urtean zehar).

- Lorpenak:
  - Beste aula bat zabaldu da eta aurrez bazirenak egokitu dira;
  - liburutegirako liburu berriak eskuratu dira;
  - tresna berriak lortu dira: fotokopiagailua, tresneria informatikoa eta bideo eta telebistak.

C) Lanbide hezkuntzaren alorra:

- Bost ikastaro egin dira, eta 70 presok hartu dute parte horietan.
- Aroztegia eta pintura tailerrak handitzeko eta eraberritzeko lanak egin dira eta tresna berriak lortu dira.
- Ekoizpen tailer bat eraberritu da (15-20 bat preso aritzen dira aldiko; urtean zehar 56 inguru).

D) Tratamendu eta laguntzaren alorra:

- Langile taldea osatu da: psikologo bat, kriminologo bat, hezitzaile bat eta gizarte langile bat hartu dira.
- Gestioa informatizatu da.
- Preso askok parte hartu dute zentroan antolaturiko ekintzetan (hezkuntza, lanbide eta suspertze pertsonaleko ekintzetan).
- Zentroaren Barne Errejimeneko Araudia prestatu eta presoen eskura jarri da.
- Informazio gidak berrargitaratu dira.
- Berrogeita hamar preso bidali dira espetxeaz kanpoko hainbat erakundetara.

- Hirugarren graduan dauden presoen eta baldintzapeko askatasunean atera direnen kopurua igo da.
- Gizarte zerbitzu penitentziarioek lehenengoz parte hartu duten asteburuko atxiloketetan eta gizartearen onurarako lanetan.

E) Azpiegituren alorra:

- Hainbat lan egin dira azpiegituren alorrean, eta orotara 35 milioi pezeta inbertitu dira alor horretan.

**3) Martuteneko espetxea (Gipuzkoa)**

Zentro honetako zuzendariaren txostenean bi gai azpimarratzen dira, espetxearen jardueran duten eraginaren arabera: lege aldaketak (Kode Penal berria eta Espetxe Araudia) eta zuzendaritza taldearen aldaketa.

Horrela, 1996ko maiatzean Kode Penal berria indarrean sartu izanaren ondorioz zigorren berrazterketa egin behar izan da (900 zigor aztertu dira, banan-banan) eta hainbat preso aske gelditu da azterketa horren ondoren. Horren ondorioetako bat da zentro honetako preso kopurua murriztu izana, bai gizonezkoei zein emakumezkoei dagokienez (226 ziren, orotara, 1997ko abenduaren hasieran), eta horri esker, masifikazioa gutxitu eta baliabideen errendimendu hobea lortu da.

Txostenak lege penintentziario berriak ekarri dituen aldaketa aipagarrienak azpimarratzen ditu: tratamenduak betetzea, ekintza eta programa espezifikoak eratzea, espetxeaz kanpoko elkarteen parte hartzea normalizatzea, osasun zerbitzua unibertsalizatzea, presoaren eta gizartearen arteko harremanak indartzea...

Esparru bakoitzean lortu diren emaitzei buruz, ondoko gaiak aipatzen ditu txostenak:

A) Kanpoarekiko harremanen alorrean:

- Komunikazio bereziak ugaritu dira (vis a vis komunikazioak): orain bi dituzte hilean, bakarraren ordez.
- Presoen, senar edo emazteen eta 10 urtetik beherako Seme-alaben arteko elkarbizitzako komunikazioak arautu dira (4 komunikazio dituzte hilean).
- Espetxera sartzean espetxeak ordaindurik dei bat egiteko eskubidea normalizatu da.
- Kanpora deiak egiteko baimen gehiago eman dira (2 astean gehienez).

B) Kanpoko elkarteen parte hartzeari dagokionez:

- Elkarteekiko elkarlana sustatu da.

- Zenbait ekintza elkarrekin programatu dira, lan bera bi aldiz ez egiteko edo eskari handirik ez duten ekintzak baztertzeko (beste erakunde batzuekin lan egin da, Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Udalarekin, adibidez).

C) Osasunaren alorrean:

Alor honetan aurten izan diren gorabeherak azpimarratzen dira batez ere; hasierakoa oso aldi ona izan zen, hitzarmenari dagokionez (hezkuntza jarduerak, prebentziokoak, izurrien kontrola...), baina bigarren hiruhilabetean geldiunea izan zen eta ondorio kaltegarriak sortu ziren atentatuak zirela eta (bereziki zentrora joateko prest zeuden adituei dagokionez), baina azken hilabeteetan gora egin dute berriro zerbitzu hauek.

D) Drogazaleen laguntzari dagokionez:

- Metadonaren programa martxan jarri da osorik (35-40 preso).
- Drogazaletasunari Aurre egiteko Taldea (DAT) eratu da.
- Terapia taldeek lanean jarraitu dute (bereziki Agipad eta Gizakia Helburu taldeekin).
- Justizia Sailarekin batera antolaturiko toxikomaniei buruzko kartzela barneko programak aurrera jarraitu du.
- Terapia saioetara joateko irteerak antolatu dira.

E) Espetxeaz kanpoko alorrari dagokionez:

- Ametzagaña fundazioarekiko hitzarmena berritu da.
- Egoiliarren gehienezko adina zabaldu da.

F) Formazioari dagokionean:

- Irakaskuntza arautuaren inguruko elkarlanerako hitzarmenak eraberritu dira (EHU, UNED, IVBAD).
- Azterketak egiteko irteera sistema arautu da.
- Europako Gizarte Fondoak diruz lagunduriko ikastaroak emateko hitzarmena gauzatu da (pintura, elektrizitatea eta ebanisteria).
- Datorren urterako ikastaro berriak antolatu dira.
- Uztaila-azaroa artean kirol eta lanbide ikastaro eta ekimenak antolatu dira.
- Gizarte Bermeko moduloak egiteko urratsak eman dira (serigrafia eta informatika), Foru Aldundiarekin.

G) Baldintzen hobekuntzari eta baliabideak ugaritzeari dagokionez:

- Jolas gela berria antolatu da ikus-entzunezko ekipo eta altzari berriekin.

- Gimnasioa egokitu da.
- Garbitegian tresneria berria jarri da.
- Sukalderako bi hozkailu berri erosi dira.
- Komunikazio berezietako geletan altzari berriak jarri dira.
- Goi tentsioaren hartunea aldatu da.
- «Hiri gasaren» sarearekiko lotura egin da, sukalderako, berogailuetarako eta ur berotarako erregai hori erabili ahal izateko.

Txosten atal honetan bi gai aipatzen dira konpontzeko daudenak eta lehentasuna dutenak:

- Sukaldearen erabateko berrikuntza.
- Energia iturri berria (hiri gasa) hobeto aprobetxatzea ur berotarako eta berogailuetarako.

## II. ELKARTEEK EGINDAKO PROPOSAMENAK

Hiru zentroetako zuzendariek bilduriko informazioa -aurrez azaldu duguna- osatzeko baliagarria izan daiteke presoen alde lanean ari diren elkarte eta taldeen ikuspegia. Erakunde honek zenbait bilera egin zituen iaz talde horiekin, eta elkarteek egindako proposamenak eta azalduriko kezkak aipatuko dira ondoren, espetxez espetxe. Hala ere, esan beharra dago proposamen hauetako batzuk espetxe jakin bati dagozkin arren, gainerakoetarako ere kontuan hartzekoak direla.

### 1) Langraiz Okako espetxea

Preso dauden pertsonen laguntzarako elkarte eta taldeek akats edo gabezia hauek hartu zituzten bereziki kezkagarritzat:

- HIESa duten presoen laguntza. Bi dira kezka nagusiak:

    - Preso horiek espetxetik ateratzeko beharra, eritasun sendaezina dutenez (Arabako HIESaren kontrako Batzordeak beharrezko datu medikuak bildu ditu eta horietan oinarriturik urte honen amaierarako Langraiz Okako espetxetik 26 preso ateratzeko egin beharrekoak egin ditzan eskatu dio Euskadiko Giza Eskubideen Batzordeari).
    - HIESa duten presoek hartzen dituzten sendagaiei buruzkoa (Zein sendagai hartzen dituzten, eta sendagai horiek etorkizunean zein ondorio izan ditzaketen tratamendu berri eta eraginkorragoei begira).

- Lanbide tailer eta ekintzetan parte hartzeko dagoen benetako aukera.

Orain arte Gasteizko Udalaren dirulaguntzaz aurrera eramaten ziren ekintzak bertan behera gelditzeak presoen eta, bereziki, talde jakin batzuetako presoen aukerak murriztu dituela diote. Horrekin batera, ekoizpen tailerretako lan baldintza txarrak eta soldata kaskarra azpimarratzen dituzte.

- Sendagile berezituen laguntza (ginekologia, odontologia, psikiatria) zentroan bertan eta zentrotik kanpora.
  Dirudienez, zentro honetako osasun zerbitzuetan gorabehera handiak antzematen dira aurten, eta ez dago gorabehera horien zergatia azaltzeko arrazoi jakinik.
  Txagorritxuko erietxean prestatu nahi den unitate bereziari dagokionez, psikiatriako hutsuneak seguruenik bere horretan jarraituko duela gogorazten da.

- GKEetako kideek zentroan sartzeko eta beren zerbitzuak betetzeko dituzten zailtasunak.
  Elkarteen ustez erraztu egin beharko lirateke bideak (identifikazioa, espetxerako sarrera, espetxe barnean alde batetik bestera joateko erraztasunak, han presoen arreta duten langileekin harremanak) beren lana eraginkorragoa izan dadin.

- Espetxeaz kanpoko tratamendu alternatiboak.
  Denbora gehiegi igarotzen da zentro alternatiboetan plaza bat lortzen denetik presoari espetxetik atera eta espetxeaz kanpoko tratamendua jasotzen hasten den arte.

**2) Basauriko espetxea**

Elkarteek eta laguntza taldeek agerian utzitako gai nagusiak hauek dira Bizkaiari dagokionez:

- Xiringak trukatzeko programaren eragina talde jakinetan (atzerritarrak eta ijituak esaterako), eta saio esperimentalaren balorazioa egin ondoren programa hori beste talde batzuetara zabaltzeko beharra.
- Preso atzerritarren kopuruaren igoera eta beren egoera legal eta sanitario berezia (agiriak, laguntza juridikoa, babes eza…).
- Asistentzia juridikorako zerbitzuaren erantzun ahalmena (laguntza penitzentziarioko txanda), azken aldian kontsulta kopurua igo egin baita (bereziki zigor errejimenei, baimenei, etab. dagokienez) eta zerbitzu honen eta epaitegiaren arteko harremanak indartzeko beharra.
- Preso dauden pertsonek tailerretan (bai ekoizpen tailerrak eta bai lanbide tailerrak) eta ekintzetan parte hartzeko duten benetako aukera) eta jarduera horietan nork parte hartu behar duen erabakitzeko dauden irizpideak.

- Ohitura kentzeko prozesuen gestioan diharduten elkarteek DATean parte hartzeko eta tratamendurako ekintzak koordinatzeko dituzte zailtasunak.
- HIESak jotako presoei ematen zaien tratamendu medikua (egokia den ala ez, bermaturik dagoen, zein ondorio dituen).
- Espetxe aldaketen politika eta. zigorra norberaren herritik urrutiko espetxeetan betetzea, eta bereziki Erkidego honetako hiru espetxeetatik bakar batean ere ez egotea lehen graduko presoak hartzeko egokitua.
- Zerbitzua erabiltzen duten presoek egoeraz eta berrikuntzez duten iritzia zuzenean ezagutu ezina.

**3) Martuteneko espetxea**

Elkarte eta taldeek Martuteneko espetxeari buruz azaldutako kezkak hauen dira:

- Espetxeaz kanpoko tratamendu alternatiboak jasotzeko baldintzak gero eta zorrotzagoak direla ikusi dute (bereziki drogazaletasuna sendatzeko espetxetik kanpo tratamenduak jasotzeko baldintzak).
- Presoak espetxe batetik bestera aldatzeko erabiltzen diren irizpideak eta aldaketa horiek dituzten ondorio kaltegarriak, besteak beste, familiarekiko urruntasuna edo espetxe batean hasitako laguntza lanak bertan behera gelditzea.
- Berogailu orokorraren sistema kaskarra eta ezegokia (sistema bera, ordutegiak, zarata, hotza neguan...).
- Alor penitentziarioaren esku aldaketari buruz urratsik eman ez izana eta alor hori kudeatzeko eredu finkorik ez dagoela.
- Osakidetzako sendagile berezituak bolondres gisa ari dira eta horrek ez dio onik ekartzen zerbitzuari.
- Kartzela horretan berriak diren zenbait funtzionariok elkarteen lanaz duten ezagutza apurra, ez baitu batere errazten beren eginkizuna.
- Atentatuek kalte eragin dute, bereziki tratamendu taldeari eta hark eskaintzen zuen zerbitzuari dagokionez.
- Gazteen eta emakumeen egoera kaskarragoa izatea gainerako presoena baino.
- Espetxean sartzen dituzten preso berriei ez zaie ematen behar adina informazio.
- Norbere etorkizunari buruzko planik ezin dute egin, denbora asko behar baita zalantzazko egoerak argitzeko (justiziaren mantsotasuna).
- Xiringak trukatzeko programa gainerako espetxeetara zabaltzeko beharra.

Hemen bildutako gaiak zeintzuk diren ikusita, elkarteek bereziki kezkagarriak diren zenbait elementu aipatzen dituzte: espetxe jakin bati dagozkio batzuk, baina espetxe guztiei dagozkie eta arazo orokorrak dira beste batzuk, eta arazo horiek konpontzeko ahaleginak egin diren arren, oraindik ez dira konpondu.

## III. OSASUN SAILAK ETA OSAKIDETZAK ESKAINITAKO ZERBITZUARI BURUZKO TXOSTENAREN LABURPENA

Espetxeen alorrean osasunak duen garrantzia kontuan harturik, Arartekoak eskaturik Osasun Sailak prestatu eta igorritako «Osasun Sailak eta Osakidetzak 1997. urtean Euskadiko Autonomia Erkidegoko Espetxeetan Eskainitako Osasun Zerbitzuari Buruzko Txostena eta Zerbitzu horien egoera gaur egun» txostenaren laburpena egiten da hemen.

Txostena 1998.ko urtarrilekoa da eta Osasun-Erakunde Penitentziarioen arteko Hitzarmenak jasotzen dituen jardueren azterketa egiten du:

- eskainitako zerbitzu berezituak eta eskaintzaren ezaugarriak;
- higiene eta osasun egoeraren ikuskaritzari buruzko jarduerak.

Kezka gehien sortu duten gaiei buruz txosten horrek ematen dituen datu nagusiak bildu dira:

1. Osakidetzaren sareak eskainitako zerbitzuak.
   Txostenak espetxe bakoitzari dagokion erietxea zein den aipatzen du eta erietxe bakoitzak ematen dituen zerbitzuak zeintzuk diren (erietxea, larrialdiak, analitika...).

2. Espetxean bertan eskaintzen diren zerbitzuak.
   Espetxe bakoitzean 1997. urtean Osakidetzako sendagile berezituek eskainitako asistentzia hau izan da, alorrez alor:

a) Langraiz Okako espetxea

| | |
|---|---|
| - Medikuntza orokorra | - astean bi egunetan |
| - Tokoginekologia | - hamabostean behin |
| - Oftalmologia | - hamabostean behin |
| - Odontologia | - hamabostean behin |
| - Psikiatria | - astean behin |

b) Basauriko espetxea:

- Psikiatria: astean behin;
- Odontologia: Basauriko anbulategian;
- Adimen Osasuneko Zerbitzuen parte hartzea Xiringen Trukerako programan.

c) Martuteneko espetxea

| Zenbat egunetan | Ginekologia | Psikiatria | Odontologia |
|---|---|---|---|
| Urtarrila | 1 | 1 | 1 |
| Otsaila | 1 | 1 | 2 |
| Martxoa | 1 | 1 | - |
| Apirila | - | - | - |
| Maiatza | 1 | - | - |
| Ekaina | - | - | - |
| Uztaila | 2 | - | 1 |
| Abuztua | - | - | 2 |
| Iraila | 2 | - | 5 |
| Urria | 2 | - | 3 |
| Azaroa | 1 | - | - |
| Abendua | - | - | 3 |
| OROTARA | 11 | 3 | 17 |

(Eguneko ≈ 4 ordu)

Bereziki kezkagarritzat jo den alor honetan ondoko gaiak azpimarratzen ditu txostenak:

- laguntzaile berezituen lan baldintzak espetxean (bolondres gisa, lan orduetan ala lan orduez kanpo...);
- kontsultetarako tresneria hobearen beharra;
- Martuteneko laguntzaile berezituen jardueran lanaz kanpoko arazoek izan duten eragina...

3. Metadonaren eta drogazaletasunen programa
   Programa egiten ari diren presoen kopurua, espetxez espetxe:

   - Langraiz Okako espetxean: 58 preso (43 gizon eta 15 emakume).
   - Martuteneko espetxean: batez beste 30 erabiltzaile.

4. Formazio etengabea
   Espetxeetako osasun alorreko langileen parte hartzea Osakidetzak eta Osasun Sailak antolaturiko formazio ekintza eta ikastaroetan.

5. Txagorritxuko erietxeko unitate penitentziarioa
   Txostenak azpimarratzen du egokitze lanak egiten hasi direla eta lan horien kostuaren, burutze epearen eta eskainiko duten zerbitzuaren berri ematen du: unitate horretan hamabi ohe izango dira eta bisitentzako gela bat eta zaindarientzako beste bat.

6. Higiene eta osasun baldintzen zainketa
   Hitzarmenak jasotzen duen alor honi buruz, txostenak ondoko urratsak aipatzen ditu:

- Izurrien kontrako zainketa;
- txertoak (B hepatitisa, tetanosaren kontrakoa, tuberkulinarena...);
- hondakin sanitarioen bilketa eta tratamendua;
- sukaldeen eta jangelen zainketa eta kontrola;
- babes erradiologikoa (X izpien ekipoaren kontrola);
- osasun hezkuntza (elikagaiak erabiltzeko prestakuntza, HIESaren prebentzioa...);
- kontsumorako uren zainketa;
- hondakin uren kontrola.

Egiteke dauden lanetan edo artean behar bezala konpondu ez diren arazoetan bi aipatzen dira Langraiz Okari dagokionez:

- sukalde eta jangelak handitzea;
- hondakin urak arazteko sistema ez dela behar bezalakoa

Azpimarratzekoa da hemen laburtu den Osakidetza-Osasun Zerbitzuaren txostenak bere ardurapekoak diren hitzarmeneko gaiak bakarrik dituela aztergai.

***

Bestalde, eta jarraipenari dagokion atal hau amaitzeko, erakunde honek zenbait administrazioren aurrean egin dituen ofiziozko esku hartzeek era guztietako erantzunak jaso dituzte. Horren arrazoietako bat da alor honen gaineko arduk gaur dauden bezala banatuta egoteak gure esku hartzea mugatzen duela, eta elkarlanerako tresnei ere mugak jartzen dizkiola (Eusko Jaurlaritza eta Barne Ministerioaren arteko hitzarmenak) eta horrek eragozpenak jartzen dituela errealitate konplexu hau aldatu eta hobetzeko.

Erakunde honen ustetan, alor penitentziarioaren gaineko ardura Euskal Autonomia Erkidegoaren esku gelditzen denean lortuko da gure erakundeen benetako inplikazioa eta ardura, espetxeei dagozkien arazoetan. Ez da berme bat berez, baina bai beharrezko baldintza bat.

Hori dela eta, txosten honetan azpimarratu egin behar dugu esku aldatzeko beharra, eta Autonomia Erkidegoak alor penitentziarioan dituen eskumenak behingoz bere gain hartzeko beharra. Dena dela, eskari hau bere garaian ere egin zuen erakunde honek; horixe da, hain zuzen, txosten berezian agertzen den lehen gomendioa, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak onartua.

## B) Araban aritzen diren sasoikako langileen arazoaren jarraipena

### 1. Aurrekariak eta 1997an emandako pausoak.

Joan den urteari buruzko ohiko txostenak, urtez urte, udazkenaren hasieran, Arabako hainbat lurraldetara, mahats bilketan eta patataren bilketan lan egitera etortzen diren pertsonen eta familien egoera hobeto ezagutzeko asmoz, erakunde honek bururuturiko azterketaren (ikusi 96ko Txostena, 58-66 orr.) laburpena biltzen zuen. Bertan, talde honek bizi duen egoeran garrantzi berezia duten lau arazo azpimarratzen ziren:

- Erabiltzen diren kontratazio sistemak;
- Bizitokitzat dituzten lekuen egoera;
- Langileen seme-alaben eskolaratzea;
- Inguruan bizi duten gizarte integrazioa edo bazterketa.

Pertsona horien egoera hobetzera bideraturiko zenbait proposamen ere egiten ziren, eta erakundeek parte har zezaketen hiru esparrutan zentratzen ziren:

- arauak garatu eta legea bete;
- erakunde desberdinen eta gizarteko agenteen arteko koordinazioa indartu;
- langileei informazioa eskaini, beraien eskubideen eta eskura dituzten zerbitzuen berri emanez.

Bai egoeraren azterketa eta baita hobetzeko proposamenak, gaiarekin zerikusi zuzena duten erakundeetan aurkeztu zitzaizkien: Arabako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetan (Gizarte Ongizatea, Hezkuntza, Nekazaritza…). Txostena, beste erakunde batzuei (Gaztela-Leongo «Procurador del Común» izenekoari) eta interesa duten edo informazio iturri izan diren taldeei (Cáritas, oinarriko gizarte laguntzaileei, inguruko ikastetxeetako irakasleei...) ere bidali zitzaien.

Txostenaren ondorioz, 1997. urtean zehar, beste erakunde eta elkarte batzuk Arartekoarekin harremanetan jarri dira, beraien interesa azalduz eta laguntza eskainiz. Horrela, esate baterako, Probintziako Lan eta Gizarte Gaietarako Zuzendaritza edo UAGA sindikatua Arartekoarekin harremanetan jarri dira.

96 Txostenean argitaraturiko laburpena, jarraipenerako konpromezu bate-kin amaitzen zen: *«Azterturiko arazoaren izaera ziklikoa dela-eta* -zioen-*erakunde honek jarduketen jarraipena burutuko du hurrengo urteetan».*

Eta hori da, laburbildurik, Txosten honetan biltzen dena: Arartekoaren erakundetik 1997. urtean egindako jarraipena. Jarraipen hori egitea posible izan da zenbait pertsona, elkarte eta zerbitzuren laguntzari esker. Horrela, erakunde

honetako lankideak zuzenean izan dira arazoa bizi den lekuan, Arabako Errioxan batez ere, mahats bilketako azken kanpainan.

Elkarrizkatak eta bilerak egin dira arazoarekin zerikusi zuzena duten pertsona edo taldeekin:

- Hainbat lekutatik etorritako sasoikako langileekin;
- Langileak kontratatzen dituzten nekazariekin;
- Enpresa kontratatzaileetako arduradunekin;
- Eltziego, Biasteri eta Albainako kanpamentuetan bizi diren familiekin;
- Biasteriko aterpetxean zeuden pertsonekin;
- Eltziegoko gizarte hezkuntza interbentzio taldearekin (Hezilan);
- Baseko gizarte laguntzaile taldearekin;
- Probintziako Lan eta Gizarte Gaietarako Zuzendariarekin;
- UAGA sindikatuko kideekin;
- Eltziegoko, Biasteriko eta Trebiñoko ikastetxe publikoetako zuzendaritza eta irakasleekin;
- Inguruko bolondresekin;
- Biasteriko Ertzaintzaren komisaldegiko arduradun eta ertzainekin;
- Inguruko osasun zerbitzuetako langileekin;
- Hainbat herritako udal agintariekin;

Aipaturiko guztiaz gain, erakunde honetako kideek hainbat leku eta zerbi-tzu ikuskatu-dituzte, egun desberdinetan, mahats bilketaren kanpainan zehar bizi duten egoera zuzenean ezagutzeko:

- Eltziegoko, Biasteriko, Albainako eta Baños de Ebroko kanpamentu eta kanpalekuak;
- Eltziegon, Nabaridasen, Samaniegon eta Baños de Ebron, familia edo industria ustiakuntzetan lanean aritzen diren pertsonen eta/edo familien bizitokiak.
- Biasteriko aterpetxea;
- Eltziegoko, Biasteriko eta Trebiñoko ikastetxeak.

## 2. Zenbait elementu azpimarragarri

Bildutako informazioarekin, aurreko urtean egindakoarekin alderatuz, esan daiteke zenbait arazok aurrerapauso garrantzitsuak ezagutu dituela, eta beste zenbaitek, berriz, joan den urtean bezala, eta batzuetan, kaskarrago, jarraitzen duela. Bi egoerak alderatu ahal izateko, 96 Txostenak erabili zuen eskema bera jarraituko dugu, bertan, bereziki arazotsuak izan ziren lau gaiak aztertuz:

- kontratazio sistemak;
- Bizitokitzat dituzten lekuen egoera;
- eskolaratzea;
- gizarte integrazioa-bazterketa.

**A/ Kontratazio sistemei dagokienez,** joan den urtean azpimarratu zen jadanik oso maiz gertatzen dela subkontratazioa («koadrilako buruen» partehartzearekin) eta horrek oso ondorio kaltegarriak dituela, atzerritik etorritako pertsonentzat batez ere.

Oso zaila da jokaera horiei eta ondorioei buruzko datu fidagarririk lortzea, baina, bilduriko berrien eta informazioen arabera, esan dezakegu kontratazio mota horrek ez duela behera egin, are gehiago, pertsona kopuru handiak kontrolpean dituzten sare berriak antolatu direla. Adibide gisa aipa daiteke Samaniegon bizi diren jatorri portugaldarreko ehun pertsona ingurua, bi pertsonek kontrolatua.

Horren aurrean, azpimarratzekoa da, baita ere, kontratazioak jatorrian lortzeko zenbait ahalegin. Formula horrek subkontratazioaren arriskuak desagertarazten ditu, eta erakundeek eskaintzen dituzten eta orain arte oso gutxi erabili diren laguntzak (esate baterako, leku batetik bestera joateko dauden diru laguntzak) jasotzeko aukera ematen du.

Erakunde honek, egun batez edo hainbat egunez lanean aritu ondoren pezeta bat ere jaso ez duten pertsonen -atzerritarrak gehienetan- kasuen berri izan du, eta, gehiago oraindik, kolpeak, irainak eta mehatxuak jaso dituztela zegokiona eskatzeagatik. Mota horretako gertaerak oso gutxitan salatzen dira agintarien aurrean. Hala eta guztiz, hortik gatazka larriak sor daitezke.

Seguruenik, azken urte honetan gertaturiko gatazka askok, Eltziegoko kanpamentuan etnia desberdinetako pertsona edo taldeen artean gertaturikoak, adibidez, zerikusia izango du subkontratazioarekin eta lan merkatuaren kontrolarekin, kasu batzuetan arrazismo edo komunitate desberdinen arteko intolerantzia agerpen gisa aurkeztu nahi izan baldin badira ere.

Urte honetan Arabako Errioxara mahats bilketan lanean aritzera etorritako pertsona kopurua aurreko urteetakoa baino altuagoa izango zen, ziurrenez. Hori dela-eta, zenbait pertsonek, antolaturiko sareetatik kanpo lana aurkitzeko zailtasuna aurreko urteetakoa baino altuagoa izan da. Aipaturiko guztiari jardueraren garrantzi ekonomikoa gehitzen badiogu (12.000 milioitik gora mahatsaren prezioan; edo 700 milioi inguru soldatak ordaintzeko; guztia hiru edo lau astetan kontzentraturik), ez dago zalantzarik agintarien eta agente ekonomikoen ardura eta partehartzea behar duen egoera baten aurrean gaudela.

Jatorrian egindako kontratazio sistemak bultzatzea, eskualdean kontratazio bulegoak irekitzea, lan baldintzeak inspekziotzea eta kontrolatzea… dira talde honen egoera hobetzen eta arrisku egoerak desagertarazten gehien lagun dezaketen neurrietako batzuk. Izan ere, azken urteotan burutu diren inspekzio lanei esker, aurrerapauso garrantzitsuak eman dira sarritan gertatzen ziren beste zenbait arazo konpontzeko (adingabekoak kontratatzea, lankideen matrikula liburuak ez betetzea, Gizarte Segurantzan altarik edo bajarik ez ematea...). Urte honetan bertan, Arabako Lan eta Gizarte Segurantzako Inspekzioak 11 jarduketa burutu ditu gune horretan, eta hiru arau urratze akta jaso ditu, zergati batzuen edo besteen ondorioz. Hala eta guztiz ere, subkontratazioarekin erlazionaturiko jokaerek oso ondorio garrantzitsuak dituzte oraindik babes gutxien duten taldeengan.

**B/ Alojamendu baldintzen artean lau egoera** bereizten ditugu:

a) Erakundeek bultzaturiko aterpetxeetan egoten diren pertsonak -egun bat edo bi, gehienetan-.
b) Kanpamentuetan edo horretarako prestaturiko lekuetan kanpatzen duten familiak.
c) Nekazariek edo enpresa kontratatzaileek prestaturiko lokaletan bizi diren pertsonak eta familiak.
d) Ahal duten lekuan eta moduan lo egiten duten familik, baldintza hoberik ez dutelako.

a) Azken urte honetan, lanak amaitu ondoren, Arabako Foru Aldundiak bultzaturiko Aguraingo aterpetxea ireki da. Biasteriko sasoikako aterpetxeari dagokionez, horretarako erabiltzen zen institutu zaharreko egoitza lurreratu denez, beste zenbait alternatiba planteatu da. Bilboko Udalarenak diren lokal zabalak ezin zirenez erabili (jabeak, Bilboko Udalak, ez zuelako sasoikako langileen aterpetxe bezala erabiltzeko baimenik eman), eta aurrefabrikaturiko moduluen alokairua eta muntaketa ere baztertu zenez, azkenik udal igerilekuko lokalak egokitu ziren, aurreko urtekoa bezalako plaza kopuruarekin (48 pertsona), eta jarduteko antzeko irizpideekin (egun bat edo bi egotea, jaten emate…).

Aipaturiko bi zerbitzu horien erabilera oso desberdina izan da: oso gutxi erabili da Aguraingoa eta asko Biasterikoa (263 pertsona). Horrela, Biasteriko aterpetxea gainezka egon da ireki zenetik, lehen egunetan batez ere. Kopuru muga horiek kontuan izanik ere, kasu honetan ere hainbat puntu positibo azpimarra daiteke: erakunde desberdinen arteko elkarlana, baseko laguntza zerbitzuen eta bolondresen partehartzea, malgutasuna zenbait irizpide indarrean jartzeko orduan, jatorriz atzerritarra den eta kulturari dagokionez zerbitzuaren erabiltzaile askorengandik oso hurbil dagoen pertsona baten kontratazioa (108 pertsona magrebiarrak ziren jatorriz)...

Horrela, aipaturiko zerbitzu horien txosten teknikoetan jasoko den balorazioa ezagutu aurretik, esan daiteke aterpetxeen bideak, bere mugak dituen arren (gehienez bi egun egoteko aukera, ordutegia bete beharra, jende gehiegi egun jakin batzuetan, inplikazio maila desberdina gizarteko agente batzuen eta beste batzuen artean…), zerbitzu erabilgarria eskaintzen dituela oso egoera larrian bizi den pertsona talde horrentzat.

b) Aurten ere kanpatzeko lekuak egokitu dira Eltziegon eta Albainan. Kanpamentu horietan gehien bat ijito arrazako familiak egon dira, elkarren artean senideak zirenak, eta eskolara joateko adinean zeuden hainbat neska mutiko tartean zela (Eltziego herrian, aurten 61 familia zenbatu dira, eskolara joateko adinean zeuden 171 neska mutikorekin).

Eltziegoko kanpamentuak aspalditik eskaintzen zituen zerbitzuak eskaini ditu (guztiak erabiltzeko ur korrontea, argia, dutxak eta garbiketa zerbitzuak), eta ez da hobekuntza nabarmenik antzeman (bere horretan jarraitzen du lurraren alda-

pak, hautsa edo lokatza sortzen da, eguraldiaren arabera, zerbitzuak zikin daude...). Lekua eta zerbitzuak erabiltzearen ondorioz zenbait arazo sortu da (ur ihesak, elektrizitate falta zenbait orduz, horrek eragin duen janari galerarekin, guneko erabiltzaileei buruzko irizpide edo kontrol falta, bertako biztanleen arteko arazoak...).

Albainako kanpalekuan, garbiketa zerbitzuei, korronte sorgailuari, ur txorrotari eta zakar edukiontziei, aurten hobetu egin da lurra, zenbait kamioikada hartxintxar bota baita. «Etxebizitzak» oraindik ere, gehienetan, behin-behineko txabolak dira, oso material kaskarrekin eraikiak, eta ez dute gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzarik betetzen.

c) Nekazarien edo enpresa kontratatzaileen lokaletan bizi diren pertsonei eta familiei dagokienez, oso egoera desberdinak antzeman dira: benetan eredugarriak diren, ahalmen ekonomiko handiko enpresek egokituriko lokaletatik hasi (adibide bezala aipa dezakegu Eltziegoko «Herederos Marqués de Riscal» enpre-sak sasoikako langileak bizi daitezen prestaturiko pabilioia) eta bizitzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituzten lekuetara (gehienetan, familia mailako ustiakuntzetan nekazaritzako tresnak gordetzeko erabiltzen diren lekuak), duela denbora gutxi herri batzuetako nekazariek lokalak egokitzeko eta berritzeko hartu duten zenbait ekimenetik igaroz.

Baina gai hori modu zehatzean landuko da, txosten honetako aholku orokorretako batean (ikusi VII. atala, 7.3 azpiatala).

d) Laugarren egoera, larriena eta penagarriena, ziurrenez, kalean lo egin behar duten pertsonena edo, horretarako prestaturik ez dauden lekuetan kanpatu behar duten familiena da.

Horrela, esate baterako, urriaren 1etik 2ra bitarteko gauean, Biasteriko aterpetxea beteta zegoenez, herriko hainbat lekutan (udaletxeko behekaldean, lorategietan, autobusaren geltokiko markesinan) edo harresien ondoan aparkaturiko kotxeetan lo egiten zuten 46 pertsona zenbatu genituen.

Modu berean, eta Biasteritik irten gabe, Eltziegora doan errepidearen on-doan, zabortegi gisa erabiltzen den eta inolako zerbitzurik ez duen leku batean, 17 familia inguru ezarri ziren, beraien kamioi eta furgonetekin. Antzeko kanpalekuak, inolako zerbitzurik gabeak, ikusi ahal izan ziren Paganos edo Baños de Ebro bezalako beste hainbat lekutan ere. Azpimarragarria da kanpaleku horietan zegoen haur kopuru handia.

### C/ Eskolara joateko adinean dauden haurren eskolaratzeari dagokionez .

Eskolaratze beharrak, ijito arrazako familiak bizi diren kanpamentuen inguruetan kontzentratu dira, batez ere, beste edozein lekuk baino jende gehiago, 400 pertsona inguru, biltzen zituen Eltziegoko kanpamentuaren inguruan.

Inolako zalantzarik gabe, gai honetan lortu dira beste-guztietan baino aurrerapauso handiagoak:

- Ikastetxeko irakasle taldeak partehartze handiagoa izan du;
- Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak baliabide gehiagoz hornitu du ikastetxea;
- Zerbitzu gehiago eskaini da (eskolako jantokia);
- Elkarlana ikusi da agente hezitzaileen (ikastetxeko irakasleak) eta gizarteko beste agente (gizarte laguntzaileak eta gizarte hezkuntza interbentzio taldea) batzuen artean.

Horrela, Eltziegoko Ikastetxe Publikoan, hamabi urtetik beherako 107 neska-mutiko joan dira eskolara, astean 35 orduz batezbeste. Hala ere, aurten, Trebiñoko Ikastetxe Publikoan jaitsi egin da eskolaratze erreala, eta Biasterin ez da inolako eskolaratzerik gertatu, bi kasuetan erraztasun handiak eman diren arren. Eskaintza zabala egin den arren, hamabi urtetik gorako inor ez da joan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako klaseetara. Argi eta garbi dago eskolaratzea beharrezko baldintza dela, nahikoa ez bada ere, adingabeko horien hezkuntza beharrei erantzun ahal izateko. Gai horri dagokionez, Eltziegon, Hezilan elkarteko hezitzaile taldeak gizarte zailtasunak dituzten familiekin burututako Atentzio eta gizarte hezkuntza interbentzio Programaren txosten ebaluaketan, pertsona horien hezkuntza beharrei buruzko datu eta aipamen oso esanguratsuak biltzen dira.

**D) Sasoikako langileek eta beraien familiek inguruan bizi duten gizarte integrazioari edo bazterketari buruz.**

Bat baino gehiago dira urte honetan zehar gizarte agenteek aurrera eramandako ekimenak, sasoikako langileak eta haien familiak gizartean hobeto integra daitezen.

- Baseko gizarte zerbitzuek antolaturiko hitzaldiak;
- Atentzio eta gizarte hezkuntza interbentzio Programak indarrean jarri gizarte zailtasunak dituzten familiekin Eltziegoko kanpamentuan;
- Samaniegoko Udalak hartutako akordioak eta irailaren 23ko argitaraturiko bandoa, herriko biztanleei, kanpotik datozenak hartzeko gutxieneko arauak emanez;
- Osasun eta hezkuntza zerbitzuak eskualdean (zainketa anbulatorioa, eskolako garraioa eta jantokia);
- Inguruko bolondresen partehartzea...

Hala eta guztiz, oraindik ere, integraziorako oso desegokiak diren zenbait baldintza ikusten da, eta baita integrazioaren aurkako zenbait jarrera eta jokaera.

***

Bereziki arazotsuak diren lau gaietan antzemandako aurrerapausoak eta gabeziak deskribatu ondoren, aurten burututako jarraipenetik interesgarri izan

daitekeen zenbait ondorio atera daiteke. Honako gai hauei buruzko ondorioak dira:

- Erakundeen eta gizarteko agenteen arteko lan koordinatuaren garrantzia, zerbitzuak hobetzea lortzeko asmoz. Eta ez bakarrik asko direlako gaian zerikusia duten erakundeak eta elkarteak (udaletako, lurraldeko, autonomia erkidegoko eta estatuko agintariak, nekazari elkarteak, zerbitzu zentralak eta eskualdekoak...), baita partehartzea noraino heldu behar den markatzen duten mugak ez direlako beti argi ikusten, eta, sarri askotan, agente desberdinen arteko elkarlana delako gabeziak konpontzeko bide bakarra. Agente desberdinen arteko lan koordinatuaren birtualitatearen adibide garbia Eltziegoko Ikastetxe Publikoan lorturiko eskolaratzea da. Bertan, eskola barruko eta eskola kanpoko eta maila desberdinetako (eskualdekoak eta lurraldekoak) agenteek hartu dute parte.
- Egoeraren ahultasuna, oso erraza baita desoreka gertatzea eta arazo berriak sortzea.

  Urte honetako esperientziak, kanpainak irauten duen denboran zenbait egoerak eta zerbitzuk bizi duten orekaren desegonkortasuna erakusten du: Eltziegoko kanpamentuan gertaturiko iskanbila baten ondorioz, familia talde handia joan egiten da, eta beste zenbait familia ezin dira bertara sartu; argi indarraren egoera txarraren edo karga gehiegi sartzearen ondorioz, kanpamentua argi indarrik gabe geratzen da, eta janariak galtzen dira; Biasteriko aterpetxeko aurreikuspenek gainezka egiten dute lehen egunetan, aurreikusi gabeko jende etorreraren ondorioz; udalerri batzuetako agintariek birplanteatu egiten dute zenbait zerbitzuren baliagarritasuna, herri batek eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzen dituzten langile asko inguruko beste herri edo gune batzuetara doazelako lanera; Ertzaintzaren zainketa edo partehartze handiagoa eskatzen da...

  Nolabait esateko, zerbitzuek, aurreko urteetako inertziaren ondorioz funtzionatzen dute, eta, ondorioz, ez dago aukera asko egoera berrietara egokitzeko edo aurreikusteko.

- Atentzio sareak gainezka

  Inguruan aritzen diren zenbait zerbitzuetako langile kopuruak bere horretan dirau mahats bilketa kanpainak irauten duen bitartean, inolako gehikuntzarik gabe. Horrela, esate baterako, baseko gizarte zerbitzuetako taldea hiru pertsonek osatzen dute, eta garai honetan, beraien betidaniko lanari, lan berriak gehitu behar diete. Gauza bera gertatzen da Biasteriko komisaldegiko langileekin, normalean baino patruila eta jarduketa gehiago burutu behar badituzte ere. Zerbitzu horietan bizi den sentsazioa, sarritan, leku guztietara heltzeko ezintasuna da.

Gai honen inguruan, interesgarri da azpimarratzea Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritzak egindakoa, kanpainak irauten duen asteetan gehitu egiten baitu Eltziego edo Biasteriko ikastetxeetako langile kopurua. Beste zenbait zerbitzutan (aipatu ditugun gizarte laguntzan edo komisaldegian, esaterako) gauza bera egingo balitz, hobetu egingo litzateke, inolako zalantzarik gabe, urteko garai berezi horretan dauden behar bereziei eman beharreko erantzuna.

- Udal agintarien inplikazio maila desberdinak.

  Horrela, esate baterako, Samaniegoko Udalak arau bereziak hartzen ditu sasoikako langileek herrian dauden denboraldirako, eta bandoa argitaratzen du, kanpalekuei, nekazarien etxeetan alojatzeari edo 12 urtetik beherako neska mutikoei buruzko zenbait arau emateko herriko biztanleei. Beste udal batzuk, berriz, ez dute partehartzen, eta, partehartzekotan oso bestelako irizpideak erabiltzen dituzte. Horren ondorioz, udal agintariek ez dute jakiten gaian eskumenak dituzten ala ez, eta herri bateko pertsonek, bere herriko udalak emandako arauek bestelakoa esaten badu ere, inguruko herrietan ikusten dutena egin dezakete.

Argi dagoena zera da, urteko garai horretan eskualdean ematen diren gertaera askok erabat gainditzen dutela udalerri bakoitzaren muga estua, eta, ondorioz, beharrezkoa dela elkarlan koordinatuak burutzea.

***

Araban aritzen diren sasoikako langileen arazoaren jarraipenaren inguruko atal honekin amaitzeko, gogoratu egin behar dira berriro Arartekoak gai honen inguruan 96 Txostenean (ikusi 60-62. orr.) egin zituen proposamenak. Proposamen horiek hiru esparrutan zentratzen ziren:

- arauak garatu eta legea bete;
- erakunde desberdinen eta gizarteko agenteen arteko koordinazioa indartu;
- langileei informazioa eskaini, beraien eskubideei eta eskura dituzten zerbitzuei buruzko informazioa emanez.

Aurten burututako jarraipenaren ondorio gisa, Arartekoak, txosten honetan, landutako gai bati buruzko aholku zehatza sartzen du: lojamenduen arauketa. (txosten honetako (ikusi VII. atala, 7.3 azpiatala).

### C) **Egoitzetan bizi ez diren Hirugarren Adineko pertsonen laguntza**

Egoitzetatik kanpoko laguntzari buruzko txostenak, Egoitzetan bizi ez diren Hirugarren Adineko pertsonen laguntzarako eskaintza publikoaren bi tresna garrantzitsuenak aztertu zituen: etxeetan laguntzeko zerbitzua eta eguneko zen-

troak. Txostenetik kanpo utzi ziren denboraldi bateko egonaldiak edo harrera familiak bezalako beste gizarte zerbitzu batzuk.

Txostena burutzeko, txostena amaitu zen egunean, 1995eko azaroan, martxan zeuden eguneko 22 zentroak bisitatu ziren. Datu bitxi bezala, aipa daiteke ikerketa hasi zenean eguneko 13 zentro zeudela EAEn, eta amaitu zenean, 22 zirela jadanik, eta, gainera, aurrera zihoan beste zenbait irekitzeko proiektuak.

Gero eta zabalduagoa dago mota honetako zentroak sortzeko ideia, batez ere herri mailan, erresidentzia edo jubilatuen egoitza batek eskaintzen duen azpiegitura erabiliz.

Gure bisitaldien helburua, normalean, txostenetan emandako aholkuen jarraipena egitea izaten bada ere, urte honetan komenigarri ikusi zen txostena argitaratu ondoren irekitako zentroen instalakuntzak bisitatzea. Horrekin, aipaturiko azken zentro horien jardunbidea ezagutu eta erabiltzaileei eskaintzen zitzaien laguntzaren kalitatea nolakoa zen aztertu nahi zen.

Azpeitiko Aitonena eguneko zentroa

Udalaren esku dagoen zentro hau jubilatuen egoitzan dago, eta instalakuntzak eta zerbitzuak jubilatuen egoitzakoak dira. Herriaren erdian duen kokaera lagungarri da erabiltzaileen gizarte integrazioa lortzeko.

1996an ireki zen, eta gaur egun 13 pertsonek erabiltzen dute. Izan duen harrera onari esker, zerbitzua hedatzea ari dira aztertzen, bai psikogeriatria gela bat jartzeko, bai ordutegia asteburuetara zabaltzeko, edo gauza biak batera.

Zerbitzua zabaltzen baldin bada, gehitu egin beharko da komunen kopurua, eta egokitu egin beharko dira mugitzeko zailtasunak dituzten edo gurpildun aulkiak edo eskorgak erabili behar dituzten pertsonek erabil ditzaten.

Osasun zerbitzua komunitatearena da, baina zentroan bertan eskaintzen da. Gaixo bakoitzari egokitutako terapia okupazionala programatzen duen terapeuta baten laguntza ere jasotzen du, eta bada jarduerak aurrera eramaten laguntzen duen zenbait bolondres.

Giro bero eta atsegina lortu da, eta arduradunek, erabiltzaileen gizarte integrazioan lagungarri izango diren hobekuntzak sartzeko zai daude.

Bizia eguneko zentroa

1996ko ekainean ireki zen, Alzheimer gaixotasuna duten pertsonak zaintzeko. ASAFES Elkarteak kudeatzen du eta Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren menpe dago.

25 pertsonentzako lekua duen zentro hau ez zegoen pentsatuta Alzheimer gaixotasuna duten pertsonak zaintzeko, eta, ondorioz, jadanik proiektaturik dauden egokitze lanak behar ditu. Lan horiei esker, instalakuntzak hobetzeaz gain, handitu egingo da zentroan egon daitezkeen gaixoen kopurua, eta, horrela, 35 erabiltzaile izan ahalko ditu.

Egokitze lanen barruan komunen berrikuntza dago. Bertan, labainkadakontrako materiala, segurtasunezko barrak eta txirrinak edo beste alarma moduren bat ezarriko dira.

Zentroan, erabiltzaile bakoitzaren gaitasunen araberako jarduerak burutzen dira, eta irteerak eta kultur bisitak antolatzen dira. jarduera horiek egiteko bolondresen laguntza izaten da,

. San Prudencio zentroa

San Prudencio Zaharren Egoitzaren barruan dagoen zentro honi egindako bisitaren zergatia, Egoitzetatik kanpo bizi diren Hirugarren Adineko pertsonen laguntzarako txostenean eman ziren aholkuen jarraipena egitea izan zen.

Bisita egin genuenean, jakin genuen 1998ko urtarrilaren letik aurrera, zerbitzuaren kudeaketa esku pribatuek hartu behar zutela, eta, ondorioz, aldakuntzak gerta daitezke langileei, laguntzari eta jarduerei buruzko ratioan.

Aldi berean, esan zitzaigun, baita ere, aurreikusita zegoela urteko egun guztietan irekita egongo zen eguneko zainketarako zentro bat irekitzea, eta bertara joango zirela autonomia maila altuago duten hirugarren adineko pertsonak. Zentro berria ireki ondoren, eguneko zentroak zainketa gehiago behar dituzten hirugarren adineko pertsonak zainduko lituzke.

Informazioa eskatu ondoren, Udalak esan digu zenbait zirkunstantziaren ondorioz, Udalbatzak, bere egunean indarrean jarritako kontratazio espedientea bertan behera uztea erabaki zuela, eta ondoren, «San Prudencio» Eguneko Zentroaren eta Eguneko Zainketarako Zerbitzuaren kudeaketa lehiaketara atera zuela, egoera berriro planteatu ondoren komenigarriago ikusi baita «San Prudencio» Eguneko Zlentroaren eta Eguneko Zainketarako Zerbitzuaren kudeaketa udaleko langileek burutzea.

Zerbitzu berria kudeatzeko behar diren langileak kontratatzeko, Nagusien erabateko Laguntzarako «San Prudencio» Zentroko langileen gainbegiraketa eta laguntza izango da. Lehenago aipatu den bezala, Zentro horretan dago eguneko zentroaren egoitza.

Aldi berean, Arabako Foru Aldundiko Ongizate Sailarekin elkarlaguntzarako komenioa sinatzea aurreikusita dago. Komenio horren bitartez, zerbitzuen finantzaketa eta erakunde hark, Ongizate Sailak, bidaliriko erabiltzaileak sartzeko prozedura arautuko dira.

San Marcial Zentroa

Donostiako Altza auzoan dago, hiri barruan, eta komunikabide egokiak ditu, erabiltzaileek, zentroak beraien eskura jartzen duen garraio egokituko zerbitzua erabiltzen badute ere.

Zentroa irekitzeko eta erabiltzaileei arreta eskaintzeko egin diren lanak modu positiboan baloratzen badira ere, bisitan gabezia nabarmenak antzeman. ziren, eta, ondorioz, beharrezkoa izango da hobekuntzak sartzen joatea, laguntza kalitate egokia eskaini ahal izateko.

Jubilatuen klub batean dago, eta hark dituen zenbait zerbitzu erabiltzen ditu, hasiera batean eguneko zentro baterako pentsaturik ez zeuden zerbitzuak, alegia. Bainugela geriatriko bat jarri beharko litzateke, une honetan dituen komunak jubilatuen klubekoak direlako, eta bertan ez dagoelako labainkadakontrako materialik, segurtasunezko eskubanda edo barrarik ezta txirrinik ere.

Erabiltzaileek zailtasun handiak dituzte egoitzaren barruan mugitzeko, eta hori dela-eta, eskubandak jarri behar dira hormetan eta oztopo arkitektonikoak kendu, eskailerak ez erabiltzeko aukera emango duen arrapala txiki bat ezarriz.

Eguneko zentroko erabiltzaileen atsedenaldi fisikoa errazteko, komenigarri izango litzateke haltzariak erabiltzaile horiek dituzten beharretara egokitzea.

D) **Hirugarren adinekoentzako egoitzak**

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hirugarren adinekoentzako egoitzetan bizi diren pertsonen egoera, Arartekoak 1992an eta 1993an burututako ezohiko txosten batean aztertu zen.

Txosten horren helburua, talde honek dituen eskubideak zein punturaino babesten ziren ikustea eta hirugarren adinekoentzako egoitzen egoera zein zen aztertzea zen, faktore horiek zerikusi zuzena baitute egoitza horietan bizi diren pertsonen eskubideetan.

Ikerketa burutu zenean, bertan aritu zen lan taldeak, aurretik bi arazo konpondu beharra ikusi zuen.

Lehenbizi, beste jarduketa monografikoetan ez bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hirugarren adinekoentzako egoitzen kopuru handiaren ondorioz, guztiz ezinezkoa zen guztiak bisitatzea.

Bigarrenik, zalantza bat sortu zen, soilik erabateko izaera publikoa zutenak ikertu behar ziren ala ez. Gai horren inguruan, ahalik eta ondorio fidagarrienak lortzeko, mota guztietako egoitzak bisitatu behar zirela erabaki zen.

Zentroetara egiten ziren bisitei zegokienez, aipatu ditugun mugak kontuan izanik, kopuru mugatua bisitatzea erabaki zen, modu ez zorizkoan. Irizpide mistoa jarraitu zen; alde batetik, baldintza desegokiak izateko aukera gehien zituzten egoitzak aztertu nahi ziren, eta beste alde batetik, lurraldeen araberako irizpidea jarraitu zen. Adierazle objektiboen artean, gela bakoitzeko zegoen ohe kopurua eta eraikinaren antzinatasuna hartu ziren kontuan.

37 egoitza bisitatu ziren. Horietatik 13tan, SHSeko lan taldeak azterketa sakona burutu zuen. Ondorioak aipatu den txostenean argitaratu ziren.

Erakunde honen ustetan, hiritar horien eskubideen babeserako bete behar duen jardunbiea ez da txosten bakoitzaren aurkezpenarekin amaitzen, eta beharrezkoa da txostenetan ematen diren aholkuen jarraipena egitea.

Horretarako, 1997ko urte honetan, gure aholkuak zein puntutaraino jarraitzen diren aztertzeko zenbait ofiziozko jarduketa hasi dugu. Hori dela-eta, konpondu beharreko gabeziak edo akatsak zituzten zenbait egoitza bisitatu dugu. Horrez gain, ezohiko txostena burutu zenean aztertu ezin izan ziren zenbait egoitza ere bisitatu dugu.

Zerbitzu hauen gero eta eskaera handiagoaren ondorioz zentro berriak sortzen dira, bai alor publikoan eta baita pribatuan ere, eta bietan egin behar dugu lan.

Ondoren, bisitatu diren Hirugarren Adinekoentzako egoitzen zerrenda ematen da.

Julian Rezola Zentroa (Matia Fundazioa) Donostia

Bisita honen helburua, txostenean emandako aholkuen jarraipena egitea zen, kontuan izanik txosten horretan zentro honek puntuazio ertain/baxua lortu zuela.

Elbarritu handiak zaintzeko sortu zen Julian Rezola zentroak 148 pertsonentzako lekua du, eta KUNTZMANNen balorazio eskalaren arabera 6 eta 10 puntu arteko elbarritasuna duen taldeari eskaintzen dizkio zerbitzuak.

Zentroko plaza guztiak Gizartekintza-Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailarekin kontzertaturik daude.

Eraikina hiriko kanpoaldeko auzo batean dago, lorategiz inguraturik eta Matia Ospitaletik gertu, heltzeko zailtasunak dituen gune garaian. Horren ondorioz, sarritan jendea nahastu egin da zerbitzu baten eta bestearen artean.

Zentroko zuzendaritzak eraikina berritzeko proiektua aurreikusi du 1998. urterako, eta horrek erabateko aldakuntza eragingo du bertan.

Egoitzaren sarrera eraikinaren behealdetik proiektatu da, eguneko zentroaren ondotik. Horrekin lekua irabaziko da sarreran, eta bertan egongela bat proiektatu da. Ondorioz, erabiltzaileek aisialdirako leku gehiago izango dute.

Jantokian dagoen kapera txikiagoa izango da, baina ez da desagertuko, auzoko eliza bezala funtzionatzen aritu baita.

Desagertu egingo dira jende askorentzako gelak, eta, aurreikuspenaren arabera, gelen %90 bikoitzak izango dira, eta %10 bakarkakoak. Gela guztietan dutxa geriatrikoa duten komunak egongo dira, eta 25 erabiltzaile bakoitzeko bainugela geriatriko bat eraikitzea aurreikusi da.

Berrikuntzaren ondorioz, plaza gutxiago egongo da, baina proiektua aurrera ateratzeko ahalegina egingo da.

Disziplina arteko lanean oinarritutako partehartze sistema erabiltzen du, programa, zerbitzu eta prestazio guztiek erabiltzaileen beharrei erantzun behar dietela ulertzen baita. Erabiltzaile bakoitzak lan egiteko plan berezia du, eta bertan, haren behar fisikoak, soziofamiliarrak, aisialdirakoak eta gizarte normalizaziokoak biltzen dira, ahal den neurrian.

Gaur egun hedatu egin dira laborterapia eta birgaitze jarduerak, oso urriak ikerketa egin zen garaian.

Amurrioko egoitza

Txostenean biltzen ziren aholkuen jarraipena egiteko asmoz, Arabako Foru Aldundiaren esku dagoen zentro hau bisitatu zen.

Gaur egun 40 erabiltzaile ditu, eta 8 pertsona har dezake eguneko zentroak. Hala ere, bigarren zerbitzu hori oso gutxi erabiltzen da, garraio zerbitzurik ez dagoenez pertsona bakarrak erabiltzen baitu.

Hirugarren adinekoentzako egoitzei buruzko txostenean ikusten zenez, erosotasun fisikoari zegokionez batezbesteko normaletik behera zegoen, beste arrazoi batzuen artean ez zegoelako gune egokirik kanpoan, lorategia, belarra, haltzari aproposekin. Bisita honetan ikusi zen arazo hori nolabait konpondu dela, egoitzaren sarreran aisialdirako gunea egokitu baita. Hala ere, bisita burutu zen unean gune hori oso gutxi erabiltzen zen, hesia apurtuta zegoelako. Ondorioz, hesia berehala konpontzeko aholkua eman dugu.

Beste aholku bat, eraikinaren goialdean, eskulanen tailerraren ondoan, dauden bi terrazetako bat egokitzea izan da, gune hori ere oso gutxi erabiltzen zelako.

Zentroak ugaldu egin ditu aisialdirako jarduerak, keramika erakusten duen begirale bat kontratatu baita, eskulanen tailerraren arduradun ere badena.

Ikusi da, baita ere, segurtasunari dagokionez emandako aholkuak jarraitu direla, eta labainkadakontrako lurra eta txirrinak jarri dira bainugeletan.

Aguraingo Egoitza Geriatrikoa

Arabako Ongizate Foru Institutuaren esku dagoen egoitza hau ez zen bisitatu hirugarren adinekoentzako egoitzen txostena egin zenean. 32 pertsonentzako lekua du.

Berriztaturiko eraikina da, lorategi txiki batek inguratua. Herri barruan dago, eta oso leku atsegina da.

Egoitzak pertsona bakarrentzako 10 gela ditu eta pertsona birentzako beste 11, eta bainugela dago guztietan. 3 bainugela geriatriko ere badaude, moldaturiko dutxekin, eta behe solairuan beste bainugela bi.

Beraiek bakarrik ongi konpontzen diren pertsonentzako aurreikusia, zenbait aldakuntza behar ditu, gero eta adintsuagoak diren eta ezintasun maila desberdinak dituzten erabiltzaileen beharrei erantzuteko.

Egin beharreko lehenbiziko gauza, geletan dauden bainuen berrikuntza da, mugitzeko arazoak eta gurpildun aulkiak dituzten pertsonak sartzeko behar den zabalera emanez. Gaur egungo dutxen ordez dutxa geriatrikoak jarri beharko lirateke, eta bainugeletan labainkadakontrako lurra jarri.

Harrera gunean dagoen telefonoa erabili badaiteke ere, komenigarria izango litzateke telefono kabina bat ezartzea, ez oso altua, egoitzako erabiltzaileek edozein unetan, laguntzarik gabe, erabili dezaten.

Gaur egun, egunero egunkariak irakurtzen dira eta astean behin solasaldirako taldeak antolatzen dira, baina komenigarria izango litzateke egoitzan bizi direnen jarduerak, bakoitzaren gaitasunaren arabera programatuko lituzkeen psikoterapeuta bat izatea, eta terapia okupazionala, zentroan bertan edo udalaren instalakuntzetan, programazio horretan oinarriturik egitea. Aisialdirako begirale bat kontratatuz gero, indartu egingo litzateke gaur egun bolondresek egiten duten lana.

San Antonio kaleko pisu babestuak (Gasteiz)

Gasteizko San Antonio kalean dagoen lau solairuko eraikin berriztatua da.

1995eko azaroan ireki zen, altzari guztiak dituzten 20 apartamentuk osatzen dute, 11 pertsona birentzat eta 9 pertsona bakarrarentzat, udalak babestuak. Bertako jardunbideak zerikusi gehiago du auzokideen komunitate batekin hirugarren adinerako egoitza batekin baino. Kontuan hartzen da bertan bizi direnak oso zaharrak ez izatea, bertako egonaldia denbora tarte luze samarrekoa izan dadin.

Udalaren asmoa erabiltzaileek behar duten laguntza jasotzea eta pisuak egoera onean egon daitezela da. Hori dela-eta, erabiltzaile bakoitzak bere beharrak zaintzen dituen arren, etxeetan laguntza eskaintzeko zerbitzuko langile bat joaten da egunero behar duten pertsonei laguntzera. Egoitzako gune amankomunen garbiketaz enpresa bat arduratzen da. Eraikinak lorategi txiki bat du atzealdean, komunitatearen oinarrizko baliabideetatik gertu dago eta erabiltzaileek komunitateak dituen zerbitzu orokorrak jasotzen dituzte.

Bertan bizi direnek oso modu positiboan baloratzen dute zerbitzua.

Begoñako Andra Mariaren Egoitza

Santurtziko (Bizkaia) El Villar auzoan dago, eta udalak kudeatzen du.

Eraikinak 8.900 $m^2$ ditu, orain 20 urte eraiki zen, eta ondoren hainbat berrikuntza izan du, ezintasunak dituzten hirugarren adineko pertsonen behar bereziei erantzuteko. Bertan dauden pertsonen batezbesteko adina 84 urtekoa da.

Kokalekua, herrigunetik hurbil dagoen gune lasaian, aproposa izango litzateke sarbide egokiak izango balitu. Gaur egun bide estutik heltzen da, eta kotxea erabili behar da, garraio publikoa ez baita bertara heltzen. Badirudi bidea hobetzeko proiektua ikertzen ari direla, bai egoitzara doana eta baita bertatik gertu dagoen auzora doana ere.

Egoitza duela denbora gutxi berriztatu da, eta 137 lagunentzako tokia du. Dena dela gaur egun 112 pertsona baino ez daude bertan.

Eraikinaren ezkerraldearen goikaldea, udan joaten diren behin behineko erabiltzaileek erabiltzen dute, eta urteko beste sasoietan itxita dago, eskaera falta dela-eta.

1992an Santurtziko Udalak kontzertu bat sinatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiarekin, plazak betetzeko. Foru Aldundiak, bere aldetik, denuntziatu egin du akordioa, eta gaur egun ez dakigu zein den Foru Aldundiak aurkeztuko duen proposamena edo konponbidea.

Zentroan ez dago gizarte laguntzarako zerbitzurik, ez dago psikoterapeutarik eta ez da terapia okupazionalik egiten; praktika garaian dauden ikasleak dira lan horiek egiten dituztenak. Komenigarria izango litzateke bolondresen lana koordinatuko luketen profesionalak kontratatzea, denbora osorako ez bada ere,

eta zentroak zerbitzu horiek urte osoan zehar eskaintzea, eta ez bakarrik praktikek irauten duten bitartean.

Gallartako Egoitza

1990ean irekitako egoitza hau udalaren, aginduz hasi zen eraikitzen, inguruko biztanleen beharrei erantzuteko. Hala ere, ireki aurretik, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetara pasa zen, eta erakunde horrek kudeatzen du, GUFIren bitartez.

Hiri barruan dago, eta jendea bizi arren gehiegizko trafikorik edo zaratarik ez duen leku batean egoteak dituen abantailak ditu.

62 pertsona egon daitezke bertan, eta hasieran pertsona birentzat ziren gela asko pertsona bakarrarentzat dira orain, pribazitatea errazteko. Gaur egun bi pertsonentzako 22 gela, pertsona bakarrarentzako 18 eta erizaintzako 4 gela ditu. Egoitzako instalakuntzak egoera onean dauden eta etengabe berritzen den arren, motibatu egin beharko lirateke bertan daudenak, beraien espazioak pertsonalago bilaka ditzaten.

Egoitza mistoa da, eta gauez zainketa berezia behar duten pertsonentzako gunea du; pertsona horiek, egunez, normaltasun osoz eramaten dute aurrera zentroko bizimodua. Egoitza komunitateko zerbitzuekin loturik dago, eta bertan bizi direnak aisialdiko zenbait jarduera burutzen dute; fisioterapeuta ere badago erabiltzaileak zaintzen ari diren profesionalen artean.

Basauriko zaharren egoitza

Udalaren esku dagoen Basauriko egoitza baserri izan zen 1984ko urria bitartean. Urte horretan ireki zen zaharren egoitza. Herriaren erdian dagoenez, komunitateak eskaintzen dituen zerbitzuak jasotzen ditu.

80 pertsona egon daitezke bertan, eta batezbesteko adina 85 urtekoa da. Foru Aldundiak egoitza misto bezala katalogatzen du. Egitura ez da egokia, eta zainketaren kalitatea hobetzeko konpondu behar den hainbat gabezia erakusten du.

Gelek ez dute bainu edo komunik. Hiru pertsonentzako 20 gela daude, pertsona bakarrentzako 2 gela baino ez daude eta zentroak dituen bi pertsonentzako 7 gelak senar-emazteek erabiltzeko prestaturik daude. Ondorioz, senar-emazterik ez dagoenean, pertsona bakarrentzako gela bilakatzen dira, baina ezin zaie bainu edo komunik jarri, oso txikiak baitira.

Bainuen eta komunen konponketa lehen mailako beharra da. Berrikuntza lanak izan zituen solairu batek izan ezik, gainerakoek akats asko erakusten dituzte. Komunetan beharrezkoa da gurpilaulkiak edo eskorgak erabiltzen dituzten pertsonek ateak itxi ahal izatea. Eskubandak, segurtasunezko barrak eta txirrinak ere jarri behar dira.

Aisialdirako oso jarduera gutxi dago, eta komenigarria izango litzateke bertan bizi direnen gaitasunetara egokituriko terapia okupazionalen bat burutzea,

zeren, giroa atsegina bada ere eta bertan dauden pertsonek jarrera bikaina erakusten duten arren, oso gutxi baitira udalerrian antolakuriko jarduerak jarrai ditzaketenak.

San Martin Egoitza (Azpeitia)

San Martin Egoitza egoitza pribatua da, ordena erlijioso batek kudeatzen du eta 1996tik kontzertua du sinaturik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

4.500 $m^2$ ditu, lorategia barne, eta herriaren erdian dagoenez, komunitateak eskaintzen dituen zerbitzuak jasotzen ditu. Orain 20 urte berriztatu zen, ongi kontserbaturik dago eta bi pertsonentzako 24 gela ditu. Erizaintzarako egokituriko gune berria ere badu, bainugela duten pertsona bakarrentzako 4 gelakin.

Bi pertsonentzako 24 gelatan haltzari egokiak daude, eta bisitak jasotzeko lekua ere bai. Dena dela, guneak pertsonalizatzeko aukera eman dezakeen oso apaindura edo tresna gutxi dago.

Gaur egun, bainugelak berriztatzeko lanak aurrekontuaren zai daude. Bainugeletan labainkadakontrako Jurra, txirrinak eta bainu edo dutxa geriatrikoak jarri beharko lirateke.

Ez dago erabiltzaileek partehar dezaten bide egokirik, eta ez da erreklamazioak bideratzeko sistemarik aurreikusi. Beren kabuz ibil daitezkeen pertsonak jubilatuen etxera joaten diren arren, beharrezkoa izango litzateke egoitzan bertan ere jarduerak antolatzea, terapia okupazional bakarra gimnasia klasea baita.

Egoitzan bizi direnen adina kontuan izanik, 82 urte batezbestean, eta %50ak nolabaiteko ezintasuna duela, komenigarria izango litzateke jarduerak antolatuko lituzkeen psikoterapeuta bat eta aisialdirako begiraleren bat izatea.

Komenigarria izango litzateke, baita ere, egoitzan bizi direnen arazo pertsonalez eta sozio-familiarrez arduratuko litzatekeen gizarte laguntzaile baten zerbitzuak izatea.

E) **Psikiatrikoak**

Arartekoaren erakundeak 1991. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale psikiatrikoetan dauden gaixo mentalen egoerari buruzko txostena aurkeztu zuen.

Txostenaren helburua, zerbitzu publikoa hobetu ahal izateko aldatu behar ziren puntuak azpimarratzea zen.

Aipaturiko txostenean biltzen ziren aholkuen jarraipena egiteko, ospitale psikiatrikoetara bisitaldiak egin dira eta ikerketa lana burutu da, bai ospitale psikiatriko publikoetan eta baita ohe kontzertatuak dituzten pribatuetan.

Pisuetan zaintzen diren gaixo mentalek ere behar bezalako zainketa jasotzeak sortzen digun arduraren ondorioz, urte honetan pisu babestuak eta eguneko zentroak bisitatzen hasiko gara.

Araban., Buruko Osasuneko Birgaitze Komunitarioko Zerbitzua ari da lanean, Osakidetzako Buruko Osasuneko sarearen barruan dagoen tarteko egitu-

ra. Gaur egun Errege Katolikoen kalean dago, eta 500 $m^2$ inguruko lokalak eta espazio zabaleko 1.200 $m^2$ hartzen ditu. Espazio zabalean, besteak beste, baratzeko eta lorategiko jarduerak burutzen dira.

Jarduera hauek oso egokitzat jotzen dira terapeutikoak direlako eta birgaitzeko balio dutelako, baina komenigarria izango litzateke dagoen gune zabala egokitzea, zentroak eskaintzen duen erosotasun fisikoa areagotzeko eta laguntza kalitate handiagokoa izateko.

1981ean, gaixo psikiatrikoak egoitzetatik kanpo bizitzeko prozesua hasi zenean, eguneko zentroa antolatu zen ospitalean bertan. Ondoren, Errege Katolikoen kaleko zentro honetan, ordurarte bereizturik zeuden osasun zainketa eta zainketa okupazionala bildu ziren.

Zerbitzua Osakidetzaren esku dago, eta astelehenetik ostiralera goizeko 8etatik arratsaldeko 15etara eta larunbat goizetan dago irekita. Goardiako zerbitzua eskaintzen du eguneko 24 ordutan, urteko egun guztietan. Arratsaldetan eta egun birik behin tailerrak antolatzen dira.

Zerbitzuak, gaur egun, 200 erabiltzaile ditu, hainbat lekutatik etorriak. Horietako 120 babesturiko pisuetan edo pentsioetan daude (horietatik 90, gaixoak egoitzetatik kanpo bizitzeko prozesutik datoz), eta gainerako 80ak jarduerak burutzera joaten dira zentrora. Zainketa, beraz, denbora osokoa edo ez osokoa izan daiteke. Zainketa mota gaixoa bidaltzen duten zentroek erabakitzen dute.

Gaixoa zerbitzura heltzen denean, banakako Plan Terapeutikoa antolatzen da, bere laguntzarekin. Kontuan hartzen dira gaixoak jakinarazten dituen eta haren senideek eta bere zainketaz arduratzen diren pertsonek ikusten dituzten beharrak.

Zerbitzuak dituen baliabideez gain, ahalik eta gehien erabiltzen dira komunitateak eskaintzen dituenak, gaixoa beste hiritar bat baita, bere eskubide eta betebeharrekin.

Zerbitzuko erabiltzaileek oso talde heterogeneoa osatzen dute, 18 eta 80 urte bitartekoak, eboluzio prozesu desberdinak eta mota bat baino gehiagoko diagnostikoak dituzte (%52 eskizofrenikoak dira, %22 portaeran aldaketak dituzten atzeratu mentalak, %9,32 eldarnio psikosi kronikoa dute, eta beste %16,95ak beste zenbait diagnostiko). %94,91k psikotropoen tratamendua jasotzen du.

Gaixoen %43,22 pentsioetan bizi da, %27,12 pisu babestuetan, %19,40 babesturiko egoitzetan eta %10,17 bere etxean.

Komunitateko Birgaitze Zerbitzuak ardurak eta lana konpartitzen ditu Arabako Gaixo Psikikoen Senideen Elkartearekin (ASAFES), eta maiz gertatzen da bolondresak gerturatzea asteburuetako lanak egitera.

Birgaitze Zerbitzuaren esku dauden Egoitza baliabideak

Zerbitzuak babesturiko bi egoitza ditu. Horietako batean gobernanta bat dago eguneko 7 ordutan (asteburuetan izan ezik). Bestean, gaixoen autonomia maila dela-eta, ez da horren zainketa jarraiturik behar, eta, ondorioz, gobernantaren lana eguneroko jardunbidearen antolakuntza eta gainbegiraketa da.

Pentsioak

Une honetan gaixoak 11 pentsiotan bizi dira. Badira, baita ere, gaixoak mantenu osoan hartzen dituzten familiak ere. Lojamendu horietan, beste lekuetako zerbitzuez gain, zerbitzu bereziagoak ere eskaintzen dira.

Pisu babestuak

Zerbitzuak, gaur egun, 8 pisu babestu ditu (3 gizonezkoenak eta 5 emakumezkoenak). Pisuetan bizi diren pertsonek bi begiraleren ikuskaketa jasotzen dute, baina presentzia fisikoa ez da beharrezkoa izaten. Orokorrean, bizitoki guztiak gune zentrikoetan daude, eta ahalegina egiten da guztiak gune berean egon ez daitezen, horrela normalizazioa errazteko.

Helburua, pisuetako erabiltzaileak autonomoak izatea da. Zerbitzuaren arduradunen ustez, urte hauetako balantzea oso positiboa da, ez baita elkarbizitzak eragindako arazo garrantzitsurik egon eta auzokide elkarteek ez baitute inolako erreklamaziorik azaldu.

Gaur egun, gaixoak jada ospitale psikiatrikoa bezalako medio uniformeetatik ez datozenez, bizitzeko gunearen beharrak gero eta gehiago ugaritu eta indibidualizatu egiten dira.

Ahal den neurrian, pertsona horiek beraien bizileku naturalean bizitzen jarrai dezatela bilatzen da, laguntza egokia eskainiz, baina kasu batzuetan ezinbestekoa izaten da gainbegiratutako behin behineko edo behin betiko bizitokiaren beharra.

Gaixorik gazteenek eta arazo heterogeneoak dituztenek, erantzunak behar dituzten behar bereziak azaltzen dituzte.

Horren ondorioz formula berriak planteatu behar dira, beste mota batzuetako baliabideak aurkitu, zerikusia duten erakunde guztien partehartzea bultzatu, gaixo mentalen arazoei erantzun egokiak emateko.

Gipuzkoan, Osakidetzak ez du pisu babestuek eta eguneko zentroek osaturiko sarerik.

Bizkaian, Zaldibarko Ospitalak, herriko Udalarekin elkarlanean, pisu babestu bat ireki du, eta bertan, ospitaleratze prozesu luzeak bizi dituzten hiru emakume bizi dira.

Zerbitzua bi urtez prestatu zen ospitalean bertan, eta esperientzia beste gaixo batzuengana hedatzeko asmoa dute.

Hiru emakumeek ospitaleko talde espezialduaren laguntza eta gainbegiraketa jasotzen dute, baina bizitzako aspektu guztietan autonomoak izan daitezen bilatzen da. Gaur egun, hiru emakumeok lan egiten dute eta diru sarrerak dituzte.

Zerbitzuaren arduradunen ustez, jendeak oso ondo hartu ditu hiru emakume horiek, eta mota horretako konponbideak oso baliotsuak dira, baita, gaixoen bizileku berria den gizartearentzat.

Bilbon Izarra Etxea bisitatu zen, Osakidetzarekin kontzertua sinaturik duen egoitza pribatua.

Izarra Etxearen jatorria, 1977an Sandronizen (Sondikan), Osalde Elkarteak bultzaturik, martxan jarri zen bide erdiko zentro batean dago.

Urte hauetan zehar eskaintza aldatu eta espezialdu egin da. Zerbitzua jasotzen zutenen artean hasieran alkoholikoak eta psikotikoak zeuden, baina orain gaixo mentalak baino ez dira zaintzen, eta tratamenduak zehatzagoak eta pertsonalagoak dira.

1983an, egitura egokirik ez zegoenez, Izarra Etxea erreferentziatzat duten «pisu babestuak» jarri zituzten martxan.

1984an, Bizkaiko Foru Aldundiko Ongizate Sailarekin kontzertua sinaturik zuen zentroa Osalde Elkartetik bereiztu zen, eta 1986an Osakidetza barruan sartu zen.

Bisita egin genuen unean 14 ziren egoitzan bizi ziren gaixoak, bi sexuetakoak, eta beste 8 pisuetan bizi baina egoitzara joaten zirenak jarraipena burutzera.

Zentroan batezbeste ematen duten denbora urtebetetik beherakoa da, eta, gehienetan, moduluetako psikiatrek bidalitako gaixoak izaten dira. Hala ere, badirudi osasun eta gizarte baliabideen faltak erraztu egiten duela berriz ere gaixorik jartzea.

Basurtuko Ospitalari dagokionez, Osakidetzak jakinarazi digunez, bete egin dira 1997rako ezarritako aurreikuspenak. Horrela, Escurza pabilioia erabat psikiatriarako erabiltzen da 1997ko ekainetik, eta pabilioiaren ondoan, psikiatriako gaixoek erabiltzeko lorategia dago.

### F) **Atxilotuak gordetzen diren udal egoitzak**

Atxilotuak gordetzen diren ziegei buruzko ikuskatze lanak direla eta -1991ko Txosten berezian lehenengo aldiz aipatuak-, aurten hiru polizia etxe bisitatu dira, Udaltzaingoarenak hirurak. Izan ere, Ertzaintza bere espetxeetako ziegak berriztatzeko egiten ari den lanak direla eta, lan horiek bukatu eta ziega horiek berriz erabiltzeko moduan izan arte itxarotea erabaki da, haien egoera balioztatu baino lehen.

Bilboko Udaltzaingoak atxilotuak gordetzeko Garellanon duen egoitza bisitatu eta ikuskatu zen lehenebizi. Hiriaren segurtasunerako udal zerbitzuak erabiltzen duten pabiloiaren bebarruan daude Udaltzaingoaren ziegak. Sarrera edo ate nagusiaz aparte beste bat dago, atxilotua ziegara zuzenean jaitsi ahal izateko. Sarrera horrek bost mailako eskailera bat du, eta ez dago elbarritasunen bat duten herritarrak edo atxilotuak arkitektura oztopo hori gainditzen laguntzeko inolako bitartekorik.

Egoitza laukizuzen baten erdiko partean daude ziegak, pasillo edo korridore zabal batek inguratzen dituela. Egoitzan argi asko sartzen da, leiho asko baitaude, burdin hesiz itxiak denak. Zortzi ziega txiki daude, oso txiki (1,80 m x 1,50 m, gutxi gorabehera), gehienez ere pertsona bat har dezaketenak -banako ziegak-, eta beste bi handiago (3,5 m x 2,5 m), pertsona bat baino gehiagorentzat -ziega kolektiboak-. Bi handiago horiek “amerikar erako” ziegak dira, hau da,

hesia dute aurreraldean. Banako ziega txikietan, atea burdinazkoa edo metalezkoa da; leihatila txiki bat dute, gainera, material gardenez egina eta kanpotik ataka moduko batez itxi daitekeena; ataka hori ere metalezkba da Ziegako hornidura bakarra erlaitza da, obrakoa, lauzaz estalia eta ertz biribilekoa. Argi bakarra dago ziegan, ate gainean, eta kanpotik itzaltzen eta pizten da. Gure ustez, so komenigarria litzateke, atxilotuak atseden hartu edo lo egin nahi duenerako, argiaren intentsitatea erregulatu ahal izateko gailu bat jartzea, baina egun dagoen argi sistemak ez du horretarako aukerarik ematen. Atxilotuei lastaira moduko bat ematen zaie, oso-oso mehea, eta orobat ematen zai hiru manta edo burusi ere. Udalaren garbiketa zerbitzua arduratzen da mantak garbitzeaz eta desinfektatzeaz.

Erakunde honen iritziz, banako ziega horiek oso txikiak dira, txikiegiak, alegia, eta ez dituzte 1994. urtean, Espainiako Gobernuari, Tortura Eragozteko Europar Batzordeak igorri zion txostenean azaltzen dituen betebeharrak betetzen. Izan ere, Europako Kontseiluaren mendde dagoen erakunde horrek hauxe gomendatzen baitzuen: gaua igarotzeko erabiltzen ziren banako ziegek 7 $m^2$ inguruko eremua izatea eta hormen artean gutxienez 2 metroko tartea uztea. Orobat Arartekoaren 1991ko Txostenean ere, ziegek gutxienez 6 $m^2$-ko eremua izatea gomendatzen zen.

Ziegak dauden aldeko horma guztiak lauza edo baldosa handiez estaliak daude. Lauza horietako batzuk, baina, arrailduak daude. Hormak-eta estaltzeko lauzak erabiltzea, erakunde honen iritziz, ez da oso gomendagarria, atxilotuak bere burua zauri dezakeelako.

Ziegetako beroketa sistema eraikuntza osoan dagoen bera da. Ziegetan, baina, ez dago inolako gailurik berotasuna erregulatzeko, eta bisita egitera joan ginenean, han ez zuen batere berorik egiten.

Garbitasun eta osasun baldintzei dagokienez, esan beharra dago, ziegak zeuden aldea ez zegoela, oro har, oso-oso garbia, are gutxiago ziegak berak, baina, nolanahi here, kontuan hartu beharko da da bisita hau eguneko garbiketa egiten ari ziren orduan egin zela.

Bi bainugela gela daude, zein bere konketa eta komun zuloarekin. Komunaren gainean dutxa bat jarri da, ur berokoa. Txorrota ireki eta ixteko giltza edo kanila kanpoan dago. Komunek ez dute aterik, eta holtz batez bereizten dira bata bestetik. Hala eta guztiz ere, egoitza itxi batean daudenez, barrualdea ez da ikusten pasollitik. Nolanahi ere, holtz erdiak -edo antzeko sistemaren bat- jartzea komeniko litzateke, komunera joaten dena bakarrik egon ahal izateko, haren intimitate eskubidea ez urratzeko Atxiloek ez dute garbiketarako tresnarik, baina komunerako papera ematen zaie hala eskatzen dutenean, eta orobat ematen omen zaie xaboia eta eskuoihala ere, hala eskatzen dutenean (eta gutxitan eskatzen omen dute, han esan zigutenez).

Bi udaltzain arduratzen dira atxilotuak zaintzeaz. Pasillotik bertatik egiten dute zainketa. Gainera, bideo karrierak ere badaude. Eraikuntza etxe zahar bat da, eta ez du suari aurre egiteko sistemarik. Gabezia hori lehenbailehen konpondu beharrekoa da.

Atxilotuei, jateko, ogibitartekoa besterik ez zaie ematen, eta hori ez da egokia, atxiloketak 12 ordu baino gehiago irauten duenean batez ere.

Gainerako gelak -arakatzeko eta miatzeko gela, argazkiak eta hatz aztarnak hartzekoa, deklarazioa hartzekoa- txukun eta egoki daude. Ez ordea legelariarekin egoteko erabiltzen dena, ez baitu ez argi naturalik ez altzaririk. Bisitak hartzeko, bestalde, ez dago gelarik.

Otxarkoagako Udaltzaingoaren etxeak, Bilboko udaltzaingoaren beste batzuek ez bezala, atxilotuak gordetzeko gelak ditu. Nolanahi ere, egoera berezietan baino ez dira erabiltzen, hala nola, Garellanon lekurik ez denean, edo atxilotuak elkarrengandik aparte eduki behar direnean, besteak beste.

Etxeak sarrera bakarra du. Ez du sarbide berezirik ibilgailuentzat. Eta ez dituenez ere egongela bereziak, salatzailea eta salatua elkarrekin egotera behartuta daude.

Bulegoak dauden solairu berean daude ziegak ere. Burdinazko ate batek bereizten ditu bi aldeak. Ziegak pasillo estu baten (metro bat, gutxi gorabehera) aldamenetan daude. Oso ziega txikiak dira (1,80 m x 1,80 m), eta argi naturalik ez dute. Argi gisa, bonbilla bat dute atearen gainean. Ez dago argiaren intentsitatea gutxitzeko edo handitzeko gailurik.

Bainugela bat dago, garbia eta txukuna, dutxa batez, altzairu herdolgaitzezko komun batez eta konketa batez hornitua. Ate gisa, hesi bat besterik ez dago, eta, beraz, hautsi egiten da intimitate eskubidea. Komuneko papera badago eta xaboia ematen dute, eskatu ezkero. Eskuoihalik, berriz, ez dago.

Berogailurik ere ez dago. Bulegoetan erradiadore elektrikoak erabiltzen dira. Nolainahi ere, bisita egin genuen orduan, ez genuen hotz handirik sumatu.

Ziegetan ez dago suteen kontrako segurtasun sistemarik batere. Udaltzainek ere ez dute aparteko zainketarik egiten. Ez dute beharrezkotzat jotzen: gelak-eta oso txikiak baitira, eta aise sumatzen da soinurik txikiena ere ziegetan.

Oro har, garbi eta txukun dago egoitza. Horma guztiak margo garbigarriz daude margotuta, eta horrek egoera onean kontserbatzen ditu.

Bulego bat bakarrik dago polizia egoitza honetan, eta salaketak jasotzeko eta deklarazioak hartzeko erabiltzen da. Garellanoko egoitzaren osagarria da egoitza hau, eta diligentzia gutxi egiten dira, baina halakoetan, atxilotuak eta salatzaileak topo egitea gerta daiteke, eta hori ez litzateke, inondik ere, batere egokia.

Donostia/San Sebastianeko polizia etxera egindako bisitaren eta ikuskatze lanaren helburua 1996ko abenduaren 10ean egindako bisitaren ondoren emandako gomendioak bete ziren ala ez ikustea zen. Izan ere, behin baino gehiagotan eskatu da informazio hori, baina artean ez dugu erantzunik jaso.

Bisitan ikusi zenez, zenbait berrikuntza egin dira atxilotuen egoera hobetzearren.

Lehenik, arkitektura oztopoak gainditzeko lanei dagokienez, mekanismo berezi bat ezarri da elbarritasunen bat duten hiritarrak egoitzara sartzeko eragozpenik izan ez dezaten. Era berean, igogailu bat dago, ziegak eta gainerako solairuak komunikatzen dituena.

Banako ziegei dagokienez, hasieran hiru ziega txiki zeuden, baina bi daude orain, 7 $m^2$-koak, gutxi gorabehera. Argiteria ere hobetu da, argiaren intentsiatea erregulatzeko modua jarri baita gailu berezien bidez. Erlaitzak aldatu egin dira; ertz biribilduak dituzte orain. Airea eraberritzeko sistema bat dute ziegek, eta ateetan material gardenezko leihatila handi bat jarri da. Atxilotuei su hartzen ez duen lastaira bat eta mantak edo burusiak uzten zaizkie; garbiketa enpresa bat arduratzen da material hori garbitzeaz eta desinfektatzeaz.

Egoitzaren itxura hobetu egin da, oro har, eta aurreko bisitan hondamen itxura eman ziguten hezetasun arazo haiek konponduta daude jada. Lurrean lauzak edo baldosak ezarri dira, eta hormak pintura garbigarriz margotu dira, zeldak errazago eta hobekiago garbitu ahal izateko.

Komunetan gainerako ziegetako leihatilaren antzeko leiho bat jarri da, atxilotuen intimitaterako eskubidea eta zainketa, biak ala biak, bermatzeko. Hala ere, ezin izan da dutxarik jarri, berrikuntza lan handiak egin behar baitziren horretarako. Xaboia eta komuneko papera, bai, biak ematen dira.

Jateko, lehenago ogibitartekoak besterik ez ziren eskaintzen, baina, gaur egun, otordu oso bat ematen da egunean. Janaria ondoko taberna batetik ekartzen da, plastikozko ontzietan sartua eta babestua.

Gure gomendioak aintzat harturik, miaketak egiteko eta deklarazioa hartzeko aretoak zabaldu eta handitu dira, txikiegiak baitziren hainbeste zereginetarako.

Zaintza sistemari dagokionez, orain arteko berbera mantentzeko erabakia hartu da; zirkuito itxiko telebista sistema bat da, ziegetan kamera banaz osatua, atxilotuak ikusi ahal izateko etengabe. Kontrol horrek, ordea, ez luke etengabea izan behar, gure gomendioetan adierazi genuen bezala, atxilotuen intimitate eskubidea ez urratzeko.

### 2.1.2. **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN BABESIK GABE DAUDEN HAUR ETA GAZTEENTZAKO ZERBITZUEIBURUZKO EZOHIKO TXOSTENA**

Azken bi urteotan Arartekoak, SIIS Dokumentazio eta Ikerkuntzarako Zentroarekin elkarlanean, gure autonomia erkidegoan arrisku edo babesik gabeko egoeran dauden haur eta gazteei erakundeek eskaintzen dizkieten zerbitzuei buruzko azterketa sakona burutu du. Ildo honetan, ez-ohiko txostena egin eta urriaren 9an Eusko Legebiltzarreko lehendakariari bidali genion.

Lan hori osatzeko, 1995eko 150 espediente aztertu (50 lurralde historiko bakoitzeko) eta gure autonomia erkidegoko 63 harrera zentroak banan-banan bisitatu ditugu. Txostenean, dokumentazioaren azterketan eta zentroetara eginiko bisitaldietan ikusitako guztia zehatz-mehatz jaso dugu.

Txostena oso sakona denez, ez da erraza lerro gutxitan laburtzea. Dena den, hobetu beharreko alderdiak eta lehentasuna duten premiak nabarmendu nahi ditugu batik bat eta honako zortzi puntu hauek iruditu zaizkigu aipagarrienak:

- babesik gabe dauden adingabekoentzako zerbitzuen oinarrizko alderdiak arautuko dituen araudi bakarra ezartzea, Erkidego osorako balioko duena;
- ahalik eta erantzun gehien ematea (familietan hartzea, larrialdietarako zentroak, eguneko zentroak...);
- izugarrizko aldeak ikusi ditugu lurralde historikoetako erakunde desberdinek eskainitako erantzunen artean;
- babesik gabeko egoerak atzemateko bideak hobetzea;
- oinarrizko gizarte zerbitzuen eta hezitzaile espezializatuen arteko harremana eta koordinazioa;
- gizarteratzeko, jatorrizko esparruetan berriro sartzeko eta autonomia sozialerako programak gauzatzea;
- haurren, gazteen eta horien familien partaidetza sustatzea;
- zerbitzuen ebaluazio koalitatiboa eta aldizkako kontrola egitea.

Txostenean 42 gomendio jasotzen dira, ondorengoak kontuan hartzen dituztenak:

- adingabekoen babesari buruzko lege esparrua eta konpetentzien banaketa;
- zerbitzu sarean lanean diharduten profesionalak;
- banakako premiei erantzuteko programak;
- horrelako egoerak atzemateko, erabakiak hartzeko, esku hartzeko, berrikusteko... jardunbideak;
- bizileku zerbitzuen antolamendua eta funtzionamendua;
- zerbitzu horien kontrola eta ebaluazioa...

Gure erkidegoan konpetentziak nola dauden banatuta kontuan hartuta, gomendio gehienei Foru Aldundiek erantzun behar diete. Arabako lurralde historikoan berriz, Gasteizeko Udalari dagokio, eskuordetzaz hain zuzen, horien gaineko erantzukizuna. Gauzak horrela, txostena Eusko Legebiltzarrera bidali dugu lehenbizi, eta ondoren, aipatutako erakundeetara eta hiru lurraldeetako Batzar Nagusietara.

Adierazi dugunez, behar-beharrezkoa da Erkidego osorako balioko duen araudi bakarra egitea. Araudi horrek, batetik, babesik gabeko adingabekoentzako zerbitzuen funtsezko alderdiak arautuko ditu eta bestetik, gazte horien oinarrizko eskubideak bermatzea izango du helburu, hori baita txostenean jasotako gomendioetako bat. Araudi komuna egiteko premiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzari zuzendu gatzaizkio (Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzarako Saila), Jaurlaritzari baitagokio legegintza ekimen hori abiaraztea.

Arartekoak, gainera, honakoei zuzenean aurkeztu zien txostena: lurralde bakoitzeko harrera zentro erresidentzialetan lan egiten duten profesionalei eta zeregin hori sustatzen duten elkarteetako kideei, horietako batzuk txostena hobeto ezagutzeko gogoa erakutsi baitzuten. Elkarte horien lankidetza eta konpromezu pertsonal edo profesionala lortu nahi izan genuen horrela.

Gomendioen jarraipena hobeto burutzeko, azaroan, Arartekoak txosteneko 42 proposamenak elkarren artean zerikusia duten arloen arabera sailkatu zituen. Arlo horien gain zein administraziok duen eskumena ere izan zuen kontuan. Ondoren, ofiziozko jarduera hauek aurkeztu zituen:

- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzarako. Sailaren aurrean: haur eta gazteentzako zerbitzuei buruzko araudi komuna ezarriko duen legea egiteko premiari buruzko jarduera.

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Sailaren, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzarako Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Sailaren aurrean, honakoak barne hartzen dituzten jarduerak:

  - Oinarrizko gizarte zerbitzuen prestakuntza eta koordinazioa.
  - Zerbitzu espezializatuetako langileen prestakuntza, ikuskapena eta laguntza.
  - Baloraziorako Batzorde Teknikoen osaketa eta funtzionamendua.
  - Babeserako zerbitzu sare desberdinak eratzea.
  - Trantsizio programak.
  - Horrelako egoerak atzemateko sistemak, gizartearen inplikazioa eta bestelako agente sozialekiko elkarlana hobetzea.
  - Espedienteetako agiriak razionalizatzea.
  - Erabiltzaileen eta horien familien partaidetzarako bideak finkatzea.
  - Kasuak eta hartutako neurriak aldizka berrikustea.
  - Bizileku zerbitzuen antolamendua, funtzionamendua, kontrola eta ebaluazioa.
  - Erakundeek emandako babesaren bilakaerari buruzko datuak.

- Gasteizeko Udalaren aurrean, honakoak barne hartzen dituzten jarduerak:
  - Oinarrizko gizarte zerbitzuen prestakuntza eta koordinazioa.
  - Zerbitzu espezializatuetako langileen prestakuntza, ikuskapena eta laguntza.
  - Baloraziorako Batzorde Teknikoen osaketa eta funtzionamendua.
  - Babeserako zerbitzu sare desberdinak eratzea.
  - Trantsizio programak.
  - Horrelako egoerak atzemateko sistemak, gizartearen inplikazioa eta bestelako agente sozialekiko elkarlana hobetzea.

1997. urtea bukatu baino lehen, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzarako Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetarako Sailak-Gizartekintzak erantzun diete ofiziozko jarduerei. Azken erakunde horrek, gainera, gai bakoitzari erantzuna emateaz gain, “haur eta gazteei laguntzeko egitasmo integrala”ren zirriborroa ere bidali du. Egitasmo hori lau urterako da eta gure erakundeak egindako ia gomendio guztiak biltzen ditu.

Administrazio arduradunei aurkeztutako ofiziozko jarduerek, langileekin izandako harremanek eta datozen urteotan zentro eta zerbitzuetara egingo ditugun bisitaldiek, ezbairik gabe, hainbat helburu lortzen lagunduko digute, hots: aztergai dugun arazoa gaur egun zertan den ezagutzen eta bestalde, babesik gabeko adingabekoentzako zerbitzuak hobetzeko gure erakundeak eman dituen gomendioen jarraipen zehatzagoa burutzen.

### 2.1.3. ADINGABEKO ARAU HAUSLEENTZAKO HARRERA ZERBITZUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

1996ko txostenean adierazi genuenez, gure erkidegoko adingabekoen arazoa aztertzerakoan honako bereizketa egin dugu: batetik, arriskuan edo babesik gabe dauden haur eta gazteak hartu ditugu kontuan eta bestetik, adingabeko arau hausleak, hau da, delitutzat hartutako ekintzak egiten dituztenak.

Arrisku egoeran dauden haurrei laguntzeko zerbitzuei buruzko ez-ohiko txostena bukatu genuenean, bigarren taldekoen arazoak aztertzeari ekin genion. Une hauetan azterketaren emaitzak idatziz jasotzen ari gara, eta 1998ko lehen hilabeteetan aurkeztuko ditugu Eusko Legebiltzarraren aurrean.

Epaitegiek besterik ez dute adingabekoek egindako legez kanpoko ekintzak zigortzeko eskumena, eta beraz, gure erakundeak ezin ditu inola ere arlo horretan hartutako ebazpenak baloratu, zeregin hori jurisdikzionala baita bete-betean. Dena den, herri administrazioen funtzionamenduaren kontrola Arartekoaren eginkizuna denez, egokia zeritzogun adingabeko arau hausleei ezarritako neurri judizialak Eusko Jaurlaritzak nola gauzatzen dituen aztertzeari. Zentzu honetan, gatazkatitzat hartutako adingabekoei erakundeak nolako erantzunak ematen ari zaizkien aztertu dugu batik bat.

Azterlanean bi zati bereizi dira. Lehenengoa sarrerak osatzen du. Bertan, lanaren ezaugarri orokorrak aipatzen dira eta neurriak ezarri eta betearazteko antolatutako zerbitzu sarea deskribatzen da; horretaz gain, adingabekoek arau haustea egozten zaienetik ezarritako neurriak bete arte jarraitu beharreko urratsen berri ere ematen da. Bigarren zatian, Euskal Autonomia Erkidegoko adingabekoen epaitegietan ezarritako neurriak banaka aztertzen dira eta teoria eta praktika elkarrekin benetan nola uztartzen diren ikusten da.

Hona hemen egindako lanaren sintesia:

#### 1. zatia: Adingabeko arau hausleentzako harrera sistemaren deskribapena eta balorazioa

*Edukiak:*

- Gazteen inguruko legegintzaren egungo joerak
- Lege esparrua
- Zerbitzu sarea
- Esku hartzeko jardunbideak

*Metodologia:*
- Aztergai dugun arloan lanean dihardutenekin hitz egitea: epaitegietan, fiskaltzetan, Eusko Jaurlaritzan eta Arabako Foru Aldundian.
- 100 espediente judizialen azterketa.
- Lanaren bigarren zatian, kasuak aztertzerakoan profesiona lek, adingabekoek eta gurasoek emandako informazio orokorra.

**2. zatia: adingabekoen epaitegietan ezarritako neurrien azterketa**

*Edukiak:*
- Neurri bakoitza ikuspuntu teorikotik aurkeztu da, beti ere Erkidegoko, Estatuko eta Europako literatura espezializatua oinarritzat hartuta.
- Ezarritako neurri mota bakoitzeko kasu bana aztertu da, eta baita bitartekotza eta konpontze jardunbideak ere.
- Internamendu neurriei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru zentroen ebaluazioa egin da.

*Metodologia:*
- Literatura espezializatua aztertzea.
- Ezarritako neurri bakoitzaren inguruko elkarrizketak prestatu eta burutzea.
- Adingabeko arau hausleentzako zentroetara joan eta horien ebaluazioa egitea.

### 2.1.4. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

Arartekoak gizarte ekintzaren esparruan egindako txosten monografikoetan, argi ikusten da oinarrizko gizarte zerbitzuak funtsezkoak direla eta berebiziko garrantzia dutela.

Hori dela-eta, aipatutako txostenak osatzeko, Arartekoak beharrezkoa deritzo gizarte zerbitzuak ebaluatzeari. Izan ere, 1997ko azken hiruhilekoan hasi ginen horiek aztertzen.

Gizarte babesaren arloa Gizarte Zerbitzuei buruzko 6/82 Legearen arabera antolatu da hamalau urtez. Lege horretan oinarrizko gizarte zerbitzuak aipatu ere ez ziren egiten; baina hala ere, arauak aztertuz gero, zenbait artikuluk aipatutako zerbitzuekin zerikusi handia dutela ikusten da, artikulu horien edukia oso orokorra izan arren. Hona hemen zenbait adibide:

- Hirugarren artikuluan lehentasuna duten jarduera arloak finkatzen dira, eta horien artean, gaur egun oinarrizko gizarte zerbitzuek burutzen dituzten asko daude sartuta; baina esan dugun bezala, zerbitzu horiek ez dira berariaz aipatzen.

- Bosgarren artikuluan gizarte zerbitzuek nola funtzionatu behar duten zehazten da, eta horien kudeaketa ahalik eta gehien deszentralizatu behar dela ematen da aditzera.
- Hamaikagarren artikulutik hamaseigarrenera -biak bame direla- toki erakundeek, udalek eta udalaz gaindiko erakundeek gizarte zerbitzuen arloan zein konpetentzia izango dituzten finkatzen da, eta horietako bakoitzak dagokion eragin esparruko gizarte zerbitzuak antolatu eta kudeatu behar dituela ere adierazten da.

Erkidego osoan Etxez Etxeko Laguntza Programa jarri zen martxan lehenbizi, eta Pobreziaren kontrako Egitasmoa gero. Horrela, toki erakundeak gizarte langileak hasi ziren kontratatzen, kasuan kasuko Foru Aldundiarekin egindako finantzaketa hitzarmenetan oinarrituz. Hitzarmen horien arabera, aipatutako programa eta egitasmoa gauzatzea eta abiaraztea zen gizarte langileen zeregina, hau da, kudeaketa lan hutsa burutu behar zuten. Baina beste zeregin batzuk ere eman zitzaizkien gerora, egungo oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten dituztenen antzekoak, hain zuzen. Esatekoa da zeregin horiek ez zirela berdinak lurralde historiko guztietan.

Foru Aldundiak udaletako gizarte zerbitzuen zereginak bateratzen saiatu diren arren, ezin izan dute helburu hori lortu. Izan ere, toki erakundeek horrelako zerbitzuak antolatzeko autonomi maila handia dute eta, gainera, ez dago horiei buruzko legezko xedapenik. Ondorioz, 5/96 Legeak oinarrizko gizarte zerbi-tzuei ezartzen dizkien funtzioak betetzen -eta batzuetan gainditzen- dituzten udal zerbitzu ugari sortu da, eta horien izenak, edukiak eta jardunbideak aldatu egiten dira udal batetik bestera.

Laburbilduz, egoera honakoa da gaur egun:

- Oinarrizko gizarte zerbitzuei berez dagozkien funtzioak betetzen dituen udal zerbitzuen sarea sortu da, nahiko heterogeneoa eta ezezaguna dena.
- Lege berrian, oinarrizko gizarte zerbitzuak definitu eta horiek bete beharreko zereginak finkatzen dira. Horrela, gizarte zerbitzuen sistema sendotzeko abiapuntua izango dira, sistema horren oinarrizko sarea osatuko baitute. Zerbitzu horiei buruzko azterketa sakona egin behar da eta legeak ezarri dizkien helburu eta funtzioetara zenbateraino egokitzen diren neurtu.

Beraz, txosten honetan oinarrizko gizarte zerbitzuak aztertzea proposatzen da eta horren emaitza 1998 urtean aurkeztuko zaio Eusko Legebiltzarrari.

## 2.2. GIZA ESKUBIDEAK ERRESPETATU ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK SENDOTZEN DITUEN KULTURA SORTZEA HELBURU DUTEN JARDUERAK

### 2.2.1. TALDE, ELKARTE ETA AGENTE SOZIAL EZBERDINEKIN IZAN-DAKO ELKARLANERAKO HARREMANAK

1997an zehar, Arartekoak eta honen erakundeak, askotan aurreko urteetan hasitako elkarlanerako harremanei eutsiz, agente sozialekin elkarlanean aritzeko guneak eta harremanak sendotzeko bideak bilatzen jarraitu dute. Elkarlanean aritzeko arloak topatzen saiatu gara batez ere egoera latza bizi duten pertsonei laguntza eskaintzen dieten erakunde, talde eta elkarteekin, edota gizartearen arazo ezberdinentzako konponbideak aurkitzen saiatzen direnekin: talde bakezaleak, elbarrituen elkarteak, giza eskubideen aldeko taldeak, atzerritarrei, preso daudenei edo baztertuta daudenei laguntza eskaintzen dieten taldeak. Zenbaitetan, erakunde horiexek izaten dira erakunde honetan erreklamazioa aurkeztu edo esku hartzeko eskatzen dutenak; beste batzuetan, talde horiek informazioa eskatu eta eskaini egiten dute, edo aurreko harremanei jarraipena ematen diete.

Arartekoak berriro ere argi eta garbi agertu nahi du gure Erkidegoko elkarte sozial ezberdinekin elkarlanean aritzeko duen asmo sendoa, horiekin batera burututako ekimen garrantzitsuak eredugarritzat jotzen baititu. Arartekoarena bezalako erakunde bermatzailearen ustez, elkarte horiek gizartean antenak bezala joka dezakete: egoera eta arazoak somatzen dituzten sentsoreak lirateke, horien berri emanez, bestela inork ez luke jakingo horrelakorik gertatzen denik.

Askotan, babesa behar duten pertsonak izaten dira erakundeetara gutxien jotzen dutenak: ez dakitelako halako erakundea badagoela, ez dakitelako zein diren euren eskubideak, gizartean nola jokatu ez dakitelako, aurretik ere esperientzia txarrak izan dituztelako erreklamazioak aurkeztean, ez direlako erakundeetaz fidatzen, nahiago izaten baitute arazoak euren kasa konpondu,... Pertsona horietako askok ez dute erraklamazioa aurkezten ez dakitelako horrelakorik egin dezaketela, edo besterik gabe ez dakitelako non edo nola egin.

Azken urteotako esperientziak argi erakutsi digu gure Erkidegoko talde eta elkarte gehienek gure gizarteko sektore baztertuenen edo ahulenen eta Arartekoarena bezalako erakundeen artean bitartekari gisa lan itzela egin dezaketela: euren eskubideak zein diren azalduz eta arazoak konpontzeko bideak erakutsiz, euren aldarrikapenak adierazten lagunduz, administrazioak hiritarrei zerbitzu egokia eskain diezaiela eskatuz eta, ekimenen bitartez, erakundeenganako konfiantza handituz eta gizartearen batasuna sendotuz.

Gure Erkidegoan erakunde, talde eta elkarte ugari dugu, eta horrek gizarteak duen bizitasuna erakusten digu. Baina, aldi berean, ugaritasun eta aberastasun hori erronka ere bilakatzen da norbaitek beraiekin elkarlanean aritzeko harreman iraunkorrak gauzatu nahi baldin dituenean.

Gure kasuan, eta erakunde honek dituen mugak kontuan izanik, elkarlanean aritzeko agertu dugun asmo sendoa azken urte honetan lau bide ezberdinen bitartez gauzatzen saiatu gara:

a) euren arazo eta proposamenen berri eman nahi izan diguten talde eta elkarteei erantzun positiboa eskainiz eta beraiekin bilerak burutuz;
b) azken urte honetan, ahal izan dugun neurrian, nolabaiteko harremana mantenduz aurrez ere gurekin harremanetan zeuden elkarteekin;
c) arazo ugari duten sektore eta arloetan aritzen diren taldeekin harreman berriak gauzatzearren urratsak emanez, berez sektore horiek arreta berezia behar baitute;
d) pareko jarduerak eta helburuak dituzten elkarte ezberdinen koordinaziorako plataformetaz baliatuz.

Horrela, bide horietatik jo ostean, Arartekoaren erakundeak 1997an zehar gizartearen honako ario hauek jorratzen dituzten elkarteekin elkarlanean aritzeko aukera izan du, indar gutxi edo handiz:

- buruko gaixotasuna duten pertsonak zaintzea;
- hiesa duten gaixoak hartu eta horiei laguntza eskaintzea;
- babesik gabeko haur eta gazteak familia barruan hartzea;
- atzerritik datozen pertsoneentzako osasun zerbitzuak eskaintzea;
- giza eskubideen defentsa eta beste herrialdeetan horiek nola urratzea diren salatzea;
- hezkuntza jasotzeko eskubidearen defentsa;
- atzerritik datozen pertsonen gizarteratzea;
- drogamenpekotasunarekin arazoak dituzten pertsonentzako laguntza;
- hirugarren munduko herrialdeekiko elkartasuna eta horien garapenerako laguntza;
- intsumisioa eta kontzientzia eragozpena;
- preso dauden pertsonen eskubideen defentsa eta horiei laguntzeko programen garapena;
- unibertsitateko ikasleen eta gazteen behar bereziei aurre egiteko erantzun egokia;
- sasoikako langilentzako laguntza;
- baztertutako taldeen gizarteratzea edo benetan egoera larria bizi duten guneen kohesio soziala;
- bakezaletasuna eta gatazken konponbidea elkarrizketaren bitartez;
- emakumeen eskubideen alde jokatzea;
- indarkeriak eragindako biktimei dagokien laguntza;
- gizartearen erantzuna elbarritasun mota ezberdinenen aurrean;
- tratu txarren prebentzioa eta tortura gertatzen den egoeren salaketa;
- familiartekorik gabe eta baztertuta dauden pertsonentzako osasun eta gizarte laguntza,...

Kasu gehienetan (elkarteen eskaerari erantzuna eman ostean, taldearekin harremanaetan jarri eta elkarlana gauzatzeko topaguneetan aritzen gara), harremana zuzena izan da eta bilera batean edo gehiagotan gauzatu da. Beste zenbaitetan, esaterako, aurreko urteotan hasitako harremanari jarraipena emateko, harremanak ez dira bilera berriak burutuz mantendu; batzuetan informazioa trukatu besterik ez dugu egin, bai ahoz bai agirien bitartez.

Era batera edo bestera, bide batetik edo bestetik jota, eta denbora eta arduraldiari dagokionez mugak izan arren, azken urte honetan bilerak mantendu edo informazioa eta elkarlanerako formulak trukatu ahal izan ditugu, gutxienez honako talde, elkarte eta erakunde hauekin:

- ADSIS-Bestalde Gizarte Ekimenetarako Zerbitzuen Elkartea
- Afrovasca
- Amnesty International
- Arnasa
- Askabide
- Askagintza
- Bizitegi elkartea
- Euskadiko Txinatarren elkartea
- Emakumeen eskubideen aldeko elkartea
- Hazkuntzarako hormonen urritasuna duten gaixo helduen elkartea
- Giza Eskubideen Aldeko Euskal Herriko Elkartea
- Indarkeriaren Biktimei laguntzeko Psikologoen elkartea
- San Francisco, Zabala eta Bilbo Zaharra auzoetako elkarteak
- Beste herrialdeetako giza eskubideen aldeko elkarteak
- Intsuimisoen senideen elkarteak
- Hiesaren aurkako elkarteak
- Hainbat ikastetxeko gurasoen elkarteak
- Bakea Orain
- Besarka, Arabako adopzio eta harrerarako elkartea
- Bilbo-Etxezabal
- Bizitegi
- Cáritas
- CEAR (Errefuxiatuen Aldeko Batzordea)
- Preso dauden pertsonen aldeko taldeak
- Gipuzkoako musulmanen elkartea
- Gazteriaren Euskal Kontseilua
- *Harresiak apurtuz* etorkinen aldeko GKEen Koordinatzailea (honako hauek osatzen dute: CEAR, Bilbo-Etxezabal, Afrovasca, Cáritas, CITE, Gurutze Gorria, Hegoa, UGT, Elkartu, SOS-Arrazakeria...)
- 0,7 eta + Plataforma eta Garapenerako GKEen Koordinatzailea
- Denon Artean eta Indarkeriaren Biktimei laguntzeko Bulegoa
- Denon Eskola (Arabako ikastetxe publikoen elkarteen federazioa)

- Hainbat sindikatu, talde, eta profesionalen elkarteak (irakasleak, medikuak, abokatuak, hezitzaileak, ostalariak, saltzaileak, psikologoak,...)
- EDE
- Indarkeriaren biktimen Senideak
- FEDEAFES (Eri Psikikoen Senideen Elkarteen Euskal Herriko Federazioa) eta federazio horretako kide diren bestelako elkarteak
- Elbarritu Fisikoen Elkarteen Federazioa eta federazio horretako kide diren bestelako elkarteak
- Hezkuntzako Erlijiosoen Federazioa
- Bakearen Aldeko Gazteak Fundazioa
- Arabako buruko gaixoen Tutoretzako Fundazioa
- Gorabide Tutoretzako Fundazioa
- Gaztaroan Ekin
- Gernika Gogoratuz
- Gesto por la Paz
- Gurasoak Kalean
- Hegoa
- Hirugarren Mundua ta Bakea
- Kriminologiako Euskal Erakundea
- Kontzientzia Eragozpeneko Mugimendua
- Hainbat tokiko Presondegietako Pastorala
- Heriotza-Zigorraren aurkako Plataforma
- Martuteneko kartzelari buruzko Plataforma
- Preso eta gaixo sendaezinak kartzeletatik ateratzeko Plataformak
- Salhaketa
- Senideak
- Lurralde ezberdinetako SOS-Arrazakeria
- UAGA
- UNICEF

Aurreko urtetan bezalaxe, zenbait kasutan elkarteekin garatutako elkarlana Arartekoaren erakundeak berak gauzatutako lan monografiko baten inguruan burutu da. Horrela, esaterako, Euskal Herriko kartzelen egoera aztertzeko lanaren jarraipena (hau da, txosten honen II. atalean, A/ azpiatalean aipatzen dena) honako elkarte hauekin bilerak izanik eta informazioa trukatuz burutu da:

- AGIPAD (Drogen gehiegizko Erabilera Prebenitzeko eta Ikertzeko Gipuzkoako Elkartea)
- Alkoholiko Anonimoak
- Bilbo-Etxezabal
- Cáritas
- Lurralde ezberdinetako hiesaren aurkako batzordeak
- Gurutze Gorria
- Etorkintza

- Foronda
- Goiztiri
- IRSE (Lurralde ezberdinetako Bergizarteratzearen aldeko Erakundea)
- Deustu-San Inazioko Modulu Psiko-Soziala.
- Hainbat tokiko Presondegietako Pastorala
- Gizakia Helburu
- Salhaketa
- Presondegietan laguntzeko Abokatuen elkargoetako Txandak

Era berean, Arabako sasoikako langileen arazoak aztertzean hainbat zerbitzu, elkarte eta erakudeekin elkarlanean aritu behar izan dugu, gai horri dagokion txosten honetako atalean azaltzen denez (ikusi 2.1.1. B/ azpiatala).

Beste zenbait kasutan, elkarteekin izandako harremanak topaketa bereziak burutuz gauzatu ahal izan dira, besteak beste, “Etorkinen gizarteratzeari buruzko foroa”. Bertan, erakundeez gain, Harresiak Apurtuz koordinatzailearen barruan dauden elkarteen ordezkari ugarik ere esku hartu zuen.

Infornnazioa trukatzeak edo bilerak izateak ez du esan nahi erakunde honek horien ondorioz beti ekimenen bat antolatzen duenik berehalaxe. Dena den, askotan, izandako bileren ondorioz, partaide guztien elkarlanari esker, eta talde eta elkarte bakoitzak bere kasa aritzeko duen eskubidea aintzat hartuz, hainbat ekimen bultzatu da, gehienek honako ildo hauetatik jo dutelarik:

- elkarteek aurkeztutako erreklamazioen izapidea (bai taldeei bai gizabanakoei dagozkienak);
- Arartekoaren ofiziozko ekimenak administrazioaren sail ezberdinen aurrean berehalako arazoak konpontzearren;
- erakunde publiko eta elkarteen arteko bitartekaritza lanak;
- erakunde honek eskainitako laguntza elkarte ezberdinek sortutako elkartasunaren aldeko kanpainei;
- proposamen zehatzak elkarte eta administrazioaren arteko elkarlanerako harremanak hobetzearren;
- legeria aldatzeko proposamenen aurkezpena;
- lanerako informazio eta agiri baliagarrien trukaketa;
- arazoren bat eragotzi edo zerbitzu zehatzen bat hobetzeko agintariekin izandako tratuak;...

Adibide gisa, hementxe aipa ditzakegu Arartekoaren erakundeak 1997an zehar burututako hainbat ekimen esanguratsu, elkarlanerako giro honen barruan gauzatuak alegia. Hona hemen horietako batzuk:

- Talde bakezale ezberdineki, gatazketan bitartekaritza lanetan aritzen diren elkarteekin eta hainbat ikastetxekin izandako harremanen ondorioz, gure erakundeak 1996an Eusko Jaurlaritzako Ikerketa, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailean orotariko proposamena aurkeztu zuen hezkuntzak berak ere

bakearen alde jo zezan. Proposamen horren garapenari laguntzeko eta berau indartzeko, gure erakundeak 1997an elkarlanerako beka batentzako deialdia kaleratzea erabaki zuen, giza eskubideak babesten erakusten duten eskola materialak jorratu eta zabaltzeko bereziki eratu zen beka alegia. Era berean, arlo horietan ari diren pertsona eta elkarteen arteko esperientziak eta proiektuak trukatzeko jardunaldiak ere antolatu ziren (ikusi txosten honetako 2.2.1. azpiatala).

- Gure Erkidegoan ditugun tutoretzako zenbait fundaziok ekarritako informazioa baliagarria gertatu da buruko gaixoen egoera hobeto ezgutu ahal izateko, eta gai honen ardura duten erakundeekin harremanetan jartzeko egoera hotzearren.
- Laguntza eskaintzen duten elkarteek hainbat salaketa aurkeztu dute atzerritik datozen pertsona anitz atxilotua edo egotzia izan delako. Salaketa horiei esker era askotako ekimenak gauzatu ahal izan dira: agintarien aurrean bitartekaritza lanak eta bestelako tratuak, erreklamazioen izapidea, ofiziozko ekintzak,...
- Zenbait egoeratan gertatzen den tratamendu fiskala dela-eta, elbarritu fisikoen elkarteek euren arazoak azaldu ostean, gure erakundeak administrazio ezberdinei hainbat gomendio luzatu die.
- Arabako sasoiko langileen egoeraren jarraipena burutu izanak, elkarte edo talde ezberdinekin informazioa trukatu edo elkarlanean aritzeko aukera eskaini digu (Cáritas, UAGA sindikatua, Hezilan, ikastetxeak,...).
- Ikasleen gurasoen federazio edo elkarte batzuekin izandako harremanei esker ikastxe bakar bati edo ikastexe batzuei dagozkien alderdiei buruzko erreklamazioak ere aurkeztu dira.
- Gipuzkoako musulmanen elkartearekin izandako harremanak baliagarriak izan dira egun dituzten arazoak ezagutzeko (ez daukate hilerririk, euren bilerak egiteko ere ez dute toki aproposik,...) eta horiexek konpontzeko lehen urratsak eman ahal izan ditugu.
- 0,7 eta + Plataformak eta Garapenerako GKEek azaldutako arazoa entzun ostean, hau da, EITBk iragarkiak eskaintzean agertzen duen politikari buruzko erreklamazioa, gure erakundea EITBko zuzendaritzarekin harremanetan jarri zen, iragarkien artean agente sozialek sustatutako elkartasun kanpainak ere sartzearren.
- Elkarte batzuek tortura eta tratu txarrei buruz aurkeztutako salaketak direla-eta, Arartekoak erakunde eskudunekin hitz egin du, batez ere Estatuko *Defensor del Pueblo* delakoarekin.
- Kartzeletan dauden 300 pertsonak baino gehiagok zera eskatu zuen, arauak alda zitzaten presondegietan xiringa esterilak erabili ahal izateko. Eskaera horren ondorioz, *"Arartekoaren hausnarketak eta proposamenak kartzeletan gertatzen den drogen kontsumoari eta gaixotasun infekziosoen kutsatzeari buruz"* txostena prestatu zen eta gai horren ardura duten erakunde ezberdinetan aurkeztu zen (Justizia Saila, Osasun Saila, eta Presondegietako Erakundea, Herriaren Defendatzailearen bitartez) prebentziorako pro-

grama ezberdinak antolatu edo areagotu ahal izateko. Proposamena aintzat hartu dutenez, gai honi bruuzko jarraipen berezia eta partaide ezberdinen esku hartzea beharrezkoa izan da, bai Basauriko Presondegian xiringak trukatzeko programa esperimentala gauzatzeko sortu zen erakundearteko batzordean, baita 1997ko uztailan programa hasi ostean lanari ekin zion Jarraipenerako Batzordean ere.

- Euskal Herriko kartzelen egoerari buruzko lanak -txosten honetako 2.1.1. azpiatalean aipatzen den aparteko txostena eragin zuen lana alegia- eta horren ondoko jarraipenak preso dauden pertsonei laguntza eskaintzen dieten hogei talde baino gehiagorekin informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko aukera esakaini digute. (ikusi II. atala, 2.2.1. azpiatala).
- Itsumisoen senideekin izandako harremenei esker, ekimen ezberdinak burutu dira. Horrela, esaterako, armadaren profesionalizazioa gauzatzearren sortutako Senatu eta Kongresuaren arteko Batzorde Mistoari gure erakundearen jarrera eta jardueren berri eman genion.

Azken urteotan ere gure erakundea -elkarte bakoitzak izan ditzakeen arazo bereziak alde batera utzirik, jorratzen duen arloarekin zuzeneko lotura duten arazoak baitira- ia elkarte eta talde guztiek somatzen dituzten arazoentzako konponbideak aurkitzen eta eskaintzen saiatu zen. Arazo ugari dago, adibidez: subentzioak jasotzeko sistema, programen iraunkortasuna, erakunde ofizialen laguntza, programa sozialen garapen eta diseinuan benetan esku hartzeko aukera,...

Horrela, 1995eko txostenak (ikusi 42-44 orr.), ildo horri eustiz, gure erakundeak administrazioaren zenbait organotan aurkeztutako proposamena biltzen zuen. Proposamenak bi helburu nagusi zituen:

1) programei subentzioak eskaintzerakoan aurrekontuei dagokien urteak ezarritako mugak urtea gainditzea;
2) agente sozialen eta administrazioaren partaidetza bideratzeko tresna iraunkorrak sortzea.

Orduz geroztik urrats garrantzitsuak eman dira. Adibidez, zenbait administrazioek aurrekontuen atal batzuetan burututako aldaketak horiek malgutuz hainbat urtetarako konpromisoak gauzatu ahal izateko; sektore batzuetan kontratuak-programa formularen luzapena; atzerritik datozen etorkinen gizarteratzea bideratzearren erakundeen arteko foroa sortu zen, agente sozialek ere bertan esku hartzen dutelarik; legeriari buruzko hainbat proiektutan zerikusia duten agente sozialekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko saiakerak;...

Gure erakundearen ustez, orain arte emandako urratsak balio handikoak dira eta beharrezkoak gertatzen diren tresnak eta baliabideak erabili eta sustatu behar direlakoan gaude administrazioaren organoen eta agente sozialen lana batzearren, batez ere gizarte ekimena nabaria den arloetan, horrelakoetan elkarlanaren bidez, zalantzarik gabe, hiritarrek zerbitzu hobea eta arreta handiago izango baitute.

Eta azken urte honetan bide hori jorratuz emandako urratsen artean, bi aipatu nahi genituzke etorkizunean izan dezaketen eragina dela-eta:

- etorkinen gizarteratzeari buruzko Foroa sortu da;
- bolondresei buruzko Legearen zirriborroa prestatu da.

Lehenengo kasuan, etorkinen gizarteratzeari bruuzko Foroak bide ematen du azken urteotan zehar landutako ideia gauzatu ahal izateko. Horren bitartez informazio baliagarria trukatu, elkarlanean aritu eta gure Erkidegoan bizi diren atzerritarren egoera hobetzeko proposamenak elkarrekin aztertu ahal izango ditugu -agente sozialek eta administrazioek, biok batera. Gure erakundearen ustez, azken hilabete hauetan izandako esperientziek argi eta garbi erakusten dute zein diren bide honek eskaintzen dizkigun aukerak eta mugak.

Orain arte etorkinen gizarteratzeari buruzko Foroa lanean aritu bada ere, ez zegoen horren izaera eta ezaugarriak mugatzen zituen legerik. Horrek guztiak, administrazioaren ordezkariak bertan egotea edo ez egotearekin batera, zalantza handiak sorrarazi ditu agente sozialen artean foroaren beraren baliagarritasuna, ordezkari politikoen onespena edo etorkizunean foroak izan dezakeen jarraipena dela-eta.

Gure erakundeak behin eta berriro adierazi nahi du agente sozialen eta administrazioaren artean topaketak burutzea eta elkarlana burutzeko bideak izatea ezinbestekoa dela. Horrez gain, lortu nahi diren helburuak era onenean erdiestearren kasu bakoitzean tresna eta baliabide egokienak eskuratzea guztiz beharrezkoa da. Irizpide hauek etorkinen gizarteratzeari buruzko Foroan ere aplika daitezke.

Bolondresei buruzko Legeari dagokionez, eta azkenean izan dezakeen edukia alde batera utzita, gure erakundeak bi kontu azpimarratu nahi ditu:

- gure Erkidegoan bizitasun handia duen eta hazten ari den sektore konplexu hori aztertu eta bultzatzearren gutxienezko arlo batzuek arautzea beharrezkoa gertatzen da;
- agente sozialek ere Legearen zirriborroa prestatzerakoan parte hartu beharko lukete, Legearen edukia finkatzeko adostasun maila aintzat hartuz.

Bi puntu horiek agente sozialen eta administrazioaren arteko elkarlana, beharrezkoa eta desiragarria den elkarlana, garatzen lagundu behar dute, hori guztia alderdi bakoitzaren ardura eta konpromisoekin nahasi gabe.

### 2.2.2. **1997-1998RAKO IKERKETA BEKA BATERAKO DEIALDIA**

1997an zehar, Arartekoaren erakundean ikerketa beka interegarri bi garatu dira, horientzako (EHAA, 203. zk., urriak 21) 1996ko irailaren 11ko ebazpenaren arabera burututako deialdia luzatu zelarik. Francisco Javier Aguirrek eta Isabel Paula Sanchez Garciak jaso zuten beka.

Burutu dituzten ikerlanak honako hauek izan dira:

- Justizia, bakea eta giza ekubideen nazioarteko babesa, Jugoslavia Ohia zenerako Nazioarteko Epaimahai Penalak izandako esperientzia;
- Seropositiboak diren pertsonak gizartean baztertzeko eta onartzeko bideak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan.

Lehenengo ikerlanak Jugoslavia Ohia zenerako Nazioarteko Epaimahi Penalak (ICTY) izandako esperientziak aztertzen ditu. Epaimahai hori Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren Erabaki baten ondorioz sortu zen 1993an. Berez, epaimahaiak Jugoslaviako lurraldeetan burututako gerrako krimenak epaitzen ditu 1991eko urtarrilaren bataz geroztik. Tokio eta Nuremberg-eko epaiketen ostean, hauxe da eratu den lehenengo nazioarteko epaimahai penala, eta benetan nazioartekoa den lehenengo epaimahai ere bada NBEak sortu baitzuen. Horrelako epaimahia eratu izana urrats garrantzizkotzat jo da giza eskubideen babesari dagozkion naziorteko bermeak garatzeko orduan.

Nazioarteko ordena juridikoaren garapenerako, ICTY delakoaren esperientziak dakartzan kontu juridikoak alde batera utzi gabe -berri berriak eta oso garrantzitsuak-, ikerlanak krimenari buruzko politikaren alderdiak aztertu ditu, hau da, ICTY delakoak lurraldeko bake prozesuan izan duen benetako eragina eta etnia ezberdinak elkarrekin bizi daitezen garatutako ekimenak aztertu dira. Soziologia juridikoari buruzko ikerketa hori beharrezko zehaztasun eta sakontasunez burutzearren, bekadunak Hagan dagoen epaimahaiaren egoitza nagusira jo du. Bertan gai honi buruzko dokumentazio ugari eskura izateaz gain, ICTY delakoaren Fiskaltzako Kanpo Harremanetarako Sailarekin elkarlanean aritu da.

Bestalde, joan den urtean eskainitako bigarren bekak, 96ko Txostenean aipatzen zen bezalaxe, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan seropositiboak diren pertsonak gizartean baztertzeko eta onartzeko bideak aztertu nahi zituen. Gai horren ezaugarriak kontuan izanik, ikerlana burutu ahal izateko, batetik, landa lana beharrezkoa izan da (elkarrizketa sakonak), eta bestetik, hiesak jota dauden edo seropositiboak diren pertsonen adierazpenak jaso eta aztertu behar izan dira, euren ezaugarri eta egoeraren arabera sailkatuz: adin txikikoak, presoak, emakumeak, droga injkekzioen bitartez hartzen dutenak,... Ikerlanak sistematikoki pertsona horiekin aritzen diren elkarteen iritzia ere jasotzen du. Horren bitartez, gure Erkidegoan seropositiboak direnen eta hiesak jota dauden pertsonen orotariko errealitatea soziala eta gaixo bakoitzak bizi duen errealitatea ezagutzera eman nahi dira, erakundeekin, lanean eta familiartekoekin izan ditzaketen arazoak aztertuz. Hori guztia pertsona orok dituen giza eskubideen ikuspuntutik.

1997an 1998rako ikerketa beka berri baterako deialdia luzatu da, (EHAA 197. zk., urriak 15) 1997ko urriaren 9ko Ebazpenaren arabera.

Hautaketa prozesua bukatu ondoren, beka Jorge Morquecho Ibañezi egokitu zaio eta horren ikerlanak honako gai hau jorratuko du: *La intervención social en medio abierto en la CAPV.*

## 2 2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZARI BURUZ ESKOLETAN ERABILI BEHARREKO MATERIALA LANTZEKO BEKA

Arartekoaren erakundeak bi beka eskaintzeko deialdia luzatu ohi du. Aurten bi beka horietako bat berezia izan da, helburu zehatza baitzuen: giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruz eskoletan erabili beharreko materialak landu eta zabaltzeko lana bultzatzea.

Demokraziaren pedagogiak, hots, demokraziaren ezaugarri nagusietaz baliatuz belaunaldi berrien gizarteratzeak, giza eskubideen alde jotzen duen hezkuntza du oinarritzat, bakea eta tolerantziaren alde agertzen den hezkuntza alegia. Eskola sistema ez da tresna bakarra, baina gazteek balore horiek ikasi eta beregana ditzaten lagun dezaketen eta lagundu behar duten tresnetariko bat da.

Kontu hau ez da Arartekoak buruan duen kezka berria. Berez, iazko txostenean ere “Bakearen aldeko hezkuntza” izenburupean aurkeztu zen antzeko proposamena, gure erakundeak Eusko Jaurlaritzako Ikerketa, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailburuari azaldu zion. Koordinazioari buruzko IX. Jardunaldietan beste ararteko guztiei ere ildo horretatik jotzen zuten proposamenak azaldu genizkien. (96ko Txostena, 75-80 orr.).

Bestalde, gure Erkidegoan eskola mailan balore horiek garatzeko konpromisoa hartu duten hainbat pertsona eta elkarte dugu. Bekari dagokion deialdiak euren lana aintzat hartu nahi izan du eta, batez ere, materialak zabaltzen lagundu nahi du, hau da, ikastetxeetan baliagarriak suertatzen diren materialak. Ikastetxeek zentro bakoitzeko proiektuak garatzean giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzari lehentasuna eman behar diote, indarrean dagoen legeriaren arabera horixe baita eskola curriculumaren oinarri nagusia.

Bekari zegokion deialdia 1996ko otsailaren 7ko EHAAan agertu zen eta guztira 32 proiektu aurkeztu zituzten beka eskuratu nahian. Gure erakundeak deialdiak izandako erantzuna positibotzat jo du, baina ez bakarrik jaso diren proiektuen kopuruagatik, horien kalitatea eta gaien ugaritasunagatik baizik: gaia bere osotasunean aztertzen zuten proiektuez gain, bazeuden euskarri zehatz bati heltzen ziotenak (ikus-entzunezkoa, informatikoa,...) edo baliabide berezi bati (ipuina, musika,...). Aurkeztutako proiektu gehienek ezaugarri bera zuten, hau da, talde batek landutako proiektua zen: aurretik osatutako talde iraunkorra, edo deialdi honetan parte hartzeko bereziki osatutako taldea. Gainera, kasu askotan ikastetxeetatik at lan egiten duten pertsonek osatzen zituzten taldeak.

Horrela, aurkeztutako 32 proiektuak aztertu ostean, bi ondorio nagusi eskuratzeko aukera izan genuen:

- lehenik eta behin, proiektuek eskola mailan giza eskubideen aldeko hezkuntza oso ikuspegi ezberdinetatik lantzeko benetako aukerak ezagutzeko bidea eskaintzen zuten, askotan bata bestearen osagarri izanik eta potentzial handikoak;

- eta, bigarren tokian, badirela hainbat pertsona eta talde, berez hezkuntza sisteman sartuta egon gabe, sistema horri dagozkion ekimenak garatzen ari direnak edo alor honetan lan egiteko prest daudenak.

Aurkeztutako proiektu bati -deialdiaren xedeak lortzeko proiektu egokienetzat jo zenari- beka emateaz gain, derrigorrezkoa baitzen, gure erakundea beste proiektu guztien aberastasuna eta ezberdintasunaz baliatzen saiatu zen. Eta horretarako beste bi bide erabili zituen:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Justizia Sailei deialdiak izandako erantzunari buruzko informazioa eskaini genien, beraiek ere urtero hainbat deialdi burutzen baitituzte eta gurean aurkeztutako zenbait proiektu beka horientzako guztiz egokiak izan zitezkeen.

- proiektuak eta esperientziak trukatzeko jardunaldia antolatu genuen, horren bitartez elkar ezagutu eta ekimenak alderatzeko aukera izatearren, hasiera batean loturarik ez zuten ekimenak alegia.

Gure erakundeak proiektuak eta esperientziak trukatzeko antolatutako jardunaldia ekainaren 19 burutu zen eta deialdian parte hartu zuten pertsona eta talde guztiei gonbidapena luzatu zitzaien bertan egon zitezen. Era berean, Justizia eta Hezkuntza Sailen menpe dauden beste talde eta pertsonak ere gonbidatuak izan ziren, gai horrekin zerikusi zuzena edo ardura berezia baitzuten.

Guztira jardunaldian 33 pertsonak parte hartu zuten. Horietako batzuek elkarte edo talde baten ordezkari gisa etorri ziren. Egitarauaren funtsa proiektu eta esperientzia ezberdinen azalpena eta azterketan oinarritu zen -parte hartzen zuten pertsona eta taldeek aurkeztuak alegia-, denak ere jardunaldiaren helburu zehatzari helduz. Horrekin batera, informazio eta material baliagarriak banatu eta giza eskubideen aldeko hezkuntzarekin lotutako baliabide didaktikoak eta liburuak aurkeztu ziren.

Jardunaldia aztertzerakoan, bai gure erakundeak, bai bertan parte hartu zuten pertsona eta taldeek, denok postibotzat jo genuen, honako alderdi hauek bereziki azpimarratuz: arlo honetan lanean ari diren pertsona eta talde ezberdinek elkar ezagutzeko izan zuten aukera, etorkizunean ere elkarlanean aritzeko aukera, oso proiektu ezberdinak eta ugariak ezagutzeak bide berriak zabaldu zizkigun,...

Jardunaldian zehar nabarmen geratu zen, eta behin eta berriro adierazi zen, guztiz beharrezkoa dela Eusko Jaurlaritzako Ikerketa, Unibertsitate eta Hezkuntza Sailak bere ardura onar dezala, antolatutzen dituen programa eta ekimenetan giza eskubideen aldeko hezkuntzari lehentasuna ematearren.

Egun gutxi igaro ostean, ekainaren 23an, Arartekoak Hezkuntza Sailburuarengana jo zuen jardunaldiaren berri eman eta aurreko pasartean nabaria den kezka eta beharra Sailburuari azaltzeko.

Azken hilabete hauetan zehar, beka jaso zuten hiru pertsonak osatutako taldea (Lourdes Errasti, Maite Mena eta Gorka Azkarate) lanean aritu da eskoletan erabiltzen diren materialak biltzen eta aztertzen, 1998an zehar ere lan horri helduko diotelarik. Lana bukatu ondoren, gure erakundeak eskola eta ikastetxeei euren lan hezitzailea garatzeko guztiz baliagarriak gertatuko diren materialak eskaintzeko aukera izango duelakoan gaude.

Era berean, gai honi dagokionez, gure erakundeak berriro ere bereziki azpimarratu nahi du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saialak duen ardura. Gainera, ahal duen neurrian, giza eskubideen aldeko hezkuntza zabaltzeko konpromisoa hartu duten pertsona eta taldeen -eskolakoak eta eskolatik kanpokoak- arteko harremanak eta elkarlana bultzatzen saiatuko da.

### 2.2.4. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN UDAKO IKASTAROEN JARDUNALDIA “ARRAZAGATIK BAZTERTUA EZ IZATEKO ESKUBIDEA” RI BURUZ

Arartekoaren erakundeak, lehenengo aldiz eta hemendik aurrera jarraipena izan dezan, Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen barruan jardunaldia antolatu du “arrazagatik baztertua ez izateko eskubidea”-ri buruz, berez 1997. urtea Europan Arrazakeria eta Xenofobiaren aurkako Urtea izan baita.

Jardunaldi horretan hausnarketa burutu nahi zen, ikuspegi konstituzionala, juridikoa eta soziala aintzat hartuz, etorkinen gizarteratzeak mendebaldeko gizartean sortzen dituen arazoei helduz. Aldi berean, zera aztertu nahi zen, oso zio ezberdinak direla-eta, euren jatorria, arraza, erlijioa, eta abar, etorkinek jasan behar izaten duten arbuioa.

Horretarako, Michel Maffesoli-k, Pariseko Sorbonako Soziologiako irakasleak, honako gai hau jorratu zuen: “Erkidegoak eta migrazioak”.

Bigarren txostena, “Atzerritarren egoera juridiko-konstituzionala espainiako antolamenduan”, Joaquin Garcia Morillok aurkeztu zuen, Valentziako Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna.

“Asiloa eskatzeko eskubidea”-ri buruzko hirugarren txostena Diego Lopez-Garridok aurkeztu zuen, Gaztela-Mantxako Unibertsitateko Zuzenbide Konstituzionaleko katedraduna.

Jarraian mahaingurua burutu zen “etorkinen gizarteratzeak eragindako arazo zehatzei” buruz.

Euskadiko Magrebeko erakundearen koordinatzaileak, Kebir Sabar-ek, etorkinen gorabeherei buruz hitz egin zuen.

Andaluziako Herriaren Defendatzaileak, Jose Chamizok, argi eta garbi azaldu zuen Andaluzian zehar “pateretan” Europan sartzen saiatzen diren etorkinek bizi duten egoera larria.

Barne Arazoetako Ministerioko Barne Politikarako Zuzendari Nagusiak, Jose Ramon Onega Lopezek, Estatutuko Administrazioaren jarrera azaldu zuen, etorkinek izan ditzaketen arazoak direla-eta.

## 2.3. GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO GISA BEREKO ERAKUNDEEKIKO JARDUERAK

### 2.3.1. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN KOORDINAZIORAKO XII. JARDUNALDIAK

Gauza jakina den bezala, Herri Defendatzailearen eta autonomia erkidegoetako ordezkarien arteko harremanetari koordinazioa eta elkarlana dira oinarrizko ardatz nagusiak.

Espedienteen ohiko gestioa dela-eta autonomia erkidego desberdinetan kide diren erakundeek urtean zehar harreman estua izaten duten arren, urtero antolatzen dira, horrez gainera, herri defendatzaileen arteko koordinazio jardunaldiak, erakunde horiek denek dituzten arazoak eztabaidatu eta iritziak agertu eta kontrajartzeko topaleku gisa.

XII. Koordinazio Jardunaldi hauek Andaluziako Herriaren Defendatzaileak antolatu zituen urriaren 1, 2 eta 3an Sevillan, eta honako gaiok izan ziren bertan eztabaigai:

- Herriaren defendatzaileen eskuhartzea auzien ohiko konponbideetan.
- Atzerritartasuna eskubideen munduan: oztopoak, hutsuneak eta erronkak.
- Bazterkuntza Estatu Sozial batean.
- Ingurugiroa: hondakinak eta zabortegiak.

Garrantzi handiko gauza berri bezala, jardunaldi hauetan zenbait unibertsitatetako zenbait irakaslek ere hartu zuten parte; garrantzi handiko ekarpenak egin ahal izan zituzten, jardunaldietan eztabaidara atera ziren gaiei buruzko zientzi jakintzaren ikuspegitik, eta aurrerantzean ere frutu oparoko elkarlana izango dela espero da.

#### 2.3.1.1. Heniaren defendatzaileen eskuhartzea auzien ohiko konponbidean

Bilera honetan José Cora Rodríguez jn., Valedor do Pobo Galego, izan zen hizlari moderatzailea, eta hizlaria José Luis Rivero Ibern, Sevillako Unibertsitateko Administrazio eskubideko katedraduna. Bertako hizlari zen José Luis Rivero-jaunaz gainera, Xabier Markiegi Candina Ararteko jaunak ere parte hartu zuen mahai inguru horretan.

Bigarren mintzaldi batean mahainguru bat egin zen gai horri berorri buruz, moderatzailea Femando Álvarez de Miranda Torres, Herriaren Defendatzaile jauna zela; mahainguru horretan, berako hizlari zen José Luis Rivero jaunaz gainera, Xabier Markiegi Candina, Ararteko jauna ere mintzatu zen.

Arartekoak bertan aurkeztu zuen testuak interes berezia izan dezakeelako ustean, oso-osorik argitaratzen da ondoren:

**HERRIAREN DEFENDATZAILEEN ESKUARTZEA AUZIEN OHIKO KONPONBIDEETAN**

I. GIZARTE EREDUAREN ALDAKUNTZAK ETA AUZIEN KONPONBIDE GISA ADMINISTRAZIO-AUZIBIDEETAKO JUSTIZIA ATALAK DUEN BALIOAREN KRISIA

II. ADMINISTRAZIO AUZIEN KONPONBIDERAKO SORTZEN ARI DIREN BESTELAKO BIDEAK. AUZIBIDEAREN OSAGARRI IZAN DAITEZKEEN BESTELAKO METODOAK

III. OMBUDSMANA ETA AUZIEN OHIKO KONPONBIDEA

IV. BITARTEKARITZAREN EZAUGARRI BEREZI BATZUK. HERRIAREN DEFENDATZAILEEKIKO KIKOTASUNAK. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN EGINKIZUNA, BEREZ EZ DAGOKION BITARTEKARITZA EDO BITARTEKARITZA ASIMETRIKOA DEN ALDETIK

V. HERRIAREN DEFENDATZAILEAK AUZIEN KONPONBIDERAKO TEKNIKAK ERABILTZEA

VI. ARARTEKOAREN PRAXIAN AUZIEN BITARTEKARITZA BIDEZKO KONPONBIDERAKO TEKNIKEK IZAN DUTEN BALIAKIZUNAREN ANALISIA

VII. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN BITARTEKARITZA EGINKIZUNARI BURUZKO EZTABAIDA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA 30/92 LEGEAREN BITARTEZ HERRITARREKIN NEGOZIATZEKO ZABALDU DENEAN AGERTZEN DIREN IKUSPEGI BERRIAK

VIII. LABURBILDUMA

## I. GIZARTE EREDUAREN ALDAKUNTZAK ETA AUZIEN KONPONBIDE GISA ADMINISTRAZIO-AUZIBIDEETAKO JUSTIZIA ATALAK DUEN BALIOAREN KRISIA

Bukatzen ari den mende honetan zehar geroz eta indar handiagoa hartuz joan da Administrazioa, Zuzenbideko Estatu Soziala deitu ohi den horrek hartu duen hedadura eta zabaltasunaren ondorioz herritaren bizitzako eguneroko gertakarietarainoko guztietara iristen baita ia.

Administrazioaren eta herritarraren arteko harremanak aldatu egin dira. Estatuaren eta Administrazioaren arteko harremanak berak ere bai. Interes publiko/interes pribatu binomioa lausotu egiten da. Estatuaren beraren eginkizuna ere aldaturik dago nazioarteko gaietarako.

Baina Ongizatearen Estatuaren krisi hainbestetan aipatuarekin, eta "Zuzenbide Administratiboaren ihesa" deitu izan denarekin batera, gertatzeko modu berri bat ari da eratzen aginpide publikoen eta herritarren arteko harremanetarako.

Eraginkortasun printzipioa eta Administrazioak bere ekimenetan bere kabuz eta irizpidez jokatzeko geroz eta leku gehiago edukitzea administrazio jestio on bat izateko nahitaezko baliabideak direla sinistarazi nahi izan da, horretarako eredu gisa enpresa pribatua harturik, gauza publikoak duen sineste urriaren eta pribatutasunaren gorespenaren ondorio gisa.

Hala eta guztiz ere, ordea, begien bistan dago Administrazioa alde guztietaraino sartua dagoela, eta auziak direnean, gizartearen errealitatea baino atzeragotik dabil Zuzenbidea eta sistema judiziala.

Joan den mendeko irispide juridiko-politikoek ez dute askorik balio izaten askotan, geroz eta konplexutasun handiagoa duen eta geroz eta bizkorrago aldatzen ari den errealitate honi erantzun ahal izateko.

Beste alde batetik, gainera, administrazio auziaren eredua bera ere oso krisi larrian dago sartua gaur egun, herritarren eta Administrazioaren arteko auziak konpontzeko bide bezala.

Administrazio Justiziako sistemaren krisia ageri-agerian dago Europa osoan, baita Frantzian bertan ere, eredu horren aitzindaria Frantzia bera izanagatik.

Justiziaren eginkizun berezia dena, auziak konpontzea alegia, ez da betetzen gutxieneko zehaztasun eskari batzuen arabera. Prozeduraren gelditasunak berak batere gogo betegarri ez den emaitza ekarri ohi du azkenean.

Administrazio auzibideko sistemak Administrazioaren eta herritarren artean sortzen diren arazoetako askori erantzuteko berezibiko ezintasuna duela ikusten da gainera. Bai ikuspegi publikotik bai ikuspegi juridikotik garrantzi handia duten hainbat arazo nekez baizik ezin koka daitezke auzibideetarako prozedura zurrun eta askotan zaharkitua ere den horretan.

Kontzeptu juridiko batere zehaztasun gabeak baliatzeak, prozedura horretara jotzeko eskubidearen mugak finkatzeko irizpide hertsiak jartzeak, Administrazioari geroz eta aukerako eskumen handiagoa emateak, horrek guztiak babes-

gabetasun sentsazio bat eragiten dio herritarrari, eta administrazio publikoekin dituen arazoak bideratu ahal izateko aukera emango dion prozedura egokirik ez duela sinistarazten dio.

## II. ADMINISTRAZIO AUZIEN KONPONBIDERAKO SORTZEN ARI DIREN BESTELAKO BIDEAK. AUZIBIDEAREN OSAGARRI IZAN DAITEZKEEN BESTELAKO METODOAK

Orain dela hogei urte pasatxo pertsonen arteko auziak konpontzeko bestelako zenbait teknika aztertzen hasi ziren Estatu Batuetan. ADR (Alternative Dispute Resolution) laburduraz izendatu ziren, eta izendatzeko modu horixe zabaldu da mundu osoan.

Ingelesezko izendapen horren ordez gaztelaniazko izena ere eman nahi izan zaio, TARC (Técnicas Alternativas de Resolución de Conflictos), edota frantsesez MARC (Modes Alternatifs de Règlement de Conflicts) edo RAD (Règlement Alternatif des Diffèrences).

Batera zein bestera deitu, bere garaian greziarrek ere ezaguna zuten auziak konpontzeko bide ondo zaharra da esaten ari garen hau, eta izen laburdurek ematen duten modernotasun jantzi hori gorabehera, beti izan da auzilarien jarrerak adosten lagunduko zuen beste norbait bilatzeko baliabide hori.

Paradoxa ere bada, baina gizarte harremanen eta pertsonen arteko harremanen berealdiko konplexutasuna ezagututa, berriro ere sistemarik zaharren eta soilenetara jotzea da askotan auziak konpontzeko modurik egokiena, sistema horretan konponbidearen bizkortasunak, prozedura arauturik ez izateak, eta arazo jakin bakoitzerako *ad hoc* sistema bat baliatu ahal izateak alde handia ematen baitu sistema judizial beneragarriaren makinaria geldiarekin alderatuz gero.

Doktrina konparatuak dioenez (CHARLES JARROSSON), auziak konpontzeko bestelako bideen sorrera edo berrikuntza hori anglosaxoniar herrialdeetan indartu da lehendabizi, Estatu Batuetan batez ere, baina kontu handiz begiratu dira tradizio erromatar-jermanikoa duten herrialdeetan ere, Zuzenbideari eta irtenbide juridikoei halako muzin edo arbuio gisako bat egiten hasi zaienetik.

## III. OMBUDSMANA ETA AUZIEN OHIKO KONPONBIDEA

Auzien konponbiderako bestelako modu alternatiboak KATEGORIA IREKIA dira oraindik ere, eta zehazki mugatu gabea, horrenbestez; gauza bat dute berdina: jurisdikziozkoa ez den bestelako bide batez adostu nahi dituztela auzilariak, horretarako askotan neurri jakin, zehatz aurrez definiturik ez duen erabakimen batez auzilari ez den hirugarren pertsona bat bitartekari dela.

Ohiko konponbide sistema klasikoaen ondoan (bitartekaritza, epaibidea, bakeatzea), "*Eskandinavia herrietako Ombudsmana eta bestelako herrietan*

*diren haren gisakoak*" aipatzen dituzte gai honi buruz diharduten idazleek (CHARLES JARROSSON).

Orairidik aspaldikoa ez den «Revue internationale de Droit comparé» aldizkariaren ale batean (1997ko apirila-ekaina), autore bat baino gehiagok aipatzen dute Ombudsmanaren papera Zuzenbide Administratiboko auzietan konponbideak bilatzeko bestelako modu alternatibo bezala.

ARNAUR LYON-CAEN-ek, esate baterako, hiru kategoriatarako sistema alternatiboak azaltzen ditu; kategoria horietako lehenengoan *"gutxiasko Eskandinavia herrietako Ombudsmanaren irudian inspiratzen diren erakundeak"* aipatzen ditu. GERARD CORNU-k ere auzien konponbide alternatiboen artean sartzen du Ombudsmana.

Gure herrialdean bertan, SÁNCHEZ MORÓN irakasleak dioenez *"Administrazio alorretan askoz ere bitartekaritza gutxiago izaten da (Estatu Batuetan baino), baldin eta Ombudsmanek egiten ditutzten bestelako ekimenetako asko eta asko bitartekaritzatzat hartzen ez badira behintzat; hain zuzen ere zerbaitengatik ematen baitzaio, eman ere, zenbait herrialdetan (Frantzian) erakunde horri Médiateur izena"*, eta Espainiari dagokionez, honela dio: *"horren aurrekaritzat har ditzakegu, adibidez, Autonomi Erkidegoetako zenbait parlamentu ordezkariren bitartekaritza lanak"*.

JOSEP REDORTA LORENTE jaunak dioenez, legeetan azken aldi honetan izan diren zenbait aldakuntzek gehiago indartzen dute bitartekaritza instituzionala, baita Administrazioaren eta administratuaren arteko harremanetarako ere, eta alor horretantxe kokatzen dute aldakuntza horiek Ombudsmanaren irudia.

Autore honek xehekiago dio ezen *"irudi hauek [ombudsmanak] kasu jakin batzuetan baizik ez dute bitartekaritzarik egiten"*. Teknikoki begiratuta, halako ez dagokion bitartekaritza edo liskarrari aurre hartzeko eginkizun bat izango litzateke haien bitartekaritza hori.

Esan daiteke, beraz, auziak konpontzeko sistema alternatiboetan MODU BEREZI bat dela Ombudsmana, eta Ombudsmanen jarduera eta ekimena administrazio alorreko bitartekaritzaren aurrekari gisa eratzen dela, zenbait adituk EZ DAGOKION BITARTEKARITZA deitzen dutena, alegia.

## IV. BITARTEKARITZAREN EZAUGARRI BEREZI BATZUK. HERRIAREN DEFENDATZAILEEKIKO KIDEKOTASUNAK. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN EGINKIZUNA BEREZ EZ DAGOKION BITARTEKARITZA EDO BITARTEKARITZA ASIMETRIKOA DEN ALDETIK

Bitartekaritza jardueraren ezaugarrietako bat prozedura askatasun eta malgutasun handia da hain zuzen, berebiziko askatasuna uzten baitio bitartekariari iritsi nahi dituen helburuak iritsi ahal izateko.

Edozeinetara ere, bi muga jarri beharko dira gutxienez, PATRICIA LAGOVERDETTE eta beste zenbait autorek bitartekaritzaren egiazko deontologia arau-tzat eman dituztenak.

1- Sekretu profesionala (isilpekotasuna)

Isilpekotasuna, printzipio etikoa delako ez ezik, oso teknika ona da bitartekaritzaz emaitza onak izatera iritsi ahal izateko.

Nahitaezko baldintza da, gainera, horixe baita modu bakarra auziaren alderdi eta ikuspegi guztiak egiaz adieraz daitezen.

2- Alderdikeriarik eza. neutraltasuna

Bitartekariak neutrala izan behar du guztiz. Ez du bitartekaritzan parte direnetako baten alde inola ere jarri behar.

Bitartekaritzaren beste ezaugarri batzuk ere aipa daitezke:

3- Borondatezkotasuna

Auzian parte direnek beren borondatez erabakitzen dute bitartekaritza prozesurik jarri nahi duten ala ez.

4- Prozedura malgutasuna

Ez dago aurrez erabakitzako prozedurarik; bestela baizik, bitartekaritzaren helburuak betez doazen ahala erabakitzen da zein prozedura nahi den.

5- Bitartekariaren iritziak ez ditu behartzen auzilariak

Bitartekaria auzilarien iritzien katalizatzailea da, azkenean adostasunera iristeko izan daitezkeen oztopoak kentzen ditu, baina ez ditu auzilariak bere iritziak hartzera behartzen.

Bistan dago aipatu diren ezaugarri horietako batzuk bete-betean dagozkiola herriaren defendatzaileari ere.

Esan beharra dago, hala ere, herriaren defendatzailearen ezaugarri bereziena aginpide publikoei buruz aske izatea dela, ez ordea neutral izatea.

Hain zuzen ere, legezkotasunaren printzipioa eta giza eskubideen errespetoa herriaren defendatzailearen ekimenaren muga eta izateko arrazoi dira aldi berean.

Eskubide bat ostikopean hartzen bada, legea hausten bada, herriaren defendatzaileak ezin du, ez du behar ere, neutral geratu, bestela baizik, eskura dituen baliabide guztiez herritarren eskubideen defentsan behar du jardun.

Kexa espediente bat tramitatzen denean, zalantzarik ez dago herritarrak bere borondatez hartzen duela parte prozedura horretan. Ez da horrelakorik, ordea, Administrazioari dagokionean, lege aginduz jokatuko baitu horrela, askotan gogo bero-beroz behintzat parte hartuko ez lukeen arren.

Oso ikuspegi zabala hartuta baizik ezin esan daiteke herriaren defendatzaileak kexak tramitatzerakoan duen jarduera bitartekaritza lanari dagokionik.

Nola nahi dela ere, bitartekaritzaren eta herriaren defendatzailaren ezaugarrietako askotan diren bat etortzeak kontuan hartuta, esan daiteke agian herriaren defendatzailearen jarduera halako ez dagokion bitartekaritza edo bitartekaritza asimetriko bat dela.

## V. HERRIAREN DEFENDATZAILEAK AUZIEN KONPONBIDE-RAKO TEKNIKAK ERABILTZEA

Bitartekaritza eta Ombudsmanen iridua elkarrekin lotu nahi dituztenek sarritan esan izan dute ez dela halabeharrez gertatzen Frantzian Ombudsmanari Mèdiateur deitzea.

Esan beharra du, geurean ere, ni lehendakari nauen erakundearen izenak ere, Arartekok, horixe nahi duela esan, bitartekari.

Nire iritzirako, ordea, izendatzeko modu horri gehiago dagokio aipatzen ari garen bitartekaritza gaizki deitu horri, bitartekaritza -zentzurik estuenean hartuta- erakunde bat antolatzeko asmoa baino.

Administrazio alorreko bitartekari eginkizunaren aurrekaritzat aipatu izan dira, besteren artean, autonomi erkidegoetako zenbait legebiltzar ordezkarien eginkizunaren arautzeko legeen auraubidezko aurrikuspenak ere.

Kataluniako Sindic de Greuges-aren Legearen 28.1. artikuluak aurrikusia duenez, Sindic horrek *"eskubide izango du indarrean dagoen legediaren barruan dagokion Sailari, organismoari edo erakundeari, kexak onez eta bizkor konpontzeko elkarganatze edo adostasun moduak proposatzeko".*

Antzeko gauzak esaten dituzte Aragoiko Justizia edo Gaztela eta Leongo Procurador del Comun-en sorkuntza legeek ere.

Ez dut uste erkidegoetako legegileek erkidego horietako herriaren defendatzaileei bitartekaritza eginkizuna -zentzurik estuenean- izendatu nahi izan dietenik, pentsatzekoa ere ez baita horrelarik, lehenengo legeetan behintzat, 30/92 Legearen berrikuntza handia baino lehenagokoetan.

Nire iritzian, hala ere, lege eta arau horietan, legezko arrazoia ematen da herriaren defendatzaileek aurkezten zaizkion kexa batzuetan bitartekaritza teknikak baliatu ahal izan ditzaten.

Hala ere, ordea, ez dut uste beste lege batzuetan horretarako aurrikuspenik, zehazturik bederen, ez izanagatik, horrek ez duela esan nahi legebiltzar ordezkari horiek gisa horretako teknikez baliatu ezin dutenik, ados baitaude eta bat baitatoz instituzio horien izaera juridikoarekin eta izateko eman zaen helburuarekin.

Arartekoari dagokionez, hain zuzen, geroxeago esango dizuedan bezala, behin baino gehiagotan izan dira bitartekaritza ekimenak, horretarako, aipatu diren legeak bezain zehatza ez izanda ere, ekimen hauek bere baitan hartzeko bezain zabala badela uste dugun arau batean oinarrituta.

Arartekoaren legearen 12.c) artikuluak dioenez, hain zuzen, Arartekoak zilegi izango du *"horretarako gai diren jarduntza-sail eta zerbitzuekin elkartuta, herritarren bidez zuduen aldezpenak eta arduralaritza-sailen alderdike-riarik ezaren, eginkortasunaren, erdirakortasunik ezaren, aginte banaketaren, antolakidetzaren eta Legeei eta Zuzenari erabat men egitearen arauerako irizpideei egokitzeko aterapiderik egokienak lortzen saiatzea".*

(Ohargarria da nola *Régimen Jurídico del Defensor del Pueblo.* -Defensor del Pueblo. Madrid 1996- liburuan, arau hau "Elkar-aditzeko bitartekaritza" deitzen den)

Laburtuz bada, herriaren defendatzaileei dagozkien arau testuetan besterik zehazki adierazten ez bada behintzat, ez dut uste inolako oztoporik dagoenik, eta ez da izan, herriaren defendatzaileek kexa batzuek konpontzeko bitartekaritza teknikak erabil ditzaten.

Lehen ere esan dugu, gainera, legezkotasun printzipioak muga bezala jokatzen duela herriaren defendatzaileen jardueran. Horrexegatik hain zuzen, Administrazioak aukerako dituen erabakien alorrean balia ditzakete bitartekaritza teknika hauek herritarren eskubideen bermerako dauden erakundeek.

Dagoeneko askotan ere entzuna da *"Administrazioaren eskurako erabakimena dela Zuzenbide Estatu baten Administrazio Zuzenbidean izan daitekeen Troiako zaldia "* (HANS HUBER).

Eskurako erabakimenak ez du inondik ere herritarren eskubideak ahultzeko ihesbide edo katramila bihurtu behar.

Eskurako erabakimena aipatzen denean, Zuzenbidearen ikuspegitik aukera batzuek zein besteak berdin justiziazko izanik, Administrazioak haietako bat aukera dezakeen egoera ari gara esaten, bistan da.

Batzuetan gertatzen da, ordea, era horretako zenbait erabakiren kontra berebiziko erantzuna eta protesta izatea gizartearen aldetik; horrelakoak maiz gertatzen dira, berez gizartearentzat biziki interesgarri izanagatik ere, herritar batzuentzat ondorio larriak dituzten azpiegiturak edo zerbitzuak jarri behar izaten direnean.

Hirigintza, ingurugiro, herri-lan eta gisa horretako alorretan ikusten da batez ere, aurkezten diren kexak aztertuta, Adinistrazioaren jokaera legearen araberakoa izanik, eta Administrazioak, bere eskurako erabakimenaren indarrez, egokien derizkion aukera harturik ere, zenbaitetan behintzat bitartekaritza teknikak erabiltzea komenigarri izango litzatekeela.

Garbi dago, nolanahi ere, herriaren defendatzaileek ezin dituztela hartu legez eta arauz administrazioei dagozkien erabakiak, baina bistan da, orobat, herriaren defendatzaileak saia daitezkeela batzutan jarrerak elkarretaratzen, adostu ezinak leuntzen, adosguneak bilatzen, hau da, auzilari direnen artean bitartekari izaten.

## VI. ARARTEKOAREN PRAXIAN AUZIEN BITARTEKARITZA BIDEZKO KONPONBIDERAKO TEKNIKEKIZAN DUTEN BALJAKIZUNAREN ANAUSIA

Orain arte esandakoak argitzeko, Arartekoaren ekimenetan bitartekaritza teknikak erabili izan diren egoera batzuk aipatuko ditut; ez dut uste, ziur nago, beste herriaren defendatzaileei azaldu zaizkienen oso desberdinak izango direnik.

a) Zerbitzu bat kokatzeko lekuaren edo hartarako planaren kontrako jarrera

Gaur egun geroz eta zailagoa gertatzen zaio Administrazioari herritarrek gogaikarritzak jotzen dituzten zerbitzuak, liskar sozialik gertatu gabe, inon instalatzea.

Badira zenbait zerbitzu, gizartearentzat premiazkotzat emanik ere, gaur egun bere etxe ondoan jar dakionik inork nahi ez dituenak, zabortegiak, kartzelak, adibidez; horregatik, agintari publikoek gai izan behar dute, egokien deriozkioten erabakia hartuz gainera, herritarrei erabaki hori arrazoi eta premia objetiboek eragina dela, eta ez herritar haiekiko diskriminaziozko ekimen bat, ulertarazteko.

Beste batzuetan ezjakintasuna edo solidariotasunik eza izaten dira instalazioen kontra jartzea eragiten dutenak, HIESez gaixo direnentzako sorospen etxeak, psikiatria gaixotasunak dituztenentzakoak... etab.; horrelakoetan, bistan da, herriaren defendatzaileak ez du esku hartu behar.

Hona gisa horretako egoeren bi adibide:

Era honetako kasu bat honako hau da: Barakaldoko kale bateko biztanleak etxe bateko behe solairuan Ertzainaren azpikomisaldegi bat jartzearen kontra azaldu ziren, era horretako polizi instalazio bat jartzeko lekurik egokiena ez zela iritzirik.

Mobilizazio asko izan zen, presio egiteko jende kontzentrazioak eta trafikoa ebakitzeak eginez. Gai hori zela eta kexa bat jasorik, Barne Sailaren aurrean bitartekari izateko eskaintza egin zuen Arartekoak, begiz jota zegoen instalazioaren ordez herritarrek proposa zitzaketen eta behar ziren baldintzak betetzen zituzten bestelako aukerak azter zitzatzen.

Hainbat proposamen jaso ziren, eta Barne Sailari jakin arazi zitzaizkion. Proposamen berriak aztertu ziren, baina aztertutako proposamen berri guztietatik Sail horrek hasieratik aukeratua zuenari irizten zion Barne Sailak egokiena bete nahi ziren helburuetarako.

Azkenean komisaldegi hori bertako biztanleen iritziaren kontra inauguratu zen.

Beste batzuetan lehendik ere bertan dauden zerbitzuen kontra jasotzen dira kexak. Bilboko Begoñako auzotarrek kexa idatzi bat aurkeztu zioten Arartekoari, auzo horretan zegoen gasolindegi baten funtzionatzeko moduan ageri ziren arauz kontrako egoerak salatuz.

Salaketa egiten zutenek ziotenez, Industria eta Energiako Sailak baimendutako kontrol erakundeak egindako ikusketa batetik ondorioz ateratzen zenez, akatsak ikusi ziren drenaje sareari zegokionean eta orobat sare horren hustubideetarako irispidea ematen zioten kutxetetan. Esaten zutenez, orobat, oso gauza nabarmena zen gasolindegi horretatik kaltegarri izan zitezkeen gas ihesiak izaten zirela.

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Sailera jo zuen lehendabizi, agertutako arau kontrakoak konpontzeko zer ekimen ari ziren egiten ezagutzeko.

Bitarte horretan beste idatzi bat jaso zen auzotarren aldetik, esanez ezen Bilboko Udalak gasolindegi haren jabeei gasolindegia handitu eta berritzeko baimena eman zielako berria iritsi zitzaiela, eta obrak egiteko zegokion baimena eman ziela orobat; erakunde horren jokabide horren kontra azaltzen ziren auzotarrak, baimen hori Bilboko Hiri Ordenamendurako Plangintza Orokorrean aurrikusitakoarekin ezin adostuzkoa zela irizten baitzioten.

Gai honi buruz Bilboko Udaletxearen aurrean hainbat jestio egin ondoren, erakunde horrek aipatu instalazioa egiteko baimena Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko Arautegian (JGOKAA) aurrikusita dagoen prozeduraren arabera tramitatu zela ziurtatu ahal izan zuen, eta orobat ziurtatu ahal izan zuen Bilboko Hirigintzako Ordenamendu orokorraren arabera zilegi zela lur gaineko instaiazioak egokitzea (eraikuntzako bolumena handitu gabe eta gehigarrizko jarduerak jarri gabe, beti ere) eta handitu zitezkeela orobat lurpeko gasolina gordailuak ere, karga eta deskarga lanak arindu ahal izateko, eta erregai mota berriak eduki ahal izateko.

Erabaki horiek guztiak ezagututa, bada, indarrean dagoen legediaren araberakotzat eman zuen Arartekoak Bilboko Udalak gai honetan izandako jokaera.

Hala eta guztiz ere, ordea, Begoñako auzotarrek irme jarraitzen zuten Udal horrek hartutako erabakiaren kontrako jarreran, beren iritzian gasolindegiaren jarduera zabaltzeko baimena emateak eremu hartako arriskuak handitzea baitzekarren berez, eta ez zuten konfidantzarik Administrazioak jarduera hauek behar bezala funtzionatuko dutela kontrolatzeko egin behar duen kontrola egiteko ahalmenetan, une horretara arte ez baitzen soluzio egokirik eman lehendik salatuta, eta behar bezala frogatuta, zeuden filtrazioetarako. Horregatik guztiagatik, bada, aipatzen den gasolindegi hori beste leku batera eramateko eskatzen zuten.

Bilboko Udaletxeak bilera batera deitu zituen gai hau zegokien alderdi guztiak; Arartekoak ere bilera horretan parte har zezan eskatu zuten auzotarrek.

Bilera horretan izan ziren: Arartekoa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren ordezkariak, IHOBEren ordezkariak, REPSOLen ordezkariak, Bilboko Udaleko Hirigintza eta Ingurugiro Alorraren arduraduna, eta auzotarren ordezkaritza bat.

REPSOLek, bestelako irtenbide orekatu batzuk bilatu eta aztertzen ziren bitartean, zentzuzko aldi baterako eraikuntza lanak deldirik edukitzeko egin zuen eskaintza onartzea erabaki zen.

Bestelako aukera horiek Udaletik bertatik planteatuko ziren batez ere, gaia zegokien beste parte batzuek beren aukcrak ezin aurkezturik ez zutela. Aurkezten ziren beste aukerak aztertzeko bilera bat antolatuko zen, eta hartarako data zehaztu zen; bilera horretan berorretan IHOBE enpresak egin behar zituen azkeneko analisien emaitzen berri emango zen orobat, enpresa horren ardurapean utzia baitzuen Eusko Jaurlaritzak, enpresa horretako bazkide bakarra bera, kutsatuta zeuden lur sailen jestioa.

Geroztik Bilboko Udaletxean egin zen bilera batean, Udal horrek Begoñako gasolindegia handik kendu eta beste leku batean jartzeko egin zituen aukera proposamenak aztertu ziren.

Egin ziren bederatzi proposamenetatik, proposatutako hiru bideragarri izan zitezkeen ala ez zehazki aztertu eta erabakitzeko akordioa hartu zuten bertan zirenek, Bizkaiko Foru Aldundiko Herri-Lanetako Sailaren baimena behar baitzen aukera horietan guztietan. Azkenean REPSOL prest agertu zen instalazio hori proposatu zitzaizkion lekuetako batera eramateko, eta Begoñako gasolindegia kokatuta zegoen lurraren kutsadura erabat desagertu arte haren garbiketa lanetan jarraituko zuela agindu zuen.

Gasolindegia proposatutako aukerako beste lekura aldatzea Bizkaiko Foru Aldundiko Errepide Sailak leku horri emandako sailkapen motaren pentzutan geratzen zenez, Arartekoak eta Bilboko udalak Aldundiko Errepideen arduradunarekin bilera bat egitea erabaki zuten, lurraren sailkapen horri buruz hitz egiteko.

Udalak, bere aldetik, beharrezko ziren baimenen tramitazioa bizkortzeko ahal zituen erraztasun guztiak emango zituela hitz eman zuen.

Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunen aurrean hainbat eta hainbat jestio egin ondoren, Foru Aldundiak onespena eman zion REPSOLek gaia zegokien parte guztien artean ados erabakitako lekuan gasolindegia jartzeko proiektuari.

b) Administrazioak aurrerabiderik ez eman izanagatik sortutako liskarrak

Horrelakoetan Administrazioaren aldetik erantzunen bat lortzeko ahaleginak izan ohi dira herriaren defendatzailearen ekimenak.

Adibide bat jartzeko, Bizkaiko Galdakao herriko auzo elkarte batek kexa aurkeztu zuen, mendi maldari eusteko obrak, hiriguneak prestatzekoak, berebilen ibilbideen hobekuntzak, elektrizitate indarrarentzako eta urarentzako instalazioak eta gisakoak planteatzen zituen hirigintza proiektu bat betetzen ari ez zelako.

Bazen, gainera, esaten zutenez, etxebizitza eraikuntza bat bukatu gabe zegoena, 20 urte baino gehiagoz eraikuntza lanik egin gabea, eta Udalak hari zegokionez inolako hirigintza disziplinako ekimenik bideratu ez zuena.

Gauzak geldi zeudenez, Arartekoak bere bitartekaritza proposatu zien auzotarrei, eta horretarako deitu zen auzo biltzar batean aho batez onartu zen haren proposamena.

Une honetan bitartekaritza eskaintza hori berori Udalari egin zaio, eta haren erantzunaren zain gaude.

Honako hau da etorri zaigun beste kasu bat: Trintxerpeko Arraindegi kaleko Auzo Elkarteak Arartekoarengana jo zucn, Pasaiako Udala ez zelako ezer egiten ari kale horretako hiri inguruaren hondamenaren aurrean, batez ere behinola arrantzaren alorreko zereginetarako erabili zen lantegi hondatu bat zegoelako bertan.

Gure erakundearen aholkulari bat Pasaiara joan zen, industri eraikin zaharrek eragindako hiri eta ingurugiro hondamenaren larritasuna aztertzeko, bai eta udaletxean Arraindegi kaleari buruzko administrazio espedienteak eta dokumentazioa miatzeko ere.

Horrela, ikusi ahal izan zen nola 1990etik aurrera, hau da, Arraindegi kaleko 4. eta 8. Arteko zenbakien, eta 15 eta 19 artekoen Barne Eraberrikuntzarako Plan Bereziak (BEPB) behin betiko onartu zirenetik, Udalak apenas egina zuela inolako ekintza edo hirigintza alorreko tramiterik hirialde hartako hiri ehundura zaharberritzeko.

Arartekoaren ustez, ez zen behar bezalako arretaz hartu arazo honen garrantzia, eta horretxek eragin zuen udalaren aldetik ezer ez egitea. Horregatik, eta egoera hori konpontzearren, Pasaiako Udalari gomendatu genion lehentasuna ematea Arrandegi kaleko 4 eta 8 arteko zenbakien BEPBri, eta, berehala has zezala industri eraikin zaharren hondamen egoera deklaratu eta lurrera botatzeko espedientea.

Gainera, kaleko zenbaki horien BEPBaren birzatikatze eta urbanizatzeko proiektua osatzeko lanaren kontratazioa egitea eta, orobat, udalaren gestioa ekimenik ezean berriro ez erortzeko egin beharreko ekintzen egutegia osatzea ere gomendatu genion Udalari.

Azkenik, iradoki genuen komenigarria izan zitekeela Udala baliatzea Eusko Jaurlaritzak industri eraikin hondatuak botatzeko proiektuen idazketa edo burutzapenerako ematen dituen laguntzak arautzen dituen 314/1995 Dekretuaz.

c) Administrazioaren ekimenak pertsona partikularren ondare eskubideak hausten dituen egoerak

Horrelako kasuetan herritarrek askotan ez dute nahi izaten kalte ordain ekonomikorik, berriro ere Administrazioak esku hartu aurretik zen egoeraren ahalik eta antzekoenera bihurtzea baizik.

Adibidez, Ermuako herritar batzuek, hamabost urte lehenago, horretarako jabego titulurik gabe, erdi-kale bat egiteko beretzat hartua zuen lursail baten balioa itzul ziezaien eskatu zioten herri horretako udalari. Alkateak aitortua zien bere garaian Udalak egitez okupatu zituela lursail horiek, eta kalte ordainez Udalak beretzat harturik zituen lursailen balioa ordaintzea izango litzatekeela bidezkoena.

Denbora asko baitzen igaroa horiek gertatu zirenetik, gaia zegokien alderdiak ez ziren adosten zenbateko lursaila zen okupatua ez zenbat balio zuen ere.

Arartekoak bere bitartekaritza eskaini zuen auzi honetarako, eta bi alderdiek onartu egin zuten bitartekaritza hori.

Ekimen horretarako bitartekaritza lan handia behar zen alde batetik, eta analisi sakon batez aztertu Udalak eta lursailen jabeek ekarritako dokumentazioa. Aipatu lur sailen mugakide ziren herritarren deklarazioak eta 1966-1977 bitartean herri horretako Alkate izanaren deklarazioa ere eskatu ziren.

Behin dokumentu eta testigantza horiek azterturik, proposamen bat egin zitzaien bi alderdiei udalak egitez eta ez eskubidez okupatutzat eman zitekeen lur saila zenbatekoa zen, eta horren balio ekonomikoa zenbatekoa zen zehaztuz. Oraintxe bertan alderdi biek egin zaien proposamena onartu zain gaude.

Honetarako argigarri izan zen beste kasu bat honako hau izan zen: Ararte-
koari kexa idazki bat aurkeztu zitzaion Arabako probintziako herri txiki bateko kaleak zolaztatzeko proiektu batek mende hartzen zituen ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzearen legezkotasuna auzitan jarriz.

Espedientea aztertzean desjabetze prozedura aurrera eramateko beharrezko ziren prozedura tramite batzuk egin gabe zeudela ikusi zen. Administrazio Batzarrak beste idatzi bat ekarri zuen geroago, lehen egin gabe zeudenak beterik.

Erreklamatzaileak Administrazioaren jarrera guztiz larderiazkoa iruditzen zitzaiolako eta bere lursailerako sarrera kentzeak zekarkion kaltean onarritzen batez ere zuen haren kontra zuen jarrera.

Arartekoak Administrazio Batzarrari dei bat egin zion bilera baterako, bi alderdien artean bitartekari izateko eskaintza egiteko, bien artean adostasunezko irtenbideren bat aurkitu ahal izango zelako uste oso-osoan.

Bilera horretan, ukitzen zen lur sailaren jabeak eskaintza bat egin zuen, deskabetze espedientearen kontrakotasuna utzi eta bere lur sailaren zati bat dohainik okupatzen utziko zuela aginduz, eta horrenbestez balioespenezko ordainari ere uko eginez.

Administrazio Batzordeak bere aldetik hitz eman zuen erreklamatzailearen lur sailaren muga berrian berriro jarriko zuela behar bezala lehendik zegoen sare itxitura, era horretara jabetza publikoa eta pribatua ongi bereiziz.

Irtenbide hori hirigintzazko arauen aldetik horretarako oztoporik ez zela egiaztatzeko baldintzapean jarri zen.

Puntu hori egiaztaturik beraz, eta lur sailaren muga berrian berriro itxitura jartzen baldin bazen kalte egingo zitzaion interes publiko jakinik ez zela frogaturik, hainbat urtez luzatuz joandako auzi bat bukatzen zuen akordioa iritsi zen horrenbestez.
Hona gertatu den beste egoera bat. Herritar batek kexa aurkeztu zuen N-625 errepidea zabaltzeko lanetarako desjabetze baten ondorioz bere jabetzako lonja baterako irispidea itxita geratu zitzaiola, eta horrenbestez lonja hori eraikitzeko izan zen helbururako ezin erabili zela salatuz.
Aski tramitazio konplexu baten ondoren, bere bitartekaritza proposatu zuen Arartekoak, bide horretatik adostasunezko irtenbide batera iritsi ahal izateko; bi alderdiek onartu zuen bitartekaritza hori.
Aipatu bileran Bizkaiko Foru Aldundiak hitz eman zuen kexaren aurkezleak zuen autobus eta kamioi konponketako jarduera lur sailaren desjabetza aurretik zuen baldintza berberetan eginez jarraitu ahal izan zezan behar ziren obra guztiak egingo zituela.

d) Administrazio bat baino gehiagoren eskumenak batera gertatzen diren egoerak

Honelako egoeretan eskumenak zehaztu gabe egoteak edo proiektuak elkarlanean aurrera eramateko adosten ez jakiteak beharrezkotzen du bitartekaritza.
Hala, Gipuzkoako Eibar eta Elgeta, eta Bizkaiko Ermua eta Zaldibarko herrietako alkateek Arartekoaren bitartekaritza eskatu zuten, Ermua parean hasi CN-634 errepidetik hasi eta eta Aixolako urtegira doan errepidearen mantenua zein erakunderi dagokion zehazteko.
Jakingarri bitxi bezala, aipatu behar da delako errepide hori bi foru lurralde desberdinetatik (Gipuzkoa eta Bizkaitik) eta hiru udalerri desberdinetatik (Ermua, Zaldibar eta Elgetatik) igaro-tzen dela. Gainera, Aixolako urtegia, Espainiako Iparreko Konfederakunde Hidrografikoak 70.eko hamarkadako bukaeran eraikitakoa, Eibar urez hornitzen duena da, eta, beraz, Gipuzkoako Ur Partzuergoak jestionatzen du ur hornidura hori. Bestalde, urtegiak paisaia-balio handia dauka, eta Ermua eta Eibarko biztanleek askotan erabiltzen dute beraien aisialdian.
Urtegirako bidea bisitatu ondoren, Arartekoa lau alkateekin eta Gipuzkoa eta Bizkaiko obra hidrauliko eta herri-lanetarako foru sailetako diputatuekin bildu zen. Bilera horietan, Zaldibar eta Elgetako alkateek argi utzi zuten ez zitzaiela interesatzen errepidearen mantenua beraien gain hartzea, bide-zati handiena beraien udalerritik igarotzen zen arren, hain zuzen ere herri horietako jendeari ez ziolako inolako zerbitzurik ematen.
Arartekoaren ustez, beharrezkoa zen Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiak elkarlanean aritzea gai honetan, errepidearen ezaugarriak bereziak direlako, bai haren kokapenagatik eta bai haren erabileragatik ere.
Gehiago zehaztuz, errepideko lehen kilometroa Ermua eta Zaldibarko Udalen ardurapean egotea proposatu zuen, halako egoitza eta jarduera batzuei zerbitzua ematen dielako. Aldiz, Aixolako urtegira iritsi arteko gainontzeko zatia, hasierako bidetik apartatu egiten zena, foru aldundiek hartu behar zuten beren gain, hitzarmen baten bitartez.
Hitzarmen horretan, gure proposamenari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak errepidea konpondu eta egokitu beharko zuen, ezer baino lehen, eta gero bi aldundiek batera ordaindu

beharko zuten errepidearen mantenua, lurralde historiko bakoitzean errepideak zeukan luzeraren arabera. Hartara, Bizkaiko Foru Aldundiak mantenu gastuen %59 hartu beharko zuen bere gain, eta Gipuzkoakoak gainontzekoa, hots, %41, baina baita errepidearen mantenua eta kontserbazioa sustatzeko daukan erantzukizun zuzena ere.

e) Epaitegi bidezko auzitara gabe konpontzeko elkarretaratzearen antzeko egoerak

Zenbaitetan elkarren jarrerak hurbilduz gero liskarrak auzitara eraman ez daitezen lortzen da.
Esate baterako, ospitale bateko zuzendaritzak bertako langile baten eginkizunak aldatzeko hartu zuen erabaki baten ondorioz, langile horrek Arartekoarengana jo zuen esku har zezan eskatuz.
Ospitaleko zuzendaritzaren erabakian jasotzen ziren terminoak legearen ikuspegitik bidezkotzat har zitezkeen. Langileari ematen zitzaizkion eginkizun berrietako batzuri buruzko aurrikuspenak aski lauso edo gerora zehazteko geratzen baziren ere, hori ez zen aski ospitalearen jokabidea arauz kontrakotzat emateko.
Arazoa zegokion sendagileak errekurtsoa jarria zuen justizi epaitegien aurrean, eta nahiz eta gauza jakina izan baldintza horixe dela Arartekoak esku hartzeko mugetako bat, hala ere, eta kontuan harturik arazoa zegokion sendagileak esaten zuenez, berak zehazgabetzat jotzen zituen eginkizunak zehaztu zekizkion baizik nahi ez zuenez, auzitegi bideetatik kanpora irtenbideren bat aurkituz gero, egingarri ikusten baitzen hori, irtenbide horren aurrean ospitalearen jarrera eta sendagilearena berarena zein izango zen aztertu zen.
Bi alderdien aldetik jarrera ona azaldu zenez, bitartekaritza prozesu bat abiatu zen, Arartekoa bitartekari zela, eta auzitegi bidea baztertu eta kexagaiari buruz bi alderdien artean akordio bat sinatuz bideratu ziren gauzak.

f) Langile taldeei dagozkien antolamendu neurriak hartzen direneko egoerak

Langileen antolamendurako eta langile baliabideak arrazionalizatzeko neurriak hartzen direnean, ia beti gertatzen dira liskarrak eta haserreak.
Alor hau sindikatuek beren berezia duten alorra da hain zzuzen, eta herriaren defendatzaileek oso kontu handiz neurtu behar dute ea zein den beren jarduera eremua gai honetan, baina hala ere zenbaitetan parte hartzera beharturik daude, interes sozialek edo gatazka larriak gertatu izanak hala eskaturik.
Adibide bat jartzeko: Gasteizko Santiago Ospitaleko aldi baterako langileek gatazka zuten Osakidetzarekin aldi baterako kontrataziora iristeko moduaz.
Beren jarrerari eusteko, langileen ordezkari batzuk gose graban hasi ziren.
Ordura arte Gasteizko Santiago ospitaleko alde baterako kontrataziora iristeko modua barne araudi batez araututa zegoen, araudi hori bertako hitzarmen kolektiboan jasota zegoen. Lan
harremanak arautzeko modu berezi hori, hasieran erakunde horiek Arabako Foru Aldundiaren mende egonak zirelako gertatzen zen horrela, geroago aldatu baitziren Osakidetzaren eskuetara.

Ospitale horretako geroz eta langile gehiago beren lanpostuetara Osakidetzako sareko gainerako langileen lan baldintza beretan sartuz zihoazelarik, Santiago Ospitalean aldi baterako lanera sartzeko moduan baldintza berezi horiek aurrerantzean zertan bere horretan gorderik ez zegoela uste izan zuen Osakidetzak. Horrela bada, behin martxoaren 11ko 51/1997 Dekretua, Osakidetzako aldi baterako kontratazioko zerrendak arautzen dituena, argitaratu zenez, Osakidetzako zentro guztiak, Santiagoko Ospitalea ere bai beraz, arau horren mende zeudela ulertu zuen erakunde horrek.

Bi jarrera aurrez aurreko topatzean sortu zen auzia:

a- Ospitale horretako langileen ordezkariek aldezten zuten jarrera, haien iritziz aldi baterako kontrataziorako irizpideak hitzarmen kolektiboaren barruan baitzeuden, eta horrenbestez elkarrekiko akordioz baizik ezin alda baitzitezkeen irizpide horiek, eta ez dekretu baten bidez.

b- Osakidetzak aldezten zuena, haren iritzian gai hori ez baitzegoen Santiagoko Ospitaleko hitzarmen kolektiboaren barruan, eta horrenbestez erietxe hori ere aipatu 51/1997 Dekretuaren aplikazio eremuaren barruan geratzen baitzen.

Auziak gatazka bidea hartu zuen, eta geroz eta larriago ari zen bihurtzen gose greban sartuak ziren langileen ordezkarietako batzuen osasun egoera. Arartekoa erietxe horretara joan zen, auziaren alderdi guztietako xehetasunak ezagutzeko asmoz, eta aztertuko zuela eta irtenbide bat bilatzeko aukerak begiratuko zituela hitz eman zuen.

Erakunde honen eskuhartzeari esker egoera zegoen geldiunetik atera ahal izan zen, eta alderdi biak berriro elkarrizketan hasi ziren, elkarrizketa horiek etenda baitzeuden. Azkenik, akordio puntu batera iritsi zelarik, gose grabalariek gose greba utzi egin zuten.

### g) Planteatzen den arazoa administrazio publikoei ez ezik, pertsona eta erakunde pribatuei ere badagokienean gertatzen diren egoerak

Harreman juridikoen konplexutasunagatik beragatik, maiz gertatzen da gai berean interes publikoak eta pribatuak batera gertatzea, eta horiek denak adostu behar izatea.

Horrela, adibidez, Arartekoak, Patronatoaren Alde izeneko elkarteak aurkeztutako beste kexa espediente batzuk (89/90 eta 620/94) aurrekari bezala hartuaz, non kolektibo horrek Laudioko Lanbide Heziketako Udal Zentroaren eraikin nagusiaren udal jabetza posiblea planteatzen baitzuen, Laudioko Udalaren eta *La* Salletarren artean bitartekaritza egitea erabaki zuen.

Iradokizun edo gomendio bat eman baino gehixeago ere egin nahi baitzen, Arartekoak jarrera aktiboagoa eta konprometituagoa hartu zuen. Bi aldeen baimenarekin bitartekaritza eta auzi horri konponbide adostua bilatzeko ahalegin handia egin behar zen.

Helburuak bi ziren: batetik, disfuntzioei aurre egitea, eta, bestetik, ikastetxe publikoaren heziketa maialko jabetza eta higiezinaren erroldaren araberako jabetza batzea zen. Izan ere, lehena Laudioko Udalarena zen, eta bigarrena La Salletarrena. Gainera, hori guztia erlijiosoek irakaskuntzan beraien lankidetza ematen jarraitzeko moduan egin behar zen, urte asko baitaramatzate lan hori egiten. Erlijiosoak, denbora horretan, gainera, eraikin horretan bizi izan dira beti.

Hiru aldeen artean bilera ugari egin behar izan ziren agiri adostu bat lortzeko, eta bertako punturik garrantzitsuenak ondorengoak dira:

1. La Salletarren kongregazioak, erroldaren arabera Karmengo Amabirjina kaleko 17. zenbakian dagoen orubearen eta eskola eraikinaren jabe iznaik, doan uzten dio Laudioko Udalari 3.430 $m^2$ko orube hori eta lau solairu gehi ganbara dauzkan eskola-eraikina.
2. Kongregazio erlijiosoak beretzat gordetzen ditu eraikinaren gorputz zentraleko azken bi solairuak eta ganbara, komunitatearen bizitokia izateko.

Udalari ematen zitzaion eraikina etorkizunean erabiltzeko aukera ere izango dute, baldin eta Lanbide Heziketako jardueretan trabarik egiten ez badute.

Era berean, lankidetzako hezkuntza-hitzarmen bat sinatzea ere planteatu zen, zeinaren arabera eta 10 urteko epean La Salletarrek aholkularitza pedagogikoa dohainik emango baitute

Lanbide Heziketako Udal Zentroarekin zerikusia daukaten hezkuntza gaietan. Aholkularitza hori lanerako prestakuntza ez arautura ere hedatzen da.

Akordioaren puntuak zehaztu eta adostu ondoren, Arartekoak bi aldeei bidali zien emaitzarako eta eskola lankidetzarako hitzarmen-protokoloa, eta biek onartuz gero, Lanbide Heziketako Udal Zentroaren jabetza dozente edo akademikoaren eta erroldaren araberako jabetzaren arteko banaketa arazoa behin betirako konpontzea lortuko zen, hori baitzen Udalak aspaldiko urteetatik lortu nahi zuen helburua.

Ondoren La Salletarrek beraien kongregazioko erakunde eskudunen bidez hitzarmen-protokoloa sinatu zuten. Laudioko Udalaren aldetik akordio bera hartu zen osoko bilkuraren ebazpenaren bidez.

Azkenik, akordioak lankidetza pedagogikorako hitzarmena mamitu zen bi aldeek sinatu eta notario aurrean eskritura publikoa izenpetu zelarik, zeinaren arabera kongregazio erlijiosoak Laudioko Udalari eman baitzion lanbide Heziketako Udal Zentroaren eraikin nagusia.

Horrenbestez konponduta geratu zen herrian pil-pilean urteak zeramatzan auzia, eta esan beharra dago erabakiorra izan zela horretarako La Salletarrek hasieratik erakutsi zuten jarrera irekia eta haien eskuzabaltasuna.

## VII. HERRIAREN DEFENDATZAILEEN BITARTEKARITZA EGINKIZUNARIBURUZKO EZTABAIDA. ADMINISTRAZIO PROZEDURA 30/92 LEGEAREN BITARTEZ HERRITARREKIN NEGOZIATZEKO ZABALDU DENEAN AGERTZEN DIRENIKUSPEGI BERRIAK

PAREJO irakasle jauna Herriaren Defendatzailearen Lege Organikoa onartu zenetik hamar urte bete zenean aurkeztu zuen ponentzia bikainean idarokizun handiko gaia utzi zuen mahai gainean gogoetagai: nola balia daiteke Herriaren Defendatzailea bitartekaritza eta elkarrenganatze bidezko formulez “gobernu auziak” konpontzeko, edota baita bereziki konplexuak diren prozedurak ere, era askotako interesak biltzen direnak, bideratzeko ere, ingurugiroari dagozkionak, adibidez.

Bazuen kezka eta arreta puntu horri buruz, beldurrez Herriaren Defendatzailea ez zedin lanez sobera karga, eta horrenbestez irtenbide horrek ere izan zezakeen ospea galdu, eta horregatik **MUGA** batzuk jartzen zituen horretarako:

• Administrazioak AUKERAZKO eskumena duen gaietan esku hartzea;
• Administrazioaren onespena izatea Arartekoak esku hatzeko;
• Arartekoak irtenbide PROPOSAMENA baizik ez egitea.

Gai hau parlamentura eraman zen. Horrexegatik, hain zuzen, Gorte Nagusietan 1993ko *urteroko txostena* eztabaidatu zenean, Herriaren Defendatzaileak bitartekaritza kontzeptuari buruzko gogoeta bat egin zuen bere hitzaldian, eta errekutso administratibo judizialen osagarrizko baliabidetzat ematen du hartan bitartekaritza hori.

Beste alde batetik, Herriaren Defendatzailearen 1994eko urteko txostenean prozeduraren adostasun bidezko amaiera aipatzen da, eta 3/92 Legearen (Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoari buruzkoa) berrikuntzarik interesgarrienetakotzat jotzen da horixe; eta Herriaren Defendatzaileak esku hartzeko hiru modu aipatzen ditu, prozedura adostasunez bukatzeko figura berri horretatik ahalik eta probetxu gehien atera ahal izateko.

*"- Alde batetik 30/1992 Legeak zabaltzen duen posibilitate horrek aukera emango dio Herriaren Defendatzaileari* **Administazio publikoari eta pertsona partikularrei ahaleginean adostasunezko irtenbideak bilatzeko jarrerak har ditzateneskatzeko** *irtenbide horietan bakoitzak dituen interesak ahalik eta ongien gorde, eta aldi berean, jakina, interes orokorra ere ahalik eta ongien gordeko den moduan. Gaur egunera arte, Herriaren Defendatzaileak administrazio arteko zenbait hitzarmen egitera bultzatu izan badu ere, bere ekimena ezin zuen alor horretara orientatu, horretarako legezko aurrikuspenik ez zelako hain zuzen.*
*- Zertxobait aurrerago joanez, pentsatzen has daiteke, bigarrenik, ea Herriaren Defertdatzaileak administrazioak eta herritarrak adostasuriezko irtenbideak bilatzera bultzatu ez ezik, ezin ote lezakeen* **autoritate moral bezala ere jokatu, era horretako hitzarmenen bidez hartzen diren konpromezuak beteko direlako berme gisa.** *Alegia, negoziaketan zuzenean parte hartu gabe edota ez alderdi batentzat ez bestearentzat behartzezko inolako proposamenik egin gabe, Herriaren Defendatzailea izan liteke hartutako adostasun akordioaren lekuko eta testigu, eta bere auctoritas-ez hitzarmena beteko dela bermatu.*
*-Azkenik, beste alor bat zabaltzen da Herriaren Defendatzailearen eskumenezko ekimenerako, hain zuzen ere Herriaren Defendatzailearen eskumenen barruan egongo baita* ***bere ezagumenera iritsi zaizkion hitzarmen edo akordioak Konstituzioaren 54. artikuluak defenditzeko agintzen dizkion eskubideen behar besteko bermerik baduten ala ez,*** *eta jarduera guztietan gure Konstituzioaren 103.1 artikuluan definitzen diren printzipioak -eraginkortasun printzipioa*

*batez ere—, bere ekimenaren orientazio parametrotzat balio baitu, bete eta errespetatu diren ala ez begiratzea."*

Herriaren Defenditzaileak bere urteko txostenean diseinatzen duen eta hona transkribatu berri dugun jarduera eremu horrek 30/92 Legean du bere egokiera.

Horregatik, hain zuzen, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoaren Legeko 88 eta 107.2 artikuluak nola garatzen diren itxoin beharra izango da haien egiazko neurria ezagutzeko, eta horrenbestez, herriaren defendatzaileek zer paper jokatu ahal izango duten ezagutzeko ere.

Puntu honetan, ordea, arazoa ageri da ea legebiltzar ordezkariek esku har dezaketen ala ez Herriaren Defendatzaileak bere txostenean planteatu dituen termino beretan, irudi hori sortu eta arautu zuten legeak gaur idatzita dauden bezala, ala lege horiek aldatu beharra dagoen, ala, bestela, bitartekaritza lege berezi bat behar den Zuzenbide Administratiboaren alorrerako.

Nire iritzirako, uste osoa dut ez litzatekeela inolako arau aldaketa beharrik herriaren defendatzaileek eginkizun horiek beren gain hartu ahal izateko.

Lege horretako 107.2 artikuluak, idatzita dagoen bezala, ohiko errekurtsoaren ordez *"organo kolejiatuen aurrean edo batzorde berezien aurrean"* baketze, bitartekaritza eta ebazpen prozedurak balia daitezkeela aurrikusten baitu, ez du zalantza biderik uzten. Kolejiatu izate horrek, itxuraz, badirudi erabat baztertzen dituela herriaren defendatzaileak eginkizun horretatik.

Zenbait autorek, SÁNCHEZ MORONek adibidez, zehazki diote *"Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoaren Legearen 107.2 artikuluak auziak konpontzeko teknika horiek Ombudsman moduko instituzioetatik kanpora ere zabaltzea duela asmoa"*.

Beste alde batetik, lege arau horren berorren 88. artikuluari dagokionez, doktrinak behin baino gehiagotan kritikatu izan ditu artikulu horren lausotassuna eta akats teknikoak, esanez ezen erakinkortasun zuzen berehalakorik ez duela eta berorren garapen arauetara igortzen duela, hartarako uzten duela.

SÁNCHEZ MORON bera eta beste zenbait autore bitartekaritza bultzatzearen aldeko azaldu izan dira, eta *bitartekaritza hori erakunde espezializatuen esku utzi; erakunde horien artean badirudi Ombudsmana litzatekeela egokiena (zertarako ugaldu organoak eta instituzioak, izan ere, lehendik ere hainbeste izanda)".*

JUAN MANUEL TRAYTERrek dioenez, bitartekaritza eginkizunean *"legez izendatuta dauden eskumenak aldatzen ez direnez, esan daiteke ez dela hori aurrikusiko duen arauren beharrik",* eta Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoaren Legearen 88. artikuluan ongi egokituko litzatekeela esaten du.

Autore honek Kataluniako Sindic de Greuges-aren Legea aipatzen du aurrikuspen horren adibide bezala, eta esaten du jarduera mota berri horrek oso izen eta entzute zabala izango lukeela zenbait gai berezitan, hala nola, funtzio publikoarenean eta funtzionarien arazo kolektiboenean, hiringintzan, kontratu

bidezko eta kontratuz kanpoko erantzukizunenetan, auzo harremanetan eta ingurugizoari dagozkion gaietan.

Edozeinetara ere, Zuzenbide Administratiboaren alorrerako lege bereziren bat izango balitz, hori, eta legeak egokitzeko gainerako araudiak, lagungarri izango litzaizkiguke etorkizunean hemaren defendatzaileek administrazio prozedurak adostasun bidez bukatzeko eginkizunean izan lezaketen papera definitzeko garaian.

## VIII. LABURBILDUMA

1. Bukatzen ari den mende honetan zehar Administrazioaren presentzia alde guztietara nola zabaldu den ezagutu dugu, eta errrrealitatea bera ere geroz eta konplexutasun handiagokoa eta aldakorragoa bilakatu da, eta behinolako kontzeptu juridiko-politikoak ez dira, zinez, gauza egoera horri erantzuteko.
2. Administrazio auziaren prozesu eredua, herritarren eta Administrazioaren arteko auzien irtenbide bezala, oso krisi larrian dago sartuta.
3. Administrazioarekiko auziei irtenbideak bilatzeko bestelako sistema alternatiboak arras ari dira zabaltzen; sistema horiei ADR (Alternative Dispute Resolution) esan ohi zaie izenez.
4. Auziak konpontzeko bestelako moduak kategoria ireki bat dira; gauza bat dute berdina: auzietan kontrako alderdi direnak auzitegi bidez kanpoko konponbide batean adostu nahi izaten direla, eta horretarako auzilari ez den hirugarren batek hartu ohi duela parte askotan, erabakia hartzeko prozeduran neurri desberdinetan parte har dezakeela.
5. Ombudsmanaren irudia auziak konpontzeko bestelako sistema horien artean modu berezi bat da. Ombudsmanaren ekimena administrazio alorreko bitartekaritzaren aurrekari gisako bat da; zenbait autorek, horregatik, berez ez dagokion bitartekaritza deitzen dute.
6. Bitartekaritzak ezaugarri berezi hauek ditu:

   1- Sekretu profesionala (isilpekotasuna).
   2- Alderdikeriarik eza, neutraltasuna.
   3- Borondatezkotasuna.
   4- Prozeduraren malgutasuna.
   5- Bitartekariaren iritziak alderdientzat behartze indarrik ez izatea. Bistan dago aipatu diren ezaugarri horietako batzuk bat datozela Herriaren Defendatzaileak dituen ezaugarriekin, baina aldeak ere handiak dira haien eta honen artean; horregatik, hain zuzen, Herriaren Defendatzailearen ekimena bitartekaritza ez berez dagokiona, edo ez simetrikoa dela esan daiteke.
7. Zenbait Autonomi Erkidegotako herriaren defendatzailearen arautze legeek aurrikusia dute hari aurkezten zaizkion kexak konpontzeko adostasun edo akordiozko formulak erabili ahal izango dituela.

Arau horien babes juridikoaren pean herri defendatzaileak eskubide du zenbait auzi konpontzeko bitartekaritza teknikak erabiltzeko.

8. Legebiltzarreko defendatzailearen arautzeko beste lege batzuetan horrelako aurrikuspenik ez izateak ez du esan nahi berez Ombudsmanaren izaera juridikoarekin bateragarri eta horiek berez duten xedearen arabera diren teknika hauek ezin balia daitezkeenik.
9. Eragozpenik ez da, beren arauetan horretarako aurrikuspen zehatzik izan ala ez izan, legebiltzar ordezkariek, Administrazioaren aukera askatasunezko erabakimenari dagokion alorrean aurkez daitezkeen zenbait kexa konpontzeko berez bitartekaritzari dagozkion teknikak erabil ditzaten, halakoetan, ekimen hori berez bitartekaritza -hitz horren zentzurik estuenean- izango ez litzatekeen arren.
10. Arartekoak behin baino gehiagotan erabili izan ditu, jasotako kexa batzuei konponbidea emateko, bitartekaritza teknikak, bere ezitekoa arautzen dion legearen 12.c) artikuluan oinarrituta.
11. Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoari buruzko 30/92 Lege berria eman eta administrazio prozeduran herritarrekin negoziatu ahal izatea sartu denetik, egoera horietan Herriaren Defendatzailearen eginkizuna zein izango den planteatzen da.
12. Herriaren Defendatzaileak esku hartzeko hiru modu planteatzen ditu 1994eko urteko txostenean:

    a) Administrazio Publikoari eta pertsona banakoei adostasun bidezko konponbideen aldeko jarrera har dezaten eskatu.
    b) Hitzarmenetan hartzen diren konpromezuak beteko direla bermatzen duen autoritate moral gisa jokatu.
    c) Hartzen diren akordioek Konstituzioaren 103.1 artikuluan aipatzen diren eskubideen eta printzipioen bermea osorik eta guztiz errespetatzen duten ala ez begiratu.

    Ekimen horiek buaitu ahal izateko ez dirudi dauden arauak ezertan aldatu beharrik izango denik.
13. Baldin eta Herriaren Defendatzaileek bitartekari-lanak -zentzurik estuenean hartuta- egitea nahi bada, ezinbestekoa izango da lege mailan behar bezalako babesa edukitzea, Herriaren Defendatzailea eta Autonomi Erkidegoetako Defendatzaileak arautzen dituzten legeen bidez, edo, bestela, Zuzenbide Administratiboan bitartekaritza arautzen duen arau zehatzaren bidez.

### 2.3.1.2. **Atzerritartasuna eskubideen tnunduan: oztopoak, hutsuneak eta erronkak.**

Manuel García Álvarez, Gaztela-Leongo Procurador del Común jauna mahaiburu zela, Sebastián de la Obra Sierra, Andaluziako Herriaren Defendatzailearen Ondoko jaunak txosten bat aurkeztu zuen gai honi buruz.

Ararteko jaunak ere, bere aldetik, txosten bat aurkeztu zuen gai honi buruz; “Jatorriz atzerritar diren pertsonen arazoak, gure ekimenetatik ikusi ditugun bezala” zuen izenburua, eta osorik dakargu hona, honen ondoren:

“Denok ezagutzen ditugu, hobeto edo okerrago, jatorriz atzerritar diren eta gure herrialdean bizi diren pertsonen arazoak: beren egoeraren legezko alderdiak eta alderdi sozialak, migrazioaren izaera eta eragiten duten arrazoiak, Espainiak eta Europak azkeneko urte hauetan migrazioari dagokio-nez bultzatu dituzten politikak, atzerritar etorkinek gizartean eta lanaren munduan txertatu eta beren lekua aurkitzeko dituzten oztopoak, babes eskubidearen aplikazioan gertatzen ari den bilakaera... Arauzko inmigrazioari eta arauz kanpoko inmigrazioari buruz ere datu batzuk ezagutzen ditugu; pertsona multzo horren alderdi kuantitatiboei buruzko datuak, alegia. Txosten honetan, ordea, ez dugu hortaz hitz egingo. Arazo orokorrak izango dira, guk ezagututzat emango ditugunak, eta gure gogoeten atzeko hondoa direnak, inondik ere. Zeren hemen hartzera goazen ikuspegia hori guztia baino askoz ere asmo laburragokoa baita, eta aldi berean askoz ere mugatu eta zehatzagoa: gure ekimenetan pertsona horiengandik egunero-egunero iristen zaizkigun arazoak islatuko ditugu, horiek ezagututzeko eta defendatu ahal izateko aurkitzen ditugun muga, oztopo eta aukerekin batera.

Horixe da lerro hauen helburua, eta horri erantzuten dio lerrootan jarraitu dudan eskemak ere:

- Zein bide dugu informazioa ezagutzeko.
- Zein arazo berezi jaso ahal izan dugu.
- Zein jokabide izan du Arartekoak gai honetan.

Helburu horixe betetzeko erabiliko ditugu, gainera, maiz kasu jakin zehatzak, zeren adibide gisa duten balioaz gainera, arazo hauek pertsona banako jakinei dagozkiela ez ahazten lagunduko baitigute horrela.

**1. Informazioa iristeko bi bide elkarren osagarriak**

Jatorriz arrotzak diren pertsonen arazoen berri bi bidetatik iritsi ohi zaio zuzenean Arartekoari; bi bide horiek ongi bereizi beharko lirateke:

a) Pertsona banakoek aurkeztutako kexak
b) Pertsona talde eta elkarteekiko elkarlana

**a/ Pertsona banakoen kexak**

Guri dagokigunez, esan beharra dugu, lehenik eta behin, jatorriz arrotzak diren pertsona gutxi etortzen zaigula zuzenean bere kexak aurkeztera. Oso gutxi,

hala ere, bereziki aise erasotzeko eta mintzeko egoeran daudela kontuan hartu-rik batez ere.

Gure iritzian, bi arrazoi daude, batez ere, gauzak horrela zergatik diren esplikatzen dutenak:

- egoera larrian dauden pertsona askok (ez bakarrik jatorriz atzerritarrak di-renek, beste askok ere bai) erakundeetara jotzeko dituzten zailtasunak: in-formazio eskasia, ohiturarik eza, ondorio txarrik izango ote den beldurra, konfidantza gutxi, dituzten eskubideak ezagutu ez...;
- Kexagai izan daitezkeen gaietako asko gure eskumenean ez egotea, beste erakunde batzuren eskumenean baizik (Herriaren Defendatzailearen esku-meneko diren, eta guk informazioaren bitartekari gisa baizik jokatu ezin dugun gaiei dagozkien kexak, adibidez; horrelakoetan, normala den bezala, nahiago izaten dituzte kexa horiek behar den lekuan zuzenean tramitatu).

Lehenengo oztopoak gainditu eta Arartekoarengana jotzen dutenak gure artean aspalditik dauden arrrotzak izaten dira maizenik, gure artean txertatuen daudenak, eta gizarteak babesturik sentitzen direnak.

Toxten hau idatzi aurretxoko egunetan jaso ziren azkeneko bi kexek ederki erakusten dute, adibidez, esaten ari garena. Poliziaren aldetik tratu txarrak hartu izanagatiko bi kexa dira. Elkarren ezaugarri beretsu asko dituzte biek: salatzen diren gertaerak kale-kalean gertatu ziren, oso sesio eta kalapita askoko leku ba-tean, afrikar jatorriko pertsonei gertatuak, poliziaren jokaerak desarauzkoak ez ezik ondorio larri samarrak ekar ditzaketenak dira (dirua atxekitzea, zauriak...).

Zerk bultzatu ditu pertsona horiek, beste batzuek ez bezala, beren kexak aurkeztera? Kexagaiaz gainerako beste eragile gehigarri batzuek, ziur aski:

- gertaera horien berri prentsan agertu izana, era horretara arazoa zegokien pertsonekin harremanetan jarri ahal izan baitugu, eta horrenbestez gure laguntza eskaini;
- kasu batean zein bestean, beren lekukotasuna emateko prest zeuden testi-gu “zuri” asko suertatu izana (zuri izatea susmagarri ez izatea baita printzi-pioz, askorentzat);
- kasu batean zein bestean, gertakariok zegozkien pertsonak kanpotiko la-guntza antolatu bat izana (kasu batean erakunde sindikal batena; bestean atzerritarren laguntzarako Gobernuz kanpoko Erakunde batena)...

Izatez, gainera, erakunde horien bitartekaritza guztiz erabakiorra izan da kexa gauzatu eta bere helbidera iritsi zedin. Eta honek aipatzen ari garen biga-rren ingformaziobidea aipatzera garamatza:

### b/ Elkarte antolatuen bidea

Gure autonomi erkidegoan, beste askotan bezala, berebiziko solidaritate eztanda bat eta elkarte bizitzaren sekulako hazkuntza gertatu da azkeneko urteo-

tan. Aipatzen ari garen gaiari dagokionean, jatorri berdintasunez antolatutako elkarteak eta pertsona horiei laguntzeko erakundeak, bietakoak ugaldu dira.

Arartekoaren erakundetik ahalegin guztiak egin dira beti elkartasun eta solidaritate sare horien ahalmenak indartzeko, askotan hain zuzen ere antena sozial bizkorrak izaten baitira, eta gai izaten dira bestela gure begietatik ezkutuan geratuko liratekeen hainbat bazter talderen arazoak atzeman eta agertarazteko. Horien ahalmenez baliatu bai, baina horien ekimenen lekua hartu eta beren eginkizunetan tartean nahastu gabe, ordea.

Gauza harrigarria bada ere, gurea den bezain erkidego txiki batean ere, egoera eta bilakaera desberdina izan da hiru probintzietan. Araban bazen -eta bada oraindik ere- elkarteen munduak ez ezik, hasiera-hasieratik, udal eta probintzi erakundeek ere parte hartzen duten topaleku bat. Bizkaian, berriz, elkartasunezko eta laguntzazko erakunde plataforma zabal bat aritu da lanean, baina, ahaleginak ahalegin, inoiz ez dute lortu probintzia horretako administrazioek berorietan parte har zezaten. Gipuzkoan, aldiz, halako plataforma egonkor bat ez baina, une jakin batzuetan ekimen edo kanpaina jakin zehatz batzuk bultzatzeko elkartzen diren elkarteak daudela esan beharko litzateke.

Gure ikuspegitik begiratuta, ageri-agerian daude deskribatu diren egoera horietako bakoitzak dituen alde onak eta alde txarrak. Gure erakundeak, baina, begiramendik handiena eduki nahi izan dio beti ere taide bakoitzaren autonomiari eta bere bilakaerari, eta aldi berean elkarlanerako eta koordinaziorako sistemak bultzatu nahi izan ditu horien artean. Horretarako, adibidez, probintzia bakoitzean ziren erakundeekin bilerak egin ditugu -elkarrentzako baliagarri izan zitezkeen informazioak elkarri emateraino-, eta guztientzako topaleku komun bat sor dadin bultzatu dugu, lan hauetan ari ziren elkarte gehien-gehienek sentitzen baitzuten horrelako zerbaiten premia.

Horrela, guzti-guztien elkarlanari esker, *"Atzerriko etorkinak gizarteratzeko topalekua"* errealitate bizia da gaur egun gure erkidegoan. Errealitate berri gaztea da oraindik, baina hartan dihardute gai horretan parte diren gizarte sektoreak, gobernu sailak eta administrazioak, eta gu ere parte gara horretan.

Atzerriko etorkinak gizarteratzeko topaleku horrek eta bere proposamenek eragin izandia izango dute, zalantzarik gabe, geuk, eskubideen defentsarako erakunde garen aldetik, egingo dugun lanean ere.

## 2. Zein arazo berezi jaso ahal izan dugu gure ekimenetan

Berriro diogu ez dugula pertsona talde horrek dituen arazoen osoko ikuspegi bat eman nahi lerro hauetan, guregana zinez iristen zaizkigun arazoak islatu baizik: gure begien aurrean dugun icebergaren ageriko muturra, hain zuzen.

Arazo horiek guztiak bi alorretan bildu daitezke, bataz beste:

- gaur egungo lege-arauetatik ondorioz sortzen diren arazoak, eta konponduko badira arauak eta a ntolamendua aldatu beharko liratekeenak;

- pertsona horiek gizartean eskubide osoko herritartzat ez hartzetik ondorioz etortzen diren arazoak, konponduko badira aldakuntza sozio-kultural handiak gertatuko beharko luketenak.

**a/ Arroztasunari eta asiloari dagokionez gaur egun dagoen lege-araudiak sortzen dituen arazo batzuk**

Azkeneko bi urte hauetan, gure defentsa eginkizunean, eta lehenago aipatu diren informazio bideetatik, ondoren aipatuko diren gisako arazoak ezagutu ahal izan ditugu:

- Lanerako baimena ukatzea, bai *"arauz kanpoko egoeran aurkitzen zirelako"*, bai *"arauzko egoeran aurkitzen ez zirelako"* (azkeneko hau adin txikiko pertsonengan gertatu izan da).
- Adin txikiko pertsonei dagozkien bestelako egoera bereziak: untzietako polizoien ardurarik ez hartzea portuan zeuden bitartean, babes baldintzak, pertsona hauek 18 urte betetzean herrialdetik kanpora botatzeko arriskua...
- Gure erkideagoan urte luzez kokaturik dauden errefuxiatuak, beren egoera oraindik ere lege barruan jarri ezin dutenak.
- Pertsona horien herritar eskubideak edo gizarte osoarentzako gizarte laguntzetara iristeko aukerak erabakitzerakoan bere jatorrizko herrialdearen aldetik beste horrenbesteko truke-harremana izateko irizpidea erabiltzea.
- Pertsona horiek gizarte laguntzak edo komunitate zerbitzuak irisi ahal izateko baimena emateko irizpidetan argitasun falta edo arbitrariotasuna (osasun zerbituez baliatu ahal izateko, adibidez).
- Herrialde honetatik kanpora botatzeko etengabeko mehatxuak dakarren presio eta zalantza egoeragatik beren egoera ezin arautu eta etorkizuna ezin planifikatu izatea.
- Udalerri batzuetan erroldan sartu ahal izateko arazoak.
- Bertakoturik ez egonik kartzelatik irteteko baimenak ukatzea.
- Epaitegietan defenditzeko baldintza eskasak (hizkutnza ez ezagutzea, ofizioko txanda desegokia...).
- Portu eremuetako arauak eta ontzia gure portuetan dagoen bitartean ontzietako polizoiei giza laguntza eta legezko aholkularitzarik ezin emana.
- Atospen sarearen mugak: gure autonomia erkidegotik hurbilen dauden errefuxiatuentzako atospen zentroak, adibidez, Arnedon (Errioxan) edo Gijonen (Asturiasen) daude, horrek elkartasun eta solidaritate lanerako dituen traba gehitu guztiekin.
- Pertsona hauek lan merkatura iristeko baldintza okerragoak izatea, era horretara badaezpadako egoeretara eta ezkutuko ekonomiara bultzatzen direla.
- Asilo eskubidearen aplikazioan irizpide murriztaileak erabiltzea.
- Prostituzioan diharduten emakumezko etorkinen arazo bereziak (osasun ardurari dagozkionak, abortatzeko aukerei dagozkienak...).

Aipatu diren arazo hauetako gehienak ondoren esaten diren eragile hauetakoren batetik edo gehiagotatik sortuak dira:

- Jarrita dauden legeak berak, beren aplikazio irizpide zehaztuak edo aukerako askatasunerako uzten duten tartea.
- Legeen arau bidezko garapena eta arauak aplikatzeko erabiltzen diren irizpide gutxiasko murriztaileak.
- Pertsona hauekin, era bateko edo besteko zerikusiren bat duen administrazio sarearen konplexutasuna bera.

Azken aipatu den arazo iturburu honi dagokionez, Ararteko honek gusto handiz eta pozez hartzen du Herriaren Defendatzaileak egunotan Kongresuaren eta Senatuaren Bitariko Batzordearen aurrean etorkinen inmigrazioaren arazoak koordinatu eta konpontzeko ardura izango duen aginpide bat bakarra izan behar larriaz aurkeztu duen proposamena.

Gure iritzian, pertsona horietako askok bizi duten legezko zalantza egoerak eraginak dira hemen aipatu diren arazoetako asko eta asko. Egoera horrek zerikusi estua du gaur egun indarrean dauden legeekin, lege horien arauzko garapenarekin, arau horiek aplikatzeko irizpideekin, eta horretarako eskumenak hainbat organo eta administrazioren artean banatuta egotearekin eta erakunde horiek elkarrekin ez koordinatzearekin.

**b/ Pertsona horiek gizartean eskubide osoko herritartzat ez hartzetik datozen zenbait arazo**

Askotan gertatzen da batez ere legearen balioa azpimarratzea, eta gizartearen kulturak duen pisu handia ahazteko arriskua izaten dugu. Tocqueville-k ederki esan zuen orain dela mende eta erdi: *"Garrantzi handiegia ematen zaie legeei, eta gutxitxo ohiturei"*.

Horregatik hain zuzen, gertatutako kasu batzuk aipatuko ditugu atal honetan, gure ekimenean ezagutuak hauek ere; kasu hauen arrazoia, ordea, ez da legezko arauetan bilatu behar, biztanleen artean, edo talde jakin batzuen kultura profesionalean, sakon erroturik dauden ohituretan baizik.

Hona adibide batzuk, aski esanguratsuak:

- Zenbait lekutatik dabiltzan pertsona batzuri, beren azalaren kolorearen arabera edo beren bestelako ezaugarrien arabera, dokumentazioa (sistematiko) eskatzeko ohitura.
- Pertsona horiei poliziaren edo administrazioaren egoitzetan zenbaitetan ematen zaien adeitasun gutxiko tratua (dokumentazioa kendu eta gordetzea, hitzezko mehatxuak, nortasun datuak kontrolatzea...)
- Pertsona talde horien kontrako erantzun sozial erasokorrak, bazterketazkoak edo laidozkoak.

- Etxebizitza alokatzeko azal kolorearengatik diskriminazioa egitea (alokatzaile pribatuen aldetik ez alokatzea, guk parte hartu ahal izateko aski gai zaila, alegia).
- Lan kontratuetan diskriminazioa egitea (Arabako sasoikako langileen egoeraz egin genuen diagnosia horren adibide ona izan daiteke)...

Legeak zehazki debekatzen ditu deskribatu diren jokaera horietako gehienak. Alabaina, ordea, gizartearen kulturan gutxiasko erroturik dauden jokaerak dira horiek guztiak. Gutako edonork, gure eskubideen jakitun garenez, besterik gabe, horretarako dauden legezko bide guztiak erabiliko genituzke egoera horiek eskudun diren agintarien aurrean salatzeko. Hori, ordea, ez da horren erraza atzerritar etorkin gehienentzat. Jar dezagun adibide zehatz bat.

Orain dela urtebete, mahats eta .patata biltzeko sasoiak zirela eta, Araban ziren sasoiko langileen egoeraz azterketa monografiko bat egin zuen Ararteko honek. Aztergaierako lehenengo datu bilketan lau etorkin Magreb-tar aurkitu genituen, beren lehendabiziko “kontratua” bukatu ondoren, zegokien lan ordaina kobratu gabe geratu ez ezik, lantaldeko buruak eta haren familiak eraso zituenak. Gertaera horiek egiaz hala izan zirela uste izateko adina aztarren eta seinale baziren. Horregatik, pertsona horiei beren salaketa Ertzaintzaren komisarian egiten lagunduko geniela eskaini genien, hizketan ari ginen lekutik bertatik bertara baitzegoen gainera. Prosibilitate horren aurrean ia harriturik azaldu ziren lauak, eta horrelakorik ez egiteko eman zuten arrazoia, erraza bazen, bazen sendoa: *“Salaketa horrek dirua berreskuratzen tagunduko ligukeen ez dakigu; mahats biltzen beste inork ez ligukeela lanik emango, hori bai, hori ondotxo daki-Gu”.*

Alegia, legeak legez kontrako egoerak aurrikusita eduki eta egoera horien kontra egiteko bideak eta baliabideak ematen dituenean ere, askotan gertatzen da bereziki eraso errazak edo babesgabetuak diren pertsona edo taldeek, pairatzen duten bazterkuntzagatik beragatik, ezin baliatu izatea, egiaz eta praktikan, beren eskubideez. Hori ez da inoiz ahaztu behar gure defendatzaile eginkizunean.

### 3. Zein jokabide izan du Arartekoak gai honetan

Aurreko bi ataletan ageri-agerian jarri dira alor honetan gure eginkizunak burutu ahal izateko topatzen ditugun oztopoetako batzuk:

- pertsona hauek dituzten oinarrizko arazoetako asko eta asko (beren “paperekin” zerikusia duten arazo guztiak, adibidez) gure eskumenetik kanpora dauden instantzien mende daude;
- beste arazoetako asko harreman pribatuen alorrekoak dira (lan kontratuak edo alokairu kontratuak...), eta alor horretan ere ez du esku hartu behar erakunde honek;

- arazo hauek dituzten pertsonek oso gutxitan jotzen dute, beren kabuz, gure instituzio honetara...

Aldeko elementu batzuk ere azaldu dira; besteak beste, gure autonomi erkidegoan den elkarte sarearekiko elkarlana, edo Administrazioko zenbait instantziak gai honi dagokionez duten sentiberatasuna.

Gure ingurunearen mugak eta ahalmenak kontuan harturik, bada, hona zein jokabide modutan ari garen jokatzen, labur-laburrean:

### a/ Gomendio orokor bereziez baliatzea

1993an Arartekoaren erakundeak gomendio orokor bat eman zuen “Atzerritarrek udal erroldetan izan behar zuten sarbideaz”. Gomendio hori Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zitzaion, arauzkoa den bezala; eta horrez gainera gomendio hori aplikatzeko zuzeneko zerikusia duten instituzio guztiei (gure autonomi erkidegoko udalei) eta pertsona horientzako laguntzan eta aholkularitzan ari diren elkarteei igorri zitzaien orobat.

Bai gomendioak, oro har, bai baldintza jakin batzuetan (pertsona jakinekin eta udalerri jakinetan) gomendio hori baliatu izanak, balio handia izan du gomendio horren helburua bete zedin: horrelako pertsonak udal erroldetan sartzeko bidea erraztea, horixe baita gero bestelako edozein gizarte laguntza eta zerbitzu eskuratu ahal izateko lehenengo baldintza.

### b/ Gure azterketa monografiak prestatzerakoan pertsona hauek dituzten arazo bereziak aztertu eta azpitnarratzea

Burutu diren azkeneko bi azterketa monografikoetan, adibidez (Euskal Autonomia Erkidegoko kartzeletako egoeraz eta Sasoikako langileenaz), zehazki aztertzen dira giza talde honen arazo bereziak, horretarako propio emandako ataletan. Lan horri esker pertsona hauen egoeraren diagnosi zehatz bat egin ahal izan da (defentsa gabezia, azpikontratazioa, zerbitzu edo laguntza batzuetara iritsi ahal izateko berdintasunik eza...), eta hori baino garrantzi handiagoko gauza oraindik, lan horri esker zuzenean pertsona talde hauen egoera hobetzeko gomendioak eta ofiziozko egintzak gauzatu ahal izan dira.

Bistan dago ezin dela horrelako tratamendurik eman gure txosten berezietan aztertzen diren gai guztietan, baina, gure esperientziak erakutsi digunez, gai horietako askotan eta askotan egin daiteke pertsona talde horren analisi berezitua, eta horietan guztietan jar daiteke agerian talde horien egoera berezia.

### c/ Kexak tramitatzea eta proposame-idarokizunak egitea

Gure autonomi erkidegoko administrazioko erakunde baten edo bestearen aurrean Arartekoak zuzenean esku hartzea eskatu duten banakako kexez gaine-

ra, gure esku hartzea batez ere herritarraren eta Herriaren Defendatzailearen artean bltartekari izatea izan den beste egoerak aipatu nahi ditut hemen.

Gure instituzioen artean dagoen elkarlaneko erlazioari esker behin baino gehiagotan baliatu ahal izan dugu kexak igorri beharra horiekin batera gure idarokizunak egin ahal izateko, bakoitzari dagozkion erabakiak guztiz eta erabat errespetatuz beti ere.

## d/ Liskar egoeretan bitartekaritza egitea

Gure autonomi erkidegoan bada leku bat, bereziki endekatua, etorkin arrotzen parte handi bat -egoerarik okerrenean dagoena, gehienetan-, haiek bezala bazterturik dauden beste pertsona talde batzuekin batera (ijitoak, drogazaleak edota prostitutak), biltzen duena.

Auzo horretako bizi baldintzek berek laguntzen dute, aldiro-aldiro, auzo horretan irtenbide errazik ez duten gatazka sozialak sor daitezen. Arartekoaren erakunde honi, horrelako gatazka egoeretan behin baino gehiagotan jokatu behar izan baitu bitartekari bezala, behin baino gehiagotan suertatu izan zaio, horrexegatik, giza talde baztertuenak defenditu beharra beste talde batzuen kontra, eta era horretara zinez gizarte hezkuntza lanak dei daitezkeenak egin beharra.

## e/ Elkarlaneko topalekuetan parte hartzea

Lehen ere azpimarratu da Arartekoak giire autonomi erkidegoan diren topaguneekin eta ekimenak koordinatzeko dauden mekanismoekin elkarlanean aritzeko duen asmpa. Hain zuzen ere, gizarte eragileen bizitasuna baliatu nahi baita, horretarako ordea, haien dinamika bereziak oztopatu gabe eta erakunde honen autonomia osorik gordez.

Askatasun eta elkarlan jarrera horiek mantendu, bateragarri egin eta ulertarazteak dituen nekeak gorabehera, aldi honetan izan dugun esperientziak argi eta garbi erakusten du bide hori egokia dela, eta frutu oparoak ematen dituela atzerritar etorkinei dagokien bezainbatean. Egia da, orobat, zehazkiago instituzionalzatutako topaguneak izateak (lehen aipatu den *"Atzeniko etorkinak gizarteratzeko topalekua",* esaterako), eta guk horietan parte hartzeak, etorkizunean izan ditzakegun ekimenetan ere eragina izango duela.

## f/ Sentiberatze eta formazio jarduerak bultzatzea

Lan egiteko modu honen baliatzearen adibide esanguratsuen, eta azken, bezala, "Arrazagatik diskriminaziorik ez izateko eskubidea" gaiari buruzko Jardunaldia antolatzea aipa genezake hemen. Jardunaldi hori Euskal herriko Unibertsitatearekin batean antolatu zuen Arartekoak, udako ikastaroetan; ekitaldi horren bitartez unibertsitariei atzerritar etorkinen arazoen berri jakin arazi zaie, eta zehar bidez, komunikabideen bidez, biztanle guztiei ere bai.

**g/ Bestelako gizarte eragileek bultzatutako sentiberatze kanpainei laguntzea**

Aurreko atalean erakunde honek bere kabuz antolatu izan dituen sentiberatze kanpainak aipatu dira; atal honetan hura baino askoz ere sarriago erabili den bestelako bide bat aipatu nahi da: helburu berberarekin, baina bestelako gizarte eragileek antolatutako ekimenetan parte hartzea (jendaurrean azaltzea, sostengu pertsonala, elkarlanerako idatziak...).

**h/ Administrazioaren aurrean borondate onez egindako zuzemenak**

Injustiziazko egoera bat ezagutuagatik, erakunde honek ezin izaten du betibeti bere ekimenez parte hartu. Zenbaitetan administrazioen aurrean borondate oneko zuzemenak egitea beste biderik ez da gertzen, horretarako administrazio horiengan eta herritarren aurrean izan genezakeen itzal eta entzute onaz baliatuz.

Adibide bat jartzeko, oraindik aspaldi ez dela Ceutan bizi izan zen egoera zela eta, Arartekoak dokumentaziorik gabeko pertsona haiek guztiak atotsi ahal izateko baliagarri izan zitekeen informazioa bildu, eta gure autonomia erkidegoan horretarako nolabaiteko kudeamena izan zezaketen udal guztiei zuzenean igorri zien. Udal batzuek informazio horrez baliatu, bure eskariari baiezko erantzuna eman, eta pertsona haietako batzuk aldi baterako beren udal barrutian jasotzea erabaki zuten.

***

Bistan dago eskubideen defentsarako instituziook orain arteko adibide hauetan erakutsi diren bideak baliatuz ere, ez ditugula konponduko, horrenestez, gure artean bizi diren atzerritar etorkinek dituzten arazo guztiak. Baina horixe da beren bizi baldintzak hobetzeko eman diezaiekegun laguntza: ez da asko, agian, baina egin daitekeena da. Eta laguntza horrekin batera, pertsona horiek gure gizartean txertatzeko eskuzabaltasunezko plandintza bat etengabe eskatzen jardutea. Elkartasunezko gizarte proiektu baten eskaria, hain zuzen, pertsona guztiek nork bere ahalmenekin parte hartu ahal izan dezaten, eta guztiek eskubide eta betebehar berdinez beren herritar izatea gauzatu ahal izan dezaten."

2.3.1.3. **Bazterkuntza Estatu sozial batean**

Bilera honetan Juan Bautista Montserrat, Aragoiko Justicia jauna izan zen mahaiburu-moderatzaile, eta hizlaria Antón Canellas i Balcells, Kataluniako Sindic de Greuges jauna.

Arartekoaren erakundeak "Euskal Autonomi Erkidegoan bazterkuntzaren kontra izan diren legegintza ekimenen aurkezpen" bat egin zuen; aurkezpen horretan

ondoko testu hauek banatu zitzaizkien bertan ziren guztiei, une horretan aztertzen ari zen gairako zalantzarik gabe interes bizikoak zirelako:

1- Maiatzaren 3ko 20/90 Legea, Gizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera arautzekoa.
2- Urriaren 18ko 5/96 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
3- Bazterkuntza Sozialaren kontrako Lege Proiektua.
4- Gizarte eskubideen karta baterako herritarren legegintza ekimena.

Ondoko lerro hauetan Arartekoaren erakundeak arau testu horiez egin zuen aurkezpena jasotzen da:

"Jardunaldiotako 3. txostenaren gai nagusirako -bazterkuntza soziala- egiten dugun ekarpen hau ez da beosten formal bat, berez, Euskal Autonomi Erkidegoan pobreziaren eta bazterkuntza sozialaren kontrako borrokan, erkidego honen eskumenetarako, zalantzarik gabe berebiziko garrantzia duten legezko hiru testuren aurkepena besterik ez baita izango ia-ia.

Iazko Jardunaldietan "Pobrezia eta Elkartasuna" izenburupean aurkeztu nuen txostenaren jarraipen moduko bat, eta osagarria, izan nahi luke, gainera. Iazko txosten hartan, 2. atalaren ("Gizarte politiken azterketa") zati handi bat gure autonomi erkidegoan azkeneko urte hauetan gizarte bazterkuntzaren kontrako borrokan abian jarri diren tresnetako batzuk aztertzeko eman nuen, hain zuzen: Pobreziaren Kontrako Borrokarako Plan Integrala (1989koa), Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera (1990ean legez onartua), gizarte larrialdietarako laguntzak, edo gizarteratzeko sektoreen araberako programak. Txosten hartan analisi bat egin nuen, orobat, ea zein ziren egiaz programa batzuk ala besteak eskuratzen zituzten giza taldeak, eta ea programa horiek probrezia larrienetako egoeretan halako azken segurtasunezko baliabide bezala, eta aurrikuspen sozialerako edo gizarteratzeko mekanismo bezala zenbateko balioa zuten jakin nahiz.

Harrezkero joan den urte honetan Eusko Legebiltzarrak Gizarte Zerbitzuetako beste lege bat onartu du, eta bazterkuntza sozialaren kontrako lege proiektu berria onartzeko izapide urratsak egiten hasi da.

Iazko gure jardunaldiotan, beste ondorio batzuren artean "gizarte politikan ardurak dauzkaten administrazio eta agenteen arteko koordinazioa bultzatzea" edota "pobreziaren kontra burrukatzeko eta gizarte-kanporaketari aurre egiteko neurri zehatzei garrantzia ematea" onartu genuen.

Hemen aurkezten diren lege testuok gure erabaki haien argitara azter daitezkeen erakusgarriak dira. Dokumentu hauek dira, zehazki:

1. Maiatzaren 3ko 2/1990 Legea, Gizarteratzeko Gutxieneko Dirusarrera arautu zuena, bere garaian zenbait instantziatatik kritikatu egin zen aurrekaria, baina geroztik, bere oinarrizko gaietan behintzat, beste hainbat administraziok jarraitu dutena.

2. Urriaren 18ko 5/1996 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, gizarteratzea bultzatzeko eta bazterkuntza eragozteko oinarri-oinarrizko lanabesa, hain zuzen.
3. Bazterkuntza sozialaren kontrako Lege Proiektua, Eusko Legebiltzarrean dagoeneko izapide urratsak egiten hasia, eta 1990eko aipatu den legeak zituen mugetako batzuk kendu eta gainditu nahi dituena.

Ez dugu hemen testu horien egokitasunaren edo ontasunaren azterketarik egin nahi, ez testu horien oinarrizko alderdienik ere, bere eskumeneko eremuan gertatzen diren premia egoeren eta egoera horiei instituzioen aldetik ematen zaizkien erantzunen arabera egin ahal izango baitu bakoitzak analisf hori.

Baina, bazterkuntza sozialari aurre egiteko neurriak zinez eraginkorrak izan daitezen gure ahaleginak bateratzeko eta zentratzeko hartu dugun konpromezuaren ikuspegitik bai, nahi nituzke gogoeta batzuk egin, niretzako kezkagarri gertatzen zaizkidanak, arras baldintzatzen baitute legean aurrikusten eta xedatzen diren programak eta tresnak bereziki erasoerraz diren zenbait pertsona talde edo banakorenganaino iritsiko diren ala ez.

Azter dezagun, adibidez, dirulaguntza emateko tresna horietako bat, gizarteratzeko gutxieneko dirusarrerari dagokiona, alegia. Bistan da zenbait pertsonak edo familiak era horretako laguntzak eskuratu ahal izateko, baldintza materialak direla batetik (programa horretarako izendatzen diren baliabide ekonomikoen munta), baldintza pertsonalak bestetik (gizarte zebitzuek era horretako premia larrizko egoerak hautemateko eta kudeatzeko zenbaterainoko ahalmena duten), eta bestelako baldintza gutxiasko formalak (laguntza horiek eskuratzeko eskubidea izateko bete behar diren baldintzak, adibidez).

Horrexegatik, hain zuzen, eraginkortasuna nahi bada -legeak aitortzen duen eskubide bat egiaz gauzatu ahal izateko aukerak izan daitezen, alegia-, baldintza horiei begiratu behar zaie.

Ikuspegi horretatik, bada, aski gauza kezkagarria da ikustea nola bazterkuntza sozialaren kontrako borroka programetan joera nabaria dagoen programa horiek eskuratu ahal izateko baldintzak gogortzeko, zeren, jarrera horren ondorioz, premian dauden laguntza horien hartzaile izateko eskubiderik gabe uzten baitira zenbait gizatalde.

Eman dezagun adibide zehatz bat. Gure legeen arabera laguntza programa baten hartzaile izateko gure autonomi erkidegoko udalen batean gutxienez hamar urtez egon behar baldin bada erroldaturik, bistan da gizatalde handiak (atzerritar etorkinak batez ere) geratzen direla automatiko laguntza horietatik kanpo, beren premiazko egoerak instituzioen aldetik laguntza izateko behar diren baldintza guztiak betetzen baditu ere. Baldintzak estutzeko joera horrek beste autonomia erkidego batzuetako egoeraren konparazioan bilatu nahi izaten ditu askotan arrazoiak: Baldintzak estutu beharra dago -esaten dute-, bestela beste leku batzuetan diren pobreak gure udalerrietara edo gure eskualdeetara etorriko bailirateke, laguntza horien bila... Administrazio desberdinen artean koordinazio hobea balitz, bistan da beldur horiek aise uxatuko liratekeela.

Programa baterako izendatzen diren baliabide ekonomikoez gainera (programari aurrekontuetan dagokion partida), programa horretarako izendatzen den langile kopuruak ere arras baldintzatzen du programaren helburuak bete ahal izatea. Ikuspegi horretatik, hain zuzen, baditut kezkak, eta azaldu nahi ditut, ea gaur egun oinarrizko laguntza zerbitzuak, egiaz dituzten ahalbideekin, gauza diren ala ez, agindu zaizkien egiteko guztiak zinez eta benaz betetzeko.

Gurean, hainbat txosten monografiko egin dira azkeneko usteotan, laguntza zerbitzu berezituei buruz. Bada, txosten horietan guztietan, azterketa gaia aldiko zerbitzu berezi jakin bat bazen ere, egin diren lan guztietan beti agertu dira argi eta garbi gaur egun oinarrizko gizarte zerbitzuek dituzten hutsuneak edo mugak. Zerbitzu horien sorreran, beren antolamenduan, beste zerbitzu batzuekiko koordinazio mekanismoetan... asko aurreratzen ez bada, nekez bete ahal izango dituzte, ziur aski, gaur duten egoeran, legeak agintzen dizkien eginkizunak.

Beude, beraz, lerro hauek, ondoren aurkezten diren hiru lege testuen aurkezpen gisa."

### 2.3.1.4. **Ingurugiroa: hondakinak eta zabortegiak**

Bilera honetan Arturo Lizón, Valentziako Erkidegoko Sindic de Greuges jaunaren lehendakaritzapean mahainguru bat egin zen, parte hartzaile Galiziako Valedor do Pobo, Andaluziako Herriaren Defendatzailea eta Aragoiko Justicia zirela.

### 2.3.1.5. **Herriaren Defendatzaileen XII. Jardunaldietako Ondorioak**

Jardunaldietako azkeneko ekitaldian, eta Fernando Álvarez de Miranda Torres, Herriaren Defendatzaile jaunak koordinaturik eta moderaturik, jardunaldi hauetan ateratako ondorioak irakurri eta onartu ziren; ondoko orrietan jasotzen dira ondorio horiek:

## "HERRIAREN DEFENDATZAILEEN ESKUARTZEA AUZIEN OHIKO KONPONBIDEETAN" TXOSTENAREN ONDORIOAK

Herriaren defendatzaileek jarduera, Kostituzioak aitortzen dituen eskubideen eta askatasunen defentsarako bere oinarri-oinarrizko eginkizunean, geroz eta askotarikoago eta geroz eta konplexuago ari da bilakatzen, herritarrek haiengana hel arazten dituzten gaien eta erreklamazioen ugaritasunagatik beragatik.

Arazoen askotarikotasun horrek berorrek eraginik, era askotako erantzunak eman behar dira, eman ere, arazo bakoitzean parte hartzen duten administrazioen eta auziari eman nahi zaion irtenbide etdo soluzioaren arabera.

Herritarren kexak izapideak bideratzeko erabili behar diren bideak arautzen dituzten arauek ere malgutasun handia ematen dute horretarako, eta ez dute inolako estilo zurrunik beren prozeduretan.

Herriaren defendatzaileen erakunde hauek, beraz, herritarren eta aginpide publikoen aurrean beren eginkizunen alorrean aurkezten eta iristarazten zaizkien eskubideei zinezko eraginkortasunez eta azkartasunez erantzuteko duten erronkarren jakitun direnez, ohartarazi nahi dute ezen:

1. beren araudiak uzten dizkieten formula guztiak behar direla baliatu administrazioen eta herritarren artean pizten diren auziei irtenbideak emateko.
2. bitartekaritza formulak ongi egokitzen direla erakunde hauten jarduera moduan, eta auzian alderdi direnen jarrerak elkarrengana hurbiltzeko eta irtenbideak bilatzeko baliagarri eta lagungarri izaten direla, administrazioak aukerako erabakimena duen alorretan batez ere.
3. bitartekaritza jardunbide hori indartzeko eta bitartekaritza horren norainokoa eta edukia zehatz bermatu ahal izateko, horretarako, behar litzatekeen bezala, gaitasuna ematen duten arauak edukitzea komeniko litzatekeela, hala behar izanez gero herriaren defendatzailearen irudia arautzen duten legeak egokituz.

## MIGRAZIO FENOMENOARI DAGOKIONEZ IZANDAKO ESKU HARTZEEI BURUZKO ONDORIOAK

Herriaren defendatzaileek aho batez eta adostasun osoz azpimarratzen dute eskubideen eta askatasunen defentsan duten eginkizunean geroz eta eragin handiagoa dutela migrazio fenomenoek.

Herriaren defendatzaileek gogora ekarri nahi dute pertsonen joan-etorriak eta leku aldaketak gizakiaren historiaren berezko gertaerak direla. Bizimodua bilatu beharrak, segurtasunaren bilaketak eta osasunarenak esplikatu izan dituzte mendeetan zehar giza taldeen joan-etorri eta leku aldaketak; mugimendu horiei dagokienez, Espainiako lurraldea berezko muga du Europako eremuak migrazio horien jatorriaren aurrean.

Egoera hori, ordea, beharko litzatekeen bezala, etorkinen eskubideen babes eta berme izan beharraren ikuspegian baino gehiago mugatze eta kontrol irizpideetan oinarritzen den arau sistema batean oinarrituz ari da tratatzen. Herriaren defendatzaileek kezkaturik ikusten dute, alde horretatik, politika horien aplikazioak pertsona talde horien geroz eta bazterkuntza handiagoa eragiten duela, pertsona horien egoera arauzkotzeko eta gizartea txertatu ahal izateko jartzen zaizkien oztopo gehiegizkoen ondorioz.

Horregatik guztiagatik, bada, herriaren defendatzaileek:

1. Gizartearen arreta piztu nahi dute, migrazioaren fenomenoa, hainbeste alderdi dituena, ikuspegi negatibo eta liskarrezko batez aurkeztu ezin delako; oso bestela baizik, etorkinak izateak elkarbizitza demokratiko ororen oinarri diren aniztasunaz eta pluraltasunaz aberasten baitu gizartea.
2. Etorkinen jatorriko lurraldeei dagokienez garapen iraun arazgarrizko eta elkar laguntzazko politikak bidera ditzatela eskatzen diete agintari politikoei, era horretara herrialde horien aurreramendua eta nazioarteko ordena zuzenagoa eta solidaritatezkoagoa bultza dezaten.
3. Gaur egun arrotzen egoerari eta asiloari buruz dauden arauek dituzten akatsak gaindituko dituen inmigrazio lege berri bat egin beharko litzatekeela uste dute.
4. Berriro azpimarratu nahi dute ahalbait lasterren jarri beharko litzatekeela inmigrazio arazoak koordinatu eta bideratuko dituen aginpide bateratu bat.

**"BAZTERKUNTZA ESTATU SOZIAL BATEAN" TXOSTENAREN ONDORIOAK**

Herriaren defendazaileek aho batez azpimarratzen dute geroz eta erreklamazio gehiago ari zaizkiela iristen gizarte laguntzarako sistemetan beren oinarrizko premiak betetzeko biderik aurkitzen ez eta, erakunde hauen laguntza eta babes eske datozkienen aldetik.

Erreklamazio horiei erantzutean akats handiak topatzen dituzte herriaren defendatzaileek gizarte zerbitzuen funtzionamenduan, haiek eskain dezaketen babes mailan eta, azkenik, gizarte sektore baztertu horren premiak betetzeko eraginkotasun mailan.

Egoera horren aurrean, herriaren defendatzaileek:

1. Iritzia dute ezen Zuzenbidezko Estatu Sozial bateko agintariek lehentasun handiko erantzukizun bezala planteatu behar dutela bazterturik dauden herritarren ardura hartzea, kontuan harturik, batez ere, bizi duten bazterkuntza egoerak berak ez diela uzten Konstituzioak aitortzen dizkien eskubideak eskatzen.
2. Diskriminazio positiboa eskatzen dute baztertuon alde, Konstituzioak aitortzen duen herritar guztien berdintasun printzipioaren interpretazio doiak hala agintzen baitu.
3. Komenigarri derizkiote halaber, gizarte zerbitzuen sistema publikoa antolatzeko, legegileak defini dezan oinarrizko zein zerbitzu duten herritar guztiek jasotzeko eskubidea.

Herriaren defendatzaileek gogora arazi nahi dute ezen erantzukizun hori errealitatea sakonetik ulerturik hartu behar dutela agintari publikoek, eta gizarte justiziazkoago eta elkartasunezkoago batera eramango duen bideari arduraz ekin.

**"INGURUGIROA: HONDAKINAK ETA ZABORTEGIAK" MAHAINGURUAREN ONDORIOAK**

Herriaren defendatzaileek, oharturik ezen hirietako eta industriako zaborrak eta berorien sorkuntza, pilatzea eta tratamendua direla gaur egun ingurugiroaren arazorik larrienetakoak, premiazkotzat jotzen dute:

1. Zaborraren tratamenduari buruz zabal dadila eztabaida zabal zehatz bat gizartearen, ingurugiroaren eta eskualdearen ikuspegitik.
2. Ingurugiro hezkuntza bultza dadila eta har daitezela neurriak gizartea gehiegizko kontsumoaz eta zabor sorkuntzan duen erantzukizunaz jabetu eta gai horiez sentiberatzeko.
3. Udalak horni daitezela ingurugiro gaietan dagozkien eskumeneko ahalmenak betetzeko behar dituzten teknika eta finantza baliabideez, eta bultza dadila administrazio desberdinen artean elkarlana, beren eginkizunak betetzeko.
4. Europako Komunitatean zaborraren kudeaketa ekologiko arrazionala arautzeko jarrita dagoen araudia gara dadila, eta aplika dadila orobat, era horretara, ahalik eta lasterren, ingurugiroari eta osasun publikori kalte egin diezaioketen egintzak eragotziko dituen osoko jestio bat bideratu ahal izateko.

**2.3 2. HERRIAREN DEFENDATZAILE, MANDATARIETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO BATZORDE PUBLIKOETAKO PRESIDENTEEN IBEROAMERIKAKO FEDERAZIOAREN BIGARREN KONGRESUA**

1997ko apirilaren 14tik 16ra bitartean Toledon Iberoamerikako Herriaren Defendatzaileen Federazioaren Bigarren Kongresua burutu zen. Jardunaldi horiek arreta berezia merezi dute bertan gauzatutako topaketek iberoamerikako herrialdeetan Ombudsman-en erakundea ezartzeko aukera eskaintzen baitute.

Jardunaldi horiei esker, TOLEDOKO ITUNA izenburupean, jarraian aurkezten den agiri hau sortu zen:

*"Herriaren Defendatzaile, Prokuradore, Probedore, Mandatari eta Giza eskubideen aldeko Batzorde Publikoetako Presidenteen Iberoamerikako Federazioak (FIO), 1997ko apirilaren 14tik 16ra bitartean Toledon (Espainia)II. Kongresua burutu zuen. Bertan aurkeztutako gaiak jorratzean*

*izandako saio eta eztabaiden ondorioz, Federazioak honako ITUN hau ezagutzera ematea erabaki du:*

**Lehenengoa.** *Iberoamerikako Ombudsman-ak kezkatuta daude aberastasunaren bidegabeko banaketak eta kanpo zorra ordaindu beharrak izugarrizko kalteak eragiten baitizkio gizartearen barne zorrari. Hori dela-eta, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen alde jokatzeko prest agertu dira, horiek bermatzearren. Berez, eskubide horiek herrialde bakoitzean eskubide politikoak eta zibilak eskuratzeko eta garatzeko bidea eskaintzen dute gizarteratzea ahalbidetuz.*

**Bigarrena.** *Ombudsman-ek, bakoitzak bere erakunde propioan, ahal duen neurrian, emakumeen eskubideen aldeko atal edo sail berezia sortzeko erabakia hartu dute, Giza Eskubideen defentsa eta babesaren alde jotzen duten ikuspegi, metodo eta programa zehatzen garapena sustatuz, bai bakoitzaren lantokian bai Administrazioaren ekintzen ikuskatzaile gisa aritzean.*

**Hirugarrena.** *Iberoamerikako Ombudsman-en funtziorik garrantzitsuena indiar herrien eskubideak defendatzea dela berretsi egin dute, euren nortasunari helduz eta bokean bizitzeko duten eskubidea errespetatuz, inolako inposaketarik gabe, inolako diskriminaziorik ga.be, zapalkuntza eta esplotazio ekonomikorik gabe.*

**Laugarrena.** *Agintari publikoek Giza Eskubideen nazioarteko legeria onartu eta errespeta dezaten saiatuko direla agintzen dute, kontuan izanik Ombudsman-ek burututako ekimen guztiek ere aintzat hartu behar dutela nazioarteko legeriak dioena, batez ere, herrialde horretako legeriak bere gain hartzen ez dituen arloei dagokienez.*

**Bostgarrena.** *Ombudsman-en ustez, kontuan izanik benetako babes judiziala izateko eskubidea funtsezkoa dela, Ombudsman guztiek zerbitzu publiko judizialaren disfuntzioak aztertzeko aukera eta ahalmena eduki beharko lukete, bitartekari eta limurtzaile gisa, prozesuak atzerapenik gabe gauzatu eta egokiak gertatzen diren legeak behar diren bezala bete daitezen.*

**Seigarrena.** *Herrialde batetik bestera doazen pertsonekiko portaera eta arau diskriminatzaile eta xenofobo guztiak gaitzesten dituzte, bai pertsona horiek hartzen dituzten herialdeen kasuan baita herrialde horretatik igarotzen diren kasuan ere.*

**Zazpiaarrena** *Hurrengo kongresu eta bileretan garatu beharreko programetan adin txikikoen zainketa, babesa eta laguntzarekin lotutako gaiak sartzeko konpromisoa agertzen dute, batez ere egoera larria bizi*

*duten adin txikikoen kasuan. Era berean, hirugarren adineko pertsonek euren bizitzako alderdi ezberdinetan izan ditzaketen arazoak ere aintzat hartuko dira.*

**Zortzigarrena.** *Erabateko gaitzespena adierazi nahi dute funtsezko eskubideen urratzea dela-eta. Gainera, bat egiten dute bahituta daudenekin eta euren askatasuna bidegabez galdu duten pertsonekin, egun Peruko Japoniako Enbaxadan bahituta daudenekin eta Espainian ditugun beste bi biktimekin gertatzen den bezala.*

**Bederatzigarrena.** *Oraindik Ombudsman-ik ez daukaten Iberoamerikako Estatuei lehenbailehen erakunde hori sor dezaten eskatzeko konpromisoa berretsi egiten dute. Era berean, jadanik erakundea antolatu dutenei benetan eraginkorra egin dezatela eskatzen diete. Azkenik, Meridako (Venezuela) Arartekoaren esfortzuekin bat datoz honen erakundeak ez baitauka segurtasun juridikorik.*

**Hamargarrena.** *Iberoamerikako Konferentzia osatzen duten Gobernu eta Estatu Buruei dei egiten diete, Margarita Irlan (Venezuela)* burutu *beharreko hurrengo Biltzarrean, berriro ere Ararteko, Prokuradore, Probedore, Mandatari eta Giza Eskubideen aldeko Batzorde Publikoetako Presidenteen alde jo dezaten, eta Iberoamerika osoan erakunde horien sorrera bultza dezaten".*

### 2.3.3. EUROPAKO BATASUNEKO OMBUDSMAN-EN ETA LURRALDE ESKAERETARAKO BATZORDEEN BILTZARRA ETA EUROPAKO ARARTEKOAREKIN KOOPERAZIOA

1997ko urriaren 29an eta 30ean Bartzelonan Europako Batasuneko Lurraldeetako Herriaren Defendatzaileen Lehen Biltzarra burutu zen. Biltzarra Catalunyako Sindic de Greuges delakoak antolatu zuen Europako Heriaren Defendatzailearekin batera.

Europako Herriaren Defendatzailea, Jacob Soderman, gai honi buruz aritu zen: "Erkidegoko legeria kontrolatzen duten hainbat erakunden artean, lurraldeetako herrien defendatzaileen eta Europako erakundeen arteko kooperazioaren helburuak eta zioak". Beste txosten guztiek europar gizarte berriak dituen ezaugarri interesgarriei buruz hitz egin zuten:

"Europar Legebiltzarraren aurrean eskaerak aurkezteko eskubidea".

"Lurralde eta autonomietako administrazioak eta garapen ekonomikoa, heziketa eta prozesu integraztaileei dagokien laguntza ekonomikoa ahalbidetzen duten Europako Batasunaren programak, eta hiritarren eskubideak".

"Erkidegoaren egungo legeria, hastapenak eta praktikak"

"Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren lege berriak"

### 2.3.4. GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ETA SUSTATZEKO ERAKUNDE NAZIONALEN IV. TAILERRA

Azaroako 27tik 29ra bitartean, Meridan (Mexiko) Giza Eskubideak Babesteko eta Sustatzeko Erakunde Nazionalen IV. Tailerra burutu zen. Gure Ararte-koari ere gonbidapena luzatu zioten bertan izan zedin.

Topaketa horietan **Meridako Ituna** izena duen dokumentua hitzartu zuten. Hona hemen agiri horren edukia:

*"Mexikoko Giza Eskubideen aldeko Batzorde Nazionalak antolatutako Nazioarteko IV. Tailerrean Giza Eskubideak babesteko eta sustatzeko Erakunde Nazionalen ordezkariek berretsi egin zuten gizaki guztion duintasuna eta eskubide berdinak eta besterenezinak onartzea ezinbestekoa dela mundu honetan askatasuna, justizia eta bakea gauzatzeko, 1948 Deklarazio Unibertsalaren arabera.*

*Erakunde Nazionalek diotenez, herrien historian zehar, Giza Eskubideak gutxiesteak edo aintzat ez hartzeak gizakion kontzientzia kolpatzen duten basakeri anker ugari ekarri du; hori dela-eta, erakunde horiek diotenez, gizakion amets gorena mundu berri baten etorrera litzateke bertan gizaki orok, beldurra eta lazeria gaindituz, askatasun politiko, zibil, ekonomiko eta kulturalez gozatzeko aukera izango duelarik.*

*Azpigarapena giza eskubideen benetako eta erabateko probetxua erdiesteko oztopoa deh aitortzen dute. Era berean, gizartearen maila beherenetan bizi diren pertsonak, berez inolako laguntzarik jasotzen ez dutenak, batez ere emakumeak, haurrak eta antzeko beste taldeak, arreta berezia merezia dute euren giza garapena ahalbidetzeko aukera izan dezaten giro osasuntsu eta orekatuan.*

*Bereziki azpimarratu zuten behin eta berriro gertatzen den Giza Eskubideen urratzea, hainbat ziok eraginda, besteak beste, erlijioa, sinesmena, iritzia, generoa edo gizarte maila. Giza Eskubideen urratzea onartezina da, eta gizakion adimena eta naturaren aurkako erasoa da, gizakiaren.oinarri sendoenak ere arriskuan jartzen baititu, hau da, askatasuna, justizia eta mundu osoko bakea.*

*Jendearen arreta erakarri nahi dute herri autoktonoek bizi duten egoera salatuz, giza talde horiei erasotzea nahikoa erraza baita. Era berean, herri horien giza eskubideak errespetatuak izan daitezen Erakunde Nazionalek eta Nazio Batuek egun burutzen ari diren ekimenekin bat egiteko eskatzen dute.*

*Erakunde Nazionalek dei egiten diete estatu guztiei mihoika pertsona hartzen duten migrazio mugimenduen garrantzia, eragina eta zioa aintzat har dezaten, eta zera eskatzen diete, gizartean migrazioak sor ditzakeen arazoak konpontzeko Nazio Batuen eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen hainbat organok burututako lanekin bat egin dezatela, migrazioen ondorioz etorritako langileei eta horien senideei laguntza eskaintzearren, hartzen dituzten herrialdeentzako langile horiek ekar-*

*pen positiboa baitakarte. Erakunde Nazionalek uste osoa daukate migratzaileen eta horien senideen eskubideen nazioarteko babesa erdiestea guztiz garrantzizkoa dela, horretarako euren funtsezko eskubideak babestuko dituzten gutxienezko arauak finkatu beharko liratekeelarik. Parte hartzaileek prest agertu ziren giza eskubideen babesa eta hedapenaren aldeko ekimenak gauzatzean herrialde bakoitzeko Giza Eskubideetarako Erakunde Publikoen helburu berdinak dituzten Gobernuz Kanpoko Erakundeekin elkarlanean aritzeko, azken horiek ere euren lanaren bitartez funtsezko laguntza eskaintzen baitute.*

*Erakunde Nazionalek ezinbestekotzat jotzen dute, Nazio Batuen bitartez eta GKEen eta Estatuen arteko etengabeko harremanei esker, giza eskubideen defendatzaileen babesari buruz deklarazio bat gauzatzea, askotan horien bizitzak eta askatasuna arriskuan baitaude.*

*Estatuei zera eskatu nahi diete, Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Baliabideak onesteko, Vienako Munduko Biltzarraren helburuekin bat eginez, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 50. Urteurren ospatzean euren konpromisoak benetan unibertsalak gerta daitezen.*

*Erakunde Nazionalak lanari ekiteko prest agertu ziren Nazio Batuen Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 50. Urteurrena ospatzean burututako ekintza ezberdinen bitartez agiri horretan azaltzen diren hastapenak benetan bete daitezen.*

*Erakunde Nazionalek poztasun osoz hartu zuten Mary Robinson andereari egokitutako izendapena, bera baita Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatari berria. Era berean, poztu egin ziren mandatari berriak erakunde nazionalek giza eskubideak babestu eta zabaltzerakoan duten garrantziaz jabetzeko konpromisoa agertu zuelako.*

*Erakunde Nazionalek euren nahia azaldu zuten Giza Eskubideetarako Nazio Batuen Goi Mandatariak lanean jarrai dezan eta Pariseko printzipoekin bat etorriz, Erakunde Nazionalen indartzea eta sorrerari lehentasuna eman diezaion. Aldi berean, Nazio Batuen Idazkari Nagusiari zera eskatzen diote, Goi Mandatari horrek lehentasun osoa duen ekimen horretarako beharrezkoak gertatzen diren giza eta finantza baliabideak izan ditzala. Bestalde, Erakunde Nazional bakoitzak dei egiten dio bere herrialdeko gobernuari Genevako Zentroak dituen baliabideak areagotzeko borondatez fondoak eskain ditzan.*

*Erakunde Nazionalek euren poztasuna agertu zuten lurralde taldeek izan duten garapena dela-eta. Berez, talde horiek oso tresna egokia dira Erakunde Nazionalak munduan zehar zabaltzeko. Horrela, Pariseko Printzipioekin bat etorriz, erakundeak indartzea eta sortzea helburu duten ekimenei eutsi nahi diete.*

*Erakunde Nazionalek bereziki pozten dira berriri eskualdekako taldeak antolatu izanarekin, laguntza handia baitira Erakunde Nazionalak munduan zehar zabal daitezen, eta orobat nahi lukete iniziatiba hori, eta Parisko Printzipioekin ados datozen instituzioak sortu eta indartzeko bestelako iniziatiba eta ekimenak indartu daitezen."*

### 2.3.5. “HIRITARRENGANDIK GERTUEN DAUDEN ESKUBIDEEN BABESA: OMBUDSMAN-AK LURRALDE ETA HERRIETAN” GAIA-RI BURUZKO EUROPAKO KONTSEILUKO TOKIKO ETA LURRALDEKO AGINTARIEN KONGRESUAK ANTOLATUTAKO KONGRESUA

Arartekoak 1997ko azaroaren 13tik 15era bitartean Messinan (Italia) buaitzen den “hiritarrengandik gertuen dauden eskubideen babesa: ombudsman-ak lurralde eta herrietan” gaiari buaizko europako kontseiluko tokiko eta lurraldeko agintarien kongresuak antolatutako kongresuan parte hartzen du.

Kongresu horretan ere honako gai hauek jorratzen dira: “Arartekoa eta hiritarrak babesteko burutzen dituen ekintzak”, “Arartekoaren ekintzak lurralde mailan” eta “Arartekoaren ekintzak herri mailan”.

# III. ATALA
# ARARTEKOAREN JARDUERA ESANGURATSUENEN HAUTAKETA ARLOKA SAILKATUTA

## 3.1 ARARTEKOAREN JARDUERA ESANGURATSUENEN HAUTAKETA ARLOKA SAILKATUTA

Legez Arartekoaren esku utzitako eginkizunen artean dago hiritarrek azaldutako erreklamazioei irtenbidea aurkitzea, baita ofiziozko eskuhartzea ere, administrazioaren jardueran antza funtsezko eskubide baten urratzea edo legea betetzen ez duena antzematen badu.

Ofiziozko jasotako ia 2.000 erreklamazio eta 78 jarduerek era askotariko arazoak azaltzen dituzte, horregatik oso interesgarritzat jotzen da atal honetan aipagarrienen hautaketa baten berri ematea; hauek, Ararteko instituzioaren jarduera egituratzen den alor desberdinetan multzokaturik.

Ararteko bulegora heldutako gaien era askotako kasuistika islatu nahi da atal honetan, eta hauek hiritar euskaldunengan eragiten dituzten kezkak, arazo helegileenen errepikapena saihestuz.

Metodozko aspektu hutsean, aurreko urteko informeari dagokionez bi berrikuntza txiki sartu dira. Hautatutako espedienteak sail bakoitzean antolatzen dira, sailordetan multzokatuta, espedientearen nondik norakoari kasurik egin gabe, ofiziozkoa ala alderdi batek eskaturik, erreklamazio bidez, ofiziozko espedienteen laburpenek daramaten «O» erreferentzia bereizketaren kalterik gabe.

III. kapitulu honen irakurketa errazten duen bigarren berrikuntza bat ere egiten da. Hautatutako espediente bakoitzaren laburpena hiru zatitan egituratzen da: erreklamazioa, azterketa eta ondorioa.

Bere izenak adierazten duen bezala, erreklamazio atalean eragindako arazoa islatzen duen benetako kontaketa sartzen da.

Azterketaren atalean era guztitako jarduerak jasoarazten dira, espedientearen azterketa eta ebazpenera gidatutako bai zuzenbide azterketan bai ikerketan.

Azkenik, ondorio atalean zehazten da argi eta garbi zein izan den Arartekoaren eskuhartzearen azken ondorioa.

## 3.2.NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

### 3.2.1. SARRERA

Lehenengo, bigarren eta hirugarren sektoreekin, hau da, *nekazaritza-abeltzaintza, industria* eta *zerbitzuak* sektoreekin zerikusirik duten kexak aztertuko dira alor honetan: 15 kexa espediente guztira, hau da, erakunde honen aurrrean aurkeztu diren kexen %0,98.

Kexak eragindako administrazioak kontuan hartuz, banaketa honela gelditzen da:

| | |
|---|---|
| - Eusko Jaurlaritza | 10 |
| - Diputazioak | 3 |
| - Udalak | 5 |

Edukiaren arabera, honela bana daitezke kexak:

| | |
|---|---|
| - Merkataritza | 8 |
| - Nekazaritza | 2 |
| - Bestelakoak | 2 |
| - Turismoa | 2 |
| - Industria | 1 |

Lehenengo sektorean egin diren administrazio ekintzei buruzko kexen artean, aipagarria da behitegi bateko jabearena, zeinak, esku hartzea eskatu baitzion Arartekoari, Bizkaiko Diputazioa abereen artean bruzelosia antzemateko egiten ari den kontrolen azterketa bidera zezan. Egiaztatu dugunez, foru diputazio horrek zenbait osasun kanpainak bultzatu ditu -Europako Batasuna, Espainiako Gobernua eta Eusko Jaurlaritzaren (84/12/17ko agindua) arautegiak beteaz- tuberkulosia eta bruzelosiari (1981. urteaz gero) eta perineumonia eta leukosiari (1988. urteaz gero) aurrea hartzeko. Lehenbizi animalien analisia egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko laboratorio ofizialetan; gero, analisian positibo ematen dutenak lehenbailehen hiltzen dira, eta dagokien dirulaguntza ematen zaie kanpainaren arau guztiak bete dituzten ganaduzale guztiei.

Industria sektoreari dagokionez, tentsio apaleko instalatzaile-argiketariaren agiri profesionala lortzeko Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak baimendutako enpresa instalatzaile baten barruan izan beharra salatu du herritar batek erakunde honen aurrean. Eusko Jaurlaritzaren eskakizun hori maiatzaren 17ko 175/ 1994 Dekretuan -instalatzearekin, mantentzearekin eta industria segurtasunarekin zerikusia duten beste zeregin batzuetarako agiri profesionalak lortzeko prozedura bateratua arautzekoan- iragartzen da. Lege horren arabera Gizarte Segurantzan izena emanda egon beharra dago instalatzaile profesionalaren agiria lortzeko. Jarduraren izateko arrazoiari berari dagokio eskakizuna, agiri profesional

hori jarduera profesional jakin bat egiteko baita, eta, beraz, lanbide hori duen taldearentzat baizik ez da beharrezkoa.

Berrindustrializatzeko politikari dagokionez, Muskizko herriko industrialde bateko PYMES batzuek Arartekoari galdetu zioten ea ez ote zen bereizkeria, industrialdean bertan sail batzuk moduzago saltzea enpresa horiei berei aurreko urtean baino. Arartekoaren iritziz, baina, aginpide publikoak eskua du inori lehentasuna emateko hala egitea egoki iruditzen zaionean.

Bestalde, aurreko urteetako arazo bera antzeman du erakunde honek zerbitzuen sektorean. 1994ko Txostenean iradokitzen den bezala, gogorarazten da, Udalek ordenantzen bidez aratu behar dutela kaleko salmenta ibiltaria, Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legeak, maiatzaren 27koak, agintzen duen bezala. Eta hala, erakunde honetan jaso zen kexa dela eta, Kanpezuko udalerriak jarduera hori arautzea erabaki du.

## 3.2 2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### ***Merkataritza***

*Kaleko salmenta ibiltariaren jarduera arautzeko beharraz (371/97)*

• Erreklamazioa

Salerosle elkarte batek erakunde honetara jo zuen, Kanpezuko Udalak bere barrutian egiten zen kaleko salmenta ibiltariaren jardueraren aurrean ez zuela ezer egiten eta, bere desadostasuna azaltzeko.

Beren interesak defendatze aldera, kexa aurkeztu zuen taldeak zioen, salmenta modu hori Merkataritza Jarduerari buruzko 7/1994 Legea urratzen ari zitekeela, saltegiz kanpoko salmenta mota hori salmenta ibiltariari buruzko udal ordenantzak artean onartu gabeak zeudela egiten ari zelako.

• Azterketa

Arrazoi horiek beroriek aurkeztu ziren Udalean, eta gogorarazi zen, salmenta ibiltariari buruzko araudia aukerakoa zela udalerrientzat, 7/1994 Legearen 16.1 artikuluaren arabera, eta lege horretan «salmenta ibiltariaz ordenantzarik ez den udalerrietan, ezingo da era horretako salmentarik egin» agintzen zela.

Horri buruz, Udalbatzak adierazi zuen, salmenta ibiltaria aspaldikoa zela herrian, usadioaren eta ohituraren arabera zegoela arauturik, eta, gainera, Arabako administrazio juntek zutela lurraren aginpidea.

• Emaitza

Ohitura batek, oso ohitura errotua izanagatik, lege bat baztertzea onartezina zela nabarmendu ondoren, Merkataritza Jarduerari buruzko Legearen 16.1. artikulua betearaz zezala gomendatu zion Arartekoak Kanpezuko Udalari. Oro-

bat gomendatu zuen udalbatzak salmenta ibiltaria arautzeko ordenantza bat prestatzea koitieniko litzatekeela ere.

Hasieran, Kanpezuko Udala uzkur agertu zen gomendioaren aurrean, baina gero, salmenta iblitariari buruzko udal ordenantzaren lehenengo testuaren idazketa onartzea erabaki zuen udal batzarrean.

Delako ordenantza hori onartzeko prozedura hasteak Kanpezuko udalean salmenta ibiltariaren merkataritza jarduerak sortzen zituen arazoen konponbidea zekarkeela eginik, espedientea ixtea erabaki zen.

## 3.3. **KULTURA ETA ELEBITASUNA**

### 3.3.1. **SARRERA**

Alor honi dagozkion 34 kexa jaso dira, orotara jaso direnen %2,22 beraz. Azpisailen arabera, hau da banaketa:

- Kultura............................................................................... 20
- Elebitasuna........................................................................ 14

Eta honela banatzen dira eragindako administrazioen arabera:

Iazko urtearekin alderatuta, igo egin da justizia administrazioarekiko harremanetan euskaraz aritzeko zailtasunak salatzen dituzten kexen kopurua. Kexa hauek bideratzeko Euskararen Erabilera Arautzen duen 10/1982 legearen konstituzionaltasun ezari buruzko errekurtsoan Konstituzio Auzitegiak emandako epaia hartu da oinarri; epai horren zazpigarren oinarriaren arabera, autonomia erkidego batean gazteleraz gainera beste hizkuntza espainiar bat ofizial izendatzen delarik, erkidego horretako aginteak ez ezik, erkidego horretan diharduten estatuaren aginte publiko guztiek ere aintzat hartu behar du ofizialtasun hori.

Alor honetan aurkeztu diren kexek idatzizko komunikazioetan euskara ez dela erabiltzen salatu dute oro har, eta aipagai izan dituzte, halaber, itzultzaileen jarduerak eragindako zenbait arazo; izan ere, itzultzaileez baliatzeak euskaraz ez dakiten epaileen aurrean euskaraz aritzeko aukera ematen du, baina ez dator bat epaiketetako hurbiltasun printzipioarekin.

Kexa hauek aztertzerakoan Arartekoak kontuan izan ditu arazo honen inguruko eragozpen objektiboak, giza baliabide eta baliabide material eza hain zuzen. Ezinbestean gogoan hartu beharreko ezaugarri bat da hori, izan ere, Euskararen Erabilera Arautzen duen 10/1982 legeak euskara erabiltzeko eskubidea pixkana-pixkana bermatu behar den eskubide bat dela dio eta beraz, hartara egokitzeko ahalmenaren mende jartzen du eskubide hori baliatu ahal izatea.

Idatzizko komunikazioaren alorreko arazoak ez dira ahozko komunikaziokoarenak bezain konplexuak, eta beraz, konponbide errazagoa dute; ildo hone-

tatik, idatzizko eredu elebidunak prestatzeko jadanik urrats batzuk eman direla ikusi ahal izan dugu.

Itzultzaileen lanari buruz justizia administrazioak emandako erantzuna egokia izan dela esan daiteke legeari dagokionean, eskura dituen baliabideen neurriko erantzuna eman baitu. Hala ere, euskara erabiltzeko eskubidea delaeta hiritarrek aurkeztutako salaketa eta kexak zilegiak dira. Horrenbestez, eta jakin arren erkidego honetako bi hizkuntza ofizialak erabili ahal izateko berdintasun materiala eskatzen duen eskubide bat ezagutzeko zailtasun objektiboak badirela, kontuan izan behar da, egoera hauek aztertzeko oinarri hartu behar dugun progresibitate printzipioari jarraituz, erkidego honetako aginte publikoa behartuta dagoela legeak arautzen duena betetzeko hizkuntzaren normalkuntzaren alorrean.

Horren ondorioz, esan daiteke gaur egungo baliabideen neurrikoa dela erantzuna, baina behin-behinekoa dela orain arteko konponbidea progresibitate printzipio horren arabera, eta aurrerantzean erkidego honetako bi hizkuntza ofizialen artean gero eta berdintasun handiagoa lortzeko neurriak hartu beharko direla.

Arartekoak justizia administrazioari buruzko kexa hauek dagokien organoei igorri dizkie, Justizia Agintearen Kontseiluari edo Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari.

Elebitasunaren azpisailean, hiritarrek euskara erabiltzeko izan dituzten zailtasunak azalduko dira, eta enpresa pribatu batek hiritarrei eskainitako zerbitzu publiko bati dagokion kexa aztertuko da, kasu hori aipatzen baita euskaren erabilera arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 legean. Pertsona behartsuentzako etxez etxeko laguntza eskaintzen zuen zerbitzuari buruzkoa da kexa hori.

Azkenik, bi hizkuntza ofizialetako batean (gazteleraz) egiaztagiri bat eskatu eta administrazio espedientea beste hizkuntza ofizialean (euskaraz) idatzita zuelako horretarako eskubidea ukatu zitzaion hiritar batek aurkezturiko kexa aztertuko da. Hizkuntza bat zein bestea maila berean jarririk, administrazioak pertsona horreri eta guztien hizkuntz eskubideak ezagutu ez izana salatzen du kexa honek.

Kulturaren azpisailean, gizarte komunikabideek baztertu dituzten gobernuz kanpoko erakundeen kexak izan dira aztergai, iaz bezala. Arartekoaren ustez, EITBri zuzenduriko kexa hauek badute funts sendorik eta beraz, bideratu egin dira.

Berdintasunaren printzipioarekin loturik, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Enpleguaren Sustapen Sailak eskulangintza sustatzeko emandako dirulaguntzen banaketan izan den diskriminazio kasu bat aukeratu da, sail horren diru laguntzak banatzean elkarte jakin bateko eskulangileen alde egin baitzen argi eta garbi. Arartekoak egindako gomendio baten arabera, Konstituzioak jasotzen dituen berdintasun printzipioa eta elkartze eskubidea urratzen zituen dirulaguntzen banaketa arautzen zuten zenbait xedapenek, eta hori dela eta datorren urtean zehar xedapen batzuk aldatzeko erabakia hartihdu Bizkaiko Foru Aldundiak.

### 3.3.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

## A) Kultura

*Bizkaiko eskulangintza elkarte batzuek Bizkaiko Foru Aldundiaren diru laguntzen banaketan jasandako diskriminazioa (303/97)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek, ARBASO eskulangileen elkartearen izenean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Enpleguaren Sustapen Sailak eskulangintza sustatzeko zeraman politika azter zezala eskatu zion Arartekoari. Ekonomia eta Enpleguaren Sustapen Sailak eskulangintzaren ordezkaritzat zuen BIARTEA elkarteari zenbait pribilejio eman zizkiola salatu zuen. Aldeko tratu berezi horren erakusgarritzat jotzen zuen zuzenean eta zehazki BIARTEA elkartearen edo elkarte horretako zenbait enpresarioren aldeko babes neurriak hartu izana. Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Enpleguaren Sustapen Sailaren politika horren berri jasotzen zuten martxoaren leko 22/94 eta apirilaren 16ko 57/96 dekretuek.

• Azterketa

Arartekoak txosten bat eskatu zion Foru Aldundiaren Sail horri, kexa aurkeztu zuen hiritarrek esandako egia zen ala ez jakiteko. Eta 1997. urtean eskulangintzaren alorra arautzeko martxoaren 25eko 43/1997 Foru Dekretua indarrean sartu ondoren egoera aldatu zela ikusi zen, bai materialki eta bai formalki.

Hala ere, Bizkaiko Lurralde Historikoko eskulangintza alorrerako dirulaguntzen araudiari jarraituz gero, hiritarren oinarrizko eskubideak urratuko lituzketen egoerak sor daitezke. Hori dela eta, eskulangileen kexa gaur egun indarrean ez den dekretu arautzaile bati bazegokion ere, 43/1997 foru dekretua aztertu zen, Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/1985 legearen 17.1 artikuluan aipatzen diren eskumenak baliatuz.

Dekretu horretan bi agindu agertzen dira erakunde honen ustez elkartze eskubidearekin eta berdintasun printzipioarekin bat ez datozenak:

1. Lehenik, 43/1997 Foru Dekretuak Konstituzioaren 14. artikuluak jasotzen duen berdintasun juridikoaren printzipioari kontra egiten dio, eskulangintzaren alorreko elkarte nagusien alde egiten baitu; izan ere, Bizkaiko eskulangileen erregistroan agertzen diren eskulangileetatik gutxienez %40 hartzen duten elkarteei laguntzeko agindua etnaten du eta xedapen hori ez dator bat Konstituzio Epaitegiak ezarritako objektibotasun, egokitasun, arrazoizkotasun eta proportziozkotasun baldintzekin.
2. Bestetik, xedapen horretako 5.1.3.1 artikuluan dirulaguntza berezi bat arautzen da elkarte nagusietako kide diren eskulangileentzako. Artikulu hori ez dator bat lurralde historiko hartako eskulangileen elkartze eskubidearekin, edo, zehazkiago esanda, inongo elkarteko kide ez izateko duten eskubidea-

rekin; eskubide hori Giza Eskubideen Aitorpeneko 20.2. artikuluak jasotzen du («inor ez dago elkarte jakin bateko kide izatera behartuta») eta Konstituzioaren 10.2 artikuluaren bidez dago *ezagutua* lege antolamenduan. Era berean, neurri hark (5.1.3.1.) ez zuen jasotzen elkarteei buruzko otsailaren 12ko 3/1988 Euskal Legea, zeinak esaten baituen *«Elkarte jakin bateko kide izateak ez du ekarriko aginte publikoaren aldetik inolako diskriminaziorik eta ez da izango, halaber, haien aldatik mesede edo aldeko tratua jasotzeko arrazoia ere».*

Hori dela eta, uztailaren 3ko 98/1997 Gomendioa igorri zion Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia eta Enpleguaren Sustapen Sailari. Gomendio horrek zera zioen:

1. Eskulangintzaren alorrerako dirulaguntzak elkarte nagusiei bakarrik ematea arautzen duen martxoaren 25eko 43/1997 Foru Dekretuaren 3 b) artikulua zuzenbide osorako baliogabetu beharko litzateke, 30/92 legearen 62.2 artikluaren arabera Konstituzioaren 7, 14 eta 22 artikuluen kontrakoa baita.

2. Era berean, xedapen horren beraren 5.1.3.1 artikuluak bereizketa egiten du elkarte bateko kide diren eskulangileen eta inolako elkarteetako kide ez direnen artean eta, hortaz, baliogabea behar luke izan, ez baititu betetzen ez EKaren 14 eta 22. artikuluak, ez Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 12ko 3/1988 legearen 2.3 artikulua.

Lehen argumentuari soilik dagokionez, elkarte batzuen eta besteen artean bereziketa egiten arren, horretarako arrazoirik bazela erabaki zuen Aldundiak: batetik, Bizkaiko eskulangileei bakarrik eman nahi zitzaizkion laguntzak, beste lurralde historiko batzuk bazter utzita, eta bestetik, alor horretako enpresa elkartearen sorrera sustatu nahi zen.

Gauzak horrela, erakunde honek bere gomendioa bete zezatela eskatu zion berriro Aldundiari; izan ere, gure ustez lurraldetasuna eta elkarteen sorrera bultzatu nahia ez dira Aldundiaren xedapenak proposatzen duen bereizketa zilegiztatzeko arrazoia, eta beraz, Konstituzio Epaitegiak dioenaren arabera, helburu horiek ez datoz sortzen dituzten lege ondorioekin bat.

Lehenengo arrazoiari buruz, esan dezagun foru dekretuaren arabera ez da betetzen Bizkaiko eskulangileen ordezkari soilik diren elkarteei laguntzeko helburua, kexan bertan agertzen denez, Bizkaiko Lurralde Historikoan badirelako beste elkarte bateko kide diren eskulangile batzuk dirulaguntzarik jasotzen ez dutenak beren elkarteek ez dutelako biltzen Bizkaiko erregistroan agertzen diren eskulangintza enpresarioen %40tik gorako kopurua. Beraz, helburu hori ez dator bat lurraldetasun arrazoiarekin bat eta ez du hari buruzko proportziozkotasunik ere.

Bigarrenari dagokionez, litekeena da enpresa elkarteen sorrera bultzatuz ordezkaritza lanetarako elkarte bat sortzea eta ez egotea alor horretan han-hemen barreiaturiko elkarte talde bat, baina izan daiteke halaber, administrazioaren eta enpresarioen arteko bitartekaritza lanak beteko dituzten elkarte anitz sortzea ere. Galdera horren erantzuna otsalaren 12ko 3/1988 legearen arrazoien azalpenean dagoela esan daiteke. Lege horrek dioenez, «bat-batekotasuna eta gizarte dinamismoa eragozten duten gizarte itxietako ikuspegi autoritario eta manikeoak alde batera utzirik, Lege honen xede nagusia da elkarteen adierazpen pluralistaren bidez gizartea eraberritzeko aukera emango duen askatasunezko marko bat bilatzea». Hori dela eta, elkarteen sorreraren akordio eta proportziozkotasunak ez du zerikusirik aginte publikoek elkarte bakar bati laguntzeko asmiarekin (edo elkarte bat baino gehiago balego ere enpresarioen %40 baino gehiago biltzen dituztenak biei laguntzeko), eta beraz, neurri hori ez dator Aldundiak proposaturiko helburuarekin bat.

• Emaitza

Ondorio hauek ikusirik, Aldundiaren Sailak onartu egin du erakunde honen gomendioa eta 1998. urtean aldatu egingo ditu Eskulangintza Sustatzeko Plangintza arautzen duten Foru Dekretuko artikuluak, elkarteen ordezkaritzari eta dirulaguntzak elkarteko kide kopuruaren arabera banatzean sortzen den bereizketari dagokionez. Horren ondorioz, eta neurri horiek hartu bitartean, espedientea itxi eta besterik gabe artxibatu egin genuen.

*EITBk Hirugarren Munduarekiko elkartasuna eskatzen duen publizitate spot bat emititu nahi ez duela eta (129/97)*

• Erreklamazioa

Arartekoarengana jo zuten GKED koordinakundeak eta Euskadiko 0,7 eta + Plataformak kexa bat aurkezteko. Beren kexan zioten EITBek ez zuela parte hartu nahi izan hiritarrak Hirugarren Munduaren egoerari buruz ohartarazteko «Berdintasunaz guztiok garaile» lema zuen kanpaina batean, eta orobat, ez zuela onartu kanpaina horren barnean telebistetarako euskaraz eta gazteleraz egindako 40 segundoko spot bat emititzea.

Kexa aurkeztu zutenen iritzian EITBren jarrera harrigarria zen, jabetza publikoko beste komunikabide batzuek inolako arazorik gabe onartu zutelako beren eskaria. TVEk esaterako, euskal telebistaren arau eta printzipio berberak bete behar dituen arren, inolako arazorik gabe zabaldu zuen elkartasunezko mezua.

Bestalde, ezezkoa eman izanak EITBren beraren irizpide aldaketa bat uzten zuen agerian, izan ere 1996an erakunde horrek parte hartu zuen «Munduko zorterik onena izan duzu. Konpartitu ezazu» zioen eta 1997ko kanpainaren antzeko helburu eta edukiak zituen kanpaina batean.

• Azterketa

Arartekoak arazo hauei buruzko informazioa eskatu zion EITBri, eta aldi berean ondoren laburbildurik agertzen diren gomendioak egin zizkion:

a) Arrazoi sendoak behar ziren 1996ko kanpainari buruz izandako irizpide aldaketa eta jabego publikokoak diren beste komunikabide batzuen jarreratik urrundu izana azaltzeko; izan ere, erabaki horiek hartzeko arrazoi objektiborik eta zentzuzkorik ez bazegoen, jarrera arbitrarioa eta beraz, arbuiagarria litzateke EITB rena.

b) «Euskal Irrati Telebista» Erakunde publikoa sortzen duen 5/82 Legeak dioenez, komunikabide publikoetan sartzeko eskubidea bermatzen du konstituzioak; izan ere, antena eskubidea onartzen die ez bakarrik gizarteko talde eta alderdi politiko nagusiei, baizik eta baita «hain handiak ez diren talde politiko, sozial eta kulturalei» ere.

Bistakoa zen kexa aurkeztu zuten taldeek adierazpen eskubidea eta informazioa zabaltzeko eskubidea baliatzen ari zirela, eta eskubide horiez bermatzeko finkatu dela antena eskubidea. Bestalde, EITBko Administrazio Kontseiluak aurrez harturiko erabaki batek zioen gure lege antolamenduaren balore nagusiak indartzera bideraturiko mezuak antena eskubidearen bidez sustatu behar dituela telebistak. Horren arabera, EITBren beraren irizpideei jarraituz, telebistari eskatu zitzaion kexa aurkeztu zuten taldeei spota emititzeko dohako gune bat eskaini ziezaiela.

c) Azkenik, 5/82 legearen arabera EITBren jardueraren oinarriak balore zibikoak babatestea eta sustatzea direla gogorarazi zen, eta Eusko Jaurlaritzak onarturiko ez legezko proposamen bat ere aipatu zen, GKEek gaur egungo gi- zartean betetzen duten zereginaren garrantzia azpimarratzen zuena eta ondoko deia egiten zuena:

> *«...komunikabide guztiei oro har, eta bereziki jabego publikokoak direnei, beren informazio eta programazio politikan gizarte modernoen ezaugarri den gizarte bilakaera hau begiratzeko eta errespetatzeko behar diren mekanismo guztiak erabil ditzaten».*

Informazio eskariari erantzunez, EITBko Administrazio Kontseiluak 1997ko otsailaren 25eko bileran harturiko erabakia igorri zion Arartekoari. Hitzarmen horrek aurrez harturiko beste akordio bat berresten zuen —*»Emakume langileen nazioarteko eguna»* zela eta egindako publizitate spot bati buruzkoa- eta kexa aurkeztu zuten Koordinakundeak eta Plataformak egindako iragarkiaren kasuan ere akordio hura bera aplikatu zela zioen.

Telebistako Zuzendari Orokorrak, bestalde, idatzi bat igorri zion erakunde honi, esanez aurreko urtean EITBek antzeko kanpaina batean parte hartu bazuen ere, ez zela erabaki zuzena izan eta *«etorkizunerako zuzenduko beharreko okerra»* zela. Era berean esaten zuen publizitate kanpainaren antolatzaileei eskaintza egin ziela albistegien bidez beren kanpainari buruzko albisteen berri emateko.

Arartekoa EITBrekin harremanetan jarri zen berriro. Zuzendariaren eskaintza -kanpaina aurkezteko egindako ekitaldian luzatua- ez zela kanpainaren antolatzaileek prestatutako spota bezain eraginkorra izango eta ez zuela eduki bera aipatu zen lehenik. Bestalde, Administrazio Kontseiluari eskatu zitzaion azal zezala erabaki horiek hartu ondoren zergatik eman izan diren EITBen merkataritzarekin zerikusirik ez duten zenbait spot. Erakunde honek ez zegoela iragarki horietan agertzen zenaren kontra azpimarratu zuen, benetako berdintasunaren helburuarekin bat baitator haiek emititzea. Baina Arartekoa kezkatuta zegoen irizpideak zirela eta, ez zuen ulertzen spot batzuk onartzeko eta funtsean eduki bera duten beste batzuk baztertzeko erabakia zeren arabera hartzen zen. Era horretako egoeretan jarrera argi eta sendo bat ez hartzeak diskriminazioaren susmoa piztu dezake.

Zuzendari Orokorrak azalpen gehiago eman zituen beste idatzi batea, baina Arartekoaren ustez ez ziren behar bezain azalpen garbiak.

• Emaitza

Kontuan harturik GKED Koordinakundearen eta Euskadiko 0,7 eta + Plataformaren kanpaina amaitua zela, ez zuen zentzurik kanpainaren spota emititzeko eskatzeak. Hala ere, EITBren jarduera arautzeko irizpide batzuk finkatzeko beharra ikusi zen, eta Arartekoak gomendio bat egin zion Administrazio Kontseiluari -1996ko ekainean Bizkaiko Emakumeen Asanbladaren iragarki bat zela eta gomendio bera egin zion- era honetako egoeretan erakunde honek azaldutako argumentuak har zitzan irizpide orokor gisa, eta horren arabera, gure lege antolamenduaren balore nagusiak sustatzeko eta indartzeko helburua duten iragarkiak -adibidez pertsona guztien berdintasuna edo Hirugarren Munduarekiko elkartasuna sustatzea helburu dutenak- emiti zitzan.

## B) **Elebitasuna**

*Egiaztagiriak hizkuntza batean zein bestean eskuratzeko zailtasunak (1405/97)*

• Erreklamazioa

Gipuzkoako Unibertsitate Eskolan Irakasle ikasketak egin zituen pertsona batek bere ikasketa programaren egiaztagiri bat eskatu zuen. Ikasketak euskaraz egin zituen arren, gazteleraz nahi zuen agiria, beste autonomia erkidego batean aurkezteko behar zuelako.

Ez zioten eskaria onartu eta programen egiaztagiriak ikasketak egin diren hizkuntza berean egiten direla esan zitzaion. Era beren, egiaztagiria gaztelerara itzuli nahi izanez gero itzulpena berak ordaindu beharko zuela jakinarazi zitzaion, eta kasu honetan, agiri administratibo bat zenez, zinpeko itzultzaile batek egin beharko zuela gainera.

Irakasle Eskolaren Zuzendaritzaren aurrean erreklamazioa egin arren, ez zen hasierako erabakia aldatu.

• Azterketa

Euskararen Erabileraren Normalkuntzari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 legeak Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzak ezagutzen dituenez erkidegoko hizkuntza ofizialtzat, kexak bazuen funtsa, eta bideratu egin zen.

Kexa bideratzeko arrazoia ez zen itzulpena eskuratzeko zailtasunak zeudenik edo itzulpena egin beharrak egiaztagiria beranduago jasoko zuela esan nahi zuenik. Kexaren oinarria zen eskolaren ustez ikasketak euskaraz egin zituen ikasleek ez zutela bere ikasketen programaren egiaztagiria gazteleraz eskuratzeko eskubiderik.

Eskolak harturiko jarrera kexan aipatzen zena zela jakin genuen, eta ondoren Arartekoa EHUren Idazkaritza Orokorrarekin harremanetan jarri zen, kexa honen berri emateko eta, 10/1982 legeak hiritarrek erkidego honetako agintearekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubidearen arabera, kexa bideratu egingo zela jakinarazteko.

• Emaitza

EHUren Idazkaritza Orokorraren erantzunean erkidego honetako aginte publikoak hiritarrak eskatzen duen hizkuntzan egin behar dituela agiriak esaten zen argi eta garbi, eta ondoren Irakasle Ikasketetako Unibertsitate Eskolari kexa hau sorrarazi zuen eskariari jaramon egiteko agindua eman zitzaiola ematen zen aditzera.

Azkenik, Idazkaritza Orokorrak jakitera eman zigun egiaztagiria hiritarrak aukeratutako hizkuntzan egin zuela Irakasle Eskolak.

Kexa sorrarazi zuen arazoa konponduta zegoen beraz, baina egokia iruditu zitzaigun, hala ere, EHUri gure kezka azaltzea, ez bakarrik interesatuak ezezko erantzuna jaso zuelako eskolako langileen aldetik, baizik eta kexa hau aurkeztu aurretik Eskolako Zuzendaritzari erreklamazio idatzi bat igorri zitzaiolarik ere ez zelako zuzendu eskolaren hasierako erabakia.

*Euskararen erabilera administrazioak kontrataturiko enpresek betetzen dituzten zerbitzu publikoetan (556/97)*

• Erreklamazioa

Kexa honen arrazoia etxez etxeko laguntza jasotzen zuen adineko pertsona batek etxera joaten zitzaion langileak euskaraz ez zekielako harekiko harremanetan zituen zailtasuna zen. Arabako Fom Aldundiak etxez etxeko laguntza eskaintzeko kontrataturiko zerbitzu enpresa batek betetzen zuen zerbitzua.

• Azterketa

Informazioa eskatu genion Gizarte Ongizatearen Foru Institutuari, eta informazio horretan esan zitzaigun zerbitzu hura enpresa pribatu batek betetzen zuela, urtero deialdi publiko bidez hautaturiko enpresa batek, eta gainera, enpresarena dela zerbitzua bete behar duten langileak hartzeko ardura, administrazioak ez duela horretan esku hartzerik. Hala ere, zerbitzua betetzen zuen enpresari kexa hau igorri eta arazoa konpontzeko behar ziren neurriak hartzeko eskaitu zitzaiola jakinarazi zitzaigun. Azkenik, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13 /1995 legea dela eta izan ziteezkeen arazoak aipatzen ziren.

Informazio hau aztertu ondoren, Arartekoa berriro jarri zen Foru Institutuarekin harremanetan:

Administrazioaren eta deialdi publiko bidez hautaturiko enpresaren arteko kontratuaren baldintzen ondorioak onartzen ziren, baina ez zirudien 13/1995 legea inolako eragozpena zenik euskararen erabilerari buruzko 10/1982 legeak aipatzen zituen helburuak betetzeko. Ildo honetatik, eta arazoak euskararen erabileraren normalkuntzarekin zerikusia zuenez, ezinbestean hartu behar zen kontuan Eusko Jaurlaritzak apirilaren 15ean emandako 86/1995 dekretuak zioena: dekretu horretako 18 d) artikuluak erakunde publikoentzako beste enpresa batek bete beharreko zerbitzu publikoen hizkuntz eskubideak arautzen ditu.

Bere erantzunean Foru Aldundiaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Orokorrak zioen iridarrean zegoen baldintza teknikoetako batek aukera eman zezakeela pertsona honen arazoa konpontzeko; kasu bakoitzaren ezaugarriak aztertu eta langilerik aproposena aukeratzea aurrikusten zuen baldintzak, hain zuzen ere. Hala ere, Aldundiak zioen litekeena zela enpresak ez izatea behar adina langile; hori konpontzeko aski izango zen baldintza teknikoei beste atal bat eranstea, langile berriak hartzerakoan langile euskaldunak hartzeko aginduz.

Hala ere, alor honetan bazen beste xedapen bat ere, lan baldintzei buruzkoa; xedapen horrek aurrikusten du kontratazio berririk egin aurretik enpresek bere langile guztiak lanean ari direla segurtatu behar duela, eta orobat zerbitzua eskaini behar duten eskualdekoak bertakoak izan behar dutela langileek.

• Emaitza

Kexa bitxia da, delako zerbitzu publikoa ez duelako aginte publikoak zuzenean betetzen, enpresa pribatu batek baizik, eta langileen hizkuntz gaitasunarekin zerikusia baitu. Alde horretatik, arazo honetan eragina duten legeen azterketa egin beharko litzateke: euskara erabiltzeko eskubidea batetik, eta zerbitzua betetzen ari diren langileen eskubideak, bestetik. Bi eskubide horien arteko oreka lortzea administrazioaren ardura da eta beraz, zerbitzu publikoaren titularitateari dagokio, lege antolamenduak ezagutzen dituen eskubideei eragozpenik jartzen dien arazo oro saihesteko neurriak hartzeko betebeharra baitu.

Gogoeta hauek Gizarte Ongizatearen Aldunari igortzeko erabakia hartu du Arartekoak, legeek agintzen dutenari kontra egin gabe, aurrerantzean egiten

diren kontratazioetan euskara erabili nahi duten pertsonen eskubideak begiratuko direla ziurta daitezen eta hala ager dadin baldintzetan.

Kasu honi dagokionez, euskara erabiltzeko eskubidea izateaz gainera, eskaria egin zuen pertsona adinduna hobeto komunikatzen zen euskaraz gaztelera baino. Hori dela eta, egoera zein zen kontuan harturik, zerbitzua betetzen zuen enpresari ahal zen neurrian kexa honi irtenbidea emateko esan ziezaziola eskatu zitzaio Aldundiari.

*Euskararen erabilera lege alorrean (332/97)*

• Erreklamazioa

Dimako udalak idatzi bat igorri zion Arartekoari, esanez Dima udalerri euskalduna izan arren Durangoko epaitegiaren agiri eta komunikazio guztiak gazteleraz bakarrik idazten zirela eta Dimako udalak jarrera horri buruzko desadostasuna adierazi zuela osoko bilkura batean. Epaitegiaren jarrera Euskararen Normalkuntzarako Legeak zioenaren kontrakoa zela zioen, halaber, bilkuran harturiko akordioak.

• Azterketa

Kexaren edukia azterturik, Arartekoak Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari igorri zion, sail honen ardura baitzen haren ustez, arazoari konponbidea ematea, eta azpimarratu zuen jusitzia administrazioan euskararen normalkuntza lortzeko behar ziren neurri guztiak hartu behar zituela.

Era berean, Aginte Judizialari ere eman zitzaion arazo honen berri.

• Emaitza

Justizia Sailordeak igorritako erantzunean justizia administrazioa Eusko Jaurlaritzaren ardurapean gelditu zenez gero gain honen inguruan aurrera eramandako jardueren aipamena egiten zen.

Langile transferituak erkidego honetako administrazioko langileen euskalduntze planetan sartzea izan zen aurrerapen nagusia. Postu bakoitzari zein hizkuntz eskakizun dagokion finkatzeko lehenengo urratsak eman dira, euskararen erabileraren nomrlakuntzarako prozesuan euskalduntze planak duen garrantziaren erakusgarri.

## 3.4. **HEZKUNTZA**

### 3.4.1. **SARRERA**

Hezkuntza alorrean 93 kexa jaso dira, erakunde honek bideraturiko kexa guztien %6,07.

Edukiari dagokionez honela banatu dira:

| | |
|---|---|
| Gainerakoak | 34 |
| Hezkuntzaren programazio orokorra | 23 |
| Bekak eta ikasketetarako laguntzak | 18 |
| EHU | 7 |
| Ikastetxea hautatzeko eskubidea | 6 |
| Eskoletako instalazioak | 3 |
| Garraioa | 2 |

Aurten jaso diren kexen tipologia aurreko urteetakoaren antzekoa da. Nabarmenak dira hezkuntza eskubidea baliatzeko ezarri diren zerbitzuei buruzkoak, hau da, eskubide horren edukiak dioena betetzeko jarri diren baliabideei buruzkoak. Horiez gainera eskola garraioari, beka eta laguntzei, instalazioen egoerari eta zaintzari buruzkoak ere aurkeztu dira.

Era honetako kexetan, eskola garraiorako laguntzak edo bekak banatzeko arauak bete diren ala ez, edo, kasuren batean, laguntzak nork eskura ditzakeen erabakitzeko berdintasun printzipioa kontuan hartu den ala ez izan da aztergai nagusia. Instalazioen egoerari buruzkoetan, kexak funtsik zuenean, Hezkuntza Sailak eraberritze lanen plangintzan instalazioak egokitzeko lanak sartu zituen ala ez aztertu da.

Baina hezkuntza eskubidea bermatu delarik, bai oinarrizko alderdiei eta bai lege konfigurazioari dagokionez, beste gorabehera bat gerta daiteke administrazioaren eskumen boterea hartzen delako zenbait erabaki azaltzeko oinarri, eskumen horrek azaldu ezinezko erabakiak izan arren. lazko txostenean ere aipatu genituen bi urteko haurren eskolatzean dauden arazoak; ikastetxe batzuetan bi urteko haurrentzako gelak zabaldu dira aurten, baina laguntza aski jasotzen ez dutenez ezin izan dituzte heziketa behar bereziak dituzten ikasleak onartu. Hori diskriminazio egoera bat da, eta ez administrazioaren eskumen boterearen behar bezalako erabileraren ondorioa. Plagintza egokirik balego, ez litzateke horrelako arazorik sortuko.

Ikasleei ezarritako zigorrei dagozkien kexak ere jaso dira, eta beraz, esan daiteke ikasle ez unibertsitarioen eskubide eta betebeharren araudia finkatzeke dagoela artean. Araudia bera, zigorrak ezartzeko prozeduretan behar diren bermeak ez begiratzea eta ikastetxe pribatu hitzartuetan gai hau dela eta sorturiko eztabaidak dira ikasleen eskubide eta betebeharren araudi bat finkatzeko zailtasun aipagarrienak.

Ikasleak ikastetxeetan onartzeko araudi berriak ere harridura sortu digu, adibidez seme-alaben kopurua kontuan hartzen delako, eta horren ondorioz, Arartekoaren ofiziozko jardueretako baten aztergaia izan da.

HSAOL berriari buruz zenbait kexa jaso dira, besteak beste artearekin loturiko ikasgaien eraberritzea dela eta, bereziki ikasgaien edukiari eta antolaketari dagokionez, eta orobat ikasketa ofizialetako aurreko urteetako plangintzarekin alderatuz eskaintza murriztu izanari dagokionez.

Azkenik, ikastetxe publiko bateko gurasoek beren ikastetxearen areto batzuk zentro pribatu bati utzi zitzaizkiolako ezarritako kexa ere aztertu dugu.

### 3.4.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Ikasleen eskubide eta betebeharrak**

#### ***Zigor errejimena***

*Ikasle ez unibertsitarioen eskubide eta betebeharren errejimena. Errejimen horren erabilera zentro hitzartuetan (993/97)*

• Erreklamazioa

Ikastetxe hitzartu bateko ikasle baten gurasoek kexa aurkeztu zuten beren semeari ezarritako zigorrean -bi egunetan eskolara joateko debekua ezarri zitzaion- prozedura akatsak aurkitu zirelako, eta ez zelako kontuan hartu zigorra eragin zuten gertaeretan irakasleak izan zezakeen erantzukizuna.

Hezkuntza Sailordeak zigorraren kontrako errekurtsoa onartu eta hutsegite arin gisa hartu zuen ikaslearen jarrera eta, horrenbestez, ikaslearen espedientetik hutsegite larriaren oharra ezabatzeko erabakia hartu zuen.

• Azterketa

Irakasleak edo ikastetxeak izan zezaketen erantzukizuna alde batera utzirik, disziplinazko prozeduraren gorabeheretan oinarrituta egin zen kexaren bideratzea.

Arazoa sakon aztertu ondoren, Arartekoak erabaki zuen ez zegoela arrazoirik ikaslearen gurasoek aurkezturiko errekurtsoa aztertzeko. Izan ere, errekurtsoa aurkeztu zutelarik, hutsegitearen kalifikazioa berraztertu zen eta hutsegite arin gisa kalifikatu zen azkenik.

Errekurtsoa ezarri zenerako, ordea, ikasleak betea zuen zigorra -bi egunez eskolara joan gabe egon behar izan zuen- eta zaila zen ikasleari egindako kaltea nola ordaindu erabakitzea.

Ikasleari aldi batez eskolara joateko eskubidea ukatzeko adinako hutsegitea izan balitz ere (160/1994 Dekretuaren 32. artikulua), zigorra ez zatekeen bete beharko zigor irmoa zela erabaki arte. Kexa honetan aipatzen den kasuak erakusten du horren garrantzia; izan ere, azken buruan erabakitzen den zigorra izango da bete behar dena, eta kasu honetan ezinezkoa gertatu da hori.

Kasu honetan zigorra ezarri eta berehala bete zen, lege antolamenduak arautzen dituen babes bideetara jo eta haiek zer erabakitzen zuten jakin aurretik; horren ondorioz ikaslea babesgabestasun egoera batera eraman zuten. Halakorik gerta ez dadin Administrazio Prozedura Amankomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legeak 138.3. artikuluan agintzen duenaren arabera, baliabide administratibo guztiak agortu ondoren erabakitzen dena izango da bete beharreko zigorra.

Ikaslearen aitak aurkezturiko errekurtsoak dioenaren arabera, Hezkuntza Ordezkaritzan salaketa bat jarri zuen abenduaren 3an, ikasleak zigorra bete ondoren (azaroaren 26-27an bete zuen). Beraz, ezin esan daiteke zigorra babes

bide guztiak agortu aurretik betearazi izana hezkuntza administrazioaren axolagabekeriaren ondorioa izan zenik, zigorra bete zen garaian administrazioak ez zuelako zertan izan gertaeren berri.

Dena dela, Hezkuntza Sailaren erantzukizunari dagokionez, hezkuntza eskubidearen bermatzaile nagusi den aldetik, eta kontuan harturik, gainera, Sail horrek parte hartu zuela kasu honen berrazterketan, Arartekoak erabaki zuen gomendio bat egitea, salaketan agertzen denaren antzeko gorabeherarik gehiago gerta ez dadin.

• Emaitza

Arartekoaren gomendioan esaten zen beharrezkoa zela ikastetxeko titularrari -ikasleari zigorra ezarri zion Disziplina Batzordearen ikastetxeko titularrarigogoraraztea, ez ohiko egoeretan izan ezik, edozein zigor neurri bete aurretik erreklamazio edo errekurtsoak aurkezteko bide guztiak erabili arte itxaron behar dela, bestela babesgabe geldi daitekeelako ikaslea, kasu honetan bezala.

Hezkuntza Sailak gomendio honen berri eman zion ikastetxeari, eta espedientea artxibatu egin zen.

## *Ikastetxea aukeratzeko eskubidea*

*Ikastetxe publiko batek zentro pribatu bati gelak uztea (1131/97)*

• Erreklamazioa

Ikastetxe publiko bateko gurasoek kexa bat aurkeztu zuten beren zentroak ikastetxe pribatu bati espazioa uzten ziola eta. Udala ados zegoen ikastetxe pribatuari gelak uzteko erabakiarekin.

• Azterketa

Hezkuntza eskubidea eta gurasoek beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza mota aukeratzekoa kontuan hartu beharreko eskubideak dira era honetako egoeretan, baina era berean egia da eskubide horrek, berez, ez duela lokalak inori uzteko eragozpenik jartzen. Hori dela eta, txosten bat eskatu genion hezkuntza administrazioari, lokalak uzteko erabakia zein irizpideren arabera hartu zen jakiteko.

Hezkuntza Sailak bere lehenengo erantzunean azaldu zigun zentro pribatuak bere eskaerari erantzun ahal izan ziezaion erabaki zuela ikastetxe publikoko lokal batzuk hari uztea, eta eskaera horri buruzko datuak igorri zizkigun.

Lokalak uzteko erabakia, beraz, txostenean agertzen ziren datuetan oinarritua zen, baina erabaki hori ez zen txosteneko datuetatik ezinbestean ateratzen zen ondorioa. Alde honetatik, Hezkuntza Sailaren betebeharrei dagokienez, zentro pribatuaren eskaeraren kopuruak ez zuen zertan eragin txostenak azaltzen zuen moduko ondoriorik; txosten horretan zioen, Hezkuntza Sailak lokalik utzi

ezean, zentro pribatuaren eskaera asetzeko lan handi eta garestiei aurre egin beharko zitzaiela.

Administrazioari jakinarazi genion irakaskuntza publikoaren eskaeraren eta pribatuaren eskaeraren aurrean dituen betebeharrak berdintzea unean uneko erabaki subjektibo bati dagokiola, eta ez berez eskubide subjektibotzat harturiko eskubide baten ondorioa,

Kexa bideratzeko arrazoia ez zen izan irakaskuntzaren programazio orokorra, nahiz eta lokalak uztea alor horretatik ere azter zitekeen; baizik eta lokalak uzteko erabakia programazio horrek kontuan izan behar dituen mugekin bat datorren ala ez. Muga horietako bat da hezkuntza eskubidearena, gurasoek beren seme-alabentzat nahi duten ikastetxea hautatzeko duten eskubidearena.

Administrazioaren erantzunak ez zuen azaltzen eskubide hori kontuan hartu zen ala ez, eta beraz Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarri ginen berriro.

• Emaitza

Arartekoari kexa aurkeztearekin batera, administrazioak espazioak uzteko harturiko erabakiaren kontrako errekurtsoa aurkeztu zuten gurasoek.

Hezkuntza Sailordetzak errekurtsoari buruz harturiko erabakian esaten zuen bere ustez administrazioak begiratu zuela ikastetxea hautatzeko eskubidea eta, beraz, bere erabakiak ez zuela hezkuntza eskubidea urratzen. Errekurtsoaren ebazpenean agertzen ziren arrazoiak sakonago aztertu behar ziren arren, erabakia arrazoitzeko bidea eman zezaketen.

Idatzizko txostenetan bilduriko jarduera hauez gainera, Arartekoak, kontuan izanik administrazioaren erabakiak betearazleak direla oro har, lokalen erabilerari buruzko segimendua egin zuen. Horrela, ikusi zuen batzorde berezi bat eratu zela, Hezkuntza Sailaren beraren zuzendaritzapean, lokalak uzte horren inguruan inolako iskanbilarik sor ez zedin, eragindako bi parteen eskubideak begiratzeko.

Horrenbestez, gure jardueren berri eman genien interesdunei, eta Arartekoak bere bitartekaritza bertan behera uztea ebatzi zuen.

### ***Ikasleen onarpena***

*Bi urteko ikasle elbarrien onarpena (1395/97)*

• Erreklamazioa

Haur elbarri batzuen gurasoek erakunde honen esku hartzea eskatu dute beren seme-alaba txikiak -bi urte- eskolatzeko aurkitu dituzten zailtasunak direla eta.

Erakunde honen lehenengo jarduera hezkuntza administrazioaren jarrera ezagutzera bideratua izan da; izan ere, hezkuntza administrazioak agindu zehatza du haur hauentzako baliabide berezirik ez jartzeko eskolak bere gain hartzen ez dituen ikastaldiei (bi urteko haurren gelak) dagokionean eskolatze eskaera. Dena

dela, haur hauek matrikulatzea posible izango da ikastetxeak eskura dituen baliabideen bidez bete badaitezke beren beharrak.

Erakunde honek bideraturiko gaietan, gurasoen seme-alaben eskolatzea onartu den kasu bakarrak ikastetxe jakin batzuetako baliabideek horretarako aukera ematen zuten kasuak izan dira (irakasle laguntzaileak, heziketa bereziko laguntzaileak, etab. zituzten ikastetxeen kasua), eta kexa hauen helburu nagusia lortu da, haur horiek 97-98 ikasturtean eskolatzea erabakia hartu baita.

• Azterketa

Heziketa behar bereziak dituzten haur hauen eskolatzeari buruzko kexen garrantzia dela eta, Arartekoak kexa horien azterketa egin du, eta hori dela eta, beste idatzi bat igorri die hezkuntza arduradunei, ondoko oharrak eginez:

> *«Gauza jakina da EAEn orokortzen ari dela bi urtetik aurrerako irakaskuntza ez unibertsitarioaren errejimen orokorreko maila guzietako haurrak dohan eskolaratzeko joera.*
> *Aitzitik, haur hezkuntzako lehen zikloa, hau da 0-3 urte bitartekoa, pixkanaka ezartzeko agindu bat dago -hori dela eta administrazio honek ez du bere gain hartzen oraindik ikastaldi hori-, nahiz eta gero eta ikastetxe gehiagotan ari diren bi urteko haurren gelak zabaltzen.*
> *Dena dela, 0-3 bitarteko ikastaldi edo hezkuntza zikloa pixkanaka ezarri behar den eta, jakina, ikastetxe bakoitzaren baliabideen arabera ezarriko den arren, gogoan izan behar dira EAEko hezkuntzaren zerbitzu publikoaren helburuak eta oinarriak eta bereziki, ikasleak onartzeko eta eskolatzeko begiratu behar den berdintasun printzipioa.*
>
> *Alde honetatik, Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 legearen (EEPL aurrerantzean) 10.4 artikuluak elbarri fisiko eta psikikoen aldeko diskriminazio positiboko neurriak hartu behar direla dio.*
> *Are gehiago, lege horren beraren 9.2. artikuluak arautzen duenaren arabera, 0-3 bitarteko hezkuntza zikloa ezartzeko prozesuan lehentasuna emango zaie heziketa behar bereziak dituzten ikasleei, beste talde batzuetakoez gainera.*
> *Azken batean, esan daiteke EEPL honen helburua ikasle guztien arteko berdintasuna dela, hasierako ikastaldi honetakoak barne, eta hori lortzeko ikasleen berezko desberdintasunak gainditzeko diskriminazio positiboko neurriak hartzeko eskatzen duela, besteak beste elbarri fisiko eta psikikoen heziketa behar bereziei dagokionean.*
> *Hori guztia dela eta, eta aipaturiko xedapenei jarraituz, Arartekoak hezkuntza administrazio honek heziketa behar bereziak dituzten haurren eskolatzeaz harturiko zenbait erabaki azpimarratu nahi izan ditu, izan ere, EEPLren 9.2. artikuluak agintzen duena ez betetzeaz gainera, ez baitituzte ezagutzen ikasle talde horren aldeko diskrimazio positiboa bideratzeko neurriak hartzeko duten betebeharra.*

*Beste era batera* esando, esan *daiteke 2 urteko haurrentzako gelen gaur egungo izaerak elbarri fisiko edo psikiko diren ikasleen berdintasuna eragozten duela, eta* haur *horiek eskolatzeari oztopoak jartzen dizkiola*».

• Emaitza

Memoria hau amaitzeko unean oraindik ez dakigu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ohar horien berri izan ondoren zein jarrera hartu duen.

### B) **Bekak eta beste laguntza batzuk**

*Ikasle gutxituen eskola garraioa (233/97)*

• Erreklamazioa

Bizkaiko Elbarri Fisikoen Federazio Koordinakundearen kexa bat jaso genuen, mugitzeko zailtasuna eragiten zion eritasun onkologiko bat zuen ikasle baten eskola garraioa zela eta. Eritasun hori zela eta, garraio berezia behar zuen ikasleak etxetik ikasketak egiten zituen ikastolara joan ahal izateko.

Kexa horretan, Federakuntzak zioen eskatu zituela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuak 1996ko uztailaren 24ko aginduan aipatzen dituen laguntzak, baina Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak ukatu egin zizkiela laguntza horiek, ikastetxe publikoetako ikasleentzako laguntzak omen zirela eta.

Bestalde, jakitera eman zuten ordu arte «Bidaideak» izeneko bertatik bertarako garraio zerbitzua izan zela behin-behineko irtenbidea eskaini izan zuena, baina arazoak zeudela zerbitzu hori erabiltzen jarraitzeko.

• Azterketa

Erakunde honek idatzi bat igorri zion Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, gogoraraziz honen antzeko beste espediente bat bideratzeko erabakia hartua zuela (293/95), eta espediente horren emaitza gisa gomendio bat egin zitzaiola bide berriak bila zitzan era honetako ikasleak integratzeko, hau da osasun edo gizarte zerbitzuekiko, edo beste erakunde batzuekiko, hitzarmen bidezko neurri positiboak har zitzan era honetako beharrei erantzuteko koordinazioa bideratzeko.

• Emaitza

Gure jardueraren emaitza gisa, hezkuntza administrazioak idatzi bat igorri zigun esanez «badirela Ikastetxe Pribatuetan matrikulaturiko Heziketa Behar Bereziko ikasle gehiago eta Sail honen asmoa dela ikasle horientzako deialdi espezifiko bat egitea».

Hezkuntza arduradunek erakutsitako aldeko jarrera zela eta, Arartekoak onartutzat eman zuen erakundearen aurrean aurkezturiko kexa, eta beraz, bere bitartekaritza amaitutzat eman zuen.

*Unibertsitate beka bat ukatzea. Familia errentaren kalkulua enpresa eta lanbide jardueren kasuan (1344/96)*

• Erreklamazioa

Beka bat eskatu zuen unibertsitate ikasle batek erakunde honen parte hartzea eskatu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailordetzak ukatu egin baitzion beka hura, errenta babesgarria gainditzen zuela eta. Ikaslearen ustez erabakia ez zetorren bere familiak aurkezturiko datu ekonomiko-fiskalekin bat.

Ikasleak bere familia unitateak baliospen zuzeneko araudiaren arabera aitorturiko datu ekonomikoen kopia eta Zergen Ikuskaritzarako Zerbitzuaren bisitaren aktaren kopia, «frogatua eta onartua» zigiluarekin, aurkeztu zituen.

Hala ere, bai hautespen epaimahaiak eta bai Unibertsitate Sailordetzak zioten ikaslearen gurasoak autonomo aritzen zirenez ezin zela jakin beren jardueratik ateratzen zuten errentagarritasun erreala zenbatekoa zen eta horregatik ukatu zitzaiola beka.

Hori zela eta, PFEZ aitorpenean agertzen diren datuek ez dutenez behartze indarrik, erakunde horiek zioten beharrezkoa zela modulukako zerga araudia aplikatuz neurtzea errendimenduak.

• Azterketa

Arartekoak idatzi bat igorri zion Unibertsitate Sailordetzari, besteak beste ondoko oharrak eginez:

- Zerga araudiaren arabera baliospen obejtiboko araubideari jarraituz aitorturiko errendimenduak (koefizienteak edo moduluak) ez dute nahitaez bat etorri behar aztergai den jardueraren errentagarritasun errealaren datuekin.
- Hala ere, baliospen objektiboko araubidea aplikatzeak ez luke ekarri behar ondasun ugaritzearen gaineko zergaren aplikaziorik, jardueraren errendimendu errealen eta araubide horien behar bezalako aplikaziotik eratorritakoen arteko diferentziak antzematen direnean ez bezala.
- Era berean, ezin pentsa daiteke sistema objektibo batetik besterako aldaketa egin behar denik (koefiziente/modulo) jardueraren ezaugarrien arabera ezinbestean bete beharrekoak direnean, baldin eta interesdunak ez badie uko egiten.
- Dena dela, azken batean, ez badago jarduera jakin baten errentagarritasun erreala zehazteko adina datu errealik ezingo da zalantzan jarri sistema objektibo bati jarraituz egindako neurketaren emaitza.

• Emaitza

Unibertsitate Sailordetzak onartu egin zuen baliospen zuzeneko araubidearen arabera aitorturiko datua errentaren errentagarritasun erreal gisa.

Horrenbestez, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Amankomunaren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 27ko 30/92 Legeak 105.1. artikuluan berrikusketa eskatzeko eskubidea aurrikusten duenez, indar-

gabetu egin zituen dirulaguntza ukatuz harturiko erabaki guztiak, eta eman egin zituen material didaktikorako, garraiorako eta 1995-96 eta 1997-98 ikasturteetako matrikula ordaintzeko dirulaguntzak.

C) **Ikastetxe hitzartuak**

*Ikastetxe hitzartu batek funtzionamendu kuotak kobratzea (701/96)*

• Erreklamazioa

Donostiako ikastetxe hitzartu pribatu bateko OHOko 8. mailako ikasle baten aitak salaketa jarri zuen Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzaren jarrera salatuz. Izan ere, erreklamazio bat aurkeztu zuen bere alabaren ikastetxeak kuotak -funtzionamendu kuota izendaturiko kuota batzuk- kobratzen zizkietela eta, nahiz eta hitzartua zenez ez zegokion horrelako kuotarik kobratzea, eta ez zuen inolako erantzunik jaso Ordezkaritzaren aldetik.

Ikaslearen aitak agiri ugari aurkeztu zituen, besteak beste ikastetxearen zuzendaritzaren idatzi bat, zeinaren bidez onartzen baitzen funtzionamendu kuota gisa kobraturiko dirua ez zegokiela, kasu guztietan behintzat, eskolaz kanpoko jardueratzat hartzen diren ekintzei.

• Azterketa

Hasierako urratsen ondoren, erakunde honek idatzi bat igorri zien hezkuntza arduradunei, gogoraraziz ezinbestean aplikatu beharrekoak zirela Hezkuntza Eskubidearen 8/1995 Lege Organikoaren oinarrizko xedapenak, zentro hitzartuetako kontzertuak arautzen dituztenez; xedapen horien arabera, ikasleei eskolaz kanpoko jardueretarako edo jarduera osagarrietarako kuotaren bat kobratzeko hezkuntza administrazioak horretarako baimena eman behar zuen.

Alde honetatik, erakunde honek zentro hitzartu hark eskaturiko funtzionamendu kuotak tipifikatu egin behar zirela azpimarratu zuen; izan ere, kuota horiek ez zetozen eskolaz kanpoko jarduerekin edo jarduera osagarriekin bat, eta horrela balitz, kuotak kobratzea HELOren 51.1. artikuluak agintzen duenari kontra egitea litzateke.

• Emaitza

Gure jardueraren ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Baliabide eta Kontratazio Zuzendariak idatzi bat igorri zion ikastetxearen zuzendaritzari, erabat hitzarturiko ikastetxea zenez irakaskuntza doan ematera behartuta zeudela gogoraraziz, eta orobat, hitzarmena hautsi zitekeela hitzarmenak agintzen dituen xedapen guztiak bete ezean hitzarmena bertan behera gera zitekeela.

Zorionez, sailaren ohar hau aski izan zen ikastetxeak erabateko hitzarmenetik ondorioztatzen den doakotasunaren araubidera egokitzeko bere jarduera.

D) **Unibertsitate hezkuntza**

*Azken azterketa egiteko eskubidea, aurretiko lanik gabe. Arau arteko iherarkia arazo bat (1591/96)*

• Erreklamazioa

Bilboko Irakasle Eskolako ikasle bat Arte Hezkuntza eta Haren Didaktika ikasgaiaren azken frograra aurkeztu zen, baina irakasleak ez zion azken froga hura egiten utzi, ikasturtean zehar egin beharreko lanik aurkeztu ez zuelako aitzakiarekin. Ikasleak kexa aurkeztu zuen, bere ustez ikasturteko azken froga egiteko eskubidea ez zegoelako urtean zehar egin beharreko gainerako lanen mende.

• Azterketa

EHUren Erretoretzak ikasleak aurkezturiko ohiko errekurtsoaren kontrako erantzuna eman zuen, eta erantzun horren arabera irakaslearen erabakia zuzena zen, Ikasgaiaren Ebaluazioari buruzko Agiriak agintzen zuena betetzen baitzuen eta agiri horren jakinaren gainean baitzeuden ikasleak. Agiri horrek zioen ikasgaia gainditzeko lan teoriko bat egin behar zutela ikasleek azken azterketaren aurretik.

Kasu honen analisia egiterakoan Irakaskuntzaren Plangintza eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudia hartu behar zen oinarri. Araudi hori Gobernu Batzordeak onartu zuen 1993ko uztailaren 20an, eta honela zioen 6. artikuluaren 3. atalean: “Ikasgai baten ebaluazioa azterketen bidez, ebaluazio jarraituaren bidez edo lanen bidez egin ahal izango da. Dena dela ebaluazioa egiteko hautatzen den bidea, ikasleak azken froga egiteko eskubidea du”.

Araudiaren atal honen arabera, ikasgai bat ebaluatzeko azterketa, ebaluazio jarraitua edo lanak aukeratzen direla ere, ikasleak beti izango du azken froga egiteko aukera. Beraz, araudi horrek bermatzen du ikasleak azken froga egiteko duen eskubidea, dena dela ebaluaziorako aukeratzen den bidea.

Ikasgaiaren ebaluazioari buruzko agiria Gobernu Batzordeak onarturiko Irakaskuntzaren Plangintza eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudiaren mende dago, izenak dioen bezala, arau izaera baitu honek. Besterik erabakiz gero arauen arteko ihararkia urratuko litzateke.

• Emaitza

Gauzak horrela, Arartekoak gomendio bat egin zion EHUri, ikasleak, Irakaskuntzaren Plangintza eta Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudiak zioenaren arabera, azken froga egiteko zuen eskubidea berma zezan.

Gomendioa aztertu ondoren, Erretorodetzak Arartekoari jakinarazi zion bere ustez ez zela ari behar bezala erabiltzen araudia eta horrek ikasgaiaren ebaluazioak behar zuen ezinbesteko edukiari eragiten ziola. Horrenbestez, gure gomendioa ez zuela onartu jakinarazi zigun.

Erretorordetzaren erantzunaren aurrean, EHUri esan genion bere erantzunean azaldutako arrazoiak kontuan harturik Irakaskuntzaren Plangintza eta Ikas

leen Ebaluazioari buruzko Araudian zenbait aldaketa egin beharko zirela, baina aldaketa horiek egin artea Arartekoaren gomendioa, arauen arteko iherarkia betearaztera bideratua zenez, ezinbestean bete beharrekoa zela. Beraz, kasu hau txosten honetan aintzat ez harturiko gomendioen atalean jasoko zela.

## 3.5. FUNTZIO PUBLIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA

### 3.5.1. SARRERA

1997. urtean Ararteko honen erakundeak funtzio publikoarekin eta administrazioaren antolaketarekin zerikusia duten 574 kexa bideratu ditu, bideratu diren kexa guztien %37,44, alegia.
Funtzio Publikoan eta Administrazioaren antolaketan bereizten diren atalak kontuan hartuz, kexen banaketa honela gelditu da:

| | | |
|---|---|---|
| Funtzio Publikoa ........................................................................... | | 449 |
| - Funtzio Publikoa-Osasuna. | 67 | |
| - Funtzio Publikoa-Orokorra | 95 | |
| - Funtzio Publikoa-Hezkuntza | 248 | |
| - Oposizioak eta lehiaketak | 30 | |
| - Zigor errejimena | 4 | |
| - Funtzio Publikoa-Herrizaingoa | 3 | |
| - Bestelakoak | 2 | |
| Administrazioaren Antolakuntza ................. | | 125 |
| - Administrazioaren Jardunbidea | 61 | |
| - Administrazioaren ardura | 27 | |
| - Administrazioaren Antolakuntza | 20 | |
| - Kontratazioa eta Ondarea | 17 | |

Kexak eragindako administrazioak kontuan hartuz, banaketa honela gelditzen da:

| | |
|---|---|
| - Eusko Jaurlaritza ........................................................................ | 460 |
| - Diputazioak ................................................................................ | 22 |
| - Udalak ........................................................................................ | 95 |

Estatistika labur horren ondoren eta 1997. urtean funtzio publikoaz egin den gestioaren ezaugarrietako batzuen azterketari ekitean, esan beharrean gaude, ezer baino lehen, aurten askoz kexa gehiago aurkeztu direla beste urte batzuetan baino, eta kexok, taldeka aurkeztu ez badira ere, funtzio publikoaren alorretan egin diren kudeatze edo berrantolatze prozesu garrantzi handiko batzuei dagozkiela guztiak.

Egia esan, funtzio publikoaren alorrean ahalegin handia egiten ari gara giza baliabideen kudeaketa arrazionalizatzeko eta arintzeko -lege eta lege aldaketa onartu berriak dira horren frogarik garbiena-, eta ahalegin horren gauzatzeak beti sortzen du arazoren bat, eta erakunde honen aurrean kexak aurkezteko motiboa bidenabar.

Baieztapen hau ez da oinarri gabea, azkeneko hilabete hauetan metatu dugun esperifentzian oinarritua baizik. Izan ere, alor guztiak behar bezala normalizatzeko eta egokitzeko beharrezkoak izango zirelakoan azkeneko hilabeteotan indarrean jarri diren neurri batzuek ez baitituzte beti errespetatu enplegu publikoaren kudeaketan nagusi izan behar luketen berdintasun, meritu eta gaitasun printzioak.

Lehenengo lanpostuaren zain dauden EAEko administrazio orokorreko langile sartu berrien behin betiko lanpostu izendapenak (1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen gehigarria) direla eta, adibidez, kexa ugari jaso dira. Aurrerago aztertuko da hau, aukeratu diren beste kexa batzuekin batera.

Lan edo zerbitzu jakin bat burutu arteko kontratuak gehiago ez egiteari buruzko hitzarmenak ere kexa ugari eragin ditu. Erakunde honen ekimena, ordea, erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legeko 13.1 artikuluak baldintzatu du, delako lege horren arabera Arartekoak ez baitu artean epaia eman gabe dauden kexak aztertzeko eskurik. Izan ere, defentsa bide horretara jo dute gehienek, jurisdikzio sozialak hala egiteko aukera eskaintzen dienez.

Hala eta guztiz ere, ordea, ekintza horretan langile batzuen eta besteen tratua berdina ez izateko arriskua agerian jartzen ahalegindu da Arartekoa, lan edo zerbitzu jakinetarako kontratazioak mozteko agindu horretan formari dagozkion datuak baizik kontuan hartu gabe berrantolatu nahi izan baitira zerbitzuak, arazo hau dagokien langile guztientzako tratamendu bateratu bat bilatu gabe, horretarako maila berean jarri behar baitziren obra edo zerbitzu jakinetarako kontratuz kontratatuiko langileak, alde batetik -nahiz eta kontratu mota horren azpian behin-behineko zerbitzu harreman ezkutatzen zen argi eta garbi-, eta, bestetik, zerbitzu berberetarako behin-behineko izendapenezko kontratuz lotutako langileak.

Egia da gizarte auzietarako epaitegiak askotan berretsi duela kontratu horien desegokitasuna, aldi bateko lan edo zerbitzu jakinak bete ordez behar egonkorrak edo iraunkorrak estaltzen dituztelako.

Espero dezagun epaitegiak bere epaia betearaztea eta administrazioak ahal duen guztia egitea kaltetuak gertatu diren guztiei laguntzeko.

Bestalde, osasunaren alorrean, 1995eko Lan Eskaintza Publikoari buruzko azken neurriak eman dira, eta ordezkapen zerrenda berrien kudeaketari buruzkoak dira gehienak.

Antolaketa berriak, martxoaren 11ko 51/97 Dekretuaren bidez onartua, 1995eko Lan Eskaintza Publiko horretan lorturiko emaitzei eman die lehentasuna, antolaketa irizpide tradizionalen kaltean, hala nola aurreko zerbitzuen zenbaketa sisteman; kaltetuak gertatu diren batzuen artean tirabira handiak sortu ditu horrek.

Auzian esku hartuz Erakunde honek agerian jarri nahi izan du jokabide hori -ordezkapen sistema batetik beste batera aldatzean gertatua, bide batez esanda-, desegokitzat jotzen baitu; izan ere, hutsik dauden lanpostuak arauzko bidez bete artean behin-behineko langileak izendatu ordez, Osakidetzak aldi bateko kontratuak egin baititu (aukeratutako kexa zerrandako 614/97).

Irakaskuntzan ere, hezkuntza administrazioaren behar bezalako erantzuna eskatzen duen egoera korapilatsua sortu da, arrazoi hauengatik: (1) jaiotzak gutxitu egin direlako, (2) LOGSE erreforma (DBH eta DBHO) ezarri delako, (3) hezkuntza-sareak batzeak izan dituen ondorioengatik, eta (4) pixkanaka hizkuntza eskakizunen derrigortasuna ezarri delako.

Urte hau gatazkatsua izan da oso, nahitaezko bigarren hezkuntza eta horren ondokoa ezartzean eta hedatzean, pertsonalari buaiz hartu behar izan diren neurriak direla eta.

Kaltetuetako batzuek bitartekotza egin zezela galdetuz Erakunde honi egin zioten eskea bertan behera utzi behar izan zen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 13.1. artikulua dela eta. Izan ere, lehenago aipatu den bezala, lege horrek ez du artean epaia eman gabe dauden kexetan esku hartzen uzten, eta hori dela-eta, Arartekoa ez da neurri horiek aztertzen luze aritu.

Hala ere, erabaki horiek irakaskuntzan eragin dituzten tirabirek argi eta garbi erakusten dute Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistema publikoak behar bezala konpondu gabeko auzi larriak dituela oraindik.

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza administrazioak aurre egin behar izan dio hemengo hezkuntza sistemak duen berezitasunetako bati, eta gogor saiatu da ikastoletako irakasleak irakaskuntzako funtzio publikoan sar zitezen, izan ere, ikastolek sekulako lana egin baitute denbora luzean gure erkidegoko irakaskuntzan.

Hala ere, hezkuntza administrazio horrek berorrek ez die oraindik behar bezala erantzun hizkuntza sisteman egin diren aldaketengatik irakasleekiko tratuan desberdintasun handiak daudela behin eta berriz salatzen ari diren irakasleei. Esate baterako, hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez duten karrerako funtzionarioek edo, egonkortasun hitzarmena dela-eta, funtzionario behin-behinekoek, Arartekoarengana jo dute biek laguntza eske.

Baina Euskal Autonomia Erkidego honetako hezkuntza sistemaren egungo antolamendua dela eta, Erakunde honek ez du, ez behintzat erakundeak bere jarduera guztietan nahitaez bete behar duen legea hautsi gabe, talde horiei laguntzeko aukerarik, are gutxiago euskal administrazio publikoen jardueraren zuzentasuna zaintzea izanik erakunde honen zeregin nagusia.

Ildo berean, Arartekoak argi utzi die talde horiei ez dagoela erakunde honen parte hartzea eskatzea legezkotasun arrazoiengatik, eta haien egungo egoera ez dela jaiotze tasaren etengabeko beherakadak eta egungo hitzkunza ereduen hedatzeak eta eraketak berak hezkuntza sisteman eragin dituzten gorabehera larrien ondorio baizik.

Hori guztia dela eta, Arartekoari oso komenigarria iruditu zaio Legebiltzarreko alderdi politiko guztiak arazoaren jakitun jartzea, azken batean alderdiek

aztertu eta erabaki behar baitute irakasle talde horiei zer eta nolako trataera eman behar zaien etorkizunean.

Gogoeta orotariko horien ondoren, aukeraturiko kexa zerrenda bat aurkeztuko da orain, aurtengo auzi deigarrienez osatua. Egia esan, aurreko urteetakoen antzeko kexak dira aurtengoak ere; urtero-urtero azaltzen ari diren kexak azaldu dira berriro aurten bideratu diren auzi gehienetan: funtzio publikora sartzeko prozesuak, administrazio publikoetan lan egiten duten langileen hizkuntza gaitasuna, eta abar.

Bestalde, prozedura arauen hausketei buruzko kexak, administrazioaren ondare erantzukizunarekin zerikusia dutenak eta administrazio kontratuen eta ondasunen alorreko jarduerekin zerikusia dutenak dira, **administrazio antolaketaren** alorrari dagokionez, kexarik aipagarrienak.

Zaborra ateratzeko ordutegia ez betetzeagatik bideratu diren zigor espedienteetan agertu ziren zailtasunak ia gainditu dira guztiak, gai horri buruz gure iradokizunak jakinaraziz zuzendu gatzaizkien administrazioen erantzunetatik ondoriozta daitekeenez.

Herritarrei, haiei doazkien prozeduretan hartzen diren akordioak jakinarazteko prozedura formal gisa ediktuak erabiltzeak kezka handia sortu du, Herrizaingoari buruzko iruzkinetan egiaztatu denez; arazoak, baina, zerikusi zuzena duena prozedura kontuekin. Izan ere, zigor prozeduretan denfentsa eskubideak erabiltzeko garrantzi handikoa baita administrazioari buruzko akordioak legeak adierazten duenaren arabera jakinaraztea. Oso komenigarria iruditzen zaigu ere, bestalde, 1995. urteko ekitaldiaren txostenean azaldu ziren gomendio orokorrak kontuan hartzea.

## 3.5.2. AUKERATUTAKO KEXAK

### 3.5.2.1. **FUNTZIO PUBLIKOA**

#### A) **Funtzio publiko orokorra**

***Sarbidea***

*Durangoko Merindadeko Ur Partzuergoa. Zehaztu gabeko lan errejimenean eta lehiaketa bidez lanpostuak betetzea (207/97)*

• Erreklamazioa

Kexa bat jaso zen Durango Merindadeko Ur Partzuergoak lanpostuak betetzeko egindako dei publiko bati buruz. Muga gabeko kontratua eta lanpostu hauek eskaintzen ziren: (1) isurketa burua, (2) administraria eta (3) lehen mailako iturgin ofiziala.

• Azterketa

Kexa hau bideratzea onartu ondoren egin zen azterketan erakunde honek jakinarazi zuen ezen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legeak behartzen duela funtzionario karreradunak eta langile iraunkorrak oposizio bidez eta lehiaketa-oposizio bidez hautatzea. Oso kasu berezietan baino ezin da lehiaketa sistema erabili, hain zuzen ere oso lanpostu bereziak izateagatik meritu jakin batzuk, esperientzia jakin bat edota ezagutza frogen bidez neurtu ezin diren ezaugarri jakin batzuk eskatzen direnean baino ez.

Beste epai batzuk era aztertu ziren, eta horietan adierazten zenez:

*«...lehiaketa-oposizioaren eta oposizioaren aldean, lehiaketa ohiz kanpokoa da, eta hura erabili nahi bada, langileak bete beharreko funtzioek ezaugarri berezi-bereziak dituztela justifikatu beharko da. Aipatu beharrekoa da ezen lanpostura aurkezten den langilearen gaitasuna lehiaketa-oposizio bidez neur litekeela inolako arazorik gabe, zer lanpostu mota den eta lana zertan datzan kontuan hartuz betiere, eta* ez *dagoela inolako arrazoirik lehiaketa-oposizioa lehiaketa librearen mesedetan baztertzeko, salbuespenetan baizik ez baita lehiaketara jotzen.»* (Auzitegi Nagusiko epaia 95.04.18 - 1995/5265).

Horregatik, eta Durangoko Merindadearen Ur Partzuergoak kexari erantzunez erabili zituen arrazoiak aztertu ondoren, erakunde honek erabaki zuen ezen aztertzen ari garen kasu honetan ez zegoela oposizioaren edo lehiaketa-oposizioa bazterrera uzteko inolako motiborik.

Hala beraz, (1) Partzuegoan langile kopuru txikia aritzea, (2) uraren araztasunaz eta horniduraz arduratzen den zerbitzu oinarrizko baten erantzukizuna, edota, (3) enpresa espezializatuen alde, azpikontratatuteriko lanen kontrol zehatza egin beharra, arrazoi sendoak ziren lehiaketa-oposizio bidezko aukeraketa sistema ez baztertzeko, lehiaketa-oposizioaren bidez hautagaien gutxieneko gaitasuna ez ezik Partzuergoak eskatzen zituen merituak ere, bai profesionalak bai esperientziari buruzkoak, neur baitzitezkeen.

Areago oraindik, Partzuergoaren deialdi publikoak berak ez zuen langilearen prestakuntza bereziari edo ibilbide profesionalari buruzko meriturik kontuan hartzen, eta bai, ordea, lehiaketa-oposizio bidez egiten den edozein hautaketa prozesuan bezala, antzinatasuna, prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak egin izana, ezagutza espezifikoak izatea eta euskara jakitea.

• Emaitza

Horregatik guztiagatik, Ararteko honek adierazi du oso komeniko litzatekeela deialdi horren edukia berriro aztertzea eta lehiaketa hutsaren ordez beste aukeraketa sistema bat erabiltzea langilea hautatzeko.

Bere erantzunean Durangoko Merindadeko Ur Partzuergoak, hurrena egingo ziren aukeraketa prozeduretan erakunde honen gomendioak kontuan hartzeko

borondatea agertu bazuen ere, adierazi zuen ezen amaitua zela kexari bide eman zion hautaketa prozedura, Ur Partzuergoa ez baitzetorren bat erakunde honekin. Beraz, ez zen kontuan hartu Arartekoaren gomendioa.

*UPV/EHUren Enplegu Eskaintza Publikoa: zerbitzuen balioztatzea eta azterketa eskubideen ordainketa (1582/96)*

• Erreklamazioa

UPV/EHUk 1996ko abenduan egin zuen lan eskaintza publikoan interesa zuten pertsona batzuek erakunde honen laguntza eskatu zuten hautaketa frogarako deialdian iragarri ziren puntu hauen inguruan:

(1) beste administrazio publiko batzuetan eginiko zerbitzuengatik lehiaketako meritu baremoan aurreikusten den puntu kopuru handiena (9 puntu) UPV/EHUn bertan eginiko zerbitzuengatik lor daitekeena (18 puntu) baino askoz ere txikiagoa izatea.

(2) azterketa eskubideak eskatzea.

• Azterketa

Arartekoak, goian salatu diren gorabehera horien arrazoiak UPV/EHU berari eskatu ondoren, hau kontsideratu zuen:

Esperientziari ematen zaion balioa

- esperientzia meritu bat dela, dudarik gabe, eta esperientziari garrantzia ematea ez dela berdintasunaren aurkakoa, eta, tratu gorabeherak justifika ditzakeen kualitate bat den neurrian, guztiz bateragarria dela EEko 14. artikuluarekin.
- unibertsitatean lorturiko esperientziari garrantzi handiagoa ematea erakunde horren berorren antolaketa eta funtzionamenduaren ezagutza zuzenari lehentasuna emateko komenentziarekin justifika daitekeela.
- esperientzia neurrigabe saritzea dela berdintasun printzipioaren aurka dagoena, hautaketa prozesuaren emaitza erabaki baitezake.
- UPV/EHUk egin duen deialdi horren kasuan, baina, baliteke neurrigabe saritzea UPV/EHUn bertan eginiko zerbitzuak, eta baremorako onarturiko puntuek hautagaien arteko konkurrentzia egiazkoa ukatzea eta hautaketan erabakigarriak gertatzea.

Azterketa eskubideak

- Deialdia egin zen egunean (1996ko abenduaren lOean) -eta tasak inprimakia eskatzen edo eskabidea egiten den egunean (epea abenduaren 31n amaitu zen, 20 egun natural igarota) ordaindu behar direnez- indarrean sartu gabe zegoen EAE eta bere organismo autonomoetako administrazio-

etan lan egiteko hautagaiak aukeratzeko deialdietan izena emateagatik ordaindu beharreko tasak tasa orokorren artean sartzen dituen 10/1996 Legea, abenduaren 27koa, sartu ere, 1997ko urtarrilaren lean sartu baitzen indarrean.

- Hori dela eta, eta administrazio publikoan sartzeko hauta probetan azterketa eskubidea kobratzea oso zabalduta egon arren, azterketa tasak ordainarazteko aski lege oinarririk ez dagoela jakinaraztera behartu zuen zergen legezkotasunari buruzko printzipoak.

• Emaitza

Arartekoaren erakundeak bi gomendio eman zizkien UPV/EHUko buruei:

1. 34/1997 gomendioa, martxoaren 7koa, non deialdien arauetan zerbitzuei zenbateko balio eman behar zaien berrikustea, hautagaien artean egiazko konkurrentzia izan dadin.

2. 87/1997 gomendioa, ekainaren 10ekoa, non hauta probetan parte hartzeagatik eginiko kitapenak deuseztea eta bidegabe ordainduriko dirua itzultzea eskatzen zen.

Lehenengo gomendioari buruz UPV/EHUk adierazi zuen egina zela arrazoi hargatik beragatik administrazio auzietarako helegite bat, eta hala, erakunde hau sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 13.1 artikuluaren arabera, bertan behera utzi behar izan zen Arartekoaren ekintza hau. Izan ere, lege horrek dioenaren arabera: «Arartekoak bertan behera utziko du bere ekintza baldin eta berori hasi ondoren hartan interesa duen norbaitek auzitegi arruntera jotzen badu».

Bigarrenari dagokionez, eta Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenaren Administrazio Auzitegia horren aldekoa zela jakin ondoren, UPV/EHUk jakinarazi zuen bertan behera utziko zituela iragarritako deialdiak eta azterketa eskubideagatik ordainarazitako dirua itzuliko zuela atzera. Hortaz, bukatutzat eman genuen gure ekintza.

***Karrera***

*EAEko Administrazio orokorrean lehenengo destinoaren zain dauden funtzionarioen behin-betiko lanpostu izendatzea (1451/97)*

• Erreklamazioa

EAEko administrazioan diharduen funtzionario talde handi batek erakunde honen laguntza eskatu zuen 1996/10 legearen zortzigarren xedapen gehigarria, otsasilaren 27koa, EAEko 1997ko aurrekontua onartu zenekoa eta destinoaren zain zeuden langile sartu berrien behin-betiko lanpostua izendatzea erabakitzen zenekoa, indarrean sartzera zihoalako.

Erakundera jo zuten funtzionario guztiek Lehendakaritza, Justizia eta Autonomia Garapenerako Sailburuak 1990eko urtarrilaren SOeko Aginduan deituriko lehiaketa-oposizioaren bidez lortu zuten funtzionario kargua, eta geroago,

orobat Lehendakaritza, Justizia eta Autonomia Garapenerako Sailburuak 1990eko abenduaren 28an eman zuen Aginduaren bidez lortu zuten behin-betiko destinoa.

EAEn egin zen azken lekualdatze lehiaketaren ondoren egin zirenez destino baten jabe, kaltetuak sentitzen ziren 1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen gehigarri horregatik, enplegatu publikoen sarbidea eta karrera administratiboa zuzendu behar duten berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioen kontrako jotzen baitzuten.

• Azterketa

Kexa aurkeztu zutenen ustez xedapen gehigarriak mesede egiten zion zenbait funtzionariori, hala nola:

1. Oposizioa geroago egin zutenei

Kexa aurkeztu zuten funtzionarioek zalantzan jartzen zuten administrazio karreraren berdintasuna, haien ustez 1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak aurreikusten zituen lanpostu izendatzeek destino baten jabetza lortzeko aukera ematen baitzuten lanpostuz aldatzeko azkeneko lehiaketan eskaini gabe utzi baziren ere.

Egia esan, funtzionarioen lekuz aldatzeko eskubidea esanez kexa aurkezten zuten funtzionarioen kexabide horren aurrean, alegatu zitekeen funtzionarioen lekuz aldatzeko eskubideak ez dakarrela berez haiei lanpostu jakin batzuk emateko eskubidea, une jakin batean hutsik dauden lanpostuak ematekoa baizik.

Ikuspegi horretatik, bada, eta kontuan harturik, gainera, funtzionarioak lekuz aldatzeko aukerak faktore aleatorio batzuen mende daudela eta faktore horien eraginez izendatzeko lanpostuak aurrez ezin ezagut daitezkeela, horregatik guztiagatik, Arartekoak ez zituen desegokitzat eman haientzat izendaturiko lanpostuak, izendatze hori zegokion helburuaren araberakoa baitzen, EAEko Administrazioaren funtzio publikoari gutxieneko egonkortasuna emateko helburuaren araberakoa, alegia.

Nolanahi dela ere, hasierako salaketa horrek, agian termino orokorregietan adierazia egon arren, bazituen, gure ustean, zenbait arazo aski sakonagoak, kontu eta arreta handiagoz aztertzekoak.

Izendatutako lanpostuek, izan ere, lekualdatzeko lehiaketetan aldez aurretik iragarri gabe utzitako lanpostuen jabe egiteko aukera ez baina lanpostu maila igotzeko aukera ematen zuela baitzirudien.

Ez da aipatu gabe utzi behar, nolanahi ere, erakunde honek funtzionarioen lanpostu mailaren arazo honetan agertu zuten arretaren gaia ez zirela izan maila jakin bateko lanpostua izateak ekonomian edo lansarietan izaten dituen ondorioak, maila horrek funtzionarioen administrazio karreran zalantzarik gabe izaten dituen ondorioak baizik, horretarako dauden lege arauek diotena kontuan harturik, hala nola 6/89 Legearen 46.3 artikuluak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio

Publikoari buruzkoak dakarrena, nahitaezko meritutzat jartzen baitu, lanpostuen betetzeko lehiaketetarako deietan, lanpostu maila jakin bat edukitzea.

Hori jakinik, bada, gogoratzeko gauza da orobat lanean sartu berri diren funtzionarioen artean, EAEko administrazio orokorra eta gisako neurri bat duten administrazioetan behintzat, hasieran oinarrizko mailetako lanpostuetan edo haien hurbilekoetan aritzea izan ohi dela ohitura, eta haietatik aurrera hastea zeinek bere administrazio karrera.

Bide horri segituz gero, argi ikusi genuean EAEko funtzio publikoari gutxieneko egonkortasuna ematea helburu zuen neurri baten aurrean ginela berriro. Eta hala, barkagarria iruditzen zaigu lekualdatze lehiaketarik egin ez izana eta lanpostu mailak sendotzea indarrean dagoen araudian aurreikusten diren prozedurak kontuan hartu gabe.

Nolanahi ere, propozionalitate hori, neurri desberdinak onartzean kontuan hartu beharrekoa beti, hautsi egingo litzateke baldin eta, alorra berrantolatu beharra aitzakiatzat harturik, sustatze profesionalak gordeko balitu, horrek ez baitu jarritako helburuarekin batere zerikusirik.

Azkeneko ideia hori argitzeko asmoz, azter dezagun zer gertatuko litzatekeen 1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen gehigarria zehaztuz gero:

a) Hasierako lanpostu berean zeuden funtzionarioak
Kasu honetan ez zen arazorik aurkezten, hasierako lanpostua oinarrizko mailetako bat bazen behintzat.
b) Adjudikatu zitzaien hasierako lanpostua desagertu ondoren beste lanpostu bat, bigarrena, izendatuta zuten funtzionarioak.
Egoki derizkiogu hauei ere, kendu diren lanpostuen behin-betiko jabeentzat izendatua dagoen tratu berbera ematea (Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 45.3 eta 51. artikuluak), jabe gisa zuten lanpostuari zegokion maila finkatzeko baimena ematen baitu.
c) Lanpostuen Zerrendaren bitartez hasierako lanpostuan aldaketaren bat izan duten funtzionarioak
Kasu honetan, lanpostuari eusteak ez zuen (ezta maila aldaketa bat bitarteko ere) behin-betiko lanpostu jabeentzat indarrean zegoen araudian aurreikusten zen tratamendua berritu baino egiten.
d) Lehengo lanpostua aldatu eta bigarrena izendatu dieten funzonarioak

Puntu honetan bai, langileen kudeaketak zituen berezitasunak kontuan harturik, arazoak izan zitezkeela ikusi genuen.

Lekualdaketa langilearen borondatearen kontra egina bazen, eta behin-betiko lanpostua zutenentzat indarrean zen araudian aurreikusitako tratamendua bezalako elementu baliagarririk izan gabe konparazioa egiteko, lanpostua kendutako jabeentzat aurreikusitako tratamendua haientzat zabaltzea iruditu zitzagun egokiena, bigarren lanpostua behin-betiko izendatzeak lanpostu maila handitzea eragozten ez bazuen behintzat.

Baina, aitzitik, langileak berak hala eskatuta egina bazen lekualdatzea, zerbitzu eskakizunaren antzeko irudi baten aurrean egongo ginela egin genuen, eta horrek argi eta garbi eraman behar gintuen, lanpostu maila handiagoak lortzea saihestuz, ezkutuan nolabaiteko sustapen profesionala bideratzea eragoztera.

Laburbilduz, eta lehentxeago aipatu diren kontsiderazio batzuetara itzuliz atzera, esan behar da ezen, Arartekoak beharrezkotzat jo zuela 1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen orokorra kontu handiz aplikatzea EAEko Administrazioaren funzio publikoan gutxieneko egonkortasuna lortzeko helburuarekin bat ez zetozen lanpostu mailak eragotzi nahi baziren.

2. Kexa aurkeztu zutenen oposizio bereko funtzionarioak

Funtzionario talde horri dagokionez, kexa aurkeztu zuten langileek salatzen zuten alde handiak zeudela antzinatasunean eta lanpostu mailaren sendotasunean. Izan ere, 1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren aginduz, zegokienei hasieran behin-behinerako izendatu zitzaizkien lanpostuak hartu zituzteneko datara atzeratzen baitzen behin-betiko lanpostua izendatu zieten data, horrek dituen ondorioetarako.

Aurreko atalean lanpostu mailari buruz egindako oharpenak kontuan harturik, eta izendatzeko zeuden lanpostu gehienak oinarrizko mailei edo ingurukoei zegozkiela eginik, eta Arartekoaren ustez, izendatze berri horiei ezagutzen zitzaien ondorio data gorabehera (bi urtetan zaharragoa, azkeneko lekualdatze lehiaketari ezagutzen zitzaiona baino), ez zuen aparteko ondoriorik izango lanpostu mailan, zeren EAEko Administrazioko mugikortasun prozesuak gelditzeak funtzionarioei lanpostu maila zegokien lanpostura berdintzea baitzekarren.

Egia da, bestalde, aztertzen ari garen lanpostu izendatzeen ondore datak gorabeherak eragiten dituela destinoaren jabe diren funtzionarioen antzinatasunean.

Horrek izango zituen ondorioak neurtzean ezin genuen alde batera utzi, 6/89 Legearen 46.3 artikuluan -uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa- aipatzen denaren arabera, antzinatasuna nahitaezko merituzat hartuko dela lanpostuak betetzeko egingo diren hurrengo deialdietan.

Erakunde honen aburuz, 1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren erredakzioa aldatzea zen funtzionarioen karrera administratiboan, aurrerantzean, antzinatasunagatik desberdintasunik izango ez dela ziurtatzeko bide bakarra.

Eta bide batez euskal administrazio publiko guztietara zabalduko litzateke antolaketa prozesuetan sortzen diren gorabeherak eragozteko neurriak hartzeko premia.

Nolanahi ere, uste dugu, legezko tresna hori erabili nahiko ez balitz ere, egokitzapena egin, egin beharko litzatekeela nola edo hala; adibidez, konpromezua hartuz aurrerago egingo diren araudiekin edo lanpostuak betetzeko egingo diren deialdiekin.

Azkeneko bide hori aukeratuz gero, antzinatasunari buruzko arreta gainerako euskal administrazio publikoetara zabaldu beharko litzateke, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua bezalako organoei aitortzen zaizkien koordinazio eta proposamen ahalmenak erabiliz.

Idatzi honetan lehenago ere esan dugun bezala, arretaz jokatzekotan, Arartekoak ontzat jo zituen berrizendatze neurriak, sektorean gutxieneko egonkortasuna behar zela kontuan harturik.

Hala ere, kexa aurkeztu zuten funtzionarioen karrera administratiboaren geroari buruzko kezka zela eta, Arartekoak argi zeukan ez direla gauza bera behin-betiko lanpostua lortzea meritu lehiaketa baten bidez edo xedapen arauemaile baten bidez. Hori dela eta, aurrerantzean, gorabehera hori dutela egiten diren lanpostu deialdietan elementu orekatzaile bat sartzea pentsatu zen.

Eta hala, komenigarria iruditu zitzaigun meritu gehigarri bat eranstea, alegia, zein den lehiatzen den postura iristeko bidea: meritu lehiaketa ala xedapen arau emailea.

• Emaitza

Arartekoak gomendio hau eman zuen:

*«1- 1997ko Aurrekontu Legearen zortzigarren xedapen gehigarriari behar diren arreta neurri guztiak gehitzea EAEko Administrazioaren funtzio pubhkoari egonkortasuna emateko helburuarekin bat ez datorren lanpostu mailak ez dezan aurrerantzean eraginik izan funtzionarioen administrazio karreran.*
*2- Behar diren neurriak hartzea, 1997ko Aurrekontuen Legearen zortzigarren xedapen orokorraren erredakzioan ez bezala, destino baten jabe den funtzionarioari antzinatasun handiagoa ezagutzeagatik desberdintasunik izan ez dadin funtzionarioen administrazio karreran.*
*3- Kontuan hartzea funtzionarioen administrazio karreran elementu orekatzaileak sartzeko aukera, hala nola lehiatzen den lanpostura iristeko bideari buruzko meritu gehigarri bat erantsea.»*

Ekintza horri erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariorde eta Ogasun eta Administrazio Publikorako Sailburu jaunak txosten bat helarazi zigun, non, besteak beste, hau esaten baitzen:

*«Zure 138/1997 gomendioari erantzunez, atsegin handiz jakinarazten dizut Eusko Jaurlaritza guztiz bat datorrela Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontua onartzen duen abenduaren 27ko 10/1996 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren helburua gainerako funtzionarioen eskubideen kalterako izan ez dadin hartu behar diren arreta neurri guztiak hartzeko asmoarekin. (...)*

*Eta uste dugu, hori bermatuko bada, Xedapen Gehigarriaren onuradunak baino lehenago sartu arren, behin-betiko lanpostua geroago ebatzitako lehiaketetan lortu duten funtzionarioak ez kaltetzeko, behardiren zehaztapenak sartu beharko direla aurrerantzean egingo diren deialdietako oinarrietan.*

*Gainerako euskal administrazioek gauza bera egin dezaten auzia Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluan aztertzeko iradokizuna ere orobat dugu ointzat hartzen.»*

Arartekoaren iritziz, Jaurlaritzako Lehendakariordetza gomendioa betetzeko prest agertu zenez gero, konpondutzat jo zitezkeen interesdunek beren kexen bitartez erakunde honi helarazi zizkioten salaketa orokorrak.

Eta horrenbestez, amaitutzat eman genuen gure lana, baina, betiere, aukera uzten genuela auzia berriz aztertzeko inoren administrazio karreran hausketarik gertatuz gero gure gomendioen aurretik azaldutakoaren arabera.

### *Eskubideak: prestakuntza ikastaroak*

*Hizkuntza gaitasunari buruzko ikastaroak EAEko administrazioko langileentzat (1559/97)*

• Erreklamazioa

Laugarren hizkuntza eskakizuna prestatzeko ikastaroa egin nahi zuen funtzionario batek HAEEren jarrera salatu du erakunde honen aurrean, hirugarren hizkuntza eskakizunaren jabe izan arren, sarrera eragotzi ziotelako bere hizkuntza maila nahikoa ez zelakoan.

• Azterketa

Hizkuntza gaitasunari buruzko ikastaro horiek ebazpen baten bidez iragarri ziren 1997ko maiatzaren 19an.

Ikastaroa egin ahal izateko bete beharrekoak deialdiaren testuan agertzen ziren:

- Laugarren hizkuntza eskakizuna, beharrezkoa izan edo ez, izendatua izatea eta euskara maila jakin bat izatea -HABEren 12 edo ALFA-2, gutxienez-.
- Hirugarren hizkuntza eskakizuna -beharrezkoa izan edo ez- izendatua izatea, eta hizkuntza eskakizun hori -edo horren pareko titulu bat- egiaztatua izatea.
- Hirugarren hizkuntza eskakizuna duen eta gutxienez diplomaduna den beste edozein langile.

Bestalde, eskari gehegi izan ezkero lehentasuna nori emango zitzaien zehazten zen:

- Laugarren hizkuntza eskakizuna lortzeko ikastaroa egiten ari direnak.
- Lanpostuan laugarren hizkuntza eskakizuna izendatu zaien langileak.
- Lanpostuan hirugarren hizkuntza eskakizuna izendatu zaien langileak.

Egia da deialdiaren oinarrien 3.5 puntuan ikastaroan sartzeko azterketa bat egitea eskatzen zaiela hautagai guztiei: *«ikastaroa baino lehen azterketa bat egin beharko dute hautagai guztiek -salbu eta* 96-97 *ikasturtean hasi zutenek-, talde homogeneoak eratu ahal izateko. Azterketa horretan batez ere ahozko eta idatzizko gaitasun aktiboak ebaluatuko dira. Hala beraz, azterketa horretako emaitzen arabera eratuko dira ikastaroan parte hartuko duten taldeak.»*

Oinarrien arabera, beraz, ikastaroan sartzeko azterketaren helburua talde homogeneoak eratzea baino ez zen eta horren arabera baino ezin zitezkeen neur emaitzak. Inon ez zen zehazten hautagaiak bazterrera utz zitezkeenik euskara maila jakin bat ez izateagatik, eta horixe zen hain zuzen erakunde honetan salaketa jarri zuen funtzionarioaren kasua. Inondik ere ez zen ikastarorako sarbidea euskara ezagutzaren mende jartzen, jakintzat ematen baitzen, ikastaroan sartzeko, edo 3HE edo 12. maila edo HABEren ALFA-2 behar zela.

• Emaitza

Erakunde honek gomendio bat helarazi zion HAEEri, 4. hizkuntza eskakizuna lortzeko 1997-1998 ikasturtean emango zen ikastaroan sartzen uzteko kexa aurkeztu zuen funtzionarioari.

HAEEk ontzat hartu zuen gure gomendioa, eta horrenbestez bukatu zen erakunde honen egitekoa.

## B) **Irakaskuntzaren funtzio publikoa *Lansariak***

*Pedagogia Aholkularitzako Taldeetako (PAT) eta Hezkuntza Baliabideetarako Zentro Espezializatuetako Irakasleak: lansaria A taldekoenarekin egokitzea (555/96)*

• Erreklamazioa

Pedagogia Aholkularitzako Taldeetan eta Hezkuntza Baliabideetarako Zentro Espezializatuetan diharduen irakasle talde batek, B taldekoak, erakunde honetara jo zuen laguntza eske; B taldekoak izanagatik A taldean sartzeko eta horren arabera irabazteko eskubidea onartu zitzaien beste irakasle batzuekin parekatzea eskatzen zuten. (Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenaren epaia, 470/95, irailaren 16koa).

• Azterketa

Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenaren Administrazio Auzietarako Salaren 470/95 ebazpena betearazteak ez zuen, nonbait, oztoporik jarri kexa aurkeztu zutenek A taldean sartzeko eskubidea ezagutzeagatik zegokien dirua har zezaten.

Aitzitik, taldean sartzeak -bai beste talde espezifiko bat sortuz bai lehendik zeogenetako batean sartuz- hezkuntza administrazioaren aurkako jarrera eragin zuen, justiziaren agindua bere gain hartzeko ezintasuna agertu baitzuen.

Horren aurreran bazirudien betearaztear zegoen auzi horrek ez zuela eraginik izango auzi jartzaileen eta irakasleei laguntzeko zentro horietan lan egiten zuten eta berez A taldekoak ziren gainerako langileen artean egindako lansaria parekatzean.

Hori dela eta, Arartekoaren iritziz eta datu horietan arabera, esan liteke Pedagogia Aholkularitzako Taldeetan eta Hezkuntza Baliabideetarako Zentro Espezializatuen barruan dauden irakasle taldeek ezaugarri berdinak izanagatik -hau da, jatorriz talde batekoak izan eta B taldean sartu izana; titulu bera izatea-lansari desberdina zutela, tratu desberdin hori justifikatzeko inolako arrazoi objektiborik ez bazen ere, non eta ez zen lehenago aipatu den Euskal Herriko Justizia Epaitegi Gorenaren epai hura.

Horri erantzunez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak txosten bat helarazi zion erakunde honi:

> *«Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen VI Tituluak, Administrazio Publikoetako funtzionarioen lansariak arautzean, lansari oinarrizkoak eta osagarriak definitzen ditu 78eta 79 artikuluetan. Eta hala, soldatari eta destinoko osagarriari dagokionez, hau xedatzen du:*
>
> > *'Oinarrizko ordainsariak dira:*
> > *a) Lege honetako 43. artikuluak aipatzen dituen Taldeetako bakoitzari dagokion soldata.'*
> > *'Ordainsari osagarriak dira:*
> > *a) Betetzen den lanpostuari dagokion destinoko osagarria.'*
>
> *Orobat aipatu behar da 177/1990 ebazpena, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionario ez unibertsitarioen ordainsariei buruzkoa, funtzionarioa dagoen taldearen eta mailaren arabera zehazten baititu ordainsariak destinoko osagarriak arautzean. Aurrekotik ateratzen denez, bai soldata bai destinoko osagarria, funtzionarioa dagoen Gorputzaren eta Mailaren arabera zehazten dira. Irakasle talde hau barne duen Gorputz eta Mailari dagokionez, aipatu beharra dago 1995eko irailaren 29an Epaitegi Gorenak orain esku artean dugun hau bezal-bezalako kasu batean emandako epaia, Gorputz batera meritu lehiaketa bidez sartzea ezinezkoa dela berresten duena. Beraz, irakasle talde hau oraindik ere jatorriz dagokion Gorputzari dagokiola kontuan izanik, eta soldata eta destinoko osagarria Gorputza-*

*ren eta Mailaren araberakoak direla kontuan harturik, Zuzendaritza honek uste du ez dagoela lege bermerik talde horri A Taldearen oinarriko soldataz eta 24 destinoko osagarriaz ordaintzeko.*

*Langile taldeari, berriz, Hitzarmenean erabakitakoaren arabera ordaintzen zaie, duten lan mailaren arabera. Dutena baino goragoko maila bati legozkiokeen betebeharrak betetzen dituztela uste izanez gero, dagokion kexa aurkeztu beharko dute.*

*Talde honetako irakasleen ordainsarietan dagoen gorabehera dela eta, esan beharra dago, ez direla izaera bereko edo antzeko auziak, batzuek Administraziora jo baitute kexa aurkeztera -eta jasoa dute zigor epaia-, eta beste batzuek, berriz, ez.*

*Are gehiago, Administrazioak ez du Auzitegiak ebatzitako auziekiko batere aukerarik, ados ez bada ere, zeren, Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 17. artikuluan esaten denaren arabera, errespetatu eta bete egin behar baititu sendotasuna irabazi duten edo betegarriak diren erabakiak.*

• Emaitza

Erakunde honen iritziz, txosten horren azalpenek ez dute ezertan aldatuko gure lehengo ondorioa: alegia, Pedagogia Aholkularitzako Taldeetan eta Hezkuntza Baliabideetarako Zentro Espezializatuetan zenbait irakasle taldek, ezaugarri berdinak edo antzekoak izanagatik -hau da, jatorriz talde berekoak izatea eta B taldean sartuak izatea, edota ari diren lanpostuetarako titulu berdina izatea-, ordainsari desberdina jasotzen dutela, hartarako inolako arrazoirik ez bada ere.

Beraz, diskriminazio horri konponbidea jartzea eta, irakasleei laguntzeko zentroetan ari direla, ezaugarri berdinak edo antzekoak dituzten irakasle guztien ordainsariak berdintzea gomendatu zen.

Hala ere, elkarrekin sarritan hitz egin ondoren, hezkuntza arloko buruek ez zuten irakasleen ordainsariak berdintzeko gure proposamena onartu, eta horrenbestez, auzian bitartekotasuna egiteko genituen aukera guztiak agortutzat emanik, gure ekintza bertan behera uztea erabaki genuen.

***Behin-behineko funtzionarioak***

*Irakasleen ordezkapenak. Zerbitzuak kontuan hartzea oker egindako deialdietan (560/97)*

• Erreklamazioa

Irakaskuntza ertainean ordezkapenak egiteko hautagai batek erakunde honen bitartekotza eskatu zuen, administrazioaren deialdi oker baten erruz bete gabe utzi behar izan zituen zerbitzuak kontuan har ziezaizkioten.

• Azterketa

Hasieran, hezkuntza administrazioak aitortu egin zuen kexa eman zuena baino maila beheragoko hautagai baten dei okerra.

Hala ere, eta dei hori oker egin zela onartuagatik, Hezkuntza Sailak ez zuen onartu pertsona horren eskaera -alegia, onar ziezaizkiotela zerbitzuak eta zerbitzu horiei zegokien ordainsaria eta, beste ordezkapen batzuetan parte hartu ahal izateko gero, mailaketa (puntuazioa)-; izan ere, Hezkuntza Sailaren iritziz indarrean dagoen araudiak, Langileen Kudeaketarako Zuzendaritzak 1995eko irailaren 13ko Ebazpenean jasoa, ez baitu aski babes juridikorik eskaintzen hartarako.

Eskuratu genuen informazioa kontuan harturik, Arartekoak zehaztapen hauek egin beharra ikusi zuen:

- Gauza logikoa da 1995eako irailaren 13ko Ebazpen horrek -irakasleen ordezkapenak arautzekoa- zerbitzuak aintzat hartzea lan ezbeharra dela, eritasuna dela edo amatasuna dela eta langilea aldi batean ezindua gertatzen denean, zeren, arretazko neurri hori ezean, eta hezkuntza administrazioaren aldetik inolako lege hausterik ez dagoenez, ezindua gertaturiko langileak ez bailuke halako eskaririk egiteko eskubiderik.
- Hala ere, kontuan hartu behar da, aztertzen ari garen kexa honetan azaltzen diren kasuetan bezala, administrazioak egin eta hala onartzen duen ekintza oker jakin batengatik aldatu egin den banako baten egoera zuzentzera bideratzen direla kaltetua gertatu den pertsonaren nahiak.
- Izan ere, hala izango ez balitz, administrazioak egin eta hala egin duela onartzen duen ekintza batengatik kaltetuak gertatzen diren pertsonei kalte hori ordaindua izan dadin administrazio justiziak eskaintzen dien bideak ez bailuke ezertarako balio.
- Eta hala, aztertzen ari garen kexa hau sortu zuen okerra hala egin izan ez balitz, kexa aurkeztu duen langile horrek hamabost eguneko zerbitzua bete izango zuen, eta ordainetan, zerbitzu horri zegokion ordainsaria eta egindako zerbitzuen aitorpena jaso izango zuen.

• Emaitza

Arartekoak gomendatu zuen kaltetua gertatu zen pertsona horri ordaina ematea egindako kalteagatik, gutxienez onar ziezazkiotela egindako zerbitzuak maila handiagoa (puntu gehiago) izateko beste ordezkapen batzuetara sartzeko lehiatzen zenerako, eta egindako kalte ekonomikoagatik ondare erantzukizuna eskatzeko aukerari baztertu gabe betiere.

Gure aldetik ahalegin asko eginagatik, hezkuntza arloko buruek ez zituzten aintzat hartu gure gomendioak, eta hortaz, bertan behera utzi behar izan genuen gure bitartekotza.

B) **Osasun arloko funtzio publikoa**

***Sarbidea***

*Osakidetzaren Lan Eskaintza Publikoa. Barne promozioko txandaz iristea. Aurreko esperientzia profesionalaren balioztatzea (1500/96)*

• Erreklamazioa

Osakidetzaren azkeneko Lan Eskaintza Publikoan parte hartu zuen talde batek erakunde honetara jo zuen laguntza eske barne promozioko txandetan ez zirelako kontuan hartu zerbitzu eginkizun gisa betetako zerbitzuak, eta bai, aldiz, aldi bateko langile gisa betetakoak.

• Azterketa

Osakidetzako arduradunekin hitz egin ondoren, Osakidetzako langileen lan baldintzei buruzko Akordioaren 54 d) artikulura eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legera («lanpostu *bat zerbitzu eginkizun gisa betetzeak jatorrizko lanpostua gordetzea dakar*»), uztailaren 6kora, lotu ziren haiek, eta zioten destinoko lanpostuan zerbitzu eginkizun gisa beteriko zerbitzuek ez zutela, berez, ezeren eskubidea ematen, eta ezta, beraz, aztertzen ari garen kexan aipatzen zen Lan Eskaintza Publiko horretan barne promozioa eragiten ere.

Arartekoaren erakundeak, berriz, kexa behar bezala tratatuko bazen, beste ikuspegi batetik aztertzea gomendatzen zuen, alegia, enplegu publikoan beti kontuan izan behar diren berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak aintzat hartuz.

Asmo horrekin helarazi zitzaizkion Osakidetzako Zuzendaritza Orokorrari hurrengo kontsiderazio hauek:

> *«...ez da behintzat zalantzan jartzen maila berean lehenago egindako lana meritutzat hartzea deialdi horietako lehiaketan. Are gehiago, deialdietako oinarrien testuak berak balioa ematen dio laneko esperientziari, maila bereko lanpostuei badagokio behintzat, baina ez du, ordea, bi aldiz egindako zerbitzit batengatik balio bikoitza zenbatuko.*
> *Hori dela eta, oinarri horietan ez da aipatzen zerbitzu horiek zein probisio erregimen edo sistemaren arabera eman diren, izan ere, lehen esan bezala, zertiitzuak bi aldiz kontatzeko aukerarik ematen ezdenez, ez da beharrezkoa baremazio-irizpideak hobeto zehaztea.*
> *Eta hala, kexa espediente hauetan gure lana da zehaztea ea organismo honek deitu duen behin-behineko barne promozioan probisio modu bat edo beste ezartzera behartu duten baldintzatzaile formalek desberdintasunak sor ditzaketen, hautagaiek alegatu duten bezala, lan esperientzia neurtzeko orduan.*

*Erakunde honen iritziz, baldintzatzaile formal horiek ezin dira berdintasun printzipioa hausten ez duen tratu desberdintasun bat justifika dezaketen arrazoi objektibo nahikotzat hartu.*
*Beste hitz batzuekin esateko, zerbitzu horiek -zerbitzu eginkizun gisa edo behin-behineko lanpostu gisa- bete diren modua ez da inondik ere desberdin tratatzea justifikatzeko moduko faktore diferentzial bat. Ildo horretan, beraz, zerbitzu eginkizun gisa bete diren zerbitzuak -zeinak, berriro diogu, ikuspegi material batetik begiratuz gero beste edozein errejimenaren azpian beterikoak bezal-bezalakoak baitira-aintzat hartzeak ez du berez ezeren eskubidea ematen, eta, hortaz, Arartekoaren iritziz, erantzun idazkietan alegatzen duzuen arazoa ere ez da kontuan hartzekoa.»*

• Emaitza

Arartekoaren erakundeak gomendatu zuen aintzat hartzea zerbitzu eginkizun gisa betetzen ziren zerbitzuak Osakidetzaren 1995eko Lan Eskaintza Publikoaren hauta proben deialdien barne promozioko txandetan.

Osakidetzak eutsi zion baziren antolaketa arrazoia ez zutenak gomendio hori onartzen, eta ez zuen erakunde honen balioztapena aldarazteko moduko arrazoi juridikorik eman.

Eta azkenik, bitartekotza lanak beste gukerarik uzten ez zuela ikusirik, Arartekoak bertan behera utzi zuen bere ekintza.

### ***Karrera***

*Bi aldeak prest egonik bitartekotza bete egin ahal izan zen (1062/97)*

• Erreklamazioa

Osakidetzako erietxe batek langile bati jakinarazi zion Zuzendaritzak haren funtzio aldaketa erabaki zuela, langileen estatutuan aurreikusita baitago hori.

• Azterketa

Legearen ikuspegitik erietxeko zuzendaritzaren erabakia zuzena dateke. Eta funtzio berriek izan behar zuten helburuetako batzuk zehaztu gabe edo etorkizunean zehazteko gelditzen baziren ere, hori ez zen funtzioen aldaketa desegokitzat jotzeko nahikoa arrazoi.

Administrazio ekintza hura zela-eta epaitegira jo zuen pertsonak, bada, Arartekoaren bitartekotza eskatu zuen, baina zegozkion funtzio berriak behar bezala zehazten baziren auzia bertan behera uzteko asmoz.

Nahiz eta justizia epaitegira jotzeak Arartekoaren ekintza mugatzen duen, erietxearen eta kexa egilearen xedapenak aztertu ziren, akordio batera iristeko asmoz, alegia, konponbidea epaiaren zain egon gabe lortzeko asmoz.

• Emaitza

Alde biak ados zeudenez, negoziazio prozesu bat zabaldu zen eta Arartekoak bitartekotza lana egin zuen. Eta hala, bi aldeak akordio batera iritsi zirenez, bertan behera utzi zen bide judiziala.

***Behin-behineko funtzionarioak***

*Osakidetza. Behin-behineko lanpostu hutsak betetzea (614/97)*

• Erreklamazioa

Osakidetzako behin-behineko lanpostu hutsak betetzeko deia zela eta, hartan sartzeko interesa zuen talde batek erakunde honetara jo zuen jakiteko ea Osakidetzak eskua zuen lanak metatu ahala behin-behineko kontratatuak egin ahal izateko.

• Azterketa

Erakunde honek eskuratu dituen datuen arabera Osakidetzak bazuen arrazoi bat horrela jokatzeko: hutsik zeuden behin-behineko lanpostuak 1995eko Lan Eskaintza Publikoaren zerrenda berriak zirela-eta sartzeko «eskubide hobea» izan zezaketen langileekin beteko zirela ziurtatzea eta bide batez aurreko zerrendetan zeuden behin-behineko langileek lanpostu horiek blokeatzea saihestea. Hala erabaki zen behintzat, 1997ko irailaren 24an, sektore mahaian, sindikatuen oniritziaz.

Ez dagokio, ordea, erakunde honi, lanpostu huts horiek 1995eko Lan Eskaintza Publikotik ateratako langileez bete ahal izateko «blokeatzea» zuzena den ala ez epaitzea.

Hala ere, erakunde honen jarduera gidatu behar duen legearen ikuspegi hutsetik begiratuta, Arartekoak ezin izan zuen ordezkapen sistema batetik bestera aldatzeko moduaz zenbait zehaztapen egin gabe egon:

> *«Txosten honen hasieran aipatu dugun bezala, 51/1997 Ebazpen berriak, martxoaren 11koak, dauden zerrenden —hots, 1995eko Lan Eskaintza Publikoan deituriko mailei dagozkien zerrenden—aldi baterako jarraitasuna erabaki du, harik eta destinoak behin-betiko adjudikatzen diren arte.*
>
> *Sistema batetik bestera igarotzen den unea markatzen du, gure ustez, horrek, 1995eko Lan Eskaintza Publikora sartu ziren destinoak behin-betiko adjudikatu arte atzeratzen baitu zerrenda berrien eraginkortasuna.*
>
> *Egia da aldez aurreko mugimenduen (lekualdatze lehiaketen) eta Lan Eskaintza Publikoaren artean hain denbora gutxi igaro izanak Ebazpen berria indarrean sartu baino hilabete gutxi batzuk lehenago plantilako lanpostu hutsak «aska» arazi dituela, eta haiek aldi baterako kontratuen bidez betetzeak prozesuaren blokeoa eragin izango zuela lanpos-*

*tuak betetzeko beste deialdi bat egin arte. Eta horrek guztiak ordezkapen sistema berriaren eraginkortasuna behaztopatuko zuen.*
*Behin puntu honetara helduta, ez dugu aipatu gabe utzt nahi hori horrela izatea ez dala gauza arrarotzat edo ez ohikotzat hartu behar. Izan ere, langileak kudeatzeko prozesuak aldiorokoak izanik, egoera hori -bere lekualdatze lehiaketa eta guzti aunetik- berriro azalduko baita Lan Eskaintza Publikorako deia egiten den bakoitzean.*
*Hain zuzen ere, langileak kudeatzeko prozesuen aldiorokotasun horrek lehertu egiten du sistema berria (edo, etorkizunean, lehentasun ordena desberdineko zerrenda berriak) orokortzeko helburua zerrendak -hautaketa prozesu zehatz baten ondorio behar dutenak nahitaez- prestatzeko ezintasun materialaren kontra eta sistema batetik bestera igaro bitartean egin beharreko izendapenak baldintzatzeko ezintasun formal edo juridikoaren kontra.*
*Horregatik guztiagatik, eta erakunde honen iritziz, organismo horren jokabideak ez du babes juridiko nahikorik, eta, beraz, 1966. utrteaz geroztik egin diren behin-behineko izendapenak lanpostu hutsak arau bidez bete arte luzatuko ziren aldi bateko izendapenak izan beharko zuten.»*

• Emaitza

Txostena bukatzear dugula, gure gomendioei buruzko erantzunaren zain gaude oraindik.
Hala ere, honezkero igaro den denbora eta 1995eko Lan Eskaintza Publikotik ateratako zerrenda berrien eraginkortasuna kontuan harturik, erabat jusfifikatua gelditzen da txosten honetan jasotako salaketa.

## 3.5.2.2 **ADMINISTRAZIOAREN ANTOLAKETA**

### A) **Administrazio prozedura**

*Garaje baterako lizentzia emateko diru bat eskatzea, horrekin bermatzekoa zen ondasun publikoa izan gabe (446/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren laguntza eskatu zuen Errenteriako (Gipuzkoa) Udalak, garaje bat erabiltzeko baimena emateko baldintza bezala berrogei mila (40.000) pezeta ezartzea eskatu ziola-eta garaje horretara sartzeko okupatu beharko zuen espaloi publikoaren egoera ona ziurtatzeko. Kexaren arrazoia da toki hartan ez dagoela inolako espaloirik, hots, ez dagoela egoera onean mantenduko dela ziurtatuko den ondasun publikorik.

• Azterketa

Errenteriako Udalari informazioa eskatu ondoren, jakinarazi zitzaigun, egun ezetz, ez dagoela espaloirik, baina izatekoa dela etorkizunean, eta horrenbestez, erabiltzaileekiko tratu berdintasunaren izenean eskatzen zela diru ezarpen hori.

• Emaitza

Datu horien arabera, eta bermearen pean jarri beharreko ondasunik ez dagoenez, Ararteko honek, kontuan harturik Udalbatzen Zerbitzu Arautegiaren 4. artikulua -«*bere administraziopeko pertsonen jardueran parte hartzeko, hartarako arrazoiek bat egitean eta hura eragiten duten helburu jakinetarako erabiliko da aginpidea*»-, Alkatetzaren Agindua -garajea erabiltzeko baimena ematen zenekoa- baliogabetzea gomendatu zuen, hau da, delako baimena lortzeko diru ezarpenik ez egin beharra, Udalak aintzat hartu zuen gomendioa eta herritar horri ezarritako dirua itzuli zion.

*Ertzaintzako zerbitzuek uko egin zioten Trafikoko Unitate Bereziak eginiko txosten bat herritari bati (533/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren aholkua eskatu zuen Barne Saileko zerbitzuek ez ziotelako eman nahi izan bera tartean izan zen trafiko istripu bati buruzko txosten bat, Bizkaiko Trafikoko Unitate Bereziko funtzionarioek egina.

• Azterketa

Herritar horrek eta Segurtasun Sailburuordeak eskuratu diguten informazioa kontuan harturik, gomendio hauek igorri zizkion Arartekoak Barne Sailari.

1. Herritarrak Bizkaiko Trafikoko Unitateko zerbitzuei eskatu zien istripu bati buruzko txosten bat, unitate horretara izendaturiko funtzionarioek egina, auzi bat jarri behar zuela-eta, hari gehitzeko. Orobat jakin nahi zuen txostena egin zuten funtzionarioen identifikazioa, auzian lekuko gisa azal zitezen eskatu ahal izateko.

Ertzaintzako Trafikoko Unitate Bereziko arduradunetako batek erantzun zion kexa aurkeztu duenaren eskabideari, esanez *«erreklamazioan Istripu Txostena eskatu beharko duzu, eta orobat hura egin zuen taldea agertzea ere».* Horren aurrean, herritarrak idazki bat igorri zion Barne Sailburuari, non, auzia funtsean azaldu ondren, ukatua zitzaion eskabide bera egin zuen berriro, baina artean ez du erantzuik jaso. Hori dela eta, bide batez gogorarazi zitzaion Barne Sailari ezen, Administrazio Publikoen Lege errejimenari eta Adminlstrazio Prozedura Amankomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluaren arabera, administrazio publiko guztiak beharturik daudela administratuen eskabide guztiak erantzuteko.

2. Gure eskabideari erantzunez Segurtasun Sailburuordeak erakunde honi igorri zion txostenean hitzez hitz aldatzen zen Bizkaiko Trafiko Unitate Bereziaren Buruzagitzak egin zuen beste txosten bat. Testu hori lehenago hartutako erabakiei buruzko arrazoien errepikatze huts bat zen, baina bazen, hala ere, aipatzea merei zuen puntu bat. Aipatu dugun txosten horretan, hauxe esate baitzen, besteak beste: *«Kasu honetan gertatzen dena da inplikaturik dauden alde biek aseguru etxe berean dutela egina asegurua, horixe baita ezbeharrak-eta erabakitzeko gehienetan erabiltzen den bidea -tramiteak aseguru etxearen bidez egitea-, eta esan beharra dago* ***halako egunean, aipatu ezbeharrari buruzko txosten bat igorri zitzaiola, halakoren bidez, aseguru etxe horri»***

3. Herritarrak bere egunean eskura ziezaioten eskatu zuen txosten hori eragin zuten arrazoiak legez kanpokoak izan balira, epailea jakinaren gainean jarri behar izango zen. Eta hala, Auziperatze Kriminalaren Legearen 302. artikuluaren babesean, erreklamatzaileak polizia zuzemenak eskuratzeko eskubidea izan izango zuen. Herritarrak, jardunbide zibila burutu bitartean, txosten hori eskatu izan balu froga gisa, lortuko zuen, dudarik gabe. Ondorio hori ateratzen zen Bizkaiko Trafikoko Unitate Bereziko zerbitzuen iritzitik, espedientea osatzen dutenen txostenetan bildua. Ez da, beraz, ulertzen, zergatik ukatu zaion herritarrari haren kopia bat, aurkeztera zihoan auzian sar zezan.

Goian esan dugun bezala, lege eta auzibideen antolaketan iragarritakoak aplikatuz, erreklamatzaileak polizia ekintzaren bferri izango zuen azkenean. Dokumentu hori lortzeko nahia, ordea, auzia epaibidean jarri aurrekoa da, baina lege antolamenduak badu horretarako ere erantzuna. Argi dago txosten hori auzibidetik kanpo izanez gero, administrazio publikoetako zerbitzuetako batek egina izateak administrazio izaera ematen diola, eta horren arabera, lehen aipatu den 30/1992 Lege horren 37. artikuluan iragarritakoaren pean dagoela.

Kontuan harturik kexa aurkeztu zuen erreklamatzailea berari zegokiola auzia, bera nahastua zegoen trafiko istripu bati buruzko informazioa azaltzen baitzen dokumentuan, eta kontuan haturik orobat, lehenago aipatu den agindu horren arabera kasu honetan ez zegoela dokumentua eskuratzeko inolako eragozpenik, Bizkaiko Trafikoko Unitate Bereziko zerbitzuak, delako dokumentu horren aidaki bat ez ematean, legezko ordenamendua hautsi zuela ondorioztatu genuen.

• Emaitza

Horrenbestez, herritarrari Bizkaiko Trafikoko Unitate Berezietako zerbitzuek hura nahastua gertatu zen zirkulazio istripuari buruzko txostena helarazteko gomendatu genion Barne Sailari, eta orobat gomendatu genion, jakinaraz ziezaiola ere, egin ohi den modua, txosten hura egin zuten funtzionarioen identifikazioa. Barne Sailak onartu eta bete egin zuen gure gomendioa.

*Errugabetasun ustea urratzea zaborra ateratzeko ordutegia ez errespetazeagatik ezariritako zigor espedienteetan (1519/96, 1553/96, 566/97, 568/97, 956/97)*

• Erreklamazioa

Bilboko Udalak zigor espedientea ireki zien zenbait herritarri zaborra ordutegitik kanpo ateratzeagatik. Zigor espedienteak erabakitzeko orduart, hots, errua egozteko orduan, elementu bakar bat hartu zen kontuan, ordutegitik kanpo utzitako zabor poltsa haiek miatzean azaldu ziren dokumentuak, eta hala dokumentu haiekin zerikusia zuten pertsonei -hots, orain kexa hau aurkezten dutenei- ezarri zitzaien zigorra.

• Azterketa

Arartekoaren iritziz, froga elementu bakar hori ez da aski kexa aurkeztu duten herritar horiek lege hausketa administratiboaren erantzukizuna dutela zalantzarik gabe baieztatzeko, zeren errugabetasun ustea hausteko, gertaerei buruzko frogaz gainera salatuak gertaeretan parte hartu duelako froga ere aurkeztu behar baita (Auzitegi Gorenaren epaia, 1990eko uztailaren 2koa). Zabor poltsan herritar horiekin zerikusia duten dokumentuak aurkitu izanak ez du zertan ekarri nahitaez horiek izatea zabor poltsak kalean ordutegitik kanpo utzi dituztenak. Administrazio espedienteak tramitatzean ez denez herritar horien erruduntasuna frogatzeko ekintzarik bideratu, ezin zaie inola ere lege hausketa horren erantzukizunik leporatu. Hala beraz, Arartekoaren iritziz, zigor erabakiek hautsi egin zuten errugabetasun ustearen printzipio konstituzionala, EEren 24.2 artikuluan azaltzen dena, Administrazio Publikoen Lege errejimenari eta Administrazio Prozedura Amahkomunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137. artikuluak positibizatua.

• Emaitza

Arartekoa, beraz, ezarritako zigorrak baliogabetzeko gomendioa egin zion Bilboko Udalari. Eta Udalak onartu egin zuen gomendioa.

*Premiatasun prozedura batean diktaturiko ekintzei buruzko ediktu jakinaraz-pen baten irregulartasuna (1576/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek jakinarazi zon Arartekoari ezen premiatasun prozedura bat tramitazen ari zitzaizkiela, ehiza arautegia hausketa bategatik ezarri zitzaion diruzko zigorra derrigorrez betearazteko, eta bere banku kontu batetik zigorrari zegokion diru kopurua kendu ziotela.

• Azterketa

Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari informazioa eskaturik, Sail horretako Zerga Bilketak Betearazteko Zerbitzuak bideratu baitzuen zigor espedientea, jakinarazi zitzaigun ezen, haien ustez, zuzen jokatu zutela, eta argudio hauetan oinarritzen zutela beren zuzen ustea:

a) Halako egunean (...), etxera helarazi zitzaion zegokionari, hartu izanaren adierazpena zeraman posta ziurtatu baten bidez, probidentzia premiatasunaren jakinarazpen bat, baina atzera itzuli zen sailera, *«posta banatzeko orduetan ez zegoela»* adieraziz.

b) Halako egunean (...), Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen jakinarazpena, eta haren aldaki bat igorri zitzaion zegokionari posta arruntaren bidez. Oraingoan ez zen atzera sailera itzuli.

c) Halako egunean (...), azken ohar bat eta ordaintzeko eskakizun bat bidali ziren helbide horretara bertara gutun ziurtatu baten bidez, baina oraingoan ere atzera itzuli zen sailera, *«posta banatzeko orduetan ez zegoela»* adieraziz.

d) Halako egunean (…), ondasunen bahikuntza probidentzia bat igorri zengutun ziurtatu baten bidez, baina, *«posta banatzeko orduetan ez zegoela»* adierazten zuen ohar batekin batera, atzera itzuli zen sailera, eta berriro helarazi zitzaion posta arrunta bidez.

e) Halako egunean (...) kontu korronteen bahiketaren aldaki bat helarazi zitzaion helbide horretara bertara.

Zerga Bilketa Betearazteko Zerbitzuaren iritziz, zergadunak oso jarrera pasiboa hartu du, eta administrazio ekintzen jakinarapenak saihesten ibili da, posta arruntez helarazi zitzaizkion gutunak ez baitziren itzuli. Gainera, uste du, premiatasun probidentziaren jakinarazpena eta gainerako ekintzak zuzenak direla, iraungi egin baitira posta zerrendan, jakin ahal izan denez.

Bestalde, eta Zerga Bilketak Betearazteko Zerbitzuaren iritziz, Arabako Organo Juridiko Administratiboan zegokionak erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztu izanak bahiketaren aurka, guztiz zuzenduko luke edozein akats -jakinarazpena egitean akatsik egin bazen-, Administrazio Publikoen Lege errejimenaren eta Administrazio Prozedura Amankomunaren 30/1992 Legearen 58.3 artikuluan -azaroaren 26koan- aurreikusten denaren arabera.

Arartekoak informazioa azterturik atera zituen ondorioak igorri zizkion Arabako Foru Aldundiko Sail horri:

*«1. Arartekoaren iritzia jakin nahiz gure esku utzi den auzi hau, zuen sail horretan diharduten zerga bilketak betearazteko zerbitzuek egin duten premiatasun espedienteari buruzkoa, aztertzeko orduan, auzia bideratu bitartean aginduak-eta jakinarazi diren moduari buruzko azterketan jarri dugu batez ere gure arreta.*

*Eta lehenengo eta behin, helarazi diguten espedientea azterturik, akats bat antzeman dugu, ez baita behar bezala bete Posta Araudiaren 251.3 artikulua, maiatzaren 14koa, 1.653/1964 Dekretuz onartua. Izan ere,*

*premiatasun probidentzaren eta ondasunen bahiketaren probidentziaren jakinarazpenak, besteak beste, egiteko orduan, ez baita egiaztatu zeregin hori zegokion funtzionarioa bi saio egin zituenik, ez saioek huts egin ondoren zegokion oharra utzi zionik igorrien hartzaileari.*

*2.Orain hurrena premiatasun probidentziaren jakinarazpena legearen araberakoa izan den ala ez ebazten saiatuko gara.*

*Arabako Lurra/de Historikoaren Zerga Bilketaren Araudi Orokorraren 133.artikuluan azaltzen diren prebisioen arabera, Administrazio Publikoen Lege errejimenaren eta Admiflistrazio Prozedura Amankomunaren 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan, azaroaren 26koan, aipatzen diren kasuetan egin ahal izango da premiatasun probidentziaren legezko jakinarazpena: baldin eta prozedura doakienak ezezagunak balira, baldin eta jakingo ez balitz nora igorri edo nola helarazi jakinarazpena, eta, azkenik, baldin eta, saiatu arren, gauzatu izan ez balitz. Argi dago beraz, auzia zihoakiona ezaguna izanik, eta jakinarazpena non eta nola egin ere -zigor espediente administratiboari buruzko ekintzak behar bezala jakinarazi ziren zegokionaren helbidean— ezaguna izanik, argi dago ediktu bidezko jakinarazpena egiteko aukera bakarra jakinarazpen pertsonala, saiatu arren, gauzatu ez izana ze/a.*

*Ildo horretan, esan beharra dugu ezen, Arartekoaren iritziz, jakinarazpen pertsonal batzuk huts eginak ez duela, besterik gabe, ediktu bidezko jakinarazpenak egiteko eskubidea ematen. Erakunde honek jarrera hau babesteko erabili dituen argudioak Arartekoak 1994ko urtean bere txostenean gai horri buruz eman zituen gomendio orokorren artean aurki daitezke.*

*Laburpen gisa, Auzitegi Gorendren epai bat, 1993ko azaroaren 10ekoa, aipa dezakegu orain, oso-oso adierazgarria baita. Epaiak, Auzitegi Konstituzionalaren doktrina sarritan erabili bat kontuan hartuz (Auzitegi Konstituzionalaren 9/1981, 1/1983, 22/1987, 72/1988 eta 242/1991 epaiak), honela dio: 'gauzak jakinarazteko azken bidea izanik, ediktu bidezko zitazioa (jakinarazpena) egiteko, hartzaileak jakinarazpena jasoko duela gutxi-asko ziurtatzen duten gainerako komunikazio bideak agortzeaz gainera, eta komunikazioa gauzatzen saiatuaren ziurtasun argiriaz gainera, gainerako komunikazio bide normalak alferrikakoak direla sinestaraziko duten irizpide arrazoizkoetan oinarritu beharko da hartzailea leku ezezagunean dagoleako akordioa edo erabakia (...)'. Antzeko adierazpena egiten du Auzitegi Konstituzionalaren 9/1991 epaiak, urtarrilaren 17koak, dioenean: 'hartzailea ez dagoela-eta, huts egiten duenean gutuna hartu izanaren adierazpena daraman posta bidezko komunikazioak, ezin da, besterik gabe, ediktu bidezko jakinarazpena egin (...), zeren, komunikazio mota horretaz baliatu baino lehen, beharrezkoa baita zegokionaren helbidea ez agertzea edo hura leku ezezagunean izatea, eta hori hala jasotzea zuzemenetan'. Bistan da, inondik ere, Aldizkari ofizialean edo Udaletxeko oholean iragarpena noiz*

*aterako zain egotea eskubideen edo bidezko interesen jabe den norbaiti legez ezar dakiokeen zamatik haratago dagoela (Auzitegi Konstituzionalaren 63/1982, 17/83 epaiak).*

*Aipatu artikuluen aginduen irismena zehazteko orduan, jakinarazpenak ediktu bidez egin daitezen onartzen baitu 'jakinarazpen arrunta saiatu eta gauzatu ezin izan denean', hona zer irizten dion goian aipatu den epai horrek, premiazko prozedura batean ediktu bidez egindako jakinarazpen bat aztertzen duenak: 'Auzitegi Konstituzionalak behin eta berriz -9/1981, 1/1983, 22/1987, 72/1988 eta 242/1991, epaietan, besteak beste-adierazi du ezen* ***prozesua komunikatzeko ekintzak*** *-Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluak oinarrizko eskubide gisa bermatzen duen babes judizialarekin daten harreman handia dela eta-* ***ez direla prozesua bideratzean bete behar diren baldintza for- mal hutsak, baizik eta ezinbesteko eskakizunak parte hartzen duten aldeek beren eskubideak edo bldezko interesak defen- da ditzaten,*** *halako moduan ezen, ekintza horiek arautzen dituzten arauak ez betetzeak defentsarik gabeko egoeran utz bailitzake herrita- rrak, oinarrizko eskubideak urratuz. Epai horrek baliogabe uzten du premiazko espedientea, eta baita, beraz, errekurtsoaren erabakiak.*

*Aurreko hori guztia kontuan harturik, zera esan dezakegu soilik, alegia, alferrikakoa dela premiatasun bidezko probidentziaren ediktu jakinarazpena, 59.4 atikulu horretan aurreikusten diren zertzeledetako bat ere bete ezean hautsi egiten baititu ordenamendu juridikoaren aginduak. Aski izan behar zuen hori zorduriaren ondasunen bahiketa galarazteko, zeren, Gaztela eta Leongo Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzietarako Aretoak 1994ko maiatzaren 24an emandako epaiaren bidez adierazten duen bezala, '… ez baita aski premiatasun bidezko probidentzia, hartu eta, besterik gabe, zordunaren ondasunen kontra egiteko. Aitzitik, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa da dagokionari jakinaraztea, eta espresuki oharraraztea, halako eguna baino lehen kitatu ezean zorra, ondasunak bahituko zaizkiola'.*

*3. Agindutako ondasun bahiketa betearaztea dela eta, zegokionari buruzko egoera bere horretan uztea justifikatzeko, zera argudiatzen da, alegia, hartutako neurriengatik kaltetua gertatu den horrek kexa ekonomiko administratibo bat aurkeztu duela bahiketa agiriaren kontra. Horri buruz hau esan behar dugu:*

*Herritarrak, egia da, aurre egin dio administrazio honen jardunbideari, baina aurre egin dio bahiketa betearazteko aginduari -bere banku kontutik dirua kendu zaiola ohartzean jakin du bahiketaren berri-, eta ez, premiatasun probidentziari. Izan ere, eta lehenago ere esan dugun bezala, premiatasun probidentziak ez du inolako eraginik, haren berri ematea ez da-eta legeak agintzen duenaren arabera egin.*

*Nola ondasunak bahitzeko agindua aldez aurretik premiatasun bidezko probidentzia jakinarazi gabe betearazi den, dagokionak ez du aukerarik*

*izan, txikienarik ere ez, helegite bat aurkezteko, zorra bermatzeko aukeraz baliatu eta agindua betearaztea baliogabetzeko, ordainketa atzeratzeko, zatitzeko. Beraz, herritarrak ez zuen zertan pairatu Administrazioaren jarduerak egin dion kaltea.*

*4. Aurrekoaren kalterik gabe, baina premiatasun espedienteak balioa galduz gero zer gertatuko litzatekeen eta bere eraginkortasunean zer ondorio izango lituzkeen ikusteko asmoz soilik, Auzitegi Nazionaleko epai baten (97-2-25) aldakia bidaltzen dut honekin batera. Epai horretan, eta zerga espedienteei dagokienez, Administrazio Publikoen Lege errejimenaren eta Administrazio Prozedura Amankomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.3 artikuluan iragarritakoak aplikaten dira epai* horretan."

• Emaitza

Aurrekoa ikusirik, hau gomendatu zion Arartekoak Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailari, alegia, aldez aurretik egin beharrak egin ondoren, baliogabetzat jotzea premiatasunezko prozedura, dirua itzultzea kexa aurkeztu zuenari, eta atzera ezar zekiola probidentzia jakinarazi aurreko uneari zegokion espedientea. Administrazioak ez zuen gomendioa onartu.

## B) **Administrazio erantzukizuna**

*Ondasunen erantzukizuna errepidean isuritako gasolioak eragindako trafiko istripu batengatik (904/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren laguntza eskatu zuen; Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Sailak uko egin ziolako Ertzaintzaren zerbitzuen txosten baten arabera gasolio isurketa batek eragindako trafiko istripu batean kexa aurkeztu duen herritarraren ibilgailuak izan zituen kalteen ondasun erantzukizuna bere gain hartzeari.

• Azterketa

Administrazioak igorri zigun espedientea -herritarraren kexa, kalteen balioa, Ertzaintzaren zerbitzuek egindako txostena, eta ezezko erabakia- aztertu ondoren, Aratekoak gomendio hau egin zion Gizpukoako Foru Aldundiari:

a) Administrazio Publikoen Lege errejimenaren eta Administrazio Prozedura Amankomunaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 139. artikuluan jasotzen dena kontuan hartuz azterturik auzia, ikusi zen ezen herritarraren ondasunak kaltetuak gertatu zirela, zerbitzu publikoek eragina izan zela, ez zela ezinbestean gertatu, eta hirugarren baten balizko parte hartzeak ere ez zuela Administrazioaren erantzukizuna arintzen. Administrazioaren erantzukizuna zela eta, Auzitegi Gorenaren epai asko erabili ziren, erreferentzia gisa, I983ko irailaen

16koa, 1984ko uztailaren 7koa, 1986ko maiatzaren 23koa eta 1994ko aza-roaren 19koa, besteak beste.

b) Aztertzen ari garen auzi honen aurreko gisa, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazio Auzietarako Aretoaren bi epai gehitu ziren, 1995eko maiatzaren 26koa bata eta 1997ko urtarrilaren 30ekoa bestea. Aurrenekoak -zeinaren argudioak bigarrenak ere errepikatzen dituen, baina alderantziz- hau dio bere laugarren legezko oinarrian, *«...errekurtso egileak zioenaz beste, errepide zolako olio mantxa salatu den Foru Aldundiko (Gipuzkoakoa bi kasuetan) zerbitzuen lanetan sortua den frogatu ez arren, horrek ez du Administrazioaren erantzukizuna arintzen, kontuan hartuz betiere, berari dagokiola errepideak oztoporik eta arriskurik gabe erabiltzeko moduan mantentzeko eginkizuna.* ***Kasu honetan, bestatde, ezinezkoa da errekurtso egileak ezarri nahi zuen jurisprudentzia dotrina ezartzea, zeren olio isurketa istripua baino lehentxeago gertatzean oinarri zitekeen nexo kausalaren hausketa, areto honetan bertan, 1995eko apirilaren 6an, honen antzeko auzi batean, azaldu zen bezala, eta kasu honetan ez da hori gertatu.»***

*c)* Argudio horien kalterik gabe, eta kontuan hartuz ezen, Arartekoaren iritziz, gasolio isurketaren jatorria zehaztea izan zitekeela, azken batean, argitu beharreko kakoa, hau gomendatu zen ordez, alegia, kexa aurkeztu zen unera atzeratzea espedientea atzerako ondorioekin, auzia argitzeko egin behar ziren froga guztiak egin zitezen eta behar ziren txosten guztiak eska zitezen. Horri horrela egin zen zeren, lehenago ere esan den bezala, hasierako eskabidea eta ezezko erabakia baizik ez zituen bideraturiko espedienteak.

• Emaitza

Informazio hori azterturik, ezezko erabakia baliogabetzea gomendatu zuen Arartekoak, edo, bestela, kexa aurkeztu zen unera atzeraeragitea espedientea. Hala ere Gipuzkoako Foru Diputazioaren Garraio eta Errepide Sailak ez zituen aintzat hartu gure gomendioak, ez bata ez bestea, esanez ez zegoela ez kausazko loturarik ez eta espedientea prozesuaren une jakiri batera atzera eragiteko beharrik ere, zeren, Sailaren arduradunen arabera, sortu ziren gorabeherak zuzenbidezkoak ziren eta ez izatezkoak.

*Toki administrazioaren organo baten mende dagoen oganismo autonomo baten ondasun erantzukizuna (1195/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoari laguntza eskatu zion Bilboko Kirol Institutuak uko egin ziolako bere gain hartzea herritar horri udalaren polikiroldegi batean zegoen armairutik zenbait gauza lapurtu izanagatik legokiokeen ondasun erantzukizuna.

• Azterketa

Kexa aurkeztu zuen pertsonak, batetik, eta Bilboko Kirol Institutuak, bestetik, igorri zuten informazio azterturik, hau ondorioztatu zuen Arartekoak:

1. Txurdinagago Udal Polikiroldegiko armairu batean utzi zituen zenbait gauza lapurtu zizkiotela eta, kexa hau aurkezten duen pertsonak kalte ordaina eskatu zuen Bilboko Udaletxean. Kexa horri erantzunez, Bilboko Kirol Institutuak Zuzendari Kudeatzailearen bidez jakinarazi zion kexa aurkeztutako pertsonari, Kirol Institutua ez zela udal polikiroldegietan utzitako diruaren eta balioko gauzen erantzule egiten, eta bere Zerbitzuen Araudiaren aurreikuspenetan babesten zela horretarako. Izan ere, honela dio, puntu horri dagokionez, Zerbitzu Araudiak: «*BILBOKO KIROL INSTITUTUA ez da armairuetan uzten den diruaren edo balioko gauzen erantzule egiten*». Bestalde, udal polikiroldiegietan horren berri ematen duten oharrak daudela-eta, argudiatu zuen bere erantzukizunik eza funtsatzeko.

2. Bilboko Kirol Institutuak, toki administrazioan zerbitzu publiko bat eskaintzen duen neurrian, ondasun erantzukizunari buruzko errejimenaren mende dago, bai Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Komunaren Lege errejimenaren 30/1992 Legearen -azaroaren 26koa- hamargarren tituluaren lehenengo atalaren arabera, bai Ohdasun Erantzukizunetarako Administrazio Publikoen Prozeduren Araudiaren arabera, 239/1993 Errege Dekretuz onartua martxoaren 26an.

Udal Institutuaren mendeko kirol hornikuntzetan inoren ekintzengatik edo hutsengatik erabiltzaileari gerta dakiokeen kaltearen erantzukizuna ezin da arindu barne araudi batek -zeina, bide batez esanda, aldizkari ofizialean ere ez baita argitaratu- hala erabakia duelako, ez eta ohartarazten duelako hartarako propio jarritako iragarkien bidez.

Kirol hornikuntza hori kontserbatzea, mantentzea eta zaintzea Udalaren erantzukizuna izanik, han legez kontrako ekintza bat gertatzeak administrazio erantzukizuna izan dezake, baldin eta, dagokion prozeduraren bitartez, ekintza hori zerbitzu publiko baten funtzioamendu normalagatik edo anormalagatik gertatu zela ondorioztatuko balitz.

3. Pertsona horrek lapurreta egin ziotelako aurkeztu zuen kexa. Arartekoak ez zuen Bilboko Kirol Institutuaren balizko erantzukizunaz susmorik egiten, eta erantzukizuna zehazteko ikerketa egin beharko zen, kontakizun faktiko batera iritsi eta haren bidez ondorioak atera ahal izateko gero. Hala ere, kexa aurkeztutako herritarrari erantzuna emateko orduan, udalbatzako organo eskudunen ekintzak amdinistrazio publikoen ondasun erantzukizuna arautzen duen lege antolamenduaren aurreikuspenak ez zituela kontuan hartu, egin genuen, eta hori hala egiaztaturik, erabaki genuen ez zirela kexa aurkeztu zuen herritarraren eskubideak behar bezala aintzat hartu.

Kontuan hartuz kexa hori azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 142.5 artikuluak aurreikusita zuen epearen barruan egin zela, eta, 13.3 eta 17.2 artiku-

luen arabera, ezeztatua gerta bazitekeen ere -Kirol Institutuko Zuzendari Kudeatzaileak 1996ko irailaren 2an idazki bidez emandako erantzunari, bestalde, ezin diogu inolako prozesu baliorik eman-, erabaki genuen egokiagoa izango zela, arestian aipaturiko Legearen 42. artikuluaren arabera, kexari buruzko akordio bat iristea kaltetua gertatu zen herritarrarekin.

• Emaitza

Aurreko hori guztia kontuan harturik, Arartekoak gomendio hau egin zion Bilboko Udalbatzari, alegia, herritarrak aurkeztu zuen kexa zela eta, ondasun erantzukizuneko espediente bat bidera zezala, eta halaxe egin zuen Udalak..

C) **Administrazio Kontratazioa eta Ondasuna**

*Udalek bide zaharrak jabetza publikokoak diren ala ez ikertzeko beharraz (600/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Errigoitiko Udalaren pasibotasuna salatu zuen, ez zuelako, Errigoitin zehar Morga eta Arrietako herriak lotzen dituen bide zahar bat ikertzeko eta zaintzeko ahaleginik egiten.

Herritar batek behin eta berriz salatu du baserri bateko jabeak, bide ertzeko lur sailak erosirik, bidea luberritu eta fruta arbolak landatu dituela, halako moduan ezen, egun, ez da biderik ikusten. Orobat salatzen du, bidea hesiz inguratu dutenez, igarobidea eragozten zaiela gainerako herritarrei.

• Azterketa

Bidearen jabetza publikoa bermatzeko, agiri hauek aurkeztu dira:

- Bidea ukitzen dauden zenbait sailaren jabetza agiriak, zeinetan, sailen luzezabalera azaltzean, honela baitiote: «muga egiten dute bide publiko batekin».
- Bizkaiko Foru Aldundiak eginiko katastroen planoak, zeinetan bide publikoaren ibilbidea azaltzen baita. .
- Zenbait bizilagunen adierazpenak.
- Etxebizitza bat eraikitzeko eskabide bat dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza Sailak, etxea egingo den lur saila bide publiko baten ondoan dela kontuan harturik, etxea familia bakarrarentzat eraikitzeko ematen duen baimena.

Udal teknikarien txostenen arabera, argi zegoen bide publikoa bazela, ez ordea bide haren nondik norakoa. Teknikarien arabera litekeena zen bidea Txakarrene baserriaren aurre-aurretik igaro ordez mendian zehar, pinu artean, igarotzea.

Azkeneko aukera hori, erabat baztertzen ez den arren, badirudi kontraesanean dagoela bide zaharrak egiteko ohitura zein zen kontuan harturik: alegia, bi herri baserriz baserri lotzea, sarbidea eta komunikazioa erraztearren.

• Emaitza

Azkenean, Arartekoak gutun bat idatzi zion Errigoitiko Udalari. Gomendio hau egiten zuen gutunean: «*Toki Erakundeen* Ondasunen *Araudiaren 45. artikuluan eta hurrengoan xedatzen denaren arabera, espediente ikerketa bat egin beharko litzateke, Errigoitin zehar igaroz Morga eta Arrieta herriak Txakarrena deritzon parajearen inguruan lotzen dituen bidearen egoera eta jabetasuna zehazteko, dagozkion jarduerekin segitzeko gero,* ondasun *eta eskubideen udal inbentarioan sartu arte (17 eta 20. artikuluak).*

Artean ez dakigu gure gomendioa bete den ala ez, bai ordea bidearen jabetasuna ikertzeko espedientea zabaltzea erabaki zela. Dena dela, erabaki hori hartu ondoren, eta iritsi zaigun informazioaren arabera, espedientea bertan behera gelditu da, itxuraz horretarako arrazoirik ez bazen ere.

*Udal batek obra publiko bat legez kontra adjudikatzea (691/96)*

• Erreklamazioa.

Eraikuntza enpresa batek Lezako Udalaren jarduera salatu zuen Arartekoaren aurrean, Udalak «Lezako kaleak lauzatzeko 2. fasearen» ardura eman dion enpresaren eskaintza ez zelako, lehiatu ziren enpresen artean, merkeena.

• Azterketa

Udalari informazioa eskatu eta aztertu ondoren, ikusi zen adjudikazio sistema lehiaketa bidezkoa izanagatik, lan eskaintza arautzen zuen baldintzen orrian ez zela meritu edo irizpiderik zehazten Udalak erreferentzia gisa erabil zezan lanak eraikuntza enpresa bati edo besteri adjudikatzeko orduan.

Hori horrela izanik, eta Administrazio Publikoen Kontratuak arautzen dituen 30/1995 Legearen 91. artikuluaren arabera, lehiaketari enkantearen arauak aplikatu zaizkio ordez. Beraz, Lezako Udala, enkanteak adjudikatzeko irizpideak aplikatuz, behartua zegoen eskaintza merkeena eginiko enpresari adjudikatzeko lanak.

Kexa aurkeztu zuen enpresa zen eskaintza merkeena aurkeztu zuena (45.328.520 pezeta). Lanak, ordea, 48.428.725 pezetako aurrekontua -3.100.000 pezeta gehiago, beraz- aurkeztu zuen enpresa bati adjudikatu zitzaizkion.

Udalak arrazoi hauek eman zituen bere erabakia justifikatzeko: lanak adjudikatu zitzaizkion enpresa Lezakoa bertakoa zen; bidea lauzatzeko lehenego fasea ere enpresa horrek egin zuen, oso ongi egin ere, udalbatzaren iritziz; eta haren eskaintza «*neurriduna zen egin ziren eskaintzen artean».*

Lanak eskaintzen ziren baldintza orrian ez zenez meritu horien aipamenik egiten, ezin haiek kontuan hartu lanak adjudikatzerakoan. Hala beraz, Lezako udalbatzaren 1996ko maiatzaren 28ko erabakiak ez zuen bete administrazio publikoen kontratuak arautzen dituen legedia.

• *Emaitza*

Arartekoak, beraz, gomendio hau egin zion Lezako Udalari:

*"Erakunde honen iritiziz, Lezako Udalak 1996ko maiatzaren 28an hartu zuen erabakia ez da zuzenbidearen araberakoa. Izan ere, lehiaketa arautzeko baldintza orrian agertzen ez ziren irzipideak kontuan hartuz Construcciones G. González S.A. enpresari adjudikatu zizkion, lehiaketa bidez, «Kaleak lauzatzeko 2. fasearen» lanak; muzin eginez, beraz, eskaintza abantailatsuena -zeina, besterik ezean, eskaintza ekonomikoenari baitzegokion- baliatzearen irizpideari.*
*Onaindia Obras Públicas S.A. enpresa izanik aurrekontu merkeena aurkeztu zuena, uste dugu komenigarria litzatekeela ondasun erantzukizunari buruzko espediente ofiziozko bat hastea Administrazio Publikoek Ondasun Erantzukizunaren Arloan dituzten Prozeduren Araudiaren 5. artikuluan xedaturikoan babesturik, enpresa horri, jaso gabe gelditu zen industria ondasunaren truke, kalteak ordaindu behar zaizkion ala ez erabakitzeko, gertaeraren eta gertaera horren ondorioaren arteko kausalitate harremanak legezko konfidantza babesteko administrazio zuzenbidearen printzipio orokorrarekin zerikusirik duelako ustean. Espediente horretan zehaztu beharko da Onaindia Obras Publicas S.A. enpresa zapuzturik geratu den eskubide baten mereziduna den ala ez, eta, horrenbestez, kalte ordaina jasotzea dagokion ala ez.»*

Lezako Udalak ez zuen gure gomendioa kontuan hartu.

*Administrazioak deituriko ideia lehiaketetan parte hartzaileen kopurua mugatzeaz (296/97)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren laguntza eskatu zuen hautagai zerrendatik kanpo geratu zelako Getxoko Udalak Areetako Geltokiaren lurperatzea egin ondoren gelditu zen espazio publikoa urbanizatzeko deituriko ideia lehiaketa batean. Deialdiaren 5. oinarrian esaten zenaren arabera, *«Euskal Herriko Arkitektoen Eskola Ofizialearen barrutian bizi diren edo Bide Ingeniari Eskola Ofizialeko bazkide izan eta Euskal Herrian bizi diren goi arkitekto eta bide ingeniari guztiek har dezakete parte lehiaketan, bakarka nahiz taldeka, eta taldeka bada, talde bakarrean edo diziplina anitzekoan. Taldea, betiere, aipatu diren aurreko ezaugarri horiek guztiak betetzen dituen arkitekto edo bide igeniari*

*baten zuzendaritzapean egon beharko da»,* eta hala, kexa aurkeztu zuen herritarra deialdian eskatzen ziren titulu guztien jabe zen arren, ez zen aipatu diren eskola profesional horietako kide, eta horregatik aurkeztu zuen kexa erakunde honen aurrean.

• Azterketa

Erakunde honen iritziz, administrazio publikoetako kontratu espezifiko gisa hartu behar zen auzia, eta, hala, epaimahia duten proiektuen lehiaketak arautzen dituen 13/1995 Legearen 216. artikuluaren arabera bideratu.

Kontratuen irudi horrek, aipatu lege horren bidez sartua, izateko bi arrazoi ditu: alegia, batetik, gaur egun, epaimahia duten lehiaketak asko ugaritzen ari baitira administrazio publiko guztietan, gai horri buruz dagoen nahasmena, eta, bestetik, Europako Batasunean sartzeak dituen betebeharrei erantzun beharra. Lege esparu horren barruan aurkitzen da Kontseiluaren 92/50/EE Zuzendaritza, 1992ko ekainaren 18koa, zerbitzuen kontratu publikoak adjudikatzeko bideen koordinazioari buruzkoa.

Dagokion legezko errejimenaren barruan lehiaketak adjudikatzeko hautaketa prozedurek dituzten bi aldiak bereizi behar dira.

1. Hasieran parte hartzaileek proiektuak nola aurkeztu behar-dituzten zehazten da. Legegileak honela dio Administrazio Publikoen Kontratu Legearen 216.3 artikuluan: *«Lehiatzaile kopurua mugatua bada, irizpide objektibook, argiak eta ez bereizleak erabiliko dira haiek hautatzeko orduan».* Are modu argiagoan jaso du (Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arberareko xedapen komunitarioen balio interpretatiboa kontuan hartuz, Marleasing eta Faccini Dori kasuak, besteak beste) 92/50 Zuzendaritzak, haren 13. artikuluan honela baitio, *«Estatu honetako kide den lurralde bateko edo lurralde bateko parte bateko proiektu lehiaketetan parte hartzeko aukera ezingo da inola ere* mugatu».
2. Lehiaketaren bigarren partea proiektua betearazteko kontratua adjudika-, tzea izango litzateke, eta hori, lehiaketa irabaz lezaketenen arteko publizitaterik gabe negoziaturiko prozedura baten bidez egingo litzateke (Administrazio Publikoen Kontratu Legearen 216.4 artikulua).

Hori kontuan harturik Arartekoak Getxoko Udalari jakinarazi zion ezen, epaimahia duten proiektuen lehiaketetan, administrazioarekin kontratua egiteko gaitasuna duen parte hartzaile orok duela onartua izateko eskubidea, hau da, eta Administrazio Publikoen Kontratu Legearen 15.1 artikuluaren arabera, lanerako gaitasuna ez ezik ekonomian, finantzatan eta teknikan ere gaitasuna duen orok. Eta hala, lehiaketan parte hartzen duten lehiatzaileei mugaren bat jarriz gero, irizpide objektibo, argi eta ez diskriminatzaileen arabera egin beharko litzateke, hots, kontratuak egitean bereizketarik ezin dela egin dioen 11.1 artikuluaren arabera, pertsona fisiko eta juridiko guztiak -espainiarrak edo atzerritarrak- kontratatuak izan daitezkeela dioen 15.1 artikuluaren arabera (Administrazio Pu-

blikoen Kontratu Legean jasoak biak), eta orobat 1978. urteko Konstituzioaren 14. artikuluaren arabera ere. Horregatik guztiagatik, ezin zitzaion pertsona horri lehiaketan parte hartzea eragotzi.

Kolegio ofizial bateko kide izatea eskatzeak ere, prezeptiboa bada ere, noski, ezin eragotz dezake lehiaketan parte hartzea, batez ere kontuan hartuz, Kolegio Profesionalen jardunbidea arautzen duen eta ekainaren 7an 5/1996 Errege Dekretuz aldatu zen otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 3.2 artikulua:*«aski izango da horietako batean izena emanda egotea, eta hori izango du helbide profesional bakarra edo nagusia, Estatu osoko lurraldean aritu ahal izateko»*

• Emaitza

Hori dela eta, maiatzaren 9ko 64/97 gomendioa bidali genion Getxoko Udalari, aipatu deialdiko oinarri hori baliogabe utz zezan aholkatuz, kontraesanean baitago Konstitutiteioko 14. artikuluarekin, hau da, berdintasun printzipioarekin, eta bereizkeriarik ez egitekoarekin, eta orobat eskatu genion bete zitzala 13/95 Legearen 11.1 eta 216.3 artikuluak ere, laneko proiektuak egiteko kontratuetan hautagaiak hautatzean irizpide objektiboak, argiak eta bereizkeriarik gabekoak erabili behar direla diotenak, alegia.

Getxoko udalbatzak, berriz, idazki bat helarazi zigun, gure gomendioa ez onartzea erabaki zuela esanez, *«baina horrek ez du esan nahi hurrengo lehiaketa publikoetan kontuan hartuko ez direnik Ararteko jaunak egin dizkigun gomendioak».*

Erantzun horrek ez zuen zentzurik, gure erabakian adierazitako arrazoiak ez egiaztatu ziren, ez ezeztatu, lehiaketa zela-eta hartu genuen erabakia bertan behera utzarazi ziezagukeen legezko argudiorik ez zen aurkeztu. Eta hala, Getxoko Udalak gure erabakia betetzeari uko egitean, auzian esku hartzeko genituen aukerak amaitzen zirela kontuan hartuz, espediente hau besterik gabe ixtea eta agiritegian gordetzea erabaki genuen.

*Administrazio kontratuetan izendatuak dagokiona ez betetzeak dituen ondorioak (1350/97)*

• Erreklamazioa

Herritar batek aholkua eskatu zion Arartekoari Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak Euskal Autonomia Erkidegoan kokatu dituen justizia organoetarako perito lanen kontratuari buruzko erabakiaren espedienteaz. Espediente horren bidez berak adjudikatu gisa ezarri zuen dirua konfiskatzen zaio, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen adjudikatze iragarkia ordaintzea eskatzen zaio. Herritar horrek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak adjudikatu zion kontratua, hitzartzen zuena ezin beterik, bere aldetik bertan behera utzi izana da ekintza hau bideratzearen arrazoia.

• Azterketa

Hasteko, perito lanari buruzko espedientearen oinarri teknikoen orrian adierazten denez, kontratua adjudikatu zaionak bere gain hartzen du zerbitzua kontratuak dioenaren arabera betetzeko erantzukizuna.

Kontratua adjudikatu ondoren, kexa hau aurkeztu zuen herritarrak uko egin zion eta hala jakinarazi zion idazki baten bidez Sailari, kontratua ezin bete zezakeela alegatuz. Kontratua egindako administrazioarekin formalizaturiko kontratua alde batek ezeztatze hori ez dago 13/1995 Legean, maiatzaren 18koa, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoan, jasoa. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailak uste du, eta uste berekoa da erakunde hau ere, uko egite horrek kontratua atzera botatzea dakarrela.

Uko egitearen legezko ondorio zuzena da kontratua bete gabe uztea interes publikoari ez doazkion arrazoiengatik, eta, beraz, delako lege horren 112.g) artikuluak «*kontratuaren gainerako betebehar funtsezkoak ez betetzean*» oinarriturik jasotzen duen erabaki ustezkotzat hartzen da. Gainera, kontratuan hitzarturikoa ez betetzeko erabaki horrek kontratazio zerbitzuaren iritziz dakarrenez, kontratu egileak ez zuen maltzurkeriaz jokatu, baina bai arduragabekeriaz edo arinkeriaz kontratuaren betebeharrak bere gain hartzean.

13/1995 Legearen 114.4 artikuluan aipatzen dira gorabehera horren ondorioak: kontratu egilearen erruz betetzen ez denean kontratua, garantia bahituko zaio kontratu egileari, eta, gainera, egindako kaltea ordaindu beharko dio administrazioari, bahituriko garantiaz gaineko kopurua ordainduz.

• Emaitza

Eta hala, beste jardunbide batzuk kontuan harturik, Arartekoak lege antolamenduaren araberakotzat jo zuen Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzia Sailak kontratua deuseztea erabaki izana, eta, administrazioari egindako kalteak ordaintzeko, berme gisa ezarritako dirua bahitu eta gainerako gastuak kobratu izana. Horregatik guztiagatik, eta kexa aurkezleari ikerketaren emaitzak jakinarazi ondoren, espdientea ixtea eta, besterik gabe, artxibatzea erabaki zen.

## 3.6. **HAZIENDA**

### 3.6.1. **SARRERA**

1997an Hazienda arloan bideratutako kexen kopurua 159koa Szan zen, ondoren zehazten den moduan banatuak:

| | |
|---|---|
| Foru zergak…………………………………………………….… | 76 |
| Udal zergak ……………………………………………………… | 46 |
| Udaltasak………………………………………………………. | 21 |
| Udal prezio publikoak………………………………………….. | 7 |
| Zerga biltzeko prozedura………………………………………. | 5 |
| Beste zenbait.......... …………………………………………….. | 4 |

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, nabarmentzekoak dira, beste batzuen artean, indarrean dagoen famili unitate kontzeptuaren hedatzeari dagozkion arazoak, 1996an ere gomendio xede izan baitzen. Batez ere, gurasoetako batek eta adin txikiko seme-alabek osatzen dutenengan du eragina, seme-alabak adin nagusitasunera heltzen direnean.

Aurreko urteetan bezala, errenta jakin batzuen trataera irregularrarekin zerikusia zuten kexa batzuk ere aztertu dira, batik bat, ontzigintza eta burdingintza sektoreko enpresetako berregituratze prozesuetan nahastutako langileenak.

Zerga honek sortarazten dituen arazoak dira orobat, zerga egoitzaren zehaztapenarena -aitorpena aurkezteko obligazioa dagoen lurraldea zehazterakoaneta zerga aitorpena banaka edo batera egiteko aukeran okerrekoa hautatzearena; era berean, aztertu dira langile autonomoek azaldutako kexak, moduluka eta koefizienteka balioesten diren erregimen pean dauden jardueretatik eratorriko etekin garbia kalkulatzeko metodoaren aurka.

Hala ere, PFEZren barruan, kenketen atala da konponezin gehien sortarazten duena.

Ohiko bizilekuan inbertitzeagatiko kenketak -zergapeko gehienengan eragina duenetako bat- urtero zalantza berriak sortarazten ditu. Horrela, adibidez, ohiko bizilekua erosteko maileguak amortizatzeko kopuruak aztertu behar izan dira, bizileku hori ezkontideetako baten ondasuna -eta ez beste inorena- denean.

Elbarritasunagatiko kenketak, bestalde, zergaren araudia betez, legez elbarri izaera definitzen duten probak zeintzuk diren argitzea eta izaera hori aitortzeko eskumena duten organoak zehaztea eskatu du.

Azkenik, PFEZren atal honetan, merezi dute aipatzea maila jakin bateko familia ugariei seme-alabengatiko kenketak areagotzea eskatzen duten kexak.

Datozen urteei begira, azpimarratzekoak dira -zerga gaietan oro har, eta PFEZn bereziki- abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak lurralde historikoei araudi arloan ematen dizkien aukerak, esandako legeak Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko kontzertu ekonomikoa aldatzen baitu, eta bide ematen du orain arte estatu osoan berdin tratatzen ziren gaiak, lurralde bakoitzari dagozkion Batzar Nagusiek era berezian trata ditzaten.

Udal zergen esparrura etorririk, kexa asko aipa daitezke Ondasun Higiezinen gaineko Zergarako (OHZ aurrerantzean) katastroko balorazio prozesuekin zerikusia dutenak: higiezinen luze-zabalari edota $m^2$ko izendatu zaien prezioari buaizko desadostasunek eraginda, txostenak eskatu behar izan zaizkie aldundietako katastro eta balorazio zerbitzuei.

Erreklamatu dutenen aburuz, aurreko urteekin alderatuta OHZko kuotak izan duen gehiegizko igoera ere zenbait kexaren arrazoibide izan da.

Kexa gehien jaso duen bigarren udal zerga Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) izan da. Batez ere, elbarritasuna duten pertsonentzako ibilgailu egokituak ez salbuestearekin eta atoi arinen zergapekotasurj ezarekin zerikusia zutenak, baina baita kontzeptu honengatik ordaindu beharreko kuota erabakitzen duen potentzia fiskalagatik ere.

Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergari dagokionez, berriz, zerga oinarria osatzen duten elementuen zehaztapenak jaso zituen kexak, eta Hiri Orubeen Balio Igoeraren gaineko Zergan (lehenago Gainbalioa deitua) balio indizeak ezartzeko moduaz kexatu ziren.

Azken udal zergari buruz esan behar da kexak jaso direla profesionalen eta banakakp enpresari txikien aldetik, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren esistentziaren eta zenbatekoaren aurka, uste baitute ez dagoela arrazoirik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari beste zerga bat eransteko.

Udal tasen eremuan, alde batetik, zerbitzu jakin batzuengatik tasak kobratzea bidezkoa ote den zalantzan jartzen duten espedienteak ditugu -dokumentuak egiteagatik eskatutakoak edo erabiltzen ez diren saltokien jabeei eskatutako zabor tasak-; eta bestetik, tasen zenbatekoari buruzkoak, nola diren suhiltzaileek parte hartzeagatiko tasa edota ileta eskubideen transmisiokoa.

Tasen eta prezio publikoen mugan kokatuko genituzke, edateko uraren hornikuntza dela eta jasotako kexak, udalerriaren arabera, forma bat edo bestea hartzen badute ere. Aldi jakin bateko kontsumuari buruzko desadostasunak edo kontagailua ordezteagatiko prezioari buruzkoak izan dira aztertu diren arazoetako batzuk.

Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren eta bere organismo burujabeen eskubide publikoko diru sarrerei buruz, espediente batean zalantzan jartzen zen Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Batzordeak eskumena ba ote zuen prezio publikoak ezartzeko esandako organismoaren enplegu eskaintzan parte hartzeagatik. Esan behar da, oraindik Errektoretzek ez duela arazo hori behin betiko ebatzi.

Azkenik, azaletik bada ere, aipatzekoak dira, zergak direla bide, prozedura arazoei dagozkien kexa espedienteak, zehazki, administrazio ekintzen jakinarazpenei buruzkoak.

30/1992 Legearen 59.4 artikuluko aurreikuspenen aplikazio praktikoak -jakinarazpen pertsonalak fruiturik ematen ez duenean ediktu bidezko jakinarazpenera jotzeko aukerari buruzkoak- Arartekoaren eta zerga administrazioen artean aurkako jarrerak sortzea ekarri du.

Arazo honi buruzko Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia beti berdina eta errepikatua bada ere -gainerako jakinarazpen pertsonalak alferrik izan direla frogatzea eskatzen da ediktu bidezko jakinarazpenera jo aurretik-, gaizki ulertutako administrazioaren eraginkortasunaren izenean, sarriegi eta arrazoirik gabe erabiltzen da delako jakinarazpen mota.

Ofiziozko jardueren atalean, Arabako Foru Aldundiaren aurka hasitakoa aipa genezake, Pertsonaleko Planera borondatez bildu ziren emplegatu publikoei ordaindutako kalte-ordainei PFEZn emandako trataera arrazoibide harturik, erakunde honen aburuz ez baita neurri bera erabili langile publikoentzat eta publikoak ez direnentzat.

## 3.6.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Foru zergak**

#### ***PFEZ***

*Muga aldeko langileen trataera PFEZn (538/94)*

• Erreklamazioa

Espainiaren eta Frantziaren arteko Hitzarmenak aurreikusita dauka -PFEZ bi aldiz ordaintzea saihestearren- muga aldeko langileek (herrialde batean bizi eta egunero muga gurutzatzen dutenak bestean lan egiteko) Barne Ministerioak berariaz emandako txartelaren bidez egoera horretan daudela egiaztatuz gero, bizi diren herrialdean soilik ordainduko dutela errentaren gaineko zerga.

Espainaiakb estatua Europar Batasunean eskubide osoz sartzearen ondorioz eta pertsona eta salerosgaien zirkulazio askea errealitate bihurturik, esandako txartela emateari utzi egin zitzaion, ez zelako premiazkoa jotzen, eta nola ezin zuten egiaztatu muga aldeko langileak zirela, Gipuzkoako Foru Hazienda langile horiei zegozkien atxikipenak eskatzen hasi zitzaien enpresei.

• Azterketa

Arazo honi buruzko lehenengo kexak jaso zirerietik, txosteh asko trukatu ziren Gipuzkoako Haziendako Zuzendaritza Nagusiarekin, eta zenbait bilera ere egin ziren Hazienda departamentuko arduradunekin, beste zenbait gairen artean, honetaz ere eztabaidatu zelarik.

Haziendako Zuzendari Nagusiak erakunde honi igorritako txostenean zera esaten zen:

> *«...Espainiako Estatua EEEan sartzeak eta horren indarrez langileen zirkulazio askea ezarri izanak esandako Hitzarmena berez indargabetzea ekarri du, eta beraz, aurreko egoeran Estatu batean edo bestean sartzeko eta egoteko muga aldeko langileek behar zituzten agiriak orain alferrik dira.»*

Eta jarraitzen zuen,

*«...ulertzen dugu salbuespenezko egoera hori (muga aldeko langileena) indargabetu izanaren ondorioz, esandako langileak erregimen orokorrean sartzen direla, beste gabe.»*

Hala eta guztiz ere, Europar Erkidegoko Estatuetako herritarrak Espainian sartu eta egoteari buruzko 766/1992 Errege Dekretuko 6.6 artikuluak indarra kentzen dio goiko baieztapenari. Horra zer dioen

«*Espainian lan egiten duen erkidegoko beste estatu bateko lagilearen egoera, Espainia ez den estatu horretan bizitzen jarraitzen badu, egunero,edo gutxienez astean behin, bere bizilekura itzultzen dela*, *muga aldeko langilearen txartelaren bidez egiaztatuko da.5 urteko balioa izango du txartelak eta automatikoki berrituko da.»*

Alegia, Haziendako Zuzendariaren txostenean aipatzen zen ustezko indargabetzearen aurka, erabat indarrean jarraitzen du muga aldeko langilearen irudiak, bai behintzat egunero joaten diren herrialdean lortutako etekinen trataera fiskalari dagokionez.

Zentzu honetan, Europar Erkidegoko biztanleak mugaz alde batera eta bestera ibiltzeko, 1961eko urtarrilaren 23ko Espainiaren eta Frantziaren arteko Hitzarmenean aurreikusitako muga aldeko langilearen txartela beharrezkoa ez izateak, ez du esan nahi irudi hori aitortzen ez denik eta esandako 766/1992 Errege Dekretuko 6.6 artikuluan aipatzen duen txartela eman behar ez denik.

Ikuspuntu horretatik, Foru Haziendako zerbitzuek ezin zuten jarraitu prozedura soilari zegozkion eragozpenak jartzen, erakunde ez publikoetatik etekinak lortzen dituzten langile hauen atxikipenik ez jasateko eskubidea ukatzeko.

Aurkakoa, erkidego barruko langileen zirkulazio librea bermatu nahi duten xedapenen kontra legoke, eta EEEko kide diren estatuetako herritarren lan eskaintzan eta eskarian eragin ezkorra izango luke.

• Emaitza

Azaldutako guztiagatik, egoki jotzen zituen agirien bidez muga aldeko langile izaera egiaztatzen zutenei, erakunde ez publikoetatik lortutako etekinei atxikipenik ez zitzaiela egingo bermatuko zuten neurriak har zitzan gomendioa egin zion Arartekoak Hazienda Departamentuari.

Azkenean, abenduaren 10eko 90/1996 Foru Dekretua onartu zen, zeinaren indarrez Muga aldeko Langileen Erregistro bat eratu den Gipuzkoako Foru Aldundian, eta beraz, ulertu behar da desagertu direla esandako kexak azaltzeko bidea eman zuten arrazoiak.

• Erreklamazioa

Interesatuak etxebizitza-kontu bat ireki zuen 1993ko apirilaren 28an, artean ezkongai zela, eta 1.749.204 pta. sartu zituen 1994ko irailaren 9a bitartean, data horretan ezkondu baitzen.

Data horretatik aurrera 1.238.525 pta. gehiago sartu zituen, harik eta 1995eko maiatzaren 12an ohiko etxebizitzaren lehen ordainketari aurre egiteko behar zuen kopurua (2.987.729 pta.) osatu zuen arte.

1996an, 1995eko zergari zegokion aitorpena aurkeztean, Gipuzkoako Foru Haziendak behin-behineko likidazioa egin zuen eta jakinarazi zion ez zuela egindako kenketarako eskubiderik, eta interesatuari itzuli beharreko kuota, ametitu ez zizkioten kenketeei interesak gehitu ondoren ateratzen zen kopuruarekin konpentsatu zuten.

Zerga administrazioak interesatuari jakinarazitako erabakian argudiatzen zen, etxebizitza eraiki zuenari lehen ordainketa egin zion unean subjektu pasiboa ezkonduta zegoela, eta beraz, ordainketaren erdiagatik zela zordun, 1.498.000 pta.gatik, alegia, eta beste erdia etxebizitza erosteko erabili ez zenez, kenketarako eskubidea galtzen zuela.

• Azterketa

Arrazoibide horren arabera segurutzat ematen zen etxebizitza-kontuan sartutako saldo guztia, ezkondu ondoren sartutako kopuruak barne, senarrarenak ez besterenak zirela, libreta bere izenean zegoelako, baina PFEZko Foru Arauak eta Araubideak, bestalde, ez diete bi subjektu pasibori kontu berbera edukitzea galarazten. Alegia, ezkondu ondoren sartutako kopuruak senarraren izenean soilik zegoen kontuan sartu izanak ez du esan nahi beste gabe saldo hori senarrarena ez besterena zenik.

Nolanahi ere, ohiko etxebizitzan inbertitzegatiko kenketa erregulatzen duen arauaren xedea kontuan harturik, erabat proportzioz-kanpokoa zen forma-arazo soil bat ez betetzeagatik kenketa eskubidearen galerarekin zigortzea.

Hala, erakunde honen iritzian, benetan axola diona da egindako inbertsioaren osoko zenbatekoaren barruan egon daitezela etxebizitza-kontuan sartutako kopuru guztiak, eta begien bistakoa da, subjektu pasiboak noiz erabili zituen alde batera utzita, azkenean ohiko bizitza erosteko erabili zirela.

Esan bezala, bada, erakunde honen aburuz, behar bezala egiaztatuta geratu zen etxebizitza-kontuko fondoak ebcea erosteko erabili zirela, eta beraz, ez zegoela arrazoirik egindako kenketak gehi zegozkien interesak itzultzeko eskatzeko.

• Emaitza

Foru Haziendak onartu zituen erakunde honetatik azaldutako arrazoibideak, eta, ezkondu ondoren sartutako kopuruak irabazpidezkotzat hartuta likidazioa berriro kalkulatuko zela egiaztatu ondoren, espedientea artxibaturik geratu zen.

*Zerga aukera aldaketa PFEZn (547/97)*

• Erreklamazioa

Gipuzkoako zergapeko batek igorritako kexa-idatzia jaso zen, Foru Haziendak ez ziolako utzi 1994ko PFEZren aitorpena egitean aukeratutako tributazio modua aldatzen.

Alegatzaileak adierazten zuen aitorpen mekanizatua egitera joan aurretik, bi tributazio aukeren artean -banakakoa ala baterakoa- onuragarriena zein zitzaion kalkulatu zuela, eta azkenik baterakoa aukeratu zuela.

Funtzionarioari bere aukera azaldu ondoren, honek aitorpena egin zuen eta 94.446 pta. ordaintzea atera zitzaion.

Ateratako kuotarekin harri eta zur geratu zenez, funtzionarioak adierazi zion lan etekin gisa sartu ziotela ezkontidearen elbarritasun-pentsioa, urte hartara arte salbuetsita egon bazen ere.

Hala beharko zuela onartu ondoren, eta nola ordura arte ez zuen horren berririk izan, errenta berriak kontuan harturik onuragarrien ateratzen zitzaion tributazio modua aukeratzeko gogoa azaldu zuen, baina funtzionarioak ez zion utzi, argudiatuz programa informatikoak islatu zuela jada lehenengo likidazioa.

Ezezkoagatik haserre, zergapekoak ez zuen izenpetu likidazio orria eta zegozkion errekurtsoak jarri zituen, nahiz eta ez zizkioten onartu.

• Azterketa

Kontuan harturik zergapekoaren aldetik ez zela asmo txarrik izan eta Haziendako Zuzendari Nagusiak kasu hauetarako emandako zirkularra irakurri ondoren, Hazienda Departamentuari azaldu zitzaion ezin ote zuen interesatuak agertutako eskaera onartu eta egindako likidazioak baliogabetu.

Foru Diputatuaren erantzuna izan zen, ezin zitekeela erabaki zein zen zergapekoen nahia aitorpena aurkezterakoan, eta beraz, ezin zela zuzendu behin egindako aukera.

Erakunde honen aldetik argi utzi zen, esan bezala, interesatua eta bere ezkontidea aitorpen bateratuko inprimakiak beteta joan zirela Haziendako bulegora, baina emaztearen elbarritasun pentsioa etekin gisa kontatu gabe, aurreko urtera arte salbuetsita baitzegoen.

Behin funtzionarioak likidazioa egin zuenean, eta ateratzen zen kuotagatik harrituta zeudenez, argitu zieten lan etekin gisa sartu zitzaiela esandako pentsioa, eta orduan ez zitzaien utzi aukeratzen onuragarrien zitzaien tributazio modua.

Behin honetara ezkero, bidezkoa da aipatzea Haziendako Zuzendari Nagusiaren barne-zirkularra -hain zuzen ere, erakunde honetatik azaldutako kexak zirela eta argitaratutakoa-, zeinaren arabera, PFEZren likidaziorako programa informatikora zergapekoek euren aitorpenean kontuan hartu gabeko errentak sartzen zirenean, beste aukera bat eman behar baitzitzaien zergapekoei nahi bazuten tributazio modua alda zezaten.

Eta hala, erakunde honek ez zuen onartu Foru Diputatuaren txosfenean egiten zen baieztapena, esaten baitzen ezin zitekeela frogatu subjektu pasiboaren borondatea zein zen PFEZren aitorpena aurkezterakoan.

Begien bistakoa da borondate hori baterako aitorpena aurkeztea izan zela, zergapekoak aitortutako etekinak kontuan hartuta, esandako aukera onuragarriagoa baitzitzaien; baina emaztearen elbarritasun pentsioa etekin gisa sartu ondoren, ez zitzaien utzi berriro aukera egiten.

Bestalde, ezin zitekeen gertatutakoa zergapekoaren apetazko portaeratzat eta administrazioaren jarduerarekiko errespeto faltatzat ere hartu, aitorpena aurkezteko unean zergapekoak bere desadostasuna azaldu baitzuen, likidazio-inprimakia izenpetzera ukatuz.

Erakunde honen iritzian, Konstituzioaren 31. artikuluan barne hartutako zerga gaitasun printzipioaren aurka joango litzateke ordea, zergapekoak eta bere emazteak azkenean, PFEZren kontzeptuan legez tokatzen zitzaiena baino kopuru handiagoa ordaintzea; eta horrela jakinarazi zaie foru haziendei arazo honi buruz tramitatutako beste zenbait espedientetan.

• Emaitza

Azaldutako guztiagatik, 3/85 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, 117/1997 Gomendioa egin zen, interesatuari eta bere emazteari egindako baterako likidazioa baliogabetu eta banakako bi likidazio egin zitezen. Azkenean gomendio hori onartu zen eta espedientea artxibaturik geratu zen.

### *Zerga bereziak*

*Elbarritasunagatik salbuespena Zenbait Garraio Bitartekoren gaineko Zerga Berezian (1554/96)*

• Eraklamazioa

Bilboko hiritar batek igorritako kexa-idatzia jaso zen, Bizkaiko Foru Haziendak ukatu egin baitzion, abenduaren 28ko 38/1992 Legeak arautzen duen Zenbait Garraio Bitartekoren gaineko Zerga Berezitik (ZGBZB) salbuestea elbarria izan arren.

Alegatzaileak -Foru Aldundiaren beraren kalifikazioz %90,5eko elbarritasuna jasaten du-, 1996ko azaroaren 27an esandako zergatik salbuetsia izatea eskatu zuen, bere erabilpenerako nahi zuen ibilgailu bat erosteko, nahiz eta ez zen bera izango gidatuko zuena.

1996ko azaroaren 27ko, Zuzeneko Zergen Administratzailearen ebazpen bidez, eskatutako salbuespena ukatzea erabaki zen.

Erabaki horren edukiak, 38/1992 Legea garatzen duen abenduaren 29ko 1.623/1992 Errege Dekretuaren 3.2 artikulua aipatzen du, zeinaren arabera *«organo kudeatzaileek **eskatzaileak eduki beharreko** beste edozein agiri aurkeztea eska dezaketen, eskatzen den salbuespenaren arabera...»*

Eta ondoren dio interesatuak ez zituela betetzen 38/1992 Legean adierazten diren baldintzak salbuespena emateko, ez zuelako frogatzen.esandako ibilgailua berak ez bestek erabiliko ez zuenik.

• Azterketa

Erakunde honen aburuz, bere elbarritasuna dela eta eskatzaileak eduki beharreko agiriak eskatzeko bulego kudeatzaileari ematen zaion eskumenak ez du inolako zerikusirik ibilgailua elbarriak bestek ez erabiltzearekin.

38/1992 Legearen eta hura garatzen duen 1.623/1992 Errege Dekretuaren aginduak irakurrita, ondorioztatzen da interesatuari salbuespena emateko 05 ereduko iriprimakian idatzitako eskakizunari ondorengo agiriak erantsi behar zaizkiola:

- Ibilgailuaren erosketa-faktura.
- Ibilgailuaren Ikuskapen Teknikorako Txartela.
- Foru Aldundiak emandako elbarritasun ziurtagiria.

Agiri horiek guztiak aurkeztu zituen erreklamatzaileak, eta beraz, eman egin behar zitzaion eskatutako salbuespena.

Horixe da Bizkaiko Ekonomia-Administrazioko Foru Auzitegiak berak adierazitako irizpidea 1995eko ekainaren 21ean erabakitako 1.667/94 zenbakidun erreklamazioari emandako ebazpenean.

3.2 artikuluan aurreikusitako aukera ezin daiteke ulertu bulego kudeatzailearen aldeko txeke zuri bat bezala, egoki derizkion edozein agiri eskatzaileari eskatzeko, baizik eta **eskatzaileak eduki beharrekoak soilik** eskatzen duen salbuespenaren arabera.

Bestalde, Tributuen Zuzendaritza Nagusiak, 1987ko uztailaren 21ean, ibilgailu automobilak erostean BEZaren igoera tipoari buruzko kontsulta bati erantzunez, ondorengoa zehaztu zuen, ibilgailuak merkataritza agenteek soilik erabiltzeari zegokionez:

> *«Hasteko, ondasunaren erabilpenari buruz subjektu pasiboak egiten duen adierazpena egiazkotzat hartu behar da, esandako adierazpena errealitatearekin bat ez datorren aztarna arrazoizkoak dauden kasuetan salbu.»*
> *«Zerga administrazioak zuzenbidean onargarriak diren bitartekoen bidez frogatu beharko du subjektu pasiboak egin dituen adierezpenen faltsutasuna.»*

• Emaitza

Azaldutako guztiagatik, erreklamatzaileari esandako zergaren salbuespena emateko gomendioa- egin zitzaion Foru Hazienda Departamentuari, ZGBZBtik salbuesteko legezko betebeharrak biltzen zituelako.

Erakunde honek egindako gomendioaren ondoren, Bizkaiko Hazienda Departamentuak salbuespen eskakizuna onartzea erabaki zuen, eta horren ondorioz, 1996ko abenduaren 4an ingresatutako 223.715 pta.k itzultzea.

### *Zerga prozedurak*

*Likidazio espedientearen iraungitzea (1282/96)*

• Erreklamazioa

Gipuzkoako zergapeko baten kexa jaso zen, 1989 eta 1988ko PFEZ eta ondare kontzeptuan Foru Haziendak igorritako bi premiatasun probidentziaren aurka.

Alegatzailea, esandako Probidentziak jaso zituenean, Foru Haziendako bulegoetara joan zen, eta han esan zioten esandako likidazioen borondatezko aldirako jakinarazpena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Buletin Ofizialean (GLHBO) argitaratuz egin zela, 1995eko abenduan alferrikadko jakinarazpen ahalegin bat egin ondoren.

Interesatuak argudiatu zuen jakinarazpenetarako helbidea bere lanbide bulego/bizilekua dela, lan-egunetan irekita egoten dela eta atezaina dagoela etengabe, eta beraz, jakinarazpena igorri izan balute iritsi behar zuela.

• Azterketa

Nolanahi ere, Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Arruntaren Zuzenbide Erregimeneko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluko aurreikuspenak erabiltzea, arrazoigabea izan daiteke kasu honetan, jakinarazpena ediktu bidez egin zelako -GLHBOean argitaratuta- beste jakinarazpen pertsonalik egiten ahalegindu gabe.

Hala, jakinarazpen ahalegin bakar batek fruiturik eman ez zuelako, ediktu bidezko jakinarazpenera jotzea, esandako araua oker interpretatzea da, eta Espainiako Konstituzioko 24.1 artikuluak bermatzen duen babes judizial eraginkorrerako funtsezko eskubidea hausten du.

Zentzu horretan, eredutzat hartzekoa da 1993ko azaroaren 10ean Auzitegi Gorenak emandako epaia, laburpen gisa zera esaten baitu: *«Auzitegi Gorenaren behin eta berriroko doktrina da -9/1981, 1/1983, 22/1987, 72/1988, eta 242/1991 epaiak, beste batzuen artean-prozeduretako jakinarazpen ekintzak, Espainiako Konstituzioko 24.1 artikuluak bermatzen duen babes judizial eraginkorrerako funtsezko eskubidearekin, eta, batezere, agindu horrek saihestu nahi duen babes gabeziarekin duen harremanagatik, ez direla forma aldetiko betebehar soilak prozesuaren tramitazioan, baizik eta bazter ezinezko eskaerak direla interesatuei euren legezko eskubide eta interesen defentsa bermatzeko, eta esandako ekintzen araubideak ez errespetatzeak, aipatutako funtsezko eskubidearen aurkako babesgabezia egoeran jar litzake interesatuak. Ediktu bidezko jakinarazpenak, azken muturreko jakinaraz-*

*pen bitartekoa denez, aurretik, interesatuak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen saiatzeri diren gainerako bideak ahitzeaeta ahalegina egin dela egiaztatzea eskatzen du, eta interesatua leku ezezagunean aurkitzen deneko ebazpenak, (...) gainerako jakinarazpen bitarteko guztiak alferrik direla ziurtatzera daramaten arrazoizko irizpideetan oinarritu behar du (...). Auzitegi Konstituzionalaren urtarrilaren 17ko 9/1991 epaiak dio, bestalde, jaso izana adierazten den posta ziurtatu bidezko jakinarazpenak fruiturik ematen ez duenean, interesatua falta delako, ezin litekeela beste gabe ediktu bidezko jakinarazpena egin (...), prozedur horretara jo aurretik, premiazkoa delako interesatuaren bizilekua ezjasota egotea, edo non den ez jakitea eta diligentziaz horrela jasotzea.»*

Ahalegin bakar baten ondoren -esan behar da, baita ere, ez dela ahalegin horren emaitza ezagutzen, ez dagoelako gure eskuetan jakinarazleak praktikatutako diligentziarik- ediktu bidezko jakinarazpenera jotzearen bidezkotasuna zalantzan jartzen duen beste froga bat da, hasieran aipatutako probidentziak eta hil bereko 15ean, jakinarazitako beste bi likidazio berresle ezeren arazorik gabe iritsi zirela helbide berera.

Begien bistan dago, aipatutako jurisprudentzia aplikatzera, ezin litezkeela aintzakotzat hartu ediktu bidez egindako jakinarazpenak, argi eta garbi egiaztatu gabe alferrikakoa dela lehengo helbidera jakinarazpen pertsonalak bidaltzea, babes judizial eraginkorrerako funtsezko eskubidea hauste baita jokabide horrekin.

Beste alde batetik, 1995eko urriaren 25ean subjektu pasiboaren etxera jakinarazpena eraman nahi izan zenetik -alferrik, ez baitzegoen etxean banaketa orduan- 1996ko uztailaren 16raino, data horretan argitaratu baitziren likidazioak Gipuzkoako Buletinean, 8 hilabate eta 21 egun pasa ziren, eta ez dago inon jasoa tarte horretan, administrazioak lehengo helbidera beste jakinarazpenik igorri zuenik (hala izan balitz adieraziko zatekeen txostenean). Beraz ulertu behar da esandako likidazio-espedientea iraungi egin zela.

Izan ere, Administrazio Publikoen Zuzenbide Erregimenaren (APZE) 30/ 1992 Legeko 43.4 artikuluaren arabera *«ofizioz hasitako prozedurak direnean, eta hiritarren aldeko eraginik sortuko ez dutenean (kasu honetan sartzen dira Ikuskaritzaren jarduerak eta, ondorioz, haietatik eratorritako Bulego kudeatzeailearen likadazio jarduerak), iraungitzat jo eta artxibatu egingo dira jarduerak, edozein interesaturen eskaeraz edota ofizioz, ebazpena emateko eskumena duen organoaren aldetik, ebazpena eman beharzeneko epea amaitu zenetik, 30 eguneko epean...»* Eta arrazoibide hori lege bereko prozeduren iraupenari buruzko 42.3 artikuluan aurreikusten denarekin osatzen da: ezingo dute sei hilabete baino gehiago iraun.

Baina zalantzaren bat balego zerga prozeduren iraungitzeari buruz, hona zer dioen 1997ko otsailaren 25ean Entzutegi Nazionalak eman berri duen epaiak:

> *«...Gertatzen da, beraz, gauza bat dela, 803/1993 Errege Dekretuaren arabera, oraingoa bezalako, zerga egiaztatze eta ikerketarako prozedu-*

*rak amaitzeko epe jakinik ez egotea, Hazienda Publikoarentzat izan ditzakeen eragin handiengatik, eta beste bat, oso bestelakoa, Administrazioaren sei hilabeteko geldialdi frogatuak, zergapekoaren berme utziezin gisa,* ***instantziaren iraungitzea*** *ez sortaraztea». «Auzitegiaren iritziz, eta Estatuko Abokatu Jn.k aldezten duen tesia errespetatzen badugu ere,* ***Zerga Administrazioa ezin daiteke kanpoan geratu*** *EEk -segurtasun juridikoa eta bidegabekeriaren galarazpena— eta lege orokorrek -30/1992 legea, adibidez— herritarrei eskaintzen dizkieten* ***oinarrizko bermeetatik.»***
*«Arrazoibidearen puntu honetara heldurik, erraz ondorioztatzen da sei hilabetez baino gehiagoz ikuskaritza jarduerak eteteak, 1996ko otsailaren 28ko epaiak argitzen duen bezala, nahiko indar baldin badu preskripzioaren eperako zenbaketa ez eteteko -bere kasuan, likidatzeko eskubidearen iraungitzea ekarriko lukeena-,* ***arrazoi handiagoz sortarazi behar duela Administrazioaren geldialdiak, gutxienez prozeduraren iraungitzea,*** *nahiz eta, 30/1992 Legearen 2.3 artikuluak eta 1996ko martxoaren 1eko RPREAko 109.2 artikuluak zehazten duten bezala, iraungitze honek ez duen ekarriko berez, Administrazioak eragin ditzakeen ekintzen preskripzioa, baina iraungitako prozedurek ez dute etengo preskripzio epea.»*

• Emaitza

Azaldutako guztiagatik, Arartekoak 80/97 zenbakidun Gomendioa egin zuen, interesatuari zuzendutako likidazio espedientearen iraurigitzea aldarrika zedin, eta bulego kudeatzailearen jarduerak *ad initio* eramatea proposatu zuen, bulegoak eskubidea duelarik beste bat hasteko, iraungitzeak berez, ez dakarrelako administrazioak eragin ditzakeen ekintzen preskripzioa.

Foru Haziendak onartu zuen gomendioa.

## B) **Udal zergak**

### *Jakinarazpenak*

*OHZren likidazio baten arauzko jakinarazpen falta (1193/96)*

• Erreklamazioa

Erreklamatzaileak industria pabilioi bat erosi zuen 1990ean Galdakaoko udalerrian.

1996ko apirilaren azken aldera jaso zuen lehen jakinarazpena, Ondare Higiezinen Zerga kontzeptuagatik, %20ko errekarguarekin.

Likidazioaren arauzko jakinarazpenik egon ez zelako errekurtsoa aurkeztu zuenean, ez zioten aintzat hartu, esanez «neskameak» ez zuela jakinarazpena

onartu nahi izan eta beraz, probintziako buletin ofizialean argitaratu zela 95-11-20an.

• Azterketa

Kexa jaso eta Foru Aldundiak egindako administrazio tramitea aztertu bezain azkar, txosten bat igorri zen Hazienda Departamentura gomendatuz baliogabetu zitzatela bidalitako likidazioak, zuzenbide antolamenduak eskatzen zituen betebeharrak betetzen ez zituelako.

Lehenik esan behar da, interesatuak dioenez ez duela neskamerik.

Bigarrenez, 30/92 Legeak 59.3 artikuluan aipatzen du interesatuak edo honen ordezkariak jakinarazpena ez onartzea, baina ezin daiteke interesatuaren ordezkaritzat hartu ustezko neskame bat, areago pertsona honetaz beste daturik jasota ez badago.

Zentzu honetan dagoen jurisprudentzia ugariak indarra kentzen dio agente jakinarazleak adierazitako onarpen faltari, baldin eta jakinarazpena onartzen ez duen pertsona identifikatzen ez bada, funtsezkoa baita.jakinarazpen orotan, zeinahi bitarteko erabiltzen dela; ere, hartu den egiaztapena jasotzea, aipatutako 30/92 Lege bereko 59 artikuluak eskatzen duen bezala.

Espedientearen tramitazioan ikusi zen, betebehar formal bat ez zela bete, nola den jakinarazpena onartu bide ez zuen pertsonaren identifikatzea, eta horrek baliogabetu egiten zuela prozedura, eta ondorioz likidatutako zorraren preskripzioa zekarrela.

Haziendako Foru Diputatuak erantzun zuen, Arartekoaren gomendioa eskertu ondoren, etorkizunean hori egingo zela horrelako kasuetan, baina espediente honetan ezin zitekeela gomendioa aplikatu, bide ekonomiko-administratiboa zelako egokiena.

Beste txosten batean Arartekoak argitzen zuen, zuzenbide antolamenduak jakinarazpen gaian ezartzen dituen aginduetara administrazioaren jarduera egokitzea zela gomendatzen zena, eta kasu honetan, zehazki, betebehar horiek ez zireia bete.

Zentzu honetan, adierazten zen ez geundela kasu bati aplikagarri zitzaion agindu bati buruz Arartekoak egin zezakeen interpretazio soil baten aurrean, baizik eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak eta 30/92 Legeak eskatzen zituzten betebeharren betetzea eskatzen zela, Zuzenbideak arazoari buruz emandako epai ugarietan adierazi bezala.

Auzitegi Gorenak berak, 1996ko urriaren 14ko epaian (Zerga Jurisprudentzia, 7.271) zera dio:

> «*...orain zalantzan jarri den ustezko jakinarazpena posta ziurtatuz egin ondoren, dirudienez, interesatua ez zen beste pertsona bati, ez zen idatzi jasotzailearen N.A.rik ez beste daturik (...).*

*Eta, beraz, auzibide den jakinarazpena legezkotzat hartu ez daitekeenez, probaren zamari buruzko doktrina arrazoitzen duten arau orokorretara jo beharko da (...).*
*Eta nola Korporazioak dioen administrazio ekintza dagoela -zeinaren eraginkortasun baldintza esandako jakinarazpena den- argi geratzen da* ***bera dela probaren zamari eusten diona, ez bakarrik errealitatearena, baizik eta baita jakinarazpenaren forma-legezkotasunarena ere,*** *eta beraz, bera da probaren faltaren aurkako ondorioak jasan behar dituena ere, zeren ez da egiaztatu, kasurako eskatzen den bezala, jaso izanaren adierazpenean edo banaketa-liburuan, jasotzailearen N.A. eta izaera idatzi denik, eta ez da frogatu, hortaz, preskripzioaren mekanismo etentzaile gisa, jakinarazpena egin zenik.»*

Bere garaian interesatuak aurkeztutako erreklamazio ekonomiko administratiboa oraindik ebazteke egoteak -argudio hori erabili baitu Haziendak gomendatutakoa ez egiteko- ez du eragozten administrazioak ofizioz preskripzioa onartzea, erreklamatzaileari jarritako errekurtsoa bertan behera uzteko eskatzearen kaltetan izan gabe.

Bestalde, ikusirik zenbat irauten duen Bizkaiko Foru Auzitegiaren aldetik erreklamazio ekonomiko-administratiboen tramitazioak, Aldundiari ikusarazi zitzaion Auzitegi horrek ebazten duenaren zain interesatua uztea, praktikan, babes gabe uztea zela.

• Emaitza

Arrazoibide horiek guztiak gorabehera, Bizkaiko Haziendako Foru Diputatuaren txosten batean Departamentu horrek adierazi du ez duela onartzen Arartekoak egindako gomendioa, eta beraz, gure eskumenean zeuden jarduerak ahiturik, txosten honetan jaso dugu erakunde horren ezezkoa.

*OHZrako zerga oinarriaren igoeraren jakinarazpena (1215/96)*

• Erreklamazioa

Gasteizko eraikin bateko auzo-komunitatearen kexa-idatzia jaso zen erakunde honetan, 1996ko OHZ kontzeptuan ordaintzen ziiten kuotaren igoeraren aurka.

Erreklamatzaileek zioten zerga horrengatik igorritako kuota, aurreko urtekoarekin erkatuta, %34 inguru igo zela, etxebizitzen katastro balioan izandako aldaketaren ondorioz.

Hala, idatzi bat aurkeztu zioten Udalari, gertakari horren berri emanez, eta ondorengoa zioen txosten baten bidez erantzun zien udalak:

*«...1995ean Higiezinen Katastroak ikusi zuen 1989tik hasita eraikinari aplikatzen zitzaion kontserbazio egoera ez zetorrela bat benetakoare-*

*kin, hau da, kontserbazio egoera normala duela, eta ez nola-halakoa; haleber, eraikinaren kalitatearen araberako kalifikazioa ere aldatu* zen».

• Azterketa

Zerga hau arautzen duen Foru Arauaren eta udal ordenantza fiskalaren arabera, egindako aldaketen ondorioz sortzen diren katastro balio berriak banaka jakinarazi behar zitzaizkien subjektu pasibo guztiei eta bakoitzari, balio horiek eragina sortu behar zutenaren aurreko urtea amaitu aurretik, eta kasu honetan ez dago jasota hala egin zenik.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak bestalde, ondorengoa dio 124. artikuluan, ordainagiri bidez aldika kobratzen diren zergei buruz:

*«Igoeraren arrazoi izan diren gertakari eta elementu gehigarriak zehazki azalduz jakinarazi beharko zaio aitorpenen ondoriozko zerga oinarriaren igoera subjektu pasiboari, aldaketa legeak baimendutako izaera orokorreko balio handitzeetatik eratortzen denean salbu».*

Begien bistan dago kasu hau ez dela izaera orokorreko balio handitzea, aurrekontu arauetako zerga igoeren antzekoa, baizik eta, udal txostenak berak dioen bezala, zerga-xede den eraikinean oinarritutako aldaketa da, eta zentzu horretan, argi dagoela dirudi banakako jakinarazpena egin behar zela, eta hala egin ezean zerga oinarriaren igoera baliogabetzat jo behar zen.

Hau guztia azaldurik Arabako Foru Aldundiko Hazienda Departamentuari, beronen eskumena baita OHZ eraginetarako etxebizitzen katastro balioa finkatzea eta aldatzea, Aldundiak Foru Diputatuaren txosten bidez adierazi zuen, katastro balioa ikertu eta egiaztatzeko eskumena zuenez balioa aldatzeko gaitasuna ere bazuela eta ez zeukala balio berria banaka jakinarazteko obligaziorik.

Hala, erantzun behar izan zitzaion, kexa-espedientean eztabaidatzen zena ez zela zerga administrazioaren eskumena erreklamatzaileen eraikinaren katastro balioa berrikusteko -kasu honetan, kontserbazio egoeraren arabera-, baizik eta berrikuste horren ondorioz, zerga kuotan garrantzi handikoa zen elementu baten aldaketa erreklamatzaileei jakinarazi ez izana.

Arazo honi buruz, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren (ZFAO) 120.3 artikuluak, Zergei buruzko Lege Orokorreko (ZLO) 124.3 artikuluko edukiak tratatzen dituenak, zera dio:

*«Ordainagiri bidez aldika kobratzen diren zergetan, dagokion erregistroan, erroldan edo matrikulan alta emateagatik egiten den likidazioa behin jokinarazi eta gero, ondorengo hurrenez-hurrengo likidazioak ediktu bidez jakinarazi ahal izango dira. Aitorpenen ondoriozko zerga oinarriaren igoera ez zaio jakinarazi beharko subjektu pasiboari* ***aldaketa Foru Arauek baimendutako izaera orokorreko balio handitzeetatik eratortzen*** **denean.»**

ZLOaren aldaketa hau 25/1995 Legeak sartu zuen, lege horretara egokitu baitzen Arabako arautegi fiskala, 23/96 Foru Arauaren bitartez, hirugarren apartatuko bigarren paragrafoa erantsiz.

Deigarria gertatzen da Arabako arauaren erredakzioak, Zergei burUzko Lege Orokorreko eduki bereko artikuluan aurreikusten dena alderantziz idaztea. ZFAO bereko 9. artikuluaren indarrez aplikazio gehigarria duen Lege honek hara zer dioen:

*«Igoeraren arrazoi izan diren gertakari eta elementu gehigarriak zehazki azalduz jakinarazi beharko zaio aitorpenen ondoriozko zerga oinarriaren igoera subjektu pasiboari, aldaketa legeak baimendutako izaera orokorreko balio handitzeetatik eratortzen denean* ***salbu»*****.**

Nolanahi ere, bi arauetan egindako aldaketak Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia ugaria eta errepikatua gehitzea ekarri zuen, jakinarazpen pertsonaleko arau orokorraren aldean ediktu bidezkoaren salbuespen izaera frogatzera zetozenak.

Horrela, Auzitegi Gorenak emandako epai guztien artean, adibidetzat jartzen dugu 1991ko otsailaren 19an, 3. Auzitegiko 3. Sekzioak emandakoa (Ar. 2.289/1992):

*«Zergei buruzko lege orokorrak, printzipio orokor gisa, zerga likidazioak subjektu pasiboei pertsonalki jakinarazteko obligazioa ezartzen du, nahi zeta, salbuespenez, ediktu bidez jakinaraztea ere baimentzen duen ordainagiri bidez aldika kobraizen diren zergen kasuan (...); adierazi behar da,* ***esandako ediktu bidezko jakinarazpenak lehenengo ekintzaren eta ondorengoen berdintasuna eskatzen duela.*** *aldaketarik gabea zergapekoari jakinarazi behar zaizkioin datuetan.»* (Zentzu berekoak dira 1986/12/9, 1987/4/30, 1988/9/26, 1989/9/30, 1992/3/23, 1992/2/17, e.a.eko Auzitegi Gorenaren epaiak)

Baina Foru Diputatuaren idatziak, Auzitegi gorenaren epai irmoak saihesteaz gain, ez zion jaramonik egiten jakinarazpen pertsonaleko salbuespena aplikatu ahal izateko ZFAO bereko 120.3 artikuluak adierazten duen betebeharrari: ***«al-daketa Foru Arauek baimendutako izaera orokorreko balio handitzeetatik eratortzen denean.»***

Begibistakoa da erreklamatzaileen eraikinaren katastro balioaren aldaketa ez datorrela izaera orokorreko balio handitze batetik -adibidez, aurrekontuetako foru arauetan katastro balioak ehuneko jakin batean eguneratzen direnean bezala-, baizik eta, aurretik esan den bezala, zerga administrazioak egiaztatze lan bat burutu ondoren erabakitako aldaketa esandako eraikinari besteri ez zaio aplikatu.

Aurreko guztia esan ondoren, esandako idazkiaren azken aldean egiten zen baieztapena, gutxienez ere, harrigarria gertatzen zen-*.»artikuluaren azterketatik ondorioztatzen da, alde batetik, ez dagoela obligaziorik katastro balioaren igoera kasuetan jakinarazpena egiteko, eta bestetik, ediktu bidezko jakinarazpena gomendatzen dela».*

• Emaitza

Zentzu horretan, otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11.b) artikuluan aurreikusitako eskumena erabiliz, zeinaren indarrez sortu eta arautu baitzen Arartekoaren erakundea, **69/1997 zenbakidun** Gomendioa egin zitzaion aipatu departamentuari, kexa aurkeztu zuen auzo komunitatea osatzen dutenei 1996ko OHZ kontzeptuan igorritako likidazioak baliogabetu eta beste likidazio batzuk egin zitzan, katastro balioen aldaketa jakinarazi zitzaien hurrengo urteko urtarrilaren batetik eraginak izango zituena.

Tamalez, Haziendako Foru Diputatuak berak, zera erantzun zuen igorritako txostenean:

*«1.- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, udal zerga da eta ez dugu eskumenik baliogabetzeko.*
*2.- Kuota igoera sortarazten duten datu berrien erroldatzea ongi eginda dagoela deritzagu.*
*3.- Erroldaratze horiek ez ditu atzerako eraginez aplikatu Gasteizko Udalak, eta beraz, ez da babes gabeziarik gertatu goian aipatutako zergapekoen artean. « (sic)*

Azaldutako guztiagatik, Arartekoak Euskal Parlamentuari aurkezten dion urteroko txosten honetan gai hau sartzea erabaki zen, egindako gomendioa onartzeari Departamentuak emandako ezezkoa jasota geratzen delarik.

*Premiatasun errekargua Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (898/96)*

• Erreklamazioa

Lasarte-Oriako biztanle batek igorritako kexa-idatzia jaso zen erakunde honetan, 1996ko Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ) kontzeptuan eskatutako likidazio baten aurka.

Interesatua kamioi baten jabea zen eta zegokion denboran eta moduan ordaindu zuen 1996ko aipatutako zerga.

Apirilean, Udalak berak jakinarazi zion, kamioiaren zama erabilgarriari zegokion tarifa baino handiagoa aplikatu ziotela, eta ordainagiriko datuak zuzendu eta itzuliko ziotela ingresatu zuen soberako kopurua.

Hala ere, interesatua harri eta zur utzirik, Udalak beste ordainagiri bat bidali zion %20ko errekarguarekin, aurrez esandako itzulketa egin baino lehen.

• Azterketa

Erakunde honek eskatuta Udalak bidali zuen txostenean esaten zenez, interesatuak ez zion Udalari jakinarazi baliogabetutako likidazioari zegokion kopurua sartu ahal izateko kontu korrontearen zenbakia.

Begi bistakoa da, erreklamazioa onartzen zitzaion ebazpenaren jakinarazpenean esaten zitzaiona gorabehera, erreklamatzaileak zera espero zuela, sobera ingresatutako kopurua Udalak itzultzea, eta ez datuak zuzendu ondoren egindako likidazio berria ordaintzera behartuko zutenik.

Udalak argudiatzen zuenez, borondatezko aldiko zorren kitatzea zergapekoak berariaz hala eskatuta besterik ezin daiteke egin. Baina galde liteke ez ote zen berariaz hala eskatu, hitzez izanda ere, jarraitu beharreko prozeduraren berri eman zitzaion egunean.

Zalantzan jartzekoa da, orobat, zor kitatze kasu baten aurrean egotea ere, konponezin guztiaren jatorrian Udalaren beraren huts egite bat besterik ez baitzegoen, eta logikazkoa zirudien ofiziozko zuzenketa batez arazoa ebaztea.

Baina nolanahi ere, Zergabilketarako Araudi Orokorrak 63. artikuluan ondorengoa aurreikusten du

> *«Ingresatu den likidazio bat baliogabetu eto beste batez ordezten denean, azkeneko hau gutxitu liteke aldez aurretik ingresatutako kopuruan».*

• Emaitza

Nolanahi ere, fede onaren eta bidegabekeriak galaraztearen printzipioei kasu emanez, Udalbatzaren erabakipean utzi zen erreklamatzaileari bidalitako likidazioari aplikatutako premiatasun errekargua baliogabetzeko aukera, baina Lasarte-Oriako Udalak ez zuen onartu.

### ***Salbuespenak***

*Elbarritasunagatik salbuespena ukatu Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan (1264/97)*

• Erreklamazioa

%49ko elbarritasun fisikoa jasaten duen pertsona batek Arartekoari igorri zion Irungo Udalaren erabaki bat, zeinaren bidez Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergatik salbuestea ukatu zioten.

Esandako erakundeak salbuespena ukatzeko arrazoibidea izan zen, salbuespena aplikatu nahi zitzaion ibilgailua ez zela egokitua izan.

Argudio horren aurka interesatuak arrazoitzen zuen, erosi zuen ibilgailuak, nahiz eta aldagailu automatikoa etxetik ekarri, beste egokitzapenik egin beharrik ez zuela jasaten zuen elbarritasunerako.

• Azterketa

Erakunde honetatik txosten bat helarazi zitzaion esandako udalbatzari, zeinetan adierazten zen arau aldaketa funtsezkoa gertatu zela salbuespenaren kon-

figurazioan, eta hala, 14/1990 Foru Arauko 2.1.d) artikuluaren testu berriari kasu egoera, huskeria bat zela ibilgailuak tailer mekaniko batean jarritako aldagailu automatikoa izatea ala, fabrikatik ekarria izatea. Bestalde, begien bistakoa zen, ibilgailua «egokitua zegoela elbarritasun fisikoa zuten pertsonek gida zezaten».

• Emaitza

Azaldutako arrazoiek, eta egokitutako auto bat erosteak zekarren aparteko gastua ez konpentsatzearen bidegabekeriak eraginda, Arartekoak erreklamatzaileari salbuespena aplikatzeko gomendatu zion esandako udalbatzari.

Hala ere, Irungo Udalak ez zuen onartu erakunde honetatik egindako gomendioa eta beraz, kexa-espedientea artxibaturik geratu zen. Txosten honetan jasoa geratzen da gomendioari eman zitzaion ezezkoa.

### *Ordaindu beharrik eza*

*Atoi arinek Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaindu behar dutenalaez (19/97)*

• Erreklamazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko herritar bat zuzendu zen erakunde honetara, Portugaleteko Udalak agindutako bahikuntza bategatik kexatzeko. 750 kg. baino arinagoko atoi baten Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga borondatezko aldian ez ordaintzeagatik egin zitzaion esandako bahikuntza.

• Azterketa

Hala, kexa onartu ondoren, aipatutako udal erakundeari adierazi genion bidezkoa ikusten genuela igorritako likidazioa ofizioz atzera botatzea eta kontu korrontetik bahitutako kopuruak itzultzea.

Arazo honi buruz, erakunde honen irizpide finkatua da 750 kg.z azpitiko atoi arinengatik ez litzatekeela Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarik ordaindu behar.

7/89 Foru Arauko 1. artikuluak, Trafiko, Zirkulazio eta Bideetako Segurtasun Legeko 62. artikuluak, eta Zirkulazio Arautegiko 230 III artikuluak diotenaren argitan, ez da bidezkoa zerga kobratzea atoiaren gehieneko pisu baimendua 750 kg baino txikiagoa denean, zerga erregulatzen duen arauak zirkulatzeko gai diren ibilgailuak zergapetzen baititu, eta aurrez aipatutako arautegiaren arabera, dagokion erregistro publikoan matrikulatutakoak dira zirkulatzeko gai diren ibilgailuak.

Atoi arinek, beraz, matrikulatu beharrik ez dutenez, ez lukete ordaindu behar Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarik.

• Emaitza

Gure arrazoibideei erantzunez, Portugaleteko Udalak jakinarazi zigun, Gobernu Batzordeak, 1997ko urtarrilaren 23an, 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera Ibilgailuen Errolda Fiskalean baja ematea erabaki zuela, 750 kg baino gutxiagoko gehieneko pisu baimendua zuten atoi guztiei. Hala ere, aurreko urteetan egindako likidazioak atzera botatzea ez zitzaion bidezkoa iruditzen, likidazio haiek sendoak eta ametituak bihurtu baitziren, inolako errekurtsorik jarri ez zitzaielako.

Erakunde honetara helarazitako txostenean islatzen ziren argudioak irakurririk, Arartekoak iradoki zion esandako udalari baliogabetu zitzala atoi arinen titularrei igorritako ordainagiri guztiak eta ondorioz, itzul ziezaiela kontzeptu horren indarrez bildutako kopuruak. Hori guztia, eragin horietarako indarrean dagoen legediak ezarritako muga eta bermeen kaltetan izan gabe.

Portugaleteko Gobernu Batzordeak berri eman zion erakunde honi, 1997ko ekainaren 24an erabaki zutenez, kontuan hartuko zutela Arartekoaren gomendioa, eta atoi arinen titularrek aurkezten zituzten itzulketa eskaerak aztertzera zihoazela.

Nola Portugaleteko Udalak Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga kobratzeko Ibilgailuen Udal Erroldatik atoi arinak baja emanda zituen, 1997ko urtarriletik eraginak zituela, eta bide bat eskaintzen zuen ordaindutako kopuruak itzultzeko, Arartekoak ulertu zuen konponduta zegoela kexa-espedientearen xede zen arazoa.

### *Zerga oinarria*

*Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergarako zerga oinarria (926/95)*

• Erreklamazioa

Kexa-idatzi bat jaso zen erakunde honetan, Ondarroako Udalak Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zerga kontzeptuan erreklamatzaileari igorritako likidazio baten aurka.

Alegatzaileak zioen ez zetorrela bat esandako zergagatik ordaindutako kuota erabakitzekoan kontuan hartutako zerga oinarriarekin.

Hala, argudiatzen zuen, bere kasuan, obra egite materialaren aurrekontuari etekin industriala gehituta ateratzen zen kopurua (16.020.295 pta.) hartu behar zela zerga oinarritzat, eta horrela, 801.015 pta.ko kuota ordaintzea tokatzen zitzaiola.

1994ko abuztuaren 25ean idatzi bat aurkeztu zion Udalari, hori bera azaltzen ziola, eta ez zioten erantzun.

• Azterketa

Txosten bat bidali zitzaion Udalari azalduz, errepikatua eta forma berekoa dela zerga honen zerga oinarritik, arkitekto eta aparejadorearen ordainsariak,

etekin industrialak eta gastu orokorrak kentzen dituen jurisprudentzia. Beste zenbaiten artean, 1994ko otsailaren 1 eta 3an, maiatzaren 28an eta ekainaren 29an, 1995eko otsailaren 27an, e.a. emandako Auzitegi Gorenaren epaiak aipa daitezke.

Horietatik lehenbizikoan, 1994ko otsailaren batekoan, Auzitegi Gorenak Udal Hazienden Legearen 104. artikulua aipatzen du:

> *«...interesatuek aurkeztutako proiektuaren funtzioan erabakitzen da zerga oinarria, beti ere, dagokion Elkargo Ofizialak proiektua begiztatu badu, eta aurrekontu hori proiektuaren egite materialari dagokiona baizik ez da, arkitektoaren eta aparejadorearen ordainsariak elkargoak kontrolatu beharrekoak izanda ere, ez baitira sartzen obra egite materialaren aurrekontuan. Eta egite materialaren aurrekontu hori da zerga oinarria erabakitzeko erreferentzia, proiektua, dagokion Elkargo Ofizialak begiztatu ez duenean, baina orduan, begiztatzearen bermearen faltan, udal teknikoen esku uzten da erabakia.»*

Euskal Herriko Auzitegi Gorenak berak, 1995eko otsailaren 20ko eta ekainaren 2ko epaietan, doktrina horri egiten dio men, Bilbo eta Santurtziko Udalek igorritako bi likidazioren desegokitasuna aldarrikatzen duenean.

• Emaitza

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, zeinaren indarrez sortu eta arautu baitzen erakunde hau, interesatuari igorritako likidazioa baliogabetu eta beste bat prestatzea gomendatu zen, horretarako, baimena eman zitzaion proiektuko obra egite materialaren aurrekontua hartuko zelarik zerga oinarritzat, eta inola ere ez zitzaizkiola gehitu behar lanbideko ordainsariak, ez etekin industriala. Gomendioa onartua izan zen.

### C) **Udal tasak**

### Subjektu pasiboak

*Suhiltzaileek parte hartzeagatiko tasa (1196/96)*

• Erreklamazioa

Bilboko Udalak, 1990ean suhiltzaileek parte hartzeagatik eskatutako prezio publikoaren aurkakoa zen kexa.
Erreklamatzaileak 1996an izan zuen zorrari buruzko tehen berria, urte hartan premiatasun probidentzia bat heldu baitzitzaion, 47.433 pta. ordain zitzan eskatzen ziona.

• Azterketa

Udalari azaldu zitzaion, ordaintzea eskatzen zioten parte hartzea, berearen ondoko lonja batean sarrera eragozteko ohol batzuk jartzea izan zela, lonja horren jabeak bertan behera utzita zuelako, eta beraz, jabe horri eskatu behar zitzaiola prezio publikoaren ordainketa.

Interesatuak egin zuena esandako lokalaren egoera txarraren berri ematea izan zen, eta sarrera estaltzeko burutazioa suhiltzaile talde berarena izan zen.

Bestalde, likidazioaren arauzko jakinarazpen falta ere alegatu zen, eta interesatuari albistea heldu zitzaionerako, likidazioa preskribitutzat hartu behar zen.

• Emaitza

Behin egiaztatu zenean Diruzaintzako Zinegotzi-Delegatuaren dekretu bidez, igorritako likidazioa baliogabetzera zihoaztela, zorraren preskripzioa aintzat harturik, eta interesatuak ordaindutako kopurua itzuliko ziotela, espedientea ixtea eta artxibatzea erabaki zen.

## 3 7. **HERRIZAINGOA**

### 3.7.1. **SARRERA**

1997ko ekitaldian erakunde honek kontrolatu eta Herrizaingo Sailean koka daitezkeen administrazio publikoarekin zerikusia duten ehun eta lau (104) erreklamazio aurkeztu dituzte hiritarrek. Ikuspuntu konparatzaile eta koantitatibotik begiratuz 1996ko ekitaldiarekin konparatzen badugu -urte horretan laurogeita hamasei (96) erreklamazio aurkeztu ziren- erreklamazio kopuruak %2ko igoera izan du. Herrizaingo Saileko ondorengo azpisail hauetan kokatzen ditugu erreklamazioak: hirurogeita hamazortzi (78) bidezaingoan, hamazortzi (18) ordena publikoa deiturikoan eta zortzi (8) bestelako azpisailetan.

Bidezaingoko azpisaileko erreklamazioek aurreko ekitaldietan bezala, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunen eta Autonomia Erkidegoko udalen eskumen zigortzaileekin dute zerikusia gehienbat. Erreklamazio hauek honela banatu dira administrazioak: berrogeita zazpi (47) Herrizaingo Sailaren jardueren kontra, hamabost (15) Gasteizko Udalaren jardueren kontra, hamabi (12) Donostiako Udalaren jardueren kontra, hamar (10) Bilboko Udalaren jardueren kontra, bi (2) Getxoko Udalaren jardueren kontra eta bat (1) ondorengo erakundeetako bakoitzarekin zerikusia duten jardueren kontra, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Bermeo, Durango, Irun, Lasarte-Oria, Mutriku, Tolosa, Sopelako eta Zarautzeko udalak.

Ordena publikoa izeneko azpisailari dagozkion delituen prebentzioa eta jazarpenean, eta segurtasuna mantendu eta berrezartzearen gainean Euskal Herriko poliziei jarri zaizkien hamazortzi (18) erreklamazioen bidez Arartekoari Er-

tzainei buruzko sei (6) eskuhartze jakinarazi dizkiote, hiru (3) Bilboko udaltzainei buruzkoak eta hiru (3) Donostiako udaltzainei dagokienez. Bestelako azpisailetan jarritako erreklamazioetan erakunde publikoetara sarrera ukatzearen inguruko arazoak, ikuskizun eta aisialdiko jardueretan (ordutegiak) araubide juridikoa aplikatzea, erroldaketak, polizi aurrerakinak kitatzea eta antzeko beste arazo batzuk aztertu dira. Ondorengo hauek izan dira erreklamazioak jaso dituzten erakundeak: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, bost (5) erreklamazio, eta Bizkaiko Batzar Nagusiak, Donostiako Udala, Aretxabaletako Udala, Irurako Udala eta Mungiako Udatari erreklamazio bana (1).

1996an bidezaingoko azpisailean tramitatutako erreklamazioak baloratzerako orduan, aurrez esan dugun bezala, kopuru aldetik Herrizaingo Sailera iritsitakoetan handienak dira; aipatzekoa da hala ere gehientsuenak prozedurazkoak izan direla, jakinarazpenei buruzkoak batez ere.

Bidezaingoa erregulatzen duten araudiak urratzeagatik jarritako salaketak direla-eta, interesatuek gehienetan argudiatu dituzten arrazoiak dira hori egiaztatu dezaketen poliziek ez dutela ibilgailua geratu eta, gidaria identifikatu dagokion salaketareri berri emateko, ibilgailuaren jabearen etxera bidaltzen diren agirietan “bidezaingoaren beharrak” edo beste gertakari generiko batzuk izan zirela jakinarazpenik ez ematearen arrazoia aipatuz. Arazo hau aztertu da auzitegietan -Justizia Auzitegi Nagusiko Auzibide Admistrazioko Salan hain zuzen ere, horien artean Euskal Herrikoa- eraginik ba ote duen edo ez salaketa hauei balioa eman edo baliogabetzeak. Epaitegi ezberdinen arteko pronuntziamenduetan desadostasunik aurkitzeari utzi gabe Euskal Herriko Auzitegi Gorenak epai askotan “bidezaingoaren beharrengatik” ibilgailua ez geratzea justifikatzen duen irizpidea ez dela nahikoa dio, eta, ondorioz, bertan behera uzten du salaketa bidezaingoaren gaineko Zehapen Prozedurari buruzko Araubideko 10.2 artikuluko aurreikuspenen babesean. Gaurdaino Arartekoak ez du lortu aipatutako arazo hori agertzen den espedienteetako zigorrak baliogabetzeko bere aholkua Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Bidezaingo Saila eta Parke Mugikorrak atenditzerik, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko Auzitegi Nagusiari antzeko jarduerengatik arrazoia eman behar badio ere.

Bidezaingo arloko espediente zigortzaileetako ediktu-jakinarazpenak berriz ere eragin du hiritar batzuk Arartekoarengana zuzentzea esku hartu dezan eskatzeko. Administrazioaren jardueretarako justifikatu gabeko ediktu-jakinarazpena erabiltzea Arartekoarentzat ardura izan da eta orain ere bada. Ardura hau 1993, 1994, 1995 eta 1996ko txostenetan ere azaldu da, eta hori dela-eta azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen 307/1992 Legearen 59.4 artikuluan arautako jakinarazpenean orain ere ez dela behar bezala erabili pentsatuz uste dugu beharrezkoa dela administrazio publikoen organoek gai honetan ordenamendu juridikoaren aurreikuspenak errespetatzea. Gai honen gainean aipatzekoa da 1994ko txostenean ondorengo izenburupean agertzen den izaera orokorreko aholkua: *"Ediktu bidezko jakinarazpenaren erabilera Administrazioaren zigorbidean, Administrazio*

*Publikoen Lege-Jaurbiderako eta Administrazioaren jardunbide arrunterako azaroaren 26ko 30/1992 legean finkatutakoaren babesean".*

Beste administrazioetako jardueretan islatzeak kalterik eragin gabe ekitaldi honetan eta ondoren gehitzen diren erreklamazioen laburpenean konprobatu daitekeen bezala, Gasteizko Udala izan da Arartekoaren iritziz, eta honen gainean egin dizkioten erreklamazioen arabera, ediktu-jakinarazpena ez dela egoki erabilieta zigorrak baliogabetzeko gomendio gehien jaso duena, baina horietako bat berari ere ez zaio kasurik egin.

Euskal Autonomia Erkidegoko polizien jardueren gainean jarritako erreklamazioek, Ertzaintza eta Udaltzaingoaren gainean jarritakoek hain zuzen ere, delituzko ekintzak aurreikusi eta jarraitzeko arduran izandako behin-behineko irregulartasunetan dute jatorria. Erreklamazioetariko batzuk ezin izan dira aurrera eraman ekintza horiek epaitegian ere salatu direlako, eta erakunde hau sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikuluak, gure eskuhartzea botere judizialarenarekin bateraezina dela ezartzen baitu.

Polizia batzuk inmigrante batzuekin dituzten harreman irregularren gaineko arazoak gora egiten ari direla-eta, Arartekoak honen gainean ofizioz estudio bat egitea ekarri du, Bilboko San Frantzisko auzoan hartu duen neurriagatik batez ere. Ikerketa honen ondorioak laster aurkeztuko den txosten batean bukatuko dira

Lehen aipatutako bestelako azpisaileko gai aniztasunak, komentario honen hasieran adierazi duguna zerk osatzen duen, eta guri dagozkigun jardueren gaineko eragin erlatiboa bai partikular zein orokorrek adierazpen labur hau baloratzera eramaten gaituzte.

Gairik aipagarrienak ondorengo paragrafoetan agertzen diren erreklamazio zerrendetan aipatzen dira.

### 3.7.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

#### A) **Bidezaingoa**

*Trafiko arauak hausteagatiko salaketetan eta berorien espedienteak bideratzerakoan udal zerbitzuek izandako jokaeraz (1072/95)*

• Erreklamazioa

Herritar batek trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik Bilboko Udalak jarri zizkion bi zigor aztertzeko eskatu zion Arartekoari.

• Azterketa

Eskura zegoen informazioa ikusita, gomendio bat igorri zitzaion Bilboko Udalari, gogoeta hauek adieraziz:

1. Egin zitzaizkion salaketen eta horien ondorioz hasitako zigor prozeduretan hartutako erabakien berri zegokionari ez eman izana zen kexaren oinarri eta

gai nagusia. Eskura dugun informazioaren arabera, gertaera hauek zehatz daitezke, besteren artean: kexa aurkezteij duen erreklamatzailea NAN batez identifikatu zutela operatibo baten ondoren horretan parte hartu zuten ajenteek; NAN horretan Bilboko (...) kaleko (...) zenbakian ageri zela salatuaren etxea; eta horrez gainera, frogaturik dauden bi arau hausteen salaketak, berebila bigarren ilaran uztea eta ajenteek esanari jaramon ez egitea, ez zitzaizkiola bertan jakinarazi salatuari. Azkeneko ondorio hau atera behar da, hain zuzen, -Zerga Bilketa Betearazleko Sailaren Buruak Alkateari (...) egunean igorritako txosten/erabaki proposamenean, emandako isunaren derrigorrezko ordainarazpenerako tramitatutako premiamenduzko espedientean *"ohartarazi behar da salakuntza egiten duen ajenteak bertan jakinarazi zizkiola bi salaketak arau hausleari"* esaten den arren-, zeren ajenteak (...) agiri profesionaleko zenbakiaz sinatzen dituen salaketa orrietan (...) kaleko (...) zenbakia agertzen baita salatuaren bizileku bezala, NANean ageri denaren desberdina; datu hori, jakinarazi zaigunez, erroldan begiratuta atera baitzen.

Trafikoaren antolaketarako arauak hausteagatiko salaketak arrazoi gabe ez jakinarazteak, saleketa horiek baliorik ez izatea du ondorioa, Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren (martxoaren 2ko 339/1990 Erret Legegintza-Dekretu bidez onartua) 77. artikuluan dioenaren eta otsailaren 25eko 320/1994 Erret Dekretuaren bidez onarturiko gai horri buruzko Zigor Prozeduraren Araudiaren 10.2. artikuluan araututa dagoenaren arabera.

Aztertzen ari garen gertaera honetan ez zen inolako arrazoirik gertatu zegozkien salaketen jakinarazpena aipatu diren arau hausteak gertatu ziren unean berean egiteko. Bilboko Udalak igorri zuen txostenean bertan esaten zenez, *"...ajenteak arau haustea gertatu zen lekuan bertan egin zuen berebilaren gidariaren identifikatzea, zeina (...) jauna baitzen, eta hala bi sakaletean arrazoia jakinarazi zitzaion "* (sic). Arau hausleari salaketen arrazoia "jakinarazi" baldin bazitzaion, era berberean egin ziezaiokeen salaketen jakinarazpen formala ere.

2. Behin (...) jauna nor zen identifikaturik, eta ajenteak bere bizilekua NAN agirian ageri zen bera al zen galdegin zionean, arau hausleak baietz erantzun ziolarik, hiriko biztanleen erroldan beste bat agertuagatik ere, arau hausleak emandako bizileku hartara bidali behar zitzaizkion arau hauste haien ondorioz bideratzen ziren zigor espedienteei zegozkienez hartzen ziren erabaki eta akordio guztiak, Trafikoari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren 78. artikuluan eta trafikoari buruzko Zigor Errejimenaren Araudiaren 11. artikuluan aurrikusita dagoenaren arabera.

Hala eta guztiz ere, trafiko zerbitzuek behar ez zen beste bizileku batera igorri zituzten jakinarazpenak, eta gertaera horrek zinez mugatu eta murriztu ahal izan du babes judizial eraginkorra izateko eskubideaz baliatu hala izatea, kexa aurkezleak ezin izan baitzuen prozedura horretan bere burua defendatu.

3. Azkenik, bai egindako salaketen bai zigor espedienteetan hartutako erabakien jakinarazpenak, aipatu helbideetara igorririk, atzera bota izanak duen jakinarazpen balioa aztertu zen. Administrazio Publikoen eta Administrazio Proze-

dura Orokorraren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.3 artikuluak dioenez, jakinerazpena igorri eta atzera botatzeak jakinerazpen balio osoa izan dezan, atzera botatze hori gaia dagokion herritarrak berak edo haren ordezkariak behar du egin, eta espedientean zehazturik jaso behar dira jakinerazpen ahaleginaren zirkunstantziak zer eta nola izan ziren.

Guri bidali zaigun informazioan, aipatu ditugun igorpenen kopien bidez, egiaztatu ahal izan dugunez, igorpenaren ustezko "atzera botatze" hori "jaun/andreak ez du hartzen" batez gertatzen da, nork ez duen hartzen ez haren nortasuna ezagutzeko egindako ahaleginen berri ageri ez dela, eta, edozeinetara ere, ahaleginaren agiria sinatzen duen "Carmen" delakoa udaletxeko funtzionarioa den, postatakoa den ala enpresa pribatu batekoa den, ezagutzen ez dela. Gauzak horrela direlarik, beraz, beste ondoriorik ezin atera genezake, ez bada igorpenaren "atzera botatzea" ez zuela kexa aurkezleak egin inondik ere, eta horrenbestez atzera botatze horrek ezin duela izan inolako jakinarazpen betearen ondoriorik, ez eta, gertatu zen bezala, prozedura besterik gabe aurrera eramateko bide ematen ere.

• Emaitza

Esan den guztiaren ondorioz, beraz, horretarako behar diren tramiteak eginik, aipatu diren prozeduretan hartutako zigor erabakiak, eta jarritako isunak premiamenduzko kobrantzaz ordain arazteko tramitatutako premiamendu espedientean hartutako akordio guztiak, denak ofizio bidez indarrik gabe utzi zezan, eta hala behar izango balitz, arrazoi horiek zirela eta kexa aurkezleak ordaindutako diru kopuruak itzul ziezazkion, gomendioa egin zitzaion Bilboko Udalari. Bildoko Udaletxeak erantzun zuen esanez ezen, espedienteetako batean jarritako zigorrari zegokionez, interesatuak ordaindutako kopurua osorik itzuliko zitzaiola, gertaera horrengatik berorrengatik epaitegiak lehendik ere kondenatua zuelako. Beste espedienteari zegokionez, ordea, berebila bigarren ilaran uzteagatik bideratutako espedienteari zegokionez, alegia, gure gomendioa ez zutela beteko erantzun zuten, beren itzitzian, espediente horretan arauz jokatu zutelako.

*Getxoko Udaleko Aparkamendu Arautuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzan etxebizitza bakoitzeko biztanleentzako txartel kopuruaren mugatzeaz (97/96)*

• Erreklamazioa

Getxoko biztanle den emakume batek Arartekoari aurkeztu zion aztergaia hau izan zen, hain zehatz: Udal horretako korporazioaren osoko batzarrak 1994eko irailaren 30ean onartu, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 222. zenbakian, abenduaren 1ean aritaratutako Aparkamendu Arautuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzak, bere 10. artikuluan dioenez, *"edozeinetara ere, bertan bizi diren biztanleen berebilentzako txartel bereizgarriak ez dira BI (2) baino ge-*

*hiago izango etxebizitza bakoitzeko".* Erreklamazioaren egilearen iritzian, justiziaren kontrako egoera argi eta garbi diskriminagarri direnak eragiten ditu neurri horrek.

• Azterketa

Kexagaia zehazturik, aurkeztu zitzaigun erreklamazio horrek, agian berdintasun printzipioa hautsi zezakeen egoera bati legokiokeen arazo bat planteatzen zuela iruditu zitzaigun, eta gai hori Konstituzioak finkatzen duen legezkotasunaren arabera aztertu eta erabaki behar zela, Konstituzioaren 14. artikuluan aurrikusten denaren arabera, batez ere.

Gaia azterturik, bada, Arartekoak gomendio bat igorri zion Getxoko udalari; gomendio horretan egiten ziren oinarrizko gogoetak hemen jasotzen dira:

> *"...2. Konstituzio Auzitegiak finkatua duen bezala, "Konstituzioaren 14. artikuluak ezartzen eta agintzen duen berdintasun printzipioak bi maila desberdinetan dltu ondorioak, Auzitegi honek behin eta berriro deklaratu izan duen bezala (deklarazio guztien ordeko, balio beza Konstituzio Auzitegiaren 144/1988 Epaiak): alde batetik, legegilearen eta araugintzako aginpidearen aurrean, legez onargarri diren ikuspegi desberdinetan oinarriturik hartutako jarrera desberdinetan daudelarik, hala ere Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan zabalkiro adierazita dauden zirkunstantziengatik ezin diskrimino daitezkeen pertsonei tratu desberdina eman ahal izateko moduan definitu eta irudikatu ezin izan ditzaten beren arauetan finkatzen dituzten egoera gertagarriak; eta beste alde batetik, berdintazun printzipioaren mailan, Legea aplikatuz gero, egoera berean dauden pertsona guztientzak Legea berdin aplika dadila eskatzen baitu printzipio horrek " (Konstituzio Auzitegiaren 20/1991 Epaia).*
>
> *Kontuan harturik gure iritzia emateko aurkeztu zaigun berdintasun printzipioaren hauste honek udal ordenantza batean ageri den arau aurrikuspen batean duela abiaburua, argi eta garbi dago goian aipatu den epaiak jasotzen zituen kategorietako lehenengoan sartzekoa dela arazo hau: Legerako eta Legearen aurrean berdintasuna izatea.*
>
> *3. Konstituzioaren interpretariak Legerako eta Legearen aurrean berdintasuna izateko printzipio horren inguruan doktrina multzo bat emana du; dotrina hori argi gera dadin, haren zenbait adierazpenetan adieraziak laburbilduko ditugu hemen. " Legerako eta Legearen aurrean berdintasuna izateko printzipioak, Espairtiako Konstituzioaren 14. artikuluan biltzen denak, alegia, Auzitegi honek behin eta berriro adierazi duen bezala, herritar orok Legearen aldetik tratu bera jaso behar duela esan nahi du lehendabizi; hortik ateratzen da, lehenik, ez dela zilegi, nahierara eta neurri gabe, justifikazio objektibo arrazoizkorik gabe, legezko bereizkuntzarik egitea (...) (Konstituzio Auzitegiaren 29/1987, 114/1987, 209/1988, Epaiak, beste askoren artean). Zehazki, Auzitegi*

*honek adierazia du ezen Legearen aurrean berdintasuna izateko printzipio honek egoera juridiko berdingarrietan dauden guztiei tratu berbera ematera behartzen -dituela bai Legegilea, bai Legearen aplikazioaren ardura duena, eta erabat debekaturik dagoela dagokion arauaren helburuaren ikuspegitik inolako justifikazio objektiborik edo arrazoizko -rik ez duen inolako diskriminazio edo desberdintasun egitea" halatan non <**arau bidezko desberdintasunak diskriminatzailetzat har ez daitezen, ezinbestekoa izango baita hartarako justifikazio objektibo arrazoizko bat izatea, orokorki onarturik dauden irizpide eta balioztapenen arabera, eta halako desberdintasunak hartu nahi den neurriaren helburuaren eta lortu nahi diren ondorioen arabera izan beharko du beharrezkoa, eta horrenbestez, halako proportziozkotasun bat izan beharko da hartarako erabiltzen diren medioen eta iritsi nahi den helburuaren artean, eta Legegilearen esku utzi beharko da, orokorki, zer egoera desberdin behar den desberdintzat hartu eta era desberdinean tratatu**> (Konstituzio Auzitegiaren 75/1983 Epaia, 2. oinarri juridikoa). (...) <**Berdin dira, beraz, berdintasun printzipioaren kontrako, bereizi nahi hutsagatik bereizten duen araua, ala, berez zilegi den helburu bat lortzeko ahaleginez, arau aplikazioko hipotesi bat, eta harentzako ezartzen diren ondorio juridikoak, lortu nahi zen helburuari dagokionez inolako proportziorik gabe, edo behar den proportzaiozkotasun horri begiratu gabe, ezartzen dituen araua ere**> (Konstituzio Auzitegiaren 209/1988 Epaia, 6. oinarri juridikoa).' (Konstituzio Auzi-tegiaren 308/1994 Epaia).*

*Goian jaso den adierazpenarekin guztiz ados datorrela, Konstituzio Auzitegiaren 90/1995 Epaiak dioenez, "irizpide objektibo eta arrazoizkotan oinarritzen ez direlako, orokorki onarturik dauden balioespenetan oinarriturik ez daudelako, alegia, amarruzkoak eta arrazoi gabeak gertatzen diren desberdintasunak debekatzen ditu, beraz, hitz gutxitan, berdintasun printzipioak. Tratu desberdintasuna Konstituzioaren arabera zilegi izan dadin beharrezkoa da, orobat, <**bereizkuntza horretatik ondorioz ateratzen diren ondorio juridikoak bereizkuntza eginez iritsi nahi den helburuari dagokionez proportzio-zkoak izatea, ondorio astunegirik edota neurriz goitikorik izan ez dadin**> (Konstituzio Auzitegiaren 176/1993 Epaia, 2. oinarri juridikoa). Horregatik, hain zuzen, laburbildurik, esan da ezen <**berdintasun printzipioak, tratu desberdintasuna objektiboki arrazoizkoa izan dadin ez ezik, orobat eskatzen duela Konstituzio Auzitegiak, hartu den neurriaren, dituen ondorioen eta neurri horren bidez legegileak iritsi nahi duen helburuaren arteko proportziozkotasun judizioa gainditzea**> (Konstituzio Auzite-*

*giaren 110/1993 Epaia, 4. oinarri juridikoa eta bertan aipatzen diren gainerakoak)».*

*Beste alde batetik, "Auzitegi honek etengabe adierazi duen doktrinak dioenez —hain hala ere etengabe, non aipatu beharrik ere ez baitago—, berdintasun printzipioaren indarrez legegileak dituen baldintzak eta mugak hiru eskaritan gauzatzen dira batez ere, zeren arau bidezko bereizkuntzak egin ahal izateko, helburu argi, zehatz eta zilegizkoa beharko dute izan; lehenik eta behin; horrez gainera, helburu horretarako zentzuzkoak diren terminotan antolatu beharko da, bigarrenik, eta azkenik, ezingo dute proportziogabetasun agerikorik izan talde eta kategoria desberdinei eskubideak, betebeharrak edo bestelako egoera juridiko subjektiboak izendatzerakoan.' (Konstituzio Auzitegiaren 222/1992 Epaia).*

*4. Behin Arartekoaren iritzia eskatzen den agindua aztertzeko baliatu beharko ditugun Konstituzioaren legezkotasun parametroak definitu eta identifikatu ditugularik, aipatu den doktrinaren argitan zuzenbidez dagokion ondorioa ateratzeko, kontuan hartu beharko diren aldagaiak zehazki aztertuko ditugu ondoko lerroetan.*

*Ordenantzaren 2. artikuluaren arabera, aparkamendu arautuko ZERBITZU PUBLIKOA arautzeko behar diren arauak fintzatzea da ordenantza horren helburua; eta horren helburua, hain zuzen, bertako 3. artikuluan zehazten den bezala, 'hiri bizitzaren kalitatezko eta irispen erraztasunezko helburu orokorren barruan, aparkamendu eskaria behar bezala betetzea da, horretarako berebilak hiriko erabilera publikoko bide eta aparkamenduetan aparkatzeko modua, lekua eta denbora ordenatuz, eta arau horiek beteko direla ziurtatzeko neurriak hartuz'.*

*Horrela bada, beren bizilekua aparkamendu arautuzko errejimena ezartzen den lekuetan duten erabiltzaileen legezko nahi bati erantzun nahiz, ustez behintzat, Ordenantzak, bere 7. artikuluko 2. atalean xedatzen du ezen, aurrikuspenak diren bezala beteko direla ziurtatzeko, Udalak txartel bereizgarriak banatuko diztiela leku horietako biztanleei, eta txartel horien jabeek, printzipioz eta orokorrean, ez dutela berebila aparkatuta edukitzeko denbora mugarik.*

*Ordenantzaren 10. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, ondoren zehazten diren baldintza hauek bete behardira bertako biztanleei dagokien txartel bereizgarria eduki ahal izateko: a) berebilaren jabea Getxoko barrutian bizi den pertsona fisikoa izatea, udal erroldan erroldaturik egotea, eta bere bizilekua txartela eskatzen duen eremuan izatea; berebilaren zirkulazio baimenean duen erroldaren araberako bizilekua eta egiaz bizi dena bizilekua, biak bizeleku bera izan daitezela, eta c) berebila Getxoko trakzio mekanikozko ibilgailuen Zergaren errejistroan alta emanda egon dadila, eta hartan aipatzen diren jabearen izena eta haren bizilekua ere lehen aipatu diren datuekin bat etor daitezela.*

*Arartekoaren arabera, aurreko paragrafoan aipatu diren baldintzak betetzea da egoiliar txartela eskuratu ahal izateko eskubideduntzat har daitezkeenen egoera berdintasuna definitzen eta mugatzen duen neurria. Horrenbestez, bada, printzipioz behintzat, baldintza horiek betetzen dituzten guztiek izan behar dute zein bere txartelaren jabe. Baina, horren guztiaren artean, Ordenantzak diskriminazio baldintza bat sartzen du, egoeraren batean egoiliarren bati, lehen aipatu diren baldintza guztiak bete arren, txartelaren jabe egiteko eskubidea ukatzeko bide ematen duena. Kexa honen jatorrian dagoen egoera ari gara, hain zuzen, aipatzen, Udalak etxebizitza bakoitzeko bi txartel baino ez dituela ematen alegia.*

*Beste ezer baino lehen, udal batzorde horrek ordenantzan sartutako diskriminazio neurri horren bitartez zer helburu lortu nahi duen, izango da aztertu eta argitu behar dugun lehendabiziko arazoa, eta behin hori argitu ondoren, azterketa horren ondorioen argitara, hartutako neurria objektiboa eta arrazoizkoa den ala ez, erabaki.*

*Neurri horren bidez zer helburu iritsi nahi den inolako aipamen zehatzik egiten eta argibiderik ematen ez denez, susmo eta irudipenen alorrean aritu behar dugu gai honi dagokionez; gure iritzian, hala ere, era horretako erabaki bat hartzen denean, aparkamendu arautuzko lekuetan ustez berebilak uzteko leku gehiago edukitzeko modua egitea baizik ezin izan daiteke asmoa. Eta helburu horretarako baldin bada, hartu den neurria ez da arrazoizkoa, Arartekoaren iritzian.*

*Aurreko ondorio hori oinarritzeko orduan hainbat gauza eduki biharko dira kontuan; lehenik eta behin, ez da ahaztu behar berebilak zerbitzu elementuak direla beren jabeentzat, jabeak zein etxebizitzatan bizi diren axola ez diola. Horregatik, beraz, gure iritzian, leku jakin bateko biztanle denari dagokion egoiliar txartela eskuratu ahal izateko interesatuek zein baldintza bete behar dituzten erabaki behar zenean, berebil baten jabe eta udal honetako leku jakin bateko biztanle bezala dituzten egoeren arabera definitu ditu udal batzorde horrek interesatuak. Baldintza horien artean etxebizitza sartzea, edo hobeto esanda, etxebizitza jakin batean 'inskribaturik' dauden berebilen kopurua sartzea, arrazoizkoa ez den elementu bihurgarri bat sartzea baizik ez da, Arartekoaren iritzian. Eskubide horren jabearen famili egoera, edo zein famili egoeratan bizi den, eskubide horren baliatzeak aurrekari edo zirkunstantzia kolektiboekin zer ikusirik ez duenean, ezin dira kontuan hartu, ez kontuan hartu behar ere, inolako zalantzarik gabe pertsona banakoari dagozkion egoera moduek baliozkotzen duten eskubide bat norbaiti aitortzeko edo ukatzeko diskriminazio bat justifikatzeko. Eskubide baten jabe denak eskubidearen jabe izan behar du bere etxebizitza berean eskubide horren berorren eskubidedun gehiago bizita ere. Udal batzorde horren iritzian zenbait biztanlek eskubide baldin badute halako era jakin batean trata ditzaten, alegia, eskubide baldin badute egoiliar txarte-*

l*a erabili ahal izateko, zentzuzko gauza baita, hain zuzen ere, berebila etxetik hurbil utzi ahal izateko baliabidea izatea, hartu den bezalako neurri batek ez du gainditzen arrazoizkotasunaren judiziorik, zeren gaikuntza hori dagokion pertsona bizi den etxebizitza berean eskubide beraren jabe diren beste pertsona batzuk bizitzeak ez baititu baliogabetzen ez kentzen udal batzar hori aipatu den eskubidea aitortzera bultzatu duten zirkunstantziak, hain zuzen ere eskubide horiek eskubide jarraituko baitute baldintza horietan ere. Alegia, hitz gutxitan, egoiliar txartelak banatzeko neurrian komenigarritzat aitortzen baldin bada herritar batek bere berebila bere etxe inguruan utzi ahal izatea, eta horretarako denbora mugarik ez izatea, edozertarako erabili ahal izan dezan, komenigarritasun edo premia hori ez da indargabetzen ez ezabatzen eskubidedunaren etxebizitza berean egoera berean dauden biztanle gehiago bizi izanagatik.*

*5. Arartekoak bere iritzia agertzeko eskatu den Ordenantzaren aurrikuspenak justifikazio arrazoizkorik ez duelako ondorioa aterarik ere, neurri horrek eragiten dien pertsonentzat neurri horren ondorioz datozkien ondorioak proportziozkoak diren, ala, aitzitik, astunak edo neurrizko goitikoak diren aztertuko dugu azkenik. Puntu honi buruz atera dugun ondorioaren arabera, hain zehatz, neurria eta neurriaren ondorioak proportzio gabeak dira.*

*Etxebizitza jakin batean inskribaturik dauden 'hirugarren', 'laugarren' edo gehiagogarren berebilen jabeek bertako egoiliar txartela izateko eskubiderik ez izateak, eta horrenbestez bertako aparkamendu arautuko lekuetan horretarako jarrita dauden denbora mugez gainetik beren berebilak ezin utziak, etxe berean inskribaturik dauden 'lehenengo' eta 'bigarren' berebilen jabeetatik diskrimitatu egiten ditu, eta udaleko beste leku batzuetan -aparkamentua arautua izan ala ez- edota are beste udal batzuetan bizi diren biztanleekin berdintzen ditu; egoera hori, ordea, ez da inola ere onartzekoa, zeren batzuek ala besteek udal alde jakin horretan aparkatzeko izan ditzaketen premiak ez baitira berdinak ez eta gutxiagorik ere".*

• Emaitza

Esandako guztiagatik, beraz, gomendio hau egin zitzaion Getxoko Udalari: *"Udalaren osoko batzarrak, zegozkien prozedura tramiteak beterik, ken dezala 1994eko irailaren 30eko Aparkamendu Arautuaren Udal Zerbitzuaren Ordenantzatik horren 10. artikuluan zehazten den eta etxebizitza bakoitzeko bi biztanleentzako agiri txartela emango direla arautzen duen agindua"*

Getxoko Udalak gomendio hori kontuan ez hartzea erabaki zuen, ondoren ematen diren arrazoiak direla eta, batez ere:

a) Ordenantzan jartzen den mugapen horren bitartez premia orokorrak eta aparkalekuetarako dagoen lekuaren urritasuna bateratu nahi dira, udalean berebil eta motor kopurua nabarmen handitu izanak sortzen dituen arazoak arindu

ahal izateko, era horretara bertako biztanleek, ondoko auzoetakoen eta bisitariek bide publikoak proportzioz erabili ahal izan ditzatzen. Era horretara udal horretako merkataritzaren bizitasun ekonomikoa indartzen dela uste dute.

b) Eskari banari agiri txartel bana emango balitzaio, aparkamendu mugatuak jartzeko neurriaren helburuak indargabeturik eta ezertarako ez direla geratuko lirateke, aparkamendutarako lekuak bertako biztanleen berebilez bete-beterik geratuko bailirateke.

c) Aipatu den diskriminaziorik ez dago batere, auzotarrek berek izendatzen baitute agiri txartelak norentzat izango diren, etxebizitza batean bi berebil baino gehiago direnean.

Aipatu diren arrazoi horiek, eta emandako beste batzuk ere, ez zaizkio erakunde honi bere lehengo iritzia aldatzeko aski iruditzen, eta horrenbestez, bertako biztanle txartela eskuratu ahal izateko mugak jarri behar direla zalantzan jartzen ez badira ere, kontua da erabiltzen den sistema diskriminazio eragilea onartzeko eta baliatzeko ez dagoela arrazoizko justifikazioarik.

*Trafikoaren antolamendurako arauak hausteagatiko espediente batean emandako zigor erabakia ez jakinarazteagatik izandako ondorioez (261/96))*

• Erreklamazioa

1993ko abenduaren 7an trafikoaren antolamendurako arauak hautsi zituen kexa hau aukezten duenak, bere berebila bigarren ilaran uzteagatik. Bilboko Udaleko zeritzuek igorri ziguten espedientetik ondorioz ateratzen denez, erreklamazio hau aurkezten duenak bere egintza aitortu zuen, baina baina ez zuen ontzat ematen arau haustea zenik. 1993ko abenduaren 23an zegokion salaketareft jakinarazpena egin zen, eta hilabete horretako berorretako 29an partedunak arrazoibide orria aurkeztu zuen, bere alderako ongi zerizkion arrazoiak aurkeztuz, emandako zigorra (sic) ken zekiola erregutuz eta ordaindua zuen 8.000 pezetako isuna itzul zekion eskatuz.

1994eko otsailaren 3an, Zinegotzi Delelegatuaren erabakiz, ez ziren ontzat eman partedunak aurkeztutako arrazoibideak. Akordio hori partedunari igorri zitzaion gutun azalean idazki bat ageri zen, esanez *«Rehusado-21-2-94» (21-2-94 atzera botata),* baina beste zenbait datu ez ziren agertzen, hala nola, igorpena atzera bota zuen pertsonaren nortasun daturik, atzera botatze hori zein zirkunstatziatan gertatu zen, zein zen jakinarazpen ahalegin huts egina egin zuen funtzionaria edo bestelako pertsona, dato horiek guztiak jaso behar izango zituzkeena.

Geroztik, 1994eko otsailaren 16an, Alkatearen Dekretuz, partedunari zegokion isuna jartzea erabaki zen. Zigor erabaki hori bi bidez jakinarazi nahi izan zitzaion interesatuari, igorpenean adierazten denez, urte horretako berorretako martxoaren 16 goizeko 10.30etan eta 13.00etan. Harrezkero ez zen berriro beste jakinarazpen ahaleginik egin.

• Azterketa

Zinegotzi Delegatuak, aurkeztutako arrazoibideak gutxietsiz, bidalitako erabakia zeraman igorpena atzera bota izana jakinarazpen gisa baliozkotzat eman izanaren zuzentasunari buruz egin genezakeen balorazioa kontutan hartu gabe ere, eta kontutan hartu gabe, orobat, Alkarearen Dekretuz interesatuaren zigorra jartzen zitzaion erabakia administrazioaren aipatu den akordioa interesatuari jakinarazteko egin zen ahalegin huts egina baino lehenagokoa dela, kontua da gertaeren segidatik ateratzen den lehendabiziko ondorioak erakusten duenez, zigor espediente horren prozedura ez zela burutu, zeren zigor erabakia ez baitzitzaion interesatuari jakinarazi zuzenbidean onarturik dauden medioen bidez. Bistan dago, beraz, erabaki horren berri jakinarazi ez bazen, erabaki horrek ezin duela dagozkion ondorioetatik bat bera ere izan.

Jakinerazpen falta frogatu honetatik zuzeneko ondorioz atera ahal izan genuen, beraz, behin betikotzat, arau hauste hori arau-hausteen iraungipenak eraginda zegoela, Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuak (martxoaren 2ko 339/1990 Erret Legegintza-Dekretu bidez onartua) 81.1 artikuluan biltzen diren aurrikuspenen arabera, kontuan hartzen baldin bada, batez ere, zigdr erabakiak ezin izan zuela administraziorako indarreko bihurtu, behar bezala jakinarazi ez zenez. Hain zuzen ere, gainerako zirkunstantzia guztiak alde batera utzita ere, zigor erabakiaren berri jakinarazteko azkeneko ahalegina egin zenetik, 1994eko martxoaren 16an, iteresatuak, 1996ko urtarrilaren 5ean, ordaindutako diru kopurua itzul zekion eskatuz idazki bat aurkeztu zuen egunera arte, aipatu den arau horretan aurrikusita datoen gehiegizko epe luzamendua igaroa zen, bitarte horretan guztian mugaeperako aldiak etengo zituzten administrazio egintzarik batere gertatu gabe.

• Emaitza

Esandako guztiaren ondorioz, beraz, gomendio bat igorri zitzaion Bilboko Udalari, gomendatuz ezen indargabetu zezala eta ezdeusetan utzi interesatuari diru isun bat jarriz zabaldu zitzaion zigor espedientean Bilboko Alkateak 1994eko otsailaren 16an emandako Dekretua, eta lege-araudietan aginduta dagoen bezala, itzul zekiola interesatuari bere garaian eskatu zekizkiokeen erantzukitzun administratiboei aurre egin ahal izateko ordaindu zuen dirua. Bilboko Udalak ez zuen onatzat eman Arartekoaren gomendioa.

*Bere berebila beste berebil bati trafikoan sartzea eragotziz utzi izanagatik trafikoaren antolamendurako arauak hausteagatik jarritzako zigor batez (311/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoaren iritzia eskatu zuen Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzarena ardurapeko erakundeek, ongi aparkatuta

zegoen beste berebil bati atera eta abiatzea eragozten zion leku batean bere berebila utzi izanagatik jarritako zigor batez. Gauzak pake natural baten inguruetan gertatu bide ziren. Interesatuak espedientea tramitatu zen bitarte guztian zioenez, bere berebilak, izatekotan, oztopatzen zuen berebila bere lagun batena zen, eta hain zuzen bere lagun hori berekin batera zegoen une horretan kanpoan egun-pasa. Alegazio horiek ez zituen kontuan hartu zegokion erakunde eskudunak, eta 30.000 pezetako isuna jarri zitzaion, Zirkulaziorako Araudi Nagusiaren 91.2.b) artikuluan jasotzen diren arauen hausle bezafa. Isun horren kontra administrazio bidez errekurriturik, Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendariak ez zuen onartu, baina, edozeinetara ere, 16.000 pezetara jaitsi zion isuna, Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren 69.1 artikuluan esaten denean oinarrituta.

• Azterketa

Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzak igorritako informazioa jaso eta azterturik, Arartekoak gomendio bat igorri zion hari, ezarritako isuna ken zedin eskatuz, horretarako oinarri hauetan oinarrituz:

> «*Jaun agurgarria:*
> *Erakunde horretan (…) jaunak hala eskaturik Trafikoaren antolamenduaren arauen kontrako arau hauste bategatik (…) zabaldutako espedientean ezarri zitzaion zigorragatik tramitatzen ari den kexagatik jotzen dugu zuregana.*
> *Interesatuak berak ekarri digun informazioa, eta Herrizaingo Sail horretako Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzako Zuzendari jaun agurgarriak igorri diguna azterturik, ondoren jasotzen diren gogoeta hauek egin nahi dizkizut.*
> *1. Espediente horretan gauza bat bakarra aztertzen da: zigor erabakiaren kontra jarri den errekurtso arruntean onarturik dagoen gertaera batek, kexa hau aurkezten duen interesatuaren berebilak -(...) matrikuladunak- irteera galerazten zion berebila, zigortuarekin berarekin egunpasa aurkitzen zen haren adiskide batena izateak, alegia.*
> *Interesatuak zigor erabakiaren kontra jarritako errekurtsoan egindako alegazio hauei emandako erantzun bezala, jarritako isuna jaitsi egin zitzaion, eta hasieran ordaintzeko ziren 30.000 pezetetatik 16.000 pezetataraino beheratu zitzaion isun hori. Isuna horrenbeste beheratzeko Bidezaingo, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Artikulatuaren 69.1 artikuluaren edukia aipatzen du Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzako Zuzendari jaunak, aipatu den artikulu horretan jari behar den isunak mailakatzeko zein zirkunstantzia eduki behar diren kontuan erabakitzen baitu.*
> *2. Zigorra jarri zuen administrazioak onartu eta aitortu duenez, ezen interesatuaren berebilak irtetea eragozten zion beste berebila lehenengo haren jabearekin batera egun pasa zegoen haren adiskide batena*

*zela, ondorio garbia atera behar da horretatik, alegia, eman den zigorra emateko erabakigarri den elementuetako bat ez dela betetzen zirkunstatzia horretan, 91.2.b artikuluan aipatzen dena, hain zuzen. Esan nahi baita, (…) jaunaren berebilak ez ziola inoiz oztoporik egin, ezin izan ziola, alegia, oztoporik egin, beste berebilari zegoen lekutik bidera ateratzeko, berebil horren jabe eta erabiltzailea bestearen jabearekin baitzegoen une horretan.*

*3. Esandako guztia gorabehera, eta horrez aparte, esan beharra dago gainera zigorbidezko zuzenbide administratiboan arau hauste bezala tipifikaturik dagoen jokaera bat egiaztatzea ez dela aski, besterik gabe, egileari legez kargu hartzeko, behin jokaera jakin bat izan dela egiaztatzeko baldintza objektiboa gaindutuz gero.*

*Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoari buruzko ozaroaren 26ko 30/1992 Legearen 130. artikuluak zalantzarik gabe finkatu du erruduntasunaren printzipioa administrazioaren zigorbidearen alorrean. Horrek esan nahi du edozein kasutan administrazioz arauz kanpokotzat tipifikatuta dagoen jokaera baten legezko kontu hartzea egin nahi baldin bada, arau hauste horretan berorren usteko egilearen aldetik marro edo errua izan dela egiaztatu behar dela. Alde horretatik, inolako zalantzarik ez du uzten Auzitegi Gorenaren 1990eko martxoaren 12ko epaiak, esaten baitu 'Administrazioko arau hausteak ezin daitezke inoiz ere memanikoki aplikatu, adierazpen soilaren arabera, zilegi ez denaren gainkontzeptuaren baitan txertatzen baitira, eta horren oinarrizko bat izateak ez du esan nahi bestelako adierazpen fenomenikorik izan ezin dezaketenik; egoera gertatarri horien artean daude, adibidez, bai arau hauste administratiboa bai arau hauste penala; bi arau hauste horietarako giza jokaera bat behar da, positiboa zein negatiboa, legez kontrakotasun bat, erruduntasun bat eta ondorioz kaltegarria izan ahal izatea edo, izatez, hala izatea, eta orobat ondorio horren eta salatzen den jokaeraren artean kausazko erlazioa izatea, eta hala garbi geratzen da administrazioaren alorrean arau haustearen egiturazko irizpideen xedea erantzukizuna banakatzea dela, eta ez dutela onartzen erantzukizun objektiborik'. Era berean, Auzitegi Gorenaren 1992ko otsailaren 22ko epaiak dioenez '...zigor ekimen orotan beharrezkoa da, zuzenbidearen araberakoa izango bada, sujetu pasiboaren jokaeran izan daitezela zigorgarri izateko behar diren oinarrizko baldintza guztiak, eta baldintza horietako bat da, delituaren teoria aplikatzen badlin bada, sujetuak erakutsi duen maltzurkeria edo errua arauaren kontrakoa edo legez kontrakoa izatea, administrazio bidezko kontu hartzea egin ahal izan dadin".*

*Begien bistan dago salaketa egin zuen ajenteak berez zigorgarri izan zitekeen jokabide bat egiaztatu zuela. Ajente hark ezin izan zuen egiaztatu, ordea, gero ezigor espedientea tramitatzerakoan gin ahal izan den bezala, orduan salatua eta geroztik zigortua izan denaren gogoan ez*

*zela inoiz izan, ez maltzurkeriaz edo erruz, bere berebila era hortan utziz beste berebilari bidera irtetea eragotzi ziezaiokeenik. Hain zuzen ere, geroztik administrazioak berak hala onarturik frogatu ahal izan den bezala, ezinezkoa baitzen guztiz hori horrela izatea".*

Aurreko erabakiari dagokionez, Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendariak erantzun zigun ezen "*zigorra eman duen administrazioak inoiz ez du ezagutu interesatuaren berebilak irtetea eragozten zion berebila harekin batera egun-pasa zegoen adiskide batena zenik. Hain zuzen ere, datu hori ez da behar bezala inoiz frogatu prozedura osoan zehar, baina hala balitz ere, eta salaketa egin duen ajenteak bere berrespen txostenean dioen bezala, salakuntza egin zaion pertsona irteera eragotzita zeukan berebilaren jabearen adiskide izateak ez du eragozten trafiko antolamendurako araudiaren kontra arau haustea egitea, bestelako erru edo delitu elementu guztiak alde batera utzirik, bestela baizik, Legearen beraren edota lege hori garatzen duten Araudien kontrako egintza den aldetik baizik, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Erret Dekretuaren 65. artikuluak berak dioen bezala. Hala ere, ordea, 69.1 artikuluak aukera ematen du egintzaren larritasuna eta garrantzia, arau hauslearen lehendiko aurrekariak eta eragin ahal izan den arriskuaren larritasuna kontuan hartuta zigor handiagoak edo txikiagoak jartzeko*". Arrazoi horiengatik guztiengatik, bada, gomendioa ontzat ez ematea erabakitzen dute.

Argudio horiei erantzunez idatzi bat igorri zion Arartekoak Herrizaingo Sailari, beste zenbait gauzaren artean ondoko hauek esanez:

*"Joan den abuztuaren 27an Arartekoak (...)/1997 gomendioa igorri zizun, jauri agurgarri horri, Herrizaingo Saileko Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzako eskudun diren organoek ezarritako zigorra indar gabe utzi egin beharko luketela esanez eta gogoratuz. Arrazoi batean oinarritzen zen batez ere Ararekoa erakunde horri ekimen administratibo hori eskatzeko: hain zuzen ere, gure iritzian, Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzak, interesatuak zigor erabakiaren kontra ezarritako errekurtsoari erantzunez, hari jarritako isuna beheratuz erantzun bazion, horretarako arrazoia, interesatuaren alegazioetan esaten zen bezala, bideratzea oztopatzen zitzaion berebilaren jabea une horretan berorretan interesatuarekin batera egun pasa zegoen adiskide bat izatea izan baitzitekeen. Gure iritzian, zirkunstantzia hori erantzukizunaren errugabegarri bezala hartzekoa zen.*

*Orain dela gutxi Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzako Zuzendari jaun agurgarriak igorri digun idazkian esaten denez, zigorra jarri zuen administrazio horrek inoiz ere ez du onartu zigortuaren ibilgailuak bidera ateratzea eragozten zion ibilgailua une horretan harekin egun pasa zegoen pertsona batena zenik. Eta orobat esaten zigun, hala izanda ere, horrek ez lukeela balio izango horrenbestez erantzukizuna errugabetze-*

*ko, horrek ez baitu esan nahi arau haustea gertatu ez denik. Honi dagokionez, hain zuzen, ondoko hau gogoeta hauek egin nahi dizkizut: Egiten zaigun lehendabiziko adierazpena baliteke Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzako Zuzendari jaunak, gai honi buruz informazioa eskatu zitzaion lehenengo aldian bidali zigun idazkian esaten denarekin ados ez egotea. Hain zuzen ere, idatzi hartan esaten denez, ‘Esan beharra dago, gaur kexabidez erreklamazioa egiten duenak dioenaren kontra, prozedura bideratzean ez ezik, prozedura hori erabakitzean eta ondoko berrikusketan ere, beti hartu da kontuan salatuak bere erantzukizunaren zurigarri aipatzen zuen arrazoia’.*

*Egia da ez administrazio espedientean bildurik dauden dokumentuetan, ez zigor erabakiaren kontra jarritako errekurtsoa atzera botatzen duen —baina isunez ordaintzeko diru kopurua gutxitzen duen— akordioan ez dela inoiz esaten isun beherapen hori zurigarritzat aurkezten zen zirkunstantzia hori onartu delako egiten denik. Zirkunstantzia horren onarpen eta aitorpen hori ordea, zehazki egina da aipatu den txostenean.*

*Beste alde batetik, Bidezaingoko Zuzendari jaunak adierazten baitu-berak aipatzen duenez- “trafiko gaieian zigor errejimen juridikoa aplikatzerakoan “ez dela ezertarako kontuan hartu behar maltzurkeriarik edo errurik izan den ala ez”, gure aldetik berriro gogoratu nahi dugu ezen erabat finkaturik dagoela administraziozko zigor alorreon errunduntasunaren printzipioa. Bere garaian igorri zitzaion gomendioaren 3. atalean jasotzen ziren arrazoiak ahaztu gabe, Andaluziako Justiziako Auzitegi Goreneko Administrazio Auzietarako Salak (Malaga) aurtengo bertako (1997) apirilaren 30ean emandako epai bat, trafiko arauak hausteagatik emandako zigor baten kontrako errekurtso batean emana, ekarri nahiko genuke gogora. Epai horrek honela dio, beste gauza askoren artean:*

*‘Izan ere, Administrazioak zigorrak jartzeko duen aha/mena eta Estatuak duen <ius puniendi>-a, ñabardura askorekin, berdintzetik behar da abiatu; horrek badu aurrekari hurbil bat, Auzitegi Gorenaren 1972ko otsailaren 9ko epaian, non esaten baita <Administrazioko arau hausteak ezin daitezke inoiz ere mekanikoki aplikatu, adierazpen soilaren arabera, zilegi ez denaren goinkontzeptuaren baitan txertatzen baitira, eta horren oinarrizko bat izateak ez du esan nahi bestelako adierazpen fenomenikorik izan ezin dezaketenik; egoera gertatarri horien artean daude, adibidez, bai arau hauste administratiboa bai arau hauste penala; bi arau hauste horietarako giza jokaera bat behar da, positiboa zein negatiboa, legez kontrakotasun bat, erruduntasun bat eta ondorioz kaltegarria izan ahal izatea edo, izatez, hala izatea, eta orobat ondorio horren eta salatzen den jokaeraren artean kausazko erlazioa izatea; hori oso garbi geratzen da, adibidez, Zigor Kodearen 1. Artikulua eta Zerge-*

*tarako Lege Orokorraren 77. Artikulua alderatuz gero>. Horregatik hain zuzen, administraziozko arau haustea ezin daiteke hartu erantzukizun objektiboaren aplikazio bat bezala. Auzitegi Gorenaren doktrina hori Europako Batzordeko Giza Eskubideen Auzitegiak bermatu zuen, 1976ko ekainaren 8ko epaian (Engel kasua), 1984eko otsailaren 25eko (Otzurk kasua) eta ekainaren 21eko (Campbell eta Fell kasua) eta 1990eko maiatzaren 22ko (Weber kasua) epaietan; eta berdin bermatu dute gure Konstituzio Auzitegiak (Konstituzio Auzitegiaren 1981eko ekainaren 8ko Epaia) eta Aiuzitegi Gorenak eman dituzten ezin konta ahalako epaiek (1987ko maiatzaren 6koa, irailaren 21ekoa, azaroaren 16koa, 1988ko otsailaren 6koa, 1991ko ekainaren 20koa). Doktrina hori berori legegintza positiboan sartu da geroztik, Administrazio Pu-blikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Erregimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeaan, lege horretako 130. eta 131. artikuluetan.*

*Horregatik guztiagatik, bada, Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzako Zuzendari jaunaren gogoetak gorabehera, bere garaian egin zitzaion gomendioa zuzena dela uste dugu, eta horrenbestez berriro eskatzen diogu gogoeta hauek kontuan har ditzan".*

Azken idazki honi erantzunez, Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendariak idatzi bat igorri zion Arartekoari esanez ez zuela kontuan hartu behar hark egindako gomendioa, behin eta berriro esanez eta argudiatuz ezen espedientearen tramite aldi osoan eta espedientea erabakitzerakoan behin ere ez zela kontuan hartu interesatuak alegatua, eta hark alegatua frogatu ahal izan balitz ere, ez litzatekeela horrenbestez aski arrazoi izango haren erruduntasuna zuritu ahal izateko.

• Emaitza

Alegatutako arrazoi guztiak gorabehera, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Bidezaingo eta Ibilgailu Zuzendaritzak ez zion jaramonik egin Arartekoak egindako gomendioari.

*Trafikoaren antolamendurako arauak hausteagatik Gasteizko Udalak tramitatutako zigor espedienteetan egindako ediktuzko jakinerazpenaz (782/96, 783/96, 791/96, 1286/96, 1404/96, 1476/96, 1608/96, 543/97)*

• Erreklamazioa

Espediente hauetan guztietan planteatzen diren arazoak elkarren antzekoak dira guztiak. Trafikoari dagozkion zigor prozedurak izan eta hortan administrazio bidez hartutako erabakiak, denak edo batzuk behintzat, ediktu bidez jakinarazitako kasuak dira denak. Horrexegatik, hain zuzen, interesatuek ez zituzten ezagutu aipatutako administrazko ekimen guztiak, edo batzuk behintzat (prozedura hasteko erabakia, ebazpen proposamena eta zigor erabakia), eta horrek defentsabiderik gabe utzi zituen interesatuak.

• Azterketa

Gure iritzia emateko ekarri zaizkigun gai hauek guztiak aztertzerakoan ondoren aipatuko ditugun irizpide hauek hartu izan dira kontuan:

a) Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Errejimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluaren edukiaren arabera, ekintza administratiboen ediktu bidezko jakinarazpena hiru kasu edo baldintzatan baizik ezin daiteke egin: lehenik eta behin, dagokion prozeduran interesatu direnak ezagutzen ez badira, jakinarazpena non egin edo nola egin ezagutzen ez bada, eta jakinarazpen ahalegina eginik, ezin izan bada. Bistan da jakinarazpenaren interesatua ezagutzen bada, eta jakinarazpena non eta nola egin ezagutzen baldin bada, jakinarazpen ahalegina egin eta ezina gertatu izan balitz baizik ezin izango litzatekeela bidezkoa izan ediktuzko jakinarazpena.

Alderdi horretatik, esan beharra dugu, Arartekoaren iritzian jakinarazpena pertsonalki egiteko ahaleginetan zenbait bider hutseginagatik, horrek ez diola zilegi bihurtzen, besterik gabe, administrazio publikoek ediktu bidezko jakinerazpenen bideari ekitea. Erakunde honek jarrera hori hartzeko dituen arrazoiak gai honi beroni buruz Arartekoaren 1994eko txostenean jasotzen zen gomendio orokorrean jasota daude.

Labuipen gisan eta egoera honen ia paradigmatzat daukagulako, Auzitegi Gorenaren 1993ko urriaren l0eko epaiaren edukia dakargu hona, Konstituzio Auzitegian behin eta berriro emandako doktrina (9/1981, 1/983, 22/1987, 72/1988 eta 242/1991 Konstituzio Auzitegiaren Epaiak) gogoan hartuz, honela esaten baitu: "*ediktu bidezko jakinarazpenak, komunikaziorako azken erremedioa denez gero, hartzailearen eskuetara jakinarazpena iristea gutxi ego gehiago bermatuko duten beste bide batzuk aldez aurretik erabiltzea eta horiek betetzen saiatu izana frogatzea eskatzen du, baina hartzailea aurkitu ezin denean hori horrelo dela ziurtatzea eta jakinarazpena egiteko beste bide normalak erabiltzea alferra dela ziur egotea ere (...). Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 17ko 9/1991 Epaiak dio, jaso denaren ziurtagiriarekin korreo zertifikatu bidez hartzailea kanpoan dagoelako aurkitu ezin denean, ezin da besterik gabe ediktu bidezko jakinarazpena egin (...), prozedura horretara jo aurretik interesatuaren helbidea ez edukitzea eta non dagoen ez jakitea beharrezkoa baita, eta orduan diligentzia bidez jaso dadila».* Dagokion iragarpena aldizkari ofizialean noiz argitaratuko den zain egotea, edo dagokion Udaletxeko iragazki oholean noiz jarriko den zain egotea, begien bistan dago eskubide eta interes legezkoen jabe den edozeini legez eska lekiokeen oroz gainetik dagoela (Konstituzio Auzitegiaren 63/1982, 117/83 Epaiak).

b) Aipatu den arau horretako artikuluaren aurrikuspena noraino iristen den zehaztu nahi denean, ediktu bidezko jakinarazpena "*jakinerazpena egiteko ahalegina egin baina ezin izan denean"* zilegi dela esaten baitu, kontuan hartu behar Konstituzio Auzitegiak, 1993ko azaroaren l0eko aipatu epaian (8.194. Ar. 1993), ediktu bidezko jakinarazpen gertaera bat aztertzean, honela dioela: *"Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro errepikatu duen doktrina da -9/*

*1981, 1/1983, 22/1987, 72/1988 eta 242/1991 epaiak, besteren artean- **auzibidezko komunikazio egintzak,** Espainiako Konstituzioak bere 24.1 artikuluan bermatzen du egiazko babes judizialarekin eta, batez ere, agindu hark era guztietara debetzatzen duen defentsa gabeziarekin, duen zuzeneko erlazioagatik beragatik, **ez dira prozesua tramitatzeko baldintza formal soilak, partedun direnei edo izan daitezkeenei dituzten zilegizko eskubideak eta interesak defenditu ahal izateko bermea eman behar duen nahitaezko betebeharra baizik,** halako moduan non egintza horiek arautzen dituzten arauak bete ezean, aipatu den oinarrizko eskubide horren kontrako den defentsa gabeziazko egoera batean jarri bailezake interesatua".*

c) Jurisprudentziak administrazio prozeduretan auzibidezko komunikazio egintzei aitortzen dien izaera, eta egintza horiek Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluan aitortzen diren oinarrizko eskubideen errespetoarekin duten zerikusia kontuan hartzen badira, bistan dago aipatu den 30/1992 Legearen 59.4 artikuluaz egin daitekeen interpretazioa Konstituzioaren ikuspegi horretatik beharko dela egin, une bakoitzean dagokion prozeduran interesatua defentsarik gabe utzi lezakeen bestelako edozein irakurketa baztertuz.

Gure iritzian, interesatuaren bizilekua zein den ezaguturik jakinarazpen pertsonala egiteko hiru ahalegin eta jakinarazpen hori beste inola ezin burutu daitekeela zalantzarik gabe ondorioztatzeko bestelako zirkunstantziarik ikusi ez dela, horrekin bakarrik, dagozkion egintza administratiboen berri ediktu bidezko jakinarazpenez ematea zilegi dela erabakitzeak interesasuari defentsa gabezia eragiten dio. Ondorio hori bera atera du Kataluniako Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboak 1995eko maiatzaren 29an eman duen, eta iritzietan ados gatozen, ebazpen batez. Aipatu den 59.4 artikuluan dioenean, «jakinerazpena egiteko ahalegina egin baina ezin izan denean" dioenean, alegia, aztertzean, honela esaten baitu: *"Horri dagokionez, alde batera utzi beharda atzera bota-tzea gertatzen deneko kasua, horren ondorioak aurreko paragrafoan baitau-de zehazturik, eta orobat alde batera utzi behar da gutunak banatzen dire-nean, lanagatik edo bestelako arrazoiek (bizilekua behin betirako utzi ez duenean behintzat) eraginda igorpena hartu behar duena etxetik kanpoegon, eta postariak jakinarazpena har dezaketen gainerako pertsonei (ordezkaria, familiartekoa, auzotarra,enplegatua, edo une horretan etxean egon eta interesatuarekin zerikusia duela frogatzen duen beste edonor) emateko ahaleginik egin ez duenean gertatzen den kasua, zeren horrelakoetan Legeak aipatzen duen jakinarazpena emateko ahaleginik ere ez baitago. Hain zuzen ere, postariek "posta banaketaren garaian ez zegoen etxean" edo horrelakoak esanez egiten dituzten eginbideak ezin daitezke hartu jakinerazpen ahalegintzat, ahalegin hori egin nahizen unean interesatua bereetxean aurkitzen ez zelako egiaztapentzat baizik, eta eginbide horietatik interesatuaren aldetik bestelako jarrera pasiboa edo ihesbidezkoa denik, edo etxebizitzaz aldatu denik, ondorioz atera ezin baldin badaiteke, eginbide horiek ezin har daitezke, egintza administratiboen jakinarazpenari legegileak eman nahi izan*

*dion berme zentzuari irain eta gutxiespen egin gabe, interesatuaren erantzukizunekotzat eman ezin daitekeen ezjakintasun bategatik prozedura aurrera jarraitzeko oinarritzat".*

d) Aipatu diren gogoeta eta arrazoibide horiengatik guztiengatik, beraz, ageri-agerikoa da atera daitekeen ondorioa: interesatuaren bizilekua zein zen jakinik, eta jakinik orobat interesatu hori ez zegoela leku ezezagunean, baldintza horietan dagokion espedientean egiten diren ediktu bidezko jakinarazpenak lege ordenamenduareh kontrako izan zirela, eta egin gabetzat behar direla eman, horrenbestez.

• Emaitza

Gertaera hauetan guztietan zigor erabakiak indargabetzeko gomendioa egin zuen beti Arartekoak; gomendio horiek, ordea, ez zitzaizkion onartu.

*Aparkatzea debekatuta zegoen lekuan matxura bategatik utzitako berebil baten jabeari jarritako zigorraz (845/96)*

• Erreklamazioa

Bilboko biztanle batek Arartekoaren iritzia eskatu zuen ondoko gai honi buruz: Bilboko Udalak zigorra jarri zion aparkatzea debekaturik zegoen leku batean bere berebila uzteagatik, berebila matxuratuta zegoela esanez egindako alegazioak kontuan hartu gabe. Interesatuak, egoera horren argigarri eta egiaztagarri bezala, garabia zerbitzu baten frogagiri bat aurkeztu zuen, non esaten baitzen berebil hori geldituta zegoen lekutik konponketa tailer batera eraman zuela.

Alegazio horiek ez onartzeko, salaketa egin zuen ajentearen esanetan oinarritzen da Bilboko Udala, hark esaten baitu:"...ez *zegoen matxuratuta zegoelako inolako abisurik ez bestelako aztarrenik salakuntza egin zaion berebilean, eta baziren, gainera, hura baino leku hobeak, berebila uzteko ".* Zigor erabakiak zioenez, gainera "*.. .aurkezten duen frogagiria ez da aski salaketaren edukia baliogabetzeko".*

• Azterketa

Bilboko Udalak eman zigun informazioa ikusita, gomendio bat igorri zitzaion udal hari, ondoren adierazten diren gogoeta hauek eginez:

a) Ustez izandako matxura frogatzeko aurkeztutako frogagiriaren froga balioa ukatu izanari buruz Arartekoak egin dezakeen balioztapena alde batera utzita ere, gauza segurua da prozedura bideratu zuen erakundeak ez duela burutu lege ordenamenduak aztergai den errealitatea ezagutzeko bere esku jartzen dizkion prozedura baliabideak.

Hain zuzen ere, Trafiko gaietako Zigor Prozedura Araudiaren 13.1 artikuluak agintzen duenez, gertaerak izan diren eta nolakoak izan diren jakitzeko, eta gertaeretan izan daitezkeen era bateko edo besteko erantzukizunak ezagutzeko, behar denean, espedientegileak aukera izango du froga aldi bat emateko. Bada,

prozedura abiarazi zuen erakundeak interesatuak emandako argudioak zalantzan jartzen bazituen ere, ez zuen eskura zuen baliabide hori erabili nahi izan, eta, adierazi zitzaigu bezala, frogabide zalantzarik gabea izango zatekeen matxuraren konponketaren faktura agiria aurkeztea eragotzi zion, gutxienez, interesatuari.

b) Esandakoaz gainera, prozedura tramitazioan, aipatu den araudiaren 13.2 artikuluan jasota dauden aurrikuspenak hautsi dira, interesatuari ez baitzitzaion espedientearen ebazpen proposamenaren berri jakinarazi, espedientea ikusirik, era horretara berak bere defentsarako egokien zerizkien alegazio eta dokumentuak aurkeztu ahal izan zitzan. Tramite hori egin ez izanak defentsarik gabe utzi zuen, zalantzarik gabe, interesatua, zeren, hain zuzen ere, tramite hori behar bezala bete izan balitz, aukera izango baitzukeen, hala bazerizkion, poliziaren ajenteak salaketa jarri zionean berebila matxuraturik zegoela froga zezakeen faktura edo bestelako edozein frogagiri aurkezteko. Arazo honi dagokionez, kontuan izan behar da, gainera, era horretara zigor erabakiak administrazio bidea bukatzen eta burutzen duenez, horren kontra ez zegoela inolako errekurtsorik jartzerik, eta administrazio auzi batera jotzera behartzen zela intefesatua, jarri zitzaion zigorra indargabetu nahi bazuen.

• Emaitza

Jarritako zigorra indar gabe utz zezan gomendatu zitzaion Bilboko Udalari; Bilboko Udalak onez onartu zuen gomendioa.

*Trafiko antolamendurako arauak hausteagarik hasitako zigor espedientean hartutako erabakien jakinarazpena ediktu bidez egiteaz (893/96)*

• Erreklamazioa

Herritar batek gai honi buruz iritzia eskatu zion Arartekoari: Trafikoaren antolamenduko arauak hausteagatik hasi zitzaion espediente baten tramitazioaz izan zuen lehenengo albistea, Bilboko udaleko gai horretarako eskumena duen organoak hartutako erabaki bat izan zen, bere posta kutxan «jarria». Erabaki horren kontra arrazoibide orri bat aurkeztu zuelarik, ez zioten onartu, epez kanpo aurkeztu zuelako.

• Azterketa

Bere eskura zuen informazioa azterturik, Arartekoak ondorioz atera ahal izan zuenez, era honetara gertatu bide ziren kexabidea ekarri zuten gertaerak:

1996ko otsailaren 1ean trafikoaren antolamendurako arauen kontrako arau hauste bat gertatu zen, interesatuaren berebila bihurgune batean, inguruan aparatuta zeuden beste berebilei irteten uzten ez ziela, geldirik utzita zegoelarik. Berebilaren gidaria une horretan leku horretan bertan ez zegoenez, eta horrenbestez salaketaren jakinazpena zuzenean ezin egin izan zitzaionez, berebilaren jabearen etxera bidali zitzaion geroago jakinarazpen hori. Interesatua etxetik kan-

po aurkitzen zen, egun berean, eta ordua zehazten ez dela, bi bider jakinarazpena egin nahi izan zitzaionean. Horregatik, hain zuzen, ediktu bidezko jakinarazpena egin zitzaion, jakinarazpen hori Bilboko Aldizkari ofizialeko 1996ko martxoaren 12ko alean argitaratuz, baina salaketa Udaletxeko Iragarpen Oholean jarri zenik frogatu gabe.

Zigor ebazpena emanik, Udaletxeak jakin arazi zigunez, bi bider bota zen atzera horren jakinarazpena interesatuaren etxean, jakinarazpen hori zein baldintzatzan egin zen eta zein pertsonak atzera bota zuen inolako zehaztasunik eman gabe.

Apirilaren 24ean interesatuak arrazoibide orri bat aurkeztu zuen, baina udal zerbitzuek atzera bota zioten, onartu gabe, arrazoibide orri hori, epez kanpo aurkeztu zuelako. 1996ko maiatzaren 15ean interesatuari berari, ongi identifikaturik, jakinarazi zitzaion bere etxean arrazoibide orria atzera bota izanaren berri ematen zion idatzia.

Gauzak horrela direlarik, beraz, Arartekoak ondoren jasotzen diren gogoetak egin zizkion izkribu batez Bilboko udalari:

a) Udal zerbitzuen jokaera lege ordenamenduaren araberakoa izan den ala ez frogatu ahal izateko, salaketaren ediktu bidezko jakinarazpena legeen eskarien araberakpa zen ala ez aztertzen zen lehendabizi.

Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Orokorraren Errejimen Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeaaren 59.4 artikuluaren edukiaren arabera, ekintza administratiboen ediktu bidezko jakinarazpena hiru kasu edo baldintzatan baizik ezin daiteke egin: lehenik eta behin, dagokion prozeduran interesatu direnak ezagutzen ez badira, jakinarazpena non egin edo nola egin ezagutzen ez bada, eta jakinarazpen ahalegina eginik, ezin izan bada. Bistan da jakinarazpenaren interesatua ezagutzen bada, eta jakinarazpena non eta nola egin behar zen -arrazoibidea orriari oriarpena ukatzeko idatzia behar bezala eman zen interesatuaren etxean- ezagutzen baldin bada, jakinarazpen ahalegina egin nahi eta ezina gertau izan balitz baizik ezin izango litzatekeela bidezkoa ediktuzko jakinarazpena.

Alderdi horretatik, Arartekoaren iritzian jakinarazpena pertsonalki egiteko ahaleginetan zenbait bider hutseginagatik, horrek ez dio zilegi bihurtzen, besterik gabe, administrazio publikoek ediktu bidezko jakinerazpenen bideari ekitea. Erakunde honek jarrera hori hartzeko dituen arrazoiak gai honi beroni buruz Arartekoaren 1994eko txostenean jasotzen zen gomendio orokorrean jasota daude.

Laburpen gisan eta egoera honen ia.paradigmatzat daukagulako, Auzitegi Gorenaren 1993ko urriaren 10eko epaiaren edukia dakargu hona, Konstituzio Auzitegian behin eta berriro emandako doktrina (9/1981, 1/983, 22/1987, 72/1988 y 242/1991 Konstituzio Auzitegiaren Epaiak) gogoan hartuz, honela esaten baitu: "*ediktu bidezko jakinarazpenak, komunikaziorako azken erremedioa denez gero, hartzailearen eskuetara jakinarazpena iristea gutxi ego gehiago bermatuko duten beste bide batzuk aldez aurretik erabiltzea eta horiek*

*betetzen saiatu izana frogatzea eskatzen du, baina hartzailea aurkitu ezin denean hori horrela dela ziurtatzea eta jakinarazpena egiteko beste bide normalak erabiltzea alferra dela* ziur *egotea ere (...). Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren urtarrilaren 17ko 9/1991 Epaiak dio, jaso denaren ziurtagiriarekin korreo zertifikatu bidez hartzailea kanpoan dagoelako aurkitu ezin denean, ezin da besterik gabe ediktu bidezko jakinarazpena egin (...), prozedura horretara jo aurretik interesatuaren helbidea ez edukitzea eta non dagoen ez jakitea beharrezkoa baita, eta orduan diligentzia bidez jaso dadila».* Dagokion iragarpena aldizkari ofizialean noiz argitaratuko den zain egotea, edo dagokion Udaletxeko iragazki oholean noiz jarriko den jzain egotea, begien bistan dago eskubide eta interes legezkoen jabe den edozeini legez eska lekiokeen oroz gainetik dagoela (Konstituzio Auzitegiaren 63/1982, 117/83 Epaiak).

Aipatu den arau horretako artikuluaren aurrikuspena noraino iristen den zehaztu nahi denean, ediktu bidezko jakinarazpena *"jakinerazpena egiteko ahalegina egin baina ezin izan denean"* zilegi dela esaten baitu, kontuan hartu behar da Konstituzio Auzitegiak, 1993ko azaroaren 10eko aipatu epaian (8.194. Ar. 1993), ediktu bidezko jakinarazpen gertaera bat aztertzean, honela dioela: "*Konstituzio Auzitegiak behin eta berriro errepikatu duen doktrina da -9/ 1981, 1/1983, 22/1987, 72/1988 eta 242/1991 epaiak, besteren artean-* ***auzibidezko komunikazio egintzak,*** *Espainiako Konstituzioak bere 24.1 artikuluan bermatzen duen egiazko babes judizialarekin eta, batez ere, agindu hark era giiztietara debetzatzen duen defentsa gabeziarekin, zuen zuzeneko erlazioagatik beragatik,* ***ez dira prozesua tramitatzeko baldintza formal soilak, partedun direnei edo izan daitezkeenei dituzten zilegizko eskubideak eta interesak defenditu ahal izateko bermea eman behar duen nahitaezko betebeharra baizik,*** *halako moduan non egintza horiek arautzen dituzten arauak bete ezean, aipatu den oinarrizko eskubide horren kontrako den defentsa gabeziazko egoera batean jarri bailezake interesatua".*

c) Jurisprudentziak administrazio prozeduretan auzibidezko komunikazio egintzei aitortzen dien izaera, eta egintza horieA Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluan aitortzen diren oinarrizko eskubideen errespetoarekin duten zerikusia kontuan hartzen bada, bistan dago aipatu den 30/1992 Legearen 59.4 artikuluaz egin daitekeen interpretazioa Konstituzioaren ikuspegi horretatik beharko dela egin, une bakoitzean dagokion prozeduran interesatua defentsarik gabe utzi lezakeen bestelako edozein irakurketa baztertuz.

Gure iritzian, interesatuaren bizilekua zein den ezaguturik jakinarazpen pertsonala egiteko hiru ahalegin -egun berean eginak hiruak, zein ordutan zehazten ez dela- eta jakinarazpen hori beste inola ezin burutu daitekeela zalantzarik gabe ondorioztatzeko bestelako zirkunstantziarik ikusi ez dela, horrekin bakarrik, dagozkion egintza administratiboen berri ediktu bidezko jakinarazpenez ematea zilegi dela erabakitzeak interesasuari defentsa gabezia eragiten dio. Ondorio hori bera atera du Kataluniako Eskualdeko Auzitegi Ekonomiko Administratiboak 1995eko maiatzaren 29an eman duen, eta iritzietan ados gatozen, ebazpen ba-

tez. Aipatu den 59.4 artikuluan dioenean, *«jakinerazpena egiteko ahalegina egin baina ezin izan denean"* dioenean, alegia, aztertzean, honela esaten baitu: "*Horri dagokionez, alde batera utzi behar da atzera botatzea gertatzen deneko kasua, horren ondorioak aurreko paragrafoan baitaude zehazturik, eta orobat alde batera utzi behar da gutunak banatzen direnean, lanagatik edo bestelako arrazoiek (bizilekua behin betirako utzi ez duenean behintzat) eraginda igorpena hartu behar duena etxetik kanpo egon, eta postariak jakinarazpena har dezaketen gainerako pertsonei (ordezkaria, familiartekoa, auzotarra, enplegatua, edo une horretan etxean egon eta interesatuarekin zerikusia duela progatzen duen beste edonor) emateko ahaleginik ez duenean gertatzen den kasua, zeren horrelakoetan Legeak aipatzen duen jakinarazpena emateko ahaleginik ere ez baitago. Hain zuzen ere, postariak "posta banaketaren garaian ez zegoen etxean" edo horrelakoak esanez egiten dituzten eginbideak ezin daitezke hartu jakinerazpen ahalegintzat, ahalegin hori egin nahi zen unean interesatua bere etxean aurkitzen ez zelako egiaztapentzat baizik, eta eginbide horietatik interesatuaren aldetik bestelako jarrera pasiboa edo ihesbidezkoa denik, edo etxebizitzaz aldatu denik, ondorioz atera ezin baldin badaiteke, eginbide horiek ezin har daitezke, egintza administratiboen jakinarazpenari legegileak eman nahi izan dion berme zentzuari irain eta gutxiespen egin gabe, interesatuaren erantzukizunekotzat eman ezin daitekeen ezjakintasun bategatik prozedura aurrera jarraitzeko oinarritzat".*

c) Aipatu diren gogoeta eta arrazoibide horiengatik guztiengatik, beraz, ageri-agerikoa da atera daitekeen ondorioa: interesatuaren bizilekua zein zen jakinik, eta jakinik orobat interesatu hori ez zegoela leku ezezagunean, baldintza horietan dagokion espedientean egiten diren ediktu bidezko jakinarazpenak lege ordenamenduaren kontrako izan zirela, eta egin gabetzat behar direla eman, horrenbestez. Zigor espedientea tramitatu den bitarte guztian Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikuluak finkatzen duen eskubidea zapaldu baldin bada, eta horrez gainera espedientea horretarako dagoen prozedura ezertan kontuan hartu gabe tramitatu baldin bada -ezagutu izan balitu bere burua defenditzeko balio izango zioketen oinarrizko akordioen berri batere eman ez zitzaionez eta gainera hartutako zigor erabakiaren kontra administrazio bidez errekurtsorik ez dagoenez-, zigor erabaki horrek baliorik ez duela uste dugu, 30/1992 legearen 62. artikuluan jasotzen denaren arabera.

Goian esandako guztiaz gainera, ez dago guztiz egiaztatuta ediktu bidezko jakinarazpenean azaroaren 26ko 30/1992 legearen 59.4 artikuluan agintzen diren guztiak behar bezala bete direnik, ez baita frogarik eman salaketaren agiria Udaletxe horretako iragarki oholean jarri zenik ziurtatzeko.

• Emaitza

Goian esandako guztiak kontuan hartuta, beraz, jarritako zigorra indarrik gabe uzteko gomendatu zitzaion Bilboko Udalari. Bilboko Udalak, ordea, ez du kontuan hartu egin zitzaion gomendioa.

*Trafikoa arautzen duten arauak hautsi eta salaketaren jakinarazpena ez burutzearen ondorioak (137/97)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek honakoa adierazten dio Arartekoari: behartze-espedienteak bideratzeko aginpidea duen organoak emandako probidentziaren bidez jakin duela zigortze-espedientea egin zaiola trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik, eta ordura arte ez duela horren berririk izan.

• Azterketa

Erreklamazioa bideratzerakoan sortutako bestelako gertakariei kalterik eragin gabe, Eusko Jaurlaritzako Barne Saileko Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzaren bidez lortutako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak ondorioak atera eta gomendioa eman zuen. Horiek guztiak aipatutako erakundeari jakinarazi zizkion. Honakoak dira, hain zuzen, Arartekoaren ondorioak:

> *"...Arau-haustea egiaztatu zuen agenteak egindako salaketa ez zen une hartan bertan jakinarazi, bainagerora ibilgaituaren jabeari, (…) jaunari, bidalitako buletinean eman zitzaion hutsegite horren berri, eta zerbitzuaren premia orokorren ondorioz gertatu zela ere azaldu zitzaion. Dena den, Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzak onartu egin du interesdunak ez zuela inoiz salaketa-buletin hori jaso. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailak (ANAAS aurrerantzean) honako erabakia hartu zuen aurreko otsailaren 11ko 3.192/95 AAEn: ibilgailuak ez geldiarazteko arrazoia zerbitzuaren premia orokorrak izan direla aditzera ematen duten salaketak baliogabetuta geratzea. Litekeena da erabaki horrekin bat ez etortzea eta beste autonomia erkidego batzuetako organo jurisdikzionalek auzi horren inguruan bestelako ikuspuntua dutela argudiatzea. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko ANAAS-k auzi horri buruz, bertako jurisdikzioaren kontrolpean izaki, hartutako erabakiaren kontra ezingo da errekurtsorik aurkeztu. Beraz, aztergai dugun auzia arautzen duten arauak aplikatzerakoan, kasuan kasuko gaiaren eta lurraldearen organo aginpidedunen erabakiak hartu beharko dira kontuan. Horrela egiten ez bada, honakoa gertatuko da agian: hiritarrek Arartekoarengana edo antzeko kontrol erakundeetara jotzen dutenean, aurkezten duten auzia Euskal Autonomia Erkidegoko ANAAS-n behin eta berriro aztertuta egon arren, instantzia desberdinetako ebazpenak bat ez etortzea. Bestalde, interesdunak aurkeztutako auzia eta antzekoak ebazteko bidea erraztu egin da administrazioan, hau da, prozedura jurisdikzionalean auzijartzaileari arrazoia ematea erabaki da. Horretaz, aurreko argudioa kontuan hartu beharrekoa dela iruditzen zaigu (...) Espedienteari buruzko zigortze-ebazpena eman baino lehen, interesdunari ez zitzaion salaketa-buletina helarazi. Trafiko eta Parke Mu-*

*gikorreko zuzendariak emandako informazioaren bidez atera dugu ondorio hori. Gure iritziz, jokabide horrek zigortze-ebazpena erabat baliogabetzen du; boina badirudi Barne Saileko organo aginpidedunek bestelako ikuspuntua zutela, zigortze-jardunbidea bideratzen jarraitu baitzuten. Dena den, honakoa ere onartu zuten: 'Ezin izan genuenez salaketaren jakinarazpena helarazi, ediktu bidezko jakinarazpena egin behar izan genuen, Herri Administrazioen Araubideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legearen 59.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera'. Argudio horiekin bat ez etorri arren, garrantzitsua deritzogu erakunde horrek egiten duen aitormenari, jakinarazpen ordezkatzailea, eta ez pertsonala, egin behar izan zuela onartzen baitu.*

*Jakinarazpen administratiboak Herri Administrazioen Araubideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 legearen 59.4 artikuluan ezarritakoaren arabera egingo dira. Bertan, inon ez da jasotzen hartzailea posta "zerrendan" egotea aski dela jakinarazpena burututzat emateko. Gai horri dagokionez, Auzitegi Gorenak 1991ko ekainaren 17an emandako epaian azaltzen diren tesiak berretsi egiten ditugu. Tesi horiek, hain zuzen, aurreko uztailaren 11n bidalitako idazkian bildu genituen.*

*Trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik zigortze-espedientea egin baino lehen, salaketaren jakinarazpena ez gauzatzeak eragin ditzakeen ondorioei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko ANAAS-k apirilaren 3an (3.217/93 AAE) emandako epaiaren edukia azaldu nahi dugu. Bertan, trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik egindako zigortze-espediente batean administrazioak izandako jokabidea zuteri aztergai, ez baitzegoen egiaztatuta interesdunari salaketaren jakinarazpena bidali zitzaionik. Hona hemen aipatutako epaia:*

*'Administrazioaren jokabidearen ondorioz, zigorraren inguruan irregulartasunak eragiteaz gain, salatuak ez zuen izan alegazioak aurkezteko eta zegozkion defentsa-bideak erabiltzeko eskubiderik. Beraz, zigorra ezartzeko erabakia alderdi bati entzun gabe hartu zen, eta ondorioz, defentsarako eskubidea ez zen errespetatu. Horrek errekurritutako administrazio-egintza zeharo akasten du -Guztientzako Administrazio Jardunbidea arautzen duen 30/1992 legearen 62.1.e) artikulua—, legez ezarritako zigortze-jardunbidean aurreikusten den entzunaldia burutu gabe hartu baitzen erabakia. Izan ere, hori oinarri-oinarrizkoa da ordena penalaren prozesu-hatsapenak babesteko. Ordena hori era guztietako zigortze-jardunbideetarako erabiltzen dajpta Konstituzioaren 24. atalak bermatzen du -Auzitegi Konstituzionalak horrela interpretatu du beti 18/1981 (2. EJ) epaitik hona; eta entzunaldia burutzea ere agindu du beti 181/1990 (6. EJ) epaitik hona'.*

*(...) Azkenik, espedienteak salaketaren jakinerazpeneraino atzeraeraginik ez zuela erabaki zen Ildo honetan, Trafiko eta Parke Mugikorreko*

*Zuzendaritzak argi eta garbi onartzen du '...aurkitu den formazko akatsak babesik eza eragiten duela...'. Beraz, administrazio horrek ez bezala, espedienteak atzeraeragina izan behar zuela uste dugu, horrela interesdunak alegazioak aurkezteko eta bere burua defendatzeko aukera izango baitzuen. Atzeraeragina ezarrita ere ebazpena antzekoa izango zela ondorioztatuz gero, administrazioaren zigortze-jardunbidea bera kolokan jarriko genuke. Bestalde, honako hau ere nahiko argi geratu da: espedientea bideratzean ezin izan dela egiaztatu arau-haustea egin zuen ibilgailuaren gidaria eta zigortutako pertsona bat bera direnik".*

• Emaitza

Zigorra ezeztatzea gomendatu zen, baina Eusko Jaurlaritzako Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzak ez zuen gomendio hori kontuan hartu.

*Jabea ohiko gidaria bera ez duen berebil batean erabiltzeko TAO egoiliar txartela ukatzeaz (990/97)*

• Erreklamazioa

Emakumezko batek Arartekoaren irizia eskatu zuen Bilboko Udalak berea ez baino lanean ziharduen enpresarena zen, baina ohiko erabiltzailea bera zen berebil batean erabiltzeko TAO egoiliar txartela ukatzen ziolako. Bilboko Udal honetan oinarritzen zen baimen hori ez emateko: berebilaren derrigorrezko aseguruan ez zela agertzen ohiko gidaria kexa jartzailea zenik, nahiz eta kexa jartzaileak, horren frogagarri, berebilaren jabe zen enpresak sinatutako ziurtagiriak ekarri. Gauzak horrela zeudenez, Bilboko Hiriko Trafiko eta Aparkamenduko Ordenantzak (TAO) bere 10.2.c) jarrita dituen baldintzak ez zirela betetzen iritzi zion Bilboko Udalak.

• Azterketa

Kexaren edukia ezagututa, informazioa eskatu zitzaion gai horri buruz Bilboko Udalari, eta, bide batez, gogoeta hau egin zitzaion, besteren artean:

*«Egia da Trafikoaren eta Aparkamenduaren Udal Ordenantzaren (TAO) S.l.b) eta 10.2.c) artikuluetan, hemen aurkezten dena bezalako kasuetarako, egoiliar txartela eskuratu nahi bada, derrigorrezko aseguruaren fotokopia bat aurkeztu beharko dela; eta dokumentu horretan txartela eskuratu nahi duen pertsonak agertu behar duela berebilaren ohiko erabiltzaile bezala. Hala eta guztiz ere, agindu horren edukia zein eta norainokoa den interpretatu behar denean, kontuan hartu beharko litzateke ezen, 2.641/1986, abenduaren 30eko Errege Dekretuz onartu zen motordun berebilen erabilera eta zirkulazioagatiko Erantzukizun Zibileko Aseguruaren Araudiko 9.1.c) artikuluan agintzen denaren arabera, aseguruaren hartzaileak erakunde aseguratzaileari bidali behar dion*

*esfcarian, edo aseguru emaileak aseguru hartzaileari egin behar dion proposamenean, ohiko erabiltzailea zein izango den adierazi behar dela, 'aseguru hartzailea' eta 'jabea' pertsona berbera ez direnean ez bezala, orduan 'aseguru hartzailea' nor den zehazki jarri behar baita".*

Bilboko udalak igorri zigun erantzunean era honetara arrazoitzen zuen, batez ere, egoiliar txartela ez emateko erabakia*: "... aipatu 10.2.c) artikuluan aipatzen den eskakizuna, <ohiko gidari bezala agertzen den berebilaren aseguruaren fotokopia ekartzea> dioena, hain da argia eta erabatekoa non zalantzarako edo bestelako interpretazio baterako zirrikiturik ere ez baitu uzten, legegilearen asmoa urratu nahi izan bada behintzat, horretarako* berme *gisa <in claris non fit interpretatio> latinezko esapidea aipatuz».*

Hartutako informazioa ikusirik, Arartekoak gomendio bat igorri zion Bilboko udalari, ondokb arrazoi bide hauetan oinarrituz*:*

*"1. Kexa jartzeko arrazoi bakarra zera izan da: egoiliar txartelaren eskaera egiterakoan, eskari horretan ageri zen aseguru polizan interesatua ohiko gidari gisa ez agertzea hartu zuela Bilboko Udalak egoiliar txartela ez emateko arrazoi bakartzat. Poliza horretan, interesatuaren ordea, aseguruaren hartzailea bera, edo hark baimendutakoa agertzen baita ohiko gidari bezala, baina bi ziurtagiri eransten dira, (...) eta (...) sinatuak, aipatu berebilaren ohiko gidaria kexa jartzailea bera dela ziurtatuz. Horregatik, kexa honen azterketa egiterakoan, interesatuak aurkeztu duen dokumentazioa Bilboko Hiriko Trafiko eta Aparkamenduetarako Ordenantzaren 10.2.c) artikuluan agintzen dena betetzeko askitzat eman beharrekoa den ala ez beharko da begiratu.*
*2. Arazoa era horretara azaldurik, bada, eta behin iritzia eman dezagun aurkeztu zaigun arazoan parte diren aldagaiak azterturik, ondorioa atera dugu ezen, interesatuak eskubidea duela, ekarri duen dokumentazioarekin, berebil horren ohiko gidaria bera dela frogatzeko. Ondorio honetara ondoren zehazten diren arrazoietan oinarriturik iritsi gara: Nahiz eta egia izan aginduak, berez, hitzez hitz hartuta, egoiliar txartelaren eskaera egiten duenak, baimen hori eskuratu ahal izateko, 'ohiko gidari bezala agertzen den berebilaren aseguruaren fotokopia ekar dezan' eskatzen duela, ezin da ahaztu, Arartekoaren iritzian bederen, eskaera egiten duena berebilaren ohiko erabiltzailea dela nolabait ziurtatu beharrak eragina dela arauaren eskaera hori. Gure iritzian arauak jartzen duen formula egokia da baldintza hori betetzen den ala ez ziurtatzeko, baina ez da horretarako izan daitekeen bakarra.*
*Ez gaude ados, eta ezin dugu egon, udal zerbitzuek diotenarekin, alegia artikuluaren adierazpena 'hain dela argia eta erabatekoa non zalantzarako edo bestelako interpretazio baterako zirrikiturik ere ez baitu uzten, legegilearen asmoa urratu nahi izan bada behintzat, horretarako berme gisa <in claris non fit interpretatio> latinezko esapidea aipatuz'.*

*Ezadostasun horren lehenengo arrazoia hau da: Ordenantzak eskuartean duguna bezalako egoeretan, berebilaren ohiko gidaria eskaera egiten duena bera dela frogatzeko ziurtagiriren bat behar duela eskatu. Ziurtasun premia hori betetzeko aseguru polizan eskaera egiten duenak berebilaren ohiko gidari bezala agertit behar izatea, bigarren mailako gauza da, erlazio hori, esan den bezala, beste modu batzuetan ere froga daitekeen kontuan hartzen bada. Araua hitzez hitz aplikatuz gero, diskriminazio egoerak eragin ditzake, zeren berebil bat ohituraz erabili eta haren erabilera arauak dioen bezala egiaztatzen ez bada, dagokion txartela ukatzea ekar baitezake. Auzitegi Gorenak 1989ko maiatzaren 24eko epaian dioen bezala '...gaur egungo doktrina zientifikoak esejesi objetiborantz jotzen du, ahalegin guztiak <mens legis> argitzeko egiten ditu, eta ez <mens legislatoris> zein den jakiteko, zeren azken hori interpretazioaren abiaburua izan badaiteke ere, arauaren ezagumenerako azken hurbilpena kasu bakoitzaren ingurane sozialaren eta zirkunstantzia bareziaren mendeere bai baitago, justiztazko goragoko balioen arabera...'*

*Esandako guztiaz gainera, gogoeta labur bat egitea merezi du beste baieztapen batek ere: alegia, 10.2.c) artikuluaren erredakzioa hain garbia dela non ezin baitaiteke interpretagai izan. Gai honi dagokionez, jurisprudentziaren adierazpen batzuk aipatu nahi dizkiogu Bilboko Udalari, zeinetan, arauen interpretazioari dagokion gaia aztertzean, haien hitzez hitzekotasuna haien xedearen aurrez aurre balioztatzen baita. Epai askotan egiten dira horrelako adierazpenak, baina, bat bereziki aipatzeko, Auzitegi Gorenaren 1989ko uztailaren 11koa aipatuko dugu, zeinetan esaten baita '.. .Kode Zibilaren 3. artikuluan aginduta dagoenaren arabera arauen ipterpretazioak arau horien izpirituari eta xedeari begiratu behar dio batez ere, arauaren hitzez hitzekotasunaren gainetik, interpretazioa haien kontrakoa izan daitekeenean...." Auzitegi horren berorren 1992ko martxoaren 10eko epaiak dio: 'Beste edozein arau juridikori dagokionez gertatzen den bezala, deskribatzen den honetan ere, interpretazio gramatikal estuenaz gainera, bestelako zenbait interpretazio ere izan daitezke, eta horien artean bereziki aipatzekoa da asmo interpretazioa edo interpretazio teleologikoa, Kode Zibilaren 3.1 artikuluan aurrikusirik dagoena, non interpretariari agintzen baitzaio begiratzeko <aplikatu behar diren arauen izpirituari eta xedeari>."*

• Emaitza

Horregatik guztiagatik gomendio hau egiten diogu Bilboko Udalari: kexa jartzaileak, Udal horretako Trafiko eta Aparkamendurako Ordenantzan aginduta dagoenaren arabera egoiliar txartela ateratzeko, (...) matrikulako berebilaren ohiko gidaria dela frogatzeko aurkeztutako ziurtagiriak kontuan hartu eta baliozkotzat eman beharko lituzkeela Bilboko Udaleko Trafiko eta Aparkamendurako Orde-

nantzaren 10.2.c) artikuluan aginduta daudenak betetzeko. Bilboko Udalek ez du onartzen gomendio hau.

B) **Ordena publikoa**

*Salaketa bat egiterako izandako arazoak (530/96)*

• Erreklamazioa

Emakumezko batek arazo hau aurkeztu zuen Arartekoak bere iritzia eman zezan: Gasteizko Ertzantzaren komisariako zerbitzuek ez ziotela utzi berari eraso egin zion gizonezko baten kontra salaketa bat jartzen, gizon hark ere, bere aldetik, emakumezkoaren esanetan, haren erasoari erantzun baizik egin ez zion beste baten kontra salaketa jarria zuelako. Gertaera horrek ustezko falta haren iraungipena eragin zuen.

• Azterketa

Interesatuak ekarritako informazioa, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak bidalia azterturik, idatzi bat bidali zitzaien erakude horretako organoei, ondoren adierazten diren gogoetak eginez:

*"1.-Kexa espediente honen tramitazioaren bitartez, ondorioargiren bat atera nahi da ustez gasteizko Ertzantzaren komisariako zerbitzuek, kexa jartzaileak, dioenez, berari egindako eraso bat salatu nahi izan zuelarik, ustez salaketa hori onartu nahi izan ez ziotelako. Herrizaingoko Sailburuorde jaun agurgarriak '...kexa jartzen duenak beste salaketa bat jarri ahal izan zezan inolako eragozpenik...' ez zela izan esanez egiten duen baieztapen biribila ez da aise adosten interesatuaren iritziarekin, zeren, Gasteizko komisariako polizia zerbitzuen aurrean egin zuen agerraldian, poliziako funtzionario batek galdeturik, erantzuten baitu ezen '...gai berberagatik beste salaketa bat jarri behar ez zelako ukatu omen zitzaion, Ertzaintzak komentatu zionez, bere salaketa egitea'. Ezadostasun hori bera ageri da (...)zenbaki profesionala duen ajenteak, (...) espedientea sinatzen duenak, ageri duen iritziarekin, zeren aipatu txosten horretan berorretan esaten baitu balitekeela arazo guztiaren arrazoia zera izatea: '… gaizki ulerturen bat izatea (…) andrearen eta ajenteen artean, zeren (...) andrea (...) jaunaren lagun baitzihoan, eta jaun hori (…) jaunaren erasotzaile bezala salaturik baitzegoen (..)erreferentziako salaketan, eta hain zuzen* ***jaun hauxe salatu nahi baitzuen (...) andreak. bere aldetik'.***
*2.- Nahiz eta zinez aitortzen dugun ezin dugula zehatz erabaki zerk eraginda ez zuen (…) andreak Gasteizko komisariako zerbitzuetan egin nahi zuen bere salaketa egin, esan beharra dago, hala ere, kasu egin zioten funtzionarioek deklarazioa hartu behintzat egin beharko ziote-*

*keela interesatuari, Auziperatze Kriminalaren Legeak bere 292. artikuluan dioenaren arabera, lekuko bezala bederen, haren lekukotasuna atestatuan jasotzeko, departamendu horrek berorrek aitortzen duenez, ikertzen ari ziren gertaerak bat bera zirela bazekielarik batez ere. (…) andrearen bertsioa ezagutzeak ikuspegi osoagoa eman ahal izango zion epaileari auzigaia hobeto ezagutzeko eta bere ekimena egintza horietan antzeman ahal izan zitezkeen legez kontrako jokaera guztiak argitzera bideratzeko. Auzitegiak gertaeretan parte izanak ahozko auzira baizik ezin deitu izanaren ondorioz, interesatuak ustez pairatu zuen erasoa preskripziopean geratu zen."*

• Emaitza

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailera jorik adierazi zion ezen gauza egokia izango litzatekeela auzi honetan parte hartu zuten funtzionarioei Auziperatze Kriminaleko Legearen 292. artikuluak dioena zehatz bete beharrekoa dela gogorarazi ziezaien, zeren, gure ustez, lege hori ez baitzen bete auzi honetan.

*Polizia kidegoek pertsona bat atxilotu duen ajentearen nortasuna emateko duten obligazioa (1073/97)*

• Erreklamazioa

Gipuzkoako,SOS Arrazakeria Elkarteak Arartekoarengana jo zuen Donostian bizi den marrokiar bati gertatuaren berri emateko.

Itxuraz poliziaren artxibategietan bere nortasunaz zegoen hutsegite bategatik, “bilatzeko eta harrapatzeko” agindua emanda zegoen beste pertsona batekin nahastu zuten herritar hau. Udaltzaingoak atxiloturik, goardiako auzitegira eraman zuten, eta Martuteneko kartzelan sartu zuten gero. Zortzi egunez egon zen kartzela horretan.

Espetxeratuta egotearen arazoa erreklamazioa aurkezten duen elkarteak egindako jestioei esker konpondu ahal izan zen, erakunde horrek lortu baitzuen auziperatuaren hatz marken -atxilotzeko agindua eman zuen auzitegian baitzeuden- eta Donostiako Udaltzainek espetxeratuari hartu zizkioten hatz markak konpara zitezen; hala egiaztatu ahal izan zen hatz marka batzuk eta besteak ez zirela pertsona berarenak.

Hala eta guztiz ere, poliziaren dokumentazioan zegoen nortasun nahaste hark kalteak ekarri zizkion oraindik ere aipatu den herritarrari, zeren, hain zuzen ere, kartzelatik irten eta egun batzuen buruan berriro atxiki baitzuen udaltzaingoak; oraingo honetan, ordea, Polizia Nazionalaren Atzerritarren Arazoetarako Brigadaren aurrean aurkeztu ondoren aske utzi zuten. Azkeneko gertaera horren ondoren, herritar horrek idatzi bat aurkeztu zuen bigarren aldi honetan atxilotu zuen ajentearen nortasun profesionaleko zenbakia eskatuz, susmoa baitzuen le-

henengo aldiz atxilotu zutenetakoa zela, eta bazekiela, horrenbestez, zein zirkunstantzia gertatzen ziren bere egoeran. Eskari honi ez zioten erantzun.

• Azterketa

Kexa hau aurkeztu zela eta, bi jarduera izan zituen Arartekoak. Alde batetik Herriaren Defendatzailearengana bidali zen gai hau, ongi bazerizkion, Barne Arazoetako Ministerioan itxuraz zegoen hutsegitearen zergatiak iker zitzan, eta, hala behar izanez gero, hutsegite hori konporitzeko beharrezko neurriak har zitezen eska zezan.

Beste alde batetik, udaltzaingoaren buruarengana jo genuen, zer nahasmendu zegoen jakinaren gainean jarri, eta arazo honetan zegoen herritarrari zer kalte zetorkion jakinarazteko, eta aldi berean polizia kidego horrek atxiloketa hori egin zuen ajentearen nortasuna adierazteko duen obligazia gogora arazteko.

Handik gutxira Udaltzaingoaren Buruaren erantzuna iritsi zen, esanez ezen instrukzio epaitegiak ohartarazirik jakinaren gainean zeudela zer hutsegite izan zitekeen aipatu marrokiar herritarraren nortasunari buruz, eta horrenbestez horretarako behar ziren aginduak emanda zeudela. Baina hitzik ez zen esaten ea atxiloketa egin zuen ajentearen nortasuna ezagutzea eskatu zuenari haren berri eman zitzaion.

Horregatik, hain zuzen, Arartekoak berriro jo zuen polizia kidego horrengana, herritar orok atxilotu duen ajentearen nortasuna ezagutzeko eskubidea dutela berriro gogora araziz. Berriro ere abenduaren 26ko Administrazio Publikoen eta Administrazio Orokorreko Prozeduren Lege Errejimenerako 30/92 Legeko 35. artikuluaren edukia, eta Euskal Herriko Polizien 4/1992 Legearen 30.3 eta 35. artikuen edukia gogora araziz, eskaera egin zitzaion hiriko Alkateari, udaltzaingoaren arduradun nagusia den aldetik, atxilotu zuen ajentearen nortasuna ezagutzeko eskaria egin zuen hiritarrari halakorik eman ez baldin bazitzaion, adieraz zezala zertan oinarritzen zen jarrera hura hartzeko.

Gure idatziari erantzunez Donostiako Udaltzaingoaren Buruak idatzi bat bidali ziguri azalduz ezen Dpnostiako instrukzio auzitegi batek ikerketak hasiak zituela aipatu herritarrak izan zuen atxiloketan araugabetasunen bat izan zen ala ez aztertzeko. Atxiloketa hdri egin zuen ajentea auzitegiaren aurrean aurkeztua zenez, eta aipatu herritarrak bere atxilotzailearen nortasuna ezagutzeko eskarian datu hori apaileari jakinarazteko behar zuela esaten zuenez, datu horiek auzitegiari igortzea zela bidezkoa deliberatu zuen udaltzaingoak, hiritar partikular haren eskariari erantzun ordez.

• Emaitza

Arartekoaren iritzian, emandako azalpenek ulergarri egiten zuten polizia kidego horren jokaera, baina ez zuten horrenbestez zuritzen. Horregatik gomendio bat igorri zion Donostiako Alkateari, marrokiar herritarrak egindako eskarari berariaz eta zehatz erantzun zekion. Horrez batera, berriro gogoratu zion administrazioak obligazioa duela, legearen arabera, prozedurak tramitatzen dituzten funtzionarioen nortasunaren berri herritarrei emateko, eta horrenbestez arren

eskatu zien udaltzaingoaren arduradunei aurrerantzean, hala eskatzen duten herritarrei, beren espedienteekin zerikusia izan duten, eta batez ere beren atxiloketan parte hartu duten, ajenteen nortasun agiri profesionala eman diezaieten.

Arartekoaren gomendio hau onartu egin zen, eta udaltzaingoak eskatutako informazioa eman zion aipatu herritarrari.

## 3.8. **JUSTIZIA**

### 3.8.1 **SARRERA**

Parlamentuko beste zenbait ordezkariren arautegiarekin gertatzen den bezala, Arartekoaren funtzionamentua arautzen duen legeak ez dio uzten erakunde honi epai irmoa jaso duten gaietan sartzen, ezta, helburu berarekin, auzitarako bidea hartu duten gaietan ere. Hala eta guztiz ere, pertsona asko kexatzen dira epaitegiek emandako ebazpenengatik.

Kexaren edukiari buruzko epailearen erabakiren bat badela egiaztatzen badugu, ez da onartzen, eta estatistikarako gordetzen da datua. Baina ezin parte hartu horrek, ez luke, inola ere, kexa horiek islatzen duten justizia sistemarekiko deskontentua eta konfiantza falta aintzat ez hartzera eraman behar. Bestalde, oharpen hauek ez dira berriak. Guztiz bat datoz eremu honetan egindako zenbait azterketa soziologikotan lortutako emaitzekin. Hori baino areago, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak argitaratutako Justiziaren Liburu Zurian ere jasoak izan dira.

Emandako epaiarekin ados ez egoteagatik kexak eragin dituzten gaiei begiratu bat emanez gero ikusten da, pertsonen bizitzan eragin handia duten auziak izaten direla. Horrela, lan arazoak daude (kaleratzeak, soldata erreklamazioak, pentsioak, e.a.), istripuengatiko kalte ordainei dagozkienak, eta batez ere, ezkontza banaketa eta dibortzio prozeduren ingurukoak. Ulergarria gertatzen da afektatuak epaiarekin ados ez egotea, izan ere -teknika aldetik zuzenak izan ala ezgertaera tra'umatikoetan edo harreman pertsonalen arloan izandako porrotetan baitute sorburua, eta horietan ezinezkoa gertatzen da hasierako egoerara bihurtzea. Beste modu batean esanda, soluzio onik ez duten kasuak izan ohi dira gehienak, eta helburua tartean diren afektatuentzat soluzio mesedegarriena bilatzea izaten da.

Arazoaren jatorria, neurri batean, pertsona arteko auziak ebazteko justizia administrazioak izan lezakeen ahalmenean konfiantza gehiegi izatean egon daiteke. Jendeak epailearen esku uzten du auzia ebazteko ardura guztia, eta hala, protagonista izan behar luketenek, askotan, jarrera pasibo eta ezkorra hartzen dute.

Ikuspegi honetatik, komenigarria izan liteke auziak erabakitzeko modu berriak bultzatzea. Bide eraginkorra litzateke, hala zenbait epaitegik jasaten duen

lan gehiegizko egberaren aurrean, nola afektatuek epaiari buruz duten iritzia hobea izan dadin. Jendearen parte hartzea bultzatuko luketen prozedurak nahi dira, interes kontrajarriak hobekien adostuko dituen soluzioak bilatzekoan, arazoan nahastuta daudenak inplikatuko dituzten sistemak. Zentzu horretan, txalogarriak dira 1996ko urrian Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak abian jarritakoa bezalako ekimenak: Familiako Bitartekotza Zerbitzua, bikotearen hausturatik eratorritako arazoak ebazteko xedearekin.

Arazoen soluzio negoziatuari ere indarra eman nahi zaio eta joera hau jada finkatua dagoen eremuetatik (lan arazoen arloan, batik-bat) beste batzuetara hedatu nahi litzateke. Hala, adin txikikoen epaitegietan, esate baterako, adin txikiko lege hausleen aurkako geroz eta prozedura gehiago amaitzen dira biktimekin adiskidetu eta kalteak ordaintzearen bitartez.

Administrazio arloan, Arartekoaren zenbait esku hartzeri esker -herritarren eta administrazio publikoko zenbait organismoren arteko liskarretan-, auzitara jotzea saihestu eta aurrez-aurre zeudenen artean adostutako soluzioak lortu dira (ikus, adibidez, Herri Defendatzaileen Koordinaziorako XII. Jardunaldietan Arartekoak egindako hitzaldia, II. atalean).

Hitz bitan esanda, herritarrek justkia administrazioaren aurka adierazten duten deskontetuaren ordez, positiboa dirudi auziak ebazteko beste eredu batzuk bultzatzea, bitartekotzan eta adiskidetzean oinarritutako ereduak, hain zuzen.

**Auzitegien funtzionamentuari** buruz Arartekoari heldu zaizkion kexen gainean, ondorengo alderdiak aipatu behar dira:

1) Kexa kopuru esanguratsu batek epai irmoak ez bete izana salatzen du. Gure iritzian, funtsezko arazoa da hau, justizia sistemaren eraginkortasunerako, eskubide aitorpenari edukia kentzen baitzaio, g6ro betearazten ez bada. Askotan, obligazioa dutenen jarrera ezkorra izaten da epaia betetzea eragotzi edo zailtzen duena, baina beste kasu batzutan, sistemaren beraren akatsak izaten dira, hala nola, aditurik (perituak) ez izatea, edo hartutako erabakiakbetearazteko baliabide egokirik ez izatea. Gogoan hartu behar da badirela kolektiboak -haurrak euren kargura dituzten emakume banatuak, esaterako- epaiak betearazten *ez* direlako diru arazo larriak dituztenak.

Epaiak betetzeari buruzko gai honetatik irten gabe, aipatzekoa da kexa bat -Arartekoak esku hartzeko modukoa ez bazen ere, ez zelako irregulartasunik jazo- sistemaren akatsak nabari asko uzten dituena. Janari-denda baten jabeari gertatua da. Behin batean hornitzaile bat auzitara eraman behar izan zuen iruzur egin ziolako. Bere kalkuluen arabera, bi milioitik gorako iruzurra egin zion, baina agiri bidez frogatu ahal izan zuen kopurua 700.000 pta. inguru baizik ez zen izan. Epaiketa egin zenean -bederatzi urte geroago- 127.574 pta.ko kopurua ezarri zen erantzukizun zibil gisa, eta epaia eman eta handik lau urtera oraindik kobratu gabe jarraitzen du, nahiz eta "*hogeita hamar bat aldiz*" epaitegirako deia egin dioten eta 400.000 pta. gastatu behar izan dituen abokatutan. Pertsona honek esaten zion Arartekoari: "*jada ez dut kobratu nahi, bakean utz nazaten nahi dut eta ez nazatela gehiago deitu epaitegitik*".

2) Azaldutakoa bezalako kasuek izan dezaketen larritasuna alde batera utzita, kexa gehien jasotzen duen arazoa justiziaren mantsotasuna da. Batzutan, itxuraz ezeren zailtasunik ez duten prozedurak urteetan luzatzen dira; beste batzutan alde baten maniobra luzagarriak izaten dira errudun, epaileak ametitzen edota eragozten ez dituelako.

Nolanahi ere, egoera ez da berdina justiziaren organo guztietan. Administrazioarekiko Auzitarako Sailean pilatutako auziengatik kexa gutxi jaso badira ere, zenbait kexa jaso dira Bizkaiko Probintzi Auzitegiaren aurrean errekurtso zibilen tramitazioak eramaten duen denbora luzeagatik, eta orobat, Autonomia Erkidegoko zenbait epaitegitan jasandako atzerapenengatik, bereziki, (Bizkaiko) Getxoko epaitegien funtzionamentuagatik.

3) Beste arazo batzuk ere izan dira kexatzeko arrazoi. Gogoz kontrako barneratze psikiatriko batean irregulartasun bat aurkitzeko bide eman zuen erreklamazioaz aparte, zeina hurrengo atalean azaltzen baita, jakinarazpen arazoak aipatzen dituzten zenbait kexa ere jaso dira, eta gutxienez lautan, delituen biktimei arreta eta informazio egokia ez ematea salatzen da, zehazki, biktima horiek prozesuan salatzaile gisa agertu ez direnean (ikus hurrengo atalean laburbildutako kexa).

Eremu honetako jarduera metodoari dagokionez, berriz, jakina da Arartekoak ezin duela zuzenean kontrolatu justizia administrazioaren funtzionamentua, eta beraz, *"ikertzeko edo ebazteko eskumena duen organoari"* igorri behar izaten dizkiola kexak. 1997ko urte honetara arte, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira edota Euskal Herriko hiru probintzi auzitegietako fiskal nagusiei igorri izan zaizkie. Aurreko horiek bazterrera utzi gabe, Arartekoa, Auzitegi Nagusiko Gobernu Sailera ere kexak igortzen hasi da, eta izan dira, kexaren xede zen epailearengana zuzendu den kasuak ere, epaileak arazoa konpon zezakeela ulertu denean.

Aipatzekoak dira esandako justizia organoekin izandako harreman errazak. Hala ere, nahiz eta planteatu diren kasuetatik bakar batean ere, esandako Gobernu Sailak ez duen irregulartasunik aurkitu, horrek ez du esan nahi herritarrek kexatzeko arrazoirik ez dutenik, baizik eta, sisteman bertan daudela egitura akatsak. Edo, beste modu batean esanda, justiziak normaltzat hartzen dituen denborak eta formak ez datozela bat gizarteak balioesten eta espero dituenekin.

Justiziaren eremuan, **abokatuen eta prokuradoreen jarduerekin** zerikusia duten kexek ere badute beren tokia. Profesional hauei buruzko kexa asko ezin izaten dira onartu, bezeroarekin duteri harremanetan sartzen baitira, eta beraz, partikularren arteko auziak direnez, Arartekoak ez du eremu horretan sartu behar. Zentzu honetan, zenbait herritarrek, profesionalek eskatutako ordainsarien garestia salatzen dute, emandako zerbitzuarekin proportzio gabeak jotzen dituztelako.

Ordainsarien gaiarekin nolabaiteko lotura badu herritar batek aurkeztu zuen beste kexa batek ere. Idatzian zioenez, pribilegio bidegabetzat eta berdintasun printzipioaren aurkakotzat jotzen zuen kontu zina delakoak indarrean jarraitzea.

Hala ere, Auzitegi Konstituzionalak onartua du prozedura betearazle horren legezkotasuna eta hortaz, ezin zaie abokatu eta prokuradoreei galarazi ordaindu gabeko kontuen kobrantza ziurtatzeko metodo hori erabiltzea. Edozein moduz ere, lanbide elkargoen ardura da esandako mekanismoa neurriz gain erabil ez dadin zaintzea.

Zenbait kexa jaso da profesionalen jardueren aurka ere, akastunak edo zabarrak iruditu zaizkielako. Bi herritarrek salatu dutenez, zailtasun handiak izan zituzten abokatu baten aurkako erreklamazio bat aurrera eramango zuen beste abokatu bat aurkitzeko.

Baina lanbide elkargoen jarduera auzitan jartzen den arazoetan -zuzenbide publikoko korporazio gisa administrazio funtzioak betetzen dituztenean, bereziki-, Arartekoak badu esku hartzeko ahalmena. Arlo honetan aurkeztu diren kexa gehienak, herritarrek abokatu edo prokuradoreen ustezko jarduera okerren aurka egindako salaketei ez erantzuteagatik edo oso berandu erantzuteagatik egin dira. Eta afektatuek jakin ohi ez duten arren, erakunde honek kasu bat baino gehiago aurkitu ditu lanbide elkargoaren erantzuna behar bezala argudiatu gabe zeudenak, edota -nahitaez eman beharreko- ebazpenaren aurka jar litezkeen errekurtsoen berri ematen ez zutenak. Hurrengo atalean bada, laburbildurik, arazo honi buruzko kexa-espediente bat.

Herritarrei eman beharreko erantzunen atzerapenak, Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren kasuan dira, beharbada, nabarienak. Organo horren eskumena da, abokatu elkargoen erabakien aurka aurkeztutako errekurtsoak ebaztea. Bestalde, aipatu kontseiluak gehiegi atzeratzen ditu gure erakundeari eman beharreko erantzunak, eta horrela, zailagoa da guretzat eskubideak aldezteko eginkizuna betetzea. Bizkaiko Abokatuen Bazkundeak ere baditu oraindik erantzuteke, Arartekoak egindako zenbait informazio eskaera, baina kasurik deigarriena, Bizkaiko Prokuradoreen Bazkundearena da, oraindik ez baitio erantzun 1996ko azaroan hasitako gai bati.

Dagokien lanbideko jarduera zuzena zaintzeko abokatu eta prokuradoreen elkargoek duten erantzukizunak egundoko garrantzia du gizartean, eta beraz, behar diren baliabide guztiak jarri behar dira -pertsonalak bezala materialakxede hori bete ahal izateko.

Justiziaren eremuko. beste alderdi garrantzizko bat, **askatasunik gabe aurkitzen diren pertsonen** egoerari buruzkoa da. Joan den urte honetan, Arartekoak hurbiletik jarraitu du 1996an egindako *Euskal Herriko kartzeletako egoerari* buruzko aparteko txostena (ikus II, atala).

Data hartatik hona, euskal espetxeetako presoen kopurua nabarmenki jaitsi da, eta horrek, beste gabe ere, egoera hobetu egin du, gainerako arazpak okerragotzen zituen pilaketarik ez baitago orain. Hala ere, presoen kexak jasotzen jarraitu du gure erakundeak, beste gai batzuei buruzkoak.

Planteatutako zenbait arazo justizia administrazioarekin zerikusia duten gainerakoen antzekoak dira: proportzio gabeak edo zorrotzegiak jotzen diren epaiekin desadostasuna, errekurtsoen tramitazioen mantsotasuna, edota atzerapenak epaia jakinaraztekoan, kasu hauetan ondorio bereziki larriak izan ditzaketenak, bestal-

de. Zigor legearen eta bere ondorioen aurkako kritiken artean, espetxean dauden zenbait intsumisoren kexak jaso dira, erregimen irekiari uko egin baitiote, euren ideiekin koherente izatearren. Gai honi buruz Arartekoak bere postura berretsi baizik ez du egin: soldadutzari edo haren ordekoei uko egitea ez zigortzeko eskatu baitu behin eta berriz.

Kartzeletako administrazioari buaizko kexa denean berriz, eskumena duen erakundea Herri Defendatzailea da, jakina den bezala, oraindik ez baitu Euskal Autonomia Erkidegoak aginpiderik gai honetan.

Herri Defendatzaileari igorri zaizkion erreklamazioen artean, aipatzekoak dira kaltetutako funtsezko eskubidearen garrantzia dela eta, Senideak elkarteak edo afektatuek eurek -ETAri laguntzeagatik edo kide izateagatik kartzelan dauden pertsonak- bidalitako tratu txarrengatiko hiru salaketa. Kasu guztietan, gertaerak auzitara sartuak zeuden, eta beraz, erakunde honek ezin izan zuen zuzenean esku hartu, baina egin zitezkeen -eta egin dira- gestioak, salatuak bezalako gertaerarik etorkizunean gauza ez dadin.

Azaroan zuzendu zen erakunde honetara, “kale borroka” delakoagatik atxilotutako zenbait gazteren gurasoek eratu berri duten Gurasoak Kalean izeneko elkartea. Poliziaren jarduerarekin zerikusia duten beste gai batzuez aparte -sarekadak, ustez bereizketa gabeko atxiloketak, miaketa irregulartzat jotzen dituztenak, e.a.-, egun preso prebentiboak diren mutil eta neska batzuei ustez egindako tratu txarrak edo laidoak salatu zituzten. Kexa hauen berri ere eman zitzaion Herri Defendatzaileari.

Kezka hauen tartean, joan den urtean zehar, Hego Europako herrialdeetan tortura prebenitzeari buruzko lan mintegi batean hartu du parte erakunde honek. Egoitza Genevan duen Torturaren Prebentziorako Elkarteak (TPE) antolatu zuen esandako mintegia, Oñatiko Zuzenbide Soziologiako Nazio arteko Institutuaren laguntzarekin, eta Europako Kontseiluaren mendeko Torturaren Prebentziorako Batzordearen (TPB) papera eta mugak aztertu ziren, azkena aipatutako batzordea ere bertan zela.

Torturak eta tratu txarrak errotik erauztea oraindik lortu gabeko helburu utziezina da gure artean, Nben Torturaren Aurkako Batzordearen Espainiari buruzko txostenak edota aurten eman diren zigor epaiek erakusten duten bezala, nahiz eta aspaldiko gertaerei buruzkoak izan. Legearen aginduz giza eskubideak aldezten ditugunok, gure jardueren eta proposamenen bitartez behin eta berriro saiatu beharra daukagu, prebentzioaren alorrean batik bat, mota horretako jardueren zigor gabetasuna babes lezaketen espazio eta denbora ezkutuak ahal dela ezabatzen. Zentzu honetan, aipatzekoa da, Euskal Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordeak eman zion babesa, arazo honi buruz Arartekoak adierazitako gomendioen edukiari, batzorde horren aurrean, 1996ko Txostena aurkezteko egin zuen agerraldian.

Espetxeen arloa utzi gabe, kezkak sortarazi dituen beste arazo bat -hau ere ikerketa judizialpean egon da-, Martuteneko kartzelan preso zegoen baten heriotza izan da. Nahiz eta autopsiaren emaitzek frogatu zuten barbiturikoak hartu

izana izan zela heriotzaren eragilea, gaztearen familiak zioen tratu txarren zantzuak zeudela. Nolanahi ere, gertaera honek, azpian dagoen beste arazo bat dakar agerira: alegia, ez dagoela toki egokirik arazo psikiatrikoak dituzten pertsonak edukitzeko. Familiak eskaintzen duen informazioaren arabera, adimen urritasun nabarmena jasaten zuen hildakoak, eta hala ere -34 urte besterik ez zituen arren-, 12 urte kartzelan pasa zituen. Arazo horren berri eman zaio Herri Defendatzaileari, nahiz eta aurrez aipatutako kartzelei buruzko txostenean ere arazoaren inguruko kezka agertzen zen, 45. berariazko gomendioan ikusten zen bezala. Geroztik, 1996ko maiatzeko idatziaren bidez, Osasun Sailburuari eman zitzaion gaiaren berri.

Preso dauden pertsonei behar bezalako osasun laguntza emateko egitura faltari dagokionez -hori ere aipatzen baitzen esandako txostenean-, Erne sindikatuak erreklamazio bat igorri du erakunde honetara, ertzainek presoen zaintza lanak eritegietan nola egiten dituzten salatzeko. Sindikatu horren ikuspuntutik, ertzainen osasun babesari buruzko lan arazo bat da. Baina gaia aurretik planteatuta zegoen, presoen eta hauen familien aldetik, intimitate eskubidea urratzen zela salatu baitzuten.

Herri Defendatzaileak aditzera eman digunez, akordio bat hitz hartu dute kartzeletako administrazioak eta Osakidetzak, Gasteizko eta Donostiako Txagorritxu eta Arantzazuko Ama eritegietan gela batzuk atontzeko, presoak ospitaleratu ahal izateko eta, hartara, azaldutako arazo desberdinei erantzuteko.

Joan den urte honetan erreklamazio gutxiago jaso dira gaixotasun larri eta sendaezinagatik presoa kartzelatik ateratzea eskatzen zutenak. Gainerakoen askatasuna eskatzeko arrazoiak HIESarekin zerikusia zutenak ziren, eta kexa batean, beste zenbait arazo aipatzeaz gain, Euskal Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordeari kritika egiten zitzaion, ETAko presoen alde bai baina preso arrunten alde ezer gutxi egiten omen duelako. Arartekoak esandako Parlamentuko batzordera igorri zuen gutuna.

HIESaren eta beste zenbait gaixotasun kutsakorren prebentzioari buruz, esan behar da aurrerapen nabarmena izan dela Basauriko kartzelan xiringak aldatzeko proiektua abian jartzea, II. atalean adierazi den bezala.

Gure kartzeletan preso dauden atzerriko pertsonen alorrean, nola asko gutxitu diren, kexak ere jaitsi egin dira. Jaso direnetan, baimenak eta zigorra betetzera jatorrizko herrialdera joatea eskatzen zen, eta kasu batean, Cadizko kartzelara eraman izana salatzen zen, presoak Euskal Herriko pertsonekin lotura afektiboak zituela zioen arren.

Zigortuaren bizitokitik hurbil zigorra betetzeko kontu hori erreklamazio bat baino gehiagoren xede izan da, eta horrek erakusten du oraindik ez dela arazoa erabat konpondu. Arazo honetatik irten gabe, atzerriko kartzeletan aurkitzen diren autonomia erkidego honetako hiru egoiliarren kasuen berri izan du aurten Arartekoak. Guatemalan,- Marokon eta Portugalen daude preso. Kexa horiek konpontzeko gestioak, Herriaren Defendatzailearen antzeko erakundeak dauden kasuetan behintzat, elkar hartuta egin dira Guatemalako Giza Eskubideen

Prokuradorearekin eta Portugaleko Provedor de Justiça-rekin.Oraingoz, ez da lortu inor Espainiako kartzelara ekartzerik, epai irmoak oraindik eman gabe baitzeuden. Edonola ere, kartzela egoerak, kexagileek diotenez, jasangaitzak dira, eta horixe berresten du Giiatemalako Giza Eskubideen Prokuradoreak.

Gaiarekin amaitzeko, aipatzekoa da kartzeletatik igorritako gainerako kexek islatzen duten arazo aniztasuna. Haia ere, erregimen irekian edo baldintzapeko askatasunean egonda, irteteko baimenak ukatzea, tratamendurako jardueren eskasia eta ordaindutako lan falta izan dira kexatzeko arrazoi errepikatuenak. Kexa horietako batzuen berri Herri Defendatzaileari eman zaio, eta beste batzuk Kartzela Zuzendaritzatik eta hiru espetxeetako tratamendu taldeetako kideek emandako informazioen bidez konpondu dira. Aitortu beharra dago, aipatutako pertsona hauek prest eta gertu egon direla beti Arartekoak eskatutako eginkizunetan laguntzeko.

Preso baten aldeko plataformak, erakunde honek esku hartzerik izan ez zuen gai bat salatu zuen, auzitarako bidea hartuta baitzuen ordurako. Baina orokorra izan daitekeen arazo baten berri ematen zuen. Aipatutako presoak kartzelatik kanpo egindako ikasketengatiko aparteko erredentzioak galdu zituen, presoak izandako leku aldatze sarrien ondorioz. Arazoa, oro har planteatu zitzaion Herri Defendatzaileari, eta honek ikerketa bat hasi zuen.

Ofiziozko beste jarduera bat Arabako Abokatuen Bazkundeko Presondegietako Laguntza Txandak emandako informazioari esker hasi zen. Abokatu hauek salatzen zutenez, oztopo handiak jartzen dizkiete Presondegien Zainketarako Epaitegian aldezten dituzten presoen espedienteen jarraipena egiteko. Jarraipen lan horien aldeko argudioak azaldu zitzaizkion arren, esandako Zainketa epaitegiak erantzun zuen pertsona interesatuak, edota pertsona horrek berariaz izendatutako abokatuak bestek ezin duela espediente hori ikusi.

Ezin bukatuko dugu presoen arazoei buruzko azalpen hau, berriro baieztatu gabe guztiz komenigarria litzatekeela gure autonomia erkidegoak kartzela gaietako eskumenak bereganatzea, Autonomia Estatutuaren arabera dagokion beza-

la

### 3.8.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

#### A) **Justizia administrazioaren funtzionamentua**

*Lan istripu baten ondoriozko epaiketa penalaren atzerapena (258/97)*

• Erreklamazioa

Herritar batek azaldu zuen, Barakaldon igeltsero zebilela, lan istripu bat jasan zuela 1991ko otsailean, eta istripuan lesio larriak nozitzeaz gain, ondorio garrantzitsuak geratu zaizkiola. Istripua izan ondoren zigor jarduerak hasi ziren eta hutsegite epaiketa prozedura bat jarri zen abian. Istripua izan eta sei urtera artean arazoa ebatzi gabe zegoen, langilearen kalterako.

• Azterketa

Erreklamatzaileak jakinarazitako datuetatik antzeman zitekeen gaia konplexua zela, akusatu bat baino gehiago baitzeuden. Pentsatzekoa zen tramitazioko atzerapenen arrazoiak, pertsona akusatuek jarritako errekurtsoak eta prozesu oztopoak izango zirela. Hala ere, denbora asko joan zela ikusirik, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Herri Salataritzara kexa igortzea erabaki genuen.

• Emaitza

Kasuaren ardura zeraman Herri Salataritzako ordezkariak egindako txostenean, argibideetan emandako urratsak azaltzen ziren, eta argi geratzen zen, neurri handian behintzat, parteen jardueren ondorioa zela kasuaren atzerapena, prozesatuen aldetiko jardueren ondorio, batik bat. Nola lege hauste bat egozten zaion pertsona orok bere defentsarako legezko bitarteko guztiak erabiltzea libre den, zaila gertatzen da jarduera horien ondoriozko atzerapenak saihestea.

Hala ere, esandako txostenean emandako datuetatik, iruditzen zitzaigun prozeduran zehar, epaitegian ezer egiten ez zen bolada luzeegiak egon zirela, eta hortik pentsa zitekeen erreklamatzaileak behar gabeko atzerapen gabe epaiketa izateko eskubidea urratu zitekeela.

Arrazoi horregatik, Arartekoa Auzitegi Nagusiko Gobernu Sailera zuzendu zen. Arazoa zegokion argibide epaitegiko magistratu titularrak azalpen batzuk eman zituen bera epaitegira heldu zenetik egindako tramitazioari buruz, eta Gobernu Saikik erabaki zuen ez zegoela behar gabeko atzerapenik. Nola, bestalde, aipatu magistratuak ahozko bista berehala izendatuko zela esan zuen, Arartekoak amaitutzat eman behar izan zuen bere jarduera, erreklamatzailearen arazoak epaiketa egiten zenean konponduko ziren itxaropenean.

*Zigor prozeduran agertu ez den salatzaileari informazio falta (1410/96)*

• Erreklamazioa

1993ko abuztuan, herritar batek diru kopuru bat entregatu zuen, baldintza hori jarri baitzioten lana eskuratu nahi bazuen. Iruzurra izan zela ohartu zenean, gertaerak salatu zituen beste lagun batzuekin batera, eta eginbide perialak ireki ziren. Hasieran abokatu bat kontratatu zuten, baina gero abokatuak, aurrez esana baino diru gehiago eskatu zien, kasua eramatea nahi bazuten. Arrazoi horregatik, auzian ezin zezakeela diru gehiago gastatu erabaki ondoren, abokatua utzi eta prozeduran parte izateari uko egin zion.

Egoera horretan, epaitegira jo zuen tramitazioa nola zihoan jakiteko, denbora asko joan baitzen ezeren berririk gabe. Erreklamatzaileak dioenez, informazioa eskatu zuenean erantzun zioten *"ez zeukatela ezer komunikatzeko obligaziorik abokaturik ez zuelako"*.

• Azterketa

Egia bada ere erreklamatzailea ez zela ekintza penaleko partaide -beste arrazoi batzuen artean, kostatzen zitzaion diruagatik- begibistakoa zirudien bidezko interesa zuela, kaltetua gertatu baitzen ustezko delitu batean. Nahiz eta kontzientzia hartzeko prozesua aurrera joan eta sistema penalak delituen biktimei geroz eta arreta handiagoa eskaini, indarrean dagoen legediak ez du aintzat hartzen biktimek argibideen bilakaeraz informazioa izateko eskubidea. Oraingoz dagoen betebehar bakarra, prozesuari azkena ematen dion ebazpenaren berri delituaren biktimari ematea da, nahiz eta prozesuan parte hartu ez, 35/1995 Legeko 15.4 artikuluan xedatzen denari jarraiki.

Hala ere, badirudi prozesu penalean biktimak duen egoerari buruzko nazio arteko joera -beste testu batzuen artean, Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen R (85) 11 Gomendiokoa- gai honetan ahalegin bat egitea dela, interesatuei argibideen egoeraz eta egindako diligentziez informazioa emateko.

Arrazoi horiengatik, Arartekoak Auzitegi Nagusiko Fiskal Buruari kexa igortzea erabaki zuen.

• Emaitza

Arazoa zegokion argibide epaitegiko magistratu titularrak txosten bat egin zuen. Bertan azaltzen zuen, erreklamatzailea epaitegiko bulegora joan zen egunean, funtzionarioen erdiak besterik ez zeudela bulegoan, bezperan 24 orduko goardia egin zutelako. Agi danean, esandako prozedurako tramitazioaren ardura zuen ofiziala ere ez zegoen une horretan bulegoan, eta bestalde, lanean ari ziren funtzionarioek ez bide zuten gogoratzen "*inori informazioa ukatu zitzaionik"*.

Ez Arartekoari txostena igorri zion fiskal buruak, ez idatzi zuen magistratuak, ez zuten inolako iruzkinik egin salatzaileak eginbideen tramitazioaz informazioa jasotzeko zuen eskubideaz, eta beraz, erreklamatzaileari jakinarazi genion, gure iritzian, eskubidea aitortzen zitzaiola esan nahi zuela horrek, eta ondorioz, ez genuela uste arazorik izango zuenik berriro epaitegira joaten zenean. Ez dakigu berriro informazio bila joan zen ala ez.

*Irregulartasuna gogoz kontrako barneratze psikiatriko batean (1290/96)*

• Erreklamazioa

Barnetegi psikiatriko batean gogoz kontra zegoen pertsona batek idatzi zuen erakunde honetara. Bere familiaren partetik eta epaitegitik eskaintzen zioten arreta falta salatzen zuen.

• Azterketa

Lehen gestioak egin orduko aurkitu genituen zantzu batzuek pentsarazi ziguten barnetegian sartzeko baimen judiziala ez zegoela, agian, egon behar zukeen bezala. Bazen, bai, 1993ko auto bat barneratzea baimentzen zuena, baina ge-

roztik, 1995ean zenbait aste ihes eginda pasa ondoren, Durangoko Epaitegira eskaera egin zen berriro barneratzeko baimena eman zezan eta, agi danean, ez zen eman epailearen ebazpenik.
Arartekoak Gipuzkoako Probintzi Auzitegiko Fiskal Buruari eman zion arazoaren berri, lurralde horretan baitago erreklamatzailea barneratua dagoen eritegi psikiatrikoa.

• Emaitza

Ministerio Fiskalak bere ikerketak egin ondoren egiaztatu zuen, ez zela baimenik atera bigarren aldiz gogoz kontra barneratua izateko. Arrazoia zera izan zen, ihes egin ondoren, eskaera Durangoko Epaitegira egin zela, hura zelako eskumena zuena; baina dirudienez, geroago, Epaitegi hari jakinarazi zitzaion Gipuzkoako eritegi psikiatriko batera eraman behar zutela iheslaria eta horren aurrean epaileak artxibatu egin zuen espedientea.

Hori jakin zenean, eta denborarik galdu gabe, Herri Salataritzak Bergarako Epaitegira eskatu zuen behar zen baimena, erreklamatzailea atenditzen zuten medikuek, izan ere, barnetegian jarrai zezan aholkua eman baitzuten. Bergarako Lehen Auzialdiko Epaitegi bateko autoaren bitartez, aipatutako gogoz kontrako barneratzea baimentzea erabaki zen.

Une horretan, erreklamatzailearen egoera arauzkoa zela esan zitekeen. Hala ere, horrek ez zion garrantzia kentzen, herritar hura ia bi urtez, nahitaezkoa den kontrol judizialik gabe barnetegian egon izanari. Zentzu horretan, kasuaz arduratu zen herri salataritzako ordezkariak zioen bere txostenean, esandako espedientea tramitatzeko eskumena zuen epaitegia Durangoko lehen auzialdikoa zela, eta, gaixoa tokiz aldatu zutela arrazoitzat hartuta kasua artxibatu ordez, ebatzi egin behar zukeela, egin zitzaion baimen eskaera bidezkoa zen ala ez erabakiz.

Arartekoak iritzi izan zion gertatua ikertu egin behar zela, eta diligentzia hutsegiteren bat aurkituz gero, nork bere erantzukizunari egin behar ziola aurre. Horregatik, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiari pman zitzaion kasuaren berri.

Arazoari zegozkioft informazio diligentziak tramitatu ondoren, Kontseiluko Disziplina Batzordeak ondorengo erabakia hartu zuen,

> "*Gertaera hauetan jarduera bat* baino *gehiago izan dira irregularrak: hasteko, Durangoko Epaitegiaren jokaera, espediente bat artxibatu baitzuen, harekin jarraitzeko eskumena zuen Epaitegiari inolako jakinarazpenik eman gabe; bigarren, Ministerio Fiskalaren jokaera, aurreko ebazpena 'ontzat' ematen duelako; eta hirugarren, Bergarako barruti judizialekoa den Santa Ageda Eritegiarena, 1995eko apirilean gogoz kontrabarneratutako gaixoa jaso zuenetik, ez ziolako haren egoeraren eta bilakaeraren berri eman ez Bergarako Epaitegiari, ez beste inongoari.*"

Organo judizialaren jarduera irregularrari dagokionez, Disziplina Batzordeak iritzi zion, nahaste judizial bat izan zela eta ez dela erraza tipifikatuak dau-

den hutsegiteren batean sartzea, eta nolanahi ere, delako hutsegitea preskribitua dagoela. Ez da baztertzen, hala ere, eragindako kalte posibleengatik erantzukizun zibila erreklamatzeko aukera.

Eritegiaren ustezko zabarkeriari buruz berriz, Osakidetzari eman zaio hartutako erabakiaren berri.

## B) Abokatuen eta prokuradoreen bazkundeak

*Abokatu bazkunde baten ebazpeneko argudio falta eta errekurtsoen berri ez ematea (433/96)*

• Erreklamazioa

Herritar bat Arartekoarengana zuzendu zen kexatuz, Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak ez ziola behar bezala erantzun erreklamatzaileak abokatu baten fakturaren aurka aurkeztutako erreklamazio bati.

Abokatuak ordainsaria kalkulatzeko, elkargoak berak argitaratutako arau orientatzaileak erabili zituen, eta ateratzen zitzaizkion kopuruei urteko %5 gehitu zizkien, arauak argitaratu ziren data erreferentziatzat hartuta. Bezeroaren aburuz gehikuntza horrek ez zuen arrazoirik eta beraz, faktura Abokatu Elkargoaren aurrean inpugnatu eta arbitrotza egin zezala eskatu zion.

Gobernu Batzordeak, denborarik galdu gabe, zera erantzun zion erreklamatzaileari: *"Ordainsariari buruz Arbitrotza egiteko eskaera ez zuela onartzen (...) faktura ongi zegoela uste zuelako"*.

• Azterketa

Arartekoak jakinarazi zion erreklamatzaileari ezin zuela esku hartu abokatuarekin sortu zitzaion konponezinean, partikularren arteko harremanen esparrukoa zelako, eta beraz, ez zeukala esaterik faktura ongi zegoen ala ez. Edozein moduz ere, erakunde honen iritziz, Batzordearen erabakiaren berri ematen zen jakinarazpenean ez ziren erabakiaren arrazoiak azaltzen, ez eta adierazten ere erabakiaren aurka jar zitezkeen errekurtsoak, eta beraz, esandako Elkargora zuzendu zen Arartekoa iritzi horiek azaltzera.

Gobernu Batzordeak, bere erantzunean, espediente guztiaren kopia bat bidali zigun, eta alegatzen zuen arbitrotza ukatu baldin bazen, esandako abokatuak onartu ez zuelako izan zela. Onartzen zuen, hala ere, erreklamatzaileari auzitara jotzeko aukeraren berri eman behar ziola eta ez zuela hala egin.

Gure ikuspuntutik, begibistakoa bazen ere elkargoak ezin zuela arbitrotza egin bi aldeek hala onartu ezean, deigarria zen halaber, abokatuari berariaz galdetu ez izana nola pentsatzen zuen ebaztea bezeroarekin sortu zitzaion gatazka.

Beste alde batetik, arbitrotza ukatzeko arrazoia -alegatu zuten bezala- abokatuak ez onartu izana baldin bazen, ez zen ulertzen zergatik Gobernu Batzordeak esan zuen faktura ongi zegoela, horrela arazoaren muinean sartzen baitzen.

Nolanahi ere, argitu beharrekoa jotzen genuen Batzordeak faktura ontzat emateko izan zituen arrazoiak ezagutzea.

• Emaitza

Gure zalantzei erantzunez Abokatuen Elkargoak adierazi zuen, alde batetik, abokatuak arbitrotza ez zuela onartzen ulertu bazuten, honek emandako erantzunaren hitzetatik hala ondorioztatu zutelako izan zela.

Bestalde, fakturari buruz azaltzen zuen, Elkargoko arauak orientazio hutsa direla, eta beraz, abokatuek hala irizten badiote gehitu ditzaketela, bezeroek inpugnatu eta auzitara jotzeko eskubidearen kaltetan izan gabe.

Nolanahi ere, Gobernu Batzordea erreklamatzailearengana zuzendu zen, azalpen hauek eskaini zizkion, eta auzitara jotzeko zuen eskubidearen berri eman zion. Ondorioz, Arartekoak iritzi izan zion Abokatu Elkargoaren jakinarazpenetan aurkitutako irregulartasuna gomendiorik egin beharrik gabe ebatzi zela.

## 3.9. INGURUGIROA

### 3.9.1. SARRERA

1997ko urteari dagokionez, sail honekin zerikusia dyten 109 kexa jaso dira, hau da orotara aurkeztu diren kexa guztien %7,11.

Eragindako administrazioei gagozkielarik, honela banatu dira:

| | |
|---|---|
| -Udalak | 107 |
| - Eusko Jaurlaritza | 6 |
| - Foru Aldundiak | 1 |

Eta edukiari dagokionez, berriz, bi sail hauek bereizi dira:

| | |
|---|---|
| - Hiri jarduera sailkatuak | 97 |
| - Ingurugiroarekiko beste arazo batzuk | 12 |

Aurten ere, azpimarratzekoa da hiri jarduera sailkatuei buruzko kexa gehienak hiritarrek beren etxe inguruko ostalaritza instalazioen jarduera dela-eta jasaten dituzten ingurugirp arazoei dagozkiela.

Urteetan aipatu dugun bezala, jarduera horiek sortzen duten zarata da salaketetan gehien aipatzen dena, hain zuzen ere lokalek zaraten kontra duten isolamendua kaskarra dela edo ahalmen mugatzaile edo soinu mugak manipulatu egiten direla.

Erakunde honek behin baino gehiagotan adierazi du jarduera horiek, udalak baimendutako jardueren errejimenaren barne daudenez, administrazioaren kontrol iraunkorra eskatzen dutela, eta kontrol hori udalek hartu behar dutela

beren gain, azaroaren 30eko 2.414/1961 Dekretuak onarturiko Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko araudiak dioenari jarraituz.

Hori dela eta, udalerriek garbi eduki behar dute, indarrean dauden legeen arabera, jardueren segimendua, ikuskapena eta kontrola egitea udalerriek derrigor bete beharreko beste zerbitzu bat dela, oso garrantzitsua gainera kaltea jasaten duten hiritarrentzat.

Aurtengo kexei dagokienez, bereziki aipagarria iruditzen zaigu jarduera berriak agertu eta ugaritu izana; izan ere, udal gehienentzat jarduera horiek arriskugabeak diren arren, ingurunean zarata handia eragiten dute eta ondorio larriak dituzte hiritarrentzat, ostalaritzako lokalen inguruan bizi diren hiritarren bizi kalitatea murrizten baitute. Ogitartekoak, patata frijituak, hanburgesak etab. saltzen dituzten lokalez ari gara, zehazki, jarduera berriez mintzo garenean.

Jarduera horiek, oro har, gauez giroa dagoen inguruetan daude kokaturik, edariak saltzen diren beste ostalaritza egoitza batzuetatik hurbil. Instalazio horiek jarduera arriskugabetzat hartzeak esan nahi du ez daudela beharturik ordutegi jakin bat betetzera, eta ezta legeak ezartzen dituen gutxieneko distantziei buruzko arauak betetzera ere. Horrez gainera, debekatuta dagoenez lokal horietan erosten diren produktuak lokalean bertan kontsumitzea, bezeroak kalean jatera edo edatera behartuta daude.

Instalazio hauek inguruneari egiten dioten kaltea kontuan harturik, Arartekoak jarduera sortu berrien kasuistikari buruzko ikerketa bat egitea erabaki du; ikerketa horren emaitzak aztertu ondoren, jardunbide berriak proposatu ahal izango zaizkie udalei, enpresa askatasunaren eta atseden eskubidearen edo kalitatezko ingurugiroaz -zaratarik gabe- gozatzeko eskubidearen artean oreka bilatzeko.

Bestalde, asko ugaritu dira ostalaritzako instalazioen neurriz gaindiko kopurua dela-eta hiritarren elkarteek aurkezturiko kexak. Jarduera horiek udalerrietako auzo edo barruti jakinetan pilatuta egotearen ondorioz sortzen diren zaratak salatzen dituzte hiritarrek.

Erakunde honen ustez, udalek egin behar diote aurre arazo horri, planeamenduaren kontrolaren bidez eta dagozkion neurri zuzentzaileak hartuz; udalek, udal ordenantzez baliaturik, ahalegina egin behar dute era honetako lokalen espezializazioa eragozteko udalerriko barruti jakin batzuetan, eta horren ordez barruti guztietan era guztietako zerbitzuak ezartzeko. Horretarako erabilpen kategoriak finkatu beharko dira, eta orobat, taberna edo ostalaritzako egoitza berriek bete beharreko gutxieneko distantzien araudia zehaztu beharko da.

Azkenik, ostalaritzako egoitzen kasuistikari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren ordutegia eta jarduera horiekin zerikusia duten beste zenbait alderdi arautzen dituen ekainaren 17ko 140/1997 Dekretua onartu eta indarrean jarri zenez gero erakunde honetan agertu diren gaiak aipatu behar ditugu.

Arau hori indar gabe utzi du 296/1997 Dekretuak, abenduaren 16koak, izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenak hura bertan behera uztea erabaki zuen akats formal bat zuelako.

Prozedurazko traba hori gainditu ostean, 296/1997 Dekretua onartu eta argitaratu ela, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta aisialdiko jardueren ordutegia ezartzen duena, aurreko arauaren ildotik.

Hainbat idatzi jaso dira ostalaritzako egoitzek eragiten dituzten ingurugiro mailako erasoak salatuz. Idatzi horietan hiritarrak kezkati agertzen dira erkidego honetako ostalaritza alorreko zenbait ordezkarik dekretuaren edukiaren aurrean erakutsi duten jarrerarekin; izan ere, hiritarren ustez egoitzen ordutegiak arautzea izan daiteke gaur egun jasaten dituzten gorabeherak konpontzeko giltza.

Era berean, ostalaritza alorrak erakunde honen 1991ko txostenean aurrikusi zen arazo bat salatu du, ostalaritzako egoitzen sailkapenaz egiten diren interpretazioen inguruko arazoa hain zuzen.

Ekainaren 17ko 140/1997 Dekretuak egiten duen ordutegi eta jardueren sailkapenarekin du zerikusia salaketa horrek.

Izan ere, arau horren 2. artikuluak zera dio: *«Ondoren aipatzen diren ostalaritza edo ikuskizun publikoetarako lokal eta instalazioek bete beharreko ordutegi orokorra hau izangoda, udalak emandako establezimendu baimenaren arabera, eta edozein dela ere aitortutako iarduera fiskala.... ".* Baina ez dago establezimendu publikoen ezaugarriak zehazteko irizpide bateraturik eta Erkidegoko udalerri askotan istiluak sortu dira gai honen inguruan.

Hori dela eta, erakunde honek erabaki du gaia sakonago aztertzea txosten honetako gomendio orokorren atalean.

Hiri jarduera gisa sailkaturiko beste jarduera batzuei buruzko salaketak ere aurkeztu dira, adibidez automobilak konpontzeko lantegiei, aroztegiei, inprimategiei, kopisteriei etab. dagozkienak. Jarduera hauek eragiten dituzten zarata arazoak berkalifikaziorik egin gabe lokalak handitzeko lanak egin izanaren ondoriozkoak dira. Horregatik, udalei eskatzen zaie lokaletan egindako handitze lanak eta aldaketak legeztatzera behar ditzatela jarduera horien jabeak.

Azkenik, azpisail honi dagokionez, supermerkatuak direla-eta hiritarrek jasaten dituzten zaraten ondorio kaltegarriengatik aurkezturiko kexak azpimarratu nahi genituzke. Salaketa gehienetan jarduera horrek ingugiroari egiten dizkion erasoak aipatzen dira: hozkailuek ateratzen duten zarata, bezeroek erosketak egiteko erabiltzen dituzten orgatxoena... eta orobat kalean egiten diren karga eta deskarga lanenak.

Supermerkatuek eragiten duten kaltea ekiditeko, beharrezko babes neurriak har ditzaten eskatu behar zaie jabeei. Dena dela, kalean egiten diren karga eta deskarga lanen kontrola udalek bete beharreko zeregin bat da, eta ez da behar bezain eraginkorra, hiritarren ustez.

Ingurugiro mailako gainerako kalteen azpisailei dagozkien kexetan industriak, karts pistek, aeromodelismokoek etab. eragiten dituzten zarata eta kutsadurari buruzkoak dira ugarienak, eta baita aire zabalean egiten diren zenbait jarduerari buruzkoak ere.

Hiritarrek, batez ere ingurugiroari egiten zaizkion erasoen ondorioak zuzen-zuzenean jasan behar dituzten hiritarrek, gero eta beharrezkoagoa ikusten dute ingurugiro egoki eta osasungarrian bizitzea. Kutsadurari aurre egiteko neu-

rriak hartu behar dira,.beraz, kutsadurak distortsioa eragiten baitu gizonaren bizitokietan; babes eta prebentzio politika eraginkorrak behar dira giza bizitokien inguruko industria guneetako jarduerek eragiten duten kutsadura ekiditeko.

### 3.9.2. AUKERATUTAKO KEXAK ETA OfIZIOZKO ESPEDIENTEAK

#### A) Hiri jarduera sailkatuak

*Gasolindegi batek eragindako ingurugiro mailako kalteak (651/94)*

• Erreklamazioa

Bilboko Begoña auzoko bizilagunek idatzizko kexa bat aurkeztu zuten, auzo horretako gasolindegi baten funtzionamenduak eragiten zituen gorabeherak salatuz.

Hiritarrek zioten Industria eta Energia Sailak izendaturiko kontrol entitatearen ikuskaritzan hainbat akats aurkitu zirela gasolindegiaren drenaje sarean eta sare horren hustubideetara igarotzeko kutxen irazkaiztasun mailan. Era berean, adierazi zuten nabarmena zela gasolindegiaren gas kaltegarrien jarioa.

Arartekoa Eusko Jaurlaritzaren Industria eta Energia Sailarekin jarri zen harremanetan lehenik, akats horiek konpontzeko neurririk hartu zuten jakiteko.

Denbora tarte horretan beste idatzi bat igorri zuten hiritarrek; idatzi horretan zioten Bilboko udalak gasolindegia eraberritu eta handitzeko baimena eta lanak hastekoa eman ziela gasolindegiaren jabeei. Erabaki horren kontra zeuden hiritarrak, haien ustez baimenak ez baitzuen betetzen Bilboko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak (HAPN) agintzen zuena.

• Azterketa

Bilboko udalarekin harremanetan jarri ondoren, gasolindegSa instalatzeko baimenak JGOKAAk zioena betetzen zuela ikusi zen, eta halaber, Bilboko HAPNak dioenari jarraituz, aukera zegoen jardueraren azalera handitu gabe instalazioetan egokitzapenak egiteko (alegia, eraikitako azaleraren bolumena handitu gabe eta beste jarduerarik erantsi gabe), lurpean biltegi gehiago jartzeko, karga eta deskargako lanak murriztearren, eta baita beste erregai mota batzuk saltzeko ere.

• Emaitza

Legeak ezarritakoari jarraituz, Bilboko udalak indarrean ziren legeen arabera jokatu zuela erabaki zuen Arartekoak.

Hala ere, Begoñako auzotarrek bere horretan jarraitu zuten, udalak harturiko erabakiaren kontra alegia. Alde batetik, gasolindegiaren jarduera zabaltzeko

baimena emateak inguru hartarako arrisku gehiago zekarren beraien ustez, eta bestetik, zalantza zuten administrazioak ahalmena izango ote zuen era honetako jardueren behar bezalako funtzionamendua bideratzeko; izan ere, artean konpondu gabe zeuden aurrez salatu eta frogaturiko irazkaiztasun arazoak. Horregatik guztiagatik, gasolindegi hori kendu eta beste nonbait zabal zezatela eskatzen zuten.

Bilboko udalak bilera bat egiteko deia egin zien arazo honetan zerikusia zuten alderdi guztiei, eta Arartekoa ere bilera horretara joan zedin eskatu zuten hiritarrek.

Bilera Bilboko udaletxean egin zen, eta hartan parte hartu zuten Arartekoak, Lurralde antolaketa, etxebizitza eta ingurugiro sailetako ordezkariek, Eusko Jaurlaritzako Industria, Nekazaritza eta Arrantza sailekoek, IHOBEkoek, REPSOLekoek, Bilboko Hirigintza eta Ingurugiro alorreko arduradunak eta auzotarren ordezkari batek.

Bilera horretan REPSOLek proposaturiko formula onartu zen: gasolindegia eraberritzeko lanak bertan behera utziko ziren aldi batez, alternatiba egokienak aztertu arte. Alternatiba horiek Udalak berak aurkeztuko zituen batez ere, baina gainerako alderdiek ere aukera izango zuten proposamenak aurkezteko, eta horretarakoxe deia egin zitzaien. Alternatiba posibleak aztertzeko beste bilera bat egiteko eguna jarri zen. Bilera horretan emango ziren ezagutzera, orobat, IHOBE enpresaren azken ikerketen emaitzak; Eusko Jaurlaritzak lur kutsatuen gestioa bideratzeko hautatu duen enpresa da IHOBE, eta jaurlaritza bera da enpresa horretako bazkide bakarra.

Bigarren bilera ospatu zen, Udaletxean hau ere, udalak aurkezturiko proposamenak aztertu eta Begoñako gasolindegia nora eraman zitekeen erabakitzeko.

Egin ziren bederatzi proposamenetatik 3 hautatu ziren, bidezkoak ziren ala ez aztertzeko, kasu guztietan beharrezkoa baitzen Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lanetako Sailak aldez aurretik baimena ematea.

Azkenean, REPSOLek onartu egin zuen gasolindegia beste norabait eramatea, eta bere gain hartu zuen, orobat, Begoñako gasolindegia zegoen eremuko lurren kutsadura garbitzeko lanen-ardura.

Gasolindegiaren ordezko kokagunea erabakitzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lanetako Sailak lur eremu hori nola sailkatuko zuen jakin behar zenez, Arartekoak eta Bilboko udalak Aldundiko errepide arduradunarekin bilera bat egitea erabaki zuten, eremuaren sailkapenaz jarduteko.

Udalak, bere aldetik, baimenak ahal bezain bizkor tramitatzeko hitza eman zuen.

Arartekoak Bizkaiko Aldundiko arduradunen aurrean hainbat gestio egin ondoren, Aldundiak onespena eman zion REPSOLek aurkezturiko proiektuari, eta honenbestez, alderdi guztien artean adosturiko kokagune bat hautatu zen.

Azkenik, Bilboko udalak gasolindegi berria ezartzeko lanak hasteko baimena eman dio REPSOLi.

*Taberna-jatetxe baten jarduerak eragindako zaratak (187/96)*

• Erreklamazioa

Durangoko taberna-jatetxe baten jarduerak eragindako zaratak direla-eta hiritar batzuk aurkezturiko salaketa batek Arartekoaren esku hartzea eskatzen zuen.

• Azterketa

Eskaera hori jaso zuelarik, Arartekoak lokalaren jarduerari buruz egindako jarraipenaz galdegin zion udalari. Informazio horretan ikusi zen tabernako musika ekipoa ez zegoela araututa Bizkaiko Foru Aldundiak lokalari emandako kalifikazio eta neurri zuzentzaileen hartzerako txostenean. Hala ere, Udalak musika ekipoa jartzeko baimena eman zien taberna-jatetxearen jabeei jarduera baimenean. JGOKAAren 7. artikuluaren arabera neurri zuzentzaileak hartzeko ardura udalari dagokionez, musika ekipo hori kentzeko gomendioa egin zion Arartekoak Durangoko udalari.

Neurri horrekin ez zen lortu tabernak inguruko etxeetan eragiten zituen zaraten ondoriozko kalteak murrizterik, ordea, eta horren ondorioz, lokalaren isolamendu akustikoari buruzko ikerketa egin zezala eskatu zitzaion Durangoko udalari. Horrela jakin zen lehenagotik ere tabernako 6 dB (A)ko isolamendu akats bat zuzentzeko eskaera egin zitzaiola taberna-jatetxearen jabeari. Eskaera horrekin tabernaren isolamendu maila (57 dB(A)) eta jatetxearena (63 dB(A)) berdindu nahi ziren.

Lokalaren egokitzapen akustikorako lanekin tabernaren isolamendua 2 dB(A)-tan areagotu zen. Udalak baimena eman zuen taberna-jatetxea irekitzeko edo martxan jartzeko, baina halaber, zera jakinarazi zuen: "*isolamenduari dagokionez, instalazioak akasgabea behar du izan, hau da, neurritsua eta zalapartarik gabea».*

• Emaitza

Zuzenketa lanak egin ziren arren, tabernaren isolamendua ez zen eskatu bezain ona, eta lokalaren jabeei tabernaren isolamendua hobetzeko proiektu bat eska ziezaiela gomendatu zion Aratekoak Durangoko Udalarari.

Aholku horren erantzun gisa, Durangoko Udalak berretsi egin zuen taberna-jatetxea irekitzeko emandako baimena.

Lokalaren jabeari ez zitzaion zarataren kontrako isolamendua hobetzeko eskatu, eta erakunde honek, emandako aholkua ez zitzaiola onartu ikusirik, bere ekimenaren eta ekimen horren ondorioen berri eman zien kexa aurkeztu zuten hiritarrei eta, horrenbestez, itxi egin zen espedientea.

*Diskoteka baten arriskuak larrialdietarako irteerarik ez zuela-eta (811/96)*

• Erreklamazioa

Irungo auzotar eta jabe elkarte batek kexa bat aurkeztu zuen udalerri hartako diskoteka baten funtzionamenduan antzeman zituzten gorabeherei buruz.

• Azterketa .

Kaltetuen erreklamazioak zioena argitzeko, Irungo udalari eskatu zitzaion laguntza lehenik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Nekazaritza eta Ingurugiro sailari ondoren.

Foru Aldundiak bidalitako dokumentazioaren arabera, 1995eko otsailean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herri Lanetako Sailak diskotekari buruz egindako txosten batean zenbait akats aurkitu ziren jabeak jarduera handitzeko proiektuan; Aldundiaren eskariz 1989ko apiriletik 1994ko maiatzera bitartean bildutako dokurnentazioa ere igorri zitzaion erakunde honi.

Alduridiaren txostenak zera zioen, besteak beste, eta ondorio gisa:

> *«Lokala handitzeko lanik egitekotan, ezinbestekoa izango da suteen kontrako gutxieneko segurtasun neurriak betetzea, Oinarrizko Eraikuntza Araudiak Suteen Kontrdko Babes Neurriez (OEA-SAB-82) dioenari jarraituz, baina kasu honetan ezinezkoa gertatzen da neurri horiek betetzea, lokalaren eta ingurunearen ezaugarriak direla-eta.* ***Horrenbestez, handitze proiektua ez da bideragarria eta. proiektuan aditzera ematen diren baldintzetan, lokal horren funtzionamenduak arrisku larria ekarriko lioke pertsonen segurtasunari.***
> *(…) jarduera horri buruz gaur egun indarrean den lizentziak 1970eko apirilaren 25ean Saneamenduko Batzorde Probintzialak legeztatutakoari bakarrik egiten diola erreferentzia kontuan harturik».*

Txostenaren ondorioak ikusirik, Arartekoak udalari gogorazi zion bi urtetan informazio hori esku artean izan arren ez zuela egoera hori konpontzeko inolako neurri zuzentzailerik hartu, eta are gehiago, jarduera haren funtzionamendua onartu zuela nahiz eta gorabehera horien berri izan bezain laster udal baimenik gabeko jarduera gisa hartu behar zukeen, 1955eko ekainaren 17ko Dekretuan onarturiko Udalbatzen Zerbitzuen Araudiko 16.1 artikuluak eta JGOKAAren aldi baterako 3. xedapenak ezarritakoaren arabera.

Udalari esan zitzaion Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera jarduera sailkatuetan egiten diren handitze lanak ezkutukotzat hartuak direla baldin eta jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei dagokien espediente batek babesten ez baditu, eta beraz, jarduera horiek itxi egin behar direla jarduera sailkatuen udal lizentzia eskuratu artean. Hala diote Auzitegi Gorenaren Epai hauek: 19950-02-28 (Aranzadi 1995X1.726), 1995-02-28 (Aranzadi 1995X1.727) eta 1993-07-19 (Aranzadi 1993X6.381).

Era berean, jakitera eman zitzaion Auzitegi Gorenaren arabera egoitza ixteko edo jarduera eteteko bermezko neurriak bete-betean eta berehalakoan hartzera behartuta dagoela udala [1988ko ekainaren 10 (Ar. 4.195) eta 1988ko otsailaren 1 (Ar. 699) AGS; 1987ko apirilaren 24 (Ar. 3.158); 1984ko azaroaren 19 (Ar. 6.222)...].

Azpimarratu zen, orobat, diskotekaren larrialdietarako irteera bakarra lokalaren fatxada nagusian dagoela, eta fatxada horretatik hurbil ezbeharren bat gertatuz gero aterabiderik gabe geldituko litzatekeela, jendea ateratzeko irteera guztiak aurrealdean baitaude. Hori dela eta, berriro diogu jarduera horrek ez zituela betetzen ez Ikuskizun Publikoei eta Aisialdiko Jarduerei buruzko abuztuaren 27ko 2.816/82 Errege Dekretua -eta horrenbestez, dekretu horren bidez onarturiko Poliziaren Araudi Orokorra-, ez 1935eko maiatzaren 3ko Ikuskizun Publikoetarako Poliziaren Arauditik indarrean zeuden xedapenak, eta ezta Oinarrizko Eraikuntza Araudiak Suteen Kontrako Babes Neurriak (OEA-SAB-82) ere.

Bestalde, jendaurreko ikuskizunak eta aisialdiko jarduerak arautzen dituen azaroaren 10eko 4/95 Legearen 8. artikuluak dio ikuskizun eta aisialdiko jardueretarako lokalek suteen kontrako prebentzio eta babes neurriak bete behar dituztela, bereziki baimendutako jende kopurua 300dik gorakoa den kasuetan. Neurri horiek ez betetzeak jarduera ixtea eta prezintatzea dakar (28. art).

• Emaitza

Udalak eskuzabaltasunez eta are axolagabeki jokatu du arazo honen aurrean, ez baitu hartu jarduera horren kontrako inolako neurririk, nahiz eta jakin bazekien ez dituela betetzen proiektua aurkeztu zenean indarrean ziren suteen kontrako babes neurriak (Ikuskizun Publikoei eta Aisialdiko Jarduerei buruzko abuztuaren 27ko 2.816/82 Errege Dekretuan -eta horrenbestez, dekretu horren bidez onarturiko Poliziaren Araudi Orokorrean-, 1935eko maiatzaren 3ko Ikuskizun Publikoetarako Poliziaren Arauditik indarrean zeuden xedapenetan, eta OEA-SAB-82an daude jasota neurri horiek) eta arriskuan jarri da, honenbestez, pertsonen segurtasuna. Horregatik guztiagatik diskoteka ixteko legez dagozkion neurriak har zitzala gomendatu zion Arartekoak udalari.

Udalak, ordea, ez zuen establezimendu publikoa ixteko erabakirik hartu, eta beraz, alderdi guztiei horren berri eman ondoren, espedientea itxi eta artxibatu egin zen. Hala ere, Irungo Udalak adierazi zion Arartekoari dantzalekuan larrialdietarako beste irteera bat egin zutela. Alabaina, erakunde honek jakin zuenez, jarduera hori legez kanpo burutu zen, ez baitzen bideratu derrigorrezko jarduera-espedientea.

*Emandako udal baimenari ez zegokion jarduera baten funtzionamenduak eragindako gorabeherak (100/97)*

• Erreklamazioa

Auzotar elkarte batek erakunde honen esku hartzea eskatu zuen beren etxe azpian nekazaritzarako tresneria eta motorrak konpontzeko lantegi baten ezkutuko funtzionamenduari buruz Zumarragako udalak inolako neurririk hartu ez zuela eta.

Hiritarrek zioten establezimenduari emandako udal baimena nekazaritzarako tresnen eta motorren erakusketa eta salmenta jarduerei zegokiela, baina

lokal horretan konponketa lanak ere egiten direla eta horrelakorik ez duela baimenak jasotzen.

Era berean, bizilagunek diote Udalean hainbat salaketa aurkeztu ondoren, Gobernu Batzordearen erabakia izan zela udaltzaingoak lokal horretara aldian behinkako bisitak egin zitzala, ikusteko ea bertako jarduera bat zetorren udal baimenean agertzen zenarekin, eta hala ez balitz, zegokion zigor neurriak ezarriko ezartzea. Baina hiritarrek ez zuten udaltzaingoaren inongo ikuskaritzaren berririk, eta gainera, jakinaren gainean zeuden egoitza horretan konpontzen zela Udalaren beraren lorazaintzako tresneria.

• Azterketa

Udalak jakitera eman zigun bere jabetzako tresneria hara bidaltzen zela jakin bezain laster halakorik gehiago ez egiteko agindua eman zuela.

Bestalde, jakin ahal izan genuen udal erabakia hartu zenean ikuskaritza egin zezala eskatu zitzaiola udaltzaingoari, lokal hartan udal baimenari egokitzen ez zitzaion jarduerarik egiten zen ikusteko, eta ez zenez behar bezalako ikuskaritzarik egin, udalak zigor espedienteak ireki zituela instalazioaren gorabeheren berri izan zuenean.

• Emaitza

Arartekoak aipaturiko jardueraren kontrol zehatza egin zezala gomendatu zion Zumarragako udalari, eta orobat, udal baimenari egokitzen ez zitzaion jardueraren bat egiten zela jakinez gero arauzko zigor neurriak har zitzala, JGOKA-Ako 38. artikuluak eta ondorengoek arautzen dutenaren arabera.

Zumarragako udalak onartu egin zuen gomendioa, eta hortaz, espedientea itxi eta artxibatu egin zen.

*Ezkutuko lantegi baten funtzionamenduak eragindako gogaiteak (579/97)*

• Erreklamazioa

Zaldibarko jabe elkarte batek salaketa aurkeztu zuen beren etxe azpian zegoen lisa burdinetarako piezen ekoizpen eta montaketa lantegi baten zaratak eta dardarek eragindako gogaiteak zirela eta.

Kaltetuek zioten hainbat gorabehera jasan dutela 1995eko urtarrilean lantegia zabaldu zenez gero, eta salaketak aurkeztu zituztela Zaldibarko udalean, baina udalak ez zuela inolako neurririk hartu salatutako arazoak zuzentzeko.

• Azterketa

Erakunde honen lege aholkularitzak Zaldibarko udalean jarduera horren inguruan bideraturiko espedientea aztertu zuelarik, zera ikusi zen:

1. Jarduera horrek 1995eko maiatzaren 2koa zuen baimena.

2. Baimena eskatuz aurkezturiko proiektua oinarri harturik, arrisku gabeko jardueratzat hartu behar zela erabaki zuten udal teknikariek.

3. Hala ere, instalazioaren inguruan bizi ziren auzotarrek aurkezturiko salaketen ondorioz teknikariek egindako ikuskaritzek agerian utzi zuten lokalean egiten zen jarduera ez zetorrela bat udalean aurkezturiko proiektu teknikoarekin; 1995eko maiatzaren 2ko udal baimenak jasotzen ez zituen handitze lanak egin ziren bertan.

4. Azkenik, udalak zenbait eskaera egin zizkion jardueraren jabeari jarduera legezta zezan, baina jabeak ez zien eskaera horiei jaramon egin eta udalak ez zuen beste neurri zuzentzailerik hartu.

JGOKAAk arautzen duena betetzera behartuta egon arren instalazio baimenik gabe diharduten jarduera sailkatu hauei dagokienez, jurisprudentziak zehaztutakoari jarraitzen dio Arartekoak. Auzitegi Gorenak ezkutuko jardueratzat jo ditu baimenik gabeko jarduerak, eta beraz, zilegi deritzo agintariek jarduera horiek ixteari, bermezko neurri gisa, JGOKAAk arautzen duen jarraibidearen arabera legeztatzen ez diren bitartean.

Aipagarria da, adibide gisa, oso argigarria izan daitekeelako, 1988ko ekainaren 10ean Auzitegi Gorenak emandako sententzia batek (Ar. 4.195) dioena:

*«...1961eko azaroaren 30eko Araudian agertzen diren salerosketa edo industria jarduerak behar den baimena eskuratu gabe irekitzeak bermezko neurri gisa bete-betean eta berehalakoan lanak bertan behera uztea, establezimendua ixtea edo jarduera etetea dakar, elkarbizitzarako ezarri diren mugak ez daitezen urra, arautegia hautsiko ez dela bermatuko duen edo okerrak zuzentzeko bidea emango duen baimena lortu artean.»*

Eta irizpide hori bera dute oinarri Auzitegi Gorenaren ondoko epaiek ere: 1988ko otsailaren 1 (669. art.), 1987ko apirilaren 24 (Ar. 3.158)...

• Emaitza

Aratekoak, Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen 3/85 Legearen 11 .b) artikuluak aurrikusitakoaren arabera, Zaldibarko udalari ondoko gomendioa egin zion 1997ko uztailaren 18an harturiko erabaki bati jarraituz:

*«1. Udalaren zerbitzu teknikoek ikuskaritza bisita egin diezaiotela lehenbaitlehen (...) jarduerari, inguruko etxeetan agertu diren pitzadurak lokal horretan aurrera eramaten diren jarduerak eraginak diren ala ez jakiteko. Era berean, soinu neurketa bat egin dadin eskatzen du, jarduera horren funtzionamenduak arauek baimendutako gehienezko neurria gainditzen duen ikusteko,*

*2. Ikuskaritzaren bidez gorabeheraren bat antzemanez gero, Arartekoak ondoko eskaera egiten dio udalari: jarduera itxi dezala instalazioaren jabeak dagokion baimena eskuratu artean, jardueraren behar bezalako funtzionamendua ahalbidetuko duten neurriak hartuko direla bermatzeko, JGOKAAk arautzen duenari jarraituz.»*

Emandako aholkuari erantzunez, Zaldibarko udalak jakitera eman zigun Gobernu Batzordeak erabaki zuela 98. urtearen hasiera arteko epea ematea jardueraren jabeari; epe hori amaitzean jabeak azalpen bat eman beharko zion udalari, jarduerari buruz harturiko erabakiak eta, orain dagoen lokalean jarraitzeko asmoa bazuen, arazoak nola konponduko zltuen aditzera emanez.

Arartekoak erabaki horrekin ez zegoela ados jakinarazi zion Zaldibarko udalari; izan ere, Arartekoaren ustez udalak hainbat aldiz egin zion jabeari bere jarduera legeztatzeko eskaera. Gainera, kasu honetan bistakoa zen badela aplikazio araudi bat jabeek ez ezik Administrazioak berak ere bete beharrekoa, aginpide publikoaren jardunbide orok bete behar baititu legezkotasun printzipioak.

Era berean, ez da ahaztu behar bizilagunak, kexa aurkeztu zutenak, instalazioak zabalduz gero -hau da 1995ko urtarriletik- ari zirela zaratak eta dardarak jasaten; hortaz, baziren 3 urte gogaiteak jasaten zituztela, eta horrek kalte handia egiten zion beren bizi kalitateari.

Hori guztia dela eta, Arartekoak bere gomendioa ez onartutzat jo zuen, eta bitartekaritza lana egiten jarraitzeko beste biderik ez zegoela ikusita, kexa itxi eta artxibatu egin zuen.

## B) **Ingurugiro mailako beste kalte batzuk**

*Ikastetxe publiko batetik hurbil hiru hondakin edukiontzi egoteak sorturiko arazoak (8/97O)*

• Erreklamazioa

Arartekoak komunikabideen bidez jakin zuenez, Elorrioko ikastetxe bateko arduradunek salaketa aurkeztu zuten haur hezkuntzako geletatik hurbil hondakinez beteriko hiru edukiontzi zeudela-eta.

Edukiontzi horiek haurren osasunerako arriskugarriak izan zitezkeela ikusirik, eta ikastetxeko arduradunen esanetan horrelakorik gertatzen zen lehenengo aldia ez zenez, gai honi buruzko informazioa eskatu zion Arartekoak Elorrioko udalari.

• Azterketa

Alkatetzak jakinarazi zigun edukiontziak hustu behar zituen enpresarekin izandako gaizki ulertu bat zela-eta zeudela beteta ontziak.

Hala ere, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen udalak hiru edukiontziak beste nonbait jar zitzan; izan ere, ikastetxearen sarreran edukiontziak egoteak osasun arazoak ekar zitzakeen eta edukiontziak beste norabait eramate soilarekin arazoa konpondut geldituko zen.

Elorrioko udalak jakitera eman zigunez, harez eta hartxintxarrez beteriko bi edukiontzi daude haur hezkuntzako geletatik 15 bat metrora, errepidearen er-

tzean; edukiontzi horiek udaleko langileek erabiltzen dituzte, eta beren biltegia eskolaren alboan dagoelako jarri dira han. Espaloi horretan bertan, baina ikastetxetik urrunago, dago hirugarren edukiontzia; edukiontzi honetan erraztagailuak jasotzen dituen hondakinak botatzen dira, edukiontziak husteko ardura duen enpresak hustu arte. Udalak argazki batzuk bidaltzen dizkigu, edukiontziak non dauden kokatuta ikusteko.

• Emaitza

Arartekoaren ustez udalak azalpen aski eman zuen edukiontziak zeuden tokian uzteko zeuden arrazoiez, eta honenbestez, bere jarduera amaitutzat jo zuen.

*Hegazti hazkuntzako etxalde bateko zaratek eragindako gogaiteak (1371/ 97)*

• Erreklamazioa

Lezamako Aretzalde auzoko auzotar talde batek kexa bat aurkeztu zuen beren etxeetatik hurbil zegoen hegazti hazkuntzako etxalde baten funtzionamenduak eragindako gorabeherak salatuz.

Hiritarrek zioten etxaldearen jabeak instalazioko teilatua eraberritzeko lanak egin zituela sei arte lehenago, haztegia aireztatzeko sistema berri bat ezartzeko, baina sistema horrek ateratzen zuen zaratak kalteak eragiten zizkiela. Sei urte horietan zehar Lezamako udalean hainbat erreklamazio aurkeztu zituztela esaten zuten, baina udalak ez zuela salaturiko arazoak konpontzeko inolako neurri zuzentzailerik hartu.

• Azterketa

Lezamako udalak jakinarazi zigun Ordenazio, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera jo zuela, gai honen inguruan udalak zein neurri hartu behar zituen jakiteko, kontuan harturik etxaldeari 1975eko azaroaren 17ko alkatearen dekretu baten bidez eman zitzaiola jarduera baimena eta ez zirela legeztatu instalazio horretan harrezkero egindako eraberritze lanak.

Udalak adierazi zigunez, gobernuak esan zien etxaldearen jabeari handitze lanak JGOKAAk araututako jarraibideen arabera legeztatzeko eskatu behar ziotela, eta eskatu ere halaxe eskatu ziotela instalazioaren jabeari.

• Emaitza

Erakunde honen ustez egokia da Udalaren erabakia, salaketan agerturiko arazoa konponduko zela bermatzen baitzuen. Hala ere, kontuan harturik hiritarrek salaturiko zarata aireztatze sistemak eragina zela, Arartekoak erabaki zuen udalaren zerbitzu teknikoen esku uztea instalazioaren jabeak aireztatze sistemaren kalteak ekiditeko neurriak hartu behar zituen ala ez erabakitzea.

Lezamako udalbatzak udal baimenik gabe ezarritako aireztatze sistemaren funtzionamendua eteteko eskatu zion etxaldearen jabeari, eta jakinaren gainean jarri zuen agindu hori ez betetzekotan udalak behin betiko debekatuko ziola sistema hori erabiltzea.

## 3.10. HERRILANAK ETA ZERBITZUAK

### 3.10.1. SARRERA

Azpiegitura eta zerbitzu berriak ezartzeko edo daudenak hobetzeko balio duten aldetik, herri lanek onura ekartzen diote gizarteari eta lagundu egiten dute hiritarren bizi-maila hobetzen. Hauxe dute azken helburu.

Hau honela den arren, dudarik ez dago lan horiek aldi berean kalte zehatzak eragiten dituztela, zuzenean ukitzen dituzten biztanleak azpiegitura edo zerbitzu berri horiek ezartzearen, edo diseinuaren edo jarduera zehatzaren aurka jarriz.

Kexa mota hauen aurrean Arartekoa oso mugatuta dago bere jardunean; izan ere, Eusko Jaurlaritzaren 1985eko otsailaren 27ko 3/1985 Legeak, horren arabera sortu eta arautzen baita Arartekoaren iostituzioa, zera zehazten du: Arartekoaren figura kontrol izaerako tresna bat da administrazioak errespetu osoz baliatu dezan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa hiritarrekiko harremanetan. Hala eta guztiz ere, administrazioak aukera zabalak ditu herri lanen esparruari dagokionez: lehenik, jarduera bati edo besteari ekingo dion eta aurrekontu bat esleitzen dion erabakia hartzeko, eta bigarrenik, herri lan hori burura eramateko diseinua eta modua aukeratzeko.

Kexa gehienetan ahalmeneko arazoak, aukerakoak, eta ez lege izaerakoak, planteatzen direnez, Arartekoak arlo honetan, sarri askotan, prozeduraren legezkotasuna aztertzea besterik ez du, ezin du kexaren arrazoiaren aurrean parte hartu edo aukera egin.

Aurten, bereziki, ugari izan dira aldundien menpeko errepideekin zerikusia duten alderdiak ezbaian jarri dituzten kexak eta, batez ere, herrietako saihesbideen trazaera mailako proposamenekin zerikusia dutenak.

Administrazioak, esan dugun bezala, aukera zabala duen arren errepideen balizko trazaera guztien artean ustez egokiena aukeratzeko, desiragarria litzateke hiritarrek aurkezturiko errebindikazio eta planteamenduen aurreko jarrera nahikoa irekia edukitzea proposamen adostuagoak eta inplikatu guztientzako onargarriagoak direnak diseinatzekd aukera izan dezan.

Bestetik, zerbitzuen azpiarloan, kexa kopuru garrantzitsu batek garraioen zerbitzua, burdinbidekoa bezala errepidekoa ere, izan du jomuga. Salaketen edukiari erreparatuz gero esan genezake zerbitzuaren kalitatea onargarria dela, baina hobetu egin daitekeela alderdi batzuetan, ordutegiei, txartelen prezioei, jubilazio edo familia ugarientzako beherapenei dagokienez, esaterako.

Ugari dira, halaber, ur edangarria hornitzeko udal zerbitzuari buruzko kexak. Kexak ez dira berdinak udalerri batean edo bestean, eta bestelako arazoak islatzen dituzte. Konponbideak, batzuetan, egitura mailako neurriak hartzea eskatzen du, hau da, azpiegituren gainean jardun beharra ahalmen handiagoa ematearren.

### 3.10.2. AUKERATUTAKO KEXAK

#### A) **Herri lanak**

*Ea udalari ala aparkaleku zerbitzuaren emakidadunari ote dagokion zorupeko bidearen mantenu gastuei aurre egitea (855/96)*

• Erreklamazioa

Donostiako Gudarien Plazako bertakoentzako aparkalekuen zerbitzuaren emakidadunak (COPARASA) Arartekoarengana jo zuen Donostiako Udalak aipaturiko aparkalekua inguratzen duen bidearen kontserbazio eta mantenu gastuak luze baino lehen bere egin behar dituela ulertzen duelako. Bide honen mantenua guztiz garrantzitsua da, estalkipean eta kalearen sestrapean egonagatik, sotoaren altueran alegia, argiteria egunean 24 orduz piztuta egotea eskatzen duelako.

• Azterketa

Lehiaketaren bidezko eskaintzarako oinarritzat balio izan zuten Udalak onarturiko zehaztapenen arabera, esleipendunari zegozkion zorupeko eraikuntza eta aparkalekuaren mantenu-kargak bezala, kalearen mailako kanpoko plazaren eraikuntzaren gaineko kargak ere.

COPARASA izan zen enkantean hartzeko eskaintzara aurkeztu zen enpresa bakarra, nahiz eta baldintza pleguan edo zehaztapenetan jasoriko aurreikuspenetan aldaketa batzuk txertatu zituen. Aldaketa horien artean honako hau jasotzen zen, hots, errentagarria ez izateagatik, jarduera globala bi faseetan banatzea: lehenengoan emakidadunak aparkalekua eraikiko zuen, eta, bigarrenean, Udala arduratuko zen inguruko kalearen estaltzeaz eta kanpoko plazaren eraikuntzaz.

Aparkalekuaren, inguruko eta zorupeko bidearen, urbanizazioaren eta oro bat obraren xehetasunak *in situ* ezagutzeko ikuskatze-bisitaldi bat egin behar izan genuen. Egiaztatu egin genuen aipaturiko inguruko kalean Udalak esku hartu eta bere eskuduntza administratiboak baliatu zituela jabari publiko izaerako udalerriko beste kale bat bailitzan, aparkatzeko debekua adierazten duten bideikur bertikalak egokituz eta alboetako garajeetara sarrera izateko pasabide-baimenak emanez. Egiaztatu egin genuen, halaber, bertakoentzako garajearen funtzionamendua independientea zela inguruko kalearekiko, eta kalearen erabiltzai-

leak aipaturiko kalearen parean zeuden zorupeko lonjetako garajeen titularrak eta jardueren erabihzaileak zirela.

• Emaitza

Azterketa juridiko zehatza egin ondoren, Donostiako Udalaren aurrean argudiatu zen berak behar zuela izan inguruko bidearen mantenuak eta kontserbazioak eragiridako gastuen erantzule.

Handik puska batera jaso zen udalaren erantzuna, eta haren arabera arbuiatu egiten zen Arartekoaren gomendioa; izan ere, bertakoentzako aparkalekuak esleitzeko lizitazioa abiarazi zuen baldintza pleguan edo zehaztapenetan, inguruko bidearen estaltzea emakidadunaren kargura izango zela zehazten zela ulertzen zuen udalak. Arrazoibide hori eginik Udalak ahaztu egiten zituen ondoko-ekintza batzuk, izan ere, aldaketak jaso zituen baldintza plegu edo zehaztapenetan emakidadunarekin adostasuna lortu ahal izateko, eta aldaketa hauek zuzeneko eragiria izan zuten jatorrizko obra-proiektuan eta proiektutik eratorririko alde bien betebeharretan.

B) **Desjabetzeak**

*Arartekoaren bitartekotza kale baten zabaltzeari buruzko desjabetze-espediente baten aurrean (368/97)*

• Erreklamazioa

Hiritar bat Arartekoarengana joan zen esanez Berrikanoko Batzorde Administratiboak, Zigoitian, kalea zabaltzeko eta berdintzeko lursail puska bat desjabetu nahi ziola, legez ezarririko prozedura errespetatu gabe.

• Azterketa

Informazioa eskatu eta batzorde administratiboko ordezkariekin bilera bat egin ondoren, Arartekoak egiaztatu egin zuen desjabetze-espediente honetan edozein derrigorrezko desjabetzetan legez bete beharreko tramite guztiak bete zirela.

Kalearen zabaltzeak lursailekb itxiturako landare-hesia eta sarea botatzera behartzen zuen jabea eta horrexek sortarazten zuen ezadostasuna. Hala eta guztiz ere, itxitura hori bera lursailaren muga berrian berreraikitzeko, behin kalea zabaldu ondoren, kalearen ardatzetik abiatuta gutxienez zortzi metro atzera botatzera behartzen zuten arau ordezkatzaileek jabea,

Arartekoak bitartekotza lanak egiteko eskaini zuen bere burua, eta onartu egin zioten eskaintza. Arartekoa, beraz, saiatu egin zen kalea zabaltzeko beharra eta, hortaz, urbanizazio lanak burura eraman ahal izateko beharrezkoak diren lurrak lortzeko beharra, eta jabearen nahia bateratzen, izan ere, haren lursailaren itxitura berria bere, muga berrian eraiki nahi zuen jabeak.

Alde biekin hitz egin ondoren adosturiko konponbide batera iritsi zen, eta horren arabera, lursailaren jabeak uko egingo zion desjabeturiko lursailaren balio justuari, batzorde administratiboak landare-hesia eta metalezko sarea lursailaren muga berrian berean egokitzeko konpromezua hartzen bazuen.

Akordio honek aurrera egin ahal izateko, Arartekoak Zigoitiko Udalera jo zuen lehenik, eta udalari eskatu zion lursaila itxi ahal izateko ez zezala bidearen ardatzarekiko zortzi metroko atzeratzea exijitu.

Azaldu egiten zen atzeratze horrek halako zentzua izan zezakeela foruko errepideetatik hurbil, ez ordea tamaina txikiko hirigune batean, izan ere, ez zegoen etorkizun batean kalearen zabaltzea beharrezkoa izango zela aurreikusten zuenik.

Halaber, kalearen ondoko beste lursailetako itxiturak lursailaren eta kalearen arteko mugan berean zeudela argudiatu zen eta, beraz, irizpide hau kontuan ez hartzera, ezohiko egoera sortuko zela eta hiriguneko lursailen beste jabeen aldera beste neurri batekin jokatuko zela.

• Emaitza

Azkenean, inplikaturiko alde guztiek onartu egin zuten Arartekoaren proposamena, eta modu baketsuan eta adostuan konpondu zen liskarra.

## C) **Zerbitzu publikoak**

*Ez Udalak ez Foru Aldundiak ez dute beren ardura aitortzen espaloi batzuen mantenuan (172/97)*

• Erreklamazioa

Bilboko Maurice Ravel Hiribideko bizilagunek Arartekoari planteatu zioten beren etxebizitzetara sartzeko espaloiak, zerbitzu osagarriak barne, oso egoera txarrean zeudela, eta Bilboko Udalak bezala Bizkaiko Foru Aldundiak ere adierazi zietela ez zela hori beren ardura; beraz, ez da inor aipaturiko espaloien mantenuaz eta kontserbazioaz arduratzen.

• Azterketa

Arartekoak idatzi bana igorri zuen Bizkaiko Foru Aldundira eta Bilboko Udalera informazioaren eske.

Lehenak eskudun izateari uko egiten zion esanez hiriko zeharkale bat izanik, aldundiari soilik ibilgailu motordunen zirkulazioarentzako bide-zerbitzuari loturiko elementuak kontserbatzeko betekizuna zegokiola. Gainera, espaloi edo oinezkoentzako esparru baten mantenuaren aurrean Bilboko Udalak botere zehatzagoa duela esaten zuen, izan ere, esparru horien erabilera guztiz debekatuta dago ibilgailu motordunen zirkulazioari begira.

Bilboko Udalak luzaturiko erantzunean adierazten zen hiriguneko zeharkale hori, espaloiak barne, Espainiako Ministerio de Obras Públicas ministerioak eraiki zuela bere garaian, eta urteak geroago Estatuko Administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiari transferitu ziola eskuduntza, eta Bizkaiko errepideei buruzko 1993ko 2/1993 Foru Arauaren arabera, Aldundiak duela hirigunean zehar luzatzen diren foru-errepideak kontserbatzeko eta mantentzeko ardura, aztergai dugun kasuan gertatzen den bezala.

Beraz, Bilboko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko eskuduntza izaerako liskarra zen, biek uko egiten zioten jarduteari eta elkarri egozten zioten eskuduntzaren titularitatea.

Kexaren azterketan argi uzten zen legearen ikuspuntutik ez zegoela batere garbi errepidearen gaineko eskubidea zuen administrazioa zein zen jakiteko eskuduntzen muga.

Horrek esan gabeko eskuduntzen edo datxekion botereen doktrinaz baliatzea eskatzen zuen; hau da, testuak zuzenean adierazirikoari jarraiki baino, arauak beren osotasunean interpretatzetik ondorioztatu behar zen eskuduntza. Interes publikoa erakunde administratiboaren interesarekin nahasteko Aldundiak eta. Udalak agertzen zituzten jarrerak gainditzeko interpretazioa egin behar zen; interes publikoa, bestalde, biztanleen komunitatearen interesarekin identifikatu behar da, eta administrazioa haren zerbitzura dagoen erakunde bat besterik ez da.

Arloari buruzko araudia aztertuta ez zegoen foru aldundiak espaloien zaintza eta mantenuarekin edo espaloien titularitatearekin lotzen zuen agindurik; bestalde, baziren xedapen batzuk udalaren ardurapean uzten zituztenak hiriko bideen gaineko eta zerbitzu osagarrien gaineko zaintza eta mantenua, Zoruaren Legea eta Toki Erregimenerako Oinarriak bereziki. Halaber, agerian uzten zen Bizkaiko Foru Aldundia zela aipaturiko bidearen titularra, eta beharrezkoa zela zesioan emateko ekitaldi formala burutzea, hau da, Maurice Ravel Hiribideko espaloiak Bilboko Udalaren aldeko transferentzia-titulu bat egitea, eta azken honek onartu eta bidea jasotzea.

• Emaitza

Horregatik guztiagatik Arartekoak honako gpmendio hau aurkeztu zien administrazio biei:

> *"Bizkaiko Foru Aldundiak Maurice Ravel Hiribideko espaloiaren zesioa formahzatu beharko luke Bilboko Udalaren alde, eta honek, aldi berean, onartu egin behar luke aipaturiko espaloia eta aurrera begira, urbanizazio egoera onean kontserbatzeko betekizuna, espaloiaren titularra izateari datxekion betebehar gisa.*
>
> *Zesioa burutu arretik edo aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiak Maurice Ravel Hiribideko oinezkoentzako espaloia berriro urbanizatzeko eta egokitzeko obrak burutu edo kontratatzeko konpromezua hartu behar luke."*

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak hitzarmen bat erredaktatu eta sinatu zuten eta haren arabera Maurice Ravel Hiribideko espaloiak eta antzeko arazoak zituzten hiriko beste gune batzuk elkarren artean konpontzeko konpromezua hartu zuten.

*Administrazio batzordeak debekatu egiten dio aterpe-etxe bati ur edangarrirako hornidura sarearekin lotzea (781/96)*

• Erreklamazioa

Hiritar batek Arartekoarengana jo zuen esanez Elosuko Batzorde Administratiboak ez ziola baimenik ematen ur edangarriaz hornitzeko sarearekin lotzeko berea den aterpe-etxeari zerbitzua ematearren. Ura hornitzeko hoditeria kexa aurkezten zuenaren etxebizitzaren aurretik igarotzen zela adierazten zuen eta, beraz, sarearekin lotzeko baimena jasotzera, ez ziola inolako gasturik eragingo batzorde administratiboari.

• Azterketa

Bigarren mailako herri erakundeak zioen Toki Erregimenerako Oinarrien Legeak soilik behartzen zuela ur edangarriaren zerbitzua hiriguneko etxebizitzei hornitzea. Gainera, aipaturiko eraikina zoru ez urbanizagarrian kokatua zegoela esaten zuen, ez zela etxebizitza bat eta, beraz, legearen arabera ez zuela ura etxera eramateko zerbitzuaz baliatzeko eskubiderik. Bestetik, zera adierazten zuen, eskaerari amore emanik aterpe-etxea etxebizitza gisa sendotuko zela eta, ondorioz, jabeak herri administrazioari erreklamatu ahal izango zizkiola ordura arte baliatu ezin izan zituen zerbitzu motak oro.

Jabeak, ordea, besterik planteatzen zuen: batetik, ondasun higiezinen gaineko zergak ordaintzen baldin bazituen aterpe-etxea etxebizitza bailitzan eta, bestetik, eraikinak Eusko Jaurlaritzako Lurraldearen, Etxebizitzaren eta Inguramenaren Ordenaziorako Sailak luzaturiko bizigarritasun-zelula baldin bazuen higiene eta azalera mailako gutxieneko baldintzak betetzeagatik,- logikoena zela administrazioak etxebizitzatzat hartzea aipaturiko eraikina zerbitzu publikoetara sarrera izateko eta haietaz baliatzeko orduan.

Gaia sakon aztertu ondoren Arartekoak interesatuari jakinarazi zion eraikinaren jatorria ezagutu ahal izateko hura altxatzeko baimena aztertu beharra zegoela. Eraikina altxatzeko baimena Legutioko udalak eman zuen 1979. urtean "*Elosuko auzoan aterpe-etxe bat eraikitzeko*". Geroago beste udal baimenik izan ez zenez, aterpe-etxearen araberako eraikuntzaren izaera aldatu ez zela ulertu behar da; horrek ez du. esan nahi araudi desberdinak biltzean, araudi fiskala esaterako, arau jakin baten arabera izaera bat edukitzea, eta beste legezko xedapen baten arabera, beste izaera bat.

• Emaitza

Edozein kasutan, Arartekoak Elosukp Kontseiluari gomendatu zion aipaturiko eraikina ur edangarrirako hornidura sarearekin lotzeko baimena eman ziezaion nahiz eta legez beharturik ez zegoen, ez baitzegoen hori egiteko debekua ezartzen zuen arau juridikorik. Gomendio hau luzatzerakoan gogora ekarri zuen sarearekin lotzeko baimenak ez ziola inolako gasturik eragingo batzorde administratiboari eta, azken batean, absurdua zela uraz hornitzeko hoditeria bere etxebizitzaren aurretik igarota, ur edangarriaren zerbitzuaz ezin baliatu izatea.

Azaroaren 8an bildu zen Elosuko Kontseilua eta atzera bota zuen Arartekoak eginiko proposamena. Halaber, herriko interesatuak bere aterpe-etxetik ur edangarrirako hoditeriarekin lotzeko eginiko eskaerari emaniko ezezkoa berretsi zuen.

## D) **Garraioak**

*Familia ugarientzako deskontuak Bilboko Metroko tarifa orokorretan (704/ 96)*

• Erreklamazioa

Bizkaian kokaturiko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarte batek Arartekoaren iritzia eskatu zuen Bilboko Metroak familia ugariko kideei aplikatzen dien tarifen beherapenaren bidezkotasunaz, kontuan izanik Familia Ugariak Babesteko 25/71 Legearen 21. artikuluan xedaturikoak.

• Azterketa

Auzi honetaz informazio eskaera bat igorri zitzaion aipaturiko elkarte publikoari, eta bertan zehazten zen Arartekoaren iritziz bidezkoa zela 25/71 Legeak xedaturiko beherapenak burura eramatea familia ugariko kideekin, bi udalerri desberdin lotzen zuten ibilbideetan bederen.

• Emaitza

Metro Bilbao, SA enpresak Arartekoak aurkezturiko burubideei emaniko erantzun ofizialean onartu egiten zuen familia ugariko kide izateagatik dagozkien beherapenen bidezkotasuna. Nolanahi ere, denbora tarte labur bat behar izango zuela adierazten zuen indarrean zegoen tarifen sistema egokitzeko.

Onuraren irismena zehaztearren, zera jakinarazi zitzaien kexa aurkeztu zutenei: tarifen beherapenaren inguruan indarrean dagoen legeriari erreparatuz gero, beherapenak soilik tarifa orokorren prezioei begira aurreikusten dira. Hortaz, familia ugariei buruzko legearen onuradunek tarifa orokorraren aurreko beherapenen eskubideaz baliatu beharko dute, edo hari uko eginez, Bilboko Metroak bonu-jaulkipenen bidez eskain ditzakeen tarifa bereziki sarituek dituzten abantaila ekonomikoez.

## 3.11. **OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA**

### 3.11.1. **SARRERA**

Arlo honetan 162 kexa aurkeztu dira, honako era honetan banatuak:

Gizarte Ongizatea ........................................................................ 105

Osasuna ...................................................................................... 57

Honelaxe banatu dira, administrazioen arabera:

- Eusko Jaurlaritza ...................................................................... 59
- Foru diputazioak ...................................................................... 71
- Udalak .................................. ................................................ 39

Zera esan daiteke, Osasun alorreko kexak Osakidetzak berak aitortu dituen eskasien islada direla: txandarako zerrendak, giza tratua eta informazio desegokiak sortarazitako arazoak.

Txandarako zerrenden arazoari dagokionez, leku berezia dute metadona bidezko tratamendurako sarbideak direla-eta hartu ditugun kexek. Ugari izan dira, halaber, osasun mentaleko gaixotasunei osasun prestazioen katalogoan zehazturiko terminoen arabera erantzuterakoan izan diren mugen inguruko kexak.

Erabiltzaileekiko tratuak garrantzi berezia hartzen du alor honetan, kbntuan harturik gaixoaren eta osasun alorreko langileen artean dagoen harreman berezia, funtsezkoa baita hartan elkarren arteko konfiantza. Halatan, alor honetan salaturiko egoerak berriro bideratzea oso zaila deri arren, ez dira kexa horiek inolaz ere baztertu behar, eta horrexegatik aipatu ditugu txosten honetan.

Informazioarekin modu batean edo bestean loturiko arazoen artean kokatu ditugu hiritar batzuk une jakin batera arte jasotzen ari ziren prestazioei buruzko irizpideak haien ezjakinean aldatu izana erakusten diguten kasuak. Egoera hartan funtsezko betekizuna iruditu zitzaigun hasieran emaniko informazio hura, eta hala adierazi genion Osakidetzari erreklamazio haiek egin ostean abiarazi ziren kexa-espedienteetan.

Gizarte Ongizatearen atalean, zera iradoki digute premiazko laguntzen inguruan eginiko kexek, laguntza horiek esleitzeko bide batzuk aztertu eta zuzendu beharra, eta etxebizitza alokatzeko laguntzak aipatu nahi genituzke zehazkiro, zuzendu beharko balitzitake, gure ustez, Udal batzuek alokairuan zehazturiko prezioa.

Adin txikien babesaren inguruan sortu den eztabaidari dagokionez, komenigarria da foru aldundien erakunde eskudunek bideraturiko ekintza batzuk aipatzea. Instituzio honek bi kexa-mota egiaztatu ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekimenerako Sailean bereziki.

Alde batetik, administrazio-tramiteak gehiegi luzatzen direla azaldu diote pertsona batzuek Arartekoari, hala gaitasunerako egiaztagiariak ematerakoan nola nazioarteko adopzio-espedienteen jarraipenari begira harturiko konpromisoak betetzerakoan. Gestio geldi honen arabera, batez beste sei hilabete gehiagoan luzatzen dira inolako arrazoirik gabe tramiteak. Foru erakundeak adierazi digun bezala, betekizun horretarako dagoen langile-kopuru txikia da atzeratze horren arrazoi nagusia.

Beste erreklamazio-mota batek kontuan hartu ditu Foru Aldundiak babesik gabe dauden adin txikien tutela era automatikoan eskuratzeko bideratzen dituen prozesuak. Kasu batzuetan, argi eta garbi adierazi dute guraso biologikoek ez daudela foru erakundeak eginikoekin ados eta zalantzan jarri dituzte profesionalen irizpideak eta balorazioak. Arartekoak harturiko erabakiaren egokitasuna kontrastatzeko biderik ez badago ere, garbi dago akatsak atzeman direla arazo hauek ukituriko pertsonekiko komunikazioan eta haiei emaniko informazioan. Hobetzen ahalegintzen ari garen alderdiak dira horiek.

Adieraz dezagun, bestalde, 1997ra bitartean kexak jaso ditugula Deustuko Unibertsitatearen eta beste ikastetxe batzuen aurka, indarrean dagoen legeriak familia ugarien alde aurreikusi dituen abantailak aplikatu nahi ez izateagatik.

Azkenik, foru aldundiek beren gaitasun eza agertu dute aplikaziorako arauetan aurreikusiriko zigorrak aplikatzeko unean eta, horrenbestez, Arartekoaren instuzioak Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Ekimenerako Zuzendaritzaren erabakiaren pean utzi du arazoa, giza talde honen eskubideak bermatuko dituzten neurriak har ditzan.

## 3.11.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

### A) **Osasuna Artatze eskasa**

*Artatze eskasa osasun-etxeetan (1211/97 eta 1398/97)*

• Erreklamazioa

Pertsona batzuek osasun-etxean jaso zituzten tratu txarren eginiko erreklamazioak jasotzen dituzte kexa hauek.

Kexa hauetako batean (1398/97), espezialista batengana premiazko agiri batez joan zela adierazi zuen pertsona batek. Itxarongelan egon zen egun hartako azken pazientea atera zen arte eta minutu batzuez itxoin ondoan, inork hartzen ez zuelarik, sendagilearen atean jo zuen. Medikua eta erizaina atera zitzaizkion; bazihoan medikua kanpora.

Emakume erreklamaziogileak premiazko agiri batez joana zela adierazi ondoren, medikuak erdeinuzko keinu bat egin eta, ordutik aurrera, kontsultak iraun

zuen bizpahiru minutuan hoanko hau baizik ez zuen entzun emakumeak*: "esaldi umiliagarriak besterik ez dut entzun, mesprezua baizik ez, hala nola nahi dudan gauza bakarra etxeko lanak ez egitea eta neure senarrari igarotzea dela, nahi dudana zera deh otorduak-eta neure senarrak prestatzea eta abar".*

Honela bukatu du kexa.- *"kontsulta nola joan den ikusita, bigarren iritzi bat eskatu behar dut ezinbestean".*

Bigarren kexa batek (1211/97) -atentzio txarra dei daitekeenaren horren barrukoa hau ere- eritetxeak alabaren abizena hartu zuen moduaren inguruko protestak aurkeztu zituen.

Lehiatila hartan, behin eta berriro saiatu ziren abizena aitak adierazten zien ez bezala idazten, honek osasun txartela eta, horretaz gainera, NAN erakutsi bazizkien ere. Hala eta guztiz ere, Oassun Txartel hark ez zuela balio eta alabaren NAN erakutsi behar zuela (12 urte zituen alabak) esan zioten.

Zera adierazi zuen, azkenik, *"mesede eginez"* zuzendu ziotela abizena eta halaz ere sekula beharko ez zen ahozko eztabaida baten ondoren egin ziotela zuzenketa hura.

• Azterketa

Arartekok bi kasuak aintzat hartu eta salaturiko ekintzen inguruko txosten bana eskatu zuen.

Lehen kasuan, salaturiko medikuari azalpen bat eskatu zitzaiola ziurtatu zion Zuzendari Nagusiak Arartekoari. Zera adierazi zuen sendagileak, hasierako tentsio-unearen ondoan garrantzia kendu izan nahi izan ziola gaiari eta iruzkin batzuk egin zituela txantxetan horretarako. Honez gainera, Osakidetzak adierazi zigun zuzenean jo zutela pertsona harengana azalpen bat egitera eta, betiere, desenkusak aurkeztera.

Jasoriko tratuak pertsona harerigan piztu zuen mesfidantza zela medio, bigarren iritzi baten beharra azaldu zuen pertsona hark. Osakidetzako Zuzendari Nagusiak adierazi zigun bezala, arazoaren alderdi honetaz ere arduratu ziren eta zera jakinarazi zigun, pertsona hura beste eritetxe bateko larrialdi-zerbitzura joan zela eta aurreko diagnostikoa berretsi ziotela han ere.

Bigarren kasuan, arazoa gertatu zen ospitaleak idatzi egin zion erabiltzaileari eta, desenkusak aurkezten zituen aldi berean. Honez gainera, gertatutakoa atenditu zuenaren agintariaren jakinaren gainean zegoela adierazi zioten.

• Emaitza

Atentzio txarreko kasu hauetan, salaturiko portaerak frogatzeko dauden zailtasunak ageri dira eta ezinezkoa da eragindako kalte morala ezerekin erabat ordaintzea. Honez gainera, areagotu egiten da mesfidantza, atentzio txarraren egilea edo eragilea sendagilea bera denean.

Hala eta guztiz ere, Osakidetazako Zuzendari Nagusiak berak aitortzen zuen bezala, salaketa horiek guztiz beharrezkoak dira portaera horiek benetan zuzendu nahi badira. Alde honetatik, garbi uste du Arartekoak salaketa horiek ez direla antzuak izan.

Osakidetzak emaniko informazioa interesatuekin kontrastatu eta gero, bukatu egin zen bi kasuetan gure interbentzioa.

### *Osasun prestazioak*

*Prestazioa ukatzea edo txandarako zerrenda (273/97)*

• Erreklamazioa

Osakidetzaren osasun mentalerako eritetxe batean artazen ari ziren pertsona batek psikoterapia tratamendu bat behar zuen, eta halaxe zehazten zuen kexarekin batera aurkeztu zuen txosten medikuak. Antza denez, aginduriko tratamendu hura sistema publikoaren artatze-prestatzioen artean ez zegoela adierazi zioten eta horrexegatik aurkeztu zuen kexa.

• Azterketa

Kasu hau zertan zen ezagutzearren, Osasun Prestatzioak arautzen dituen 1995eko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuan eginiko aurreikuspenak aztertu genituen eta argi eta garbi ikusi genuen psikoterapia indibiduala, hain zuzen ere, sistema publikoak eskaini behar dituen osasun prestazioen artean zegoela (I. eranskina, 3.d atala).

Kasuari hertsiago eutsi genion orduan eta jakin ahal izan genuen arazoa eritetxearen baliabide urriekin lotua zegoela bereziki, bitarteko gutxi baitzuen osasun-etxe hark osasun mentaleko arazoei osasun-prestazioen alorrean indarrean dagoen katalogoan jasoriko terminoen arabera heldu ahal izateko.

Prestaziorako eskubideen esparruan, argi eta garbi dago erabil daitezkeen bitartekoek mugatu egiten dutela prestatzto horiek gauzatzeko maila. Hala eta guztiz ere, prestazio baten beharra 1995eko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuaren arabera zehaztu denean, eskubide subjetibo bihurtzen da zehaztapen hori, eta guztiz mugatzen da, horrenbestez, prestazioari bitarteko aski ez dagoela-eta uko egiteko aukera.

Halatan, bitarteko-urritasuna, baldintza den neurrian, erabili ahal izango da osasun prestazio batzuetarako eskubidea aitortzen duen araua onartu aurretik, ez ordea arau hori onartu ondoren.

Kontestu horretan, txandarako zerrenda arrazoizko bat eta inori eskubidez dagokion osasun prestazioaren ukapena kontzeptu mailan ongi bereizi ondoren, Osakidetzara jo genuen kexa ekarri zuen kasu zehatzari buruzko txosten baten galdezka.

• Emaitza

Zera erantzun zigun Osakidetzak kexa sortarazi zuten gorabehera haiek hertsiki lotuak zeudela osasun mentalerako etxeak zituen baliabideekin.eta kexa aurkeztu zuen pertsonari tratamendu psikoterapeutikoa eskainiko zitzaiola baina artatzen zuen eritetxearen baliabideetara moldatua.

Erantzun hura jaso ondoren, kexa eginiko pertsonarengana jo eta, sendabidean jartzeko, zein osasun-etxetara eta zein medikurengana jo behar zuen adierazi genion. Artxibatu egin genuen ondoren espedientea.

*Desegokiera batzuk osasun prestazioetarako sarreran, berdintasunari dagokionean (851/96)*

• Erreklamazioa

Familia-plangintzarako zentruak berak amniozentesia egiteko gomendioa egin zion emakume bati. Egin eta, ondoren, ordaundu behar izan zuen, 38 urte ez zuelako.

Ondoren, jakinik beste lurralde batzuetan 35 urteko emakumeek bazutela proba hori dohainik egiteko eskubidea, ordaindutakoa itzul zieziotela eskatu zuen.

• Azterketa

Kexa tramitebidean onartu ondoan, txosten bat eskatu zitzaion Osakidetzari hiritarren osasun prestatzioetarako sarreran tratu desberdinak bideratu ziren ala ez jakiteko.

Osakidetzak helarazi zigun erantzunean adierazi zuenez, irizpide orokor egonkor baten ezean, eritetxeek berek zehazten zituzten aukera-irizpideak eta, beraz, litekeena zen egoera desberdinak gertatzea. Halatan, arazoa aztertzeko agindu zion Osakidetzak Euskadiko Sortze Eritasun eta Gaitz Perinataletarako Aholkularitza Batzordeari.

Aholkularitza Batzorde horrek eginiko gomendioaren arabera, amniozentesiaren proba 35 urtetik aurrera egitea hobesten zen hiru lurralde historikoetan eta irizpide hori bera onartu zuen Osakidetzak.

Ordura arte ematen ari zen tratu desberdinaren aurreko soluzio nagusia bilatu ondoan, irtenbide egoki bat eman behar zitzaion kexa sortarazi zuen kasu zehatzari.

Emakume hark erditu aurreko diganostikorako proba batzuk egin zituen haurdunaldian, Osakidetzaren arabera zegokion familia-plangintzarako zentruan egin ere. Amniozentesiari dagokionez, proba zegokion zentaian egin bazitzaion ere, argi eta garbi jakinarazi zioten probaren analisia sistema publikoaren esparrutik kanpo zegoiela, 38 urteak bete gabe zituelako.

Hala eta guztiz ere, arestian aipatu den bezala, beste lurralde batzuetan onartzen zen proba 35 urtekoei edo 35urtetik gorakoei ere egitea. Zirkunstantzia horren arabera, Arartekoaren iritziz, osasun prestaziorako sarrera ez zen berdintasunean oinarritu eta gorabehera hau izan zen, hain zuzen ere, Osakidetzari interesatuak aurkezturiko gastuak itzultzeko eskaera egiteko arrazoia.

• Emaitza

Kasu honetako zirkunstantzia guztiak aztertu ondoren, Osakidetzak emakume kexa-egileraren eskaera onartu eta amniozentesi frogaren gastuak bere egitea erabaki zuen.

*Irizpide desberdinak osasun alorreko prestazioen katalogoa aplikatzerakoan (1546/96)*

• Ereklamazioa

Pertsona batek bere kexa azaldu zuen, ordura arte hala tratatu zizkioten arren, angioma lauak pultsaturiko laser kolore-kentzailearen bidez tratatzea ukatu ziotelako.

Tratamendu hura eritetxe pribatu batean jasotzen zuen eta, ondoren, faktura aurkeztu eta kostua itzultzen zion Osakidetzak. Gastu haien azken ordainagiriaren araberako gastuak itzultzeko eskatu zuen eta ukatu ziotela ikusi ondoan egin zuen kexa.

• Azterketa

Izaera orokorrean, Osasun Nazio Sistemaren araberako Osasun Prestatzioak arautzen dituen 1995eko urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak 2.3 artikuluaren c atalean zehazten duen bezala, bere esparrutik at geratzen dira hobekuntza estetikoei dagozkien kasu guztiak. Aurreikuspen honetan oinarritu eta gero, zera kontsideratu zuen osasun administrazioak, laser bidezko tratamendu hori osasun prestazioen katalogoan zegoen arren, ez zela bidezkoa kasu horretan onartzea, haren helburua, pertsonaren itxura estetikoa hobetzea baitzen, hain zlizen ere.

Arartekoaren iritziz, tratamenduaren aldetik kexa ekarri zuen ukapen-erabakia arrazoizkoa bazen ere, baliorik gabe uzten zuten beste zirkunstantzia batzuek.

Pertsona hark izan zuen aldez aurretik hiru laser-saio jasotzeko baimena eta, halaz ere, ukapen-erabakiak bazter uzten uzen baimen horrek eskubide-aitorpen gisa eduki lezakeen balioa.

Gainera, aldez aurreko baimen hura berez eskubideen aitorpentzat hartzerik ez zegoela onartuta ere (kontuan harturik Aseguru eta Kontratziorako Zuzendariak 1996ko martxoaren 7an luzaturikb agirian argi zehaztu zuela kasu horietan ere ez dela emaniko asistentziaren gastua ordaindu behar), Arartekoaren iritziz kexa hark bazuen bere funtsa.

Iritzi honetara heldu ginen aipaturiko agiri haren agindu bat ez zela bete ikusi genuenean; izan ere, argi eta garbi zehazten zen hartan, aldez aurretik onarturiko prestazioen kasuan, Osakidetzako Arlo horretako Zuzendaritzak jakinarazi behar ziola interesatuari onarpen haiek baliorik gabe geratzen zirela.

• Emaitza

Gogoeta hauen ondoren, erabiltzaile honek eginiko gastuak ordaintzeko eskaera ukatzen zuen aktua baliorik gabe uzteko gomendioa egin genion Osakidetzari.

Gomendio honek harrera ona izan zuen eta haren ondotik artxibatu zen kexa-espedientea.

B) **Gizarte Ongizatea** ***Adin txikikoak***

*Pertsona ezinduen garraiorako laguntzak: bideragarritasuna (1333/97)*

• Erreklamazioa

Gurpil-aulki batean mugitu behar duen gazte ezindu batek laguntza eskatu zuen Gasteizko Udaleko bono-taxirako. Udalak ezezko erantzuna eman zion eskaera hari, esanez eskatzaileari laguntza bat eman zitzaiola ibilgailu bat erosteko eta, horrenbestez, errazago mugitu ahal izateko.

Udal horren iritziz, ez zitzakeen titular berak laguntza biak aldi berean eduki.

• Azterketa

Gure instituzioak aztertu egin zuen gazteak eskaturiko laguntzaren gaineko arautegia, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Sailak eta Gasteizko Udalak bono-taxiaren ezarpenari begira izenpetu zuten programan zehaztua. Programa horretan aurreikusi da, egia da, bateraezintasun hori, baina, hala eta guztiz ere, aurreikusi ere egiten du bi aukeren izaera bateragarria, ezindua ibilgailua gidatzeko moduan ez dagoenean, 18 urtetik beherakoa delako, edo bere ezinak gidatzeko karnetaz jabetzea galerazten diolako.

Eskatzailea adin txikia zen eta, horrenbestez, aurrez adierazitakoaren arabera, ez zen Udalak aplikatu nahi zuen bateraezintasun hura bidezkoa.

• Emaitza

Arartekoak modu horretan azaldu zion afera Gasteizko Udalari. Honek espedientea aztertu eta, eginiko okerraz jabetu ondoren, gazteak bono-taxirako eskaturiko laguntza onartzen zuen erabakia hartu zuen.

## 3.12. **LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA**

### 3.12.1 **SARRERA**

Komenigarria da adieraztea lana eta gizarte-segurantza arloak izaera mugatua duela erakundeak bideratzen duen kontrol lanaren barnean; izan ere, arazorik handienak izaten dituen azpiarloa, hau da, Gizarte-Segurantzaren sistema publikoaren gestioa, Estatuaren administrazioari dagokion gaia da, eta horren inguruan Eusko Jaurlaritzak ez ditu beregan hartu legozkiokeen eskuduntzak.

Ildo honetatik, aipatzekoa da aurtengo urtean arlo honetan aldaketak izan direla ohiko edukiei dagokienean. Orain arte ugari baziren modalidade desberdi-

netan langileen kontratataziorako laguntzen tramitazioan eta kontzesioan sorturiko arazoen inguruko kexak, 1997. urtean, Arartekoaren ikerketa-esparru berri bat zabaldu da arlo honetan laneko segurtasunari eta osasunari loturiko arazoei begira. Zehatz adierazteko, hiritar batek aurkezturiko kexa bat zela-eta, amiantozuntzarekin lan egiten duten langileen segurtasuna bermatzeko erabilitako kontrol sistemei buruzko informazioa eskatu dio erakunde honek Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte-Segurantza Sailari.

Amatasun-bajari dagokionean, ama biologikoen aldean amatzakoek jasotzen duten tratu desberdinaren arazoa ere planteatu da erakunde honen aurrean. Kasu hau zehatzago aztertuko dugu hurrengo sekzioan.

Beste urteetan bezala, erakundeak jasp dituen kexa batzuk, gaiarengatik arlo honetan artertu behar izango baziren ere, Herriaren Defendatzailearen esku utzi dira Arartekoaren eskuduntzen esparrutik kanpo dauden administrazioei zegozkielako.

Adibide gisa, aipatzekoak dira Gizarte-Segurantzako Institutu Nazionaleko sistema informatikoan izandako oker batengatik hiritar bati sorturiko kalteak, oker horren ondorioz bere senar ohiaren nominatik eta aparteko ordainsaritik ez baitzen kendu hiritar horrentzat eta bere seme-alabentzat erabakitako pentsioa. Era berean, aipatzekoa da familia euskaldun batek planteaturiko arautegia aldatzeko proposamena, amaren lan egoera aparte utzita, familiarentzako laguntza gisa zehazteko eskatuz amatasunarengatik ematen den prestazioa eta 1967ko urriaren 13ko Aginduan zehazturiko osagarria erditze anitzen kasurako.

Uztailaren 15eko 24/1997 Legearen bidez Gizarte-Segurantzaren Lege Orokorraren Testu Bateratuaren zortzigarren xedapen gehigarrian egin berri den aldaketaren ondorioz, zurztasun-prestazioari dagokio xedapen hori, igo egin da gai honen inguruko aholku-eskaeren kopurua erakundean. Legeak sarturiko aldaketa horrek ukitzen zituen umezurtzek legearen diskriminazio tratu posible bat salatzen zuten beren kontsultetan, arau hori indarrean hasi aurretik, joan den abuztuaren 5ean hasi zen indarrean, hemezortzi urte beteak zituzten umezurtzen kaltetan. Jasotako kexen aurrean, eta kontuan harturik erakunde hau ez dagoela legitimatuta Auzitegi Konstituzionalaren aurrean lege horren kontra konstituziokontrakotasuneko errekurtso bat aurkezteko, legitimatua dagoen parlamentuko ordezkariari, hau da, Herriaren Defendatzaileari, konstituziokontrakotasuneko errekurtso bat aurkezteko aukera aztertzeko eskatu zion Arartekoak.

Azkenik, konstituziokontrakotasuneko errekurtsoa aurkeztea ez zela egokia iritzi zion Herriaren Defendatzaileak. Ildo honetatik, jurisprudentzia konstituzionalean oinarritzen du bere erabakia, eta adierazten du, arauak aldatzeak dakarren tratu desberdin hori, *«araudi produkzio sistemari datxekiola»* (ekainaren 29ko STC 109/1987, 4. oinarri juridikoa).

Halaber, interesgarria da kezkatzen gaituen beste gai bat azaltzea atal honetan, FOGASAren funtzionamenduan gertatzen ari diren atzerapenei dagokiena. Hala bada, erakunde honek jakin du institutu horren ordainketak hamar edo hamaika hilabete atzeratzen ari direla gaur egun, eta horrek kalte handiak sortzen dizkie ukituriko pertsonei.

Era berean, aipatzekoa da kexa kopuru handiak jasotzen segitzen dela autonomia erkidego honetako emakume batzuen aldetik alarguntza-pentsioen kopuruaren arazoaren inguruan. Gai honi dagokionean, talde horrek bere kezka azaltzen du bizitza osoa lanean eta familia zaintzen eman duten emakumeei dirusarrerak eta bizi-kalitatea jaitsi egiten zaizkielako senarra hiltzean.

### 3.12.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

#### A)**Lana**

*Amatzakoak eta amatasun-bajaren parekatzea ama biologikoei dagokienean (1218/96)*

• Erreklamazioa

Emakume batek Arartekoaren esku uzten du oinarrian berdinak diren bi egoeren aurrean, amatasun biologikoa eta amatzakoa, ematen den tratu desberdina. Kexa egileak ulertzen du familia batean integratzen den haur batek, bai familia horretan jaio delako, bai adoptatu delako, arreta berezia behar duela egokitze garaia gainditzeko, eta horrenbestez, berdintasun materiala sustatzeko printzipioa oinarritzat harturik, lan-baldintzak arautzen dituen araudiak soluzio berdina eman behar lieke bi egoera horiei.

Halatan, bi arazo desberdin planteatzen dira adopzioen kasuan. Alde batetik, haurra oso txikia baldin bada, erabateko menpekotasuna du bere zaintzaileengan eta horrek seme biologiko bat jaiotzean sortzen den egoera berdina eragiten du. Horrenbestez, ez diskriminatzeko printzipioak tratu berdina eman beharko lieke bi egoera horiei. Beste kasu batzuetan, babesik gabeko haur bat zaintzeko funtzio soziala betetzen du adopzio egileak eta, jarrera solidarioa eta zerbitzu sozialen ordezkoa den aldetik eta dedikazio pertsonal handia eskatzen duen aldetik, botere publikoek laguntza eskaini behar diote horri.

Arartekoak azter zezan aurkezturiko kasuan, amatzakoak bidegabetzat hartzen zuen ama biologikoek duten amatasun-bajaren eta amatzakoek dutenaren artean dagoen tratu desberdina, hamasei asteko baja baitute ama biologikoek eta zortzi astekoa amatzakoek.

• Azterketa

Planteaturiko gai hori hausnartua zuen dagoeneko Arartekoak adopzioari laguntzeko elkarteren batek eskatuta, baina esan behar da erakunde honen jarduteko aukeretatik kanpo dagoela, estatu mailako legeria aldaketa bat eskatzen baitu, azken batean. Hala eta guztiz ere, aztertu den kasu honetan euskal administrazioren barneko langile bat zen, eta horrenbestez, gure esparruaren barnean zegoen.

Halaz ere, administrazioko ordezkariak eta administrazio horretan lanean ari diren langileen ordezkariak dira lan-baldintzak negoziatzeko gaitasuna duten

bakarrak. Hala ere, aipaturiko autonomia kolektiboaren printzipio hori erabat errespetatuta ere, hiritarren oinarrizko eskubideak zaintzeko betebeharra ematen dio legeak erakunde honi, eta baita pertsona guztien berdintasuna lortzeko bidean aurrera egiteko baldintzak sustatzeko betebeharra ere. Planteamendu horretan oinarriturik, Arartekoak, Hazienda eta Administrazio Publikoa Sailaren esku utzi nahi izan zuen hurrengo lan-baldintzen erregulazioan adopzioari eta amatasun biologikoari emaniko tratuak erabat parekatzeko aukera.

Halatan, aukera horri laguntzeko, agerian jarri zen orduko Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarde Mailako Neurrietarako Lege-Proiektua-, gaur egungo 13/1996 Legea, eta Langileen Estatutuaren (LE aurrerantzean) 48.4 artikuluaren aldaketa bat jaso zen lege hartan. Hona hemen hitzez-hitz: *«Adopzioaren kasuan, adoptaturiko haurrak zazpi hilabete baino gutxiago baditu, lan-etenaldiaren iraupena hamasei hilabetekoa izango da gehienez, langileak nahi bezala kontatuta, adopzioaren erabaki administratibo edo judizialaren egunetik hasita, edo adopzioa onartzen duen ebazpen judizialetik aurrera kontatuta. Adopzioan harturiko seme-alabak bederatzi urte baino gehiago eta bost urte baino gutxiago baditu, lan-etenaldiaren iraupena sei hilabetekoa izango da gehienez. Aitak eto amak lan egiten badute, bietako batek baino ez du erabiliko eskubide hau».*

Ikus daitekeen bezala, baja horren iraupena argi zabaltzen da adopzioan harturiko haurrak 9 hilabete baino gutxiago dituen kasuan. Halaz ere, ez dira oso argiak haurrak 9 hilabetetik gora eta 5 urtetik behera baldin baditu baja hori sei astera murrizteko arrazoiak, ezta ere adopzioan hartutako haurrak adin hori gainditzen badu bajarako eskubiderik ez izateko arrazoiak. Ararteko a bat dator adopzioari laguntzeko elkarte batzuek noizbait azaldutako argudioekin. Argudio horien arabera, bereizketa adinaren arabera soilik egiteak ez du zentzurik, adoptatu guztiak behar baitu bere familia berrira egokitzeko denbora bat -eta alderantziz-, aparte utzita haurraren adina. Ez da ahantzi behar adoptaturiko haurrak familia gogor eta liskartietatik datozela kasu askotan.

Administrazio horren lan-araudiaren ezaugarrietako bat izan da legearen araberako aldaketei aurre hartzea eta gizarte mailan garrantzi handia duten gaietan ereduak ezartzea. Ildo horretatik jarraituz, ulertzen dugu egokia izango litzatekeela adopzio kasu guztiei tratu berdina ematea. Baina, nolanahi ere, hori ezinezkoa bada eta beharrezkoa balitz muga kronologiko bat ezartzea, eta adin horretatik aurrera adoptaturiko haurrak autonomia handiagoa duelako baja hori murritzagoa izan badaiteke, bederatzi hilabete baino askoz ere adin handiago batean pentsatu beharko litzateke. Neurri bereziak eskatuko dituzten kasu indibidualak beti egon badaitezke ere, irizpide objetiboak bilatu behar dira. Besteak beste, 8 urte inguruko momentu hori har daiteke kontuan, adopzioari buruzko azterketa batzuen arabera, gorabehera emozionalei dagokienean arazo txikiagoak izaten diren garai bat hasten baita adin horretan; edo 6 urte inguruko momentua, derrigorrez eskolatzeko adina delako eta LE-ren 37-5 artikuluak seme-alabak zaintzeko lanegun murriztua izateko eskubidea mugatzen duelako adin

horretan. Nolanahi ere, gutxienez 8 hilabeteko lan-etenaldia izan behar dela uste dugu kasu guztietan.

Argudioa erabakitzailea ez bada ere, ez dugu ahantzi behar adopzio kasuak oso urri direla gure inguru sozialean, eta horrenbestez, proposaturiko neurriek ekonomia mailan ez dutela garrantzi handirik izango. Halaber, lehen adierazi den bezala, babesik gabe dauden haurrak adoptatzea eta etxean hartzea gizarte-solidaritatearen erakusgarria da, eta administrazio publikoak horri laguntza eman behar dio.

Gogoeta horiek ikusi ondoren, Hazienda eta Administrazio Publikoa Sailak idatzi bat igorri zuen, eta 1996-1997 urtean EAE-ren administrazio zerbitzuan ari diren lan kolektiboen hitzarmena jasotzen zuen idatzia horretan. Hitzarmen horrek honako hau adierazten zuen adopzioarengatik eman beharreko bajari dagokionean:

> *«Adopzioaren kasuan, adoptaturiko haurrak zazpi hilabete baino gutxiago baditu, lan-etenaldiaren iraupena hamazazpi hilabetekoa izango da gehienez, langileak nahi bezala kontatuta, adopzioaren erabaki administratibo edo judizialaren egunetik hasita, edo adopzioa onartzen duen ebazpen judizialetik aurrera kontatuta. Adopzioan harturiko seme-alabak bederatzi urte baino gehiago eta bost urte baino gutxiago baditu, lan-etenaldiaren iraupena 50 egun naturalekoa izango da gehienez. Baja egunak aitaren eta amaren artean banatu ahal izango dira bien artean 50 egun gainditu gabe».*
>
> *Adopzioa nazioarte mailan egiten bada, eta. adopzio hori egiteko atzerriko hiri batera pertsonalki joatea ezinbestekoa bada, behar bezala egiaztatu ondoren, bidaia hori egiteko beharreko denboran lanean baimena izateko eskubidea izango da, 15 lan eguneko epea gainditu gabe beti ere».*

Honela, hitzarmen horren bidez ez dira jaso gai honen inguruan proposatzen ziren aldaketa guztiak, baina nolanahi ere, ezin da ukatu aurrerapen handia lortu dela, nazioarte mailako adopzioei dagokienean batez ere.

• Emaitza

Emaitzari dagokionean, Arartekoaren ustez pertsona guztiek duten berdintasunerako eskubideak, eta haurren interesa babesteko oinarrizko printzipioak, babes hori baitu xede haurrei dagokien legeria guztiak, amatasun biologikoaren eta adopzioaren bidezko amatasunaren tratua parekatzera bideraturiko araudi aldaketa guztiak bultzatu eta sustatzera eramaten gaitu. Halaz ere, parekatze horrek estatu mailako legeriatik etorri behar du, eta sinaturiko akordioen borondate librean oinarritu behar du beti ere, kontuan harturik langileen eta gestiogileen arteko autonomia kolektiboa. Halatan, gure jarduera esparruaren barnean dauden gestio guztiak amaitu ondoren, espedientea itxi eta artxibatu zen beste tramiterik gabe.

## 3.13. **HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA**

### 3.13.1. **SARRERA**

Alor honetan, aurreko urteetan aurkeztu izan diren antzeko kexak aurkeztu dira aurten ere. Hirigintzari dagokionez, lanak egiteko baimenei buruzko gorabeherek eragin dituzte galdera eta kexarik gehien-gehienak.

Etxebizitzen alorrari dagokionez, aurten, kexa kopurua ez da oso-oso handia izan. Era askotako kexak aurkeztu dira ordea: interes sozialeko etxebizitzen eraikuntzen akatsak, etxebizitzetako sarreretako oztopoak, diru laguntzak jasotzeko eskabideak, ordezko etxearako eskubidea, etab.

Ez dugu, baina, aipatu gabe utzi nahi, joan den urtean, 1997an, abenduaren 4an, Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuela Etxebizitzetarako Sarbidea Errazteko 20/1997 Legea.

Izan ere, lege xedapen horrek Euskal Autonomia Erkidegoko ezinduek eta elbarriek bere eskabide nagusietako bat lortu dutela esan nahi baitu: alegia, esan nahi du, ingurune fisikoan sartzeko eskubidea guztiei, eta batez ere mugitzeko oztoporen bat dutenei, ziurtatzen dien Lege mailako arau bat onartu dela azkenean.

Arartekoak, erakunde honen aurrean elbarrien elkarte askok behin eta berriz egina zuten salaketari erantzunez, 1994. urteko txostenean ere aztertua zuen arazo hau, zenbait lekutan sartzeko dauden oztopoak direla-eta sortzen dena. Azterketa horretan argi utzi zen besteak beste zein ziren gure autonomia erkidego honetan dztopoak kentzeko dagoen araudia behar bezala ez betetzearen arrazoiak, eta zein ziren ere mugitzeko zailtasunak zituzten pertsonen arazoak konpontzeko azken aldian boladan zebiltzan joerak. Azkenik, proposamen batzuk ere egin ziren, lehenbailehen gauzatzeko, eta gomendio bat eman zen etorkizunerako, sarbideak errazteko eta oztopoak kentzeko indarrean dagoen araudia betera zedin behingoz.

Horri buruz esan behar da, sarbidea errazteko legea bere edukian guztiz bat datorrela aipatu berri dugun txosten horretan gure aldetik adierazi ziren iritzi eta irizpideekin.

Araudi horrek bere osotasunean heltzen die arkitektura eta hirigintza oztopoei buruzko xedapenei, orobat garraio eta hedabideetako oztopoei buruzkoei ere, eta heldu, ikuspegi integratzaile batez heltzen die, gainera, «gizarte eta erkidego ingurunean pertsonak osorik eta libre garatzea, eta hartara, erkidego honetako pertsona guztiei -eta oztoporen bat dutenei bereziki-, ingurune fisikoan sartzeko eta komunikatzeko aukera bermatuko dien eredu berri baten» alde eginez, motiboen azalpenean adierazten den bezala.

Eta horren arabera prestatu dira hiri ingurunera eta espazio publikoetara oztoporik gabeko sarbidea izateko xedapen orokorrak, bai etxebizitzetan -hala etxebizitza berrietan nola oraingo zerbitzu publikoetako egoitzetan berritze, handitze edo aldatze lanak eginez-, bai garraioetan eta bai hedabideetan ere.

Eta horretarako gune berezi batzuk gordeko dira hiri ingurunean, espazio publikoetan eta jendeak erabiltzeko eraikuntzetan -hala nola, adibidez, auditorioak, kontzertu aretoak, aparkatzeko lekuak, zerbitzu higienikoak, aldagelak eta dutxak, etab.-, turistentzako ostatuetan, etxebizitzak izateko prestatzen diren eraikuntzetan -bai babes ofizialeko etxebizitzetan bai etxebizitza libreetan-, garraioan, eta komunikazio sistema edo hedabideetan. Garrantzi handikoa baita gure ustez, azpimarratu nahi dugu, aipatu diren gune berezi horiek gordetzeaz gainera, badela ere asmoa, Euskal Autonomia Erkidegoa jabe den ikus-entzuteko hedabideetan, albistegietako batean baderen, zeinuen hizkuntzaren itzultzaile bat jartzeko, eta azpitituluak ere bai, komunikatzeko oztopoak dituzten pertsonen informazio eskubidea bermatzeko.

Aipatu diren elementu horien guztien irisgarritasuna edo sarbidea errazteko, Legearen 13. artikuluak xedatzen du, Eusko Jaurlaritzak, foru diputazioak, udaletxeek eta gainerako erakunde publikoek lau urteko programak prestatu behar dituztela, egokitzeko dauden espazioen inbentarioaren katalogoa eta egin beharreko lanak noiz eta nola egin behar diren zehazteko. Eta hori dela eta, legeak dio, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, bi urteko epea dagoela lau urteko lehen programa prestatzeko. Era berean, irisgarritasuna eta sarbidea laguntzeko, behar diren neurri guztiak hartzera behartzen ditu administrazio publikoak arau horrek.

Bestalde, eta hiri plangintza betearazteko tresnei ez ezik Euskal Autonomia Erkidegoaren, foru diputazioen eta udaletxeen baimen errejimenari eta kalifikazioei ere onespena emanez, kontrol neurri batzuk zehazten dira delako arau horretan iragarrita dauden aginduak behar bezala bete daitezen.

Xedapen horren berrikuntzetako bat, eta duen arau maila izatearen arrazoietako bat, zigor markoa da; izan ere, eta motiboen azalpenean aipatzen den bezala, «oinarri-oinarrizko zutabe bat da legea behar bezala betearaz dadin».

Lehen ere aipatu dugun eta gai horri buruz 1994. urtean Arartekoak Eusko Jaurlaritzari aurkeztu zion azterketa batean ikus daitekeen bezala, elbarrien elkarte batzuek arau horietan aldez aurretik zigor errejimenarik ez prestatu izanari leporatzen zioten 59/81 eta 291/83 ebazpenak behar bezala betegabe uztea.

Hala ere, ez dugu aipatu gabe utzi nahi, ezen, gehienen ustez, zigor errejimenen bat ezarri beharra zegoela araua behar bezala beteko zela ziurtatuko eta bermatuko bazen, baina, aitzitik, beste batzuen ustez, ez zuela zentzu handirik inolako zigor neurririk hartzeak, hain zuzen ere administrazioa bera zelako araudi horren arau hausle nagusi eta printzipala.

Eta puntu horri dagokionez, aipatu eta nabarmendu beharra iruditzen zaigu, arau horren arabera, lanen sustatzailea, proiektuaren egilea, eraikuntza lanen enpresarioa eta zuzendari teknikoak izendatuko direla arduradun eta erantzule baldin eta egiten diren lanak udalaren aurretikako baimenik gabe eta oztoporik gabeko sarbideak izateko hartuta dauden erabakiak bete gabe uzten badira.

Bestalde, *«udal baimenaren batean babesten diren lanen kasuan, arau horren lege hauste larria edo oso larria egiten bada, orobat zigortuko dira*

*proiektuari bere onespena emart dion arduraduna eta udalbatzan baimena ematearen alde bozkatzen duten zinegotziak ere, eta hala egingo da, bai proiektu bat onartzeko aurretik behar diren txostenarik ez denean eta baita txostena bera, arau* hori *betetzen ez duela-eta, ez egokitzat jotzen denean».*

Zernahi dela ere, legeak ez du aurreikusten zigor neurririk legearen kontrako akordioak hartzen dituzten -hots, arauaren edukia hausten duten- administrazioaren organoentzat.

Ez da segur aski zigorra biderik egokiena legez kontrako jokabideak edo jarduerak saihesteko eta gehiago ez egitera hertsatzeko, baina, dudarik gabe, komenigarria izanga litzateke, justiziaz gainera, administrazioen artean beste kontrol mekanismoren bat ere izatea administrazioari haren akordioren batek oztoporik gabeko sarrerak sustatzeko arauak betetzen ez dituela jakinarazteko eta bide batez eskatzeko delako akordio hori bertan behera utzi beharko litzaketeela edota, bestela, legea betearazteko moduan egokitu beharko litzatekeela.

Indarrean dagoen zigor araudian jasota dagoenez, legea hautsi duenak zer erantzunkizun maila duen, sarbidea errazteko egin gabe utzi diren lanak egiteagatik zenbat ordaindu behar den, zuzenean edo zeharbidez zer nolako kalte eragiten den, erantzuleek lehenago ere lege hausterik egin duten, eta legea hautsi duten horiek zer erantzukizun maila izan duten, zigorrak izan daitezke arinak, larriak eta oso larriak, eta 20.000.000 pezetarainoko zigorrak ere ezarri ahal izango dira kalte ordain gisa.

Gainera, zigorren bat ezarri bazaio ere, arau hausleak, zigorra ordaintzeaz gainera, berritu egin beharko du proiektua, eta lanak legezko proiektu berri horretara egokitu arauzko epearen barruan.

Gainera, 22/1997 Legearen V Tituluan Oztoporik Gabeko Sarbideak Laguntzeko Euskal Kontseilu bat sortzea proposatzen da, arazo honekin zerikusirik duten guztiek -euskal administrazio publikoetako ordezkariak, tokietara heltzeko oztopoak dituzten pertsonen eskubideen alde lan egiten duten erakunde eta elkarte aipagarrienen ordezkariak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko organizazioak, sustatzaileak eta eraikitzaileak babesteko elkarteak, elkarte profesionalak eta abar- nora jo izan dezaten eta haiek ere parte hartzerik izan dezaten.

Eta bukatzeko, ez genuke adierazi gabe utzi nahi, ezen, arau hau edukirik gabe geratuko ez bada, eta arauaren azken bigarren xedapenaren arabera betiere, Eusko Jaurlaritzak, lege hau indarrean sartu (hau da, legea argitaratu eta lau hilabetera) eta sei hilabeteko epean, beharrezkoak diren teknika alorreko arau guztiak prestatu eta onartu beharko lituzkeela, arestian aipatu diren leku horietara -hau da, hirira, espazio publikoetara, etxebizitzetara, garraioetara, eta hedabideetara edo informazio eta komunikazio sistemetara- sarbidea izateko eta oztoporik gabe heltzeko bete behar diren baldintzak behar bezala zehaztu eta erabakita uzteko.

Lege honen edukiari buruz gogoeta horiek guztiak egin eta gero, ez da duda handirik administrazioak gai honekiko eta lortu nahi litzatekeen helburuarekiko izan beharko lukeen jarreraz. Eta ildo horretan, eta Ararteko honen iritziz, ezinbestekoa eta nahitaezkoa da aginpide publikoak gehiago inplikatzea auzi

honetan, araudian iragartzen diren legeak behar bezala beteko direla ziurtatzeko eta bermatzeko, eta horrenbestez, hori lortuko bada, Arartekoari behar-beharrezkoa iruditzen zaio, administrazioak aurreikusita dituen eta guztiontzako moduko ingurunea lortzea helburu duten ekimen neurri positiboak hartzea eta bultzatzea, neurri horiek eragingo baitute hemengo biztanle guztien, eta batez ere mugitzeko zailtasunak edo bestelako eragozpenen bat duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea, berdintasun printzipioaren adierazpen goren gisa.

### 3.13.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

#### A) **Hirigintza**

*Udalaren erantzukizuna baimen bat baliogabetzeagatik eta zegokiona ez ordaintzeagatik (450/96)*

• Erreklamazioa

Guenesko herritar batek Ararteko honengana jo zuen, 1993ko ekainean, Udalak baimena eman ziola baserri bat eraikitzeko, eta handik urte batera, Gobernu Batzordeak baimena kentzea eta, gainera, «administrazio erantzukizuneko espedientea bideratzea» erabaki zuela salatzeko.

• Azterketa

Baimena eman, eta gero kendu egin zitzaion guenestar horrek erantzukizun deklarazioa eta, beraz, egindako kaltea ordaintzea eskatu zion Udalari, kalte ordaina zergatik eskatzen zuen, puntuz puntu behar bezala arrazoituz. Ez zuela erantzunik jasotzen eta, behin eta berriz egin behar izan zion udalbatzari eskabide bera.

Udalak erantzuten ez zuenez, Arartekoak bere burua eskain zuen bitartekotza lana egiteko salaketa aurkeztu zuen herritarraren eta Udalaren artean, hartara, udalaren erantzukizuna eta kalteak zenbaterainokoak ziren neurtu ahal izateko.

• Emaitza

Udalak Arartekoaren bitartekotza onartu ez bazuen ere erakunde honen esku hartzeak auzi hura mugitzeko balio izan zuen zuen behintzat, eta hala, han eta hemen hitz egin ondoren, Udalak, udalbatzaren onespenarekin, herritarrari kalte ordaina ematea onartu zuen, ez herritarrak eskatzen zuen guztia, baina zati handi bat bai bederen.

*Administrazioaren zerbitzuak dauden eraikuntzetan eraberritze edo hobekuntza lanak proiektatzen direnean mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontuan hartu beharraz (622/96)*

• Erreklamazioa

Elbarrituen elkarte batek erakunde honen aurrean salatu zuen Okondoko Udalak ez zuela udaletxea eraberritzeko lanetan hiri eta arkitektura oztopoak kentzeko araudia behar bezala betetzen.

Hain zuzen ere, elbarrituen elkarteak adierazi zuenez, Okondoko eraikuntza horretarako sarbidea, eta orobat solairu batetik bestera mugitzea ere, ezinezkoa gertatzen zen elbarri zeuden edo ezintasunen bat zuten pertsona guztientzat.

Kexa aurkeztu zutenen arabera, oso-oso larria zen egoera; izan ere, mediku zerbitzua eta gizarte laguntzarako zerbitzua baitaude eraikuntza horretan.

• Azterketa

Okondoko udalbatzari kexaren berri eman ondoren, jakinarazi ziguten, udaletxea berritzeko egin ziren lanak ez zirela oso handiak izan, eta ez zituztela eraikuntzaren oinarrizko elementuak ukitu. Eta orobat jakinarazi ziguten, Udalak kontuan hartu zituela ezintasun edo elbarritasunen bat zuten pertsonak, eta saiatu zirela haientzat udaletxeareko sarbidea errazten.

• Emaitza

Udaletxeko lanek ez zituztenez arkitektura oztopoak kentzeko gure erkidego honetan gaur egun indarrean dagoen araudiko aginduak betetzen, Arartekoak ez zuen Okondoko udalbatzari, mugitzeko oztoporen bat zuten pertsona ezindu edo elbarri guztiei herriko etxerako sarbidea erraztuko bazitzaien, piskana-piskana beharrezko neurriak har zitzala eskatu beste aukerarik izan.

Orobat jakinarazi zitzaion Udalari, ezen, 291/83 Ebazpenaren arabera, arkitektura oztopoak gainditzeko araudian azaltzen diren konponbideez gainera, badirela ere beste hautabide batzuk konponbideren bat bilatzeko, baldin eta eraginkorrak badira eta erabat edo aldi baterako ezindua edo elbarritua dagoen pertsonari moldatzen lagunduko badiote behintzat, eta, betiere, elbarrien elkarteak direla egokienak eta aproposenak neurri berezi horien eraginkortasuna neurtzeko.

*Jadanik ibiltzeko baimena ez dutela eta, baserri baten aurrean utzitako ibilgailu hondatu batzuk, jabeak ez kentzekotan, Udalak haiek kentzeko duen obligazioaz (841/96)*

• Erreklamazioa

Maruriko herritar batek Arartekoarengana jo zuen, bere herriko Udalari agindu ziezaion agindu ziezaiola bere bizilagun bati, jadanik ibiltzeko baimena ez zuten ibilgallu batzuk, baserriko atariaren aurrean utzita, handik ken zitzala.

Izan ere, baserri hofretan bi familia bizi ziren, eta haien arteko harreman gaiztoak zirela eta, haietako batek bertan behera utzitako ibilgailu hondatuak, era guztietakoak, uzten zituen baserriaren aurrean, etxerako sarbidea oztopatuz.

• Azterketa

Arartekoak Maruriko Udalera jo zuen, agindu ziezaion ibilgailu hondatuak baserriaren aurrean uzten zituen herritarrari, handik ken zitzala, baserriari eta inguruari zegokien esasungarritasuna eta apaingarritasuna itzuliz berriro. Gainera, adierazi zion, ez Lur zoruaren Legearen Berridazketaren ez Maruriko Araudi Ordezkatzaileen arabera, ezin hiritu edo urbanizatuzko lurra ezin zela han ibilgailu hondatuak uzteko erabili.

Orobat erantsi zuerj Arartekoak bere idazkian, ezen, Maruriko Udalak adierazia zuenaren kontra, aztertzen ari ziren egoera hori ez zela batere nekazaritza lanetarako makineria uzteko baimenarekin homologagarria, makinak uzteko lurraren erabilera hori ezin hirituzko lurraren erabilerari dagokiolako, hau da, lurra nekazaritzarako, abeltzaintzarako edota basogintzarako erabiltzen denerako. Eta, berriz, ibilgailu motordun hondatuak pilatzea gehiago zegokiola industria lurretan izaten den biltegiratze jarduerari.

• Emaitza

Arartekoak, beraz, gomendio hau egin zion Maruriko Udalari: har zitzala hartu beharreko neurri guztiak hautsitako hiri errealitate hura bere onera ekartzeko, eta agindu zezala, hortaz, bertan behera utzitako ibilgailu hondatu haiek utzitako lekutik lehenbailehen kentzeko.

Maruriko Udalak ez zuen gure aholkua aintzat hartu, eta zalantzan jarri zituen haren legezko oinarriak. Nolanahi ere, handik gutxira, kexa aurkeztu zuen pertsonak hots egin zigun telefonoz esanez bere bizilagunak, azkenik, lekutik kendu zituela bertan behera utzitako ibilgailu hondatu guzti haiek.

*Hirigintza hitzarmen bat zela eta, ordezko etxebizitzarako eskubidea bermatzeko obligazioaz (1012/96)*

• Erreklamazioa

Bilbo Zaharra auzoko bizilagun batek arazoak izan ditu Urazurrutia eta Iturburua kaleetako lanak direla eta. Lan Horiek kudeatzeko hirigintza hitzarmen bat erredaktatu eta izenpetu zen, eta hitzarmen horren arabera, orubeak Udalaren eskuetan uzten ziren, eta Udalak bizilagunei ordezko etxebizitza emateko ardura hartzen zuen trukean.

Hasieran, etxebizitza zaharrak bota eta berriak egin ziren bitartean, bizilagunak beste udal etxebizitza batzuetan bizi ahal izan ziren, auzo hartan bertan.

Kexa hau aurkeztu zuen bizilagunak salatzen zuenez, bere etxebizitza hondagarritzat jo zenez Udalarekin hirigintza hitzarmena izenpetu baino lehen, Udalak uko egin zion bera hartzeari. Udalbatzak zioenez, berriz, etxea hondatzeko zorian zegoeia hitzarmena izenpetu baino lehen adierazi zenez, kasu hartan ez zen bidezkoa ordezko etxebizitzarako eskubidea, 1992ko Lur zoruaren Legearen Berridazketaren laugarren xedapen gehigarrian iragarria, aplikatzea.

• Azterketa

Kexa aztertu ondoren, Arartekoak gomendio hau egin zion Bilboko Udalari: alegia, onar zekiola bizilagunari ordezko etxebizitza izateko eskubidea. Izan ere, gomendio hori egiten bazion, ez zion egiten legezko araudiak hala eskatzen zuelako, baizik eta hiriaren admnistrazioak izenpetu zuen hirigintza hitzarmenaren arabera, eta besteak beste, auzoko bizilagun guztiei ostatu emateko ardura Hartzen zuelako administrazioak, hitzarmena izenpetu zenean etxebizitzak zer egoeratan zeuden gorabehera. Eta gainera ez litzateke ahaztu behar hirigintza hitzarmena izenpetu zenean Udalak bazekiela bizilagun horren etxebizitza hori hondatzeko zorian zegoela, udalbatzak berak egin baitzuen etxeari buruzko hondamen adierazpena.

• Emaitza

Bada azkenean, eta Arartekoari jakinarazi zitzaionez, Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren Lurralde Ordezkaritzaren artean kexa hau aurkeztu zuen bizilagunari babes ofizialeko etxebizitza bat .jabetasun errejimenean ematea erabaki zen, eta Urazurrutia kalean, gainera, bere lehengo etxebizitza egon zen kalean bertan alegia.

*Arrazoi estetikoak direla eta, etxe bateko fatxadan gas hornikuntza jartzeko egin beharreko lanetarako baimena ukatzea (1358/96)*

• Erreklamazioa

Arrasateko etxe bateko jabe batzarrak erakunde honen aurrean salatu zuen bere herriko udalaren jarrera, Udalak ukatu egin zielako etxeko fatxadan gas hodiak jartzeko behar zen baimena, eta orobat salatu zuten ere, gas hornikuntza etxearen kanpoaldean jartzeak apaintasunari egiten zion kaltea nolabait murrizteartren, Udalak etxeko gas hornikuntza aldatzeko eta, ordez, gas hodiak orrazi batekb hortzen antzera antolaturik -hodiak estu-estu elkarren ondoan jarriak-jartzeko eskatu ziela.

• Azterketa

Aurkezturiko kexa zela eta, erakunde honek informazioa eskatu zion Arrasateko Udalari. Udalak alegatu zuenez, bere jardunbidea Arrasateko Araudi Ordezkatzaileen 31. artikuluan -eraikuntza batean erabil daitezkeen materialak arautzen dituena- oinarritzen zen -«ezingo da estetika maila apaleko eta ingurukoekin adosten ez den etxebizitzarik egin»-, eta zioenez, orobat babesten zen ere, Lur zoruaren Berridazketaren 21.1. artikuluan, eraikuntza jabeak behartzen dituena etxeak, kalera aldera, behar bezain apain edukitzera.

Erakunde honen zenbait ordezkari Arrasatera joan ziren gas hornikuntzak etxebizitzaren fatxadan eta inguruan zuen eragina hain handia zen egiaztatzeko.

Horren ondoren auzi horri buruzko legeak aztertu ziren xehe-xeheki, kexatik ondorioztatzen ziren kontuak aztertze aldera.

Arartekoaren iritziz, gas hornikuntzarako hodiak pintatzeko erabili zen pintura eta eraikuntzaren fatxadakoa guztiz berdinak ez baziren ere, ezin zitekeen, inola ere, gas hornikuntza hura desegokitzat jo. Eta desegokiasunagatik begia jotzen zuten lanak baizik ez zirenez debekatzen araudi ordezkatzaileen hiri ordenantzetan, ez zegoen arrazoirik gas hornikuntzak ez zuela araudia betetzen esateko.

Orobat aztertu zen Udalak onartu zuen txosten teknikoa, gas hodiak elkarren ondoan jartzea agintzen zuena fatxadari buruzko proiekzioa eta bide batez begiko eragina ere gutxitu edo murrizte aldera. Eta horri buruz hau erabaki zen, alegia, gaia sakonetik aztertu gabe, teknikariek ezin zituztela irizpide estetikoak nahi bezala erabili, alegia, ezin zutela araudi ordezkatzaileetan erabiltzen zirenak baino irizpide zabalago edo murriztaileagoetara jo besterik gabe.

• Emaitza

Arartekoren aldetik, azkenik, hauxe gomendatu zitzaion Arrasateko Udalari: alegia, egin ziren lanen eta herriko hirigintza arauen artean inolako kontraesanik ez baitzen, onar zezala gas hornikuntza jartzeko baimena.

Orobat ere, eta arrazoi berberak tarteko, etxe jabeen elkarteari eta legez kanpoko lanak baimenik egiteagatik gas hornikuntza jartzeko ardura zuen enpresari ezarri nahi zizkien zigorrrak bertan behera uztea gomendatu zion Arartekoak Udalari.

Arrasateko Udalak onartu egin zuen Arartekoaren gomendioa, eta hala, Alkatetza Ebazpen baten bitartez, legeztatu egin zituen gas hodiak jartzeko lanak, eta baliogabe utzi zuen, berriz, etxe jabeen batzarrari eta gas hornikuntzaz arduratzen zen enpresari ezarritako zigorra.

## B) **Etxebizitza**

*Babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko eta laguntza zuzenak jasotzeko bete behar diren gutxieneko errenta baldintzez (80/97)*

• Erreklamazioa

Herritar batek Arartekoarengana jo zuen galdetuz ea zer iritzi zuen Eusko Jaurlaritzak babes ofizialeko etxebizitzen erosketa finantzatzeko laguntza zuzenak emateko erabiltzen zituen irizpideez. Izan ere, kexa hau aurkeztu zuen herritarrak eskuratua baitzuen babes ofizialeko etxebizitza baten adjudikazioa, VISESA Elkarte Publikoaren aldetik, eta orobat finantziazioa ere, Eusko Jaurlaritzaren onespenarekin. Eta hala eta guztiz ere, ukatu egin zitzaizkion finantziaziorako laguntza ekonomiko zuzenak, ez zuelako, npnbait, laguntza horiek jaso ahal izateko, 103/1992 Ebazpenaren V.l.b) artikuluan, 1992ko apirilaren 29koan, zei-

nak, 109/1993 Ebazpenaren zortzigarren xedapen gehigarriaren bidez, etxebizitzen alorreko finantza neurriak arautzen baitzituen eskabidea egin zen unean, eskatzen zen gutxieneko ondasunaren baldintza betetzen.

Delako artikulu horretan hau eskatzen zen, hain justu- erosten zuen etxebizitzaren prezioaren seirenari zegokion diru sarrera izan behar zuela gutxienez erosleak, eta hori ganbararen, garajearen eta gainerako eranskinen prezioa kontuan hartu gabe. Eta orobat agintzen zen, behin behinekoz, etxea erosteko eskabidea egin eta ondasun higiezinen jabetasun agiriren bat aurkezten zutenek, edota, bestela, etxebizitzaren prezioaren %20 baino gehiago aurreztua zutela agiri bidez ziurtatzen zutenek laguntza zuzenak jasotzeko eskubidea izango zutela.

• Azterketa

Kexa aztertu ondoren, erakunde honek hau eskatu zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari: alegia, argi zezala zergatik eskatzen zion erostunari, laguntza zuzena jasoko bazuen, gutxieneko diru sarrera ponderatu bat agiri bidez ziurtatzea, baldin eta diru sarrera horiek babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko aukera izateko betetzea eskatzen ziren baldintzak baino handiagoak baziren.

Eta hala, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, idazki bat helarazi zigun, non esaten baitzen, prozedura desberdinak zirela bata eta bestea, efa elkarrekin zerikusirik ez zutela eskatu beharreko baldintzak erabakitzeko orduan.

Eta horrenbestez, Arartekoari komenigarria iruditu zitzaion laguntza zuzenei buruzko oharpen hauek egitea Sailari. Laguntza mota horiek helburu sozial jakin bat dute; alegia, errenta maila apala duten gizarte sektoreei etxebizitza publikoak ordaintzen laguntzea da haien helburu nagusia. Izan ere, bete beharreko baldintzak -gehieneko baldintza ekonomikoak batez ere- murriztaileagoak dira, eskatu ere, lanbide arteko gutxieneko lansaria hainbat aldiz (5,5, aldiz aipatu dugun ebazpen horretan, eta, gaur egun, 3,5 aldiz gehiago) ez gainditzea eskatzen baita. Laguntza eskuratu ahal izateko gehieneko errentaren gaineko irizpide horiez gainera, irizpide zuzentzaile bat zehazten da laguntza jaso dutenek etxebizitza erosteko adina diru sarrera izango dutela bermatzeko. Muga hori jartzeak badu izateko arrazoia, alegia, inork, diru laguntza jaso ondoren, laguntza hori eman zaion helburuurako ez beste baterako erabil dezala saihestea. Baina, nolanahi ere, babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko aukera izateko gutxieneko diru sarrera eskatzea etxebizitza horietako bat eskuratu nahi duen orori aldez aurretik oztopo bat jartzea da, erabiltzen den irizpidea murriztailea da, beraz. Eta hala, berme bikoitz horren kariaz, bai laguntza zuzenak eskuratu aurretik bai laguntza horiek adjudikatzen diren bitartean, hemen orain aurkezten den hau bezalako auziak gerta daitekeze: alegia, herritar batek etxebizitza bat adjudikatzeko gutxienez irabazi beharko lukeena baino gehiago irabaztea baina aldi berean etxebizitza hori erosi ahal izateko laguntza jasotzeko eskatzen dena baino gutxiago irabaztea. Horrenbestez, paradoxa bada ere, etxebizitza ofizial bat erosteko eta

mailegu zuzena eskuratzeko adina diru irabazten duen pertsona bat berak baino premia handiago duten pertsonentzat izan beharko luketen neurriak ezin baliatu geratzen da, eta hala, horrek Euskal Autonomia Erkidegoko aginpide publikoen laguntza hartu beharko luketenak laguntzarik gabe uztea dakar azken batean.

• Emaitza

Gauzak horrela, eta 78/1997 gomendioa, maiatzaren 29koa, kontuan harturik, hau jakinarazi zion erakunde honek Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari:

> *"Eta orobat dago etxebizitza duina izateko eskubidearen kontra eta berdintasun materialaren printzipoaren kontra -bai eskubidea bai printzioa Konstituzioaren 47. artikuluan eta 9.2. artikuluan daude, hurrenez hurren, jasoak-, eskatzen zen gutxieneko diru sarrera zutela-eta babes ofizialeko etxebizitza eskuratu duten pertsona batzuek laguntza zuzen horiek gabe uztea ez direlako laguntza horiek izateko gutxienez eduki beharko litzatekeen diru sarrera izatera iristen. Hori guzti hori kontuan harturik, eta erakunde honen iritziz betiere, hartu behar diren neurriak hartu behar dira ez dadin berriz gertatu inor laguntza zuzen horiek gabe geratzea babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko adina diru sarrerak izanda."*

Arartekoaren idazkiari erantzunez, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak, berriz azaldu zuen, bestelako arrazoirik eman gabe, bi prozedura desberdin bereizten zituztela, zein bere baldintzekin, eta hala, etxebizitza lortzeko baldintza batzuk zeudela eta laguntza zuzenak lortzeko beteste batzuk.

Eta hori guztia zela eta, Arartekoari komenigarria iruditu zitzaion bere gomendioa kontuan har zezatela berriro azaltzea, eta hala, beste idazki bat helarazi zion Sailari, eta jakinarazi zion, ezen, haren ustez, gaur egun indarrean dagoen araudia laguntza horien berezko helburuen aurka doala, zeren, gerta baitaiteke, inori, eskatzen diren gutxieneko baldintza ekonomikoak betetzen dituelako babes ofizialeko etxebizitza bat adjudikatzea, finantzatze kualifikatua eta guzti, eta, aitzitik, aldi berean, laguntza zuzenik ez ematea (eta, berez, horientzat, laguntza behar dutenentzat, izan beharko lukete), araudi espezifikoan zehazten den gutxieneko errentari buruzko baldintza betetzen ez duela-eta.

Beraz, laguntza publikoaren premian dagoen sektore bat laguntza hori jaso gabe gera daitekeelako aukera hori kontuan izan beharko litzateke araudian bertan, dauden bi adjudikatze irizpide horiek gutxieneko errenta baldintza berberetara bateratu ahal izateko, halako moduz ezen, adjudikazioa lortzen duten pertsona guztiak gaur egun indarrean dagoen 8.1.c) artikuluan zehazten den gutxieneko diru sarreren mugaren barruan -etxebizitzaren balioaren zazpiren bat, etxeko eranskinak eta kontuan izan gabe- egon daitezen.

*Soldaduzka egin beharragatik etxebizitza soziala eskuratzeko orduan diskriminatua izatea (636/96)*

• Erreklamazioa

Gasteizko herritar batek erakunde honetara jo zuen laguntza eske, zeren kontuan izanik gizonezkoek soldaduzka -edo bestela, ordezko zerbitzu soziala- egin beharra zutela, eta batzuek, berak, adibidez, lan finkoa izan arren, ezin zutela babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko laguntzarik baliatu, ez zutelako hartarako eskatzen den gutxieneko diru sarrerarik, bada VISESAK ez zituelako arazo horri konponbideren bat emateko irizpide zuzentzaileak edo konpentsatzaileak kontuan izan.

Pertsona horrek agerian jarri zuen bazela arazo larri bat, artean kontuan hartu gabea, gizonezko batzuk bazterrera uzten zirela babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko aukeretatik. Izan ere, pertsona horrek, adibidez, soldaduzkan egon behar izan zuen 1993ko azaroa eta 1994ko iraila bitartean, eta hori zela eta, 1994ko irailatik abendura bitarteko diru sarrerak baizik ezin izan zituen aurkeztu edo egiaztatu, nahiz eta, soldaduzka bukatu bezain laster lehenego lanpostu berean hasi zen lanean.

• Azterketa

Legezko segurtasunaren eta berdintasunaren printzipioak une oro berma daitezen, eta konstituzioaren manu bat batetzeagatik ez dakion inori zigorrik ezarri, Arartekoak idazki bat bidali zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari, eta idazkian, besteak beste, beharrezko neurriak har zitzala eskatzen zion, ez zedin bazterketarik edo diskriminaziorik gertatu, zer eta konstituzioak hala agintzen zuen manu bat betetzeagatik.

Erakunde honen arabera Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak modu askotara lagun zitzakeen, soldaduzka edo ordezko zerbitzu soziala zela-eta, diru sarrerrekin arazoren bat izandako pertsonak. Adibidez, laguntza eskatzen duen pertsonaren egoera ekonomikoari dagokionez, etxebizitza adjudikatzeko prozeduran parte hartzen duen urtearen aurreko urteko egoera hartu beharrean bakarrik kontuan, eskabidea egin baino bi urte lehenagoko egoera hartzea gomendatzen zion; eta orobat gomendatu zion, laguntza eskabidea egiten duen pertsonaren erosketa ahalmenaren froga eskatzean, lan kontratua bera hartzea froga gisa, zeren kontratu hofren bidez argi ikus baitzitzakeen irabazirik gabeko aldi hori benetan aldi batekoa den -eta kasu honetan konstituzioak hala betetzea agintzen zuen manu bat betetzen ari zen aldikoa zen hain zuzen- edo ez… Bestalde, eta gure iritziz, arazo hau ez dute bakarrik soldaduzkan diren pertsonek; arazo bera dute beste emakume eta gizon askok, langile finkoak, aldi betarako lana uzten dutenean seme-alabak zaintzeko, adibidez.

Hori zela eta, argi eta garbi adierazi genuen, konstituzioaren manu bat betetzeko obligazioa izan ez balute, herritar horiek ez zutela inolako arazorik izan izango Eusko Jaurlaritzak sustatuko interes sozialeko etxbizitza horien adjudikazio prozesuan parte hartu ahal izateko.

Gure aldetik behintzat, hau da etxebizitzen adjudikazioan diru sarreren baremo bat ezartzeko helburu nagusia: alegia, batetik, gure gizarteko sektore behartsuenei etxebizitza eskuratzeko aukera ematea eta erraztea, eta, bestetik, eskabidea egiten duen pertsonak etxebizitza erosi ahal izateko adinako irabaziak dituela frogatzea, etxebizitza bat erosteagatik egin behar izaten diren ordainketak eta gastuak egin ditzakeela frogatzea, alegia.

Hala beraz, eta gure iritziz, kontuan hartuko balitz pertsona horien benetako egoera ekonomikoa, pertsona horiek beren benetako ahalmen ekonomikoen arabera hartu ahal izango lukete parte interes sozialeko etxebizftzen adjudikazioan, bai eta etxebizitza eskuratu ere agian.

• Emaitza

Hori guztia dela eta Arartekoak gomendio hau egin zion Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari: hots, batetik, etxebizitzak adjudikatzeko hurrengo deialdietan irizpide zuzeptzaileak sartzea herritarren artean bazterketa egoera faktikoak gerta ez daitezen gehiago, eta, bestetik, horretarako dauden bideak erabiltzea eskabidea egiten duten pertsonen benetako ahalmen ekonomikoa zein den eta etxebizitzak adjudikatzeko deialdiaren oinarrietan zehazten dena baino diru irabazi edo errenta maila handiagoak ez dituela frogatzeko. Horretarako, eta ezer baino lehen, aldatu egin beharko litzateke gaur egun indarrean dagogn araudia, lehen azaldu diren egoerak -hots, konstituzioaren manua bete beharra, lana aldi baterako utzi beharra,...- kontuan hartuz. Halakoetan, beste gauza batzuk neurtu beharko lirateke, hala nola, laneko egonkortasuna, adibidez, egindako kontratua aurkeztuz.

## 3.14. BESTE ZENBAIT ZUZEMEN

### 3.14.1. SARRERA

Diharduten gaien ezaugarri bereziengatik, erakunde honen lana antolatzeko egiten diren sailetan ezin edo nekez egoki daitezkeen ekintzak aztertuko dira atal honetan.

Oso arlo berezia eta heterogeneoa da, beraz, hau, edukiei dagokienez. Besteak beste, gisa honetako arazoak sartu dira atal honetan: imigrante bat, Autonomia Erkidego honetako elkarte batean bete-betean sartua, hemendik kanpora egozteko agindua baliogabetzeko egindako zuzemenak; profesionalak Europako Batasunean homologatzeko sortzen diren arazoei konponbideren bat bilatzea; ama biologikoak aurkitzeko edo haiekin harreman bideren bat irekitzeko Ongizate Sailaren aldetik egin diren zuzemenak, betiere haien intimitate eskubidea errespetatuz; zenbait pertsonari, Poliziaren Zuzendaritzak zenbaki bereko Nortasun Agiriak banatu zizkiela ohartzean, egin zaien kaltea.

Bestalde, ez dugu ere, aurrerago, atal honetan bertan xehetasunez aztertuko den kexa bat aipatu gabe utzi nahi, alegia, Trebiño edo Udako konderriko herritar batzuek bultzatu dutena, eskualde horrekiko arazoei behin-betiko konponbidea emate aldera.

Nolanahi ere, argi utzi nahi dugu, bitartekotza hutsaren ikuspegitik begiraturik ekin zaiola espediente hauetako gehienak bideratzeari, gizakiari berari dagozkion gorabehera handiko arazoak baitira gehinak, eta oihartzun handikoak autonomia erkidego honetan.

### 3.14.2. **AUKERATUTAKO KEXAK**

*Trebiñoko enklaberako Erakundearteko Batzordearen ekintzen behaketa (11/ 97)*

• Erreklamazioa

Trebiñoko Konderrian sortu den Elkarte batek Arartekoarengana jo zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gaztela-Leongo Autonomia Erkidegoko ordezkaritza banak enklabe horretako arazoak behin-betiko konpontzeko asmoz eratu duten Erakundearteko Batzordearen ekintzak beha zitzan.

• Azterketa

Eskakizun horri erantzunez, idazki hau bidali zien Arartekoak zegokienei:

> *«Trebiñoko arazoak behin-betiko konpontzeko asmoz Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gaztela-Leongo Autonomia Erkidegoko ordezkaritza banak eratu duten Erakundearteko Batzordaren zeregina behatzea eskatu didazuenez, hau esan nahi dizuet.*
>
> - *Ezer baino lehen, nire eskerrona adierazi nahi.dizuet, Arartekoa, bere kontrol erantzukizunen bitartez, parte hartzaile aktibo izan daitekeelako ziurtasuna izan duzuelako, dagoen arazoari behin-betiko konponbide egokia emate aldera.*
> - *Aurrerantzean esango denaren kalterik gabe, eta, izatekotan, aipatu diguzuen auzian erakunde honek zenbaterainoko parte hartzea izan dezakeen argitzeko asmoz, komenigarria iruditu zaigu zuei honako hau jakinaraztea: Arartekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 15. artikuluan iragarritako erakunde honek, Eusko Legebiltzarraren 3/ 1985 Legeak, otsailaren 27koak, sortua eta arautua, hau du bere lehen egitekoa: herritarren oinarrizko eskubideak behar bezala betetzen direla bermatzea, eta eskubide horiek agintarien eta aginpidearen gehiegikerietatik babestea, baldin eta balizko lege hauste horiek euskal administrazio publikoei, hots, Eusko Jaurlaritza, foru diputazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalei egotz badakizkie.*

*Bidali dizkiguzuen idazkiak azterturik, gure ustez, eta hasierako eskakizuna gorabehera, hauek dira sakonago aztertzea merezi luketen puntuak:*

*a) Trebiñoko eskualdea beste lurralde bateko enklabe izanik, zerbitzu pubikoekin sortzen diren arazoak gainditzea.*

*b) Euskal Autonomia Erkidegoko eta Gaztela-Leongo Erkidegoko ordezkaritza banak osatzen duten Erakundearteko Batzordearen lanak behatzea.*

*c) Enklabe honetako biztanleek etorkizunean zer nahi luketen erabaki ahal izateko erreferendum nahitaez bete beharreko bat deitzea.*

*Arartekoak egin zaizkion eskabideei erantzunez zeraukera dituen neurtzerakoan, ondorio hauek atera ditugu:*

*a) Izanik Trebiño enklabe bat Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoaren barruan, eta, tokian tokiko, probintzia edo erkidegoko -edota, dagokionean, Estatuko-adiminstrazioaren organo aginpidedunen mende dagoenez hango zerbitzu publikoen jarduera, Arartekoak ez du eskurik, dauden arazoak konpontzeko egin beharko liratekeen ekintzak bultzatze aldera, alegia, ez du aginpiderik lurralde horretan diharduten administrazioetan -zein bere aginpide mai/aren arabera diharduela-esku hartzeko. Litekeena da, ordea, dagozkion tresna juridikoak aplikatu ondoren, euskal administrazio publikoen gain utzi izana Trebiñoko enklabeko zerbitzu publikoetako batzuk. Hori hala balitz, eta zerbitzu publiko horretan hutsunerik gertatu izan balitz, orduan bai, Arartekoaren eskuetan utzi ahal izango zen auzia, zeren, ikuspegi material batetik begiraturik, gure ahalmen esparruaren barruan bailegoke balizko ekintza bidegabe hori. Nolanahi ere, gure ustez, administrazio ekimen batean, edozein administrazioren edozein ekimenetan, emandako zerbitzu publikoan okerrik antzemango balitz, jakinaren gainean egon beharko luke erakunde honek, behin auzia dagokion adminsitrazio organoa identifikaturik, Gaztela eta Leongo Procurador del Comun delakoa edota Herriaren Defendatzailea ere are jakitun jarri ahal izateko. Nolanahi ere, eta lehenago ere esan dizuedan bezala, administrazio ekimenaren okerra euskal administrazioen organoren bati balegokio, kontrol eta ikerketa ekimen formal bat bultzatuko genuke geure aldetik.*

*b) Arestian aipatu dugun Erakundearteko Batzorde hori «behatu» ahal izateko-edo, zehazta beharra dago ezen, Arartekoaren iritziz betiere, erantzukizun politikoak baizik ez direla aztertu beharko: Erantzukizun politikoa duten jardueren konfro/a herri ordezkaritzaren organoetan bermatzen da legeek zehazten dituzten mekanismoen bitartez. Beraz, argi dago ezen, egitea eskatzen zaigun behaketa hori ezingo dela geure kontrol jardueren bitartez egin, delako Batzorde horrek ez baitu funtzio arau emailerik betetzen Euskal Autonomia Erkidegoan, ez eta haren administrazioetako batean ereparte hartzen. Aurrekoaren kalterik gabe, baldin eta Batzordean akordiorik lortuko balitz, eta baldin eta akordio*

*horiek, euskal administrazio publikoen organoen aldetik eta lege tresna egokien bidez lagundurik, Trebiñoko enklabeko zerbitzuekiko erantzukizunak hartzean gauzatuko balira, haiek betetzean antzeman litezkeen okerrak edo hutsegiteak bai, horiek Arartekoaren esku utzi ahal izango dira hark azter ditzan, kontrol neurriren bat proposa dezan, edota, auzia garbitzeko egoki derizkion neurnak har ditzan.*

*c) Erreferendumari buruzko auziak, berriz, aparteko azalpena merezi du. Hasteko, gure aldetik esan beharra dugu ezen gaur egungo egoera konpontze aldera har litekeen behin betiko edozein neurri auzia dagokien herritarren erabaki libre eta demokratikoan oinarritu beharko dela. Euskadiko eta Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoen Autonomia Estatutuek eratua* duten *lege esparruari dagokionez, eta zuek dakizuen bezala, auzian zerikusia duten beste administrazio organo batzuek hartzen duten akordioaren ondoko prozeditra mailari dagokio herritarrei buruzko kontsultatzea. Alegia, arestian aipaturiko arauetan aurreikusten ziren urratsak ematen hasi gabe dauden bitartean ezingo da herri kontsulta erabakigarririk egin jakiteko enklabeko biztanleek zer erabaki duten beren etorkizunari buruz. Hori horrela izanik, eta estatutuak horretarako aurreikusten dituen mekanismoak martxan jartzen ez badira behintzat, edota beretze/bereizte prozesuetan era jakin batean jokatzera behartzen duten legeak aldatzen, kontsulta hori ezingo da berehalakoan egin. Nolanahi ere, Arartekoak uste du, indarrean dagoen legediak ez duela eragozten aholkua eskatzeko erreferendum bat, ezertara behartzen ez duena alegia, egitea, tokiko legedian aurreikusten diren mekanismoen eta urtarrilaren 18ko 2/1980 Lege Organikoaren xedapen gehigarriaren bitartez, eta hala, enklabeko herritarrek auziari buruzko iritzia adierazi ahal izango dute, zereta, indarrean dagoen araudia aurrerantzean ere bere horretan mantenduko balitz, erreferendum erabakigarria egin aurretik akordioak hartu behar dituzten agintariek herritarrek geroan zer estatus mota nahiko duten jakin dezaten. Nolanahi ere, erreferenduma egiteko edo ez egiteko erabaki hori auzia dagoklen administrazioaren erabaki esparruan sartzen da. Besterik gabe, beraz, idazki honen bidez helarazi dizkizuegun aholkuei buruz zer iritzi duzuen, eta nahi duzuen guztirako, zuen esanetara* zain, *geratzen garelarik, har ezazue gure agurrik beroena».*

*Etxebizitzen salerosketan notarioek zergak ordaindu beharraz informatzeko duten obligazioaz (156/97)*

• Erreklamazioa

Bilboko herritar batek Arartekoarengana jo zuen, etxebizitza saltzeko paperak egiten ari zela, ohartu baitzen, bere etxea, berak erosi zuen eguna baino

lehenagoko hipoteka batez zergapetua ageri zela Jabetza Erregistroan, eta hipoteka oraindik kitatu gabe zegoela, gainera.

Herritarrak etxea erosi zueneko notario idazkia zekarren, eta «ez da zerga eta errentarik batere zor» jartzen zuen paperan. Hala ere, eta haren harridurarako, etxebizitza ez zegoen zergaz libre, lehenago aipatu den hipoteka horrekin zergapetua baizik.

• Azterketa

Auzia aztertu ondoren, Arartekoak jakinarazi zion kexaren egileari, ezen, etxea erosi zuen urtean, 1978an, 1944ko Notario Araudiaren 175. artikulua zela aplikatu beharreko araudia, eta artikulu horren arabera, notarioak, lehenbizi, «etxea saltzen duenaren adierazpena» jaso behar zuela etxearen jabego tituluan, eta «notarioari aurkezten zaizkion titulu edo dokumentuetan azaltzen dena», gero. Horren arabera, beraz, notarioa ez zegoen datu horiek Jabetza Erregistroan zeudenekin alderatzera behartua.

Araudi hori aldatu egin zen gero, eta hala, 1993. urtetik aurrera, notario guztiek dute etxearen deskripzioari, jabeari eta zergei buruzko informazioa jabetasun erregistroan eskatzeko obligazioa jabego agiria eman aurreko lau lanegunetan.

• Emaitza

Azkenean, kexa aurkeztu zuen herritarrari jakinarazi zitzaion ezen, itxura batean, notarioak ez zuela ezeren erantzukizunik, eta hipoteka kitatzen bazuen, urte beteko epea izango zuela hipoteka ezarri zuen pertsonari gastuak ordain zekizkiola eskatzeko.

*Espainiak 89/48/EE Kontseilu Zuzendaritza ustez bete gabe uztea, erdi mailako irakaskuntzarako irakasle lanbidea homologatu gabe uztean (980/97)*

• Erreklamazioa

Nahiz eta gai honetan Arartekoak aginpiderik ez izan, autonomia erkidego honetan bizi zen herritar ingeles bati laguntzeko esku hartzea erabaki zuen. Herritar horrek erakunde honetara jo baitzuen Madrilgo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak titulu akademikoa onar zekion.

Hala bada, kexa aurkeztu zuen herritarrak jakinarazi zigun, ezen, duela bi urte eta erdi, behar ziren dokumentu guztiak behar bezala egiaztatuak aurkeztu zituela Madrilgo Hezkuntza eta Zientzia Ministerioan, eta orain, Ministerioak, Bigarren Mailako Irakasle gisa baliozkotu ziola lizentzia, baina Kimika emateko soilik.

Herritarrak alegatzen zuen, 89/48/EE Zuzendaritza Kontseiluaren arabera, Espainian adin mugarik gabe eta irakasgai mugarik gabe irakasle gisa lan egiteko balio zutela bere tituluek, lehenago Erresuma Batuan balio izan zuten bezala.

• Azterketa

Zenbait zuzemen egin ondoren, ikusi genuen Ministerioak tituluak homologatzen zituela baina lanbideak ez, nahiz eta, itxuraz behintzat, hori izan Zuzendaritzaren eta Zuzendaritza hori ordezkatzen duen urriaren 25eko 1.665/91 Errege Dekretuaren asmoa.

• Emaitza

Bigarren mailako irakaskuntzako irakasleen homologazioa dela eta, Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren jarduera 89/48/EE Kontseilu Zuzendaritzaren eta orobat 1.655/91 Errege Dekretuaren aurkakoa izan daitekeela kontuan harturik, murrizgarria baita gure ustez, Herriaren Defendatzaileari igorri genion kausa, bere iritzia eman zezan.

V.ATALA

# ESTATISTIKA

## 4.1. **OHARPEN OROKORRAK**

Mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpigarren urtean zehar erakunde honi hiritarrek bakarka edo taldeka aurkeztu dizkioten eta aztertu eta ikertu diren kexen artetik 539 kasutan eman die Arartekoak babesa erreklamatzaileei euskal administrazioren baten aurrean. Kasu horietan, eragindako administrazioak Arartekoaren gomendioa jaso du, zentsuratutako jardueraren ondorioak konpon zitzan.

1997. urtean erakundean aztertutako kexen artetik %34,44 kasutan hiritarrari eman zaio arrazoia.

Arartekoak erreklamatzaileari arrazoia eman dion kasuen erdia baino gehiagotan (55,40%) administrazio publikoren baten jarduera zuzena ez zela ikusi ondoren Arartekoak luzatu edo egin dion gomendioa bete izan da.

1997. urtean guztira 1.991 kexa aurkeztu zaizkio Arartekoari, aurreko urtean baino 18,94% gehiago. Aurreko urteetakoekin alderaturik, 1995. urtean baino 72,38% gehiago, eta 1994. urtean baino 163,36% gehiago.

1.991 kexa horietako gehienak norbanakoek aurkeztuak dira, baina horietako 30en aldeko sinadura eman dute 49.000 pertsonek. Horiez gainera 237 erreklamazio aurkeztu dituzte taldeek, adibidez auzo elkarteek, erreibindikazio jakinak eskatzeko plataformek, sindikatuek, talde ekologistek, etab.

Eusko Legebiltzarrari Txosten honetako estatistiken atalean zifretan laburturik ematen den Arartekoaren jarduera oso positiboki baloratu dute erakunde honetan kexaren bat aurkeztu duten pertsonek. Arartekoak aurten lehen aldiz inkesta bat egin du kexa osorik tramitatu zaien pertsonen artean: pertsona horiei galde-sorta bat bidali zaie borondatez eta izenik eman gabe bete zezaten. Horrela, inkestaren emaitzek diotenez, erreklamatzaileen %82ak dio Arartekoak bere kexaren aurrean izan duen parte hartzea oso edo nahiko ona izan dela, %15ak berriz dio ez dela oso egokia edo oso desegokia izan dela. Galde-sortari erantzun dioten erreklamatzaileen arabera, -emaitzak aurrerago azalduko ditugu sakonkiago-, Administrazioarekin arazoak dituen pertsonaren bati bai gomendatuko liokete Arartekoarengana jotzea (%63,82ak kasu guztietan gomendatuko luke, %26,50ak kasuren batzuetan eta %8,26ak inoiz ez).

### Jasotako kexak

Ararteko erakundean 1997. urtean guztira 1.991 kexa jaso dira, eta aurreko urteko 1.674ekin konparatzen baditugu %18,94ko gorakada egon dela ikus-

ten da. laz aurkeztu ziren erreklamazioei dagokienez etengabeko gorakada joerarekin jarraitzen dela baiesten da, nahiz eta ez den orduko igoera ikusgarriaren neurrikoa izan. Kexa kopuruaren bilakaera erakusten duen ondorengo koadroan ikus daitekeen bezala, horiek azken hiru urteetan gora egin dute nabarmen.

| | **1989** | **1990** | **1991** | **1992** | **1993** | **1994** | **1995** | **1996** | **1997** |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 585 | 614 | 769 | 783 | 823 | 755 | 1.155 | 1.674 | 1.991 |

(Ikus 1. diagrama 333. orrialdean)

## Onartu gabeko kexak

• **191/95/22 espedientea.** Gasteizeko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: udaleko zerbitzu teknikoak ekainaren llko 171/85 Dekretua indarrean sartu baino lehen kalterik eragiten ez duen jarduera gisa sailkatutako ostalaritza jarduera bat ikuskatzera joan zitezela, aipatutako dekretuan eskatzen diren bal-dintza teknikoak betetzen dituen ala ez egiaztatzeko asmoz. Halaber, ikuskaritza

horren bidez, 171/85 Dekretuan eskatutako baldintza teknikoak ez dituela bete-tzen ikusiz gero, horiek betearazteko aukera teknikoei buruzko balorazioa egingo litzateke.

• **548/96/19 espedientea.** Gasteizeko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: ibilgailua kaletik kendu eta udalaren egoitzetara eramatearen ondorioz tasa ordaindu behar izan zueiako erreklamazioa aurkeztu zuen hiritarrari ordaindutako diru kopurua itzultzea. Izan ere, zuzenbidezko ordenamenduan aurreikusitakoa hautsi egin zela iruditzen zaigu, alkoholemi kontrolean emaitza positiboa eman zuenez, ibilgailua ibilgetuta utzi behar baitzen.

• **479/97/19 eta 584/96/19 espedienteak.** Gasteizeko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten legeak hausteagatik bideratutako bi jardunbideen ondorioz interesdunei ezarritako isunerdagokienez, salaketen jakinarazpenetan irregulartasunak ikusi ditugula-eta, hobariak ezarri behar zaizkiela doakienek ordaindu beharreko diru kopuruei.

**Barrundiako Udala**

• **259/95/15 espedientea.** Barrundiako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: lursailen itxiera eta errepideekiko distantziak Arabako Foru Aldundiko araudian ezarritakoari egokitzea.

**Kanpezuko Udala**

• **371/97/22 espedientea.** Arartekoak honakoa gogorarazi zion Kanpezuko Udalari; merkataritza jarduerei buruzko Legearen 16.1 art.ren arabera, salmenta ibiltaria debekatuta dagoela jarduera hori arautu gabe dagoen udaletan.
Halaber, salmenta ibiltaria arautuko duen Udal Ordenantza egitea ere gomendatu zitzaion. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Nekazaritza, Industria, Merkataritza eta Turismo arloko erreklamazioen laburpena.

**Iruña Okako Udala**

• **1116/96/17 espedientea.** Iruña Okako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: behi aziendak ukuiluratzen jarduten dutenek jarduera hori legezta dezatela. Legeztatu arte, zeregin horrek udaleko biztanleei kalterik eragingo ez diela bermatuko duten neurri teknikoak hartuko dira.

**Legutioko Udala**

• **546/96/15 espedientea.** Arartekoak honakoa gomendatu zion Legutioko Udalari: plangintzari buruzko arau subsidiarioak Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitara zitzala, indarrean dagoen araudiak hala eskatzen baitu.

**Laudioko Udala**

• **620/94/15 espedientea.** Lanbide Heziketarako Udal Ikastetxearen ondarea zertan zen aztertzea gomendatu zitzaion, eta baita ikastetxeak egindako inbertsio lanen egoera argitzea ere.

**Bizkaiko lujalak BilbokoUdala**

• **127/96/22 espedientea.** Sukaldea duten bokateriak ostalaritza jardueratzat har zitzala proposatu zitzaion Bilboko Udalari.

• **172/96/15 espedientea.** Foru Aldundiak bertako kale bat berriro urbanizatu eta eman ondoren, udalari bere ardurapean hartzea gomendatu zitzaion.

• **845/96/19 espedientea.** Bilboko Udalari honako hau gomendatu *zi*tzaion: trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigor bat ezeztatzea. Izan ere, ibilgailua debekatutako gune batean zegoen aparkatuta, baina matxuratuta zegoen, eta jardunbidea bideratzerakoan ez zen hori kontuan hartu.
Gaiari buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Barne Saileko erreklamazioen laburpenak.

• **1012/96/15 espedientea.** Bilboko Udalak hitzarmena sinatu zuen Bilbo
Zaharreko etxebizitza batzuen jabeekin. Hitzarmen horren arabera, jabeek etxeak utzi egin behar zituzten aurri egoeran zeudelako; horren truke, udalak beste etxebizitza bat emango zien, gure Erkidegoko legedian ezarritakoari jarraiki. Horrela, aldi baterako bizilekuak eman zizkien. Arartekoak behin-betiko bizilekuak lehenbailehen emateko eskatu zion Bilboko Udalari, eta baita zein etxebizitza emango zitzaizkien zehazteko ere.

• **1195/96/19 espedientea.** Ondare erantzukizunari buruzko admirtistrazio espedientea hasi, bideratu eta erabaki zezala gomendatu zitzaion Bilboko Udalari. Gai horri buruzko argibide gehiago izateko, ikus Funtzio Publiko eta Administrazio Antolamenduaren arloko erreklamazioen laburpena.

• **1196/96/16 espedientea.** Suhiltzaileen partehartze bat ordaintzeko kitatutako tasari buruz Bilboko Udalean bideratutako espedientea dela-eta, honakoa gomendatu zitzaion udalbatzari: zigorra preskribituta zegoela kontuan hartu eta aipatutako kitapena ezeztatzea, eta ondorioz, subjektu pasiboari ordaindutako diru kopurua itzultzea. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Ogasun arloko erreklamazioen laburpena.

• **1519/96/19, 1381/96/19, 1553/96/19, 566/97/19, 568/97/19 eta 956/97/19 espedienteak.** Bilboko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: zaborrak uzteko ordutegia arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigorrak ezeztatzea. Izan ere, erruztapen elementu bakarra hartu zen kontuan: poltsen barruan zigorrak ezarri zitzaizkien hiritarrei buruzko dokumentuak aurki-

tu ziren. Gai horren inguruko argibide gehiago lortu nahi izanez gero, ikus Fun-tzio Publiko eta Administrazio Antolamenduaren arloan egindako erreklamazio-en laburpena.

• **90/97/23 espedientea.** Bilboko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako isun bat ofizioz ezeztatzea Izan ere, kalean obretan aritzeagatik bertatik ibilgailuak erretiratu behar direnean, halakoetan egin beharreko jakinarazpenak alde batera utzita, agenteek ezin dute inolako salaketarik burutu eta Udalak ezin du inolako diru kopururik jaso. Era berean, interesdunari ibilgailua kaletik erretiratu eta udalaren egoitzetara eramateagatik eta eragindako bestelako gastuengatik ordaindu zuen diru kopurua itzuli egin beharko litzaioke.

• **91/97/23 espedientea.** Bilboko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: TAOko arauak hausteagatik ezarritako zigor batzuk ofizioz ezeztatzea.

Arau hauste horiek preskribituta zeuden, ezarri zirenetik Udalak behartze probi-dentzia eman arte, horrelakoetarako finkatuta dagoen epea, hau da urtebete, igaro baitzen. Era berean, interesdunek ezarritako isunak ordainduz gero, diru kopuru osoa itzultzea ere gomendatu zen.

• **359/97/19 espedientea** Bilboko Udala TAOko arauakhausteagatik interesdunari ezarritako zigorrak ordainarazteko behartze espedientea bideratzen hasi zen. Aipatutako arau hausteak interesdunak ibilgailuaren jabetza beste bati eman ondoren gertatu ziren, eta datu hori udal artxibategian jasota zegoen gainera. Udalak ere izan zuen jabetza aldaketa horren berri behartze espedientea bideratzen ari zenean. Hala ere, udal zerbitzuek interesdunaren ondasunak bahi-tu egin zituzten zorrari aurre egiteko. Ondorioz, ezarritako zigorrak ofizioz ezez-tatzea eta bideratutako behartze espedienteak bertan behera uztea gomendatu zitzaion udalari.

• **448/97/20 espedientea.** Bilboko Udalari jendaurreko deialdia egitea gomendatu zitzaion. Deialdi horretan, Udalaren Kirol Erakunderako aldi baterako sorosle lanpostuetarako izangaiak ordenatzeko irizpideak finkatu behar ziren, lanpostuak berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioen arabera eskura zitezen.

• **1342/97/15 espedientea.** Bilboko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: organo aginpidedunak berariazko erabaki arrazoitua eman zezala 97ko Aste Nagusian eremu publikoan txosna bat ezartzeko eskaera zergatik ez zuen onartu azaltzeko.

**Barakaldoko Udala**

• **950/96/15 espedientea.** Kafetegi bat lurpean kokatzeari buruz okerreko informazioa emateagatik erantzukizun aitortza egin zezala gomendatu zitzaion Barakaldoko Udalari.

**Busturiako Udala**

• **565/97/22 espedientea.** Busturiako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: zuzenbidezko ordenamenduan aurreikusita dauden neurriak har ditzala, ibilgailuak konpontzen dituen tailerrak lanak lokalaren kanpoaldean egin ez ditzan eta ibilgailuak aparkalekutzat egokituta ez dauden lekuetan utzi ez ditzan.

**Durangoko Udala**

• **187/96/22 espedientea,** Ostalaritza jarduera baten musika ekipoa erretiratzea gomendatu zen, kautelazko neurri gisa gomendatu ere, establezimenduaren jarduera lizentzian ez baitzegoen baimenduta.

• **16/97/17 espedientea.** Durangoko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: dantzaleku baten isolamendu akustikoak indarrean dagoen araudia ea betetzen duen neurtzea; eta hala bada, inguruetako biztanleek zarata dela-eta egindako salaketen sorburua zein den egiaztatzea. Zarata musika ekipoa behar ez bezala erabiltzearen ondorioa bada,-dagozkion zigortze espedienteei hasiera eman beharko litzaieke.

• **1376/96/17 espedientea.** Durangoko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: taberna baten jabeari establezimendua Eusko Jaurlaritzak ekainaren 11n emandako 171/85 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera egokitzeko eskatzea. Aipatutako dekretuan, udalerrietako biziguneetan koka daitezkeen jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko arau tekniko orokorrak finkatu ziren. Beraz, tabernaren jabeak itxigailu automatikodun ate bikoitza ezarri eta haize babeserako atartekoa osatu behar du. Gainera, atea itxita egongo da beti, aipatutako arauen 3.2.3. atalean xedatutakoari jarraiki.

**Errigoitiko Udala**

• **600/96/15 espedientea.** Errigoitiko Udalari honakoa gomendatu zitzaion: landa bide baten jabetza publikoa den ala ez aztertuko duen espedienteari hasiera ematea. Gai horri buruzko argibide gehiago bilatu nahi izanez gero, ikus Funtzio Publikoaren arloko erreklamazioen laburpena.

**Galdakaoko Udala**

• **220/96/15 espedientea.** Galdakaoko Udalak herritar batek erosi berria zuen baserria eraberritzeko hasitako lanak geldiarazi egin zituen. Dirudienez, udalak baserriaren aurreko jabeari etxebizitza familiabakarra eraikitzeko baimena emateko, honako baldintza ezarri zion: baserrian inor ez bizitzea. Arartekoak gomendio jakin batzuk egin zizkion udalari, hots, Galdakaoko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorraren arabera, aipatutako eraberritze lanak baimendu egin behar direla eta, bestalde, horrelako lizentzietan jasotako baldintzak bi alderdien tzat besterik ez direla lotesleak, eta inoiz ez hirugarrengoentzat.

**Gernika-Lumoko Udala**

• **1369/96/15 espedientea.** Gernika-Lumoko Udalari honako hau gomendatu zitzaion: eraikuntza-promotora batek eustorma baten kanpoaldea erabiltzeko egindako lagapenari uko egitea, hori ez baitago zuzenbideari lotuta.

**Getxoko Udala**

• **105/97/19 espedientea.** Arautukako aparkalekuei buruzko Udal Ordenantzako 10. artikuluan aurreikusitakoa ezeztatzea gomendatu zen. Honakoa dio bukaeran aipatutako artikuluak: *"Bereizgarria lortu nahi dutenek horretarako eskaria egiten dutenean Getxoko Udalean trafiko edo zirkulazioko isunen bat ordaindu gabe baldin badute, ez zaie eskaera onartuko"*.

**Erandioko Udala**

• **1209/96/16 espedientea.** Erandioko Udalari honako eskaera hau egin zitzaion: industri pabilioi baten jabeari Kokalekuaren gaineko Zerga ordaintzeko bidalitako kitapenak ezeztatzea. Izan ere, aipatutako pabilioia enpresa batek errentan dauka hartuta; beraz, zerga horren subjektu pasiboa zergagaiaren lokalak erabiltzen dituen pertsona natural edo juridikoa denez, lokalaren jabeari ez dagokio hori ordaintzea.

**Ermuko Udala**

• **106/96/22 espedientea.** Ermuko Udalari honako gomendioa egin zitzaion: jarduera baten titularrari bere ostalaritza establezimenduan ezarrita zeukan musika ekipoa kentzeko eskatzea eta horrelakoen ezarpena legeztatu egin behar dela aditzera ematea. Ondorioz, udalaren zerbitzu teknikoek Bizkaiko Foru Aldundiaren kalifikazio txostenean ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen dituela egiaztatu arte, ezin izango du aipatutako musika ekipoa erabili.

**Igorreko Udala**

• **1118/97/16 espedientea.** Minusbaliatua izateagatik Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita gratzeko baimena ukatze-agatik hasitako erreklamazioari dagokionez, aipatzekoa da zalantzan jartzen zela ibilgailua interesdunak soilik erabiltzen ote zuen. Zentzu honetan, argi dago oso zaila dela benetan jakitea horrelako automobiletan erabilera esklusiborik gertatzen den ala ez. Hori bera dio Gaztela-Mantxako Auzitegi Nazionaiak 1995eko uztailaren 31n emandako epaiak ere. Baina zalantza hori izan arren, ezin da pentsatu erabiltzaile guztiek iruzur egiten dutenik eta egokitutako ibilgailuen jabe diren minusbaliatuek, gidatzeko gai ez direnean, beste norbaiti uzten diotenik.

Hori guztia kontuan hartuta, hona hemen gure gomendioa: "*Erreklamazioa egin duen adingabekoak ez du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zer-*

*garik ordainduko bere ibilgailuarengatik*; *ondorioz, bidalitako kitapena ezeztatu egingo da eta, jadanik ordainduta egonez gero, den-dena itzuliko* zaio."

## Lekeitioko Udala •

• **361/96/22 espedientea.** Lekeitioko Udalari honako hau adierazi genion: legez kanpokoa.iruditzen zitzaigula ostalaritza establezimendu baten maila akustikoa neurtzeko egindako txosten teknikoa salaketa aurkeztu zuen auzo elkarteari ordainaraztea; esatekoa da, bestetik, soinu laborategi bat kontratatu zutela zeregin horretarako. Honakoa izan zen udalaren erantzuna: jarduerak behar bezala gauzatzen direla zaintzea bere eginkizuna dela, baina hala ere, zerbitzu hori ordaintzeko zergapekoei tasa bat ere ezar dakiekeela, eta ildo horretan hain zuzen, horretarako zerga ordenantza onartzeko asmoa dutela. Arartekoaren ustez, sonometria zerbitzua eragindako auzo elkarteari ordainaraziz, Lekeitioko Udalak zerga legezkotasunaren hatsapena hautsi egin zuen, ondare prestazio hori ordairitzea eskatu baitzuen horretarako zerga ordenantza onartu baino lehen. Beraz, udal organo eskudunak kitapen hori ezeztatzeko edo, jadanik ordainduta egonez gero, auzo elkarteari diru guztia itzultzeko gomendioa eman genuen.

### Maruri-Jatabeko Udala

• **841/96/15 espedientea.** Herritar batek Maruri-Jatabeko Udala salatu zuen, arrazoi hau zela-eta: auzokoaren kontra behin eta berriz aurkezten zituen salaketak bere baserriaren atari aurrean zirkulaziotik kanpo zeuden ibilgailuak uzten zituelako, eta Udalak ez zien jaramonik ere egiten. Arartekoak ibilgailua-ren jabeak auzokoaren atari aurretik kendu behar zituela jakinarazi zion udalari, urbanizatu ezineko lurretan burututako legez kanpoko jarduera baita.

### Ondarroako Udala

• **926/95/16 espedientea**. Ondarroako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: erreklamatzaileari Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zerga ordaintzeko bidali zitzaion kitapena ezeztatzea eta beste bat egitea. Beste kitapen horren zerga oinarria obrarako aurrekontuen -zegokion lizentzia eman baitzitzaion- parekoa izango da, eta langileen ordainsariak nahiz etekin industrialak ez dira inola ere kontuan hartuko.

• **205/97/17 espedientea.** Ondarroako Udalari honako hau gomendatu zitzaiori: gauez burutzen den arrantzaren inguruko jarduera baten ustezko irregulartasunak egiaztatzeko neurri egokiak har ditzala. Eta udalak horrelako ikuskapenak egiteko behar diren baliabide pertsonal eta materialak ez baditu, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari laguntza eska diezaiola, uztailaren 17ko 4/1992 Legean, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizi Legean aurreikusitakoari jarraiki.

**Portugaleteko Udala**

• **910/96/22 espedientea.** Taberna baten titularrari bi hilabeteko epean bertan daukan musika ekipoa legeztatzeko proiektua aurkezteko eska diezaiola gorrtendatu genion Portugaleteko Udalari.

**Sopuertako Udala**

• **812/97/23 espedientea.** Sopuertako Udalari honako gomendio hau egin zitzaion: gobernu batzordearen erabakia bete eta ibi iraunkorra ezar dezala, udalaren garajeetarako sarbidean ibilgailuek aparka ez dezaten. Kontuan izan behar da, gainera, administrazio egintzak berehala bete beharrekoak direla.

**Zierbenako Udala**

• **62/94/15 espedientea.** Hondartzako dutxetako ura bilduko duen tutueria bereizia ezartzea gomendatu zitzaion.

**Gipuzkoako Udalak Donostiako Udala**

• **754/96/19 espedientea.** Trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik bideratutako espediente baten ondorioz ezarritako zigorra ezeztatzea gomendatu zen, erabaki hori baliogabetzen duten jardunbidezko irregulartasunak aurkitu genituelako.

• **875/96/19 espedientea.** Batetik, eskaera eskubidea arautzen duen abenduaren 22ko 92/1960 Legearen 11.2 artikuluan eta bestetik, Herri Administrazioen Araubideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42-. artikuluan xedatutakoen arabera, hiritar batek egindako eskaerari erantzun ziezaiola gomendatu zitzaion udalari.

• **113/97/23 espedientea.** Donostiako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigor bat ezeztatzea, zigortze espedienteak erabakitzeko oinarrizko izapidea ez zelako gauzatu, hau da, erabaki proposamena eta espedientea ez zitzaizkion interesdunari bidali eta, beraz, ezin izan zuen alegaziorik egin. Horretaz gain, formazko akatsa ere aurkitu genuen, hots, ez zen alegazioei buruzko erabaki arrazoiturik eman, eta hori funtsezkoa da jardunbidea behar bezala gauzatzeko.

• **632/97/19 espedientea.** Donostiako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigor bat ezeztatzea. Espedientea bideratzerakoan, inolako arrazoirik gabe, interesdunari ez zitzaion bere jokabidea argituko zuen eginbide frogagarririk aurkezten utzi.

• **1073/97/21 espedientea.** Donostiako udaltzaingoak hiritar marokoar bat atxilotu zuen artxibategietan haren nortasunari buruzko okerreko informazioa izatearen ondorioz. 10 egun eman zituen espetxean, hutsegitea argitu arte hain zuzen. Aske zegoela, beste udaltzain batek berriro atxilotu zuen. Hiritar marokoarrak identifikazio profesionala eskatu zion udaltzainari, ez zuela zuzen jokatu uste baitzuen, baina udaltzainak ez zion jaramonik egin. Arartekoak datu hori emateko obligazioa duela gogorarazi zion udaltzaingoari, eta horrela, eskatzaileari udaltzainaren agiri profesionala eman zitzaion. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Barne Saileko erreklamazioen laburpena.

**Arrasateko Udala**

• **1358/96/15 espedientea.** Jabe elkarteak sustatutako gas instalazioa legeztatzea gomendatu zitzaion udalari, eta baita isun bat ezeztatzea ere. Gai horiei buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Hirigintza eta Etxebizitza arloko erreklamazioen laburpena.

**Beasaingo Udala**

• **1154/96/18 espedientea.** Honako gomendio hau egin zitzaion udalari: tabakoaren erabilerari buruzko arauak ezarri eta aplikatzerakoan, horren kontsumoa arautzen duen araudiko informazio hatsapenak kontuan har ditzala. Horien arabera, auziren bat sortuz gero, erretzen ez dutenen eskubideek izango dute beti lehentasuna.

**Irungo Udala**

• **22/95/15 espedientea.** Honako gomendioa egin zitzaion udalari: urak bideratzeko lanek irauten duten bitartean, hiritarrei etxebizitzetarako sarbideak egokitu behar zaizkiela, eta obrak bukatutakoan, lehen zeuden bezala geratu behar direla.

**Mutrikuko Udala**

• **655/97/17 espedientea.** Honako gomendioa egin zitzaion Mutrikuko Udalari: ezkutuan funtzionatzen duen taberna bat ixtea eta jabeari legezta dezala eskatzea, RAMINPen ezarritako jardunbideari jarraiki.

**Orioko Udala**

• **1132/96/17 espedientea.** Honako gomendioa egin zitzaion Orioko Udalari: taberna baten jabeei musika ekipoa legeztatu arte bertatik kentzeko eskatzea, RAMINPen ezarritako jardunbideari jarraiki.

**Pasaiako Udala**

• **1104/95/15 espedientea.** Pasaiako Arraindegi kaleko auzo elkarteak udala salatu zuen, auzoa narriatzen ari dela ikusi eta ez duelako ezer egiten. Arartekoak zein urrats jarraitu behar zituen adierazi zion udalari, eta honako premiak nabarmendu zituen batik bat: eraikin industrialak aurri egoeran daudela onartzea, lursailak berriz antolatzea eta auzoaren barnealdea eraberritzeko bi egitasmo bereziak kudeatzea.

**Errenteriako Udala**

• **446/96/19 espedientea.** Garaje bat erabiltzeko baimena aldatzea gomendatu zen. Honetan zetzan aldaketa: bete-betean erabiltzen hasi ahal izateko, oinezkoentzako espaloiaren mantenimendurako diru kopuru jakin bat gordailatu behar zen, eta han ez zegoen inolako espaloirik.

**Tolosako Udala**

• **888/96/15 espedientea.** Kalea urbanizatzeko lanetarako desjabetza espedienteari ekin diezaiola berriz gomendatu zitzaion udalari, bertan bide zorra baitago. Garaje batean eragindako kalteei dagokienez, erantzukizun jardunbideari hasiera eman diezaiola ere proposatu zitzaion.

• **1369/96/15 espedientea.** Tolosako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: eraikuntza promotora batek eustorma baten kanpoaldea erabiltzeko egindako lagapenari uko egitea, hori ez baitago zuzenbideari lotuta.

**Zumarragako Udala**

• **100/97/17 espedientea.** Zumarragako Udalari honako hau gomendatu zitzaion: nekazaritza materialak eta ziklomotoreak konpontzen aritzen den establezimendu bat zehatz-mehatz kontrolatzea, eta eman zitzaion lizentzian baimenduta ez dagoen jardueraren bat burutzen bada bertan, neurri egokiak hartzea, RAMINPeko 38. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoei jarraiki. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Ingurugiroaren arloko erreklamazioen laburpena.

## BESTELAKO TOKI ERAKUNDEAK

**Berrikanoko Administrazio Batzordea**

• **368/97/15 espedientea.** Desjabetutakoaren balio justuari buruzko eta horren eraginetik kanpo geratuko den lursailaren itxiera baldintzei buruzko hi-

tzarmena egitea proposatu zen. Gai horren inguruan argibide gehiago nahi iza-nez gero, ikus Herrilan eta Zerbitzuen arloko erreklaimazioen laburpena.

**Urizaharrako Administrazio Batzordea**

• **1415/96/15 espedientea.** Administrazio Batzordeari honako gomendioa egin zitzaion: auzokide batekin sinatutako hitzarmeneko baldintzak bete eta etxe ondoan jardinera jarraia ezar ziezaiotela.

## ERAGINDAKO BESTE ERAKUNDE BATZUK

### Urdaibaiko Biosferako Patronatua

• **71/97/20 espedientea.** Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-zaindari lanpostua betetzeko deialdia zela-eta, Arartekoak lege jakinarazpena bidali behar izan zion patronatu horren lehendakariari. Aipatutako jakinarazpenean, berariazko erabakia derrigorrez egin beharreko zeregina dela ekartzen zen gogora, Herri Administrazioen Araubideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko 30/92 Legearen 42.1 art.an hala jasotzen baita. Izan ere, hautapen prozesutik kanpo utzi zutelako erreklamazioa egin zuenak aurkeztutako errekurtsoaren gainean ez zen berariazko erabakirik eman.

• **1241/97/20 espedientea.** Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendari-zaindari lanpostua betetzeko deialdia aztertu ondoren, Arartekoak honako gomendioa egin zion patronatuko lehendakariari: aurrerantzean lanpostuak betetzeko egingo diren deialdietan izangaiek bete beharreko baldintzak ahalik eta gehien zehaztea, batik bat esperientziari dagozkionak. Zeregin horri ekin baino lehen, bete behar diren lanpostuen zerrenda osatuko da.

### Bizkaiko mankomunitate, partzuergo eta parkeak Mebisa-Metro Bilbao

• **968/96/22 espedientea.** Bi bidaiatan gehiegi kobratu zioten metro bonuaren jabeari diru kopuru hori itzultzea gomendatu zitzaion Metro Bilbaori.

Izan ere, Metroak bertako bonuaren erabilera eta ezaugarriak azaltzen zituen informazioa bidali zuen gure erakundera, baina Arartekoak egiaztatu zuenez, hiritarrek ez zuten informazio hori eskuratu, ez baitzen geltokietako hormetan ikusgai ezarri, nahiz eta Metro Bilbaoko Bidaiariei buruzko Araudiak hala agindu. Era berean, linea horren erabiltzaileek metro bonuaren erabilerari buruzko informazio gehiago eskura izan dezatela gomendatu zuen Arartekoak, horrelakorik ez dadin beniro inoiz gertatu.

**Administrazio korporatiboak Bizkaiko Abokatuen Elkargoa**

• **137/93/16 espedientea.** 1996ko uztailaren 12an egindako ohiko bilkuran, Abokatutzako Euskal Kontseiluak Bizkaiko Abokatuen Elkargoak emandako ebazpen baten kontra gora jotzeko aurkeztutako erreklamazioa partzialki onartzea erabaki zuen. Kontseiluaren ebazpenaren 2. atalean ondorengoa jasotzen zen: *Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeari honakoa eskatzen zaio: errekurtsoaren egile eta hartzailearengana eta aseguru etxera zuzendu eta arbitraja jardunbidea eskaintzea, hala badagokio, legelari andreak ustez izan dezakeen erantzukizun zibilaren sorburua eta zenbatekoa zehazteko. Bestalde, errekurtso egileari, alarguna eta M.E.G. andrearen oinordekoa den aldetik, erreklamazio zibilak aurkezteko jardunbide zibil arruntera jo behar duela eman behar zaio aditzera.* Ebazpen hori eman eta handik hilabete batera, interesdunak honako hau jakinarazi zuen: Elkargo horrek ez zizkiola aipatutako egintzak eskaini, eta ondorioz, Bizkaiko Abokatuen Elkargora jo zuela, ahal zuten neurrian, jardunbidea azkartu ziezaioten.

**Bizkaiko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbara**

• **1374/96/16 espedientea.** Erreklamazioari buruzko espedientearen ardatza ganbara errekurtsoa behin-betiko ordaindu beharra zen. Erreklamatzaileak lan zientifikoak egiteko datuak biltzen ditu. Jarduera hori Ekonomi Jardueren gaineko Zergak (EJZ) barne hartzen duen arren, ez da 3/1993 Legearen 6. art.ko 2. ataleko lehen paragrafoan berariaz aipatzen. Esatekoa da EJZ ordaindu behar duten beste lanbide liberal batzuk ere ez direla aipatzen, baina horiek ez dira ganbarako hautesletzat hartzen, eta ondorioz, ez dute ganbara errekurtsorik ordaindu behar. Hori guztia kontuan hartuta eta Arartekoa deritzan erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11.b) art.an ezarritakoari jarraiki, honakoa **gomendatu** zen: Bizkaiko Foru Aldundiak interesdunari ganbara errekurtsoa behin-betiko ordaintzeko bidalitako kitapena ezeztatzea eta ordura arte ordaindutako diru kopurua itzultzea.

## 6.2. AINTZAT HARTU EZ DIREN GOMENDIOAK

## EUSKO JAURLARITZA

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

• **560/97/20 espedientea.** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako hau gomendatu zitzaion: bakanteak betetzeko deiai-

dietan izandako akatsen ondorioz, ordezko irakasleei eragindako kalteak konpon-tzeko moduko neurriak hartzea (zerbitzuak onartzea, puntuazioetan eragina izan dezaten...).

• **1069/96/20 espedientea.** Bigarren hezkuntzako irakasleen kidegoko bi funtzionariok truke eskabidea egin eta ez zitzaien onartu. Honako arrazoia eman zien hezkuntza administrazioak: unibertsitateaz kanpoko irakasle publikoen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 56. art.an ezarritako baldintza ez zutela betetzen, hau da, bost urtetik gorako aldea zegoela zerbitzu urteei zegokienez. Baina ikuspegi hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak "zerbitzu urteen" inguruan egiten duen interpretazioaren ondorioa da, irakasle lanetan guztira emandako urteak hartzen baititu kontuan, bitarteko nahiz karrerako funtzionario gisa emandakoak. Horrert helburua argia da, hots: destino berriak lortzeko sistema horren bidez ez zaie besteren interesei kalterik egiten, antzinatasunari esker, horiek ohiko hornidura baliabideen bidez ziurtatuta izaten baitute destinoen trukaketa. Hori guztia kontuan hartuta, Arartekoak honakoa eman zuen aditzera: lekualdatze lehiaketak arautzen dituen baremoak izan behar duela zerbitzu urteak neurtzeko oinarria, eta horren arabera ikusi behar dela Hitzarmenaren 56. art.an ezarritakoa betetzen den ala ez. Bestalde, antzinatasuna neurtzeko batik bat karrerako funtzionario gisa emahdako urteak .hartzen direnez kontuan, interesdunei truke eskabidea ukatu zien ebazpena berrikustea gomendatu zen. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak honako erantzuna eman zion gure gomendioari: irakasle talde guztiei tratu berbera eman behar zaiela, lehengo ikastoletatik datozen irakasleen egoera ere kontuan hartu behar dela eta, azkeriik, erkidego barruan lekualdaketa lehiaketak egiteko berariazko baremoa ezar daitekeela. Erantzun hori gorabehera, gure gomendioari bere horretan eutsi genion, trukatu nahi ziren destinoak lekualdatze lehiaketen ohiko araudiari jarraiki lortu baitziren.

### Euskal Herriko Unibertsitatea

• **1591/96/18 espedientea.** UPV/EHUri honako gomendioa egin zitzaion: ikasle bati azken proba egin ahal izateko eskubidea onar ziezaiola, Irakaskuntzaren Plangintza eta Ikasleen Ebaluaziorako Araudian ezarritakoa betez. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Hezkuntza arloko erreklamazioen laburpena.

### Kultura Saila EITB

• **10/96/21O espedientea.** EITB Bizkaiko Emakumeen Asanbladak Emakume Langileen Nazioarteko Egunari buruz egindako iragarkia ematera ukatu egin zela-eta, Arartekoak aipatutako iragarkia eman zezala gomendatu zion herri erakunde horri. Martxoaren 8a igaro ta iragarkia ez zutejiez eman, gomendio-

aren edukia hedatzea erabaki genuen, gai hori puri-purian dagoelako eta agian horrelakoak berriro ere gertatuko direlako. Beraz, gure erakundeak gertaera ja-kin horri buruz emandako argudio eta gomendioak aurrerantzean irizpide orokor-tzat har ditzala eskatu genion EITBri, eta halaber, beti eman dezala gizaki guztien berdintasunaren aldeko iragarkiak emateko baimena.

**Barne Saila**

• **116/95/19, 140/95/19, 345/95/19, 394/95/19, 421/95/19, 453/95/22, 466/95/22, 558/95/19, 592/95/19, 930/95/19, 91/96/22, 99/96/22, 1348/96/19, 589/97/23, 816/97/19 eta 932/97/23 espedienteak.** Espediente horietan emandako gomendioak ez dira kontuan hartu, eta guztiak trafikoa arautzert duten arauak hausteagatik ezarritako zigorrei buruzkoak dira. 116/95/19 espedientean arau haustea preskribituta zegoela egiaztatu zen, bi hilabete baino gehiago igaro baitziren salaketa behin-behineko ukapenaren bidez jakinarazi zenetik, 1994ko otsailaren 9tik, zigortze erabakia jakinarazi zen arte, urte hartako apirilaren 14a arte. 99/96/22 espedientean ere arau haustea preskribituta zegoela egiaztatu zen, egin zenetik, 1992ko irailaren 24tik, interesdunari salaketa jakinarazi zitzaion egunera arte, urte hartako azaroaren 28a arte, Trafikoko Legearen Testu Artikulatuko 81.1 artikuluan aurreikusitako epea erabat gainditu baitzen. 1348/96/19 espedientean ere arau haustea preskribituta zegoela egiaztatu zen, salaketaren jakinarazpen pertsonala egiten -ez zuten helaraztea lortu eta ez zen onartua izan- saiatu zirenetik, 1993ko abuztuaren 13tik, ebazpena jakinarazi zen arte, urte hartako urriaren 15a arte, aurrerago aipatu dugun artikuluan aurreikusitako epea –bi hilabetekoa- erabat gainditu baitzen.
345/95/19, 394/95/19, 421/95/19, 91/96/22, 816/97/19 eta 932/97/23 espedienteetan salaketa ez zela une hartan bertan jakinarazi egiaztatu da, eta jabearen bizilekura gero bidali zen buletinean hutsegite hori "*trafikoaren pre-mien*" ondorioz gertatu zela adierazi zitzaion. 140/94/19, 453/95/22, 466/95/22, 592/95/19, 930/95/19 eta 589/97/23 espedienteetan ere salaketa ez zela une hartan bertan jakinarazi egiaztatu da, eta jabearen bizilekura gero bidali zen buletinean ez zen hutsegite horri buruzko inolako azalpenik eman. 558/95/19 espedienteak ibilgailu baten jabeari azkarregi gidatzeagatik ezarritako zigorra zuen aztergai; kasu horretan zigortze espedienteari eman behar zi-tzaion hasiera, ibilgailuaren jabeak arau haustea gertatu zenean gidaria nor zen ez zuelako esan. Espediente horretan egiaztatuta geratu zen, gainera, buletinean ez zirela aditzera eman salaketa une hartan bertan ez egitearen arrazoiak.

• **311/96/19 espedientea.** Barne Saileko Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzari trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigor bat ezeztatzea gonrtendatu zitzaion. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Barne Sailean aurkeztutako erreklamazioen laburpena.

• **1112/96/19 espedientea.** Barne Saileko Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzari honako hau gomendatu zitzaion: interesdunak bidalitako

idazkia, behartze probidentzia kontuan hartuta, zigortze erabakiaren kontrako errekurtso arrunt gisa bideratzea. Izan ere, zigortze erabakiaren jakinarazpena bidali zenean, postetxeko funtzionarioak *"ez da bertan bizi"* idatzi zuen; hala ere, ediktu bidez burutu zen jakinarazpena, interesdunaren bizileku berriari buruzko inolako informazio edo egiaztapenik lortu gabe. Gerora, behartze espedienteari hasiera eman zitzaion zigorra derrigorrez ordainarazteko asmoz, eta isunaren zenbatekoa ustez jadanik bertan bizi ez zen interesdunaren bizilekura bidali zen hark jakinarazpenaren berri izan zezan.

- **137/97/19 espedientea.** Organo aginpidedunak bideratzen ari ziren behartze espedientea zela-eta, Barne Saileko Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzari trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigor bat ezeztatzea gomendatu zitzaion, eta baita horrek eragin zitzakeen ondorio guztiak ere. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Barne Saileko arloan aurkeztutako erreklamazioen laburpena.
- **1220/97/19 espedientea.** Trafikoa arautzen duten arauak hausteagatik ezarritako zigor bat ezeztatzea gomendatu zitzaion Barne Saileko Trafiko eta Parke Mugikorreko Zuzendaritzari. Izan ere, salaketa baliogabetuta geratu zela uste dugu, arau haustea gertatu zen unean bertan ez zelako jakinarazpena burutu eta gerora hutsegite horren arrazoiak *"trafikoaren premiak"* izan zirela besterik ez zelako aipatu. Horretaz gain, salaketa ez zen jakinarazi, ez pertsonalki eta ezta ediktu bidez ere, interesduna postako zerrendan ez baitzen agertzen.

**Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

- **1075/96/17 espedientea.** Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari honako hau gomendatu zitzaion: erreklamatzaileari emandako aparkaleku plaza ezeztatzea, ez baitzituen betetzen VPOri buruzko behin behineko ordenantzetan, 1969ko maiatzaren 20ko Ministro Aginduaren bidez onartutakoetan, jasotzen diren arau teknikoetako baldintzak. Izan ere, aparkaleku plazak ez zituen ezarritako gutxieneko dimentsioak. Beraz, aipatutako arauan ezarritako baldintzak beteko dituen aparkaleku bat eman behar zaio esleipendunari, gutxienez 2,20 x 4,50 m-ko luze-zabalera izan beharko duela.
- **80/97/23 espedientea.** Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari honako hau gomendatu zitzaion: etxebizitza ordaintzeko zuzeneko dirulaguntza ukatzen zuen erabaki bat ezeztatzea. Gai horri buruzko argibide gehiago lortu nahi izanez gero, ikus Hirigintza eta Etxebizitzaren arloko erreklamazioen laburpena.
- **256/97/23 espedientea.** Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari honako hau gomendatu zitzaion: herritar bat Santurtziko etxebizitza sozialak eskuratzeko onartutakoen zerrendatik kanpo utzi zuen erabakia ezeztatzea. Eskatzailearen etxebizitzak bizitzeko baldintza egokiak ez zituela betetzen egiaztatu ez zelako utzi omen zuten zerrendatik kanpo. Bi arrazoi hauek eman zituzten horretarako: Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta

Ingurugiroko Ordezkaritzak eginiko txostena aurkeztu zuten batetik, baldintza desegokiak dituzten etxebizitzetan burutzen den udal egiaztapena aurkeztu beha-rrean; bestetik, etxebizitzak bertan bizitzeko baldintza egokiak dituen ala ez era-bakitzeko, uztailaren 17ko 189/1990 Dekretuaren IV. eranskinean xedatutakoa hartu behar dela kontuan adierazi zuten. Horiek guztiak ikusita, honako hau gomendatu genion Eusko Jaurlaritzari: udaletako zerbitzu teknikoek egiaztape-nak nola egin behar dituzten finkatuko duten arau orokorrak eman ditzala, ho-rrelako etxebizitzak eskatzen dituzten guztientzat irizpide berberak erabil daite-zen.

**Osasun Saila**

• **158/97/18 espedientea.** Osasun sistemak barne hartzen zituen diru-laguntzetan aldaketak egin ondoren, ordura arte ordaintzen ziren zenbait gastutarako diru kopurua itzultzera ukatu ziren. Izan ere, gaixoa zentro pribatuetan hartzen zutenean, gastuak ordaindu egiten zitzaizkion zenbaitetan. Beraz, erabiltzaile ezagunei, hau da tratannendua luzaroan hartzen ari direnei, aurrerantzean gastuak ez zaizkiela ordainduko jakinarazi behar zaie. Hori kontuan hartuta, hona hemen gure gomendioa: horrelako irizpideetan aldaketak gertatzen direnean, erabiltzaileei horien berri ematea beti.

**Osakidetza**

• **1448/96/18 espedientea.** Erreklamazio horren gaia 107/97/18 es-pedientekoarekin bat zetorren. Administrazioak hutsegite berbera egin zuen, eta beraz, gomendioa ere berbera izan zen, hau da: aldi baterako bakanteak bete behar direnean, lan baldintzak arautzen dituen Hitzarmenaren arabera, lehentasunak behar bezala finka daitezela eta ondorioz, zerrendari jarrai diezaiotela.

• **737/96/20 espedientea.** Osakidetzako OPE'95aren inguruan euska-raren ezaguera egiaztatzeko probei buruz heldu zitzaizkigun salaketak zirela-eta, Arartekoak zenbait izangairen espedienteak berraztertzea gomendatu zuen. Aipatutako izangaiek euskaraz benetan zein maila zuten berriz ikusi eta neurtu beharra zegoen, gure esku genituen datuen arabera, egiaztatu zitzaien maila zalantzan jartzeko modukoa baitzen.

• **1059/96/20 espedientea.** Erreklamazioari hasiera eman zion interesdunari famili plangintzari buruz egindako ikastaroa baloratzea gomendatu zen, graduazio ondoko prestakuntzari dagokionez, lekualdatze lehiaketarako kontuan hartu beharrekoa baita.

• **1500/96/20 espedientea.** Osakidetzako OPE'95aren inguruan ho-nako gomendioa eman genuen: aukeraketa probetan barne igoerarako txandetan burututako zerbitzuak kontuan hartzea. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Funtzio Publikoaren arloko erreklamazioen laburpena.

## Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila

• **695/96/21 eta 906/96/21 espedienteak.** Gure erakundera bi une desberdinetan adingabeko batzuen -bi neskato eta mutiko baten kasuak zeramatzaten abokatuak etorri ziren. Aipatutako adingabekoek internamendurako neurri judizialak bete behar zituzten, baina arazo bera zuten guztiek: EAEn ez dago neurri horiek behar bezala betetzeko moduko zentrorik. Hori zela eta, Eus-ko Jaurlaritzako Giza Eskubideetarako eta Justiziarekiko Elkarlanerako Zuzenda-ritzari honako gomendio hauek egin genizkien aipatutako bi espedienteen ingu-ruan: a) EAEtik kanpo kokatutako zentroetan dauden adingabekoei dagokienez batez ere erregimen erdirekian dauden neskatoei-, berehala bideratu behar dira Euskal Herriko zentroetara ekartzeko neurri egokiak, lehendik bertan dauden zentroetan logelak prestatuz -aldi batez mistoak izango lirateke- edo etxebizitzak nahiz bestelako egoitzak egokituz. b) EAErako aurreikusita dauden internamen-du zentroak ahalik eta azkarren eraiki eta abiarazi behar dira: Zumarragako zen-tro mistoa (erregimen itxikoa) eta, batik bat, neskak hartuko dituen Andoiuko zentro ireki eta erdirekia. Kontuan hartu behar da zentro egokiak ez izatearen ondorioz, eragindako adingabekoen eskubideak ez direla errespetatzen.

## FORU ADMINISTRAZIOA

## Arabako Foru Aldundia

• **1215/96/16 espedientea.** Gasteizeko etxe bateko auzo elkarteak idazkia bidali zigun 1996an Ondasun Higiezinen gaineko Zerga igo zitzaiela salatzeko. Ogasuneko ahaldunak txostena egin zuen gai horri buruz. Bertan ez zituen kontuan hartu ez Auzitegi Gorenak emandako epaiak, eta ezta Zergen gaineko Foru Arau Orokorreko (ZFAO) 120.3. art.an ezarritakoa ere. Aipatutako artikuluaren arabera, jakinarazpen pertsonala honako kasu honetan bakarrik geratuko da salbuetsita: ***«aldaketak Foru Arauetan onartutako balio handitze orokorren ondorioa direnean».*** Ildo honetan, Arartekoa deritzan erakundea sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/85 Legearen ll.b) art.an emandako ahalnnena betez, aipatutako departamentuari **69/1997** gomendioa egin genion, hau da: erreklamazioa aurkeztu zuen auzo elkarteko higiezinen jabeei 1996ko OHZ ordaintzeko bidalitako kitapenak ezezta zitzala. Horretaz gain, beste likidazio beitzuk egingo zitzaizkien, katastro balioek jasandako aldaketen jakinarazpena burutu eta hurrengo urteko urtarrilaren batetik aurrera eragina izango zutela. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Ogasunaren arloko erreklamazioen laburpena.

• **1223/96/16 espedientea.** Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Departamentuari honako gomendio hau egin zitzaion: espedientean burututako jarduketak aztertu ondoren eta erreklamatzailearen adierazpenak kontuan hartuta,

zerga zigorra ezartzea eragin zuen baltzuaren ustezko kolaborazio faltaren sor-burua zein izan zen argitzea. Batetik, jakinarazpena ez jasotzearen ondorioz ger-tatutakoaren berri ez zutela izan eta bestetik, iruzur egiteko asmorik gabe jardun zutela egiaztatzen bada, ezarritako zigorra berehala ezeztatu beharko litzateke. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Ogasunaren arloko erreklamazioen laburpena.

• **1576/96/19 espedientea** Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Departamentuari honako hau gomendatu zitzaion: batetik, behartze jardunbide bat baliogabe utzi eta interesdunari kendutako dirua itzultzea eta bestetik, espedientea atzera eramatea probidentziaren jakinarazpenaren aurreko jardunbidera arte. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Funtzio Publiko eta Administrazio Antolamenduaren arloko erreklamazioen laburpena.

**Bizkaiko Foru Aldundia**

• **3/96/16O espedientea.** Gipuzkoako Foru Aldundian PFEZn ordaindu beharreko zerga mota aldatzeko aukeraren inguruan izandako arazoak Bizkaian ere sor ez daitezen, honako hau gomendatu zitzaion bertako Foru Ogasunari: Gipuzkoako Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak egindako zirkularreko irizpideak kontuan har zitzala, horien arabera zergapekoari ordaintzen duen zerga mota berresteko nahiz aldatzeko aukera ematen baitzaio.

• **12/95/16 eta 14/95/16 (taldekoa) espedienteak.** Bizkaiko Foru Aldundiak PFEZren aitorpena nola bete azaltzen zuten foiletoak banatu zituen, eta erreklamatzaileek horietako bat hartu zuten. Bertan ez zen aipatzen ezkontzeagatik zerga aldia eteteko aukera dagoenik, eta hartu zituen funtzionarioak ere ez zien horren berririk eman. Horrela, interesdunek egindako eskabidea onartzea gomendatu zen, eta beraz, 1992ko aitorpenean ordaindutako zerga modalitatea aldatzeko aukera ematea.

• **793/95/20 espedientea.** Gizarte Ekintzarako Foru Departamentuari honako hau gomendatu zitzaion: interesdunek aurkeztuko dituzten eskabide guztiei buruzko berariazko erabakia ematea.

• **1193/96/16 espedientea.** Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren kitapena araudi bidez ez jakinarazteagatik bideratutako espedientea zela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Departamentuari bidalitako kitapena ezezta zezala gomendatu zitzaion, oinarrizko forma betebehar bat ez baitzuen bete, hau da, ustez jakinarazpenari uko egin ziona identifikatzea. Gai horri buruzko argibide gehiago nahi izanez gero, ikus Ogasun arloko erreklamazioen laburpena.

• **595/97/20 espedientea.** Herri Administrazioen Araubideari eta Guztientzako Administrazio Jardunbideari buruzko abenduaren 26ko 30/92 Legearen 42.1 art.an xedatutakoa betez, Bizkaiko Gizarte Ekintzarako Departamentuari erreklamatzailearen eskabide guztiei buruzko berariazko erabakia ematea gomendatu zitzaion. Aipatzekoa da erreklamatzailea babestutako tailer batean aritu zela lanean. Administrazioak ez dio inolako erantzunik eman eta denbora luzea igaro denez, gomendioa ez dela aintzat hartu ulertu dugu.

## Gipuzkoako Foru Aldundia

• **399/96/16 espedientea**. Arartekoak aztertutako errekurtsoari buruzko erabakiaren bigarren oinarria kontuan hartuz gero, aurkapena eta PFEZren kitapena, era mekanizatuan egin zena, egun berean gauzatu zirela ikusten da, hau da, 1993ko maiatzaren 8an. Aukerarik kaltegarriena egin izanaren arrazoia honakoa izango da ziurraski: kalkulu erregelak ez ezagutzea. Beraz, Ogasun eta Finantza Departamentuari interesdunak eginiko eskaria onartzea gomendatu zi-
tzaion, horrela, eginiko aukera alda zezan.

• **904/96/19 espedientea.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuari honako hau gomendatu zitzaion: aurretik emandako ebazpena ezeztatu eta, trafiko istripu baten ondorioz ibilgailu bati eragindako kalteei dagokienez, ondare erantzukizun administratiboa bere gain har dezala. Gai horri buruzko argibide gehiago izateko, ikus Funtzio Publiko eta Administrazio Antolamenduaren arloko erreklamazioen laburpena.

• **1164/96/16 espedientea.** Ogasun eta Finantza Departamentuari honako hau gomendatu zitzaion: Arartekoak aztergai izan zuen kasuan egokitutako inguruabarrak kontuan hartuta, PFEZn egindako zerga aukera aldatzeko eskaria onartzea eta interesdunei eginiko kitapenak zuzentzea.

• **1391/96/18 espedientea.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio eta Errepide Departamentuari honako hau gomendatu zitzaion: egokitu ziren inguruabarrak kontuan hartuta, unibertsitateko ikasle talde batek aukeratutako garraio enpresari eskatu zuen garraiabide berezia erabiltzeko baimena ematea.

• **503/97/16 eta 1896/97/16 espedienteak.** Bikote batek ohiko bizilekua erosi eta zegokien kenkaria ez onartzeagatik espedientea bideratu zuen. Hiru urtez jarraian bizilekuaren jabe izan eta bertan bizi zirenik ez egiaztatu izanagatik ukatu zitzaien kenkaria. Kasua aztertu ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuari honako hau gomendatu zitzaion: senar-emazteei PFEZ ordaintzeko bidalitako kitapenak ezeztatzea eta beste batzuk egitea, horietan ekitaldi hartan bizilekua erosteagatik zegokien %15eko kenkaria jasoko zela.

## HERRIADMINISTRAZIOA Arabako udalak Gasteizko udala

• **782/96/19, 783/96/19, 791/96/19, 1286/96/19, 1404/96/19, 1476/96/19, 1608/96/19 eta 543/97/19 espedienteak.** Gasteizko udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafiko arauak urratzeagatik irekitako espedienteak, guregana heldu diren erreklamazioei dagozkienak, bertan behera

uztea, prozeduretan harturiko erabaki guztien edo batzuen komunikazioan edik-tu jakinarazpena modu desegokian egin baitzen. Gai horri buruzko argibide ge-hiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Barne Saileko erreklamazioen laburpena.

• **85/97/16 espedientea.** Espedientea, 1993 eta 1994ko estolderia ta-saren bi ordainagiri betearazpidez ordaintzeko beharraren aurrean tramitatu zen. Erreklamazioa azaldu duen pertsonak etxebizitza bat erosi zuen, eta etxe horrekin zerikusia izan zezaketen udaleko ordainagiri guztiak bankutik kobratzeko agindua eman zuen. Hala eta guztiz, Udalak ez zituen behar ziren unean kobratu aipaturiko ordainagiriak, eta, ondoren, %20ko errekarguarekin eskatu zizkion. Erakunde honen ustez, erreklamazioa azaldu duen pertsonak behar den bezala helbideraturik zituen 1993 eta 1994ko ordainagiri guztiak, 1990etik aurrera horrela ordaintzen baitzituen ordaindu beharreko denak, eta, Udalak ez zionez jakinarazi helbideraketak ez zuela estolderia tasa ordaintzeko balio, oso normala da ordainagiri haiek ere modu hartara kobratuko zirela uste izatea. Aipaturikoaren ondoren, otsailaren 27ko 3/85 Legearen 11. artikuluan esaten denari jarraituz, honako hau gomendatu zen: indarrik gabe gera dadila 1993 eta 1994ko estolderia tasari buruzko zorraren oinarrian ezarritako errekargua, eta errekargu hori dela-eta kobraturiko guztia interesatuari itzultzea.

**Iruraiz-Gaunako udala**

• **367/95/15 espedientea.** Salaketaren arabera, Langarikan ur horni-dura zerbitzuak baimenik gabeko txabola bat eraiki zuen, eta ez zegoen arau subsidiarioek ezartzen duten gutxieneko tarterik alboko etxalderaino. Arartekoak gomendio bat bidali zion Iruraiz-Gaunako udalari, hirigintza mailako neurriak hartzea bidezkoa zen ala ez erabaki zezan.

**Bastidako udala**

• **343/96/16 espedientea.** Erakunde honen ustez, gehiegizkoa da sala-tzaileak garaje plaza batean kontsumitzen zuen ura eta industria batek edo bodega kosetxero batek kontsumitzen dutena parekatzea, jakinik, gainera, zenbait garaitan aipaturiko garajean ez zela batere urik kontsumitu. Aipaturiko guztiaren ondorioz, Bastidako udalari honako hau gomendatu zitzaion: etxeko erabilerarako tarifa ezartzerik ez dagoenez, horretan aritzen den zerbit-zuak tarifa berezia ezartzea erreklamazioa agertu duen pertsonak egiten duen erabilerarako.

**Labarkako udala**

• **407/94/15 espedientea.** Udal batzak, jendaurrean informazioa oke-rra emateagatik duen erantzukizun patrimoniala aitortzea gomendatu zen, eta, ondorioz, proiektu teknikoaren aldaketak duen kostua ordaintzea.

**Lezako udala**

• **691/96/15 espedientea.** Lezako udalari honako hau gomendatu zitzaion: erantzukizun patrimonialeko espedientea irekitzea, kaleak urbanizatzeko lanak beste enpresa bati, modu desegokian, eman zitzaizkiola eta, enpresa eraikitzaile batek kalteordaina jasotzea bidezkoa den ala ez erabakitzeko.

**Bizkaiko udalak Bilboko udala**

• **1072/95/19 espedientea.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: aurretik egin beharreko tramite guztiak egin ondoren, erreklamazioaren jatorrian dauden prozeduren gaineko zigor erabakiak, eta, premiamendu espedientean ezarritako diru zigorrak derrigorrezko ordainarazpen bitartez eskuratzeko hartutako erabakiak ofizioz ezeztatzea eta, hala gertaturiko kasuetan, kontzeptu hori dela-eta eskuratutako diru guztia itzultzea. Bilboko udalak erantzun zigun, espedienteetako batean ezarritako zigorraren dirua itzuli egin behar zuela, gertaera horiengatik, hau da, agenteek emandako aginduak ez betetzeagatik, epaileek zigorra jarria dutelako, eta ez delako bidezkoa urratze bategatik bi tokitan ordaindu beharra. Ibilgailua lerro bikoitzean aparkatzeagatik ezarritako beste espedientearen inguruan eskaturiko ezeztapenari dagokionez, gure gomendioa ez zutela jarraituko jakinarazi ziguten, beraien ustez arauen arabera jokatu zutelako. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Barne Saileko erreklamazioen laburpena.

• **261/96/19 eta 893/96/19 espedienteak.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten legeak hausteagatik irekitako espedienteetan hartutako bi zigor erabaki bertan behera uztea, hartutako akordioak jakinarazteko prozeduran irregulartasunak ikusi direlako. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Barne Saileko erreklamazioen laburpena.

• **1435/96/19 espedientea.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: udal egoitzetan zegoen ibilgailua erreklamazioa azaldu duen hiritarraren esku uztea, eta ibilgailua kaletik kendu eta udal egoitzetara eramateagatik eta bertan gordetzeagatik kobratzen diren tasak ez kobratzea. Ibilgailuaren jabeak berau udal egoitzetatik atera izan balu, ordainduriko dirua itzultzeko gomendioa luzatu zen. Gomendio honen oinarria, ibilgailua bahitzea eragin zuten espedienteetan dauden salaketak aginpide agenteak ez ziren pertsonek egindakoak zirela da, eta berretsi gabe zeudela. Akatsak ikusi ziren, baita ere, jakinarazpenak buaitzeko moduan, eta, horrez gain, premiamendu espedienteak tramitatzearen ondorioz gertatzen diren bahiketetan kontuan izan behar den lehentasun ordenaren zaurtzapenak antzeman ziren.

• **1529/96/19 espedientea.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten legeak hausteagatik irekitako prozeduretan hartutako erabakiak ofizioz ezeztatzea, eta baita premiamendu bitartez aurrera eramandako ekintza guztiak ere, espedienteetan dauden salaketak aginpide agenteak ez ziren pertsonek egindakoak zirelako, eta berretsi gabe zeudelako. Horrez gain, Arartekoaren ustez, jakinarazpenei buruz zeuden prebisioak zaurtatu ziren.

• **1644/96/22 espedientea.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza fiskalaren 8.2.d) artikulua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko 7/89 Foru Arauak aipatzen dituen preskripzioetara egokitzea, hau da, 750 kg. azpiko atoiek ez dezatela zertan zergarik ordaindu behar. Aholkatu zitzaion, baita ere, kontzeptu horren ondorioz egindako likidazioa ofizioz ezezta zezala.

• **990/97/19 espedientea.** Bilboko udalari esan zitzaion, interesaturiko pertsonak, egoiliar txartela lortzeko asmoz, ibilgailu baten ohiko gidaria zela erakusteko aurkeztutako frogagiriak, nahikotzat hartu behar zirela Trafiko eta Aparkamendurako Udal Ordenantzan dauden prebisioak indarrean jartzeko orduan. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Barne Saileko erreklamazioen laburpena.

**Abanto-Zierbenako udala**

• **104/96/15 espedientea.** Gallartako Cotarro auzoko Auzokideen Elkarteak, Abanto-Zierbeneko Udala tramitatzen ari zen Barne Berrikuntzarako Plan Berezia salatu zuen. Arartekoak gomendio bat bidali zion udalari, zenbait aspektu aldatu eta zenbait akats konpon zitzan. Udalak, Arartekoak emandako aholkuen parte txiki bat baino ez zuen kontuan izan.

**Arrietako udala**

• **374/96/15 espedientea.** Arrietako udalari honako hau gomendatu zitzaion: baserrietxea berritzeko emandako lizentzia berrizta zezala, bolumenaren eta garaieraren gehikuntzaz gain, bide publiko baten okupazio pribatua eragiten zuelako. Horrez gain, aurrekoaren ondorioz eskubideen aitorpen ekintza ezeztatu egiten zela-eta, erantzukizun aldarrikapena egitea proposatu zitzaion.

**Durangoko udala**

• **187/96/22 espedientea.** Durangoko udalari honako hau gomendatu zitzaion: taberna-jatetxe bateko jabeari eskatzea taberna bezala erabiltzen den lokalaren zatia hobeto intsonorizatzeko proiektua aurkez zezan. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Ingurugiro Saileko erreklamazioen laburpena.

**Ermuko udala**

• **2/97/230 espedientea.** Ermuko udalari honako hau gomendatu zitzaion: eraikuntzako udal proiektu bat idazteko ideia lehiaketa baterako deialdiaren oinarrien edukia berraztertzeko neurriak jartzea, kolegiaturiko edozein arkitektuk parte hartu ahal dezan, esparru geografiko jakin batean bizi behar izatearen muga jarri gabe.

**Getxoko udala**

• **97/96/19 espedientea.** Getxoko udalari honako hau gomendatu zitzaion: Arautukako Aparkamendurako Udal Zerbitzuaren Ordenantzatik, etxebizitza bakoitzeko egoiliar txartel bi baino ez direla emango esaten duen puntua kentzea. Gai horri buaizko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Barne Saileko erreklamazioen laburpena.

• **296/97/23 espedientea.** Getxoko udalari honako hau gomendatu zitzaion: ideia lehiaketa baterako deialdiaren oinarrien edukia berraztertzeko neurriak jartzea, kolegiaturiko edozein arkitektuk parte hartu ahal dezan, esparru geografiko jakin batean bizi behar izatearen muga jarri gabe.

**Gorlizko udala**

• **614/95/17 espedientea.** Gorlizko udalari honako hau gomendatu zitzaion: ahalik eta azkarren, indarrean dagoen jardueraren hedatzeko espedientea bukatzea, RAMINP-en ezarritako rozedurari jarraituz, eta, uda garaian, ez dela berriro baimenik gabeko jatetxe zerbitzurik eskainiko bermatzea.

**Zaldibarko udala**

• **579/97/17 espedientea.** Zaldibarko udalari honako hau gomendatu zitzaion: udaleko zerbitzu teknikoek ahalik eta azkarren, inspekziozko bisita berri bat egitea kasu honi dagokion tailer jarduerari, inguruko auzokideen etxebizitzetan azaldu diren arraildurak aipaturiko jarduerak sorturikoak diren ala ez erabakitzeko. Aldi berean, soinuaren neurketa bat egiteko aholkua eman zitzaion, aipatzen ari garen jarduerak sortzen dituen soinuak arauek ezartzen dituzten gehienezko soinu mailak gainditzen dituzten ala ez jakiteko, eta, irregulartasunak daudela baieztatuko balitz, jarduera ixteko agindua eman dezala, jabeak, jarduera modu egokian aurrera eramateko neurriak jarri dituela esaten duen lizentzia eskuratu arte, guztia RAMINP-en ezarritako prozedurari jarraituz. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Ingurugiro Saileko erreklamazioen laburpena.

**Zallako udala**

• **200/96/22 espedientea.** Zallako udalari honako hau gomendatu zitzaion: eskola-tailerra beste leku batera eramatea, udalean indarrean dauden arau

subsidiarioen arabera eskola-tailerraren jarduera arauzkoa izango den leku bate-ra, hain zuzen, eta udalak eskola-tailerraren esku jartzea proiektuak bere kokagu-ne berrian aurrera egiteko behar dituen giza eta aurrekontu baliabideak.

**Zierbenako udala**

• **94/94/15 espedientea.** Abanto-Zierbenako udalak, bereizketa gertatu aurretik, emandako lan lizentzia bat berraztertzeko aholkua eman zitzaion Zierbenako Udalari.

**Gipuzkoako udalak Donostiako udala**

• **145/96/22 espedientea.** Donostiako udalari honako hau gomendatu zitzaion: pub jarduera baten arduradunari proiektu teknikoa udalaren aurrean aurkezteko eskatzea, aipaturiko ostalaritza jarduera horren jardunbidea arautu ahal izateko.

• **419/96/19 eta 736/96/19 espedienteak.** Donostiako udalari honako hau gomendatu zitzaion: Bide Publikoetako eta Segurtasuneko Zinegotziak hartutako zenbait erabaki indarrik gabe uztea. Erabaki horien bitartez, erreklamazioa aurkeztu duten hiritarrei, beraien ibilgailuak aparkatu ahal izateko egoiliar txartela erabiltzeko eskubidearen luzapena ukatu zitzaien. Arartekoaren ustez, behar bezala egiaztaturik dago erreklamazioa aurkeztu duten hiritarren bizilekua ordenantzak arauturiko gunearen barruan dagoela, Udalak bestelakoa esaten badu ere.

• **855/96/15 espedientea.** Donostiako udalari honako hau gomendatu zitzaion: lurrazpiko pasabide baten mantenimendu eta kontserbaketa gastuak bere gain hartzea, aparkalekua kudeatzen duen enpresaz gain, bertan dauden beste zenbait jardueren erabiltzaileek eta jabeek ere erabiltzen baitute. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Lan Publikoen eta Zerbitzuen Saileko erreklamazioen laburpena.

• **1340/96/16 espedientea.** Erakunde honen ustez higiezin baten zergaren ordainketa erosleari eskatzeko, beharrezkoa izango litzateke zergapetu nagusiaren (kasu honetan erreklamazioa azaldu duen pertsonaren) huts egitearen aitorpena. Baina, gure ustez betearazpidez ekitea eta %20ko errekargua ezartzea ekiditen duen ezaugarri berezia dago kasu honetan, hau da, gertakariko unean zerga kudeatzen zuen erakundeak, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako informazio okerra. Foru Aldundiak emandako informazio horren arabera, eskatzaileak higiezinaren erosleari hartu izanaren adierazpena bidaltzea nahikoa izango litzateke gatazka argitzeko. Hori guztia kontuan izanik, Donostiako udalari gomendatu genion eskatzaileari borondatez ordaintzeko epe berria ematea, zergapetu nagusia bada ere, fase desberdinetan tramitaturiko prozedurak Foru Aldundiak emandako informazio okerraren ondorio izan direlako.

**Hondarribiko udala**

• **949/96/21 espedientea.** Bidasoaldeko Emakumeak izeneko taldeak salatu zuenez, Hondarribian ez zitzaien Alardean parte hartzen uzten, emakume izateagatik. Erakunde honek bi gomendio luzatu zizkion herriko Alkate Jaunari: a) Konstituzioak, pertsonen arteko berdintasuna erreala eta benetazkoa izan dadin ezartzen duen arautegiaren arabera, emakumeak Alardean parte hartzea ekiditen duen arautegian egin beharreko aldaketa guztiak bultzatu behar zituela gogoratu zitzaion. Modu berean, hala nahi zuten hiritar guztiek Alardean parte hartzeko duten eskubidea berma zezala eskatu zitzaion udalari, sexua dela-eta inolako bereizketarik egin gabe. b) Gomendatzen zen, baita ere, Alkateak bitartekari lana egitea jarrera eta arazoa ulertzeko dauden modu desberdinen artean, elkarrizketa eta konponbide baketsuak indartuz jaia ahalik eta modu egokienean ospatu ahal izateko. Gogoratzen zen balore demokratikoak ezartzera bideratutako gizarte prozesuek arduradun publikoen partehartze zuzena eskatzen dutela.

**Irungo udala**

• **811/96/22 espedientea.** Irungo udalari honako hau gomendatu zitzaion: diskoteka bat ixteko agindua zuzenbidearen arabera emateko hartu beharreko neurri guztiak hartzea, aipaturiko diskotekak ez baitzituen betetzen lokalaren instalazio proiektua aurkeztu zenean aurreikusten ziren suteen aurkako babes neurriak. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Ingurugiro Saileko erreklamazioen laburpena.

• **1264/97/22 espedientea.** Irungo udalari honako hau gomendatu zitzaion: eskatzaileari minusbaliotasuna dela-eta Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko orduan ezartzen den salbuespena ezartzea, ibilgailua, berez, fabrikatik, ezintasun fisikoa duen pertsona batek gidatzeko egokiturik zegoelako. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Ogasun Saileko erreklamazioen laburpena.

**Lasarte Oriako udala**

• **898/96/16 espedientea.** Lasarte Oriako udalari honako hau gomendatu zitzaion: erreklamazioa jarri duen pertsonari Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga eskuratzeko egindako likidazio bati ezarritako premiamendu errekargua bertan behera uztea, zergadunak epe barruan ordaindu baitzuen udalak, udalaren beraren erruz, egindako aurreko beste likidazio bat.

**Soraluzeko udala**

• **3/96/15 espedientea.** Talde ekologista batek salaketa jarri zuen Soraluzeko udalaren aurka, mendi babestu baten tontorrean antena bat ezartzeko baimena emateagatik. Arartekoak, lizentzia modu zuzenean tramitatzea gomen-

datu zion Udalari, prozedurazko irregulartasunak ikusten zirelako, eta baita, arau subsidiarioak ahalik eta azkarren idazteko.

### Tolosako udala

• **431/96/15 espedientea.** Herrialdeko Udalak eta biztanleek Tolosako Udala salatu zuten, inguruko mendi batean ehizako zakurrak hezteko esparrua eraikitzeko baimena eman zuelako eta sarritan entzuten ziren tiroen zarata oso nekosoa zelako. Arartekoak aholkua bidali zion Udalari, bere jarduketa legeak markatzen dituen mugen barruan bete zezan, erakunde honen ustez aipaturiko jarduketak muga horiek gainditzen zituelako. Arartekoa Eusko Jaurlaritzako Lu-rralde Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailera ere zuzendu zen, kirol jarduera ikuska zezan, lur ez urbanizakorrean dagoenez, eskumenak sail horren esku daudelako.

## BESTE ZENBAIT ERAKUNDE

### Durangoko Merinaldeko Ur Partzuergoa

• **207/97/20 espedientea.** Durangoko Merinaldeko Ur Partzuergoari, 1997ko urtarrilaren 24an, BAOean jendaurrera egindako deialdiaren edukia berraztertzeko gomendioa luzatu zitzaion, egon zitezkeen hautagaien aukeraketa, lehiaketa soila ez den beste sistema baten bitartez egin dadin. Aipaturiko deialdia, lan kontratazio mugagabe bitartez, Partzuergorako hiru langile kontratatzeko zen. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Funtzio Publiko eta Administrazio Antolakuntza arloko erreklamazioen laburpena.

### Administrazio korporatiboak Abokatutzaren Euskal Kontseilua

• **645/95/20 espedientea.** Kolegiatuek, beraien kolegioetako gobernu biltzarretako aktak eskuratzeko eskubidea izatea gomendatu zen.

## 6.3. ERANTZUNAREN ZAIN DAUDEN GOMENDIOAK

## EUSKO JAURLARITZA

### Ogasun eta Administrazio Publikoko Saila

• **622/97/20 espedientea.** Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Administrazio Publikoko Sailari gomendatu zitzaion 1997ko Aurrekontuen Legearen zor-

tzigarren xedapen erantsiaren ezarpena, erreklamazioa bideratu duen funtziona-rioari ere luzatzea, gaur egun betetzen duen lanpostua behin-betiko eskura de-zan.

**Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea**

• **1349/96/20 espedientea.** Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeari, etorkizuneko lan poltsak osatzeko dauden irizpideak direla-eta, arrantza inspekziorako behar diren lanpostuen probisiorako hautagaien arteko tratu desberdintasunak konpontzeko neurriak hartzea gomendatu zitzaion, kontuan izanik ezohiko kontratazio haiek 1994ko uztailean eta abuztuan egin zirela, "hegaluzearen gerra" izenekoaren ondorioz.

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila**

• **1714/97/20 espedientea.** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari honako hau gomendatu zitzaion: erreprodukzio eta inprimaketa APD tailerreko maisu lanposturako hautagai balianizkotzat hartzea erreklamazioa azaldu duen pertsona, eta, ondorioz, interesatuak hezkuntza administrazioaren aurrean aurkeztutako ohiko errekurtsoa (oraindik erantzun gabea) kontuan hartzea. Gomendatu zen, baita ere, baliozkotzat harturiko hautagai guztien meritoen arteko kontrastea ikusirik, 97-98 ikasturtean lanpostuak eskuratzeko prozesuan, Gasteizko Arte Aplikatu eta Diseinu Eskolarako iragarritako erreprodukzio eta inprimaketa APD tailerreko maisu lanposturako esleipena berraztertzea.

**Euskal Herriko Unibertsitatea**

• **1643/96/20 espedientea.** EHUk 1996ko abenduaren 10eko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean, administraziorako eta zerbitzuetarako lanpostuak eskainiz argitaratu zituen lehiaketa-oposizio deialdiak direla-eta, unibertsitateari, hautaketa frogetan parte hartzeko ordaindu beharreko tasen likidazioak indarrik gabe uztea eta kontzeptu hori dela-eta kobraturiko dirua itzultzea gomendatu zitzaion. Aldi berean, unibertsitateak hemendik aurrera egin behar dituen deialdietan EElaren 31. artikuluak aldarrikatzen duen erretserba printzipioaren errespetua bermatuko duten neurriak hartzeko gomendioa ere luzatu zitzaion.

**Kultura Saila EITB**

• **129/97/21 espedientea.** ETBk ez zuen eskaini Hirugarren Munduko herriekin elkartasuna aldarrikatzen zuen kanpaina bati buruzko iragarki bat, iragarkiak ez zuela inolako merkatal edukirik esanez. Arartekoak iragarkia eskain-

tzeko gomendioa luzatu zuen, ez bakarrik ordenamendu juridikoaren goi balo-reen aldekoa zelako, baita beste kasu batzuetan ETBk antzeko edukia zuten ira-garkiak eskaini dituelako. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi iza-nez gero, ikus Kultura Saileko erreklamazioen laburpena.

**Barne Saila**

• **1133/95/19 espedientea.** Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten legeak hausteagatik ezarritako zigorra bertan behera uzteko eskariarekin interesatuak idatzi zuen idazkiari erantzun formala ematea.

• **364/97/19 espedientea.** Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari honako hau gomendatu zitzaion: erreklamazioa aurkeztu duen interesatuari, bera partaide izan zen zirkulazio istripu baten ondorioz idatzitako txostenaren kopia bat emateko. Interesatuak eskaturiko beste zenbait txosten ez emateko zergatiak azaltzeko gomendioa ere luzatu zitzaion.

**Lurralde Antolakuntza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila**

• **636/96/15 espedientea.** Etorkizunean etxebizitzak eskuratzeko egin-go diren deialdietan irizpide zuzentzaileak sartzeko gomendioa luzatu zen, hiritarren arteko diskriminazio egoerarik gerta ez dadin, kontuan izanik eskatzaileen benetako ahalmen ekonomikoa egiaztatzeko eta haien errenta-mailek deialdiaren oinarrietan jarritakoak ez dituztela galnditzen frogatzeko baliabideak daudela, batez ere Konstituzioak agintzen duen behar bat betetzen den kasuetan eta garai bateko eszedentzia kasuak daudenean. Gai horri buruzko argibide gehiago eskuratu nahi izanez gero, ikus Hirigintza eta Etxebizitza Saileko erreklamazioen laburpena.

**FORU ADMINISTRAZIOA**

## Bizkaiko Foru Aldundia

• **674/94/18 espedientea.** Gizarte Ekintzarako Foru Aldundiko sailari honako hau gomendatu zitzaion: erakunde horren ustez epez kanpo aurkezturiko laguntza programa batean sartzeko eskaria onartzea. Gomendioaren oinarria hau da: eskaria, deialdiak ezartzen zuen epearen barruan aurkeztu zela interesatua bizi zen herriko Udaletxeko gizarte zerbitzuetan.

• **1135/97/22 espedientea.** Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio Sailari honako hau gomendatu zitzaion: Bizkaibus garraio zerbitzuan, 25/71 Legearen

21. artikuluak familia ugariko kideentzat ezartzen dituen beherapenak erabiltzea, bi herri desberdin lotzen dituzten ibilbideetan. Foru Aldundiko sail horrek aurkez-turiko alegazioak aztertu ondoren, komenigarri iruditu zitzaigun aipaturiko ga-rraio zerbitzuak ezartzen dituen tarifen tipologiari buruzko informazio gehiago eskatzea.

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

• **1237/97/23 espedientea.** Gipuzkoako Foru Aldundiari honako hau gomendatu zitzaion: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga kontzeptuan igorririko likidazioa ezeztatzea eta ondoren beste bat burutzea. Bigarren honetan kontuan izan beharko litzateke etxebizitzarako inbertsioak dituen kenketak; kenketa horien barman egongo lirateke etxebizitza erosteko orduan izaten diren gastu guztiak, interesak izan ezik, hau da, etxebizitza erostera bideraturiko kredituak irekitzeko komisioak, tasazio gastuak eta behar bezala frogaturik dauden beste gastu guztiak.

• **1292/97/23 espedientea.** Gizartekintzari honako hau gomendatu zitzaion: Gizartekintzako Erregistro Bateratua izenekoan pertsonen datuak biltzeko erabiltzen duen formularioan, datu pertsonalen fitxategi automatiko bat dagoela esaten duen oharra jarri beharko lukeela, ondo ikusten den tokian eta argi irakurtzeko modukoa. Bertan argitu egin beharko litzateke datuen bilketaren zergatia, informazioa nork jasoko duen, planteaturiko galderei erantzutea derrigorrezkoa ala borondatezkoa den, datuak emateak edo ematera ukatzeak izan ditzakeen ondorioak, norberari buruzko datuak eskuratu eta aldatu edo ezabatzeko eskubidea aurrera eramateko aukera, eta baita fitxategiaren arduraduna nor den eta haren helbidea.

**HERRI ADMINISTRAZIOA**

**Arabako Udalak Gasteizko udala**

• **326/97/19 espedientea.** Gasteizko udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafikoa arautzen duten legeak hausteagatik hartutako zigor erabakia bertan behera uztea, eta baita premiamendu prozeduran jarraitutako jarduketak, espedientean aipatzen diren akordioak jakinarazteko moduan hainbat irregulartasun antzeman delako.

• **336/97/23 eta 1644/97/23 espedienteak.** Gasteizko udalari honako hau gomendatu zitzaion: Udal horren aurrean eskaturiko erantzukizun patrimoniala atzera botatzeko erabakia indarrik gabe uztea, erabaki hori hartzeko orduan, udalak kalteetan zerikusirik ez zuela ulertu baitzen, kaltea eragin zuen

zerbitzu publikoa emakida duen enpresa batek burutzen duelako. Horrela, eraba-ki berria idazteko aholkua eman zen, eta bertan kontuan har dadila erantzukizu-na norena den, kalte ordaina zenbatekoa den, eta, bidezkoa balitz, Udalaren erantzukizuna, kaltetuak dagokiona eskuratuko duela bermatzeko.

• **815/97/19, 1339/97/19 eta 1434/97/19 espedienteak.** Gas teizko udalari honako hau gomendatu zitzaion: trafiko arauak urratzeagatik hartutako bi zigor erabaki indarrik gabe uztea, espedientean aipatzen diren akordioak jakinarazteko moduan hainbat irregulartasun antzeman delako.

• **1235/97/21 espedientea.** Bikote batek beraien alaba udal haurtzain-degian inskribatzeko eskaria egin zuen. Bikoteko kide biak lanean ari diren arren, aurreinskripzioaren unean ama seme-alabak zaintzeko lan eszedentzia egoeran zegoen, baina bazekien lanera itzuli behar zuela eta noiz itzuli behar zuen, eta itzultzeko eguna ikasturtea hasi aurrekoa, eta, beraz, haurtzaindegiko zerbitzua hasi aurrekoa zen. Datu hori behar bezala frogaturik egon arren, Udalak, amak ez zuela lanik egiten ulertu zuen, eta biak lanean ari zirela ulertuz gero emango zuen puntuazioa baino puntuazio baxuagoa eman zuen. Arartekoak puntuazio baremoak aldatzeko gomendioa eman zuen, hiritarrek bizi dituzten egoera errealetara, eta ez bakarrik formaletara, egokitzeko.

• **1503/97/19 espedientea.** Gasteizko udalari honako hau gomendatu zitzaion: interesatuari trafiko arauak urratzeagatik irekitako prozeduran ezarritako isunei dagokionez, hobariak ezarri behar zaizkiola hark ordaindu beharreko diru kopuruari, salaketaren jakinarazpenean hainbat irregulartasun antzeman delako.

**Bizkaiko Udalak Bilboko udala**

• **1296/96/19 espedientea.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: erreklamazioa azaldu duen pertsonari itzultzea haren ibilgailua, trafikoa arautzen duten legeak hausteagatik ezarritako isunak ez ordaintzeagatik bahitua, erakunde honen ustez, premiamenduan ez delako kontuan hartu administrazioaren jarduketa horretan erabili beharreko ondasunen lehentasun ordena.

• **1446/96/19 espedientea.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: espaloi batean erori zen emakumezko baten kalteetan duen erantzukizun patrimonial administratiboa aitortzea.

• **243/97/23 espedientea.** Bilboko udalari honako hau gomendatu zitzaion: emakida duen enpresa batek eragindako kalteen erantzukizun patrimonialaren eskariari buruzko erabakia hartzea, ustez gertatuen ziurtagiria eskatu arren, bertan ez baitzen aipatzen zein den erantzukizuna dagoen ala ez erabakitzeko orduan jarraitu beharreko derrigorrezko prozedura, zein den erantzukizuna duen organoa ezta kalte ordaina zenbatekoa den ere. Udalaren erantzukizu-

nari buruzko erabakia ere hartu beharko luke, kaltetuak dagokiona eskuratuko duela bermatzeko.

**Abanto-Zierbenako udala**

• **1486/96/22.** Abanto-Zierbenako udalari honako hau gomendatu zitzaion: txabola baten jabeei hura legeztatzeko egin beharrekoa egin ditzaten eskatzea, eta beharrezko balitz, kasuari dagozkion hirigintza disziplina neurriak hartzea.

**Alonsotegiko udala**

• **1844/97/17 espedientea.** Alonsotegiko udalari honako hau gomendatu zitzaion: aisialdi eta kultur elkarte bat ixteko agindua ematea, instalakuntzaren arduradunek, jarduera modu egokian aurrera eramateko neurriak jarri dituztela esaten duen lizentzia eskuratu arte, guztia RAMINP-en ezarritako prozedurari jarraituz.

**Arrietako udala**

• **1109/96/15 espedientea.** Arrietako udalari honako hau gomendatu zitzaion: kalefakziorako galdara baten instalakuntza legeztatzeko lan lizentzia bertan behera uztea, zuzenbidearen aurka doalako.

**Erandioko udala**

• **975/97/17 espedientea.** Erandioko udalari honako hau gomendatu zitzaion: taberna baten jarduera, jardunbideko lizentziak ezartzen dituen neurri zuzentzaileetara egokitzen den ala ez erabakitzea.

**Ermuko udala**

• **345/96/15 espedientea.** Udalari honako hau gomendatu zitzaion: gune pribatu baten okupazio irregularra burutu duela aitortzea, eta kalteturikoei gune horren balioaren pareko kalte ordaina ematea.

**Galdakaoko udala**

• **1394/97/23 espedientea.** Galdakaoko udalari honako hau gomendatu zitzaion: Udal horren aurrean eskaturiko erantzukizun patrimoniala atzera botatzeko erabakia indarrik gabe uztea, erabaki hori hartzeko orduan, udalak kalteetan zerikusirik ez zuela ulertu baitzen, kaltea eragin zuen zerbitzu publikoa emakida duen enpresa atek burutzen duelako. Horrela, erabaki berria idazteko

aholkua eman zitzaion udalari, eta bertan kontuan har dadila erantzukizuna no-rena den, kalte ordaina zenbatekoa den, eta, bidezkoa balitz, Udalaren erantzu-kizuna, kaltetuak dagokiona eskuratuko duela bermatzeko.

**Lekeitioko udala**

• **1191/97/17 espedientea.** Lekeitioko udalari honako hau gomendatu zitzaion.- herrian dagoen taberna-jatetxe bateko musika ekipoa zigilatzeko behar diren neurriak berehala hartzea.

**Lezamako udala**

• **242/97/15 espedientea.** Udalari honako hau gomendatu zitzaion: industria pabilioi berri batera doan sarbidearen arazoa konpontzea, trafiko astunak ondoko nekazal bidea kaltetu ez dezan.

**Ortuellako udala**

• **715/97/15 espedientea.** Udalari honako hau gomendatu zitzaion: zaharkin egoeran deklaraturiko ikuilu bat lurreratzeko aginduaren exekuzio subsidiarioa aurrera eramatea.

**Gipuzkoako udalak**

**Donostiako udala**

- **687/96/15 espedientea.** Udalari honako hau gomendatu zitzaion: inolako utziera erantzukizunik egon daitekeen ala ez iker zezala, ez baita aurrera eraman baimenik gabeko zenbait lan lurreratzeko alkatetzak hartutako erabakia.
- **840/96/15 espedientea.** Donostiako udalari honako hau gomendatu zitzaion: jabego pribatuko soberako lur eremua mugatzen zuten kateak erretiratzeko akordioa bertan behera uztea.
- **1083/97/23 espedientea.** Donostiako udalari, hiritarrek aurkezturiko idazki guztiei eta bakoitzari erantzuna emateko legezko beharra duela gogoratu zitzaion.
- **1345/97/19 espedientea.** Donostiako udalari honako hau gomendatu zitzaion: erreklamazioa aurkeztu duen interesatuari, bere ibilgailua berreskuratu ahal izateko, ibilgailu hura kaletik kentzeagatik eta udal egoitzetan gordetzeagatik kobratzen diren tasak direla-eta, ordaindu zuen diru kopurua itzultzea.

**Andoaingo udala**

• **1550/96/22** espedientea. **Andoaingo udalari honako hau gomendatu zitzaion: bere erantzukizun patrimoniala aitortzea eta interesatuari eragindako**

kalteak ebaluatzea, hark izandako lesioak bide publikoen zainketa eta manteni-mendu urriaren ondorio baitira.

**Irungo udala**

• **590/97/23 eta 985/96/23 espedienteak.** Irungo udalari honako hau gomendatu zitzaion: Udal horren aurrean eskaturiko erantzukizun patrimoniala atzera botatzeko erabakia indarrik gabe uztea, erabaki hori hartzeko orduan, administrazio horrek aipatzen diren kalteetan inolako zerikusirik ez zuela ulertu baitzen, kaltea eragin zuen zerbitzu publikoa emakida duen enpresa batek burutzen duelako. Horrela, erabaki berria idazteko aholkua eman zen, eta bertan kontuan har dadila erantzukizuna norena den, kalte ordaina zenbatekoa den, eta, bidezkoa balitz, Udalaren erantzukizuna, kaltetuak dagokiona eskuratuko duela bermatzeko.

**Zarauzko udala**

• **818/96/23 espedientea.** Zarauzko udalari honako hau gomendatu zitzaion: Udal horren aurrean eskaturiko erantzukizun patrimoniala atzera botatzeko erabakia bertan behera uztea. Eskaria, Udalak kontrataturiko enpresa baten jarduerak eragindako kalteak zirela-eta aurkeztu zen. Arartekoaren gomendioa onartu eta erabakia ezeztatu egin zen. Dena den, erabaki berrian, kontrataturiko enpresari audientzia eman bazitzaion ere, ez zen erantzukizunik aitortu, eta ez zen esan norena zen erantzukizuna. Horrela, azken puntu horri buruzko gomendioa eman zaio Udalari.

• **1087/97/23 espedientea.** Zarauzko udalari honako hau gomendatu zitzaion: herri horretako kale jakin batean ibilgailuen zamalanak burutzeko baldintza egokiak zeintzuk diren erabakitzeko ofiziozko espediente bat irekitzea, aipaturiko kalean bizi diren herritarrek ahalik eta traba gutxien izan dezaten eta helbide horretan dagoen negozioaren merkataritza jarduera modu egokian aurrera eraman ahal dadin.

**BESTE ZENBAIT ERAKUNDE**

**Bizkaiko Mankomunitateak, partzuergoak eta parkeak**

**Ur partzuergoa**

• **206/95/16 eta 1072/96/16 espedienteak (talde espedientea)**

Bilbo Handiko ur partzuergoak, bertako kide diren udalerriek beharrezko akordioa hartu aurretik, saneamendu kanonaren kobrantza herri ogasunen legeriak sartu-riko baldintza berrietara egokitu beharko du, batez ere ordenantza fiskalen onarpe-

nari eta horien bitartez tasa horren oinarrizko elementuak (zerga egitatea, subje-ktu pasiboak, salbuespenak, etab.) zein diren erabakitzeari dagokionean. Bitartean, bertan behera utzi beharko dira kontzeptu hori dela-eta ur hornidura-rako zerbitzuko erabiltzaile diren baina saneamendu sare nagusia erabili ezin dutenei igorririko likidazioak.

**Administrazio korporatiboak Bizkaiko Abokatuen Koiegioa**

• **1253/96/21 espedientea.** Hiritarrek, ustez desegokiak diren abokatuen lan jarduketak direla-eta jartzen dituzten salaketen aurrean abokatuen kole-gioek hartzen dituzten erabakiek eragin handia dute abokatu haien interesengan, eta, ondorioz, Abokatutzaren Euskal Kontseiluaren aurrean errekurtsoa aurkeztu edo, jurisdikzio bidearen bitartez plantea daitezke. Hori dela-eta, kolegioak erre-klamazioa tramitatzeko erabiltzen duen prozedura bat edo bestea izanik ere, har-turiko erabakiaren jakinarazpenean, aurkez daitezkeen errekurtso guztiak aipatu beharko dira. Kasu honetan dagokigun0

# VII. ATALA
# GOMENDIO ETA IRADOKIZUN OROKORRAK

## 7.1. **ATZERRITARRAK UDAL ERROLDAN SARTZEAZ**

AURKIBIDEA

1 . GAIAREN AZALPENA
2. INDARREAN DAUDEN ARAUDIAK
3. ERROLDARI ETA UDAL BIZTANLERIARI BURUZKO ARAUDIAREN AZ TERKETA
4. INDARREAN DAGOEN ARAUDIA NOLA APLIKA LIEZAIEKEEN ATZE- RRITARREI
5. ONDORIOA

---

### 1. GAIAREN AZALPENA

Gomendio honen helburua pertsona atzerritarrak udal erroldan sartzeari buruz indarrean dagoen araudiaren esanahi praktikoa eta esparaia mugatzea da. Eragin horietarako, azterketa honetatik ateratako ondoreak Estatuko udal guz-tietan dira aplikagarriak, eta beraz, baita EAEkoetan ere.

Espainiako lurraldean dauden atzerritarrak herri jakin bateko udal erroldan sartzeko planteatzen den arazo juridikoa ez da behar hainbateko arretaz tratatua izan, ez doktrinaren ikuspegitik, ez jurisprudentziarenetik, eta ondorioz ez dira irizpide berberak aplikatu EAEko eta kanpoko udal batzuetan eta besteetan. Be-hin atzerritarra estatuko lurraldean dela, egoera juridiko bitxian aurkitzen da, eta egoera horren itzala araudi batera baino gehiagotara heltzen da, horien artean, herritarrak udal erroldetan sartzea arautzen duenera. Zenbait kasutan, aplikatu beharreko arauen zehazgabetasunak edo ezezagutzak eraginda, oso administra-zio jarduera desberdinak -batzutan kontraesate garbiak- gertatu dira, eta udal batzuen eta besteen artean desberdintasun sakonak izan dira atzerritarrak errol-dan onartzekoan ala ukatzekoan, segurtasun juridikoaren eta lege aurreko ber-dintasunaren printzipioen kaltetan.

Errealitate honetaz jakitun, Arartekoari egoki iruditu zitzaion 1993. urtean, Euskal Parlamentuari egiten dion urteroko Txostenean, gomendio orokor bat egitea. Zelako gomendioan, toki araudian eta atzerritartasunekoan indarrean dauden arauak batera aztertu ondoren, EAEko udal erroldetan atzerritar egoilia-rrak sartzeko edo ez sartzeko erabakia argituko zuten egoerak, kasuak eta irizpi-deak finkatu nahi izan ziren.

Esandako gomendioa eman zenetik toki araudian gertatu diren erreforma garrantzitsuek, alde batetik, eta bestetik, 1994 eta 1996 urteetan atzerritarta-sunari buruzko estatuko araudietan izan diren aldaketa funtsezkoek eraginda, legezko jarduera esparrua eta, batez ere, ondorio juridikoak asko aldatu dira. Horrek esan nahi du 1993an balio zezakeen gomendioak gaur ez duela, zenbait arlotan, zentzu handirik, eta beraz, komenigarria eta beharrezkoa dela orduko gomendioa eguneratzea, gaur indarrean dagoen legediari hobeto erantzun die-zaion.

Orduan ere Arartekoak azpimarratu zuen gaiaren garrantzia, pertsonentzat izan zezakeen eraginagatik. Atzerritar bat erroldan sartzeak funtsezko papera joka dezake denboraldi jakin batean Estatuko egoiliar dela frogatzeko orduan. Horrek berez izan dezakeen garrantziaz gainera, gogoan izan behar da orobat, erroldan izena emanda egotea, sarritan nahitaezko betebehar administratiboa izaten dela -nahiz eta nahikoa ez izan- gizarteko sektore behartsuenentzat guztiz premiazkoak izan ohi diren zenbait zerbitzu publikotara iritsi ahal izateko. Adibi-de gisa, EAEan dauden gizarte laguntza mota ugariak aipa daitezke, edota, osasun laguntza izateko eskubidea.

## 2. INDARREAN DAUDEN ARAUDIAK

1993ko gomendioan adierazten genuen bezala, atzerritarrak udal erroldan sartzeari buruzko gaiak, elkarrengatik erabat bereizita pentsatu eta egin diren bi araudi multzotan du eragina. Alde batetik toki erregimena arautzen duen legedia dugu, eta bestetik, atzerritartasunari dagokion araudia. Esandako bi eremuetako funtsezkoena hartzen duten xedapenak ondorengo zerrendan jasotzen dira:

A) Udal erroldari dagozkion arauak:

- Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea (aurrerantzean TEOL), batez ere, 15.etik 18.era bitarteko artikuluak, urtarrilaren 10eko 4/1996 Legeak esandako artikuluei emandako idazkeraren arabera.
- Uztailaren 11ko 1.690/1986 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen den toki erakundeetako Lurralde Mugen eta Biztanleriaren Araudia (aurrerantzean LMBA), batez ere 53.etik 87.era bitarteko artikuluak, abenduaren 20ko 2.612/1996 Errege Dekretuak esandako artikuluei emandako idazkeraren arabera.

B) Atzerritarren eskubideei buruzko araudia:

• Atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzko uztaila-
ren leko 7/1985 Lege Organikoa (aurrerantzean ALO).

• Aterbe eskubidea eta babestu izaera arautzen duen martxoaren 26ko 5/1984Legea, maiatzaren 19ko 9/1994 Legeak aldatu zuena (aurrerantzean AL).

- Otsailaren 2ko 155/1996 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen den ALOren egikaritze araudia (aurrerantzean ALOA).
- Europar erkidegoetako kide diren estatuetako pertsonak Espainian sartu eta egoteari buruzko ekainaren 26ko 766/1992 Errege Dekretua.
- Otsailaren 10eko 203/1995 Errege Dekretua, zeinaren bidez onartzen den ALaren aplikazio araudia.

Esandako bi arau multzoen arteko banaketa, 1993ko gomendioan ere sala-tu zena, ordutik hona gutxitu ordez, areagotu egin da. Esandakoaren frogagarri, ALOAren 3. artikuluari eman zaion idazkera, udal erroldaren inguruan atzerrita-rrek dituzten eskubideei buruzko lehenengoa eta oraingoz bakarra. Horra zer dioen:

*"Atzerritarrek aske ibiltzeko eskubidea dute lurralde nazionalean, eta orobat, bizilekua nahi duten tokian ezartzekoa, eta bizi diren udalean erroldatzekoa, nahiz egoiliar gisa, nahiz iragaile gisa, segurtasun publikoaren arrazoiek eragindakoak eta legeetan aurreikusitakoak beste mugarik gabe, 7/1985 Lege Organikoaren 6. artikululan xedatuaren arabera."*

Delako xedapena, atzerritarrak iragaile kategorian erroldatzeko aukera es-kaintzearekin, guztiz aplikaezina bihurtzen da. Orain indarrean dagoenaren au-rreko toki erregimenean, izan ere, esandako erroldatzea ezinezkoa zen, iragaile izateko espainiarra izan beharra baitzegoen, eta orain indarrean dagoen araudia-rekin (hilabete aurretik onartu zen ALOA baino) berdin gertatzen da, ez baita jada legeetan iragailearen irudia existitzen.

Beste behin ere, arauen arteko -eta beraz, aplikagarri diren ondorio juridiko eta gerta litezkeen kasuen arteko- integrazio ezaren aurrean aurkitzen gara. Hala ere, aurrez aipatutako araudiaren baterako azterketa ez da gaur egun egin behar, gure aurreko gomendioko metodo berbera erabililz, zeren eta, udal errol-daren arautzean gertatutako aldaketek erabat erlatibizatu baitute eremu hone-tako atzerritartasun Zuzenbidearen eraginkortasuna. Zentzu horretan, komeni-garria da azaltzea, laburturik bada ere, 4/1996 Legeak toki erregimeneko arau-dian sartu dituen berrikuntzak, arazoari buruzko ikuspegi egokia osatzearren.

## 3. ERROLDARI ETA UDAL BIZTANLERIARI BURUZKO ARAUDIAREN AZTERKETA

Gure interesa, toki erregimeneko araudian gertatutako aldaketak aztertzea da, udal errroldari zuzenean dagokienak bereziki, eta horretarako, oinarrizko ideiak nabarmenduko ditugu. TEOLeko 11.2 artikuluak aldarrikatzen duenaren arabera, biztanleria da udaleko hiru elementu oinarrizkoetako bat. BAren aurre-ko idazkerak eskubidezko biztanleria eta izatezko biztanleria bereizten zituen. Egun, ordea, aipatu 4/1996 Legeak gauzatutako arau berrikuntzaren indarrez, udaleko biztanleria baizik ez dago, udal erroldan izena emandako pertsonen multzoa, alegia. Era berean, pertsona hauek herritar izaera dute, duten adina edo nazionalitatea dutela. Gogoan har dezagun, eragin hauetarako, oraingoaren aurretik indarrean zegoen araudian, adinez nagusi ziren espainiarrek baizik ez zutela herritar izaera.

Horrek esan nahi du udal errolden arloan burututako lege berrikuntzak, gai hau egituratzen zuten aurreko kontzeptu kategoriak ezabatu egin dituela. 1996 urteaz aurreko araudiaren arabera, kanpoan zeuden egoiliarrak ez ziren udaleko izatezko biztanle, eta ordainetan, izatezko biztanletzat hartzen ziren iragaileak, hau da, arrazoi bat edo beste zela medio udal horretan bizi ziren herritarrak, nahiz eta euren ohiko bizilekua beste udal batean izan, eta hango udal erroldan kanpoan zeuden egoiliar bezala jasoak egon. Iraigaileak, beraz, behin-behingoz bizi ziren udaleko izatezko biztanle ziren, baina ohiko bizilekua zuten udaleko eskubidezko biztanle.

Horrela, nola TEOLek hala LMBAk, egoiliarrak eta iragaileak bereizten zituzten, eta lehenengoak nahitaez udal erroldan izena emanda egon behar bazu-ten ere, bigarrenek askatasuna zuten erroldatzeko ala ez erroldatzeko. Nolanahi ere, iragaileez hemen interesatzen zaiguna da, atzerritarrek ezin zutela iragaile gisa izena eman, TEOLek bezala LMBAk ere, espainiar herritarrentzat baizik ez baitzuten aurreikusten kategoria hori. Horrek esan nahi du, beraz, atzerritarrek udal erroldan sartzeko zuten aukera bakarra egoiliar kontzeptuagatik izan ziteke-ela.

Areago, udal erroldei buruzko aurreko araudiak, egoiliar kategoriaren ba-rruan, herritarrak eta helbidedunak bereizten zituen. Herritarrak, aurrez esan den bezala, eskuarki udal barrutian bizi ziren adin nagusiko espainiarrak ziren, eta izaera horrekin erroldan izena emandakoak. Espainiar hiritartasunik (edo adin nagusitasunik) ezean, helbideduntzat hartzen zen, eta horrek udal esparruko es-kubide maila jaitsi egiten zuen. Atzerritarrek, beraz, udal erroldara iristeko, egoiliar helbidedun izan beharra zeukaten, eta ez ziren esandako udaleko herritartzat hartzen.

Egungo TEOLko 15. artikulua irakurrita argi ikusten da, errotik aldatu dela arlo honetako zuzenbide egoera, eta asko bakundu direla aurreko araudiak erabi-litako kontzeptuak.

Bi ideia nagusiren bidez gauzatu da erreforma bakuntzaile hori. Lehenik, iragailearen irudia ezabatu da, segur aski, udal erroldaren egitura alferrik korapi-

latzen zuen garrantzi praktiko eskaseko kategoria zelako. Bigarrenez, aurreko egoiliar kontzeptua oraingo herritar kontzeptuarekin baliokidetu da, eta beraz, azken honen esanahi eremua zabaldu egin da, erreforma aurreko bi helbidedun kategoriak ere hartzen baititu orain.

Horrek esan nahi du, udal erroldan izena ematen duten gaur egungo atze-rritarrak bizi diren udaleko herritartzat hartuko direla eta herriko biztanleriaren parte izango direla. Hala ere, herritar izaerari dagozkion eskubideak, espainiar hiritartasuna dutenentzat gordetzen direla dirudi. Alde batetik, argi dago politika izaerako eskubideak, espainiar herritarrenak direla soilik, eta arau horren salbues-pen bakarra, Konstituzioko 13.2 artikuluan berariaz aurreikusitako kasua litzate-ke. Bestalde, TEOLeko 18.2 aritukulu berriak zera ezartzen du berariaz:

> *"Udal erroldan izena emanda egotea ez da izango atzerritarrentzat Espainian legezko egoiliarrak diren froga, eta ez die emango (erroldan egoteak) indarrean dagoen legediak ematen ez dien ezein eskubide, bereziki atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunen gaian."*

Ez da hau leku egokia 4/1996 Legeak sartutako artikulu honen egokitasun juridikoa aztertzeko. Hala ere, zailtasun handirik gabe ondoriozta daiteke, toki erregimeneko araudi berrian ezartzen den herritar kontzeptu baliokidetzailearen azpian, espainiarren eta atzerritarren arteko egoera juridiko desberdinak bereiz-ten dituen errealiatea ezkutatzen dela.

Azkenik, esan behar da, erroldari buruzko legediak, izatezko edo ohiko egoitzan oinarritzen den egoitza kontzeptua erabiltzen jarraitzen duela, egoitza-ren izaera juridikoa kontuan hartu gabe. TEOLeko 15. artikuluak, idazkera be-rriaren arabera, hara zer dioen lehen paragrafoan:

> *"Espainian bizi den pertsona oro, behartua dago eskuarki bizi den udaleko Erroldan izena emanda egotera. Udal bat baino gehiagotan bizi denak, urtean zehar denbora gehien bizi den udalean eman beharko du izena."*

Beraz, ohiko egoitza, gertaera soil baten ondorioa da, udal jakin batean denbora gehiagoz edo gutxiagoz bizitzearen ondorioa, eta hor sartuko litzateke interesatuak duen borondatea bere harreman juridiko eta sozial gehienak toki horretantxe izateko.

## 4.INDARREAN DAGOEN ARAUDIA NOLA APLIKA LIEZAIEKEEN ATZE RRITARREI

Ondoren aztertuko den gaia zera da: nola aplikatu behar den erroldatzeari buruzko indarrean dagoen araudia, erroldan sartu nahi duena espainiar hiritarta-

sunik ez duen ohiko egoiliar bat denean. Beste hitz batzutan esanda, aurrez aipa-tutako atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei buruzko arauek, aztertutako xedapen horietan izan dezaketen eragina ezagutu nahi litzateke.

1993ko gure aurreko gomendioan, nahiko argi zegoen kontua: atzerritar-tasuneko araudiak indar handia zuen, eta nabarmenki baldintzatzen zuen toki erregimeneko araudiaren aplikazioa, atzerritarren kasuan. Erroldan sartzea es-katzen zuena espainiar hiritartasunik ez zuen norbait baldin bazen, eskaera ebaz-terakoan jaso beharra zegoen, alde batetik, ohiko egoitzaren errealitatea, eta bestetik, egoitza horren legezkotasuna edo erregulartasuna. Une hartako ezta-baida, hain zuzen ere, Espainiako atzerritartasun araudiak xedatuaren arabera, legezko edo egoitza erregular kontzeptuaren hedaduraren inguruan kokatzen zen.

Bada, 1998ra etorrita, hainbesteraino aldatu dira araudiak, ezen orduan esandakoak erabat tokiz kanpo geratu baitira. Aurrez deskribatutako gaur egun-go esparru juridikoan, atzerritartasun zuzenbideak ez du eraginik ohiko egoiliar bat, atzerritarra izan ala ez, dagokion udal erroldan sartzeko. Baieztapen horren arrazoiak arazoak ukitzen dituen bi arau eremuetan bilatu behar dira.

Atzerritartasun zuzenbidea bera, atzerritar egoiliarrak erroldan sartzearen komenigarritasunera ireki dela esan daiteke. Horren erakusgarri da aurrez aipa-tutako ALOAko 3. artikulua, zeinak -esandako akats teknikoak gorabehera-esandako araua irekitzearen aldeko asmoa erakusten baitu. Egia da 3. artikulua, Espainiako lurraldean legez dauden atzerritarrei aitortzen zaizkien eskubideen multzoan dagoela, baina aginduak berak, alde batetik, ez du bereizketarik egiten erregulartasuna arrazoi hartuta, eta bestetik, argi eta garbi hedatzen du errolda-tzeko aukera, egoitzarena baino eremu handiagora, eta horrek guztiak aurrez esandakoa indartzen du.

Hala ere, toki erregimeneko araudia eta atzerritartasun zuzenbidea banatu-rik aplikatzearen aldeko argudio onenak, udal errolden gaian indarrean dauden xedapenek eskaintzen dituzte. Ez da alferrik ezabatu LMBAko 60. artikuluan “legez kanpoko egoitzei” buruz egiten zen aipamena. Argi geratzen da, beraz, erroldatzeari buruz egun dauden xedapenetan, ohiko egoitza izatea besterik ez dela eskatzen erroldan sartzeko, nola espainiarren hala atzerritarren kasuan.

Ondorio honi indarra ematera dator aurrez aipatutako TEOLeko 18.2 ar-tikulua, zeinak argi eta garbi bereizten baititu atzerritarrak espainiarrengandik, hain zuzen ere, erroldatuak egotearen indarrez dagozkien eskubideen arabera. Delako aginduak bi arazo uzten ditu agerian. Alde batetik, Espainian legez dau-den atzerritarrei dagozkien eskubide multzoa, era irregularrean daudenei ez be-zala, atzerritartasunari buruzko arauditik eratorria dela. Bigarrenez, eta aurre-koaren ondorioz, erroldatzeak eskubideen gaian eraginik ez badu, ez duela zen-tzurik bere bidez bereizketak egiteak atzerritarraren egoera erregularra den ala ez den arabera. Aldiz, erroldaren azken xedea, alegia, udaletako ohiko biztanle-riaren -hau da benetakoaren-berri jakitea, egoiliarraren legezkotasuna edo ez legezkotasuna alde batera utzirik bakarrik bete daiteke.

Horrek ez du esan nahi erroldan izena emateak konstitutiboa izateari utzi dionik, ezaugarri hori aldezten baitzuen doktrinak aurreko araudiarekin aldera-

tzean. Baina bai, segur aski, udalaren erabakitzeko esparrua nabarmenki murriz-tu dela erroldatzeko orduan, izen ematea ebaztekoan kontuan hartu beharreko oraingo irizpide bakarra ohiko egoitza izatea baita, eta bazterrera utzi behar bai-tira, Espainian edota udal horretan legez egotearekin edo ez egotearekin zeriku-sia duten arazoak, batez ere atzerritarrei afektatuko dietenak, baina baita, zen-bait kasutan, espainiarrei ere.

1996an onartutako araudiaren eskutik etorritako udal erroldaren egitekoari buruzko ikuspegi berri hau, berretsia gertatzen da aipatutako lege aldaketen on-dorioz etorri diren garapeneko administrazio xedapenetan. Izaera teknikoagoa duten xedapen multzo ugari horretatik, bat azpimarratu nahi genuke: 1997ko uztailaren 4an Estatistikako Institutu Nazionaleko Lehendakariak eta Lurralde Lankidetzako Zuzendari Nagusiak batera emandako Ebazpena, zeinetan jarraibi-de teknikoak ematen zaizkien udalei, Erroldaren eguneratzeari buruz. Ebazpen horretan -gero EBOan argitaratua izan zen- atzerritarren erroldatze kasuak argi-tzeko xedearekin idatzitako 5. jarraibidea dator. Jarraibide horretan ez dago za-lantzarik esandako udalean eskuarki bizi den atzerritar orok erroldan izena emanda egoteko duen obligazioaz, Espainian izan lezakeen legezkotasun egoera alde batera utzita. Hara zer irakur litekeen jarraibide horretan:

> *"Udal erroldan alta emanda egon behar dute udal barrutian bizi diren pertsona guztiek, naziokoak edo atzerritarrak izan, eta azken kasu hone-tan, Barne Ministerioko Erregistroan duten egoera arauzkoa izan ala ez."*

Testu horrek berak, Estatistikako Institutu Nazionalak 1992ko ekainaren 16an emandako Jarraibidea aipatzen du, atzerritarren erroldatzeari buruzkoa, eta gure aurreko gomendioan iruzkintzen zena. Baldin orduan, une hartan inda- rrean zegoen araudiari jarraiki, atzerritarraren lege egoeraren arabera, kasu ba-tzuetan erroldatzea posible ikusten bazen eta beste batzuetan ez, berriki onartu-tako jarraibideak aldatu egin du arrazoibidea, toki araudia eta udal erroldari buruz egiten den planteamentua errotik aldatu baitira. Bestalde, jarraibideak dio oro-bat, bereizi egin behar direla toki erregimeneko araudiaren aplikagarritasuna eta atzerritartasunaren araudiarena, aurrez adierazi den bezalaxe. Honek guztiak, erremediorik gabe, udal jakln batean ohiko egoitza duten pertsona guztiak udal erroldan egon behar izatera eramaten du.

Puntu honetan, ez litzateke txarra gogora ekartzea, TEOLeko 18.2 artiku-luak, beste arau batzuen indarrez ez dituzten eskubideak atzerritarrei ukatzeak, ez duela esan nahi erroldan egoteak abantaila handiak ez dituenik, nola gizarte arloan, hala zuzenbidekoan ere, aurreko apartatu batean aipatu den bezala. Pentsa bedi, adibidez, erroldan egotea arrazoi ona izan daitekeela Espainian bizi dela frogatzeko, baldin eta deskuidoan, erregularizatze prozedura orokor bat gerta-tuko balitz, edota, familien bateratzearen edo bisatutik salbuestearen bidez admi-nistrazio prozedura erregularizatzaileren bat etorriko balitz. Egiaztagiri bikaina litzateke gizartean txertatua dagoela frogatzeko. Eta hori guztia, erroldan egotea nahitaezko betebeharra den gizarte laguntzen kaltetan izan gabe.

Azkenik, argi utzi behar da, toki erregimeneko egungo araudia aztertu on-doren ateratzen dugun ondorioa hutsean gera daitekeela, nortasun agiriari buruzko zailtasunak direla eta, egoiliar den atzerritarra erroldan sartuko ez balitz, edota erroldan sartzea ukatzeko aitzakiatzat erabiliko balira esandako zailtasunak. Zen-tzu honetan uste dugu, legezko egoeran dauden atzerritarren kasuan Atzerritar Txartela dela, zalantzarik gabe, erroldan alta emateko balio behar duen agiria. Noizbait egoera erregularra izan duten haiek berriz, identifikazio erraza dute une hartan eman zitzaien Atzerritarren Identifikazio Zenbakiaren bidez. Azkenik, errol-datzea eskatzen duen atzerritarra egoera guztiz irregularrean badago eta inolako baimenik ez badu, ez indarrean eta ez iraungita, identifikatzeko balio dezakeen edozein agiri onartu behar da, pasaportea bereziki, eta dagokion zenbakiarekin idatzi udal erroldan. Arlo honetan, tamalgarria da aipatutako 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 5. jarraibidea, puntu honi buruzko kasu gehiago aurreikusiz ez idatzi izana, udalei argi utzi behar baizitzaien nahitaez onartu behar dela egoiliar atzerritarraren nortasuna egiazta dezakeen edozein agiri.

5. ONDORIOA

Azaldutako guztiaren indarrez, ondorioztatu behar da, toki erregimeneko egungo araudian, udal jakin batean ohiko egoitza duten atzerritarrek eskubidea dutela udal erroldan alta emanak izateko udaleko herritar bezala, alde batera utzirik, atzerritartasun araudiaren arabera izan lezaketen egoera juridiko-admi-nistratiboa.

Zentzu honetan, Arartekoak komenigarria ikusten du EAEko udalei gogo-raraztea, legez behartuta daudela euren udaletan ohiko egoitza duten atzerritar guztiak erroldan sartzera eta ondorioz, espainiarrentzat eta atzerritarrentzat iriz-pide berberak aplikatzera erroldan alta ematekoan, TEOLean eta garapeneko arau xedapenetan azaldutakoaren arabera.

## 7.2. HEDATZEN ARI DIREN OSTALARITZA JARDUERA BERRIAK: GAUEKO BOKATERIEN FUNTZIONAMENDUAK DAKARTZAN ARAZOAK

Azken urteotan, Arartekoak beste establezimendu mota batzuk sortzen ari direla egiaztatu du. Guztiek dute udalak emandako irekiera-lizentzia, baina lizen-tzia gehienetan okindegi-gozotegi jardueretan aritzeko baimena besterik ez zaie ematen. Hala ere, lokal horiek **gauez otarteko hotzak eta beroak** saltzen dituzte. **Gaueko bokaterien** ezaugarri eta jarduerak ez datoz bat okindegien ohiko zereginarekin: ogiaren, esnearen eta opilen txikizkako salmentarekin.

Haatik, asteburuetan gauez otartekoak saltzen jarraitzen dute, nahiz eta hori ez izan irekiera-lizentzian baimendutako jarduera.

Ildo honetan, kontuan hartu behar da gauez irekita egoten diren lokalek sortarazten dituzten arazoak eta benetan ogia, esnea eta opiiak saltzen dituzten dendak eragin ditzaketenak oso bestelakoak direla, ez baitute inolako zerikusirik.

Bestalde, aipatzekoa da bokateriek ez diotela inolako kalte eta eragozpenik eragiten inguruan bizi direnei, baldin eta egunez irekitzen badituzte. Lotarako orduetan irekitzen dituztenean sortzen dira arazoak. Beraz, bokateriak jarduera kaltegarriak izan ez daitezen, irekiera-lizentzian berariaz mugatu beharko litzate-ke ordutegia eta egunez bakarrik ireki dezaketela zehaztu.

1 . Bokaterien arazoa korapilatsua eta anitza da oso, eta hainbat arlotan eragiten ditu ondorioak: ingurugiroan, lokalaren inguruko biztanleen bizi-kalitatean eta ordena-gaietan.

Lehenengo eta behin, gauez irekita egoten diren bokateriak inguruan bizi direnengan kalteak eta arazoak sortarazten dituzte.

Horretaz gain, lokal horiek txikiak izaten dira eta debekatuta dago otarte-koak barruan jatea. Beraz, bezeroek kalean jaten dituzte.

Bestalde, horrelako bokateriak gauez jende gehien biltzen duten eremuetan edo gaueko aisialdi-guneetan egoten dira kokatuta, hau da, ostalaritza-establezi-menduen ondoan. Horrela, bezeroek edariak erosteko aukera ere izaten dute.

2. Bokateriak ez daude jarduera kaltegarri gisa sailkatuta, eta beraz, ez dituzte horientzat ezarritako arauak bete behar. Horrela, lokal horien inguruetan bizi direnak nozitzen dituzte zuzen-zuzenean ondorio eta kalte guztiak, gauez kaleko zarata eta zalapartak jasan behar izaten baitituzte. Izan ere, dagokien sailkapenari buruzko araudia betetzeko, bokateriek debekatu egiten dute otartekoak barruan jatea.

Aipatu dugunez, gaueko bokateriak kalterik eragiten ez duen jarduera gisa daude sailkatuta: ogia, esnea eta opilak txikizka saltzen dituzten denda gisa. On-dorioz, itxiera-orduaren mugaketatik salbuetsita geratzen dira.

Azkenik, ez diete eragiten “gainezka dauden eremuetan” lokal berriak ireki-tzeko ezarri diren murrizketek, eta ez dituzte finkatuta dauden gutxieneko distan-tziak gorde behar.

Ondorioz, bokateriak ez daudenez jarduera kaltegarri gisa sailkatuta, erruz ari dira sortzen hiriko “martxa” eremuetan, eta kalte eta ondorio larriak ari dira eragiten bertan bizi direnengan.

3. Zenbait udalerritan, biziguneetan eragozpenak eragin ditzaketen jardueren metaketa murrizten hasi dira. Jarduera-askatasuna Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 25.f art.aren babespean dago, ingurugiroa zaintzeari buruzko artikuluaren ba-bespean, hain zuzen. Aipatutako jarduera-askatasunari mugak ezartzea ez da aski izango hiritarrek nozitzen dituzten eragin kaltegarriak eragozteko, baldin eta kaltegarri gisa sailkatutako jarduera-metaketa handia dagoen guneetan neurriak

hartzen ez badira. Neurri horien bidez, debekatu egin beharko da horrelako esta-blezimendu gehiago irekitzea, gauez irekita egoteaz gain, kanpoan (kalean) jen-detza handia biltzen baita. Horrela, ustez biztanleentzat onuragarria den zerbitzu bat kaltegarri bihurtzen da, ez baita kontuan hartzen horrelako jarduerek ingu-ruan nolako ondorio larriak sortarazten dituzten.

Hori da, hain zuzen, gaueko bokateriek eragiten dituzten eragozpenen sor-burua: barruan otartekoak erosi dituztenak kanpoan geratzen dira gero erosi-takoa jaten. Eta jakina, ez da inoiz ezarri bokaterien jardueren ondorioz kalean ateratzen den zarata eta eragiten diren kalteak gutxitzeko neurririk.

Gauzak horrela, argi dago guztientzat baliagarri izango den araudia ezarri behar dela: batetik, jarduera ekonomikoa eta, bestetik, deskantsurako eta zarata-rik gabeko kalitatezko ingurugiroa izateko eskubidea uztartuko dituen araudia.

4. Orain arte oso epai gutxi eman dira gai horren inguruan. Dena den, bada adibide gisa aipatzea merezi duen bat: Nafarroako Auzitegi Nagusiko Ad-
ministrazioarekiko Auzitarako Sailak 1995eko ekainaren 20an emandako epaia
(Aranzadi 1995/207 AAE). Horren arabera, sukaldea duten bokateriak ezin dira
sailkatu kalterik eragiten ez duten jarduera gisa. Honakoa dio, hain zuzen, Nafa-
rroako Auzitegi Nagusiaren testuak:

> *"...sukaldea duten bokaterien jarduera ezin da, besterik gabe, gozote-gienarekin parekotu, baizik eta ostalaritza eta/edo tabernetakoekin (...). Izatez, bokateriek ez dute zerikusi handirik gozotegiekin, eta bai ordea tabernekin; ukaezina eta begi-bistakoa da hori..."*

Ildo honetan, gure autonomia erkidegoko udalerriek sukaldea duten boka-teriak jarduera kaltegarri gisa sailkatzera jotzen dute. Aitzitik, sukalderik ez dute-nak kalterik eragiten ez duten jardueratzat hartzen dituzte. Horrelakoetan, alder-di bati bakarrik erreparatzen diote: sortzen diren ke eta gasei, eta horiek ezaba-tzeko neurriak besterik ez dituzte hartzen. Ez dute kontuan izaten bokaterien kanpoan zarata sortzen dela eta inguruko biztanleek jasan behar dituztela horren ondorioak.

Bokaterien jarduera eta tabernetako ohiko jarduera oso antzekoak dira, horietan ere pintxoak, otarteko hotzak eta beroak... prestatzen baitira. Beraz, Arartekoaren iritziz, bokateriak ostalaritza-jardueren sailean sailkatu behar dira, eta horiek arautzen dituen araudia ezarri behar zaie.

5. Bereziki aipatzeko modukoa da Basauriko Udalak gai horri buruz egin-
dako araudia. Orain dela gutxi, udalerri horretan zarata ateratzen duten taberna
eta dibertimenduzko joko-aretoen kokagunea, instalazioa eta ikuskaritza arau-tzen duen udal-ordenantza onartu da (16. BAO, 1997ko irailaren lekoa).

Honakoak dira udalaren helburuak:

> *"b) Beharrezkoa baita udalak neurri zuzentzaileak hartzea, horrela giza harremanetan eta aisialdi sortzailearen baitan ohitura berriak, gaurkoak*

*gainditu dituztenak, ahalbideratzeko, izan ere gaurkoak alkoholaren kontsumoarekin eta joku pasiboekin zerikusi gehiegi baitaukate, eta horren bidez galarazi egin nahi da gure udalerrian aipatu establezimen-duek duten gehiegizko eragina, eta batez ere A eta B zonaldeetan.*

*e)Bestalde, prebenitu egin nahi dira horrelako establezimendu publikoen gehiegizko pilaketak sor ditzaketen oihartzunezko ondorio deigarriak, izan ere zarata horiek enbarazuak sortzen baitizkiete auzotarrei, hain zuzen ere herritar gehienak deskantsuan dauden orduetan: eta eragin horiek zail dira zuzentzen, ihardueretako erregelamenduaren aplikazio soilarekin".*

Udal-ordenantzaren 2. artikuluan beste jarduera batzuk ere sailkatu dira: zarata sortarazten dutenak, hain zuzen. Hona hemen zer dioen gai horri buruz:

*"Arau hauen eraginpean egongo dira hurrengo taldeetan sailkatutako establezimendu publikoak:*
*I eta II Taldeak: Talde honetan sartuko dira, beren iharduera edo koka-pena dela eta, ondorio gehigarriak sor ditzaketen establezimenduak, nola diren, edozein motatako edariak saltzen dituztenak, janariak pres-tatu, prestatutakoak edo erdiprestatuak saldu, maneitutako jangaiak saltzen dituztenak, etab.".*

Bokateriak ere maila horretan sartzen ditu.

6. Toki-administrazioei dagokie horrelako establezimenduen benetako jar-dueren jarraipena eta kontrola burutzea, eta baita lokalek baldintza egokiak bete-tzen dituztela egiaztatzea ere. Baldintzak neurtzeko, hiru alderdi hauek hartuko dira kontuan: hirigintza, higienea eta jakien maneiua. Toki-administrazioek du-ten eskumenari kalterik eragin gabe, Arartekoak honakoa uste du: ezin dela ahaztu gaueko bokateriak irekitzen direnean, zarata sortzen dela kanpoaldean eta ingu-ruko biztanleek jasan behar izaten dituztela horren ondorioak.

Badakigu gaueko bokateriak, jarduera berriak izanik, erruz ari direla heda-tzen, oso arazo bereziak sortarazten dituztela eta zaila dela benetan arazo horiei egoki erantzutea. Dena den, udalerriek konponbideak proposatzen dituztenean, ezin dute inoiz ahaztu horrelako establezimenduek inguruan nolako ondorioak eragiten dituzten.

Hori guztia kontuan hartuta, honakoa adierazten dugu: udalek ostalaritza-establezimenduak arautzen dituzten ordenantzak aldatu eta bokateriak kalteak eragiten dituzten jarduera gisa sailkatu beharko lituzketela. Izan ere, aipatu dugu-nez, zarata sortarazten dute eta, ondorioz, inguruko biztanleen bizi-kalitatean kalteak eragiten dituzte; eta biztanle horiek legez ez dute zertan jasan horrelako eragozpenik.

## 7.3. **DENBORALDIKO LANGILEENTZAKO ETA HORIEN FAMILIEN-TZAKO BIZILEKUEN BALDINTZAK**

Azken hiru urteotan, mahatsa edo patata biltzera etortzen diren denboral-diko langileek eta horien familiakoek nolako bizi-baldintzak dituzten aztertzen aritu da Arartekoa Arabako hainbat lekutan. Arazorik larrienak sortarazten dituz-ten lau arlo hauek hartu ditu batez ere kontuan:

- kontratazio sistemak;
- non bizi diren;
- eskolatzea nolakoa den;
- gizartearekiko integrazio-baztertze maila.

Denboraldiko lanak egitera etortzen diren familietako seme-alaben eskola-tzeari dagokionez, 1995ean gure erakundeak hainbat gestio eta zeregin burutu zituen, eta egoerak hobera egin duela ikusi dugu.

lazko (1996) txostenean ere langile horien eskubideak hobetzea helburu zuten hainbat ekimen instituzional proposatu ziren. Honako hiru arlo hauek har-tu ziren oinarritzat:

1 - Arauak garatzea eta legeak betearaztea.
2- Erakundeen eta agente sozialen arteko lankidetza.
3- Langileei zein eskubide eta zerbitzu dagozkien ezagutaraztea.

Azken urte honetan egindako jarraipenaren bidez (txosten honen 2. kapi-tuluan dago jasota), landutako zenbait arlotan aurrerapenak lortu direla ikusi dugu. Gainera, hasieran aipatutako arloetako bat arreta handiz aztertu dugu: denboral-diko langileak eta horien familiak non bizitzen diren. Hori izango da, hain zuzen, aztergai honen ardatza: bizilekua.

Nekazaritzan aritzen direnen artean, egoera anitzak aurki daitezke. Hona hemen lau egoera-mota:

a) erakundeen aterpeetan ostatu hartzen duten langileak;
b) horretarako antolatutako eremu edo kanpamentuetan kanpatzen duten familiak;
c) kontratatu dituzten nekazari edo enpresek egokitutako lokaletan bizi diren langile eta familiak;
d) nora joan ez dutelako, gaua edonon eta edonola pasatzen duten langile eta familiak.

Hainbat dira, bestalde, gai horretan esku hartzen edo laguntzen duten estamentuak. Hor ditugu:

- lurralde historiko honetako erakundeen ekimenak (adibidez, Arabako Foru Aldundiarenak), hala nola, aterpeak prestatzea;
- herri-agintariek emandako laguntza, adibidez, akanpatzeko guneak baimenduz edo prestatuz;
- kontratatzaileek langileentzako lokalak egokitu eta prestatu egiten dituzte (etxebizitzetan edo ardo-enpresen lokaletan)...

Argi dago bizileku-premiak ez direla berdinak kasu guztietan (langileak bakarrik etortzen badira edo familia osoak datozenean...) eta beraz, ezinezkoa da premia guztiei erantzungo dien konponbide bakarra eskaintzea.

Denentzat balioko duten oinarrizko irizpideak finkatu behar dira. Horrela, irizpide hoirien arabera bilatuko dira konponbideak eta agente sozial bakoitzari zein erantzukizun dagokion erabakiko da. Denboraldiko langileen eskubideak errespetatu egin behar dira beti, eta horretarako, Zuzenbidearen eremu guztiak hartu behar dira kontuan. Baina zeregin horretan guztian, ezin dugu inoiz ahaztu zein den gure helburu nagusia: talde jakin baten bizileku-baldintzak aztertu eta hobetzea.

***

Konstituzioan etxebizitza egokia eta duina izateko eskubidea aitortzen da, eta 1948ko abenduaren lOean eginiko Giza Eskubideei buruzko Deklarazio Unibertsalean ere jasota dago. Eskubide hori garatzeko hainbat bide erabili dira nazioartean:

- Hitzarmenak (Langile Migratzaileen eta horien familien eskubideak babesteko Nazioarteko Hitzarmena, 1950ekoa).
- Itunak (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalei buruzko Nazioarteko Ituna, 1996koa).
- Deklarazioak eta gomendioak (Giza Asentamenduei buruzko Vancouvereko Deklarazioa, 1976koa).
- NBEk etxebizitza egokia izateko eskubideari buruz emandako ebazpenak (hainbat ebazpen: Biltzar Nagusiarenak, Ekonomi eta Gizarte Kohtseiluarenak, Giza Eskubideen Batzordearenak, Giza Asentamenduetarako Batzordearenak, Diskriminazioaren Prebentziorako eta Gutxiengoen Babeserako Azpibatzordearenak...).

Hitzarmen, itun, deklarazio eta ebazpen batzuk orokorrak dira; beste ba-tzuk, ordea, egoera jakin batzuk hartzen dituzte kontuan edo babes gutxien du-ten taldeen eskubideak bermatzeaz arduratzen dira. Orain ez gara hasiko horien guztien ezaugarriak adierazten edo esku artean dugun gai honetan nolako eragi-na izan dezaketen ikusten. Dena den, interesgarria deritzogu honako bi puntu hauek aztertzeari, garrantzi handikoak baitira:

- etxebizitza “egokia” zer den;
- eta gobernuek eta bestelako agenteek eskubide hori nola bermatu behar duten.

Har dezagun, adibidez, NBEn gai honen inguruan azken aldian landu den dokumentuetako bat: Habitatari buruzko Programa (Helburuak eta Hatsapenak, Konpromezuak eta Mundu Osorako Jarduketa Plana), Giza Asentamenduei buruzko Nazio Batuen Konferentziarako Prestakuntza Batzordeak onartua (1996ko apirilaren 12ko A/KONF. 165/L.l).

Habitatari buruzko programan, honela deskribatzen da etxebizitza egokia zer den:

> *“43. Etxebizitza egokia izatea ez da aterpe hartzeko lekua izatea soilik. Honako osagai hauek ere nahitaezkoak dira: eremu pribatua; behar adina leku; eskuragarritasun fisikoa; behar besteko segurtasuna (egitura egonkor eta iraunkorrak ere barne hartzen direla); iluminazio, berokun-tza eta aireztapen egokiak; ura, saneamendua eta hondakinak deusez- teko zerbitzuak izango dituen oinarrizko azpiegitura, horiek ingurugi-roarekin eta osasunarekin lotura estua baitute; kokagune egokia, lanto- kia eta oinarrizko zerbitzuak eskura izango dituena; eta horrek guztiak ez du neurriz kanpoko kosturik izan behar. Faktore horiek egokiak di- ren ala ez neurtzeko, interesdunarekin aztertu behar dira beti, mailaz maihkako garapena ere kontuan hartuta. Egokitasun irizpidea aldatu egiten da herrialde batetik bestera, tokian tokiko faktore kulturalen, sozialen, ekonomikoen, ingurugirokoen... araberakoa izaten baita.”*

Aipatu dugun programan, etxebizitza egokia arian-arian lortu ahal izateko gobernuek zein neurri hartu behar dituzten ere aipatzen da, besteak beste:

> *“d) Biztanleak nolako bizilekuetan bizi diren eraginkortasunez gainbegiratu eta neurtzea, non bizi ez dutenen eta egokiak ez diren etxebizitzen kopurua ere zehaztuko dela. Egoera horretan daudenekin hitz egin ondoren, etxebizitza-politika egokiak burutu eta arazo horiei aurre egiteko egitasmo eraginkorrak gauzatuko dira.”*

Habitatari buruzko programan “babes gutxien duten taldeei” arreta berezia eskaintzen zaie, eta talde horretakoak dira, hain zuzen, “langile migratzai-leak”. Honakoa aipatzen da gai horren inguruan:

> *"72. Babes gutxien duten taldeek ez dute berdintasunezko baldintzetan aritzerik izaten baliabide eta aukerak hrtzeko orduan. Norbait joera sozioekonomiko nagusietatik eta erabakiak hartzeko prozesuetatik kanpo eta baztertuta uzten dutenean gertatzen da hori. Talde horien egoera hobetzeko behar-beharrezkoa da hainbat arlotan sarbidea ematea: etxe-*

*bizitzan, finantzaketan, azpiegituretan, oinarrizko gizarte zerbitzuetan, gizarte babeserako baliabideetan eta erabakiak hartzeko prozesuetan."*

Aipatu ditugun erabaki edo irizpideak orokorrak dira asentamenduak edo etxebizitzak orokorrean hartzen dituzte kontuan, ez baitituzte egoera jakin ba-tzuk aztertzen, hala nola, denboraldiko langileena.

Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE), hainbat gomendio eta hitzarmenen bidez, irizpide jakin batzuk finkatu ditu aipatutako talde horientzat. Hona hemen zenbait adibide:

- Nekazaritzan lan egiten dutenen bizilekuari buruzko 16/1921 gomendioan honako hauek jasotzen dira:

  *Nazioarteko Lan Erakundeko kide bakoitzak nekazaritzan lan egiten dutenen bizileku-baldintzak arautuko ditu -aurretik egin ez badu bederen-, legegintzaren bidea nahiz bestelakoak erabiliz. Horretarako, kasuan kasuko herrialdeko nekazaritzan eragina duten baldintza klimatologikoak nahiz bestelakoak hartuko ditu kontuan, eta aldez aurretik, kontratatzaile eta langile erakundeekin hitz egingo du, horrelako erakun-derik egonez gero bederen.*

  *Araudi hori kontratatzaileek langileentzat egokituko dituzten lokal guztietan nahitaez bete beharko da: langile bakanentzako nahiz familia osoentzako lokaletan, kontratatzaileek utzitako etxebizitza eta eraikinetan.*

  *Araudi horrek ondorengo xedapenak hartuko ditu barne:*

  *a) familiak, langile taldeak zein bakanak hartuko dituzten bizilekuetan berogailuak ezarriko dira, baldintza klimatologikoak direla-eta horrelakorik behar ez denean izan ezik;*

  *b) taldeentzako lokaletan langileek ohe bana eta behar beste altzari izango dituzte, eta baita garbitasunerako leku egokia ere; bestalde, lokal desberdinak egokituko dira emakumezkoentzat eta gizonezkoentzat. Familia osoentzako bizilekuak haurrak kontuan hartuta egokituko dira;*

  *e) zalditegiak eta kortak ez dira langileen logelatzat erabiliko. Nazioarteko Lan Erakundeko kide bakoitzak araudi horren xedapenak betearazteko behar diren neurñak hartuko ditu.*

- 1962ko ekainaren 22an egindako Gizarte Politikari buruzko Hitzarmenak (oinarrizko arauak eta helburuak) honako irizpide hau ezartzen du seigarren artikuluan*: "Lanaren ondorioz, langileak beren etxebizitzetatik kanpo bizi behar dutenean, lan-baldintzetan familien ohiko premiak hartuko dira kontuan."* Era berean, bizilekua ordainsariaren barruan sartzen de-nean, agintari eskudunak bizileku egokia emango zaiela bermatuko duten neurri egokiak hartuko ditu.

- Famili erantzukizunak dituzten langileei buruzko 165/1981 gomendioak, denboraldiko langileei dagokienez, honakoa ezartzen du 21. artikuluan: langile horiek babesteko, gehienetan famili erantzukizunak izaten dituztela, lan-baldintzak behar bezala arautu eta gainbegiratu beharko lirateke. Eta artikulu horren bigarren atalean, honakoa dio gainera: denboraldiko langileen lan baldintzak, ahal den neurrian, langile iraunkorrenekin parekatu behar direla.

NLEk ere finkatuta dauzka zein diren etxebizitza egokia izateko bete behar diren gutxieneko baldintzak. (Ikusi, adibidez, langileen etxebizitzei buruzko ekai-naren 7ko 115/1991 gomendioa).

Nazioarteko erakundeek, noski, irizpide eta gomendio orokorrak egiten di-tuzte, eta ez die egoera jakin edo zehatz batzuei bakarrik erreparatzen, horiek aldatu egiten baitira herrialde batetik bestera. Gobernuen zeregina da, hain zu-zen, irizpide horiek (orokorrak) tokian tokiko egoerari (partikularrak) egokitzea, eta baita lurralde bakoitzeko administrazio aginpidedunarena ere. Hori dela-eta, helburu bera lortzeko (guri dagokigunez, denboraldiko langileen eta horien fami-lien bizilekua) hainbat bide edo programa gauzatuko dira lurralde desberdinetan, bakoitzak bere egoera hartuko baitu kontuan.

Horrela, denboraldiko langileen eta horien familien bizilekuari dagokionez, hainbat ekimen burutu dira gure inguruan. Hona hemen zenbait adibide:

- Dirulaguntzak ematea: batzuetan nekazariek jasotzen dituzte (adibidez, nekazaritza-ustiategiak berriztatzeko laguntzak, *"ustiategi horietan lan egiten dutenen bizi eta lan baldintzak hobetzeko asmoz"*. Horiek otsailaren 9ko 204/1996 Errege-Dekretuaren 5. art.an aurreikusten dira); beste batzuetan, berriz, irabazi-asmorik gabeko elkarte eta erakundeek (adibidez, bizilekuak egokitzeko dirulaguntza, Gizarte Gaietarako Ministerioak 1994ko azaroaren 4an barne-migrazioak babesteko neurriei buruz emandako Aginduan jasota daudenak).
- Zenbait zerbitzuk baimena lortzeko, izena emateko, egiaztatzeko, ikuskatzeko... gutxieneko zein baldintza material eta funtzional bete behar dituzten finkatzea (adibidez, Andaluziako Juntako Gizarte Arazoetarako Kontseilaritzak, otsailaren 20ko 87/1996 dekretuari eta 1996ko otsailaren 29ko aginduari jarraiki, bide hori hartu du gizarte zerbitzuetarako zentroak arautzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan ere, 1997ko azaroaren 12an emandako agindua betez, Kultura Sailak bide hori hartu du beste zerbitzu mota batzuk arautzeko, hala nola, haur eta gazte taldeen egonaldietarako aterpe eta instalazioak).
- Aztergai dugun sektoreko hitzarmen kolektiboetan, kontratatzaileak denboraldiko langileei bizilekua emateko ardura eta erantzukizuna dituela sartu da, eta bizileku horiek duinak izateko bete beharreko baldintzak ere finkatu dira (adib.: Errioxako eta Jaengo hitzarmenak).

• Udalbatzei langileak eta horien familiakoak babesteko laguntza eman zaie. Hainbat zerbitzu jarri dira martxan, hala nola, denboraldiko langileen seme-alabentzako haurtzaindegiak (adibidez, Andaluziako Juntako Gizarte Gaie-tarako Kontseilaritzak 1992ko urtarrilaren 10ean emandako agindua).

Adibide horiek guztiak ikusi ondoren, argi geratu da denboraldiko langileen arazoak hainbat konponbide izan ditzakeela: berariazko arau edo hitzarmenak egitea edo horien egoera ere barne hartuko duten arau orokorragoak ezartzea. Bi bideak dira baliagarriak lortu nahi dugun helburua erdiesteko.

Gaur egun, ez gure Autonomia Erkidegoan, eta ezta Arabako Lurralde His-torikoan ere, nekazaritzan ez dago inolako hitzarmen kolektiborik. Baina badira, ordea, arazo hori konpontzeko balio dezaketen legegintza-ekimenak edo arauak. Legebiltzarra hasi da jadanik Nekazaritzaren Garapenari buruzko Legearen au-rreproiektua bideratzen. Eta ezbairik gabe, aztergai dugun arazoari eta beste batzuei aurre egiteko aukera ezin hobea da. Horretaz gain, gaur egun indarrean dauden zenbait testu arau-emaile ere oso baliagarriak dira erakundeek ustiate-giak “modernizatzeko” emango diren dirulaguntzak bideratzeko. Honakoak dira, bada, aipatutako testuak: uztailaren 30eko 210/1990 dekretua, Euskal Autono-mia Erkidegoko nekazaritza-ustiategietarako laguntzei buruzkoa, eta uztailaren 8ko 168/1997 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan lehentasuna duten ne-kazaritza-ustiategiak arautzen dituena. Esatekoa da, azken dekretu horretako zioen adierazpenean aurrerago aipatu dugun ustiategien “modernizazioa” aipatzen dela besteak beste, eta kontzeptu horrek langileen bizi eta lan baldintzen hobekuntza ere hartzen duela barne.

Izan ere, lurralde honetako zenbait enpresa eta nekazarik dirulaguntza pu-blikoak lortu dituzte denboraldiko langileentzako eta horien familientzako bizile-kuak egokitzeko. Dena den, Araban bizilekuak zertan diren aztertu ondoren, zenbait puntu argitu beharra dagoela iruditzen zaigu. Hauexek, hain zuzen:

a) kontratatzaileak (nekazaria nahiz enpresa izan) langileen eta horien fami-
lien premien araberako bizilekua emateko erantzukizuna duela;
b) bizilekuek “duinak” izateko bete behar dituzten gutxieneko baldintza materialak eta funtzionalak zein diren;
c) administrazioek (udalek, Foru Aldundiak...) baldintza horiek baimendu, gainbegiratu eta zaintzeko erantzukizuna dutela;

Hori guztia kontuan hartuta, Arartekoak honakoa gomendatzen du: denbo-raldiko langileentzako eta horien familientzako egokitutako bizilekuek bete beha-rreko gutxieneko baldintzak arautzea (materialak, higienikoak eta funtzionalak). Eta araudi hori hartuko da oinarritzat dirulaguntza publikoak emateko, bizilekuak baimendu eta ikuskatzeko eta, azken finean, bizileku duinak izango dituztela ber-matzeko.

## 7.4. OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUEN IZENAK EZ ZEHAZTEAREN ONDORIOZ SORTZEN DIREN ARAZOAK

Honakoa izan da hasiera-hasieratik Arartekoaren kezka nagusietakoa: zen-bait establezimendu publikok, hala nola, taberna, pub, kafetegi, diskoteka eta abarrek, ingurugiroan eragiten dituzten kalteen aurrean hiritarren eskubideak babestea.

Arartekoak bi ikuspuntu hartu ditu kontuan arazo hau aztertzeko: batetik, jarduera horien irregulartasunak zuzenean jasaten dituzten hiritarren eskubideak eta bestetik, establezimendu publikoen jabeek dituzten arazoak. Zentzu honetan, gomendio bat ekarri nahi dugu gogora: 1991ko ekitaldiko txostenean "*Esta-blezimendu publikoetan sortarazten den zaraten arazoarekiko hurreratze juridikoa"* izenburua zeraman gomendioa, hain zuzen.

Oraingo honetan, 1991ko txostenean aipatutako gai bat aztertu nahi dugu berriro. Izan ere, gai horrek sailkatutako establezimenduen jabeengan eragin zuzena du eta gainera, berebiziko garrantzia hartu du abenduaren 16ko 296/ 1997 dekretua (243. EHAA, 1997ko abenduaren 19koa) indarrean sartu ondo-ren. Dekretu horren arabera, jendaurreko ikuskizunetarako eta dibertimenduzko jardueretarako ordutegia eta beste zenbait alderdi finkatuta geratu dira Euskal Autonomia Erkidegoan.

Aipatzekoa da establezimendu publikoei buruzko araudian hutsune nabar-mena dagoela: ez daude finkatuta horrelako establezimenduek zein ezaugarri bereizgarri izan behar dituzten, eta horien inguruko irizpideak ere ez daude bate-ratuta.

Dibertimenduzko eta ostalaritzako establezimenduak jarduera gogaikarrien sailean daude sailkatuta, eta ondorengoak arautzen dituen jardunbidezko araudia dute oinarritzat: kontrolerako prebentzio-sistemak, egiaztapen-ikuskaritzak eta zigortze-neurriak. Araudi orokor edo horizontal hori ez ezik, badira izaera ber-tikaleko arau teknikoak ere. Horiek anitzak eta konplexuak dira oso eta kasuak banaka arautzen dituzte, erregelamenduzko arauen bidez, hain zuzen. Halaber, hirigintza-araudiarekin eta plangintzarekin ere izaten dute lotura.

Horrelako establezimenduen araubideak badu beste berezitasun bat ere: asko dira gai honetan konpetentzia duten administrazioak. Konpetentzia hori arau-emailea da batzuetan eta exekutiboa beste batzuetan.

Horrelako establezimenduen inguruko araudi teknikoa anitza eta konplexua da erabat eta, gainera, ez dago finkatuta jarduera bakoitzak zein ezaugarri eta baldintza izan behar dituen. Gure iritziz, horrek guztiak zailtasun eta eragozpen handiak sortarazten ditu sailkapenak egiterakoan eta zigortze-neurriak ezartze-rakoan. Hori da, hain zuzen, jardueren legeztatze-prozesua egoki burutzeko egin behar den zereginik erabakior eta funtsezkoena, horren araberakoak izango bai-tira sailkapen ofiziala eta lizentzien edukiak. Izan ere, lizentzia horien bidez ema-ten da establezimenduak ireki eta martxan jartzeko baimena.

Jarduerak sailkatzeko, behar-beharrezkoa da eskatzaileak aurkeztutako proiektu teknikoan jasotzen diren baldintzak zehatz-mehatz aztertzea eta, hala badagokio, legeztatu nahi den instalazioa bezalakoak benetan zertan aritzen di-ren egiaztatzea. Horrela, errazagoa izango da zein zigortze-neurri ezarri behar diren erabakitzea.

Dena den, ez dagoenez jarduera bakoitzak bete beharreko ezaugarri edo baldintzak argi eta garbi finkatzen dituen araurik, oso zaila gertatzen da adminis-trazio-organo kalifikatzaileen irizpideak bateratzea bai legeztatu nahi den jardue-raren sailkapen ofizialari dagokionez, eta baita ezarri beharreko zigortze-neurriei dagokienez ere.

Horrela, batzuetan, jarduera berak izen desberdinak hartzen ditu lurralde historikoen arabera, eta beraz, ez zaizkie leku guztietan neurri zuzentzaile berdi-nak eskatzen. Desberdintasunak nabarmenak dira Autonomia Erkidegoan.

Kontuan izan behar da Foru Aldundiei dagokiela biziguneetan koka daitezkeen jarduera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuak sailkatzea. Dena den, zenbait udalek ere lortu dute aginpide hori, eskuordez lortu ere.

Desberdintasun horiek gure erakundean ere izan dute isla, sailkatutako jar-dueren funtzionamenduari buruzko erreklamazioak bideratu ditugunean, hain zuzen. Zentzu honetan, gure erkidegoko hiru Foru Aldundiek irizpide desberdi-nak dituzte establezimendu publikoen izendapenei dagokienez: batzuen iritziz, Turismoa arautzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legean ezarritako sailkape- na hartu behar da kontuan; beste batzuen ustez, ordea, ekainaren llko 171/ 1985 dekretua. Dekretu horretan, hirietako biziguneetan koka daitezkeen jar-duera gogaikarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuei ezarri beharreko arau tekniko orokorrak finkatzen dira. Azkenik, zenbaiten ustetan, udal-ordenantze-tan sailkapenak eginda dauzkaten udaletan, horien arabera arautu behar dira jarduera guztiak.

Organo kalifikatzaileen irizpide aniztasun horren ondorioz, halamoduko hainbat egoera ari da sortzen, adibidez: lokal berean, lizentzia bakarraren bidez, hainbat jarduera burutzeko baimena izatea. Lizentzia horietan honako izenak agertzen dira: “*taberna-bokateria”, “taberna-jatetxea”, “kafetegi-dantzalekua”, “kasino-jatetxea”*... nahiz eta elkarren artean zerikusirik ez izan. Zenbaitetan, udalak emandako irekiera-lizentzian “*taberna” nahiz “kafetegi”* izena duten lo-kalei musika-ekipoak etab. izateko baimena ere ematen zaie.

Beraz, sailkapenak irizpide anitzen arabera egiten dira, eta kasuan kasuko udal-lizentzietan sailkapen horien araberako izena ematen zaie establezimendu publikoei. Horrek guztiak eragin handia du hainbat arlotan: zerga-ordainketan, baimendutako erabileren mugaketan eta, batik bat, araudi bidez ezarritako ire-kiera eta itxiera ordutegietan.

Azken horri dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko jendaurreko ikuski-zunetarako eta dibertimenduzko jardueretarako ordutegia ezartzen duen aben-duaren 16ko 296/1997 dekretuaren 2. artikuluan, honakoa aurreikusten da:

"*Ostalaritza eta jendaurreko ikuskizunen lokal edo instalazio iraunkorrek, ondoko zerrendan agertzen direnek hain zuzen ere, honako ordutegi orokorra izango dute zarratzeko orduari dagokionez, beti ere establezimenduen udal lizentzietan ezarritako iardueren arbera. eta zergari dagokionez deklaratutako jarduera alde batera utzita:*

*1 . taldea. Berariaz adin txikikoentzat baimendutako lokal eta instalazioak, edo, sukaldaritza jarduera izan barik, alkoholik gabeko edariak eta janariak emateko baimena dutenak, esaterako:*

*-gazteentzako dantzalekuak eta diskotekak, dastalekuak, izozkidendak, txokolategiak, txurrodendak, kruasandendak, te aretoak eta asimilagarriak ............................................. 22:30 etan*

*2. taldea. Alkoholdun edariak emateko baimena duten lokal eta instalazioak edo sukaldaritza jardueak egiteko baimena dutenak, esaterako:*

*-tabernak, ardandegiak, barrak, kafe-barrak, snack-ak, jatetxeak, erretegiak, kafetegiak, autozerbitzuak, janari-etxeak, txokoak, elkarre gastronomikoak, sagardotegiak eta asimilagarriak ………00:30etan*

*3. taldea. Dantzarako pista izan barik, jarduera berezi gisa, musika izateko baimena duten lokalak eta instalazioak, esaterako:*

*-taberna bereziak, whiskytegiak, klub-ak, bar amerikarrak, pub-ak, disko-barrak, karaokeak eta asimilagarriak ........................................................... 02:00etan*

*4. taldea: Dantzarako pista eta guzti musika izateko baimena duten lokal eta instalazioak edo ikuskizunak egiteko baimena dutenak, esaterako:*

*-dantzalekuak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizundun jatetxeak eta asimilagarriak ............................................................... 04:00 etan*

Dekretua irakurri ondoren, badirudi bertan ezarritako mailak argi eta garbi bereizita daudela. Baina udal-lizentzietan agertzen diren jarduerak besterik ez badira kontuan hartzen, arazoak sor daitezke ordutegiei buruzko araudi orokorra aplikatzerakoan. Zentzu honetan, ez dago argi, adibidez, zein ordutegi ezarri beharko litzaiekeen udal-lizentzian honako izen edo sailkapenak dituzten esta-blezimenduei: "kafetegi-dantzalekua", alkoholdun edariak saltzeko baimenaduen "dastalekua", musika-ekipoa izateko baimena duen "taberna"...

Dena den, aipatzekoa da 296/1997 dekretuan talde desberdinak bereizteko ezartzen diren irizpideak aurrerapauso handia direla, babestu nahi den onda-sun juridiko horren arabera, establezimendu publikoen ezaugarri bereizgarriak finkatu ahal izateko. Hala ere, ez da ahaztu behar gaur egun sailkapen hori ez datorrela bat jarduerei buruzko hirigintzako arau teknikoetan jasotzen diren mai-la edo sailkapenekin.

Beraz, ikerketa honetan egindako gogoeten ondorioz, eta ostalaritza-esta-blezimenduak legeztatzeko prozeduran sailkapenerako irizpide bakarrak finka-tzeko asmoz -azken finean, horrela bermatuko baita Euskal Autonomia Erkide-

goko establezimenduen jabeen arteko tratu-berdintasuna ere-, Arartekoak honakoa gomendatzen du: establezimendu publikoei buruzko sailkapen bakarra ezartzea, erregelamenduzko arauen bidez. Arau horien arabera, establezimenduek benetan zein jarduera burutuko dituzten kontuan hartuta eta kasuan kasuko sailkapen-taldeetan sartzeko bete beharreko baldintzak finkatuko dira; horretaz gain, sailkapen bakoitzeko jarduerek inguruan nolako kalte eta eragozpenak era-gin ditzaketen ere hartuko da kontuan, hiritar guztien bizikalitatea babesteko asmoz.

Hori guztia gauzatu arte, udaletan emango diren lizentzietan establezimen-duen sailkapena, ahal den neurrian, abenduaren 16ko 296/1997 dekretuan ezarritako irizpideen arabera burutuko da.

Era berean, ordutegiei buruz ezarritako araudiaren aplikazioari dagokionez, benetan burutzen den jarduera eta udal-lizentzian finkatutakoa bat ez datoze-nean, kalifikazio-txostena hartuko da kontuan, horrela baimendutako instalazioa zein den erabakitzeko.

## 7.5. LANPOSTUEN ZERRENDAK ALDATURO BALIRA BABESTEKO ETA/EDO KONTROLATZEKO AUKERAK

Denok dakigun bezala, lanpostuen zerrendak baliabide teknikoa dira, ho-rren bidez pertsonala ordenatzen da zerbitzuek dituzten beharren arabera, eta zerrenda horietan, lanpostu bakoitza betetzeko behar diren baldintzak agertzen dira.

Honen ondorioz, lanpostuen zerrendek, funtzio publikoa ordenatzeko tres-na normal gisa alde batera utzita, protagonismo berezia hartzen dute administra-zio publiko batzuk giza baliabideak ordenatzeari dagokionean arrazionalizatzeko ahalegina egitea jartzen dutenean helburu.

Baieztapen hau Arartekoaren eguneroko jarduneko datuetatik datorkigu, azken hilabeteetan funtzio publikoari dagokionean erreklamazioek gora egin dute eta, lanpostuen zerrendetan egon diren aldaketen ondorioz hain zuzen ere.

Bideratu diren erreklamazioetan erakundeak parte hartzeak agerian jarri du lanpostuen zerrendengatik kalteak jasan dituzten funtzionarioak babesteko auke-rak argitu eta zehaztu beharra dagoela, eta hortik datorkigu hain zuzen ere aho-Iku orokor honen zentzua.

Jakinean gaude eztabaidagarria izan daitekeen esparru batean ari garela, lanpostuen zerrendak administrazioaren autoorganizatzeko boterearen isla edo itzulpena diren neurrian, zeharo eskumeneko ahalmena da-eta.

Hori bai, horregatik hain zuzen ere egokia deritzogu autoorganizatzeko botere honen gainean ezarri daitezkeen kontrol aukera guztiak agortzea, eta aldi berean funtzionarioen partaidetza zuzen eta berehalakoa bultzatzea, beraiek dira eta, benetan horren kaltea jasan dutenak.

Beste hitzetan esanda, ez da gure asmoa zerbitzu hobea eskaintzen saiatuz administrazio ezberdinek beraien giza baliabideekin kontatu eta horiek antolatze-

ko orduan zuhurtasun margena dutela ukatzea. Defendatzen dugun gauza baka-rra zuhurtasun hori mugatzea da, konstituzioko 9.3 artikuluko arbitrariotasuna debekatzea hartuz erreferentzia gisa, horren gainean ezarri daitezkeen kontrolak guztiz erabiliz.

Babesteko aukeretan edo azken batean kontrolatzeko aukeretan argitasuna behar dela adierazteko interesgarria deritzogu erakunde honetan aurkeztutako kasu batzuk adieraztea.

## 1. Arartekoak bideratutako erreklamazio batzuk

EAEko Administrazio Orokorreko funtzionario batek Arartekoak bitarteka-ri egitea eskatu zuen bere lanpostuan sailkapen berri bat egitearen gaineko pro-posamena ezagutu zuenean. Erreklamazioa jaso zuen departamentuko Zerbitzu-buruak erakunde honi bidalitako idatzian, hasieran informazioa eskatzeko bidali-tako beste eskutitz baten erantzunez, puntu hauek azaltzen ziren besteak beste:

*"Lanpostuen zerrertda egin dela eta, Departamentuak, autoorganizatzeko boterean oinarrituta, Administrazioa Modernizatzeko Bulegoari egokiak iruditu zaizkion izen eta amortizazio-sorrera aldaketak egitea proposatu dio. Haatik aldaketa hauek (...) Departamentuaren ekimenak besterik ez dira Administrazioa Modernizatzeko Bulegoaren berrespena behar dutenak behin betiko izatera iristeko.*
*Beraz, oraindik ez da entzutegira iritsi, non, dagozkion alegazioak aurkeztu ahal izango diren formalki. Izapide hori, Aurrekontu Zuzendaritza, OMA eta Funtzio Pubtikoaren Zuzendaritzaren txostenen ondoren Negoziazio Kolektiboko Zuzendaritzari dagokio, momentu hauetan zabalik dagoen prozesua. Ondoren, zehatz-mehatz legea betez lanpostu zerrenda onartuko duen Gobernu Kontseiluaren Dekretuaren kontra errekurtsoa jarri ahal izango da, jarduera administratiboaren aurrean langileen bermeak errespetatuz.*
*Hemen adierazitako guztiak (...) jaanaren kasua non kokatu behar du gun adierazten digu. Euskal Funtzio Publikoaren gaineko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 10 e) artikuluak agintzen duen bezala (...) departamentua da lanpostu zerrenda proposatzeko eskuduna, lanpostu hori betetzeko baldintzak eta horietako bakoitzaren sailkapena barne. Baina azken batean aipatutako Euskal Funtzio Publikoaren gaineko legearen 6. artikuluaren arabera Funtzio Publikoko Sailordetza da lanpostu zerrenda egiteko eskumena duena.*
*Momentuz ez dago administrazio egintzarik eta beraz, ez da posible errekurtsorik egiterik. Gobernu Kontseiluak lanpostuen zerrenda berria onartzeak (...) jaunak Funtzio Publikoko Sailordetzari aprobatuz gero bere lanpostuaren amortizazio/sorreraren gainean errekurtsoa egin ahal izango dion momentua markatuko du."*

Erantzun honen arabera pentsa dezakegu babesa eman edo kontrolatzeko aukerak zuzen eta egokiro erabiltzeko erakunde honen kezka neurri gabekoa dela. Hala ere, beste erreklamazio batzuk bideratzeak lanpostuen zerrendetako aldaketak ez direla beti aurreko idatzian deskribatzen den prozedurara mugatzen egiaztatzen lagundu digu.

Bide honetatik Arartekoak egiaztatu ahal izan du, nola, lanpostuak kentze-ko prozesu batean alegazioak bideratzeko espedienterako bista ez zela zegokion Eusko Jaurlaritzako Dekretuari jarraiki gertatzen, lanpostuak kentze uzte hori behin betiko erabaki eta onartu arte.

Era berean, erakunde honek, beste espediente batzuk bideratzeko orduan egiaztatu ahal izan du entzutegiko jatorrizko tramite honen eragina eskasa izan dela, hutsa ez esateagatik, beti ere modifikazioen behin betiko onarpena intere-satuek egindako alegazioen erabakia zintzilik zegoela egin denean.

Bestalde, azpimarratzekoa da aurreko paragrafoetako erantzunean *(Gober-nu Kontseiluak lanpostuen zerrenda berria onartzeak (...) jaunak Funtzio Publikoko Sailordetzari errekurtsoa egin ahal izango dion momentua mar-katuko du aprobatuz gero bere lanpostuaren amortizazio/sorreraren gainean)* aipatutako errekurtsoa egiteko aukerak ez direla azken aldian onartutako aldake-tetan gertatu (adib. urriaren 4ko 226/1997 Dekretua-urriaren 31ko EHAO, 209. zkia.) bide administratiboari bukaera ematen dion akordio edo erabaki bat denez prozedura administratiboari buruzko (abenduaren 26ko 30/1992 Legea) lege berriak administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren epaitegietara eramaten baitu kontra egitea.

Azkenik, ez dugu erreklamazioen gaineko aipamen labur hau itxi nahi lan-postu zerrendak aldatzeko proposamenak fiskalizatzeko saiakerak kasu batzutan sortu dituzten erreakzioak aipatu gabe. Adibide gisa ondorengo erantzuna aipa-tuko dugu:

*"(...) Departamentuak proposaturiko lanpostuen zerrenden modifika-zioek Aurrekontu Zuzendaritza, Administrazioa Modernizatzeko Bule-goa eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren derrigorrezko txosten ego-kiak izan dituzte, eta Dekretu bidez argitaratu dira (...)*
*Bide honetatik, Zerbitzuen Zuzendaritza honetatik uste dugu duela gu-txi onartu diren (...) lanpostuak amortizatzeko proposamenak nahikoa justifikatuta geratu direla aurretik aipatutako Zuzendaritzek emandako espediente administratiboetan agertzen diren memoria, motibazio eta azalpenen arabera."*

Aurreikusi ahal izan den moduan bideratutako erreklamazioek agerian uzten dute, erakunde honen iritziz behintzat, erreferente arauemaile argi baten beharra lanpostuen modifikazioak nola eraman aurrera jakiteko. Horren ondorioz, inte-resgarria litzateke honen gaineko araudiari begirada bat ematea.

## 2. Lanpostuen zerrendak aldatzearen gainean dagoen araudia

Ezer baino lehen, ondoren datorren aipamen hau EAEko Administrazio Orokorrera bakarrik mugatzen dela argitu behar dugu. Hala ere, egon daitezkeen berezitasunak gaindituta, zirriborro labur honi jarraituko dioten ondorioak EAE-ko gainontzeko administrazio publikoetara zabal daitezke.

Hasierako azalpen honen ondoren arauaren inguruko ibilbidea **Euskal Funtzio Publikoaren gaineko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen** aurreikuspenetatik hasiko dugu. Lege hau Autonomia Erkidegoko Administrazioaren in-guruko lanpostuen zerrendak onartzea Gobernuaren lana dela esatera mugatzen da (5. art. i), eta horrekin batera, oraingo Ogasun Saila eta Administrazio Pu-blikoaren proposamenetarako ahalmena aztertzera (6. art. e).

Hala ere, **azaroaren 7ko 16/1997 Legeari** jarraiki egindako aldaketek Gobernuak kontseilariei beraien kargura dauden departamentu eta organismo autonomoetako lanpostu zerrendak onartzeko konpetentziak deskontzentratze- ko aukera ematen dute. Horrelako kasuan departamentuek egin beharko badi-tuzte ere zerrendak estruktura organiko arauetan ageri diren konpetentzia ba-naketaren arabera, funtzio publikoaren gainean konpetentzia duen departamen-tuafen onarpena beharko dute dagokion agindua eman aurretik.

**EAEko Administrazioaren zerbitzura dauden langileen lan baldintzak erregulatzeari** dagokionean, indarrean dagoen **Akordio Erregulatzaileak** (ekainaren 18ko 148/1996 Dekretua-ekainaren 20ko EHAA, 118. zkia.) ondorengo hau ohartarazten digu 50. artikuluan: "*Lanpostuen zerrendak pertsonalaren egiturak arrazoibideratzeko oinarrizko langaiak dira eta beren kudeaketak iharduteko modu azkarrak eskatzen dituelarik, sindikatuek azterketari, iharduteko moduari, aldaketa-proposamenei eta abarri dagokienez parte hartuko dute zerrenda hauetan, etabar*".

Akordio honek gainera sindikatuek lanpostuen zerrenden zirriborroekiko nola garatu behar duten partaidetza hau esaten du, postu aldaketa hauek erregu-latuko dituen arau zehatz bat egiteko konpromezua hartuz, non, lan baldintzak arautzeko akordioaren aurreikuspenak agertuko liratekeen gutxienez.

Azkenik, akordio honek lanpostuen zerrenden gaineko azpibatzorde bat sortzea -batzorde parekidearen menpe- erabakitzen du, eta honi lanpostuen zerrenda eta berau aldatzeko proiektuekin zerikusia duen guztiaren gaineko ana-lisi eta proposamen funtzioak egozten zaizkio.

Barne antolamenduaren esparruan zenbait xedapen izan dira lanpostuen zerrendak aldatzeko prozedurez arduratu direnak.

**Horien artean aipatzekoak dira martxoaren 15eko 124/1994 Dekretua, lanpostuak baloratzeko sistema eta horien sailkapena erregulatzen dituena, hala nola, Administrazio Publikorako, Funtzio Publikorako eta Ekonomia eta Aurrekontuetarako Sailburuordeen 1994ko urtarrilaren 14ko Erabakia, EAEaren Administrazio Orokorra eta bere erakunde autonomoetako lanpostuetako zerrenden aldaketak egiteko jarraitu behar den bideari buruz instrukzioak ematen dituena.**

Ohartarazi beharra dago martxoaren 15eko 124/1994 Dekretua baliogabetu eta indarrik gabe utzi zuela Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Admi-nistrazioarekiko Auzi-Epaimahaiak (657/97 Epaia), epaimahai honek pentsatu baitzuen ez zirela sindikatuekin negoziazio egokiak egin.

Bestalde, kontuan izan behar da departamentuetako egitura organikoetan izandako aldaketak 1994ko urtarrilean emandako argibideak mota honetako prozesuetan parte hartzen duten organo edo instantzia administratiboetara ez egokitzea eragin duela.

Hala eta guztiz ere, horrezaz gain, interesgarria deritzogu aipatzea 124/1994 Dekretua, lanpostuak berraztertze prozeduraz arduratzean departamentuen ekimena ondorengo hitzetan arautzen zuena:

> *"Zerbitzu zuzendaritzen ustez, lanpostu baten edo gehiagoren eginkizunak funtsean aldatu badira, lanpostuak dituen eskakizunak aldatu badira edo iharduteko baldintzak bestelakoak baditu, zuzendaritza horrek lanpostuak balioztatzea eskatuko dio Funtzio Publikorako Zuzendaritzari, nolanahi ere,* ***unean-unean lanpostuan ari denari entzun beharko zaio.*** *Halaber, sindikatuei jakinarazi ahal izateko, Talde Negoziaziorako Zuzendaritzara igorriko dute ukitutako lanpostuen zerrenda."*

Era berean, proposamen-txostenak ikertzeko tramitea bukatu ondoren, sin-dikatuek aurkeztu ditzaketenak barne, Funtzio Publikoko Sailburuordeak dago-kion erabakia hartuko luke, komiteari balora ditzan bidaltzen zaizkion lanpostuak eta bidaltzea derrigorrezkoak ez direnak zein diren adieraziz. Erabaki honen au-rrean administrazioaren bidez hierarkikoki gorago zegoenaren kontra egiteko aukera ematen zitzaien interesdunei; orduko Lehendakaritza, Erregimen Juri-diko eta Garapen Autonomikoko Kontseilariaren kontra egiteko aukera hain zuzen ere.

Bestalde Funtzio Publikorako Administrazio Publikorako, Funtzio Publiko-rako eta Ekonomia eta Aurrekontuen Sailburuordeen 1994ko urtarrilaren 14ko Erabakia, EAEko Administrazio Orokorreko lanpostuen zerrendak aldatzeko ja-rraitu behar diren prozedurei buruzko instrukzioak ematen dituena eta beraren organismo autonomoak ez zuen berriz arazo horrek eragindako funtzionarioen partaidetza zuzena hartzen kontuan, pertsonaleko ordezkarien audientzia trami-te bat bakarrik aurreikusiz.

Erakunde honen iritziz arauen inguruan egin dugun ibilbide honek argi uz-ten du barne antolamenduaren inguruan xedapen berri bat eman beharra, zein lanpostuak aldatzeko prozeduretan parte hartzen duten departamentuetako es-truktura organikoetan izandako aldaketetara egokituz prozedura arautu bat, zeini modifikatzeko etorkizuneko proposamenak diskurritu beharko zaizkion, eta, non, Arartekoaren iritziz ondorengo atalean aztertzen diren babes edo kontrol auke-rak bildu beharko liratekeen.

## 3. Lanpostuen zerrendetan aldaketak egiteko prozeduran gutxieneko babes edo kontrol beharra interesdunen partaidetzaren bidez

Arartekoa sarritan saiatu da azpimarratzen administrazio publikoek herrita-rrei beraiekin zerikusia duten jarduera administratiboetan partaidetza ziurtatzeak duen garrantzia. Bide honetatik, beste batzuen artean 1996ko Txostenean on-dorengo izenburupean agertu zena: *"Hiritarrek informazio publikorako trami-tean aurkezten dituzten arrazoibideei erantzuteko Administrazioak daukan obligazioari buruz"*.

Gure iritziz jokaera honek EEko 9.2 artikuluan adierazitako gertaera pu-blikoetan hiritarren partaidetza errazteko agindu konstituzionala betetzen erraz-ten saiatzeaz gain, berehalako babesa indartzen, eta, beraz, babesik gabeko egoerak ekiditen laguntzen du, interesatuei edozein dela ere jarduera administra-tiboa oposizio eraginkor bat izateko aukera ziurtatzen baitie zertan oinarritzen den jakiteari esker.

Uste dugu interesatuen parte hartzea erraztu eta ziurtatzeko ardura hau lanpostuen zerrendak aldatu beharrera ere zabaldu beharko litzatekeela, funtzio-narioek beraien zerbitzuekin duten harremana aldatuta ikus dezakete eta.

Esparru honetan, lan baldintzak mugatzeko orduan partaidetzari dagozkion aurreikuspenak egoteak sindikaturik adierazgarrienen bidezko partaidetzak ezta-baidarik ez sortzea eragin du. Honen gainean nahikoa da EAEko Administrazio-ko funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen Akordioak diona gogoratzea.

Beste zerbait gerta daiteke hala ere aldatzeko proposamenak eragindako funtzionarioen beraien partaidetza zuzen eta berehalakoarekin. Bide honetatik nahikoa da barne antolakuntzari dagokionean aurreko atalean egindako arauen inguruko ibilbidera jotzea.

Gure iritziz lanpostuen zerrendak aldatzeko prozeduretan funtzionarioek espedientea tramitatzeko momentu ezberdinetan parte hartzea nahiko litzateke, kontuan izanik prozesuaren konplexutasuna eta instantzia ezberdinen partaide-tza kontrolatu eta informatzea.

Bide honetatik uste dugu egokia izango litzatekeela hasierako audientziako tramitea egitea, lanpostuak baloratzeko sistema arautu zuen martxoaren 15eko 124/1994 Dekretuan batu zen bezala, era honetan interesatuek jarritako alega-zioak denok ezagutuko baikenituzke eta prozesuan parte hartzen duten instan-tzia guztiek izango bailukete horren berri eta baloratzeko aukera.

Hala ere, aurrekoaz gain eta abenduaren 26ko 30/1992 Legeko 84. artikuluak audientziaren tramiteaz ari denean ondorengo momentu honetan egin-go dela adierazten du *"instruidos los procedimientos e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución"*. Uste dugu aurreko ekimenak ezingo lukeela bigarren tramite bat ezkutatu, administrazioaren bidetik errebisio bide baten bidez egin ahal izango litzatekeena, behin behineko modifikazio proposa-men batetik abiatu eta beraz, behin betiko berrespena izateko zain.

Puntu honetan uste dugu aipatzekoa dela 1992an onartutako Herri Admi-nistrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legea-

ren eragina administrazio bidean duen berrikuste aukeragatik, kontuan izanik beti ere aspaldian hain zabaldua zegoen birjarpenezko errekurtsoaren desagerpena.

Gure iritziz, 1995eko urteko Txosteneko aholku orokorretako batean adie-razten genuen bezala, jarduera administratiboa gehiago deskontzentratzen saiatu behar da berrikuspeneko aukerak errazteko ofizioko berrikuspenaren muga estu eta murriztaileetatik.

Ondorioz, orain arte azaldutakoaren laburpen gisa, funtsezkoa deritzogu interesatuek parte hartzeko bide batzuk zabaltzeari, prozesuan parte hartzen du-ten erakunde guztiek jarritako alegazioak kontuan hartzen dituela ziurtatzen du-ten bidea zabaltzeari hain zuzen ere, hala nola beraren aurrean defentsa era-ginkor bat egin ahal izateko alegazioak ez onartzera eraman duen arrazoiak eza-gutzeari.

Era honetan eta forma aldetiko berme hauek ziurtatu ondoren lanpostuen zerrendetako aldaketak kontrolatzeko aukerak aldatzea bultzatuko litzateke, pro-posamen horiek egiteko bide eman duten zergatiak ezagutzeak interesatuei ho-rien kontra jartzen utziko bailieke eskumena jaisteko tekniken bidez (antezeden-teak edo gertakari aipagarrien kontrola, botere desbiazioa eta abar).

**4. Ondorioak**

Arartekoak beharrezkoa ikusten du arau(di) zehatz bat egin eta onartzea, non, lanpostuen zerrendak aldatzeko prozedura arautu bat azalduko den.

Arau honek, alde batetik, EAEko Administrazioan lanean ari diren funtzio-narioen lan baldintzak erregulatzeko Erabaki honetan emandako hitza bete be-harko du, lanpostuen zerrendak aldatzeko proposamen eta prozeduretan sin-dikatuek parte hartu behar dutela esaten duenaren arabera.

Era berean, modifikazio proposamenak direla-eta, eragina jasan duten fun-tzionarioen euren parte hartze zuzen eta berehalakoa bultzatzeko bideak bilatzea nahiko litzateke, funtzionario horien interesak babestuta egongo direla ziurtatze-ko.

## 7.6. **ZENBAIT OHAR PFEZ-REN ERREFORMARI BURUZ**

Arartekoaren erakundea indarrean dagoenetik, Pertsona Fisikoen Errenta-ren gaineko Zerga (PFEZ) izan da konponezin gehien sortu duena zerga adminis-trazioen eta zergapekoen artean.

Horren arrazoi nagusia da, segur aski, izaera pertsonaleko zerga horixe bera dela, beharbada, hiritar gehiengan eragina duena.

Bestalde, estatuaren esparruan bezala, lurralde historikoenean, zerga admi-nistrazioen sarrera iturri nagusia da, eta hori dela eta, askoz zailagoa da une bakoitzean indarrean dauden ereduetan aldaketak sartzen.

Horri erantsi behar zaio PFEZ, batik bat izaera pertsonaleko zerga izanik, hau da, zergapekoaren egoera pertsonala kontuan hartzen duena, aberastasuna birbanatzeko tresnatzat erabiltzen dela.

Nolanahi ere, PFEZ gaur egun, berrikuste prozesu betean aurkitzen denez, ondoren laburki aztertzen diren gaiek, zergaren egituran eta filosofian eragitea baino gehiago bilatzen dute, aukera aprobetxatuz, kasu batzuetan, arauaren aplika-zio estutik eratortzen diren egoera bidegabeak zuzentzea, eta beste batzuetan, kexak bideratzean azaldutako gizarte eskaerak antolamendu juridikoan gauzat-zea.

Horri erantsi behar zaio gainera, lurralde historikoetako erakundeek orain artean, arazo asko Estatuaren gainerako lurraldean bezala arautu behar zituztela, baina orain, indarrean dagoen kontzertu ekonomikoa abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak aldatu ondoren, esandako erakundeen eskumenak dira PFEZaren ingu-ruko guztiak.

Bi arrazoi horiek direla eta uste dugu, une ezin egokiagoa dela iradokizun hauek formulatzeko, hala, zergaren testu berrira sartzeko aukera izan dezaten.

Zergaren kudeaketari eragiten dioten zenbait arazo ikusiko ditugu lehenda-bizi, subjektu pasiboen zerga-ordainketa modua, bereziki.

## 1- Familia unitate kontzeptua:

### 1.1. <u>Guraso bakarreko unitateen zerga-ordainketa</u>

1996. urteari zegokion Euskal Parlamenturako txostenean adierazi genuen bezala, PFEZaren foru arauetan indarrean dagoen familia unitatearen eraketak, batzutan egoera bidegabeak sortarazten ditu, zerga gaitasunaren printzipioaren aurkakoak, zenbait alditan.

Indarrean dauden arauen arabera, ondorengo familia unitateak aurreikus-ten dira:

1. 18 urtez azpitiko -eta burujabeak ez diren- seme-alabak dituzten <u>senar - emazteak.</u>
2. 18 urtez azpitiko -eta burujabeak ez diren- seme-alabak dituen <u>aita</u> edo <u>ama.</u>

Arartekoak aurkitako arazoa bigarren motako familiei dagokie, hau da, guraso bakarrekoak izanda, seme-alabetan txikienak 18 urte betetzen dituenean, PFEZaren eraginetarako familia unitate izateari uzten diotenei. Hortik aurrera, nahitaez, banakako aitorpena egin beharko dute, eta jakina den bezala, garestia-go ateratzen da.

Alegia, sarrera iturri bakarra familiako buruaren lana izanik ere, eta heme-zortzi urtetik aurrera seme-alaben hezkuntzak eta mantenuak sortarazten dituen gastuak gutxitzen ez diren arren, alderantziz baizik, familia unitateak banakako

eskalaren arabera ordaindu behar dio Haziendari, eta baterako aitorpena eginda baino ondotxoz kopuru handiagoa ordaindu behar du.

Horrela, adibidez, 2.500.000 pta.ko zerga oinarriarentzat baterako aitorpenean ingresatu beharreko kuota (kenketak egin aurretik) 344.710 pta.koa da, eta banakakoan, aldiz, 468.210 pta.koa (1996ko ekitaldiari dagozkion datuak).

Erakunde honen iritzian, familia unitatearen egungo eraketatik eratortzen diren emaitzak, Konstituzioan babesten diren berdintasun eta zerga gaitasun prin-tzipioen aurka joan litezke.

Datu gisa adierazi dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1991. urtean, guraso bakarreko familia guztien %84,25, amak (alarguna edo banatua) eta seme-alaba batek edo gehiagok osatzen zutela (Euskal Estatistika Urtekaria. EUSTAT 1995).

Disfuntzio horren konponketa, adin muga seme-alabak familia unitateko kidetzat hartzen diren urteetaraino atzeratzean egon liteke, seme-alabengatiko kenketei buruzko atalean egiten den bezala (lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoko errenfarik jasotzen ez duten 30 urtez azpitiko seme-alabak sartzen dira).

Tarteko neurri bat ere har liteke adin mugatzat: 25 urte, esate baterako, kontuan hartuz adin horretan amaitzen dela unibertsitateko heziketa.

### 1.2. Izatezko bikoteen zerga ordainketa

Familia unitatearekin zerikusia duen beste kasu bat, seme-alabak dituzten izatezko bikoteena da. Gaur egun foru haziendek uzten dute gurasoetako batek seme-alabekin aitorpen bateratua eta beste bikotekideak banakakoa egitea. Aukera hori, ordea, askoz onuragarriagoa da senar-emazteei ematen zaiena baino, azken hauei uzten zaien modu bakarra aitorpen bateratua egitea baita, bi gurasoen sarrerak batuz, alegia. Baina, horrez gainera, gaiari buruzko administrazio dok-trina bakarra oraindik aurrerago doa, izatezko bikoteei gurasoetako bakoitzak seme-alabetako batekin aitorpen bateratua egitea uzten baitzaie. Doktrina ho-rren adibidea da 1995eko maiatzaren 17ari Zerga Zuzendaritza Nagusiak (ZZN) emandako ebazpena:

> *« Izatezko bikoteen kasuan, gurasoen dibortzio edo legezko banaketaren antzeko egoera gertatzen da. Alegia, izatezko bikote horren seme-alabak (bienak) bakoitzak familia unitate bat osa dezake nahiz aitarekin, nahiz amarekin. Hau da, izatezko bikotekide bakoitzak seme-alabaren batekin osatutako bi familia unitate egon daitezke.*
> *Beste kontu bat izango litzateke seme-alabok izatezko bikotekide bakar batenak balira. Kasu horretan, guraso horren eta bere seme-alaben arteko familia unitatea besterik ez litzateke posible."*

Foru Haziendak jakinaren gainean daude, foru arauetako 87. artikuluaren aplikazioa -guraso bati seme-alaba guztiekin baterako aitorpena egitea baimen-

tzen diona- berez onuragarriagoa dela senar-emazteei ematen zaien aukera bakarra baino, eta ez dute ametitzen aurreko paragrafoan agertzen den ZZNren interpre-tazioa.

Argi utzi nahi da ez dela auzitan jarri nahi aukera hori ez onartzeko hazien-dek argudiatzen duten bereizkeria negatiboaren akatsa, delako iritziarekin erakunde hau ere agian bat etorriko bailitzateke.

Hala ere, aipatutako legea hitzez hitz hartuta eta ZZNk gaiari buruz eman-dako ebazpenen argitara, izatezko bikoteetan gurasoetako bakoitzak seme-ala-betako batekin aitorpen bateratua egiteko aukera ez legoke egun indarrean dau-den foru arauen aurka.

Baieztapen horretan eta zerga administrazioen irizpidean oinarriturik, ko-menigarria ikusten dugu etorkizuneko PFEZen arauetan arazo hau berariaz argi-tzea, zalantzetarako aukerarik emango ez duen idazketa emanez.

**2- Aitorpen aukeraren aldaketa**

PFEZaren 18/1991 Legeko 88. artikuluaren eta foru arauetako haren ki-dekoen aplikaziotik eratorritako arazoez ari gara, aipatu artikuluen arabera, ezin baita ekitaldi berari dagokion aitorpen aukera aldatu.

Kexa dezente jaso dira erakunde honetan, foru haziendetan aitorpen auke-ra aldatzen utzi ez izana salatzen dutenak, nahiz eta argi geratu, zergapekoek aitorpenean egindako hutsegiteen ondorioz gertatzen direla kasu horiek. Gi-puzkoako Lurralde Historikoan saiatu ziren egungo araudiaren eraginak zertxo-bait arintzen, eta horretarako Haziendako Zuzendari Nagusiaren zirkular bat onartu zuten, zeinak bide ematen baitzuen aitorpena aurkezten zenetik epe labur batean aitorpen aukera aldatzeko. Nolanahi ere, legezkotasun eta zuzenbide segurtasun printzipioek legea aldatzea aholkatzen dute, bidezkoa ikusiko balitz behintzat.

Gutxienez ere, hamar bat eguneko epea ezartzea egokia litzateke, adminis-trazioak behin-behineko likidazioa egiten duenetik, zergapekoak hutsegitez hau-tatutako aukera zuzentzeko, eta ez litzateke txarra aitorpena aurkezteko epe osoan zuzenketarako aukera izatea ere.

Hala izan ezean, zuzenketa ezin egitetik eratorritako eraginak, Konstituzio-aren 31. artikuluan jasotako zerga gaitasun printzipioari aurka egiten dio, PFEZ kontzeptuagatik legez dagokion kopurua baino gehiago ordaindu beharrean au-rkitzen baita zergapekoa . Horrela eman zaie aditzera foru haziendei, arazo honi buruz bideratutako beste zenbait espedientetan.

**3- Kenketak:**

**3.1. <u>Adineko edo elbarriengatik kenketa</u>**

PFEZko araudiak ez du uzten adineko edo elbarri izaeragatik kenketak egi-terik, subjektu pasiboaren gurasoak edo seme-alabak zan ezean. Arazo honi

buruz, nahiz eta EAEko Gerontologia Planak berariaz aurreikusi eta gomendatu duen behin eta berriz, zerga arintzeak ezarri behar liratekeela premian aurkitzen diren adineko pertsonak -elbarritasun handikoak eta ahalegin pertsonal eta eko-nomiko berezia eskatzen dutenak, zenbait kasutan-etxean hartzen dituzten fa-milientzat, ahaidetasuna edozein dela ere (osaba-izebak, senideak, e.a.), Gipuz-koa eta Arabako haziendek onartu dituzte soilik, 1996tik eraginak dituela, mota ho-rretako kenketak. Guztiz beharrezkoa da zergaren arau berrietan egoera hauek aurreikustea eta, eskatzen diren gainerako baldintzak egiaztatu ondoren -errenta sarrera, elkar bizitza egonkorra, e.a.- egun dauden kenketak hedatzea.

### 3.2. <u>Ondorengoengatik kenketa, ezkontza baliogabetasun. banatze eta dibortzio kasuetan</u>

Ondorengoengatik kenketa egingo bada -30 urtez azpitiko seme-alabak, batik bat- nahitaezkoa da hauek subjektu pasiboarekin bizitzea. Baina zenbait kasutan gertatzen da, banaketa, baliogabetze edo dibortzio prozesuen ondorioz, seme-alabekin bizi ez den gurasoak, epaiak hala behartuta, pentsio bat ordaindu behar izaten diela mantenuagatik, eta zerga oinarria ezartzerakoan kontuan ez hartzeaz gain, ez dela uzten kontzeptu horregatik kenketarik egiten.

Araba eta Bizkaiko Foru Arauek gai honen inguruan duten idazketa ereduzkoa da, kenketak erdibana egiteko bidea ematen baitu, esandako mantenu ekonomikoaren benetakotasuna eta eraginkortasuna egiaztatuz gero. Zentzu horretan, arrazoizkoa dirudi Gipuzkoako Haziendak ere irizpide berberaz joka-tzea.

### 3.3. <u>Ohiko etxebizitza erosteaoatilt kenketa</u>

3.3.1 - Konstituzioko 47. artikuluan jasota dago herritar guztien eskubidea etxebizitza duin eta egokia izateko, eta delako eskubidea gauzatzera zuzendutako arau egokiak ezartzera behartzen ditu aginte publikoak. EAEren esparruan, etxe-bizitza duin bat eskuratzea, guztiz eginkizun zaila bihurtu da gizartearen sail handi batentzat. Horrela, abian jarritako etxebizitza politika guztiak gorabehera, hiru euskal hiriburuetako etxebizitzen salneurriak estatu osoko garestienetakoen ar-tean daude. Ondorioz, geroz eta handiagoak dira familiek etxebizitzarako erabil-tzen dituzten sarrera portzentaiak.

Zentzu horretan Arartekoa, ohiko etxebizitza erosteko maileguetako intere-sengatik zerga oinarriak arintzearen eta kuotako egungo kenketei eustearen al-dekoa da.

Esan behar da orobat, kenketa horren eraginetarako ezarritako zerga oina-rriaren %30eko muga, errenta baxuenen aurka eta altuenen alde dagoela, ez baitu kontuan hartzen subjektu pasiboaren sakrifizio maila.

Arrazoi horregatik, etxebizitzaren erosketa-eskritura egiten den urtean gu-txienez, uste dugu muga hori kendu egin behar litzatekeela.

Gauza bera esan daiteke interesengatik zerga oinarriak arintzeari buruz, zerga administrazioak esandako zerga arintzea kentzekotan baitabiltza, horren ordez, ondasun higiezinen jabetzatik eratorritako etekinen ezabapen korrelatiboa eskaini nahi delarik.

Begibistakoa da neurri hori etxebizitza erosteko mailegua eskatu beharrik ez dutenen eta ondasun higiezin handiak dituztenen alde dagoela, eta beraz, zerga arintzeari eustearen alde gaude argi eta garbi.

3.3.2 - Zergaren arau berrietan ebatzi beharreko beste arazo bat -gaur egun, dagozkion legeak interpretatzera behartzen du- etxebizitzaren eranskinen- gatiko (trastelekua, garajea) kenketa da, izan ere, lurralde bakoitzaren arabera, trataera desberdina ematen baitzaio.

Hala, arazo hori salatzen zuten zenbait kexa-espediente bideratu dira erakun-de honetan, zergapeko gipuzkoarrek igorrita, etxebizitzako jabetza-eskritura pu-blikoan trastelekua eta garajea etxearen eranskin bereiztezin gisa jasota egon arren, foru Haziendak ukatu egin zielako kontzeptu horiengatik kenketa egiteko eskubidea.

Gai honen inguruan, PFEZeko Araudiko 35. artikuluak, zeinak zehazten duen zeintzuk diren ohiko etxebizitzako inbertsioak kenketen eraginetarako, zera dio 2. Atalean:

> «Bi. Aldiz, ez da hartuko etxebizitza-erosketa gisa:
> *(...) c) Garaje, lorategi, parke, kirol instalazio, eta, oro har, etxebizitza bera e z den beste ezein eranskinen erosketarik, beti ere, etxebizitzatik aparte erosten badira».*
> *Sensu contrario* esandako elementuek, baldin eta etxebizitzarekin batera erosi badira, Arartekoaren iritzian, kenketarako eskubidea sortuko lukete.

Gipuzkoako Haziendako Zuzeneko Zerga Zerbitzuak, erakunde honek es-katuta egindako txostenean, zera zioen:

> *«Zuzeneko Zerga zerbitzu honen iritziz, "aparte" kontzeptuaren esanahia zehazteko eta, bere kasuan, kenketarako eskubidea izateko, beharrezkoa da Erregistroan inskripzio bakar bat eta agiri publiko bidezko aitorpen bakar bat izatea. Kasu honetan, bi betebeharretatik bat ez betetzean, ezin dezakegu garajea etxebizitza kontsideratu, baizik eta etxebizitzaren eranskin, eta beraz, 13/1991 Foru Arauko 78.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, garajeak ez du kenketarako eskubiderik ematen.»*

Hala ere, aurrez adierazi den bezala, bideratutako kasuetan, nahiz eta egiaz-tatu etxebizitzaren eta eranskin bereiztezinen salerosketa eskritura publiko bakar batean gauzatu zela, bestela ezin zelako, eta izen emate bakarra egin zela jabetza erregistroan, hori ere nahitaezkoa izanik, Gipuzkoako Haziendak berak ebatzi zuen *«garajeak ez duela kenketarako eskubiderik ematen».*

35.2. c) artikulua guztiz argia da esaten duenean bertan aipatzen diren eranskinek ez dutela kenketarako eskubiderik ematen etxebizitzatik aparte erosi badira, eta beraz alferrikakoak dira interpretazio irizpideak. Aipatzen ari garen kasuan erosketa aparte egitea ezinezkoa zatekeen eroslearen borondatea horixe izan balitz ere, eta beraz, aipatutako aginduaren aplikaziotik kenketa egiteko erabateko eskubidea eratortzen da.

Gipuzkoako Fom Aldundiko Hazienda eta Finantza Departamentuak barne zirkular bat onartu zuen, egungo testuari eusten bazion ere, artikuluaren hedape-na eta esanahia zehazten zituena.

Emandako konponbide horri esker -nahiz eta erabat asegarria ez den, be-har adinako maila formalik ez duelako- 1996an aitortu beharreko 1995eko eki-taldiko PFEZ aitorpenetik hasita, onartu dira ohiko etxebizitzaren eranskin be-reiztezin gisa eta etxebizitzarekin batera erregistroan finka bakar bezala agertzen diren garaje eta trastelekuei zegozkien kenketak.

Baina nolanahi ere, artikuluaren irakurketatik sortzen diren interpretazio desberdinak kontuan harturik, egokia dirudi, era berean, ohiko etxebizitzako in-bertsioagatik egiten diren kenketan zein elementu sartzen diren zehatz mehatz argitzea.

3.3.3 - Azkenik, ohiko etxebizitzako kenketei buruzko atal honetan, aipatu beharra dauzkagu etxebizitza erosteko maileguen ordainketak irabazpidezko elkar-teak egiteri dituen kasuak, etxebizitza ezkontideetako baten ez besteren onda-suna denean. Hasteko, egungo arauen arabera, jabe ez den ezkontideak ez luke kontzeptu horregatik kenketa egiteko eskubiderik izango, eta beraz, eskatutako maileguari aurre egiteko egindako ordainketen erdia ez dira zerga eraginetarako aintzat hartzen.

Hala ere, kexa-espediente bat zela bide, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ha-zienda Departamentuak berak ondokoa esan zuen:

> *«(...) Ezkontza datatik aurrera, beraz, ulertu behar da egoera horretan egindako ordainketak erdibana dagozkiela bi ezkontideei, Kode Zibile-ko 1354 eta 1357 artikuluetan jasotakotik ondorioztatzen den bezala, eta beraz, etxebizitzaren titulartasuneko partaidetza aldatu egiten da une horretatik aurrera, esan litekeelarik irudizko adieran higiezinaren titulartasunaren portzentai bat pasatzen dela etengabe, hasierako ja-bearengandik ezkontidearengana (zentzu bereko ebazpena eman du Badajozko Probintzi Auzitegiak 1994ko urriaren 25eko Epaian, eta orobat, Zerga Zuzendaritza Nagusiak, 1993ko uztaihren 5ean egindako galderari erantzunez). Ezkontideak hasierako titularrari egiten dion erosketa hori zenbatu daiteke eta irabazpidezko elkarteak ordaindutakoaren erdiari dagokio- na izango da, eta ondorioz, loturaren balizko haustura batean bi ezkon-tideei legozkiekeen eskubide eta interesetan, ezkontza ondorengo or-dainketa horiek eragina izango luketen bezala, ezkontza indarrean da-*

*goen bitartean ere, titulartasuna ezin daiteke %100ean hasierako eroslearena izan, nolaz eta ez duen frogatzen ezkontza ondorengo ordainketak bereak besterenak ez ziren ondasunekin egin zituela.»*

Zentzu horretan, Zerga Administrazioko Estatuko Agentziak berak, 1996ko uztailaren 26ko ebazpenean, nahiz eta onartu, oro har, ezkontza aurretik ezkon-tideetako batek erositako ondasunak eta eskubideak bereak direla eta ez bestere-nak, esaten du ezkontza aurretik epeka erositako familiarako etxebizitzak irabaz-pidezko izaera duela, ezkontza ondorengo ordainketen indarrez, eta beraz, or-dainketa horiek kenketarako eskubidea ematen die bi ezkontideei, baldin eta irabazpidezko errentekin ordaindu badira.

Azaldutako guztiagatik, erakunde honen aburuz, ohiko etxebizitza ezkonti-de bakarraren izenean egoteak ez du esan nahi ezkontideek ordaindutako ko-puruak irabazpidezko elkartearen kargura egin ez direnik, eta ondorioz, etxebizi-tzako inbertsioagatiko kenketa erdibana aplikatu behar zaie, baina, edozein mo-duz ere, aurreko ataletan bezala, komenigarria izango da arazo hau behar bezala zehaztea eta idaztea zergaren arauetan.

### 3.4. Familiako gastuak

"Familiako gastuak" izeneko atal honetan hiru proposamen egiten dira, familiaren babeserako politika osoago batzuen osagarri izan litezkeenak.

1996. urteari zegokion Euskal Parlamenturako txostenean, familia ugarien lege propio bat onartzeko gomendioa egitean esaten genuen bezala, PFEZak muga tekniko garrantzitsuak ditu errenta baxuenetako familien gastuak kitatzeko orduan.

Ez da ahaztu behar, izan ere, itzulketen kopurua ezin daitekeela inoiz izan egindako atxikipenak baino handiagoa. Zentzu honetan, familia babesteko poli-tika eraginkorrenak gertatzen den unean gastua gutxiagotzen dutenak dira.

Hori hala izanik ere, ondorengo gaiak proposatzen ditugu, lurralde histo-rikoetako organo eskudunek PFEZeko arau berrietan sartzeko egokiera azter dezaten:

A) Erditze ugariagatiko berariazko kenketa. 2 ume edo gehiago batera jaio-
tzeak subjektu pasiboen ekonomia ahalmenean duen eragina aintzat hartzearren.

B) Urtebete arteko haurren esne gastuak. gaur-gaurkoz ez direlako sar-tzen, harritzekoa ez denez, gaixotasun gastuengatiko kenketan, nahiz
eta botikan erosten diren eta biziki produktu garestiak izan.

B) Testu liburuak erosteko gastuak. liburuak doan izateko joera aldezten duten proposamenak benetan gauzatzen ez diren neurrian.

## 7.7. HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIKO ADMINIS-TRAZIOKO EMAKIDADUN ETA KONTRATISTEN ONDARE ERANTZUKIZUNA

A. SARRERA

Hiritarrek, eskubideak dituztenez, administrazioaren jardueraren aurrean garantia batzuk ere badituzte. Garrantzitsuenak, hau da, legezkotasunak, admi-nistrazioaren jarraibidea finkatzen du, legea eta zuzenbidea jarraituz. Aldi be-rean, botere publikoek beren interesen aurka izan ditzaketen jardueren aurrean hiritarrek duten garantia da ondare erantzukizuna.

Askotan administrazioak bere erantzukizun objektiboa aplikatzen ez due-lako edo administrazioaren jardueraren emaitzagatik, administratua babesik gabe geratzen dela nabaritu du kezkaz Arartekoak azken urteetan. Administrazioaren erantzukizunak orokorrean aplikatzen diren edo ez analizatzea ez da ordea gure helburua, administrazioaren jarduera zuzenean exekutatu beharrean, emakida erregimenean nahiz kontratazio publiko bidez, izaera publikoko zerbitzuak bere ordezko beste agente batzuen bitartez ematen dituenean burutu beharreko jar-duera argitzea baizik. Enpresa pribatu izanik ere, funtzionarien eskumen pu-blikoaren barnean egikaritzen den jarduera garatzen dutenez, hirugarrenei era-gin diezazkieken kalteak, administrazioarentzat deskribatutako ondare erantzuki-zunaren antzeko erregimen baten arabera ordainduko dira. Era beran, zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten eskubide pribatuko sozietate publikoek erantzuki-zun erregimen bera jarraituko dute, sozietate hauek kapital publikoarekin finan-tzatzen direlako eta beren eskuduntzak egikaritzerakoan jarraitu behar duten in-teres orokorragatik.

Hala ere, erakunde honek tramitaturiko espediente guztiak aztertu ondo-ren, administrazioak zerbitzu publikoa enpresa pribatu baten bitartez ematen dela jakinarazten duenean, ondare erantzukizunaren eskaera ezestea ohikoa dela erreparatu da.

Ondorioz hiritarrak erreklamazioak administrazioaren aurrean nahiz enpre-saren aurrean aurkeztera behartuta egoten dira, azken hauek gehienetan proze-dura honen exigentzietatik ihes egiten saiatzen direlarik.

Horregatik, egoera hau konpontzera zuzendutako prozedura zuzena anto-latzeko gomendio orokor hau egiten da:

B. ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETARAKO KONTRATATUTAKO ENPRESEI ESLEIGARRI ZAIZKIEN KALTEENGATIKO ONDARE ERANTZUKIZUNAREN ESPARRU JURIDIKOAREN EBOLUZIOA

1. Administrazioaren ondare erantzukizuna, erantzukizun objektiboa.

Zerbitzu publikoen funtzionamenduan zehar eragindako kalteen erantzuki-zunari dagokion araubidea, Konstituzioko 106.2 artikuluan jasota dago egungo antolamendu juridikoan:

*«Pertsona partikularrek, legeak agintzen dituen baldintzetan, eskubide izango dute beren edozein ondaretan edo eskubidetan egiten zaizkien kalteen ordaina jasotzeko, derrigorrezko kasuetan ez bada, kalte hori zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioz gertatua baldin bada".*

Konstituzioko agindu honek, hiritarrak administrazioaren jarduera esparruan jasandako kalteengatik objektiboki ordaindua izateko duen eskubideari erantzu-ten dio, obligazio hau konstituzio aurreko legedian ere jasotzen zelarik.

1978ko Arau gorenaren aurretik, 1954ko Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen (LEF) IV. tituluari dagokionez, aldi baterako okupazioagatiko eta beste kalte batzuengatiko indemnizazioa xedatzen duen 121. artikuluan eta ondorengoetan arautu zen, bertan aipamen hau egiten zelarik *«Partikular batek Lege honetan aipatzen diren ondasun eta eskubideetan jasandako edozein kalte, beti ere zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo anorma- laren ondorio bada».*

Era berean, Estatuko Administrazioaren Araubideari buruzko 1957ko Le-gearen IV Tituluko lehengo kapituluan, eta zehazki bere 40. artikuluak hau esa-ten zuen *«partikularrek, Estatuak bere ondasun eta eskubideetan eragindako edozein kalteren indemnizazioa jasotzeko eskubidea dute, kalteak halabeha- rrak eragiten dituenean izan ezik eta zerbitzu publikoen funtzionamendu normalak edo anormalak eraginak badira».*

1978ko Konstituzioa indarrean sartu ondoren eta 106.2 artikuluko lege erreserba betez, administrazioen ondare erantzukizuneko erregimena arautu zen azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubidearen eta Guztientzako Admi-nistrazio Jardunbidearen 30/1992 Legearen bidez (LRJAP eta PAE) eta hau garatzen zuen Ondare Erantzukizunari buruzko gaietan Administrazio Publikoen Prozedura Erregelamendua onesten zuen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretuaren bidez (RRP).

Administrazio guztientzat amankomuna den erregimen honetan ezaugarri hauek antzeman ditugu. Indemnizazio eskubidearen sorrera kreditatu ahal izate-ko baldintzak, legearen ondorio dira baina baita Auzitegi Gorenaren jurispruden-tzia ugariarenak ere (hauen artean aipatu beharrekoak dira 1980ko otsailaren 2ko RA\743AG, 1984ko irailaren 25eko RA\221 eta 1995eko maiatzaren 25eko RA\4031 Auzitegi Gorenaren Epaiak). HaUetan esaten den bezala ondo-rengoa egiaztatu behar da:

a) kaltea edo galera benetan eragin dela eta pertsona edo talde bakoitzarent-
zat ekonomikoki balora daitekeela,
b) erreklamazioa jarri duenari bere ondarean eragin zaion kaltea edo galera zerbitzu publikoen funtzionamendu normalak edo anormalak zuzenean, berehala eta kausa-eragin erlazioaren ondorioz eragin direla eta kausazko
lotura aldatuko duten elementu arrotzek parte hartu gabe izan dela,
c) halabeharrak zerikusirik izan ez duela, eta
d) erreklamazioa jarri duenak, norbere portaerak zentzuz eragindako kalteak
jasateko betebehar juridikoa ez duela,

e) era berean, gertaeren datan hasten den urtebeteko epea amaitu izanagatik eskubidea iraunoita ez dagoela.

Azkenik, AGak esanda bezala, indemnizazioa jasotzeko eskubidea xedatze-ko beharrezkoa da *«jarduera administratiboa -egitezkoa edo ez-egitezkoa-, emaitza kaltegarria nahiz bien arteko kausa-eraginezko harremana gauzatu direla frogatzea, frogatze lana erreklamazioa aurkezten duenari dagokiola- rik».*

2. Indemnizazioa jasotzeko eskubidea, kalteak zerbitzu publikoen kudeake-tarako kontrataturiko enpresak edo emakidadun enpresak eragin dituenean.

Aurrez aipatutako baldintzak finkatu ondoren, kalteak zerbitzu publikoen kudeaketarako kontrataturiko enpresek edo emakidadun enpresek eragindakoak direnean, indemnizazioa jasotzeko eskubidearen araubidea finkatu behar da au-rrez.

• Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legeak (LEF) 121.2 artikuluan xe-
datzen zuen planteaturiko lehenengo kasua, hau da, emakida administratiboena izan zuen kontuan, bertan beren funtzio publikoak egikaritzerakoan enpresa emakidadunek eragindako kalteen erantzukizun printzipioa jasoz. Printzipio ho-
nen salbuespen bakarra, kaltea administrazioak emakidadunari ezarritako klau-sula batek eragina zenean gertatzen zen, emakidaduna klausula betetzera behar-
tuta baitzegoen.

Era berean kasu hauetarako prozedura jakin bat xedatzen du: pertsona kal-tetuak, urtebete igaro baino lehen erreklamazio bat aurkeztu beharko du emaki-da egin zuen administrazioaren aurrean. Honek bitarteko funtzioa duenez, bi erabaki hauek hartu beharko ditu: bata, indemnizazioa bidezkoa den ala ez eta, bestea, indemnizazioa nork ordaindu behar duen. Horrez gain, administrazio organoaren erabakiak administrazioarekiko auzitarako bidea zabalik utziko du.

• Bestalde, apirilaren 8ko 923/1965 Dekretu bidez onetsitako aurretiko Estatuaren Kontratuei buruzko Legearen (LEE) 72.3 artikuluan xedatzen zenaren arabera, hirugarrenei eragindako kalteen indemnizazioa ordaintzeko obligazioa kontratistak zuen *«zerbitzuaren garapenerako beharrezkoak ziren eragiketen ondorioz»,* kalteak administrazioak emandako agindu batek zuzenean eragindakoak zirenean izan ezik. Azaroaren 25eko 3.410/1975 Dekretuak onetsitako Estatuaren Kontratazio Erregelamendu Orokorrak ere printzipio hau berresten zuelarik, horretarako prozedura arautzen zuen 134. artikuluan xedatutakoaren bidez: *«Kontratistak ordaindu beharko ditu obren exekuziorako beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteen indemnizazioa. Kalteak Administrazioak emandako agindu baten ondorio zuzena badira, erantzukizuna Administrazioarena izango da Estatuko Administrazioen Araubidearen Legeak finkatutako mugen barnean. Proiektuaren bizioek eragindako kalteen erantzukizuna ere Administrazioarena izango da. Hirugarrenek urtebeteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dituzte erreklamazioak kontratazio organoaren aurrean eta honek, kontratistari entzun ondoren, indemnizazioa bidezkoa den, zenbatekoa izango den eta*

*erantzukizuna norena den erabakiko du. Bere erabakiaren aurka administrazioarekiko auzitarako errekurtsoa aurkeztu ahal izango da «.*

Arau multzo honekin batera, toki administrazioaren esparruan, Udal Kor-porazioen Antolakuntza, Jarduera eta Araubidearen Erregelamendua (ROF) ones-ten duen azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuaren 223 artikuluan zer-bitzu publikoen funtzionamenduak edo bere agintarien, funtzionarien edo agen-teen jarduerak eragindako kalteen eta galeren gaineko erantzukizunak izaera objektiboa duela xedatzen da, arau orokor gisa. Erregimen honetatik salbuetsita geratzen da (224.1. artikulua): "*...toki Erakundeak industria bat edo Enpresa bat zuzenbide pribatuko pertsona juridiko gisa ustiatzen duenean...*", eta kasu hauetan erruagatiko erantzukizun zibilak eraenduko du. Toki administrazioek kontrataturiko zerbitzuen kasuan, Udal Korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua (RSEP) onesten duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 128.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, emakidadunaren obligazio orokorren artean, udal zer-bitzuaren funtzionamenduak hirugarrenei eragin diezazkieken kalteen indemni-zazioa ordaintzea dago, Korporazioak enpresa emakidadunari ezarritako klausu-lak betetzearekin zerikusia duten ekintzek eragindakoak direnean izan ezik.

• Administrazio Publikoen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Jardunbidearen Legeak (LRJAP eta PAE) erantzukizun administratiboaren erregimen objektiboa egiaztatzen du; baina ez du ezer aipatzen gure xede den gaiaren araubideari buruz. Hala ere, honi buruzko aipamen bat aurkitu dugu Ondare Erantzukizunari buruzko gaietan Administrazio Publikoen Prozedura Erregelamenduan. Bere 1.3 artikuluan aplikazio esparruari buruz ondorengoa esaten da: *«Erregelamendu honetako II eta III kapituluetan aurreikusitako prozedurak jarraituko dira Administrazio publikoek kontratuak exekutatzerakoan hirugarrenei eragindako kalteen erantzukizuna finkatzeko, Administrazioak zuzenean emandako agindu baten ondorio badira edo, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legeak (LEAP) xedatzen duena jarraituz, berak landutako proiektuaren bizio baten ondorio badira, bidezkoa denean legeak ezartzen dituen espezialitateen kalterik gabe. Edozein kasutan aurrez kontratistari entzungo zaio eta prozeduran burutuko diren jarduera guztien berri emango zaio, hauetara bertaratu ahal izan dadin, eskubidez dagozkion azalpenak eman ahal izan ditzan eta beharrezkoak iruditzen zaizkion froga guztiak proposatu ahal izan ditzan.*

• Lege esparrua osatzen duen beste xedapen bat maiatzaren 18ko indarreko Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 13/1995 Legea da (LEAP). Bere 98. artikuluaren arabera, hirugarrenei eragindako kalteen erantzukizuna kontratistarena da orokorrean: *«Kontratistaren obligazioa izango da kontratua exekutatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalteak indemnizatzea».* Printzipio honetatik salbuetsita geratzen da kalteak administrazioaren agindu baten ondorio zuzena direnean edo obra kontratuen edo fabrikazio horniduren kasuan, administrazioak landutako proiektuaren bizioen ondorio direnean. Bi kasu hauetan erantzukizun osoa kontratatu duen administrazioarena izango da.

Honela, hirugarrenek erreklamazioa noren aurrean aurkeztu behar duten eta zein prozedura jarraitu behar duten jakiteko aukerazko jarduera, kontratazio organoaren aurrean gauzatu dezakete. Prozedura hau Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen (LEAP) 98.3. artikuluan jasota dago; hirugarrenak aurkeztutako instantziarekin Hasten da, ondoren kontratistari entzuten zaio eta erantzukizuna zein alderdiri dagokion xedatzen duen erabakiarekin amaitzen da (98.3 art.). Hau erabakita dagoenean, erreklamazioa egingo da kasu bakoitzean aplikagarria den prozeduraren arabera (98.4 art). Honi dagokionez, erantzuki-zuna kontratatzen duen organoarena bada, prozedura administratiboa jarraitu beharko da. Baina erantzukizuna kontratatutako enpresarena bada, zabalik gera-tuko den bidea Kode Zibileko 1.902. artikuluan eta ondorengoetan jasotzen den kontratuz kanpoko erantzukizunei dagokiena da.

3. Jurisprudentziari dagozkion oharrak.

Administrazioaren erantzukizunean eragina duen alderdi honi buruz azken urteetan Auzitegi Gorenak egin duen interpretazioa jaso behar dugu laburki. Eten-gabeko jurisprudentzia errepikatuan bildu denaren arabera, ikus, beste batzuen artean, 1985eko apirilaren 2ko (RA 2.855), 1987ko urriaren 20ko (RA 8.676), 1989ko maiatzaren 9ko (RA 4.487), eta bereziki, 1995ko otsailaren 23ko (RA 1.280), 1995eko abenduaren 18ko (RA 9.408) eta 1996ko urriaren 25eko (RA 215) AGEak. Auzitegi hau, zerbitzu publikoen funtzionamendu normalak edo anormalak eragindako kalteei aurre egiteko administrazioaren obligazioan oina-rritzen da, zerbitzuen kudeaketa zuzena edo zeharkakoa den kontuan izan gabe. Honela, administrazioak antolamendu arrazoiengatik zeharkako kudeaketa auke-ratzen badu, erabaki honek ez du inolaz Konstituzioak xedatzen duen indemniza-zioa jasotzeko eskubidean aurkako eraginik izan behar. Horrela, Auzitegi Gore-nak dio *"Administrazioaren ondare erantzukizunaren izaera guztiz objekti- boak, edozein erruduntasun ideiatik urrun, bere eskuduntzen barruan zerbi- tzu publiko bat emateko jarduten duen Administrazioari, erantzukizun hau zerbitzua materialki exekutatzen duen kontratistari igarotzea galarazten dio, Administrazioak bere aurka burutu ditzakeen errepikapen ekintzen kalterik gabe"*.

Modu deskriptiboagoan Kantabriako Administrazioarekiko Auzitarako Auzitegi Goreriak 1995eko apirilaren 3an emandako eta 1996ko azaroaren 19ko epaiarekin (RA 1.655) eta Madrilgo Auzitegi Gorenaren 1996ko maiatzaren 9ko epaiarekin (RA 644) errepikatutako epaian, adierazgarria delako hemen azaltzen dugun hau jasotzen da: *"Hiritar bati, abandonatutako zakurrak jaso-tzeko zerbitzua, Administrazioaren aurreko ordainketa asmoa artikulatu ahal izateko emakidan dagoela jakitera ezin zaio behartu eta, zirkunstantzia hau kontuan izanik, emakidadun Udalari bide administratiboa kontuan izateko eta bidezko legeria aplikatzeko eskatu ahal izango zaio, horrela egiten ez bada bere portaeraren ondorioak jasango dituelarik eta bidezkoa iruditzen*

*bazaio emakidadunaren aurka egikaritu daitezkeen ondorio ekintzen kalterik gabe* «.

C. ONDORIOAK

Orain arte aipatu diren xedapenetatik ondorio hauek ateratzen dira kasu bakoitzean aplikatu behar den esparru juridikoari buruz:

1 . Administrazioaren ondare erantzukizuna objektiboa da, hau da, erantzukizun Akilianoa edo administrazioaren emaitzazkoa, erruduntasun ideiatik guztiz kanpo. Horrela, administrazioaren eskuduntzako zerbitzuek eragindako kalteen aurka hiritarrei bermatzen zaien ondare esparrua ez da mugatuko, zerbitzuak emateko aukeratzen den modua edozein izanik ere, hau da, burutzeko erabiltzen den forma juridikoa edozein izanik, zerbitzu publikoak eragindako kalteen ordainketan arrazoi honen ondoriozko edozein diskriminazio egiterik egongo ez delarik.

Honela, partikularraren ikuspuntutik ez da diferentziarik egongo, zerbitzu publikoaren kudeaketa edo obraren exekuzioa administrazio organoek zuzenean nahiz kontratista edo emakidadun baten bidez egiten dutenean.

2. Administrazioaren emakidadunen eta kontratisten ondare erantzukizuna finkatzeko eskumena duen jurisdikzioa administrazioarekiko auzitarakoa da, egintza administratiboaren bidez finkatzen baita erantzukizunik ba ote dagoen ala ez eta nori dagokion (NDLaren 123 art. eta EKEren 134.3 art).

Era berean, Administrazio Publikoen Araubidearen eta Guztientzako Admi-nistrazio Jardunbidearen Legeak (LRJAP eta PAE), araubidearen batasuna aitor-tzen du administrazioak zuzenbide pribatuko harremanean jarduten duenerako. Indargabetu zen Administrazio Jardunbidearen Legeko (LPA) 41. artikuluan xe-datutakoan ez bezala, 144. artikuluan ondorengoa xedatzen da: *«Administrazio Publikoek zuzenbide pribatuko harremanen arabera jarduten dutenean, be- ren zerbitzura dauden pertsonengan eragindako kalte eta galera guztien eran-tzukizuna izango du eta bere agindupean daudenen ekintzak Administrazio-arenak izango balira bezala izango dira kontuan. Erantzukizuna 142 eta 143. artikuluetan xedatutakoaren araberakoa izango da, kasu bakoitzean».*

Printzipio hau bera errepikatzen da Ondare Erantzukizunari buruzko gaie-tan Administrazio Publikoen Prozedura Erregelamenduaren (RRP) 2.1 artikulua-ren bukaeran: *«Erregelamendu honetan aurreikusitako prozedurak aplikatuko dira Administrazio publikoek Zuzenbide pribatuko harremanetan jarduten dutenean eragiten dituzten ondare erantzukizunak zehazterakoan ere».* Ho-rregatik, ikusitako xedapenetan oinarrituz, Udal Korporazioen Antolakuntza, Jarduera eta Araubidearen Erregelamenduko (ROF-RJEL) 224.1 artikulua, izae-ra pribatuko zerbitzuetarako esleitzen diren tokiko enpresa publikoei dagokienez bakarrik aplikatu behar da. Desberdintasuna enpresa publikoak burutzen duen zerbitzu motan datza, hau da, irispide publikokoa bada 223. artikuluko erregi-men orokorra aplikatuko da eta esparru pribatukoa bada Kode Zibilaren arauak jarraituko dira.

3. Esparru juridikoaren barnean, funtsezkoena zerbitzu publikoen kudeaketan eragindako kalteak sortu dituen subjektua finkatzea da: kontratua egin duen organoa edo kontratua exekutatzen duen kontratista. Aurrez azaldutako arauetatik ondorioztatzen den erregimena hau da:

- Arau orokorra Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen (LEF) 121.2 artikulua eta LEAEren 98.1. artikulua): Emakidadunak eta kontratistak, zerbitzu publikoaren edo kontratuaren exekuziorako beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte guztiak indemnizatu beharko ditu.

- Arau berezia: kalteak administrazioak zuzenean emandako agindu baten ondorio badira edo, derrigorrez bete beharreko klausula bat betetzearen ondorio badira, erantzukizuna administrazioarena izango da; gauza bera gertatuko da, obra kontratuen edo fabrikazio horniduren kasuan, administrazioak landutako proiektuaren bizioen ondorio direnean.

